

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila
Departamento de Didáctica de la Lengua y la Literatura

DOKTOREGO TESIA

ALEGIA KLASIKOAK EUSKARAZ:
ISOPETEKO, LA FONTAINEREN ETA
SAMANIEGOREN ALEGIEN BERRIDAZKETEN
AZTERKETA

Doktoregaia: Josune Beldarrain Agirre

Zuzendaria: José Manuel López Gaseni Dk. Jn.

Donostia, 2010eko ekainaren 30a

Aldez edo moldez,
honaino iristen lagundu didanari

AURKIBIDEA

<u>AURKEZPENA</u>	1
I. <u>ALEGIAREN KONTZEPTUAZ</u>	5
I.1. Alegia zer den	7
I.1.1. Alegiaren izenaz.	7
I.1.2. Alegiaren izanaz.	9
I.1.2.1. Alegia, pentsalari zaharren iritzian.	10
I.1.2.2. Alegia, pentsalari modernoek iritzian	11
I.1.2.3. Alegia, euskal pentsalarien iritzian.....	19
I.2. Alegia beste genero batzuen mugan	20
I.3. Alegiaren hartzaileaz	22
II. <u>ALEGIAREN HISTORIAZ</u>	27
II.1. Alegia, Greziar Aroan	32
II.2. Alegia, Erromatar Aroan	36
II.3. Alegia, Erdi Aroan	39
II.4. Alegia, Aro Modernoan	42
II.5. Alegia, Aro Garaikidean	43
III. <u>METODOLOGIAREN OINARRIAK</u>	49
III.1. Literatura-itzulpenari buruzko ikuspegiak	51
III.1.1. Itzulpenaren ikuspegi linguistikoa	52
III.1.2. Itzulpenaren ikuspegi filosofikoa	53
III.1.3. Itzulpenaren ikuspegi intertestuala.....	55
III.1.4. Itzulpenaren ikuspegi komunikatiboa	57
III.1.4.1. Berridaztea, manipulaztea: André Lefevere	62
III.2. Poesiaren itzulgarritasuna eta itzulezintasuna	68
III.3. Epilogo gisa	70

IV. <u>ESKEMA METODOLOGIKOA ETA ANALISI-FITXA</u>	73
IV.1. Testuinguruen deskripzioa	75
IV.2. Corpora eta iturriak	76
IV.3. Kritika	80
IV.4. Zabalkundea	80
IV.5. Testu mailako azterketa eta lagina	80
IV.6. Analisi-fitxa	81
V. <u>SORBURU-TESTUAK</u>	85
V.1. Isopeteko alegiak	87
V.2. La Fontaineren alegiak	87
V.3. Samaniegoren alegiak	100
VI. <u>EUSKAL BERRIDAZLEEN ALEGIAK</u>	115
VI.1. Aszetika eta alegiak	117
VI.1.1. Axular	117
VI.1.2. Tartas	119
VI.2. Euskal alegiagintzaren jaiotza	120
VI.2.1. Bizenta Mogel (1782-1854)	123
VI.2.2. Juan Antonio Mogel (1745-1804)	140
VI.2.3. Juan Mateo Zabala (1777-1840)	161
VI.3. Alegiak gaztelania eta frantsesa ikasteko	167
VI.3.1. Agustin Pascual Iturriaga (1778-1851)	170
VI.3.2. Jean Baptiste Archu (1811-1881)	193
VI.4. Martin Goyhetche (1791-1859)	205
VI.5. Ramon Etxezarreta (1808-1879)	220
VI.6. Alegiak Euskal Pizkunderako	220
VI.6.1. Gratien Adema “ZALDUBY” (1828-1907)	225
VI.6.2. Felipe Arrese Beitia (1841-1906)	240

VI.6.3. Ramon Artola Larrañaga (1831-1906).....	247
VI.6.4. Jose Artola Elizetxea (1864-1929).....	250
VI.6.5. Rosario Artola Elizetxea (1869-1950).....	251
VI.6.6. Juan Maria Roman Dornaku “BERA” (1878-1959).....	252
VI.6.7. Joseba Altuna Aldasoro “AMILGAIN” (1888-1971).....	253
VI.6.8. Ramon Intzagarai “ELURMENDI” (1878-1947).....	262
VI.6.9. Jules Moulier “OXOBI” (1888-1958).....	269
VI.6.10. Pierre Lanouguerre “Pette Zibero” (1896-1945).....	286
VI.6.11. Fabien Hastoy “Betzulako aize ephailia” (1869-1950).....	287
VI.6.12. Leon Leon “BERRIZ ARTE” (1896-1962).....	288
VI.6.13. Pierre Duni-Pétre “HEGITOA” (1914-2005).....	302
VI.7. Alegiak euskal irakaskuntzarako.....	303
VI.7.1. Santiago Onaindia “IGOTZ” (1909-1996).....	309
VI.7.2. Juan Anjel Etxebarria Martin “DIRAUKET” (1934-1996).....	313
VI.7.3. Josu Egea Otxoa de Angiozar (19--)... ..	315
VI.7.4. Jesus Mari Mendizabal Iraola “BIZARGORRI” (1949).....	325
VI.7.5. Delphine Lubet (19--)... ..	335
VI.7.6. Juan Manuel Etxebarria Ayesta (1948).....	335
VI.7.7. «LABAYRU» Ikastegia.....	338
VI.7.8. Iñaki Mendiguren Bereziartu (1954).....	339
VI.7.9. Manuel Arregi (19--)... ..	340
VI.7.10. Koldo Biguri (1962).....	347
VI.7.11. Irudidun alegien berridazleak.....	357
VI.8. Alegia bat edo beste euskaratu duten berridazleak	365
VI.9. Epilogo gisa: 2003tik aurrerako alegiak.....	367
VII. <u>ONDORIOAK</u>.....	371
<u>BIBLIOGRAFIA</u>	381
<u>ERANSKINAK</u>	409
1. Euskal berridazleak eta haien iturri klasikoak zenbakitan	411
1.1. Esoporen alegiak euskaraz	413
1.2. Fedroren alegiak euskaraz	432
1.3. <i>Isopeteko</i> alegiak euskaraz	438

1.4. La Fontaineren alegiak euskaraz	444
1.5. Samaniegoren alegiak euskaraz.....	461
2. Alegia klasikoen arteko baliokidetzak	479
2.1. Esopo (Chambry)	480
2.2. Fedro.....	489
2.3. <i>Isopete</i>	495
2.4. La Fontaine.....	501
2.5. Samaniego	513

LABURDURAK

AB	Felipe Arrese Beitia
Ad	Gratien Adema
Alt	Joseba Altuna Aldasoro
Ar	Jean Baptiste Archu
Arr	Manuel Arregi
Bi	Koldo Biguri
BM	Bizenta Mogel
EEE	Euskal Editoreen Elkarte
Eg	Josu Egea
Eso	Esopo
FCB	Fonds Celtique & Basque
Fe	Fedro
Gy	Martin Goyhetché
HGL	Haur eta Gazte Literatura
hibri	hibridoa
hl	hitz lauz
hn	hitz neurtuz
In	Ramon Intzagarai
Isop	<i>Isopete</i>
Itu	Agustin P. Iturriaga
JAM	Juan Antonio Mogel
Le	Leon Leon
Lf	La Fontaine
Men	Jesus Mari Mendizabal
Mou	Jules Moulrier
OEH	<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i>
RBPL	<i>Revue des Basses-Pyrénées et des Landes</i>
RIEV	<i>Revista Internacional de los Estudios Vascos. Revue Internationale des Études Basques</i>
Sam	Samaniego
SH	Sorburu-hizkuntza
ST	Sorburu-testua
XH	Xede-hizkuntza
XT	Xede-testua

ALEGIA

Alegia, pertsonaiatzat animaliak dituen ipuin laburra da. Baliteke pertsonaiak gizajendea izatea ere. Beraz, alegiak pertsonaiatzat animaliak dituzten ipuin laburrak dira.

⇒ ERREGIA

ERREGIA

Baten batek izendatuko zuen eta, lehoiak esan zuen:

—Neu naiz erregea !

Orduan animaliek esan zioten:

—Nortzuk izendatu zinduten ba errege?

—Saiek, zakurrek, harrek...

—Orduan zeure kontura bizi direnek izendatu zinduten errege...

—Bai, baina beste batzuek ere izendatu ninduten errege...

—Nortzuk?

—Oiloek, arratoiek, tximinoek...

—Orduan bildurra dizutenek ere onartu zinduten.

—Bai ba!

—Orduan, zeure kontura bizi direnena eta bildurra dizutenen erregea izango zara akaso, baina ez zara gure erregea !

Joseba Sarrionandia, *Hitz-en ondoeza* (1997)

AURKEZPENA

AURKEZPENA

Eskuartean duzun lana Psikodidaktika programako Haur eta Gazte Literatura ikerketa-ildoaren esparruan kokatzen da. Ikerketa-ildo horretan, lan honen aurrekari eta oinarri gisakoak diren tesi batzuk argitaratu dira, hala nola Etxaniz Erleren *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia* (1997), López Gaseniren *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak* (2000) eta Gomez Zubiaren *Grimm anaien Kinder- und Hausmärchen euskaraz: itzulpenen eta egokitzapenen azterketa* (2004). Lan hau beste hiru horien ildotik dator, Euskal Haur eta Gazte Literaturaren jakintza-arloari eta ikerkuntzari ekarpena egitera.

Alegia klasikoen euskal berridazketak hartu nituen ikergai tesi-egitasmoa aurkeztu nuenean. Izan ere, alegiagintzari eta, horrenbestez, literatura didaktikoari, zor zaio, neurri batean, Euskal Haur eta Gazte Literaturaren jaiotza. Halaber, zabalkunde handiko generoa izan zen Euskal Herrian, XIX. mendean eta XX. mendearen lehen herenean, eta ahulduz joan den arren, oraindik ere berrargitaratzen dira alegiak.

Lan honi ekin nionean, alegia klasikoen euskal corpora biltzea izan nuen lehenengo helburua. Hala, bada, Esopo, Fedro, *Isopete*, La Fontaine eta Samaniegoren alegien euskal berridazketak jasotzen hasi nintzen. Baita, modu lausoan bazen ere, iturri klasikoren bat edo beste beren baitan ezkutatzen zuten alegiak ere. Hala, Bizenta Mogelen lana dugu lehena, 1804koa, eta Koldo Bigurirena azkena, 2003koa, corpora ixten duen urtekoa, hain zuzen.

Lan honen beste helburuetako bat izan da euskal berridazketak zer-nolakoak diren aztertzea. Hots, egileen berridazketa-moduak eta estrategiak aztertzea, eta halakoak erabiltzeko arrazoiak bilatzea, garaian garaiko hertsaketen baitan, hala nola ideologia, poetika eta hizkuntza.

Lehenengo kapituluan, beraz, alegia zer den argitzen saiatu naiz, pentsalari zaharren eta modernoek definituak eta ikuspuntuak aintzat hartuta.

Bigarren kapituluan, genero honen historia eta bilakaera Mendebaldean nolakoak izan diren zehazten ahalegindu naiz.

Hirugarren eta laugarren kapituluetan, alegien azterketa egiteko oinarri metodologikoa garatu dut. Itzulpenaren ikerkuntza-ikuspegi askotarikoen artean, ikusmolde komunikatiboaren baitan garatutako Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboaren esparru orokorrean kokatu dut neure egitekoa, eta, zehazkiago, André Lefeverek garaturiko berridazketaren kontzeptuari eta itzulpena mugatzen dituzten hertsaketei arreta berezia jarri diet.

Hurrengo bi kapituluak analisi-fitxaren baitan idatzitako kapituluak dituzu. Bosgarrenean, *Isopeteko*, Jean de La Fontaineren eta Félix M^a Samaniegoren alegien testuinguruak, corpusa eta iturriak, kritika eta zabalkundea iruzkindu ditut. Seigarrenean, alegia klasikoek euskal berridazleen lanak aztertu ditut, alegiak argitaratu edo idatzi zituzten data kontuan hartuta, hurrenkerarako.

Euskaraz berridatzitako alegia klasikoek deskribapena eta analisisa buruturik, ondorioak dituzu zazpigarren kapituluan.

Hurrengo atalean, erabilitako bibliografia eskaini dut.

Eranskin batzuek osatzen dute azken atala. Tesi honi behar bezala ekiteko, informazioa antolatzen lagundu didate, eta kontsulta gisa erabil ditzakete etorkizunean euskal alegiagintzara hurbiltzen diren irakurle eta ikertzaileek.

I. KAPITULUA

ALEGIAREN KONTZEPTUAZ

I. ALEGIAREN KONTZEPTUAZ

I.1. Alegia zer den

Izanaren itzala ohi dugu izena. Izenetik hasi behar, beraz, izana hobeto zedarritzeko.

I.1.1. Alegiaren izenaz

Termino bat baino gehiago erabili zen Grezia klasikoan alegia izendatzeko. *Aisopeioi lógoi* erabili zen gehien; baina, bi hitz zituelako, deseroso gertatzen zen, eta, hizkuntza-ekonomiaren legearen indarrak, beste batzuk erabili ziren, hala nola *ainos*, esan nahi baitzuen *kontakizun-ipu*in eta, baita ere, *igarkizun*. Beste bi termino ere erabili ziren: *lógos* eta *mýthos*. *Aínosek* baino esanahi generikoagoa zuten bi hitz horiek; *igarkizunaren* konnotazioak galduak zituzten. Grekoz ez zen, beraz, esamolde berezi bakarra egon alegia genero gisa izendatzeko; izendapenaren zehaztasun eza aintzat hartu behar da alegia definitzeko orduan (Morocho, 1994: 17-18).

Latinez, bestalde, *fabula* dugu generoaren izena, eta aldi berean *berbaldi* edo *solas* eta *kontakizun* adierazten ditu. *Fabula* izena, *fari* latin aditzetik dator, hots, *berba egin*; baita *phao* aditz grekotik ere, *berba egin*, halaber. Azken buruan, *bha* edo *bhas* erro sanskritoari dagokio bete-betean, hau da, *oihu egin* edo *esan* (Aguilera in *Esopo y Fedro*, 1967: 7).

Gure inguruko hizkuntzetan latin-mailegua hartu da generoa izendatzeko: gaztelaniaz, *fábula*; frantsesez, *fable*; ingelesez, *fable*; italieraz, *favola*; alemanez, *Fabel*; eta abar.

Euskaraz ere hartu da latin-mailegua zenbait adieratan: *fable* erabili zuen Joannes Leizarragak¹ *esames* edo *zurrumurru* hitzen ordain gisa; *fablia* eta *fabula* erabili zituen Tartasek², literatura-generoa adierazteko; *fable*, *fabletto*, *fabledegi* eta *fablegile* Goyhetchek, literatura-generoaz eta alegialariez jarduteko; *fabula egile* baliatu zuen Elissamburuk³ La Fontaineren ofizioa adierazteko.

Dena dela, beste hitz batzuk erabili dira euskaraz, hala nola *kontu*, *ipuin* eta *alegia*. *Fablek* eta *fabulak* baino maiztasun handiagoa agertzen dute hitz horiek euskal literatura-tradizioan:

- *Kontu*. ‘Contua’ agertzen da Landuchioren hiztegian (1562/1958) ‘Cuento como fábula’ sarreraren ordain gisa. Halere, *kontuk* gehienetan esanahi gaitzesgarria du, *berriketa* edo *esames* adierazten duenez gero.
- *Ipuin*. Bizenta Mogelek erabili zuen, beharbada, lehenbiziko aldiz literatura-generoaren esanahi berezituarekin, *Ipui onac* liburuan. *On* izenondoa ipini zien tradiziozko kontakizun, kontu zahar eta bestelako kondairetatik bereizteko. Hortik eratorriak ditugu, nolana den, *ipuinlari*, *ipuizale* eta *ipuingin*, genero honen idazlea hizpide denean.
- *Alegia*. Adiera asko ditu hitz horrek euskal tradizioan, besteak beste, *disimulu*, *engainu*⁴. Darabilgun literatura-generoaren adiera berezitua zuela, ordea, Archuk erabili zuen, beharbada, lehenbiziko aldiz La Fontaineren alegien itzulpenean, eta geroztik, apurka-apurka, *alegia* gailendu da euskal literatura-tradizioan eta literatura-terminologian.

¹ *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berrian* (1571): “Eta egiatik beharriak itzuliren baitituzte, eta fabletara emanak izanen baitirade” (1990: 1035).

² *Onsa hiltzeco bidian* (1666): “Aesopus, espiritu alegera, eta plazent hark, kondatzen du ederki bere librian, eta bere fabuletan, egun batez lehoiña, baita animal ooren erregia, eta noblena eritu zela...” (1911: 39).

³ *Framazonaken*: “La Fontaine fabula egile edo berri-xahar khondatzailea, bizi izan balitz...” (1890: 106).

⁴ Joannes Haraneder-en adibide hauetan: *Begira zaite bietakotasun eta alegia guzietarik. Mintza zaite alegiarik eta disimularik gabe* (ikus bedi *Orotariko Euskal Hiztegia* ‘alegia’ sarrerako 4. adiera).

Gaur egungo hiztegiatarra etorrita, Sarasolak honela ematen du alegiaren definizioa: “Ipuina edo elezaharra, gehienez hitz neurtuetan moldatua, pertsona gisa jokatzaren diren animaliak edo gauzak agertzen direna eta ondorioztat ikasbide edo irakaspen morala ematen duena” (*Euskal hiztegia*, 2007).

Xabier Altzibarrek, Euskaltzaindiak argitaraturiko *Literatura terminoen hiztegia* (2008: 30), honela: “Alegiak kontakizunak dira, maizenik abereak dira protagonistak, eta irakastea dute helburu (bizitzako gauzak, ohitura onak eta abar). Kontakizunari aterabide morala⁵ darraio, bukaeran formulatua batzuetan (gazt. *moraleja*, fr. *moralité*)”. Hiztegi berean *fabula* terminoa ageri da, Ur Apalategik azaldua: literatura-kritikak bereganatu dituen beste esanahi batzuetarako utzi da hitz hori; adieretako bat antzertiaren esparruko *mythos* aristotelestarrari eta errusiar formalisten formulazioei lotua, eta beste batzuk narratologiaren esparruari uztartuak. Jakina, adiera horiek ez dira lan honen alorrekoak.

I. 1. 2. Alegiaren izanaz

Adituen artean ohikoa da adieraztea ezen alegiaren definizio bat proposatzea uste dena baino gauza ondotoz zailagoa dela. Halako definizio zehatz bat emateko bi koska handi berdindu behar dira: lehena, modu egokian zedarritzea genero mugakideekin –hala nola parabola, alegoria, enigma, esaera zaharra, anekdota eta

⁵ Gazt. *moraleja*, fr. *moralité*, ing. *moral*, al. *Moral*. Euskaraz, tamalez, ez dago hitz adosturik termino hori adierazteko. Berbok ditugu OEHN jasoriko literatura-tradizioan (hiztegi horretako laburdura sistemari jarraitu diot, obrak eta egileak aipatzean), nola edo hala, kontzeptu hori agertu nahi dutenak:

- **Aterakizun.** *Baña azkenean irakurririk ipuiaren aterakizun ta ondoren ederra, [...] oroitzen ninzan erle dontsuaz.* (VMg XI)
- **Ondoren eder.** *Baña azkenean irakurririk ipuiaren aterakizun ta ondoren ederra, [...] oroitzen ninzan erle dontsuaz.* (VMg XI)
- **Esangura.** *Badakit erdiz erdi artuten zaitubala ipuin onen esanguriak.* (Mg PAb 103)
- **Ondorengo on.** *Ondorik ta ondorengo onik ez zekarten ipui eroak.* (VMg X)
- **Erakuspen edo moraleja.** *Mor-morrian ekiteko oitura daukonari ziri gogorra sartzen dautso azkeneko erakuspen edo moraleja ederrean.* (Alzola ZArg 1957, 303)
- **Ipuinondo.** *Bildur naiz, ipuiñondoa ulertu ez ote duzun!* (Izarraizpe EG 1959 (1#-2), 60)

Adiera hori ematea helburu dutela, honako hitz hauek ditugu, berriki sortuak, egile eta hiztegiaren modernoan testuetan:

- **Hitzaldi ondo.** *Hitzaldi aurreak eta hitzaldi ondoak ez dira egokiera erosoak izaten berriketa lasairako.* (MIH 144. |=| Moraleja)
- **Ikasbide.**
- **Irakaspen.**
- **Ikaskizun.**
- **Erakutsi.** *Alegiaren erakutsia (Zehazki hiztegia, ‘moraleja’ sarreran).*
- **Aterabide.** “Kontakizunari aterabide morala darraio, bukaeran formulatua batzuetan (gast. moraleja, fr. moralité)” (*Literatura terminoen hiztegia*, ‘alegia’ sarreran).

animalia-ipuina mirezgarria, besteak beste— alegiak dituen aldeak eta berezko dituen ezaugarriak; bigarrena, definizioa modu zabalean adieraztea, alegiak historian barrena izan dituen forma ugariak generoaren barnean sar daitezzen (García Gual, 1978a: 7).

I. 1. 2. 1. Alegia, pentsalari zaharren iritzian

Aristoteles izan zen alegiaz teorizatzen lehena (K.a. IV. mendean). Ez zuen definizio zehatzik eman. Baina, haren esanez, alegia kontakizun bat da, erraza asmatzen, nahikoa baita antzekotasunean oinarritzea, eta oso egokia herri xehearen aurrean egiten ziren hitzaldi politikoetan tartekatzeke, pertsuasiorako etsenplu gisa (*Retórica* II, 20). Bereizi egin zuen benetako gertakariak kontatzen dituzten etsenpluetatik, alegian kontatzen dena beti asmatutakoa delako. Literatura-generotzat baino gehiago hizlarien baliabidetzat jo zuen Aristotelesekin alegia.

Erretoriko grekoek (Teon, Aftonio, Temostios...) baliabide huts gisa landu zituzten alegiak, erretorika-eskoletako ariketetan hizlariak trebatzeko. Teonen arabera, alegia da egia bat sinbolizatzen duen konposizio edo diskurtso faltsu bat⁶ (Teon, 1991: 73 eta 1997: 30).

Erromatar erretorikoek (Kintilianok-eta, K.o. I.lean) bi termino erabili zituzten: *fabula* (tragedia) eta *fabella* (alegia). Goi asmokotzat zuten tragedia; genero apaltzat, berriz, alegia, herri xehe ezjakinararen aurrean pertsuasio gisako bitartekotzat (Mañas in Fedro et Aviano, 1998: 27). Kritikok, oro har, ez zuten *fabella* estimu handitan.

Kintilianoren garaikide Fedro alegialariak⁷ ere, *fabella* terminoa erabili zuen bere alegiez jardutean. Baita *neniae*⁸ eta beste zenbait hitz ere, hala nola *iocus*, *iocari*, *iocularis* edota *ludere*⁹ (ibidem: 28-29). Izendapen horiek irakurrita irudi luke poetak onartu egiten zuela erretorikoen ikuspuntua. Honako bertso hauek irakurrita, ordea, ikus daitezke alegia poesiaren mailara ekartzeko asmoa agertu zuela Fedrok:

⁶ Bai gauza bitxia: Teonen definizioan bezala, *egia* hitza dakar 'alegia' hitzari egotzi ohi zaion euskal etimologiak (OEH): "Parece natural pensar que alegia (aunque en ninguna parte lleva h-) no es otra cosa que hala egia, litm. 'así es la verdad'." Bestalde, alegiaren zenbait adiera (*disimulu*, *engainu*) ondo uztar daitezke Teonen definizioko *falstu* izenondoarekin.

⁷ Fedrok alegiaz zer esan zuen jakiteko oso lagungarriak gertatu zaizkit Mañasen edizioa, itzulpena eta oharrak (Fedro eta Aviano, 1998). Latinezko testua Segalá y Estalellatik atera dut (Fedro, 1984). Inoiz Juan Anjel Etxebarriaren euskal bertsoak (1965, 1966) erabili ditut.

⁸ *Zirtzilkeriak*, *huskeriak*.

⁹ *Jolasaren* eta *txantxaren* alor semantikokoak.

Aesopus auctor quam materiam repperit,
Hanc ego polivi versibus senariis. (I. lib. Prol. 1-2)¹⁰

Ildo berean, alegiak arte-kategoriara igo nahi zituelako frogatzat har daiteke ‘docto labori’ esamoldea, bertso-lerro hauetan:

Quid credis illi accidere, qui magnas opes
exaggerare quaerit omni vigilia
docto labori dulce praeponens lucrum? (III. lib. Prol. 24-26)¹¹

Baita arrunkeriaren eta ezjakintasunaren arbuio-adierazpen hau ere:

inlitteratum plausum nec desiro (IV. lib. Prol. 20)¹²

I. 1. 2. 2. Alegia, pentsalari modernoan iritzian

La Fontaine maiz mintzatu zen bere alegia-liburuetako paratestuetan alegiaren izaera, osaera eta moldaeraz. Alegiaren definizio moduko bat utzi zigun, bertsotan, moral hutsari eta kontakizun soilari kontrajarriz:

Les fables ne sont pas ce qu’elles semblent être:
Le plus simple animal nous y tient de maître.
Une morale nue apporte de l’ennui;
Le conte fait passer le précepte avec lui.
En ces sortes de feinte il faut instruire et plaire,
Et conter pour conter me semble peu d’affaire. (La Fontaine, 1991: 209)

La Fontaineren iritzian, hortaz, alegia fikziozko kontakizun bat da, irakaspen bat gorderik duena eta animaliak protagonista dituen. Halaber, zaindu beharreko betekizun bat egozten die alegiei: irakastea, baina atsegin emanaz.

Hala, alegialari frantsesaren hitzez, apologo edo alegiak bi alderdi ditu:

L’apologue est composé de deux parties, dont on peut appeler l’une le corps, l’autre l’âme. Le corps est la fable ; l’âme la moralité (ibidem: 9).

Fedrok eta bestek bezala, La Fontainek ere laburtasuna azpimarratu zuen alegiaren ezaugarri oinarritzko gisa: “la brèveté, qu’on peut fort bien appeler l’âme du conte, puisque sans elle il faut nécessairement qu’il languisse” (ib.: 5).

Nahiz eta nagusiki animaliak jo zituen alegietako protagonistatzat, zilegi jo zuen La Fontainek gizakiak eta landareak ere alegietako protagonista izatea (ib.: 9).

¹⁰ Juan Anjel Etxebarriak honela euskaratu zuen: “Esopo idazleak aurkitu zun gaia / nik seiko neurtitzetan landu dot.” (1966: 7).

¹¹ Mañasen gaztelaniazkoari jarraituz (1998): “Zer uste duzu gertatuko zaiola, era guztietako ardurak hartuz, metatzea beste helbururik ez duenari, irabaziak lehenetsiz literatura-lan jakintsuei?”

¹² Mañasi jarraituz: “Ez dut ezjakinen txalorik nahi”.

Nabarmendu zuen, bestalde, animalien ezaugarrietan gizakionak ispilatu eta ikusiz gero, alegietatik argudio-bideak eta irakaspenak ateratzen direla (ib.: 8): “Je me sers d’animaux pour instruire les hommes”¹³.

Gotthold E. Lessing-ek alegiei buruzko kritika-lana idatzi zuen bost saiakeratan, *Abhandlungen über die Fabeln* (Berlin, 1759) izenburu orokorraren pean. Horietatik lehenengoan¹⁴ esan zuen alegia esopoarra fikzio edo asmazio bat dela, helburu edo jomuga bat duena¹⁵.

Esopok benetako gertaerak oinarri hartuta egin ohi zituela alegia gehienak diosku Lessingek: Esopok ulertarazi behar zuen zer nolako antza zuten elkarren artean benetan gertatutakoak eta hark asmatutako istorioak. Biotatik, gertatutako pasadizotik eta asmatutako istoriotik, egia bera ateratzen da. Esoporen jarraitzaileek, aldiz, asmatu egiten zituzten alegietako istorioak eta, hala, egia orokor bat argitzen zuten (Lessing, 1990: 243).

Bestalde, alegiak eskolan izan zezakeen erabilera bereziaz jardun zuen. Erabilera heuristikoz, asmatzearen arteari lotutako erabileraz, hain zuzen. Heziketa garaian alegiak asmatuz talentua eskuratuko zuten gaztetxoek, Lessingen ustez. Izan ere, Lessingen esanetan, antzinateko hizlariak atarramendu txikia atera zieten alegiei beren ariketekin. Hori dela eta, egokiagoa iruditzen zitzaion eskolan, gaztetxoei alegiak asma zitzaten agintzea, zeren ukazina baita, alemaniar filosofoaren aburuz, berdinak direla alegiak asmatzeko bidea eta asmatzaileek oro har erabiltzen duten bidea. Bide hori *erredukzioaren printzipioan* oinarritzen da. Printzipio horrek zailtasun handiak ditu, gauzen ezaugarri berezkoak jakitea eskatzen baitu. Horregatik, gaztetxoei oinarri zabala eskaini behar zaie alde zurretik: Naturaren historian dago oinarri hori.

Gainera, Lessingek oker iritzi zion alegiekin poesia egiteari: generoak gai berriak behar zituen, ez forma berririk. Esoporen artea aintzatetsi zuen Fedroren eta La

¹³ Baita Rochefoucauldeko Dukeari egindako solas batean ere: “Je me suis souvent dit, voyant de quelle sorte / L’homme agit et qu’il se comporte / En mille occasions comme les animaux : / Le Roi de ces gens-là n’a pas moins de défauts / Que ses sujets, et la nature / A mis dans chaque créature / Quelque grain d’une masse où puisent les esprits : / J’entends les esprits corps, et pétris de matière.” (*op. cit.*: 418). Eta Bourgozneko Dukeari egindako eskaintzan ere bai: “Les animaux sont les précepteurs des hommes dans mon ouvrage” (ib.: 449).

¹⁴ “I. Von dem Wesen der Fabel”.

¹⁵ “[die Aesopische Fabel] ist eine Erdichtung, die auf einen gewissen Zweck abzielet” (Lessing, 1970: 37).

Fontaineren arteen aurretik, maite zituelako antzinateko alegien bakuntasuna eta soiltasuna. Horren harira, azpimarratu zuen aro arkaikoan filosofiaren esparruan kokatu zela alegia, eta geroago, jada ikusi dugunez, erretorikoek beren esparrukotzat jo zutela, eta Aristotelesek ere *Erretorikan* jardun zuela alegiaz eta ez *Poetikan* (Lessing, 1970: 82). Hortaz, ironiaz eta destainaz mintzatu zen La Fontainez eta haren jarraitzaileez: “[La Fontainek] Lortu zuen alegia bihurtzea musika-kutxa bateko poesia-mekanismo xarmagarri bat, liluratu zuen, imitatzaile samalda bat izan zuen; ez zuten halakoek inoiz ere pentsatuko hain erraz lor zezaketenik poeta izena, bertso alaiz ondutako eta beratzen jarritako alegia batzuen bitartez”¹⁶.

Ikusi dugunez, helburua zuen Lessingek alegiaren muintzat, alegiak erakutsi nahi duen egia hori; halaber, laburtasuna, zehaztasuna eta apaindurarik eza.

Wienert-ek (1925) ere egiari eman zion garrantzia, baina irakurleak ondorioztatu behar du egia hori, gogoia aktiboki darabilela. Alegiaz emandako definizioan¹⁷ irakur dakiok hori: “ekintza zehatz baten kontakizuna, zeinetatik atera behar baita moralaren edo bizitzari buruzko jakituriaren alorreko egia bat, entzuleak bere adimena aktiboki darabilela”.

B. E. Perryk *Aesopica* bere liburuan, generoaren definizio bati begira zenbait ezaugarri nabarmendu zituen: alegia fikziozkoa da; alegia behialako gertaera batez ari da; alegia helburu moral, parenetiko edo pertsonal bat duela kontatu behar da (1952: IX). Perryk zabaldu egin zuen, azken ezaugarri hori dela eta, Lessingen ikusmira estua. Helburu bat duela kontatu behar da alegia, baina helburu horrek ez du nahitaz egia morala izan behar: asmo aholkatzaile, kargu hartzaile, ohartarazle edota pertsonala izan daiteke.

Edozein modutan, helburua azpimarratu zuen B. E. Perryk ere, irizpide nagusi gisa, alegiaren definizio bat taxutzeko orduan “Fable” artikuluan: “The best criterion with reference to which one may define a class or a literary genre for matter it is the purpose which the story serves or seems to serve” (1959: 20). Eta adierazi zuen helburua oinarritzkoagoa dela narrazioaren edukia baino, generoa arautzeko orduan (ib.).

¹⁶ Ihm gelang es die Fabel zu einem anmutigen poetischen Spielwerke zu machen, er bezauberte, er bekam eine Menge Nachahmer, die den Namen eines Dichters nicht wohlfeiler erhalten zu können glaubten als durch solche in lustigen Versen ausgedehnte und gewässerte Fabeln... (Lessing, 1970: 83)

¹⁷ “Erzählung einer konkreten Handlung, aus der eine Wahrheit der Moral oder Lebensklugheit durch die aktive Tätigkeit des Geistes der Zuhörer gewonnen werden soll” (Wienert, 1988: 49).

Aristotelesek bezala, baliabide erretorikotzat jo zuen Perryk alegia, tresna soiltzat, berez ez baitzen sortua izan literatura-forma beregain moduan, eleberria eta drama ez bezala (ib.: 24). Hala, bada, Teonen eta gainerako erretorikoen definizioa iruditu zitzaion definiziorik onena: “a fictitious story picturing a truth” (ib.: 22). Egia kontzeptua Perryren hitzetan da “a general proposition relating to the nature of things or to types of human character or behavior, with or without an implied moral exhortation” (ib.). Alegiak, beraz, aholku morala izan dezake edo ez.

Janssens-en esanetan, kontakizun labur bat da alegia, prosaz zein bertsoz eman daitekeena, eta helburutzat duena irakastea, egia bat agerian ezartzea, arau bat adieraztea. Istoriotxo baten bidez gertaera jakin bat argitu eta ondorio logiko bat eskaintzen du, frogapen baten indarra eta erakutsi baten balioa dituen (1955: 7). Alegia batetik ondorioztatzen den ikasgaia esakun baten bidez adierazi ohi da, edota, bestela, indukzioz ulertzen da: irakaspena da hori.

La Fontainek aspaldi adierazi bezala, generoaren bi osagai nagusiak, irakaspen morala eta fikzioa, bereizi zituen Janssenssek, eta haien arteko loturak agerian jarri: irakaspen morala da xedea, eta fikzioa, bitartekoa. Bi osagaiak dira beharrezkoak: irakaspenik gabe ipuin soila litzateke alegia; fikziorik gabe, berriz, maxima bat baino ez (ibidem).

Askotariko pertsonaiek dute alegia antzezlekutzat Janssenssek dioskunez: jainkoek, gizakiek, basapiztiek, landareek, objektuek eta abstrakzio pertsonifikatuek. Halere, animaliek dute lehentasuna alegietan. Alegietan izaera aldaezinak egozten zaizkie animaliei, beren izaerarekin harreman estuan daudenak (lehoia maiestatetsua da; otsoa, basa; azeria, maltzurra...). Sinbolismo hori berezkoa dute, jaiotzetikoa da, konbentzionala baino areago.

Nøjgaard-ek antzinateko alegiaren definizio bat eman zuen bere doktoregotesian (1964, I: 82): “un récit fictif de personnages mécaniquement allégoriques avec une action morale à évaluation”. Ebaluatu beharreko ekintza moral hori izateak bereizi egiten ditu alegia eta animaliak darabiltzaten beste genero batzuk, Nøjgaarden ustez.

Bilduma *augustanako* alegiarik sinpleenak hartu zituen aztergai eta, analisiaren ondorioz, hiru aldi bereizi zituen alegietan:

1. Sarrera. Egoera ulertzeko eta egiantzekotasuna izateko beharrezko diren informazio guztiak biltzen dira sarreran. Hau da, pertsonaiek ingurumariarekin edo/eta haien artean duten harremana.
2. Nukleoa. Pertsonaien arteko gatazka, pertsonaiak hautatze-ekintzara bideratuko dituen. Ezinbestekoa dute pertsonaiek hautatze-ekintza gatazka-aldi honetan.
3. Bukaera. Hautatutako portaeraren ebaluazioa. Hautuak arrakasta edo porrota dakarren, hots, hautuaren alde pragmatikoak, agerian utziko du zer nolako ebaluazioa egin (ibidem: 141-151).

Horrenbestez, alegiaren erakutsia eta hautatze-ekintzaren ondorioa bat datoz, eta ebaluazioa, ondorioz, kontakizunaren bilbean edo garapenean txertaturik dago. Irakaspena egon daiteke edo ez: kontakizunaren ondorioa esaera orokor baten bidez adierazteko aukera bat baino ez da.

Dena dela, zenbait adituk diote definizio estuegia dela Nøjgaardena, horien artean Rodríguez Adrados-ek. Haren ustez, Nøjgaard muga zorrotzak ezartzen saiatu zen alegiaren eta beste genero batzuen artean (hala nola, simila, alegoria, maxima, etiologia, mitoa eta abar), malgutasunik gabe, ez baitzen gai izan onartzeko kontakizun jakin bat bi generotan sailka daitekeela aldi berean, zer-nolako ingurumarian agertzen den. Halaber, Adradosen deitoratu zuen Nøjgaarden definizioak ez aipatzea alegiaren izaera satirikoa eta kritikoa. Are irmoago gaitzetsi zituen Adradosen definizioak *action morale* eta *évaluation* esamoldeak; izan ere, egon badago alegia moralzale gisako bat, baina halako alegiak bazterreko osagai izan dira alegia-bildumetan.

Hala, bada, Rodríguez Adradosen zeregin zailtzat jo zuen alegiaren edukia eta forma zedarritzea, bi ikuspegi desberdin daudelako lehian, alegiaz ari garenean: ideia modernoa eta ideia zaharra (1979: 17). Bildumetatik dator, hain zuzen, ideia zahar hori, Demetrio Falerokoak, K.a. IV.ean, egin zuen lehen bildumatik eta geroztiko bildumetatik. Anekdotak, ipuinak, nobela, maxima, txiste eta abarrekin nahasian agertzen ziren animalia-alegiak bilduma haietan:

Efectivamente, estas colecciones modelo contienen a más de fábulas animalísticas (y de fábulas en que intervienen plantas), otras en que se narran relatos relativos a dioses u hombres y que podemos calificar alternativamente de mitos o anécdotas; o bien de cuentos, novelitas, etc. (ibidem: 17).

Alegiaz gaur egun dugun ideia, alegietan animaliak protagonista direlako ideia moderno hori, ordea, La Fontainek eta haren jarraitzaileek XVII. mendetik hona egindako bildumetatik dator. Animalia-alegiak jaso zituzten, batez ere, alegialari haiek. Eta tradizioaren zaharberitze horretan, Adradosen ikerketen arabera, antzinako bilduma-ereduetako gaitegi zabala murriztu egin zen.

Horregatik, bada, alegiaren esanahia erabat zehazten da, Adradosok dioenez, soil-soilik jatorria eransten zaionean: ‘alegia esopoarrak’, ‘La Fontaineren alegiak’ eta abar (ib.: 18).

Hala eta guztiz ere, alegiaren funtsak denboran barrena iraun duela dio. Funts hori zer den zehaztu nahian, Adradosok estrukturalisten mugei eta murriztapenei muzin egin, eta zabal eta malgu jardun zuen. Lehen alegia-bilduma haietatik abiatu zen Adrados definizio bila, eta honela adierazi zuen: “la fábula es eso, un segundo término, un ejemplo, al servicio de un primer término” (ib.: 43). Izan ere, antzinatean adibide gisa erabiltzen ziren, gertaera bat argitzeko.

Hori argi edukita, beste kontu bat da zehaztea zein diren bildumetako alegien ezaugarri komunak, sarrienak, nahitaezkoak eta ez hain nahitaezkoak. Adradosok zenbait ezaugarri oinarritzat jo zituen. Hona, ezaugarriok:

- Edukiari dagokionez, alegia errealista da, satirikoa, idealismo orotatik urrundua; izan ere, greziar literaturan, genero janbiko eta komikoen esparruan kokatu zen genero hau, genero epiko eta tragikoen aurkako aldean.
- Izaerari dagokionez, alegiak kontatzen duena sinbolikoa da, adibide gisakotzat hartu behar da, beraz.
- Asmoari dagokionez, alegiek azpimarratzen dute naturaren legeen aurka tematzen denak ondorio txarrak pairatu beharko dituela edota burla eta iseka: naturan gauzen izaera beti da bat.
- Formari dagokionez, azkenik, alegiak forma-eskema finko eta sinpleak darabiltza.

Beste zenbait ezaugarri, ordea, sarritan agertu arren, ez dira ezinbestekoak, eta ager daitezke edo bazter utzi, hala nola fikziozko izaera izatea, animaliak izatea protagonista... (ib.: 52).

García Gualek luze eta zabal jardun du alegiagintzaren alderdi askotarikoez. Alegia esopoarra hartu zuen hizpide, batez ere. Aurrekoek bezala, generoaren ezaugarriez hausnartu zuen eta, batik bat, gizartearekin eta etikarekin harremanetan jarri zuen generoa, halako kutsu humanista kritiko bat emanez bere jardunari. Hauek ditugu zenbait artikulutan alegia esopoarrari nabarmendu zizkion ezaugarriak:

- Izaera alegorikoa du. Piztia mintzodunen bidez, giza kondizioari buruz hausnartzeko gonbita egiten dute alegiek. Gizarte gogor, latz, lehiakor eta gupidagabea ispiatzen da alegietako piztien munduan, beti borrokan, bizitzaren alde (1978a: 15-16). Fikzioaren bidez egia aurkitu nahi dela diosku García Gualek, antzinako erretorikoez esan bezala.
- Ekintza bat antzezten da. Izan ere, drama-izaera du alegiak. Horregatik, ekintza osagai oinarri-oinarrizkoa du, esaera zaharretan ez bezala, esaterako (ib.: 12).
- Pertsonaiek eskematikoki bereizten dituzten ezaugarriak dituzte. Bereizgarri finko samarrak dira, pertsonaien indarrak eta adimenak mugatutakoak (ib.): lehoia indartsua da, idia saiatua, bildotsa baketsua, sugea doilorra...¹⁸. Halere, pertsonaiek ez dute balio finkorik: gatazka barruko beren arteko harremanak eta kokatzeko moduak zehaztuko dute haien balioa (ib.: 14-15).
- Alegia orok asmo moral bat du, portaera jakin baten ebaluazioa iradokitzen duen neurrian, esplizituki (irakaspenaren bitartez) nahiz inplizituki (pertsonaiak bere jardunbidean izandako arrakastaren edo porrotaren bitartez) adierazia (ib.: 12). Ondorio moralak bereizten du berariaz alegia beste generoetatik (1978b: 181).
- Laburtasuna, apaindura gutxiko estiloa, bakuntasun aszetikoa: ezaugarriok gailentzen dira alegia esopoarretan. Geroztikako itzultzaile eta egokitzaileek beren modura koloreztatu dute kontakizuna (1978a: 16).
- Asmoari dagokionez, errealismo ironikoa dario alegiari. Izan ere, espezieen berdintasunik eza naturak markatzen du, haren aginduak inola ere ezin ezezta baitaitezke. Hain zuzen ere, gizabanakoaren akatsik gaitzetsiena bilduma esopoarrean hauxe da: naturak eman dion kondiziotik irten nahi izatea (1978b: 196-199). Asmo hori, naturak bakoitzari eman diona baino gehiago izateko nahikunde hori, subertsio moral eta politikoa da.

¹⁸ Halere, ezaugarritze hori nahiko arbitrarioa da, eta kultura batetik bestera alda daiteke.

- Ahozko transmisioa izan dute, neurri handi batean, alegiek; halaber, herri-literaturaren esparruan kokatu dira. Horregatik, mendeetako transmisio luzean, aldaera eta egokitzapen ugari izan dituzte (1978a: 20).
- Erlijio-gabetasuna da alegia zaharren ezaugarrietako bat: alferrikakoa da jainkoa ekintzaren mekanikan eta, are gehiago, guztiz baztertzen da jainkoei piztien munduko justizia interesatzen zaielako ideia (1978b: 204). Jainkoen parte-hartzerik ez dago alegien unibertsoan, jainko-justizia bat dagoelako ideia zokoratua dago. Bilduma esopoarra guztiz erlijio-gabea da (1995: 133). García Gualek herri xehearen eszeptizismoari egotzi zion alegietan gurtza eta erlijio-jarduerak erdeinatzea. Gerora, ordea, ahuldu egin zen ezaugarri hori, pedagogoen eta oradoreen helburuekin bat ez zetorrelako (1975b: 206).
- Egiturari dagokionez, alegia sinplearen eskema zurruna dela diosku, hezurdura bezalako bat. Nøjgaardekin bat etorrira, hiru aldiko sistema (egoera, jardunbide edo antzezpena, eta ebaluazioa) baten gainean eraikitzen dela adierazi zuen (1995: 15). Alegiek denboran barrena izan dituzten aldaketak eta sortu diren aldaerak, beraz, forma soilari, azalari dagozkio, eta ez egiturari, muinari.
- Alegiagintzak isla historiko-politiko duen edo ez, ezaugarri horri ere heldu zion García Gualek: baietz dio, testuinguru historiko-politiko bati egiten diola erreferentzia, baina Esopo baino lehenagoko tasuna dela hori, eta Esopok berak jaso eta areagotu zuela (1978b: 186). Esopoz geroztiko tradizioak, aldiz, irakaspen orokorrak emateko joera hartu zuen, eta animalia-etsenpluen noiznahikotasunean bermatuz, generoaren ahistorikotasuna azpimarratu zuen (ibidem). Guztiarekin, García Gualek nabarmendu zuen genero guztiak beren sortze aroari zor zaizkiola, eta horregatik, alegiek gordetzen dutela halako kutsu kritiko bat, zapalduen erresuminaren adierazpidea izan baitzen, hain zuzen, alegiagintza sortzez (ib.: 208). Beste batzuk, ordea, ez datoz bat puntu honetan. Janssens (1955: 21), esate baterako, diosku Esopok ez zituela aintzat hartu ez filosofia, ez erlijioa, ezta politika ere; moralista gisa, ideia orokorre bano ez ziela heldu, eta, horregatik iraun duela haren moralak, batere zaharkitu gabe: herri xehearen kezka une historiko baten mugen barruan ispilatu ordez, balio komun eta iraunkorrak erakutsi zituelako, eta, hala, alde eta aldi guztietako gizakien interesa erakarri zuen.
- Alegia esopoarraren moralari dagokionez, Gualek, oroz gain, pragmatismoa nabarmendu zuen, askotariko iritzi kontrajarrien artean. Esaterako, Hausrath-ek

ahulenen matxinadaren ahotsa ikusi zuen alegietan; Gasparov-ek, aitzitik, generoaren kontserbadorismoa azpimarratu zuen (García Gual, 1978b: 208). Gualen ustez, ordea, alegia esopoarraren moralak ezaugarri aristokratiko sorta bat arbuiatzen du, hala nola luxua eta harrokeria, altruismoa eta eskuzabaltasuna, eta beste balio batzuk aldeztu ditu, hala nola lana, mesfidantza eta maltzurtasuna, garaipen pragmatikoa xede duela (ib.: 207). Halako moral batean, iruzurra gomendagarria da (García Gual, 1995: 131), adiskidetasuna soilik izaera utilitarioz landu behar da, itunak eta, une egokian, laguntzak lortzeko, batzuen eta besteen arteko gatazketan (ibidem: 135). Rousseauk-eta lotsa gutxiko moralizat jo zuten moral hori.

- Genero irekia da alegiagintza, edonork berriz kontu baititzake alegiak ukitu txikiak emanez. Eta, ondoren, oroimenetik idatzira igaro ohi dira alegiak aurreko formari, lehengo azalari, inolako begiramenik eduki gabe (ib.: 11-12).

Genette-k alegiagintzaren irekitasun hori, hain zuzen, nabarmendu zuen *Palimpsestos* lan ezagunean (1989). Teoriko frantsesaren iritzian, ia osoki, genero parodiko eta hipertestuala da alegiagintza. Isuri parodikoari dagokionez, herri-trabestimenduaren jomuga gogokoenetakoa da alegia¹⁹, begien bistako bi arazoirengatik: alegiak laburrak direlako eta generoak ospe handia duelako (*op. cit.*: 89). Hipertestuala da, bestalde, eskema irmoko hipotestu esopoarrari transposizio formalak baino ez dizkiotelako eragiten alegialariek: itzultzea, interpretatzea eta birsortzea dira idazleen jarduera horietako batzuk, Genettek estilo-zabalkuntza deritzon transposizio formalaren barruan sailkatu zituenak.

I. 1. 2. 3. Alegia, euskal pentsalariaren iritzian

Alegialari ugari izan arren, lan teorikorik ez dago euskal alegialariaren artean. Nolanahi den, generoa nola ulertzen zuten eta generoari zergatik ekin zioten agertzen digute, nola edo hala, beren liburuetakoa paratestuetan.

Barruan dramatzaten irakaspen onengatik goraiatu zituen Bizenta Mogelek alegiak:

¹⁹ Trabestimendu ospetsu baten berri eman zuen Genettek: “Txitxarra eta Iñurria”-ren bertsio bat Pierre Péchinek ahoz *sketch* moduan antzeztua, magrebtar langile etorkinen mintzoa erabiliz, 1976. urtean.

Alegia beraren erabilera parodiko bat hedatu du euskal aurrezki kutxa ezagun batek, iragarki moduan azken urteotan, telebistaz eta irrati.

¿Cein ederqui adierazoten duten estalqui ederren azpian, andiquiak, chiquiquiac ta jaquintsuac berac icasi bear dituzten onac izateco bideac! (1804: 11-12)

Juan Mateo Zabalak, alegiagintza *zeregin dongea* edo alferren egitekoa ez dela argi uzteko, ebanjelioko parabolak irakurtzeko esan zuen, hango ipuin, ikaskizun eta irudietan aurkituko baitu irakurleak aurreiritzi hori uxatzeko modua (c. 1840).

Goyhetchek ere ebanjelioko parbolekin alderatu zituen alegiak: "...fableac dira Ebanyelioco parabola edo comparantcen idurico condaira labur batçu [...] morala edo iracaxpen cembait bere baithan cerratua dakhartenac" (1852: vi).

Juan Anjel Etxebarriak alegien helburuez jardun zuen Fedroren alegien itzulpeneko hitzaurrean (1965): "Zillegizti-esparrukoak diran egiak izakien ta gizakien bidez sentiaraztea. Ta irakas-lanetan diardugun ezkerro, onuraz batera atsegiña ere ematea".

Etxebarriaren iritiz, morala eta jokaera akatsik gabea erakusten dute alegietako pertsonak eta animaliek:

...ba-dirudi [...] notin edo abere bat eredutzat arturik esaten dautsela irakurleai: ara nolakoak izaten zarien batzutan. Zentzatu zaitzeze berandu baiño len. Ta ez zaitzeze gehiago jausi lengo akatsetan. (Etxebarria, 1966: 4)

Alderdi morala eta irakaspenen balioa nabarmendu eta balioetsi zituzten, guztiaren gainetik, euskal alegialari horiek alegietan.

I. 2. Alegia, beste genero batzuen mugan

Beste genero batzuekin harremanetan jarri dute inoiz kritikoez alegia, eta haren beregaintasunaz zalantzak zabaldu.

Jacob Grimm-ek (1834: V-VI), esaterako, poesia epikoaren bilakaeraren ondorio gisakotzat jo zituen animalia-alegiak. Zehatzago esateko, *Reinhart Fuchsen* adierazi zuen ezen poesia epikoan dutela, eta ez beste inon, animalia-alegiek oinarria, poesia epiko bakoitzaren esparru trinko eta iraunkorrean sortu zirela animalia-alegiak, tradizio luze, zabal eta mugarik gabean, eta tradizioak indar aski duela berez mataza amaigabeak

zabaltzeko eta haiek denboraren joan etengabe eta aldakorraren mugetan egokitu eta doitzeko²⁰.

Animalia-ipuinekin ere nahastu ohi da alegia, dela kritiko batzuek aldeztu dutelako alegiak animalia-ipuinetatik eratorri direla, dela antzeko gertaerak eta motiboak jorratzen zituztelako alegiek eta animalia-ipuinek, dela kutsatzeak eta interferentziak eragiten dizkiotelako bi generoek elkarri.

Aarne eta Thompsonen, esaterako, animalia-ipuinen artean kokatu zituzten alegiak (1995: 9-46)²¹. Halere, Thompsonen *The Folktalen* zehaztu zuen ezen animalia-ipuina, helburu moral bat duela kontatzen bada, alegia bihurtzen dela (1972: 33). Ez zituen bi generoen arteko mugak ondo zehaztu, baina, behintzat, helburua nabarmendu zuen alegiaren bereizgarri gisa.

Gurean, Jose Maria Satrustegik, esaterako, ohartu zuen abere-ipuinek ez dutela alegia edo fabula izeneko idazlanekin zerikusirik. Izan ere, herri-jakintzak sorturiko tradiziozko beste ipuinak bezalakoak baitira abere-ipuinak: “Egile aldetik ipuin zaharrak ez dira egile konkretu baten emaitza jorratua. Helburu aldetik ere, hezkuntza arloan ikasgai asko antzekoak izan arren, ipuinak ez dira berez ondorio moral bati buruz zuzendutako sorketa literarioak” (1983: 12).

Luis Barandiaran Irizarrek ildo beretik jo zuen osaba Jose Mielen ipuinen, alegien eta elezaharren antologia bat atondu zuenean. Osabak bildutako tradiziozko material narratibo batzuen artean, alegiak begiz jo eta atal batean bereizi zituen bestelako materialetatik:

La Fábula es siempre una ficción alegórica, que, utilizando la representación de personas humanas o, por la personificación de seres irracionales, particularmente animales, se ofrece una enseñanza útil o moral.

Con frecuencia los folkloristas vascos han solido fundir las piezas fabulísticas dentro del Cuento (1981: 16).

Ipuin miresgarria eta alegia modu egokian bereizi zituen García Gualen. Alegiaren asmoa ez da magia-giro batean murgiltzea, beraren erakutsia gizarte errealera ekartzea baizik: animalien lagunartean bidez gizartea nolakoa den erakutsi nahi du

²⁰ “Die thierfabel gründet sich also auf nichts anders als den sicheren und dauerhaften boden jedweder epischen dichtung, auf unerdenkliche, langhingehaltne, zähe überlieferung, die mächtig genug war sich in endlose fäden auszuspinnen und diese dem wechselnden laufe der zeiten anzuschmiegen.”

²¹ Bat baino gehiago ageri dira. Sailkapeneko honako zenbaki hauek eta gehiago ere: 6, 6*, 30-35, 47B, 50A, 50B, 50C, 51, 56A, 56B, 60, 62, 64...

alegiak. Errealismoaren esparruan dabil alegia, baina ironia dario errealismo horri (1978b: 191). Ipuin miresgarrian ez bezala, alegietako piztia mintzodunek giza munduaz gogoeta egiteko gonbita agertzen dute, eta ez ihesbide bat (1978a: 11).

Zalantza horiek bazter utzita, “1.1.2. Alegiaren izanaz” atalean agertutako iritziak bat datoz puntu batean: alegia batek, kontatzen duen istorioaz harago, helburu nagusi bat du, entzule edo irakurlea jomuga duela. Hauxe da helburu hori, era askotara adierazia: gogatzeta edo limurtzeta, aholku zuhurrak ematea, irakastea, egia argitzea, zerbaitez ohartzeta, ekintza bat balioestea, adibide gisa baliatzea, irakaspen onak ematea... Istorioak berez ez du baliorik, non eta ez den interpretazio bikoitza transmititzen. Helburua edo asmoa da, horrenbestez, alegiak animalia-ipuinetatik, bestiarioetatik eta, oro har, ipuin miresgarrietatik eta mitoetatik bereizteko giltzarrietako bat.

Halaber, kontakizungintzaren esparruko beste azpigenero batzuekin ere nahastu ohi da alegia, batetik, alegietan konparazioa, metafora edo analogia sarritan oinarri direlako, eta, bestetik, azpigenero horiekin batera nahasian agertu direlako alegiak antzinako bildumetan: exemplum, parabola, proberbio, alegoria eta abarrekin.

Orokorki, baina argiro, bereizi zuen Max Lüthi-k (1990: 12)²² alegia bestelako testu-mota alegorikoetatik: piztia edo landare mintzatzaille eta ekintzailleak, objektuak eta gorputz-atalak ditugu alegia kontzeptuari lotuak²³.

I. 3. Alegiaren hartzaileaz

Eztabaida handia izan da historian barrena alegiaren hartzailea nor izan den zehaztu nahian: haurrak izan ote diren, helduak izan ote diren. Baita zer gizarte-mailakoa izan den hartzaile hori: maila apalekoa, goi-mailakoa, eskolagabea, ikasia...

Nøjgaardek luze jardun zuen gai horretaz *La fable antique* liburuan (1964: 548-555) eta argi apur bat egin zuen hartzaileari buruzko auzian. Bi galdera eginez ekin zion

²² “Auch die ›Fabel‹ gehört zum Kreis der Erzählgattungen, die wie das Märchen inhaltlich über den Rahmen des irdisch Möglichen hinausgehen. Mag man wie Walter Wienert jede Gleichniserzählung als Fabel bezeichnen, für das allgemeine Empfinden, das wie der Sprachgebrauch bei jeder deskriptiven Definition zu konsultieren ist, sind doch sprechende und handelnde Tiere oder Pflanzen, Dinge, Körperteile mit dem Begriff der Fabel verbunden.”

²³ Parabolan, esaterako, gizakiak izaten dira protagonista.

bere azterketari, jakiteko alegiaren publikoa zer nolakoa izan den: lehenengoa, ikasgela barrukoa izan ote da alegia?; bigarrena, haur generoa izan ote da? Eta, bi galdera horiez gainera, beti izan al du alegiak publiko bera?

Lehenagoari erantzunez, Nøjgaardek adierazi zuen zalantzarik gabea dela alegia eskolan erabili izana heziketa-lanabes gisa, Atenasko aldi loriatsuan, jada. Baina alegia inoiz eskolan erabili izanak ez duela inondik ere frogatzen ez zer nolako testuinguruan sortu zen, ezta sorreran nolako publikoa izan zuen ere. Zalantzan jarri zuen, gainera, alegia-haurra binomioa.

Gauza onartua da, beraz, alegia heziketa-lanabes gogokoa izan zela eskolan, eta estiloa lantzeko oinarri gisa ez ezik, itzulpengintzan trebatzeko ere erabili zela. Ez dago argi, ordea, zer adinetako ikasleekin erabili zen ezta noiztik erabili zen ere. Hausrathen iritzian, lehen hezkuntzako estilo-ariketetan erabili ziren alegiak; Perryren iritzian, berriz, goi-mailako ikaslea, idazle edo hizlari potentziala, izan zen alegien erabiltzailea. Nøjgaardek esan zuen, Hausrathen eta Perry-ren baieztapenen erdibidean kokatuz, ezen Teon, Aftonio eta gainerako erretorikoak aldi berean zuzendu zitzaizkiela trebakuntza gutxiko gaztetxoei zein oratorian lehen urratsak egindako eta hitzaldiak emandako gazte hasiberriei: horrenbestez, alegiak balio zion nola lehen hezkuntzako irakasleari hala goi-mailako eskolako oratoria-irakasleari ere. Dirudienez, ikasleek itzulpena zuten hasierako ariketetako bat, eta ondoren erretorika-ariketa zailagoi ekiten zieten.

Bigarren galderari erantzun zion Nøjgaardek esanez, itxura guztien arabera, haurrak ez zirela izan alegia esopoarren lehendabiziko hiru bilduma handien hartzaileak. Egia dela, bai Babriok, eta geroago baita La Fontainek ere, printze bati eskaini zizkiotela beren alegiak, baina, aitzakia bat besterik ez zela izan, egileek gizarteaz eta bizitzaz zituzten ideiak aditzera emateko. Beste modu batera jokatu zuela Fedrok: zuzenean jo zuen helduengana eta ez zuen satira lausotu nahi izan aitzakia pedagogikoen bitartez. Esopori dagokionez, bestalde, tradizioak ez duela inoiz frigiarrak haurren aurrean agertu²⁴.

²⁴ Chambryren bildumako 176. alegian izan ezik, diosku Nøjgaardek (datu okerra da hori; 175.a baita, *Κύριος δῦο*, hain zuzen). Beste adibide bat dugu, halaber, Fedroren III-14 alegia, *De lusu et severitate*, hain zuzen. Edozein modutan, bigarren mailako pertsonaia gisa agertzen dira bi alegia horietan haurrak, eta irakaspena heldu bati zuzentzen zaio.

Hartzailearen klase soziala aztertzeari ekin zion gero Nøjgaardek. Garaiz garai joanik, adierazi zuen K.a. VIII. mendean hasitako aristokraziaren eta burgesiaren arteko gizarte-gatazka VII. mendean barrena gauzatu zela eta, ondorioz, VI.aren hasieran boterea kendu ziola burgesiari aristokraziari. Alegia garai hartantxe jaio zenez gero, eta gainera, gizarte-borroka hura aipatzen duten egileen lanetan agertu zenez gero (Hesiodo, Arkiloko), neurri batean ulertzekoa dela, Crusiusek egin bezala, harremanetan jarri izana bi gertakariok: alegiaren sorrera eta iraultza. Modu bertsuan, Esopo gizarte-klase apalenen adierazpidetzat hartua izan delako, alegia proletarioen arma bihurtu zela esan du zenbaitek (Hausrahtek, esaterako), baina halako baieztapenak neurritz gainekoak dira Nøjgaarden ustez, eta ez zitzaion bidezkoa iruditu halako loturak egitea; izan ere, ohartu zuen ikertzaile horiek (Crusius, Hausrath, Vico, Meuli...) irudimena erabili zutela, gertakari- eta lekukotasun-urritasuna ordeztuko. Esoporen figurari, esaterako, aldaketa ugari eragin zaizkio mendeen joanean. Antza denez, gainera, Esopo esklabo izan zelako ideia inolako oinarririk ez duen ustea baino ez da. Bestalde, Nøjgaardek esan zuen ezen beren testuetan alegiak idatzi eta tartekatu zituzten lehenengo idazle haiek (Hesiodo, Arkiloko, Simonides eta Estesikoro) estuasunik gabeko burgesak izan zirela. Nøjgaardek ez zuen, beraz, inolako iraultza-zantzurik ikusi alegietan; aitzitik, ezarritako ordenari eusteaz dihardutela Esopo, Estesikoro eta Aristotelesen alegiek. Alegia genero kontserbadorea delako ustearekin Gasparov ere bat dator; beste batzuk, García Gual tarteko, ez dira hain ados, eta generoa, bere sorreran behintzat, zapalduen adierazpide izan zela azpimarratzen dute (ikus bedi “I. 1. 2. 2.” atala). Garai hartaz, beste ezer ezin da ziurtatu alegia orduko denboran guztiz herrikoia izan zela baino, Nøjgaarden iritzian.

Atenasko garai loriatsuaz, *La fable antiqueren* egileak adierazi zuen alegia genero bizia izan zela atenastar helduen eguneroko bizimoduan, eta ez dagoela inolako aipamenik ez hurrez ezta eskolaz ere. Eta horregatik pentsatu beharko genukeela publikoa ez zela gizarte-maila apalekoa, Atenasko hiritar libreak baizik; are kultura-mailarik jasoena zuen jendea ere: Sokrates, Aristoteles eta Demetrio. Falta dugula jakitea nola hedatu zen herri xehearen artean eta, baita ere, genero aski noblea ba ote zen edo ez, atenastarren usadioan.

Aristotelesen garairako, K.a. IV. mendean, alegiak galdua zuen ospea: alegia ez zen jada jakintsuen generoa. Hala ere, herri-oradoreei ondo zetozkien alegiak, masei ongi pasarazteko. Aristotelesek ez zuen aipatu alegia bere *Poetikan*, ez zelako behar

besteko genero noblea. Alegien hartzailea arrunta zenez gero, alegiak genero arrunta behar zuen izan. Baina, halere, ikasiek eta letradunek entzunak izango zituzten alegiak emakume eskolagabeen ahotatik, lehen haurtzaroaz geroztik.

K.o. I. mendeko klasikoen artean, Kintilianok, esaterako, ez zuen inon adierazi alegia haur-generoa zenik; bai, ordea, alegia ospe handikoa zela nekazarien eta hiritar eskolagabeen artean. Fedrok, hain zuzen, haientzat idatzi zuen, baina, hala ere, hiriko literatura-giro jantzian sartzea zen Fedroren asmoa.

K.o. IV. edo V. mendeetan uste izatekoa da, Nøjgaarden iritzian, berdintsua izango zela bilduma *augustanaren* hartzaileen giza kondizioa; izan ere, edukiei erreparaturik, hiri-giroa eta baserri-giroa ispliatzen ditu bildumak, eta ez da inolako aipamenik egiten hirikoen eta nekazarien etsaigo betierekoaz. Adradosek bere aldetik dio *augustana* ezikasientzat zela, eta Nøjgaard ados dago.

Erdi Aroko hartzaileak adin guztietakoak ziren; izan ere, kristau-erakutsiak eta moral-ereduak hedatzeko lanabes gisakotzat hartu ziren. Guztiarekin, Erdi Aroaz geroztik, haurren heziketan erabili dira alegiak.

López Gasenik (2000: 19) argi agertu zuen XVII. mendean haurren hezkuntza-ereduetan gertatu zen aldaketa garrantzitsua: ofizio batean jarduteko ikasketa-sistematik eskola-sistemara iragan zen. Sistema berriak ezinbestekotzat jo zituen liburuak ikasketa-prozesurako, eta, hala, lehenengo haur-liburuak sortu ziren, hezkuntza-sistemari guztiz lotuak.

Eskola-sistemaren eraginez sorturiko haur-literatura kanonikoaren bilakaera aztertu zuen Zohar Shavitek, eremu angloxasoian batez ere (1986: 133-157). Ikusi zuen XVII. mendean, hezkuntza-ikuspegi berriak sortu zirela eta, ondorioz, haurrentzako beste literatura-kanon bat. Horrenbestez, sistema homogeneo²⁵ izatetik sistema heterogeneo izatera igaro zen haur-literaturaren sistema eta, kanon berrian, alegiek garrantzia handia hartu zuten.

²⁵ Jakina denez, alfabetoak izan ziren lehenengo haur-liburuak; haien barruan, otoitzak eta Hamar Aginduak izan ohi ziren. Eskriturak hobeto uler zitzaten irakasten zieten umeei Ingalaterrako puritanoek, XVI. mendean.

Hezkuntza berritu zutenen artean, moralzaleek haur-liburuetan fantasia erabiltzea debekatu zuten, baita animalia mintzatzaileak erabiltzea ere. Ikuspegi hori Lockek malgutu zuen, eta alegiak bereizi zituen maitagarrien ipuinetatik, haren ustean haurrentzako irakurgairik onenak zirelako alegiak. Hain zuzen, maitagarri ipuinak baztertzea gomendatu zuen.

Alemanian, Lessingek ere alegien aldeko aldarria egin zuen eta eskolan alegiak gaztetxoekin sormenerako erabiltzea gomendatu, “I. 1. 2. 2” atalean ikusi dugunez. Eta Frantzian, La Fontainek alegien hartzailetzat jo zituen bai helduak –esperientziaren poderioz eskuratu duten ezagutza berresteko–, bai haurrak –jakin beharrekoa ikas dezaten –:

Ainsi ces fables sont un tableau où chacun de nous se dépeint. Ce qu’elles nous représentent confirme les personnes d’âge avancé dans les connaissances que l’usage leur a données, et apprend aux enfants ce qu’il faut qu’ils sachent. (...) C’est à quoi les fables travaillent : les premières notions de ces choses proviennent d’elles (La Fontaine, 1991: 9).

Gauzak horrela, alegia ugaltu egin zen XVIII. mendean Haur eta Gazte Literaturan, hezkuntzan erabiltzeko helburuarekin: gogoan izan, adibidez, Samaniegok Bergarako Mintegiko ikasle gazteei eskaini zizkiela bere alegiak.

XIX. mendearen erdi aldean, ordea, istorio horien ospea gainbehera etorri zen Haur eta Gazte Literaturan. Izan ere, atek zabaldu zitzaizkion, orduan, haur-literaturaren sisteman fantasiari. Edozein modutan, alegia dibertsifikatu egin zen, eta beste hartzaile mota batzuetara zabaldu, baina artean iraun zuen, eskolaren esparruan, gazteak hartzaile zituela.

II. KAPITULUA
ALEGIAREN HISTORIAZ

II. ALEGIAREN HISTORIAZ

Bibliografia ugari dugu alegiaren historiaz. Ezin urria izan: genero zaharrenetariko bat dugu alegia, eta gizakiaren portaera du muintzat. Horregatik hartu dute aztergai alegia pentsalari handiek eta literatura-kritiko ugari. Ezin lan horiek guztiak besarkatu, eta egile batzuk aukeratu ditut (Janssens, 1955; Chambry, 1960; Nøjgaard, 1964, 1967; Aguilera in *Esopo y Fedro*, 1967; Brenot in Phèdre, 1969; Rodríguez Adrados, 1969, 1979, 1985; Méndez, 1978; García Gual, 1978b, 1995; Acillona in Agirreazkuenaga, 1991; Morocho, 1994; Mañas, in Fedro et Aviano, 1998; Kleveland, 2002; Ozaeta, 1997a, 1998) alegiaren historiaren berri laburra emateko.

Alegiak hogeita hamar mendeko historia du eta indar handiz iraun du, sortu zenetik hona, bai kultura judu-kristauan, bai kultura musulmanean, baita ekialdeko kulturetan ere. Europako mendebaldean izaera berezia eta batasuna gorde du (Janssens, 1955: 126) eta, horrela, nazio-usadioez gaindikoa da alegien tradizioa (García Gual, 1995: 12).

Genero anonimoa eta ahozkoa da funtsean. Horregatik ez du jatorriz inolako euskarri materialik ez testu idatzirik (Acillona, 1991: 51). Komunikazio-beharrei erantzunez sortu zen, gizakiek irudien eta konparazioen bidez pentsamendua agertzeko duten beharrak eraginda: lagun hurkoa gaitzesteko eta elkarri jakinduria erakusteko erabili ziren alegiak (Janssens, 1955: 9).

Kontakizungintzaren enberrari, ipuinari lotua ikusten du Chambryk alegia. Alegia ipuinetik askatu zen ipuinlariak, baliagarria izan nahiak kezkatuta, bere ixtorio bati irakaspen moral bat atera zionean (Chambry, 1960: XXI).

Bi tradizio ditu literatura-genero honek: greziarra eta indiarra. 1927an, Ebelingek baietsi zuen Mesopotamiako alegietatik datozela bi tradiziook, eta harrezkero inor gutxik jarri du zalantzan baieztapen hori. Litekeena da Babiloniatik, Asia Txikian barrena, Greziara iritsi izana, eta, baita ere, Persian barrena, Indiara (Morocho, 1994: 27). Hortaz, alegiaren jatorria Mesopotamian kokatu behar da K.a. XXV. mendean, gutxi gorabehera. Nøjgaardek honela iruzkindu zuen une hura (1964: 432): “...l’Asie mineure a été le champ où la fable a poussé la végétation la plus luxuriante, et la plus précoce...”. Chambryk (1960: XXV), halaber, asiar jatorri hori defendatu zuen, Esoporen jaiolekua baliatuz: “Les Grecs devaient avoir le sentiment de cette origine, quand ils attribuaient à Esope une origine phrygienne ou Rydienne, c’est-à-dire asiatique”.

Rodríguez Adradosen gehiago zehaztu zuen jatorria (1979, I: 201): “La fábula griega tiene orígenes griegos y el influjo oriental no excluye las raíces helénicas”. Izan ere, alegia greziarrak askotariko osagai greziarrak hartu eta bere egin zituen: erlijio greziarraren osagaiak, festa eta oturuntza greziarraren osagai ludiko eta komikoak, tradiziozko literatura greziarraren osagaiak eta, baita ere, natura greziarrari behatzearen ondorioz ateratako jakingarriak (ibidem: 245-247). Bilakaera prozesu luzean, beraz, gauza asko gehitu behar izan dizkio alegiak hasierako muinari (erlijiozkoak, ludikoak, literarioak): ekialdeko alegiak, mito greziarrak eta festetako giro janbiko eta komikoak osatu zuten eredua (ib.: 237-249).

Aguileraren ustez (1967: 10), aldiz, alegiak Indian jaio ziren, eta Txinan eta Japonian landu ondoren, Tigrisetik Eufratesera igaro ziren. Eta, azkenik, Greziara eta Erromara. Méndez ere iritzi berekoa da (1978: 10): Indiako penintsulan jaio zen alegia, noiz ez dakigula. Litekeena dela hori han gertatzea kultura dravidikoen eta arioen oinarri mitologikoengatik, eta bi bide hartu zituela gero alegiak, mendebaldera iragan zenean: Greziakoa eta Persiakoa. Gure artean, jatorri indiarra “Aitzol”-ek aldeztu zuen:

Abereen alkarrizketa oiek neurtzea Indi'ko olerkariet bururatu omen zitzaien. “Pantxatantra”, Pilpai inditar olerkariaren ipui-sorta zaarrenetzat jo genezake. Esopo'k

antziñan gerkerara itzuli inditar onen alegiak: Esopo'renak, berriz, Fedro erromatarrak, latineratu (Ariztimuño, 1986: 49).

Halere, gaur egun bat datoz ikertzaile guztiak: Greziako alegia (K.a. VIII) Indiako alegia baino lehenagokoa da (K.a. II, *Pantxatantra*). *Pantxatantra* galdu zen, eta galdu zen, baita ere, K.o. VI. mendean liburu horren pertsiera literariora, pahlevierara, Persiako erregeak bere medikuari¹ aginduriko itzulpena. Baina, zorionez, itzulpen hori oinarri hartuta, arabieraz egindako egokitzapen bat, VIII. mendekoa, iritsi da oraingo denboretaraino, *Kalila eta Dimna* izenekoa, hain zuzen (Janssens, 1955: 11).

Guztiarekin ere, litekeena da Indian alegia berez sortu izana, eta alegia greziarraren zordun ez izatea (Janssens, 1955: 10).

Sarritan, esklaboei egotzi zaie alegien sorrera (ikus bedi “I.3. Alegiaren hartzaileaz”), ezin zutelako argi eta garbi eta naturalki adierazi zer pentsatzen zuten, beren burua arriskutan jarri gabe. Nahiko zalantzarria da hori. Esopo esklabo izateak² ekarri du sineste hori, eta uste orokorra bihurtu da, guztiz desegokia, baina. Egiazkoago dirudi, Aguileraen ustez, ezen jendea ilustratu nahi izan zutela, eta, maila sozialaz kontu egin gabe, printzipio moral batzuk adierazi zizkiotela elkarri.

Lau aro bereizi izan dituzte alegiaren ibilbidean historialari batzuek (Aguilera, 1967: 14; Morocho, 1994: 31). Desadostasunak dituzte, ordea, auzi hauei buruz: noiz artekoa den aro bakoitza, aro bakoitzaren garrantzi kualitatiboa zein ote den, eta zein ote den urrezko aroa³. Aro bakoitzaren izenez ere badira aldeak. Horiek guztiak kontuan hartuta, bost aro nagusitan sailkatuko dut alegiaren historia:

1. Greziar Aroa.: K.a. VIII. mendetik K.a. I. mendera.
2. Erromatar Aroa. K.a. I. mendetik K.o. V.era.
3. Erdi Aroa: V-XV.
4. Aro Modernoa: XVI-XVIII.
5. Alegia Garaikidea: XIX. mendetik hona.

¹ Kontaerak dio K.o. VI. mendean errege pertsiarrek bere medikua Indiara bidali zuela belar batzuen bila, hilak berpizteko ahalmena zutelakoan. Galdetu eta galdetu, Indiako adituek ipuin-sorta bat eman zioten belarren ordez.

² Herodotok eman zuen, beste askok bezala, Esopo esklabo zelako albistea bere *Historiak* obran (1997: 431): “...geroagokoa zen Rhodopis: jatorriz Thraziakoa eta samoar Jadmon, Hephéstopolisko semearen esklaba [sic] eta Esopo alegiagilearen esklabokide zen.”

³ Nøjgaarden ustez, K.a. IV.etik K.a. I.era bitartekoa da urrezko aroa. Aguileraen eta beste batzuen iritzian, XVII. eta XVIII. mendeak.

II. 1. Alegia, Greziar Aroan

Garai hartan baziren zenbait alegia-mota: alegia politikoak, gizarte-kritika zerabilten alegiak eta, batez ere, bizitzari buruzko jakinduria aditzera eman nahi zuten alegiak. Oro har, jende xehearentzako aholkuak izaten ziren, eguneroko bizimodu latzean aurrera egiteko kontseiluak. Sarritan, erregimenaren aurkakoen edota esklaboen ahotan jarriak, gizarteko indarkeria eta justiziarik eza salatu nahi zituzten halako alegiek (Rodríguez Adrados, 1979: 173).

Alegiak egoera mistoak, nola tragikoak hala komikoak ere, erakutsi zituen greziar literaturan tragediaren eta komediaren banaketa gertatu arte (ibidem: 177). Halere, alegiek beti zuten osagai komikoren bat edo beste, nola edo hala (ib.: 179). Aristofanesen obran (K.a. V.ean), jada, gertatu zen banaketa, eta alegia mitotik bereizi zen (ib.: 249).

Poetak norbaitentzat egindako etsenplu gisa aurkeztu ohi zuen alegia, testu zabalago baten barruan. Alegia etsenplu bat zen, beraz, eta beti zuen lehen termino bat, esplizitua zein implizitua.

Hasiera hartako alegia poesia lirikoa zen, eta poeta, lehen pertsonan, ‘zu’ batentzat mintzo zen, neurri janbikoan⁴ batez ere, satira-kutsua baitzuen halako bertsokerak. Alegiak festetan eta oturuntzetan jaio ziren, eta aurkariaren kontra erabiltzen ziren, elkarren arteko lehian (Morocho, 1994: 31).

Alegia esopoarraren aitzindariak alegia bat edo bi, gehiago ez, idatzi zituzten beren obren barruan. Lehenengo alegiaren lekukotasuna K.a. VIII. mendekoa da. Hesiodok kontatu zuen hitz neurtuz, eta “Belatza eta Urretxindorra” du izena⁵. Ezagutzen dugun alegia greziarrik zaharrena da. Horregatik, Kintilianoren iritzian, Hesiodok asmatu zuen generoa.

⁴ Senario janbikoa komediako elkarrizketetako neurri herrikoa zen, kultura handirik ez zutenekin erabiltzeko bertsokera aproposa (Mañas, 1998: 29).

⁵ Alegia hori *Lanak eta egunak* izeneko lanean dago txertatua. Klase ertainaren aldeko obra izan zen hura, eta lanak dakarren onuraz dihardu. Etorkizun iluna saihesteko aholkuak eskaintzen dira alegia horretan. Garaiari buruzko gogoeta ezkortzat hartzen da. Hesiodoren anaia Persesek seniparte osoaz jabetu nahi izan zuen, eta idazleak amore eman zezan kontseilatu zion, ahula zelako, eta erregeei esan zien ezen Zeusek onetsi eta berretsitako justizia hartu behar zutela aintzat: legeei men egiten dienak aurrera egiten du.

Hurrengo mendean, Arkilokok (“Arranoa eta Azeria”, “Azeria eta Tximinoa”...), Semonidesek (“Arranoa eta Kakalardoa”...) eta Estesikorok zenbait alegia ondu zituzten.

Beranduago, K.a. VI. mendean, giza portaera hartu zen nagusiki aintzat. Izan ere, gizarte-klaseak elkarren aurka borrokatu zirelako eta gizartean aldaketa iraultzaileak gertatu zirelako, bertan behera erori ziren portaera-arau zaharrak. Egoera berrian, pentsalariak, esate baterako Zazpi Jakintsuek, moralaz eta balioez gogoeta egin zuten.

Iruzurra eta maltzurkeria goraiatu ziren. Hain zuzen, burgesia igo zelako gizarte-egituran, irabazkinen aldeko interesa suspertu zen; aristokraten, nobleen eta zaldunen ohorea baztertu zen (García Gual, 1970: 421).

Lehen kapituluko “I. 3. Alegiaren hartzaileaz” atalean jada aurreratu eta iruzkindu bezala, ikertzaile batzuen arabera, aristokraziaren aurkako borroka-aldian, K.a. VII. eta VI. mendeetan hain zuzen, borroka aurrerakoiaren tresna izan zen alegia. Baina aurrerakoitasuna ez da, ordea, alegietako ideologiaren ezaugarri berezkoa.

K.a. VI. mendearen bigarren erdian biziko zen Esopo, inoiz bizi izan bazen. Esopok ez zuen ezer idatzita utzi, eta ezin da jakin benetan inoiz existitu ote zen. Edozelan ere, egiazkoa izan zen Esoporen ospea Atenasen⁶. *Esoporen bizitza* (K.a. I. mendea) da Esopoz iritsi zaigun kontakizuna. Esopo da, hain zuzen, testu anonimo horretako pertsonaia, alegialari bat. Geroago pentsatu zen pertsona bera zirela kontakizuneko protagonista eta *Esoporen Bizitzaren* egile ezezaguna; izan ere, Grezian literatura-genero bakoitzak bere asmatzailea eduki behar zuen (Janssens, 1955: 18). Bestalde, Esoporen alegia baten lekukotasunik zaharrena Herodotok utzi zuen bere *Historia* liburuetako lehen liburukian, 141. kapituluan. Herodotok Esoporen alegia bat berriatzi zuen, “Arrantzale txirularia” hain zuzen, eta, Ziro II.a Handiaren ahotan jarrita, Mediako gerretako pasarte bat argitu zuen, alegia hura baliatuz⁷.

⁶ Estatua bat egin zioten agoran.

⁷ Herodotoren pasarte ezaguna, Iñaki Usabiagak grekeratik euskaratua, hona: “Joniarrek eta eoliarrek, lydiarrak persiarren pean erori bezain azkar, mandatariak bidali zituzten Sardesa Zyrorengana, Kresoren esanekoak izan ziren baldintza beretan harenak ere izateko asmoz. Hark, proposaturikoa entzun ondoren, alegia bat kontatu zien: xirulari batek itsasoan arrain batzuk ikusi eta, hauek lehorrera jalgiko zirelakoan, xirula jotzen omen zien; itxaropena galdu zuenean, ordea, sarea hartu eta arrain multzo handia harrapatu eta kanpora atera omen zituen; eta saltoka ikusiz hala esan omen zien arrainei: "Utziozue dantzatzeari, nik xirula jotakoan ez zenuten dantzara jalgi nahi eta". Zyrok joniarek eta eoliarrek arrazoi hauengatik kontatu zien alegia hau..." (1997: 197).

K.a. V. mendean sortu zen alegia genero moduan, testu multzo edo konplexu zabalago baten azpimultzo gisa. Genero dramatikoak komedian eta tragedian banatu ziren bezalaxe banatu zen alegia bestelako generoetatik (Rodríguez Adrados, 1979: 181).

Garai hartan, alegia prosaz landu zen, eta Esoporen ahotan jarri ziren alegiak edo berari egotzi zitzaion egiletza: “Esopok kontatzen zuenez...” hasiera-formula ohikoa zen orduan. Norbaitek beste norbaiti kontatua agertu zuten prosalariek alegia (Rodríguez Adrados, 1979: 382).

Alegia etsenplu moduan erabiltzen jarraitu zen, eta ohikoa zen edozeinek alegia sorta bat ezagutzea. Platonek kontatzen duenez, Sokratesek buruz zekizkien Esoporen alegiak, eta presondegian zegoela, bere bizitzaren hondarrean, bertsoz eman zituen haietako zenbait.

Aristofanesez eman zuen lehenengoz alegien eskola-erabileraren berri. Antzinako Greziako eskoletan eragin nabaria izan zuen alegiak, nola lehen eta bigarren hezkuntzan, hala goi hezkuntzan ere, erretorikako ariketetan sartu baitzuten, *Progymnasmata*⁸ zirelakoetan, hain zuzen.

K.a. IV. mendean, bildumak egiteko zaletasuna zabaldu zen Atenasen. Joera hori Aristotelesek inbidiatu zuen. Nola edo hala, zientzia-giro baten isla izan zen hori, datuak biltzeari ekin baitzitzaion, gero teoriak lantzeko. Uste izatekoa da alegiak biltzeari eta bildumak egituratzeari ekin zitzaizola une horretatik aurrera.

Gauzak horrela, Demetrio Falerokoak egin zuen lehenengo prosazko alegia-bilduma, K.a. 300. urte aldera. Bilduma horri *Alegia esopoarren bilduma* esaten zaio, eta uste da ehun ale inguru bildu zituela. Ez da iritsi guganaino. Ziur asko oratoria-ikasleei adibide moduan eskaini zitzaizkien bilduma. Ordura arte, greziar idazleek etsenplu solte gisa erabili zituzten alegiak; Demetrio Falerokoak, ordea, halakoak bildu, prosaz landu eta egitura bateratu zuen.

Demetriok alegiekin zehazki zer egin zuen ez dakigu; dena dela, etsenplu soil izatetik bildumako pieza izatera igaro ziren. Bitarte horretan, lehenengo terminoa

⁸ *Progymnasmata* zirelakoak erretorika-ariketak izaten ziren, mailakatuak, ikasleak gradualki ohitu zitezkeen erretorika-osagaiak sartzen beren testuak eta hitzaldiak antolatzeke orduan.

ezabatu zuen, eta narrazioak testuingururik gabe gelditu ziren. Gainera, dirudienez, Demetriok narrazio biluzi horiei irakaspenak erantsi zizkien. Dena dela, sarritan, Demetriok erantsitako irakaspen horiek desbideratu egiten dira narraziotik logikoki atera daitekeen konklusiotik.

Moralizatzaileagoa eta didaktikoagoa bilakatu zen, beraz, generoa. Hala ere, alegiatatik ondorioztatzen zen morala paganoa zen: ezinezkoa da gauzen kondizio naturala aldatzea, ezta giza kondizioa eta gizakien izaera ere. Era berean, Demetrioren irakaspenak orokorreki dira eta ikasi beharrekoaren izaera ahistorikoa nabarmentzen dute, haien etika abstraktua balitz bezala (García Gual, 1975: 186).

Demetrioren bitartez, genero beregaina bihurtu zen alegia. Gero, Demetriorenak bertsotan jarrita, bilduma berriak plazaratu ziren, 300-400 ale ingurukoak. Eta, alegia haien artean, berriak ziren asko eta asko. Inperio garaian alegia bakoitzaren aldaera ugari ibili zen. Perryren iritzian, Demetrioren bildumatik datoz, seguru asko, Erdi Aroko eskuizkribuen bitartez, guganaino iritsi diren greziar alegien bilduma anonimoak. Alegia esopoar haien interesa gaietan dago, batik bat: asmamen handikoak dira, eta originalak (Janssens, 1955: 21).

Bildumetako alegiak filosofia-eskoletara igaro ziren, gero. Rodríguez Adradosek ederki laburtzen digu alegiaren bilakaera-ildo harrigarria: aristokraziaren aurkako genero ez adeitsu izatetik, tradiziozko balioei haien ordaina ematetik, askatasunez hitz egitea eta iseka egitea libre uzten zuten jaietan landua izatetik, filosofia berrien altzora igaro zen, naturaren eta egiaren oinarrien gainean gizarte berri bat eraiki nahi zuten filosofien altzora. Filosofia sokratikoaren magalera, lehenik; filosofia zinikoaren eta estoikoaren magalera, gero, K.a. IV-III. mendeetan (Rodríguez Adrados, 1979: 409). Zinikoek beren erakutsiak zabaltzeko erabili zuten alegia, eta beren ideologiaren arabera garatu zuten: gizarte-ordena zaharraren aurkako arma gisa erabili zuten beste behin ere, adierazpide burlesko eta satiriko moduan. Horregatik berpiztu zuten neurri janbikoa, alegiak prosaz lantzeko modaren ostean⁹.

⁹ Garaitsuan, K.a. 200.aren aldera, hain zuzen, sanskritoz idatzita agertu ziren indiar alegiak, *Pantxatantra* esaten zaion bilduman.

II. 2. Alegia, Erromatar Aroan

Alegia ez zen estimu handitan izan erromatar garaian. Erromatarren gustuetatik at egon baziren ere, Senekak *De Otion* (*Astiaz*) alegien balioa azpimarratu zuen, haien kontakizunak entzunaz suspertzen delako, gizabanakoaren baitan, ezezaguna jakiteko irrika (1993: 157). Eta horrela, haize alde egon ez bazen ere, zenbait egilek generoa landu zuten.

Guztien artean, Fedro nabarmendu zen (ikus bedi, halaber, “I.1.2.1. Alegia, pentsalari zaharren iritzian”). Trazian edo Mazedonian, non jaio zen ez da gauza segurua; zehazki noiz jaio zen ere ez, baina K.a. 20-15 urteen bitartean sortu zen, antza denez. Erromara esklabo eraman zuten, eta han Augusto Oktavioren *liberto* izan zen. Askatasuna eskuratu zuenean, administrazio-lanetan eta irakaskuntzan jardun zuen. Sejanok auzipetu, eta kartzela zigorra jarri zion, epai-prozedura zalantzazko baten bitartez. Tiberioren ministro horrek, nonbait, bere burua aipatua ikusi zuen Fedroren alegia kritiko samar batzuetan (I. eta II. liburuetakoak).

Fedrok Esopori egotzi zion generoa sortu izana, eta haren oinordekotzat jo zuen bere burua. Horrela, bada, Esoporen gaietara heldu zion, baina gai berriak sortu zituen, eta formari dagokionez, berritzailea izan zen, senario janbikoetan eman baitzituen alegiak. Gaitetia berrituz *-varietas-* eta formari itxura berria emanez, goi-asmoko literatura landua egin nahi zuela ohartu zuen Fedrok, eta, gainera, laburtasunak *-brevitas-* lagunduko ziola irakurleari berritasuna eramaten:

Equidem omni cura morem servabo senis;
sed si libuerit aliquid interponere,
dictorum sensus **ut delected varietas**,¹⁰
bonas in partes, lector, accipias velim,
ita, si rependet illam **brevitas** gratiam. (II. lib. “Auctor”, 8-15)¹¹

Behin baino gehiagotan heldu zion ideia horri. Fedrok argi utzi nahi izan zuen bere alegiak ez zirela Esoporen alegien itzulpen huts. Bereizi egin zituen, batetik, Esoporen alegiak (*Aesopias*), eta, bestetik, Esoporen alegien erara egindako alegiak (*Aesopi*):

¹⁰ Letra lodiz, lan honetarako.

¹¹ Manuel Mañasen gaztelaniazko itzulpenari eta edizio-oharrei jarraituz (1998): “Neu, egiatan, agurearen [Esopo da agure hori] espiritua begiratzen ahaleginduko naiz, baina berritasunen bat tartekatu nahiko banu espirituaren atsegina pizteko, era guztietako gaiak emanez, ondo pozik hartuko nuke, irakurle, zuk halakoak gogoz onartzea, eta are gogo handiagoz, laburtasuna ekarriko baitu ugaritasunak sari gisa.”

Quare, Particulo, quoniam caperis fabulis
 (quas Aesopias, non Aesopi, nomino,
 quia paucas ille ostendit, ego plures fero,
 usus vetusto genere, sed rebus novis)... (IV. lib. Prol. 10-14)¹²

Fedrok erantsitako gai horietan zinikoen satira- eta protesta-gaiak eta estoikoen gai moralak nahasten dira. Fedrok bortizki eraso zien bere garaiko gizartearen bizio eta grina txarrei: diru-gosea, hipokrisia, ahulak zapaltzea... Beren-beregi ekarri nahi izan zuen Erromako giroa bere alegietara (Rodríguez Adrados, 1979: 136). Horregatik Janssenek (1955: 28) dio Fedroren alegiek ez dutela beti gordetzen generoak berez behar duen izaera denboragabea eta, batzuetan, anekdotak baino ez direla: unean unekoa atzemateko nahiak bultzatu zuen Fedro jazoera arruntak biltzera.

Fedrok, bestalde, helburuei dagokienez, bere alegiek xede bikoitza zutela diosku, hau da, barre eginaraztea eta bizitzarako aholku zuhurrak ematea:

Duplex libelli dos est: quod risum movet
 et quod prudenti vitam consilio monet. (I. lib. Prol. 3-4)¹³

Bistan denez, poetika horaziarra bere egin zuen Fedrok: *docere* eta *delectare*. Irakatsi eta atsegin eman.

Beste batzuetan ere jardun zuen alegien xedeaz. Bertsootan, esaterako, adierazi zuen gizakion akatsak zuzentzea eta buru-argitasuna zorroztea zirela alegion helburuak:

Exemplis continentur Aesopi genus,
 Nec aliud quicquam per fabellas quaeritur,
 Quam corrigatur error ut mortalium
 Actuatque eses diligens industria. (II. lib. "Auctor", 1-4).¹⁴

Baina, ahalegin horiek guztiak eginda eta helburu horiek izanda ere, garaiko kritikoez ez zituzten ez bera ez generoa atsegin izan: "fastidiose tamen in coetum recipior" (III. lib. Prol. 23)¹⁵ bertso mingotsa utzi zigun idatzita.

Alegien jatorria ere hartu zuen hizpide. Gai horretaz diosku ezen esklaboek asmatutako adierazpidea izan zela, alegien bidez adierazten baitzituzten ahulen eta

¹² Mañasek (1998) finkaturiko edizioari jarraituz: "Horregatik, Particulon, nire alegiek gatibu baitzauskate («esopoarrak» esaten diet nik halakoei, eta ez «Esoporenak»); izan ere, Esopok bakan batzuk baino ez ditu aurkeztu, eta nik, berriz, gehiago ondu ditut, genero zaharra erabiliz, baina gai berriz)..."

¹³ Juan Anjel Etxebarriaren itzulpena: "Idazti / onen onura bikoitz da: barre eragin ta / bizitzari buruz itz zuurrak dakarzki." (1966: 7).

¹⁴ Mañasen gaztelaniazkotik (1998): "Esoporen generoa etsenpluetan oinarritzen da: alegia hauen helburua ez da besterik hilkorren akatsak zuzentzea eta adimenaren indarra zorroztea baino".

¹⁵ Mañasen gaztelaniazkotik (1998): "Destainaz baino ez naute onartzen poeten giroan".

zapalduen sentimenduak boteretsuen aurka. Rodríguez Adradosek tirania jotzen du adierazpide horren sakoneko arrazoitzat; izan ere, larderiazko giroak egiari isekaren mozorroa jartzera behartu zituen sortzaileak, oro har, modu ezkutuan kritika egin ahal izan zezaten eta zigorretatik salbu egon zitezten, Tiberioren agintepean (1979: 38). García Gualek *disimuluaren teoria* deitu zion jarduera horri (1995: 121):

Nunc, fabularum cur sit inventum genus,
brevi docebo. Servitus obnoxia,
quia, quae volebat, non audebant dicere,
affectus propio sin fabellas transtulit
calumniamque fictis elusit iocis (III. lib. Prol. 33-37)¹⁶

Izan ere, asmo txarreko ondorio eta interpretazioak atera zituzten Fedroren alegietatik eta horregatik salatu zuten; politikoki arriskutsutzat jo zituzten, antza denez, Fedroren alegiak, eta, dirudienez, bi lehenengo alegia-liburuak debekatu ziren.

Gogoeta horiek zerabiltzala, ohiko esakun bati heldu zion, autozentsura, herri-xehearen zapalkuntza eta klase-bereizketa gogorarazteko:

Ego, quondam legi quam puer sententiam,
“*palam mutire plebeio piaculum est*”,
dum sanitas constabit, pulchre menimero (III. lib. Epil. 33-35)¹⁷

Zenbait ezaugarri moral nabarmendu dizkiete Fedroren alegiei; horien artean *veritas* delakoa (Mañas, 1996: 331). Gogoko zuen Fedrok tasun hori, gezurrari, kalumniari kontrajarria. Sarritan tartekatu zuen alegietan: “Id esse verum parva haec fabella indicat” (I. 15. 3)¹⁸; “verum est aviditas dives et pauper pudor” (II. 1. 12)¹⁹; “vera fabulla” (II. 5. 6)²⁰. Ildo horretan, beste edozein alegialarirenak baino moralizatzaileagoak dira Fedroren alegiak: onak eta gaiztoak bereizi zituen moral fedroarrak, eta gaiztoen zigorra zorrotz adierazi.

Fedroren alegia-kopuruari dagokionez, bestalde, ikertzaileak ez datoz bat.

¹⁶ Ibidem: “Labur-labur azalduko dut orain zergatik sortu zen alegiaren generoa. Askatasunik gabe, esklaboek beren sentimenduak alegietara aldatu zituzten, ez ziren-eta ausartzen esan nahi zutena esaten, eta horrela, istorio asmatu barregarrien bidez, kalumnia saihesten zuten.”

¹⁷ Mañasetik (1998): “Behin, gaztetxoa nintzela, esakun hau irakurri nuen: «plebeio bati sakrilegioa zaio nabarmenkeriaz marmarka jardutea». Neure onean nagoen bitartean ez zait esakun hori berehala ahaztuko.”

¹⁸ Ibidem: “Baieztapen horren egitasuna alegiatto honek darakus.”

¹⁹ Ib.: “Hauxe da egia: diruzaleak aberats dira; eta apalak, pobre.”

²⁰ Ib.: “Benetan gertatua den zerbait kontatzen duen alegia.”

Codex Phitoeanus deritzonaren bitartez, 94 alegia iritsi zaizkigu, bost liburutan banatuak: I. liburuan, 31; II.enean, 8; III.ean, 19; IV.enean, 26; eta V.ean, 10. Pithou-k argitaratu zituen 1596.ean. Kodex horretan, bost hitzaurre eta hiru epilogo ditugu.

Appendix Perottina deritzon eskuizkribuaren bitartez, beste 32 alegia gehiago iritsi zaizkigu. Nicolai Perottik egin zuen bilduma 1474an. 1727an aurkitu zuten eta 1809an argitaratu.

Erdi Aroko parafraasiak aztertuta, Zander filologoak 30 alegia aurkitu zituen, ustez Fedrorenak, eta 1921ean argitaratu. Marchesi-k beste bi gehitu zituen 1923an. Halere, prosazko testu berregin horiek ez dira edizio kritiko modernoetan jaso; izan ere, dudazkoak dira eta ezin da jakin egiaz Fedrorenik ezer ba ote dagoen.

Edizio modernoek, halatan, Louis Havetenak (1923) eta Mañasenak (1998) esaterako, 126 alegia egozten dizkiote Fedrori, *Codex Phitoeanusekoak* eta *Appendix Perottinakoak*, hain zuzen ere.

Fedroz gainera, Babrio eta Aviano ditugu, beste batzuen artean, garai hartan.

Babrio K.o. II. edo III. mendekoa da. Grekeraz idatzi zuen erromatar poeta honek. Esoporen 123 alegia egokitu zituen, neurri kolianbikoan. Alegia labur-laburrak dira, baina oso dotoreak, neurtitz zaindukoak. Gazteentzat idatzi zuen, eta Alexandro izeneko enperadore baten semeari eskaini zizkion (Janssens, 1955: 23). Athos mendian, 1844. urtean, aurkitu zituzten, eta urte berean argitaratu ziren (Paris, Boissonade).

Avianok, K.o. IV. mendean, Babrioren 42 alegia berridatzi zituen distikotan. Ospe handikoak izan ziren, batez ere Erdi Aroan, eskolako testu gisa baliatu baitziren.

II. 3. Alegia, Erdi Aroan

Esoporen, Fedroren eta indiar tradizioko alegiekin osatu zen Erdi Aroko alegiaren moldea. Garai hartako Europan, greziar tradizioko alegia eta indiar tradiziokoa (persierazko eta arabierazko itzulpenak bitarte) batu egin ziren.

Alegiak ez zuen bilakaera handirik izan Erdi Aroan. Aski izan zuen Antzinateko gaiei berriz ekitea. Neurtizgintzak, gainera, ariketa huts ematen zuen gehiago generoa

edertzeko eta berritzeko bitarteko bat baino: alegialariak mamiaz gehiago kezkatu ziren formaz baino.

Erdi Aroan ez ziren ez Esopo ezta Fedro ere modu zuzenean ezagutu, hots, bakoitza bere obrari lotuta.

Latinezko alegiak, aro horren hasieran, izenik gabe, Esoporen izenean edota ezizenekin agertu ohi ziren. Nagusiki Fedroren alegiak baliatu ziren, haren garaian baztertu baziren ere, eta, beraz, Fedroren alegien prosifikazioak hasi ziren erabiltzen, baina Esopo izenaren pean edota *Romulus*²¹ izenaren pean. 1596an atera zen Fedro anonimotasunetik, Pithouk *Codex Phitoeanus* eskuizkribua argitaratu zuenean, latindar alegialariaren izenpean.

Grekozko alegiak, aro horretan, hiru alegia-bilduma anonimotan ditugu: *Augustana* deritzon bilduma, IV edo V. mendekoa Adradosen ustez (1969: 236), baina I. edo II. mendekoa Chambryren ustez, Schneider-ek 1812an argitaratua, eta 235 alegia inguru bildu zituen; *Vindobonense* deritzona, VI. mendekoa; eta *Accursiana*, IX. mendekoa, baina Perryren ustez XIV.ekoa, Bonus Accursiusek 1479an argitaratua. Bilduma haien egiletza auzi nahasia izan zen, Chambryren edizioa atera zen arte, 1925ean. Hausrathen edizioak (1940-1956) eta Perryrenak (1952) ere lagundu dute egoera argitzen, eta Esoporen alegiatzat hartzen dira harrezkero.

Rodríguez Adradosen bildumen artean jarraipen moduko bat igarri zuen (1969: 236): *Vindobonensea Augustanatik* dator; eta *Vindonobensetik*, *Accursiana*. Bilduma horiek guztiak bertsoz idatzitako alegia zaharragoen prosifikazioak dira.

XI. mendetik aurrera, elizak eta elizgizonek bultzada eman zioten alegien zabalkunde handiari. Alegia ugari sermoietako etsenplu-liburuetara igaro ziren, abadeen ekarpenez. Latinez idatzita egon arren, batere dudarik ez da, sermoietan, ahoz, herri-hizkuntzaz kontatu zirela, guztientzako baliagarriak izan zitezten. Hortaz, XI. eta XII. mendeetan alegiak oso zabalduta ziren mendebaldean, eta arte erromanikoan ere egiazta daiteke hori, elizetako apainduretan ikus daitekeenez.

²¹ *Romulus* Erdi Aroko kodex baten izena zen, eta goitzen moduan erabili zuten prosazko alegia-bildumen egileek.

Gauza jakina da, jada, alegietatik ondorioztatzen zen morala paganotasunaren ohiko morala izaten zela: ezinezkoa da gauzen kondizio naturala aldatzea, baita giza kondizioa eta gizakien izaera beste modukoa bilakatzea ere. Kristautasunak, baina, munduaren beste kontzepzio bat ekarri zuen, eta ikuskera berri horrek ematen zion gizakiari bere izaera aldatzeko ahalmena. Hala eta guztiz, Elizak eta Aita Santuek, alegien oinarri morala gomendatuz, tradizio esopoarra galbidetik salbatzen lagundu dute.

1251. urtean, *Calila y Dimna* izenburupean argitaratu zen gaztelaniaz *Pantxatantra* indiar liburuaren bertsioa. Gaztelako Alfontso X.a Jakitunak agindu zuen itzulpena, eta Juan de Capuak itzuli zuen, V. mendeko persierazko itzulpen bat eta VIII. mendeko arabierazko itzulpen bat erabiliz.

XIV. mendean, Planudio fraide bizantziarra dugu. Italiara joan zen bizitzera, eta bere kultura-giroan tradizioz jasotako alegia esopoarrak bildu zituen grekoz eta hitz lauz. Gainera, Esoporen bizitza bat idatzi zuen. Rinucciok²² Planudioren 100 alegia eta Esoporen bizitza hura latinera itzuli zituen. Horixe izan zen Esoporen alegien lehenbaitziko latinezko edizioa (Erroma, 1473), eta handik aurrera hasi ziren zabaltzen mendebaldean Esoporen alegiak.

XIV. mendez geroztik, alegiak zituzten liburu asko zebilen. Gaztelan, esaterako, Hitako artzapezak alegia esopoar batzuk, 25 inguru, sartu zituen bere *Libro del Buen Amor* poesia liburuan (1330 eta 1343). Juan Manuelek, era berean, iturri askotako alegiak tartekatu zituen *El Conde Lucanor*-en (1330-1335).

Lorenzo Vallak Esoporen 33 alegia eman zituen latinez (Valencia, Lamberto Palmart, 1480). Bertsio horrek hainbestearainoko arrakasta izan zuen, urte askoan izan baitzen itzulpen- eta irakurketa-liburua humanitateetako ikasleentzat Gaztelan, harik-eta, XVI. mendearen erdialdera, alegialari handiaren edizio osotuagoak inprimatu ziren arte.

Hurrengo urratsa alegiak herri-hizkuntzetan berridaztea izan zen. Herri-hizkuntzetan argitaratu ziren alegia esopoarren bildumei *Isopete* deitu zitzairen, hots,

²² Rinuccio izena *Remicius* bilakatu zen, ezkuizkribua irakurtzean egindako akats baten ondorioz.

‘Esopo ttikia’. *Isopeteak* herri-mintzairetan izanik, gizarte laikora hedatu zen alegia. Izan ere, ordura arte alegia elizgizonen eta jende ikasiaren esparrukoa izan zen soilik.

Lehen *Isopetea*, *Esopus*, Heinrich Steinhöwel medikuak egin zuen, latinez eta alemanez (Ulm, 1476-77). Italierazkoa, 1479an agertu zen; frantsesezkoa, 1484an; ingelesezkoa, urte berean. Gaztelaniazko lehenengoa, *La vida de Ysopet con sus fábulas historiadadas*²³, 1489an, Zaragozan, Johan Hurusek argitaratu zuen. Ez da jakin nork egin zuen gaztelaniazko bertsio hura. Libururik irakurriena izan zen gaztelaniaz hiru mendetan eta askotan argitaratu zen XVI. eta XVII.ean.

Bost zati nagusi izan ohi zituzten *Isopete* direlakoak:

1. Esoporen alegien lau liburu, hogeina alegiadunak, guztira 80. Alegia horiek Vallaren, *Remiciusen*, Fedroren eta abarren itzulpenetan daude.
2. Alegia *extravagante* edo ezohikoak direlakoak, 17, Esoporenak baita ere. Hala esaten zaie bilduma zaharrenetatik eta ezagunenetatik kanpo ibili zirelako.
3. *Remiciusen* itzulpeneko 17 alegia, esopoarrak, halaber.
4. Avianoren 26 alegia.
5. “Colletas” direlako alegiak: Pedro Alfonsorenak, Poggiorenak eta abarrenak. Guztira, 22; gehienak, ipuin satiriko eta pikareskoak.

II. 4. Alegia, Aro Modernoan

Kontatzeko modu berri bat agertu zen, askoz libreagoa eta atseginagoa: garrantzia handiagoa eman zitzaion formari.

Garai hartan, grekoz idatzitako alegia anonimoak aurkitu ziren eta, horrenbestez, latindar bertsioak, denbora luzean izan baitziren bertsio bakarrak, grekozko jatorrizkoekin alderatu ahal izan ziren.

Mendebaldeko unibertsitateetan jarraitu zen alegiak ikasten eta aztertzen, erretorika- eta estilo-ariketetan, Antzinatean eta Erdi Aroan bezala.

²³ Berariaz emana dago hor izenburua, gaztelaniazkoa izan baitzen Bizenta Mogelek erabili zuen bertsioa bere *Ipui onac* idazteko.

1610ean Isaac Nicolas Nevelet-en *Mythologia Æsopica* plazaratu zen, Frankfurten. Oso bilduma aberats eta oparoa izan zen: Esoporen alegiez gainera, Fedroren *Codex Phitoeanuseko* alegiak ere bazituen, eta, guztira, 782 alegiak osatu zuten liburua. La Fontaineek eskuarteko liburua izan zuen, *Fables choisies mises en vers* idatzi zuenean (1668, 1678-79, 1694). Generoa zabal zedin, Esopok bezainbesteko garrantzia izan zuen alegialari frantsesak gerora.

La Fontaineren ondoren, bi motatako alegialariak ditugu: gai klasikoan tradizioari jarraitu ziotenak, batetik, eta, ikusirik maisu aparta eta goi-goiko hura ezin berdindu zezaketela, gai berriak asmatzen hasi zirenak, bestetik. Horrela, bada, alegia berrien aroa hasi zen, Janssens hitzak erabiliz (1955: 64): alegia berria garai bakoitzeko pentsaeraren eta kezken lekuko izango zen, ordutik aurrera.

XVIII.eko Europan berebiziko garrantzia erdietsi zuen alegiak, Antzinatea biziberritu baitzen orduan. Ingalaterran John Gay alegialaria izan zuten; Frantzian, Florian okzitaniarra; Alemanian²⁴, Lessing; Espainian, alegiaren urrezko aroa izan baitzen, Samaniego eta Iriarte.

Idazleak liluraturik agertu ziren alegien aurrean; izan ere, alegietako portaera moraleko auziak ilustratuen interesekoak ziren. Iñaki Aldekoak dioenez (2004: 73), La Fontaineren garaiko alegiaren jauregi-giroko tradizioa Ilustrazioaren zedarrietan egokitu zen Samaniegoren garaian eta, hala, literatura pedagogiko eta laiko moduan zabaldu zen alegia, Europan barrena, XIX. mendean. Irakaskuntzaren bidez oso zabaldu zen, beraz, generoa.

II. 5. Alegia, Aro Garaikidean

XIX. mendean alegia generorik herrikoienetako bat izan zen. Bazter guztietan agertu ziren alegialariak. Gaiak ugaritu egin ziren eta bilduma espezializatuak atondu ziren, adibidez, politika-kontuak jorratzen zituzten alegiekin. Testuinguru horretan, alegiak, tonuaren eta gaien aldetik, kritiko-ohiturazko bihurtu ziren. Ekoizpenak gora egin zuen; kalitateak, aldiz, behera.

²⁴ Alemanak izan ziren, hain zuzen, alegia kritika-gai seriotzat hartzen lehenak (García Gual, 1991: 159).

XIX. mendearen bigarren erditik XX. mendeko lehen erdira bitartean, eskola izan zen alegien esparrurik gogokoena. Hala ere, sormenetik elbarri gelditu zen alegia, eta sormena urritzeaz batera, alegiaren gainbehera hasi zen (Janssens, 1955: 94).

Batzuek alegiagintzaren itzaltze hori arrazoitzen dute argudiatuz ezen alegia eta alegialariak Haur Literaturaren arloari erraxki atxiki zitzaizkiola, alegia lehen mailako azpigeneroa izatetik erauziz (Acillona, in Agirreazkuenaga, 1991: 83). Baina hartzailea aldatzearekin batera beste aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen: generoak helburua eta baliagarritasuna galdu zituen (ibidem: 85).

Ozaetak dioenez (1998: 194), XX. mendearen hasieran alegialariak urritu egin ziren, edo, bestela, idazle horien ekoizpen osoaren zati txiki bat baino ez zuten osatu alegiek. Kalitateak ere behera egin zuen. Edozein modutan, eskolako genero izaten jarraitu zuen. Alegiek ez zuten onarpen handirik izan genero didaktiko, moral edo satiriko gisa; haurrentzako ipuintxoan moduko egokitzapen gisa baino ez ziren onartu (ibidem: 197).

Orditik hona, gizartearen eta hezkuntzaren esanahia aldatu ahala, alegia eskola-esparrutik desagertuz joan da.

XX. mendean, gainera, alegia esopoarren edizio filologiko modernoak agertu ziren: Chambryrena, 1925ean, 358 alekoa; Hausrathena, 1940 eta 1956 artean, 297 alekoa; Perryrena, 1952, 273 alekoa.

Azken garaiotan, ikertzaileek alegiak urratu dituen bideak aztertu eta haien albiste eman dute. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Ozaeta (1998) eta Kleveland (2002).

Ikertzaile horien arabera, XX. mendeko zenbait egilek alegia landu eta generoa eraldatu dute. Egileok, eszeptizimo postmodernotik abiatuta, genero zaharra biziberritu dute: gai, pertsonaia, hizkuntza eta baliabide erretorikoetan atzeman daiteke eszeptizismo hori. Azterketa eginda, ‘modern literary fable’ edo ‘new fable’ kontzeptua sortu eta haren ezaugarriak zehaztu dituzte ikertzaileek.

Izan ere, alegia zaharrak, bere ezaugarrien artean kaiolatuta, askatze prozesu bati hasiera eman dio egile modernoek eskuetan. Eraldatze horren bidez, egileek lortu nahi dute alegia gaur egungo jendearen intereseko gerta dadin, eta gaur egungo gizartearen portaerak ispila ditzen. Aldaketa horrek lagundu du alegia Haur Literaturaren eremutik ateratzen; bestela, esparru horretan ainguratuta jarraituko zuen (Kleveland, 2002: 121).

Zertan datza aldaketa, ordea? Zer da *alegia berria*? Nolako bereizgarriak ditu?

Kontatzeko modu berri horrek berriz hartu du aintzat alegia esopoarraren esanahi zaharra: alegiak gizartearen eta giza portaeraren zenbait alderdi agerrarazteko eta erakusteko bitartekoak dira, baina irakaspen moralik emateko asmorik gabe. Alegiagintzak berreskuratu egin du gizartea ezagutarazteko eta esplikatzeke jatorrizko asmo hura; eta, halaber, salaketa politiko-soziala, garai klasiko eta inperialean bereizgarri izan zuena.

Nonahitik eszeptizismoa dario alegia berriari: erakusteko edo esplikatzeke asmoa izan ordez, zalantza eragiteko akuilu da. Egia erabatekorik ez dago, oro da erlatiboa, anbigotasuna erabiltzen da, eta, ondorioz, irakurtzeko eta interpretatzeko modu bat baino gehiago izaten da (ibidem: 126-127).

Halako erretorika-teknika garaikideak erabilia, baztertzen da moral jakin baten aldarri egiteko aukera edo irakurlearen heziketan irakaspen esplizitu baten bitartez eragiteko aukera, eta irakurleari berari eskatzen zaio ondorioa atera dezan: zenbaitetan, gainera, ondorioa antiirakaspen bat izaten da (ib.: 119).

Alegia-bilduma modernotara bestelako literatura-formak itzuli dira, alegiarekin baino gehiago beste azpigenero batzuekin zerikusi handiagoa dutenak, hala nola aforismo, anekdota, txiste, enigma eta esaera zaharrekin (ib.: 128). Prosaz idatzita daude, eta muga-mugaraino eramane dute egileek laburtasuna²⁵ (ib.: 130). Paratestuetatik hasita berriztatu da generoa oraingo alegietan, eta berriztatze horretan alegiaren izenburua funtsezkoa da. Idazleek metahizkuntza erabiltzen dute eta generoa intelektualizatzen dute. Alegia berriko pertsonaiak konplexuak dira, ez dira ezaugarri

²⁵ Literatura garaikidearen ezaugarrietako bat baita laburtasuna. Italo Cavinok bere *Six Memos for the Next Millenium* hitzaldi-sortaren “Quickness” atalean zenbait gogoeta utzi zituen laburtasunaz, erritmoaz, literatura laburrak, oro har. Atal horretan Monterrosoren dinosauroaren ipuin edo alegia laburra aipatu zuen, gerora hain famatua bihurtutakoa. Izan ere, mikroerrelatoetan muturreraino eramane dago laburtasuna.

bakarrekoak; erabiltzen dituen animaliak ez dira ohikoak izan tradiziozko alegietan. Alegia berriak animaliatasuna eta basakeria gizakiengan ispilatzen ditu; tradiziozko alegiak, aldiz, giza izaera animalietan ispilatu ohi zuen.

Hala, alegia berriari hiru alderdi nabarmentzen dizkio Klevelandek (ib.: 152) bere ikerketaren laburpen gisa: eraberritzea, eguneratzea eta intelektualizatzea.

Horrelako paradigma-aldaketetan sarritan gertatu ohi den legez, ernamuina urrutiago dugu denboran, Klevelandek aztertu duen bezala: Ambrose Bierceren *Fantastic Fables* (1899) jo du ikertzaileak alegia berriaren ernamuintzat. Gizarte-kritika gogorra egin zuen estatubatuar idazleak alegia-bilduma horretan, alegia zaharrak berriatuz eta berriak sortuz.

Lerro berekoak ditugu, denboran gertuagokoak, ezagunenetako batzuk aipatzearen, Alvaro Yunque (*Los animales hablan*, 1930 inguruan), Francisco Monterde (*Fábulas sin moraleja y finales de cuentos*, 1942), Augusto Monterroso (*La Oveja negra y demás fábulas*, 1969) eta Juan Gelman (*Fabulario*, 1971).

Euskal Herrian, besteak beste, Atxagak aldarrikatu du alegien balioa, esangura berri horren ildoan, berriztatze moderno horren harian. Patxi Zubizarretak nabarmendu zituen Atxagaren hitzak HGLri buruzko artikulu batean (2008: 84): “Irakurri Esoporen alegiak, eta La Fontaine, Iradier edo Samaniegoren bildumak, eta iruditzen zait zentzuz beterik daudela, umorez beterik, eta hainbestetan gaitzetsi izan diren amaierako ikasbide horiei guztiz inozo irizten diet, halako moldez non laranja bat zuritzen den bezain erraz ezaba daitezkeen”.

Neurri batean, Atxaga bera ere alegialaria dugu. Ozaeta ikertzaileak, esaterako, *Bi anai* (1985) alegiatzat jo zuen bere tesian (1998: 199). Nola edo hala, Atxagaren obra zabalean barrena iturrien bila abiatzen den ikertzaileak sarri aurkituko ditu alegia zaharrak haren kontakizunen azpian, eta, batzuetan, ageri-agerian, modu esplizituan²⁶.

²⁶ Esate baterako, *Zazpi etxe Frantzia* (2009) eleberrian, La Fontaineren “La Cigale et la Fourmi”ko bertsoak behin baino gehiagotan baliatu zituen Atxagak.

Halaber, “Igerasoro” poeta-elkarteak²⁷ alegia berriaren ezaugarriak biltzen dituen poema bat baino gehiago ondu zuen bere *Kartapazioko poemak* liburuan (1998)²⁸.

Bestalde, Juan Kruz Igerabidek alegia bat tartekatu zuen, *Hauts bihurtu zineten* (2005) eleberriko pasarte batean: Esoporen “Orakulua eta fedegabea”, hain zuzen.

Ikerketa-ildo emankorra jorra liteke lekukotasun horietatik abiatuta; tesi honen helburuak gainditzeko, ordea.

Alegia berriaren muina laburtzen dutelakoan, hona “Igerasoro” poeta-elkartearen bertso batzuk (1998: 70):

Gizaki ehizean aritzen direnei

Ehiztariaren senak badaki jakin
gizaki bakoitzaren baitan
edozein piztia aurki dezakeela.

Kantitatez eta kalitatez, alegia ez da literatura-lekukotasun goitarra, baina, hala eta guztiz ere, bere xalotasun, atsegingarritasun eta gertutasunarengatik, gaur egun ere, lilura sortzen du eta zirrara eragiten.

²⁷ Juan Kruz Igerabide eta Karlos Linazasoro.

²⁸ Ikus bedi, esaterako, “Erbiak ez daki nork maite duen...” hasiera-bertsoa duen poema.

III. KAPITULUA

METODOLOGIAREN OINARRIAK

III. METODOLOGIAREN OINARRIAK

III.1. Literatura-itzulpenari buruzko ikuspegiak

Igaro den mendearen berrogeita hamarreko hamarraldian hasi ziren itzulpengintzaren alorreko lehen ikerketa zientifikoak argitaratzen. Ikertzaile ugari heldu dio ordutik hona itzultzeak berez dakartzan auzi eta arazo teoriko, metodologiko eta praktikoak aztertzeari. Horrek ez du esan nahi ordura arte itzultzearen zereginaz, zertarakoaz eta abarrez gogoetarik egin ez zenik. Aitzitik, gogoetak ugari dira eta diakronian aspaldikoak, Zizeronen garaian hasita, oratoria-liburu, epistola, aitzinsolas eta bestelako testu-motatan barreiatuak. Horiek ez ditut iruzkinduko, hala ere, garai aurrezientifiko bati dagozkion gogoetak eta ikerketak direlako. Bai, ordea, berrogeita hamarreko hamarkada hartatik hona zientzia-asmoko ikerketen ezaugarri nabarmenenak.

Literatura itzulia da tesi honetan ikergai eta ikerkuntza-lerro. Beraz, jakintza-arlo hori zertan den agertu behar da. Izan ere, badira lan honen aurretik beste bi lan, ikerkuntza-lerro berean, jakintza-arlo honi dagozkion auziak nahiko zabal deskribatu dituztenak (López Gaseni, 2000: 37-59; Gomez Zubia, 2004: 53-77). Ez ditut errepikatu nahi lan haietan esandakoak; informazioa osatu nahi dut eta neure irakurketa eskaini.

Bibliografia zabala dago itzulpengintzaz. Aukera egin eta, besteak beste, iturri hauek erabili ditut atal hau burutzeko: Holmes, 1970; Lefevere, 1975, 1997; House, 1977; Derrida, 1977, 1987; Toury, 1980, 2004; Hermans, 1985; Shavit, 1986; Even-

Zohar, 1990; García Yebra, 1994; Gallego Roca, 1994; Vidal Claramonte, 1995; Fernández López, 1996, 2003; Lvóvskaya, 1997; Carbonell, 1997; Basnett eta Lefevere, 1998; Pascua, 1998, 2003; Iglesias Santos (koord.), 1999; Mayoral, 1999; Cuéllar, 2000; Hurtado Albir, 2001; Moya, 2004; Eco, 2006. Baita, beste hauek ere, nola edo hala, harremana badutelako: Etkind, 1982; Bakhtin, 1985; Barthes, 1987; Borges, 1989; Genette, 1989; Fischer, 1999.

Literatura-itzulpenak ikertzea diziplina arteko zeregina da. Gauzak horrela, zenbait ikusmolde edo joera nagusi bereizi behar ditugu aurreko ikerketa horien artean: ikuspegi linguistikoa, ikuspegi filosofikoa, ikuspegi intertestuala eta ikuspegi komunikatiboa. Badira, hala ere, beste ikusmolde batzuk, hala nola kognitiboa, testuala, eta abar.

III.1.1. Itzulpenaren ikuspegi linguistikoa

Ikusmolde linguistikoa XX. mendeko 50eko hamarkadan hasi eta 70eko hamarkadaren hasiera arte iraun zuen.

Ikuspegi hori zutenak esentzialistak ziren: saiatu ziren itzulpena zer den adierazten, itzultzea litekeen gauza den edo ez zehazten (itzulgarritasunaren auzia, dena ez baitzitzaien itzulgarri iruditzen, poesia, esate baterako), eta epaitu egiten zuten itzulitakoa (ona ala txarra zen). Oro har, ikusmolde horretakoen iritzian, hauxe da itzultzea: sorburu-hizkuntza baten material linguistikoaren ordeztu, material linguistiko baliokidea ematea xede-hizkuntzan. Enfasia hizkuntzari eman zioten, ez hizkerari. Kontua da, hala ere, ezen, hizkuntzek ez baitute errealitatea modu berean sailkatzen, adieraziak ez datozela bat, eta horrek itzulgarritasuna zalantzatan jartzen duela. Ikusmolde horretakoek, baina, ez zituzten kontuan hartu ez itzulpenaren funtzioa, ez testuingurua, ez eta kultura-ikuspegia ere.

Gainera, ez zuten aintzat hartu hizkuntza-adieraziaren eta esanahiaren arteko aldea; jakin badakigu, ordea, enuntziatu berak esanahi diferenteak hartzen dituela egoera diferenteetan.

Sorburu-testuari begiratu zioten: egilearen asmoa zein den jakin daitekeela uste zuten. Horren arabera, sorburu-testuaren esanahia beti berdina eta irmoa dela uste zuten eta, horretan oinarrituta, baliokide ideal eta bakar bat dagoela. Kontzeptu giltzarria da,

gainera, baliokidetzarena ikusmolde hau zutenentzat. Sorburu-testuaren egilea goretsi zuten eta itzultzailea gutxietsi.

Arlo teorikoan, oso gutxitan jardun zuten literatura-itzulpenaz. Itzultzea bera zuten jomuga, eta, horrekin batera, itzultzen irakastea, itzulpena zientzia-jarduera bilakatzea helburu. Hizkuntzalaritza konparatuaren printzipioak eta metodoak erabili zituzten itzulpena ikertzeko. Hala, gramatika tradizionalaren kategoriak baliatu zituzten hizkuntzen arteko konparaketan.

Beste zenbaitzuek, ikusmolde linguistikoaren barruan, Estilistikaren printzipioak onetsi zituzten (Vinay/Darbelnet, 1958; Newmark, 1987...). Estilistikazaleen ekarpen nagusia izan zen itzultzeko prozedura batzuk zertan diren finkatu eta sailkatu izana, hala nola, mailegua, kalkoa, transposizioa, modulazioa... Autore horien ustez, irtenbide bakar bat besterik ez dago, balizko guztien artean, itzultzeko garaian. Gaur egungo ikuspegitik, berriz, ezin zaio alde zuzeneko eskemarik ezarri itzultzeari.

70eko hamarraldiaz gero hasi zen aldarrikatzen itzulpena jarduera diskurtsiboa eta testuala dela. Autore asko (Seleskovitch, Catford...) testu-tipologiaren garrantzia nabarmentzen hasi ziren itzulpengintzaren alorrean. Hala, hizkuntzalaritza testualaren ekarpenak onetsi zituzten. Hizkuntzak konparatetik testuak konparatzera igaro ziren. Batez ere, testu barneko alderdiak azpimarratu zituzten analisia egiteko, hots, testuak barnetik nolako funtzionamendua duen. Hala, bada, konturatu ziren egitura testuala aldatu egiten dela hizkuntza batetik bestera. Hots, aldatu egiten direla konposizio-printzipioen hierarkia, konexio mekanismoen erabilera, gaien progresioa eta beste. Eta kontu hauek guztiek behar zutela izan itzulpen-teoriaren aztergai.

70eko hamarkadan, beste ikusmolde bat garatzen hasi zen, ikusmolde kognitiboa, hain zuzen, psikolinguistikaren eta psikologia kognitiboaren printzipioak onetsita. Itzulpena nabarmendu ordez, itzultze-prozesua aztertzeaz eta itzultzeari eragiten dioten prozesu mentalak aztertzeaz arduratu ziren.

III.1.2. Itzulpenaren ikuspegi filosofikoa

Ikusmolde filosofiko eta hermeneutikoek ere egin dute ekarpenik itzulpenari buruzko teoria garaikideetan. Horien artean, Derrida ezin da aipatu gabe utzi. Bere dekonstrukzioak eragin handia izan zuen 60ko hamarkadaren azkenetan. Derridak

eraitsi egin zituen mendebaldeko pentsaera-bideak gobernatzen zituzten bitariko aurkakotasunak. Horrela, bada, itzulpenaren teorian zeuden bitariko bereizketak ere dekonstruitu zituzten Derridak eta postestrukturalistek, hala nola forma/edukia, sakoneko egitura/azaleko egitura, adierazlea/adierazia, jatorrizkoa/itzulpena, egilea/itzultzailea...¹ Derridaren dekonstrukzioak, beraz, originaltasun eta autoretza kontzeptuak errefusatu eta gezurtatu zituen.

Originaltasunari dagokionez, Derridak eta haren jarraitzaileek adierazi zuten jatorrizkoa ere itzulpena dela, beste testu askoren itzulpena. Horrek esan nahi du originaltasunaren ideia ez dakiokela egokitu ezein testuri, testu orok beste testu batera bidaltzen baikaitu. Hortaz, testu oro, bai jatorrizkoa bai haren itzulpena ere, intertestu bat da, palimpsesto bat, aipu-mosaiko bat, Kristevak adierazi zuen legez (1978a: 190).

Derridak pentsaera tradizionala irauli egin zuen, hots, itzulpena jatorrizkoaren mendean dagoelako pentsaera. Derridaren arabera jatorrizkoa itzulpenaren mendean dagoela esateraino ere irits gaitezke. Iraun dezan, jatorrizkoak itzul dezaten erregutzen du, itzulpenari esker irauten baitu jatorrizkoak bizirik. Derridaren ustean, itzulpenak jatorrizkoa handitu egiten du eta aldatu. Itzulpenaren eta itzultzailearen balioa handitu egiten da ikuspegi honetan.

Autoretzari dagokionez, Derrida bat dator egilearen garrantzia zalantzan jarri zutenekin². Jatorrizkoaren esanahia osatzen laguntzen duelako, Derridak irakurlea goretsi zuen. Hala, testuaren esanahia zehaztugabea dela esan nahi du Derridak, esanahia ez dagoela bakar-bakarrik egilearen asmoen mendean, irakurlearen eta testuinguruaren (espazioa eta denbora) mendean ere badagoela, nahiz eta egilea ere hartu behar duen kontuan irakurleak. Dekonstrukzioak, hori dela-eta, kontu gehiago egin zien testuaren hutsarte edo tarte zehaztugabeei, testuan agerikoak diren osagaiei baino.

Beraz, irakurle ere badenez gero, itzultzaileak aurrean duen testuaren esanahia ez da inoiz bakarra, irmoa eta iraunkorra izango. Itzultzaileari adierazle-kate horrek adierazi bat iradokitzen dio gaur, eta beste bat bihar, eta, litekeena da berari iradokitzen

¹ Horiek guztiak Polisistemaren Teorian ditugu (ikus bedi infra § “III.1.4.”), baina Polisistemaren Teoria ez zen gai izan osagai anibalenteak eta hibridoak ikusteko.

² Barthesek, esaterako, egilearen heriotza iragarri zuen 1968an. Irakurlea indarra hartzen hasi zen, harrezkero.

diona ez etortzea bat beste itzultzaile bati iradokitzen dionarekin. Irakurlea eta itzultzailea ez daudelako inoiz bukatuta edo eginda. Hori horrela, baliokidetzaren nozioa ere ezeztatu zuen. Itzultzailea, Derridaren ustez, sortzaile da, eta itzulpena, aldaketa etengabearen dagoen obra baten idazketa, berridazketa eta eraldaketa emankorra. Itzulpena ez da erreproduzio bat, ezta testu baliokide bat ere.

Itzulpena, Derridaren iritzian, hizkuntza bat beste batean emateko egin den transformazio arautu bat da, testu bat beste baten ordean emateko eginiko transformazio arautu bat. Arautzeak kontrol-irizpideren bat edo beste egotea dakar, eta horretarako, itzultzaileari eskatu zion jatorrizkoa adi eta zuhur irakur zezan. Derridaren ustean, gauzak komunikatzeko ez ezik, gauzak aurkitzeko eta adierazteko, ospetsu bihurtzeko edota sortzeko ere balio du itzultzeak. Ildo berean, Derridak dio itzultzeak ez duela zerikusirik harrerarekin, komunikazioarekin edota informazioarekin, itzulgai den testuaren irakurketa berri eta sortzaile batekin baizik.

Jatorrizkoa irakurtzeko moduz eta irakurle motaz gogoeta egin du berrikitan Umberto Eco (2006). Hona Ecoen kezka: nola bereizi irakurketa ona eta irakurketa apetatsua. Ecoen ustean, ez dago irizpide publikorik interpretazioa egiteko.

III.1.3. Itzulpenaren ikuspegi intertestuala

Intertestualitate kontzeptua eta Derridaren dekonstrukzioa urte berean (1967) eta inguru berean plazaratu ziren, eta elkarri eragin zioten.

Intertestualitate kontzeptuak eragin handia izan du kultura-adierazpide nagusien kritikan, hala nola, literatura, zinema, filosofia eta abarretan. Oinarrizko kontzeptua da literatura eta literatura-testuen bilakaera diakronikoa, oro har, ulertzeko eta, beraz, funtsezkoa da itzulitako literatura ikertzeko.

Intertestualitatearen oinarria, baina, Bakhtinek eman zuen XX. mendeko hirugarren hamarraldian. Bakhtinek nabarmendu zuen kontzientzia, berez, dialogikoa dela –elkarrizketa bidezkoa– eta, ondorioz, ideiak beste ideia batzuekin erlazio dialogikoak ezartzen direnean hasten direla bizitzen. Hortaz, Bakhtinek diskurtsoari ere egotzi zion izaera dialogikoa.

Ildo berean, Borgesek literatura-lanen autoretzaren gaia landu zuen, ironia zorrotzez, *Ficciones* liburuko “Pierre Menard, autor del Quijote” kontakizunean, 1944an (Borges, 1989: 444). Kontakizunean *On Kixoteren* bi testu-pusketa berdin-berdinen intentzionalitate zeharo ezberdin-ustekoak iruzkindu zituen: Cervantesek lehenengo eta Menardek gero, bakoitzak bere aldetik idatzi zituzten testuok, kontakizun horren harian. Aitzindaria izan zen Borges, neurri batean, egilearen heriotza eta testuen mugagabetasuna adierazten, kontakizun horretan eta beste batzuetan³. Borgesek ez zuen beren-beregi intertestualitate terminoa erabili, baina bistan da horretaz jardun zuela praktikan. Jardun ez ezik, solastu eta jolastu ere, beste kontakizun batzuetan ere erabili baitzuen jolas bera. Edozelan ere, *palimpsesto* hitza aipatu zuen “Pierre Menard...”-en, Genettek, gerora, bere obra ezagun baten tituluan erabiliko zuen hitz bera, hain zuzen.

Egilearen heriotza, esan bezala, Barthesek eman zuen aditzera formalki, geroago, "La mort de l'auteur" artikuluan⁴ (1968, *Manteia*, 5). Hala, bada, idaztearen eta idatzitakoaren nagusigoa aldarrikatu zuen.

Séméiotikè lanean (1969), literaturaren izaera dialogikoaz gogoeta egin zuen Julia Kristevak eta *intertextualitate* terminoa sortu. Kristevak dioenez, enuntziatu poetiko batean beste diskurtso batzuk ere irakur daitezke; hala, espazio testual anizkun bat sortzen da esanahi poetikoaren inguruan. Espazio *intertextual* deitu zion Kristevak espazio horri (1978b: 66-67).

Ondoren, eta ekarpen hori kontuan izanda, Barthes testua zertan den adierazten saiatu zen “De l’oeuvre au texte” artikuluan (*Revue d’esthétique*, 1971), intertestualitatearen kontzeptua erabiliz:

C'est ce qui se passe pour le Texte : il ne peut être lui que dans sa différence (ce qui ne veut pas dire son individualité) ; sa lecture est semelfactive (ce qui rend illusoire toute science inductive-déductive des textes : pas de « grammaire » du texte), et cependant entièrement tissée de citations, de références, d'échos : langages culturels (quel langage ne le serait pas ?), antécédents ou contemporains, qui le traversent de part en part dans une vaste stéréophonie. L'intertextuel dans lequel est pris tout texte, puisqu'il est lui-même l'entre-texte d'un autre texte, ne peut se confondre avec quelque origine du texte : rechercher les « sources », les « influences » d'une œuvre, c'est satisfaire au mythe de la filiation ; les citations dont est fait un texte sont anonymes, irréperables, et cependant déjà lues : ce sont des citations sans guillemets (Barthes, 1984:73).

³ Irakur bitez kontakizunok: “El jardín de senderos que se bifurcan”, “Tlön, Uqbar, Orbis Tertius”, “Examen de la obra de Herbert Quai”, “Tema del traidor y del héroe”... eta beste batzuk.

⁴ “...dès qu'un fait est *raconté* [...] la voix perd son origine, l'auteur entre dans sa propre mort, l'écriture commence.” (Barthes, 1984: 61).

Jite zehatzagoa hartu zuen intertestualitatearen kontzeptuak Genetteren ikerketan (1989); izan ere, Genettek zerrendaturiko bost harreman transtestualetatik bat da intertestualitatea⁵. Guztiak dira erabilgarriak tesi honetako corpusaren analisia egiteko, baina hipertestualitatea egokitzen da gehien alegien azterketan, Genetteren honako iritzi hau kontuan hartuz gero: “alegiagintza genero hipertestuala eta parodikoa da ia osoki”⁶ (ibidem: 89). Izan ere, hipertestualitatea zera da: “B testu bat (*hipertestu* deitua) A testu lehenagoko batekin (*hipotestu* deitua) lotzen duen edozein erlazio; iruzkina ez beste edozein modutan txertatzen da B testua A testuan”⁷ (ib.: 14).

García Guallek ere nabarmendu zuen alegien izaera hipertestual hori eta, neurri batean, abiapuntutzat hartu zuen “Azeria eta Belea” alegiaren gaia darabilten zenbait aldaera aztertzeke (1995).

Genettek, halaber, testu batek jasan ditzakeen itxuraldaketez jardun zuen. Transposizioak deitu zien halako itxuraldaketei. Eta, guztien artean, itzulpena iruditu zitzaion esanguratsuen, transposizio linguistikoa, transposizio estiloduna eta transposizio kuantitatiboa gertatzen baitira haren baitan.

III.1.4. Itzulpenaren ikuspegi komunikatiboa

Komunikazio-ekintzatzat jotzen hasi zen itzulpena iragan mendeko laurogeiko hamarraldian, ezaugarri espezifikoko dituen komunikazio-ekintzatzat; eta, hala, komunikazio-zientzien arloan kokatu zen itzulpengintza. Itzulpena bi kultura ezberdinen artean egiten dela azpimarratu zen eta, horregatik, itzultzaileak bi kulturok ondo-ondo ezagutu behar dituela.

Ikertzaile gehienek ikusmolde komunikatiboarekin bat egin dute, gaur egun arte, nahiz eta badiren zenbait desberdintasun eskola batetik bestera (*Translation Studies*, Funtzionalistak, *Manipulation School*, Ikerketa postkolonialak...).

⁵ Hauexek dira beste laurak: Paratestualitatea: titulua, azpititulua, tarteko tituluak, aitzin-solasak, epilogoak, oharrak... Metatestualitea: iruzkina ere esaten zaio, hots bi testuren arteko erlazio kritikoa. Artxitestualitea: erlazio guztiz mutua, aipu paratestual taxonomiko batez adierazia (Poesia, Eleberria, esaterako). Hipertestualitatea: lehenagoko testu baten eta beretik eratorritako testuaren arteko edozein erlazio (Genette, 1989: 10-15).

⁶ Itzulpena gurea da.

⁷ Itzulpena gurea da.

Itzulpen-Ikerketa horiek guztiak, nagusiki, Literatura Konparatuaren markoan garatu dira. Literatura itzuliaz arduratu dira, batez ere, eta interesa dute itzulpenen bidez sorturiko literaturen arteko harremanetan. Hortaz, hizkuntzen arteko harremanak ikertu ordez, testuen artekoak ikertzen dituzte.

Alde batetik, Amsterdamgo Eskola (Holmes, Hermans...) dugu eta hangoen teknika deskriptiboak, eta, bestetik, Tel Aviveko Eskola (Even-Zohar, Toury...) eta hangoen Polisistemaren Teoriaren hipotesiak. Joera biak hirurogeita hamarreko hamarraldian garatu ziren, baina 1985. urtetik aurrera eskola bakar batean batu ziren, *Translation Studies* izenaren pean⁸, Theo Hermansen *The Manipulation of Literature* liburua argitaratzearekin. Konparatista horien guztien asmoa hauxe zen: itzulpenei buruzko jakinduria sistema historiko-literarioak zehazteko erabiltzea.

*Translation Studies*en hasiera Holmesek gidatu zuen, eta Itzulpen-Ikerketetan hiru lerro nagusi bereizi zituen: Deskripzioa, Teoria eta Aplikazioa.

Itzulpen-Ikerketa Deskriptiboak, halaber, beste hiru lan-esparrutan banatu zituen, zein den ikerketa foku nagusia: Funtzioa, itzulpenek xede-kulturan betetzen duten zeregina aztertzen duten ikerketak; Prozesua, itzultzean egiten diren gogoetak eta hartzen diren erabakiak ikertzen dituztenak; eta Produktua, itzulpenak aztertzea helburu dutenak (1970: 92-93).

Itzulpen-Ikerketa Teorikoak, ikerketa deskriptiboen emaitzetan eta bestelako jakintza-arloetako ikerketetan oinarrituta, itzulpena esplikatzeke eta aurrez esateko balio zezaketen teoriak eta hatsarreak garatu behar zituen.

Itzulpen-Ikerketa Aplikatuak itzultzaileen trebakuntza eta itzulpenen kritika hartu behar zituen jomugatzat.

Gaur egungo ikuspegitik badakigu, ordea, Holmesen Produktua izan dela *Translation Studies*ekoan ikergai bakarra urteotan, eta teoriaren eta praktikaren artean amildegi moduko bat sortu dela, ez baitira gauza izan teoria orokor bat sortzeko.

⁸ Holmesek 1972an proposatu zuen izen hori, ahozko komunikazio batean III. Nazioarteko Linguistika Aplikatuko biltzarrean (Kopenhage), baina 1988ra arte ez zen nazioartean hedatu.

Literatura, ikuspegi honetan, sistema⁹ heterogeneoa eta dinamikoa da. Hala, kultura “sistemen sistema” konplexu bat da, zenbait azpisistemak osatua, hala nola literaturak, zientziak eta teknologiak. Era berean, elkarren mendeko diren osagai-sarea da literatura, eta sare horretan osagai bakoitzak jokatzen duen paper espezifikoak besteekin duen harremanak zehazten du (Iglesias Santos, 1999: 9). Sistemak elkarren artean gatazkan daude etengabe: dinamismoaren erakusgarri da hori. Horrenbestez, dinamikoa da literatura, garai bakoitzean ‘literariotzat’ hartzen diren ‘jarduerak’ eta ‘harremanak’ direlako garai hartako ‘literatura’.

Literatura itzuliak ere rol sormenezko eta berritzailea jokatzen du literatura-sistemaren barruan. Horren arabera, literatura itzulia bi polistemaren arteko eragin-trukean gertatzen da: sorburu-testua bere barnean hartzen duen polisistema, bata, eta xede-testua onartzen duen polisistema, bestea.

Ikerketa sistemikoak dira. Testu itzuliak testu berezi gisa eta multzo gisa –ez banaka– ikustea eta ikertzea dute xede. Testuak bakartuta eta bereizita aztertu beharrean, testu-sorta zabalak hartzen dituzte kontuan azterketak egiteko.

Ikerketa errealistak dira, hots, gizarte jakin batean itzulpen gisa funtzionatzen duten testuak dituzte ikergai. Ez dute aintzat hartzen ez itzulpen potentziala, ezta itzulgarritasunaren auzia ere.

Sakratutasuna kentzen zaio sorburu-testuari. Izan ere, Literatura-Teoria modernoak –Harreraren Estetikak– dio testuek esanahi ugari dituztela eta era askotara interpreta daitezkeela. Itzulpena, beraz, sorburu-testutik beregain bihurtzen da.

Itzulpenari begira daude, eta xede-kulturari, eta ez, orain artekoak bezala, sorburu-testuari: itzulpenak xede-sistemako gertaerak dira soilik (Toury, 1980: 19). Itzulpenak xede-kulturaren zenbait kultura-arau, zenbait estrategia diskurtsibo eta konbentzio gordetzen ditu. Izan ere, jatorrizko testuak bezain garrantzitsuak dira halakoak.

Pragmatikoak dira, hots, garrantzia ematen diote xede-literaturan itzulpenak duen funtzioari. Ez soilik duen funtzio linguistiko-literarioari, ezpada ze funtzio

⁹ Errusiar formalistek sortu zuten sistema kontzeptua Literatur Teoria modernoan.

politiko, ekonomiko eta gizarte-alorreko. Itzulpena ezin bereiz baitaiteke xedekulturaren identitatea osatzen duten mekanismoetatik, eta, ondorioz, zenbait kulturaleskemaren egiaztapen- edota aldaketa-eragile bihurtzen da itzulpena, nolakoa den bi kulturen arteko harremana (sendotasun/ahultasuna, mendekotasun/mendekotasun eza).

Gauza batzuk lehenesten dituzte eta beste batzuk alboratzen. Esaterako, testuinguruaren osagaiak kontuan hartzen dituzte, itzulpena komunikazio-ekintzatzat hartzen dutelako. Halaber, kultura-osagaien garrantzia nabarmentzen dute itzulpenean. Baina, ardura gutxi die fidelitateak: baliokidetzak izaera konplexua duela diote, eta, horregatik, baliokidetzaren ikusmolde klasikoa baztertzen dute. Ardura gutxi die, baita ere, kalitateak: beren ustez, itzulpen asko dira onak. Beraz, ez dira arau-emaileak. Hala ere, itzulpenak denboraren poderioz iraungi egiten direla diote. Itzultzen irakasteko grina ere desagertu da: itzulpen-ikerketen helburua ez da itzultzaileek itzulpen hobek egitea, baizik eta itzulpena gobernatzen duten barne mekanismoak zein diren jakiten saiatzea.

Metodologiari dagokionez, ikerketa enpiriko eta deskriptiboak dira. Lelo hauxe dute: “ez pentsatu; bai, ordea, begiratu!” Aldez aurreko ideiak baztertu behar dira eta eduki daitezkeenak ez dira azterketaren aurretik ipini behar. Enpirismoaren arazoa baina, honako hau da: begiraturaz begien bistako harremanak baino ez direla ikusten. Arazo hori eragozteko, bitartekoak ipini behar dira itzulpenaren errealitateak bere aberastasun guztia erakutsi dezan.

Behetik gorako analisiak baztertu (hots, kategoria sinpleenak –hitzak eta perpausak– aztertzen hasten diren metodoak), eta alderantzizko metodoak erabiltzen dituzte (hala nola, maila makrotik hasi eta maila mikroan jarraitzen dutenak).

Jakintza arloaren eta lanbidearen prestigioa hazi egin dira: itzultzailea sorburu-testuaren (ST) mirabe izatetik kulturen arteko komunikazio-aditu izatera igaro da. Itzultzailea sortzailea da eta, baita ere, bere ondo eginen eta txarto eginen arduraduna. Mintzo propioa du. Testu berriak beste testuinguru batean laketu beharko du eta, hori gerta dadin, hots, testuak espazio ideologiko berrian bere tokia aurkitu dezan, kontzeptu, irudikapen eta hierarkia berrien artean, itzultzailea da eragile nahitaezkoa. Azken batean, itzultzea artea dela onartzen da inplizituki.

Esan bezala, badira desberdintasunak edo ñabardurak eskolen artean. Esate baterako, *Translation Studies*ekoek (Holmes, Toury, Rabadán...) ez dute bereizketarik egiten itzulpenen eta egokitzapenen artean. Muturrera joanda, Touryren iritziz, itzulpena da xede-kulturan itzulpentzat hartzen den guztia (1980: 22). Funtzionalisten artean, berriz, mugak jartzen zaizkio Touryren baieztapen horri. Adibidez, Lvóvsckayak dio testu bat itzulpentzat har dadin, beharrezkoa dela xede-testua, sorburu-testuarekin alderatuta, komunikazioaren aldetik baliokide izatea (1997: 106). Hala, Lvóvsckayaren iritzian, jarduera elebidun baliokide bat da itzulpena.

Eta hori lortzeko, funtzionalisten iritzian, itzultzaileak fidelitate bikoitz baten mende erabaki eta eraiki behar ditu bere estrategiak eta hautuak: sorburu-testuaren egilearen programa kontzeptualarenganako fidelitatearen mende, batetik, eta erabiltzailearenganako fidelitatearen mende, bestetik. Ez dira horiek, ordea, bi mutur kontrajarri, baizik eta printzipio beraren bi alderdi, eta, hargatik, aldi berean funtzionatzen dute. Komunikazio arau horiek ez dute, haien ustez, inondik ere murrizten itzultzearen sormenezko izaera, baina mugak ipintzen dizkiote itzultzaileari, haren apetakeriak eragozteko.

Metodologiari dagokionez ere badira aldeak. *Translation Studies*ekoek uste dute prozedura deskriptiboa dela baieztapen teoriko orenen zimendu oinarrizko eta nahitaezkoa. Lvóvsckaya funtzionalistaren iritzian, aldiz, datu enpiriko soilak ez dira nahikoa; teoria koherente bat behar da, baliokidetzaren betekizun komunikatiboak formulatuko dituen. Teoriak hori formulatu ondoren, itzultzailearen jardueraren azken produktuak teoriak ezarritako betekizun komunikatiboak bildu beharko lituzke (Lvóvsckaya, 1997: 105-106).

Geroago, *Translation Studies*eko zenbait ikertzailek ere iritzi kritikoa agertu zuten deskripzioan soilik oinarritutako metodologiaren aurrean, gehienetan intuizioak zuzendu duelako ikertzeko modu hori sistematikotasunak baino (Moya, 2004: 124). Deskripzioa bideratzeko, itzulpenaren ekoizpen eta harrera gobernatzen dituzten arauak eta debekuak oso aintzat hartzen hasi ziren, beraz. Izan ere, arauok itzulpenen azterketa deskriptibo sistematikoa egiteko oinarriak ezartzen dituzte. Esaterako, Touryren *norms* direlakoek¹⁰ honako hau zehazten dute: zer-nolakoa den itzulitako testuak duen

¹⁰ Ikus bedi López Gaseni (2000: 48).

harremana STrekiko (onargarritasuna) eta xede-testuarekiko (XT) (egokitasuna), eta harreman hori zein maila testualetan gertatzen den; zer-nolako erabakiak hartzen diren itzultze-prozesuan; zer-nolako lanak aukeratzen diren itzultzeko; itzulpena egiteko zubi-hizkuntzarik erabili den edo ez.

Arauk direla eta, *Manipulation Schoolekoen* artean, Lambert-ek, esate baterako, onartu egiten du, neurri batean, itzultzailearen jarduera arau-kontu bat balitz bezala deskribatu behar dela, baina gaineratzen du itzulpen-arauak inondik ere ez dagozkiela eskusiboki hizkuntzari edota literaturari. Lambertek ustez, erakunde politikoak ipintzen ditu aurren-aurreneko arauak (in Iglesias Santos, 1999: 265). Ardura handiagoa dio Lamberti itzulpenak nork ekoizten edo erabiltzen dituen jakiteak, harako testu hura itzulpena den edo ez den argitzeak baino.

Ildo horretan, Lefeverek printzipiotzat hartu zuen itzulpena mugatzen duten hertsatzaile batzuk badirela, eta hertsatzaileok zehaztu zituen.

Hermans urrutiagora joan zen ikerketa enpiriko deskriptiboak iraganeko kontua zirela esatean (in Hurtado Albir, 2001: 568). Hermansen ustez, nahiz eta itzulpena testuinguruan kokatu behar dela ez duen zalantzatan jartzen, ez dago hain argi kontestualizazioa nola egin behar den (ibidem).

Baina, ahaleginak ahalegin, itzulpen-ikerketak ez dira ez zientzia bat ezta teoria bat ere, ez baitago aurrez esaterik edo iragartzerik nolakoak izango diren itzultze-prozesua eta haren produktua.

III.1.4.1. Berridaztea, manipulaztea: André Lefevere

Laurogeita hamarreko hamarkadan zenbait ikertzaile polisistemaren teoriatik aldendu ziren eta manipulazioari arreta handiagoa ipini zioten. Arretaguneetako batzuk honako hauek izan ziren: zer-nolako eragina duen ideologiak itzulpenetan, zer-nolako rola jokatzen duten erakundeek eta botereak kultura baten barruan... (Lefevere, Bassnett, Genzler...). Esana zuen lehenago Theo Hermansek ezen, xede-literaturaren ikuspuntutik begiratuta, itzulpen guztietan badela manipulazio maila bat, asmo jakin bat helburu duena (1985: 11). Gauzak horrela, Manipulazio-Eskola saiatzen da itzultzaileak jarrera kritikoa har dezan instituzioen aurrean; izan ere, instituzioak neutralak edo beregainak dira itxura batean, baina itxura batean bakarrik.

Lefeverek, Eskola horretako teorikoak, bi kontzeptu giltzarri ekarri zituen itzulpen-teoriara bere *Rewriting and the Manipulation of Literary Fame* liburuan (1992): berridazketa¹¹ eta manipulazioa.

Autorearen iritzian, itzulpena berridazketa mota bat da, berridazketarik eraginkorrena, egile baten irudia edota garai jakin baten, genero baten, batzuetan literatura oso baten irudia, harena ez den beste kultura batean proiektatzeko duen ahalmenarengatik. Berridazleen esku daude, nagusiki, literatura-lanen biziraupena eta harrera (1997: 13). Irakurleek gehiago jotzen dute, gainera, berridazleek berridatzitako literatura irakurtzera idazleek idatzitakoa irakurtzera baino (ib.: 17).

Eta berridazketa orok manipulazioa dakar berez. Berridazleek, hots, baita itzultzaileek ere, jatorrizkoak manipulatu egiten dituzte, itzulpenok garai bakoitzeko joera ideologikoen eta poetologikoen baitan egokitu daitezten. Hau da, berridazleen ageriko jardunaren azpian beti egoten dira mugatzaileak ezkutuan. Lefeverek hertsatzaile deitu zien halako mugatzaileei, eta adierazi zuen itzulpenei buruzko ikerketek hertsatzaile horietan ekarri beharko lituzketela argitara, itzultzailearen estrategiak mugatzen baitituzte.

Halatan, bada, teoriko hauek uste dute xede-kulturaren gizarte-arauek eta literatura-konbentzioek gobernatzeko dituztela itzultzailearen aurreiritzi estetikoak, eta, horrenbestez, arau eta konbentzioek eragina daukatela itzulpen-hautuetan. Horregatik, garai konkretu bateko jakinduria antolatzeke moduak determinatzen du itzultzearen izaeraz egiten den gogoeta oro. Arauak, beraz, behin-behinekoak, aldakorak eta ez-egonkorak dira.

Manipulazioaren Teoria Michel Foucault filosofoak esandakoari hurbiltzen zaio. Foucaultek, besteak beste, idazketa –eta idazketak adierazten duen pentsamendua– diskurtso menperatzailearen adierazpidearekin lotu zuen. Hala, itzulpenak ere, berridazketa gisa, bat egiten du diskurtso menperatzailearen adierazpidearekin (Carbonell, 1997: 56).

¹¹ *Rewriting* edo *berridazketa* terminoak ekidin egiten du itzulpen, egokitzapen, emulazio eta abarren artean sailkapenak egin behar izatea (Lefevre, 1997: 66-67).

Lefevereren ustez lau dira berridazlearen estrategien hertsatzaile edo mugatzaile nagusiak: ideologia, poetika, diskurtsoaren unibertsoa eta hizkuntza.

a) Ideologia. Bi kontzeptuok, berridazketa eta manipulazioa, ideologiaren eta boterearen auziari lotuta daude; nolabait esatearren, literatura berridazten dutenek gizartea ere berridazten dute, eta baita arte-lanen harrera eta haien balizko kanonizazioa ere (1997: 11).

Berridaztea manipulaztea da, boterearen zerbitzuean egiten den jardura bat; alde baikorretik begiratuta, berridazteak literatura jakin baten eta gizarte jakin baten bilakaerari lagundu diezaioke. Baina, beste alde batetik begiratuta, berridazteak berrikuntza erreprimi dezake, desitxuratu eta hertsu dezake; hargatik, manipulazio prozesuak ikertzeak, itzulpenetan agertzen diren bezalaxe, bizi garen mundua ezagutzen lagundu diezaguke.

Ideologiaren hertsatzaile hau aztertzeke, galdera batzuk egiteko esan zuen Lefeverek: nork berridazten duen, zergatik, nolako egoeran, norentzat (op. cit.: 19).

Lefeverek ere 'sistema' kontzeptua erabili zuen berridazketak aztertzeke, eta sistemen sistema, hots, kultura, nork kontrolatzen duen galdetu zuen (ib.: 28), eta erantzun zuen kontrol-faktore bikoitza dagoela.

Kontrol-faktore bat literatura-sistemaren barruan dago, barrutik kontrolatzen du literatura-sistema. Profesionalak ordezkatzeko du faktore hori, eta gizarteak estatusa eta agintea ematen die profesional horiei (kritikoak, iruzkingileak, irakasleak eta itzultzaileak, besteak beste).

Beste kontrol-faktorea mezenasgoa da, hots, literaturaren irakurketa, idazketa eta berridazketa sustatu edo oztopatu dezaketen botereak (pertsonek nahiz erakundeak). Mezenasari, gehienetan, literaturaren poetika baino gehiago literaturaren ideologia interesatzen zaio, eta, hala, poetikari dagokion guztia profesionalaren esku uzten du mezenasak (ib.: 30). Literatura-sistema jakin baten aldaketak mezenasgoarekin izan dezake zerikusia, besteak beste.

Ideologiaren hertsatzailea itzultzailearen baitatik ere sortzen da, neurri batean: itzultzaileari kosta egiten zaio batzuetan bere ideologiaren aurka doan testu bat sortzea,

nahiz eta badakien jatorrizkoaren ideologia egoki islatu eta berridatzi behar duela. Gauza bera azpimarratu zuen Carbonellek (1999: 201), hots, batzuetan gerta daitekeela itzultzaileak egin behar izatea gustuko ez dituen ideologiek islatzen dituzten aukeren alde.

Itzulpenak izaera ez-neutrala duela aldarrikatzen da egun. Ildo horretan, Mayoralek ‘politikoki zuzena’ esapidea erabiltzen du, itzulpenaz iritzia emateko orduan. Hala, itzulpen politikoki zuzena da gizarte-talde, arraza, etnia, emakume, animalia eta abarrentzat iraingarri, baztertzaile edo kaltegarriak izan daitezkeen hitz eta esaerak saihesten dituen itzulpena (in Hurtado Albir, 2000: 619).

b) Poetika. Berridazketa egiten den unean, xede-literaturan nagusi den poetika beste hertsatzaile bat da eta, hala, itzultzaileak, gehienetan, manipulatu egiten du literatura-lana, harik eta garaiko poetikan onargarria izan arte. Hala ere, kontrako jarrera har dezake itzultzaileak, sistema poetikoaren oinarriak iraultzekoa, baina ez da ohikoena.

Poetika bat jatorrizko lanek eta berridazketek taxutzen dute. Berridazketek baliabide berriak dakarzkio poetikari, eta poetikaren osagai funtzionala alda dezakete.

Poetikak bi osagai ditu. Osagai bat, honako hauen multzoa da: literatura-baliabideak, generoak, egoerak, ikurrak, pertsonaia prototipikoak... Beste osagaia da, murgilduta dagoen sisteman, literaturak betetzen duen edo bete beharko lukeen funtzioa. Poetikaren osagai funtzionala oso lotuta dago poetikaz kanpoko eragin ideologikoekin (Lefevere, 1997: 41-42).

Poetika aldakorra eta unean unekoa –historikoa– da. Bestalde, poetika transzendentala da, hizkuntzen eta herrien mugak gainditzen dituelako, hots, poetika baten muga ez da hizkuntza baten muga.

Gutziz jakina da bi itzultzaile mota daudela: itzultzaile fidela eta itzultzaile ausarta. Baina, Lefevereren ikuspegitik, fidelitasuna itzultze-estrategia soil bat besterik ez da, ideologiak eta poetikak bultzatzen baitute itzultzailea fidela izatera. Ez dago zertan fidelitatea goretsi; ez da estrategia onargarri bakarra. Urrutiagora joanda, itzulpen fidelak ez dira objektiboak edo neutroak, fidelitasunaren aldekoek aldarrikatzen duten

bezala. Aitzitik, ideologia kontserbadore batek baldintzatzen ditu halako itzulpenak, jatorrizkoak hartu duen prestigio kulturalaren aurrean makurtzen baitira.

c) Diskurtsoaren unibertsoa. Lefeverek diskurtsoaren unibertso deritzo kultura jakin batek garai zehatz batean partekatzen dituen objektu, sinesmen, ohitura, kontzeptu eta ezagutzen multzoari. Itzultzean itzultzaileak aurrez aurre dauzka, talka egiten dutela, jatorrizkoaren unibertsoa eta xede-kulturaren unibertsoa. Eta itzultzailearen esku dago emaitza. Itzultzailearen jarrera, Lefevereren ustez, zenbait eragilek mugatzen dute: jatorrizkoaren estatusak, sorburu-kulturaren zein xede-kulturaren; xede-kulturak bere buruaz duen irudiak (hala, bere buruaz irudi txarra duen kultura batek ongi etorria emango die sorburu-kulturako diskurtsoko elementuei); xede-kulturaren onargarri diren hizkera- edo idazkera-mailek; harrera-kulturako irakurleek; Lefeverek sorturiko ‘kultura-gidoiak’¹² direlakoek; eta, azkenik, xede-kulturaren gailentzen den generoak.

Egia esan, diskurtsoaren unibertsoaren kontzeptua beste izen batekin (*kulturema, realia...*) erabili dute beste autore batzuek. Kultura-erreferentziak ere deitu dakieke halakoei. Ekarpen asko pilatu dira auzi honen inguruan XX. mendearen bigarren erditik hona, hainbat eta hainbat jakintza-arlo eta ikuspegitatik. Mayoralek ikerketa bat egina du erreferentzia horien itzulpenaz (1999), Fiódorov-etik (1953) Katan arte (1999). Lan hori irakurrita, ondoriozta daiteke kultura-erreferentziak ulertzeko ez dagoela termino bakar bat ezta definizio uniboko bat. Izan ere, jakintza-arlo ugariatik heldu zaio auziari (literatura, hizkuntzalaritza...).

d) Hizkuntza. Lefevereren ustez, hizkuntza ez da hertsatzaile garrantzitsuena. Haren iritzian, gainera, hizkuntzaren maila ilokutiboak¹³ baldintzatzen du itzulpena maila lokutiboak¹⁴ baino gehiago. Badirudi itzultzean zerbait galdu egiten dela, konbinazio ideala galtzen dela, baina, hori berori galtzen da, Lefevereren ustez, jatorrizkoetan ere.

Hizkuntzaren barruan, beraz, estrategia ilokutiboak dira hertsatzaile nagusia. Itzultzean estrategia ilokutibo batzuk lehenesten dira beste batzuen aurrean, testuz

¹² *Kultura-gidoi* deritzo kultura jakin batean rol jakin bat jokatzeko duten pertsonengandik (erregea, soldaduak...) espero daitekeen portaera-eredu onartuari (Lefever, 1997: 114).

¹³ Hizkuntzaren maila ilokutiboa efektuen maila da, hau da, zenbait ondorio edo zirrara edo eragin lor dadin, hizkuntza nola erabiltzen dugun.

¹⁴ Hizkuntzaren maila lokutiboa esatea da, adierazte soila.

kanpoko bi arrazoiengatik: lehena, sorburu-hizkuntzaren (SH) eta xede-hizkuntzaren (XH) arteko desberdintasuna; bigarrena, testua itzultzen den garaiko itzulpen-poetika¹⁵.

Lefeverek itzulpen-poetika arau-emailea gaitzetsi zuen, eta itzulpen-poetika deskriptiboa hobetsi. Haren ustez, itzulpen-poetikak deskribatu egin beharko lituzke itzultzaileek erabil ditzaketen eta erabiltzen dituzten estrategia ilokutibo posible guztiak (op.cit.: 127). Lefeverek argi du maila bakar batean jarraitu beharko liokeela itzultzaileak arauari: hiztegi-mailan. Hau da, itzultzaile batek ezin du eman, esaterako, ‘hipopotamo’ hitza ‘elai’ hitzaren ordain gisa.

Lefevereren ustez, estrategia ilokutiboen zerrenda mugatua da. Estrategia berberak erabiltzen dira denboran barrena, eta honako hauek dira: hurbiltze fonologikoa, konpentsazioa, esplizitu bihurtzea, klitxea erabiltzea, sorburu-hizkuntzaren morfosintaxia xede-hizkuntzan islatzea, aldaketa morfosintaktikoa eta kategoria gramatikalen aldaketa, errima eta metroa, neologismoak sortzen ahalegintzea, itzulungurua, betelana eta eletsutasuna, lautzea, morfemak errepikatzea, eta etimologia aldetik antzekoak diren hitzak erabiltzea (ib. : 137).

Geroago honako hau irakur diezaiekegu Bassnett eta Lefevereri (1998: 60): “...testuak hizkuntzaz osatuak daude, testuek badituzte izenak, aditzak eta era guztietako gramatika-egiturak eta egitura lexikoak, eta horixe da, hain zuzen, itzultzaileari axola dion alderdietako bat”.

Baita beste hau ere (ibidem): “literatura-itzulpenen hizkuntza-maila deskribatzea emankorra da, besteak beste, itzultzaileen formaziorako, baina itzulpenen hizkuntza-mailaren deskribapen soila ez da nahikoa itzultzea zer den ulertzeko eta adierazteko”¹⁶.

Dena dela, Moyak kontraesana ikusi zuen ikertzaile horiek garai batean hizkuntza-alderdiari buruz izandako jarreraren eta geroago erakutsi zuten beste horren artean. Moyaren iritzian, linguistikaren aurka jo eta su hasitako mugimendu horrek ikusi zuen linguistikaren laguntza gabe ez zezakeela aurrera egin, joera testuala duen linguistika gabe, behintzat (Moya, 2004: 163).

¹⁵ Touryren hitzetan, *translation norms*.

¹⁶ Itzulpena gurea da.

III.2. Poesiaren itzulgarritasuna eta itzulezintasuna

Poesiaren itzulpena da, neurri batean, lan honetako ikergaia, itzulpen-modu berezia eskatzen duena, inondik ere, betidaniko eztabaidagaia baita poesia itzul daitekeen ala ez.

Horrela, bada, zenbait autorek ukatu egiten dute poesia itzul daitekeelakoa (Voltaire, Victor Hugo...). Iritzi hori 1870 eta 1930 urteen artean gailendu zen, besteak beste, Croceren ideia estetikoek oihartzuna izan zutelako. Crocek ideien eta adierazleen arteko harremanak idealizatu zituen, eta ondorioz, literaturaren itzulezintasuna aldarrikatu zuen¹⁷.

Beste pentsalari batzuek, ordea, poesiaren itzulgarritasuna defenditu dute (Valéry, Jakobson, Borges...), onartzen duten arren perfekziora iristea zaila dela, testuaren adierazi denotatiboak itzultzen direlako baina konnotatiboak, aldiz, ez (Mounin, 1963).

Ezin uka daiteke, hala ere, poesia beti itzuli izan dela.

Dena dela, itzultzeko moduz, eztabaida nagusia bi muturren inguruan ibili da: lerroz lerro itzuli behar ote den edota poemaren parafrasi semantikoa egin behar ote den.

Mutur bateko jarrera Efim Etkindek defenditu zuen: bertsoak bertsoan ematearen aldekoa izan zen, eta poemaren parafrasi semantikoa egitearen aurkakoa (1982: 131-132).

García Yebra, berriz, beste muturrean dago, eta nahiago du bertso libreko itzulpena; baina, hala ere, adierazi zuen hobe dela prosazko itzulpen on bat bertsozko itzulpen txarra baino. Eta, halaber, bertsozko itzulpen on batek prosazko on batek baino gehiago balio duela (1994: 20-21). Aukera egitea, ordea, kontu zailtzat jo zuen. Itzulgaiaren izaera eta egitura hartu behar dira kontuan eta, baita ere, bi hizkuntzen arteko hurbiltasuna edo urruntasuna, itzulpenaren xedea, jasotzaileak zein diren...

¹⁷ Honela diosku Crocek bere *Estetika-brebiarioan* (1996: 76): "...inolako funtsik gabekoak dira arteen banaketa egiten duten teoria guztiak. Kasu honetan, genero edo mota bakarra dago, artea bera edo intuizioa, nahiz eta artelanak azkenik gabekoak izan: denak jatorrizkoak, denak besteetara itzuli ezinezkoak (ezen itzultzea, artista baten trebezia artistikoaz itzultzea, artelan berri bat sortzea da), denak hezigaitz adimenarentzat."

Borgesen ustez, poesia itzultzeko modurik onena da, sorburu-hizkuntzaren barruan dauden aukeren artean, poetak esan zuena, edo esan nahi izan zuena, behatzen ahalegintzen dena. Horretarako itzulpen literarioa egin behar da, ez ordea literala (in Alifano, 1986: 59-60).

Lefevereren iritzian, ez dago metodo perfekturik poesia itzultzeko, ezta bestelako testuak itzultzeko ere. Inoiz ez da lortuko irtenbide magikorik itzultzean; izan ere, itzultzea ez da zientzia-jarduera bat, giza jarduera bat baizik (in Vidal Claramonte, 1995: 55). Adibide modura, Lefeverek dio (1997: 52) ezen itzulpenaren poetikak agindu duela betidanik, Europako sistematan (eta Ameriketakoan), poesia neurri eta errimarekin itzuli behar zela eta ahaztua eduki duela hasierako poesiak, greko klasikoak eta latinez idatzitako poesiak, ez zuela batere errimarik, eta, neurria bazuen arren, ondorengo hizkuntzetako literaturetan erabilitako neurriak oso diferenteak izan zirela. Itzulpenaren poetika horrek bigarren mundu-gerrara arte iraun zuen.

Bestalde, zenbait autorek –Lefeverek (1975), Etkindek (1982: 18-27) eta Holmesek (1988), esaterako– poesia itzultzeko moduak deskribatu zituzten, batez ere, preskripzioa alde batera utzi eta itzulpen-ikerketan deskripzioa gailendu zenetik. Horietatik Holmes argiena eta sintetikoena dela esan liteke, eta horregatik Holmesen deskribatzeko modua erabiliko da lan honetan.

Holmesek, *Translation Studies*en baitan, historian barrena poesia itzultzeko lau irtenbide soilik atzeman daitezkeela dio; izan ere, itzultzaileak beti aurre egin behar dio dilema berberari, hau da, aukeratu behar du jatorrizkoaren hotsezko nolakotasunak lehenetsi behar dituen ala jatorrizkoaren irudiak eta esanahia. Aukera bakoitzak itzulpen-poetika desberdin jakin bati erantzuten dio, baina ez da bat bestea baino hobea (1988: 22-23). Hauek dira lau moduak:

- Mimetikoa, jatorrizkoaren forma ahalik eta ondoen imitatzea helburu duena.
- Analogikoa. Itzultzaileek jatorrizkoaren formaren funtzioa aztertzen dute jatorrizkoaren tradizio poetikoan, eta, ondoren, bertsozko forma bat bilatzen dute xede-literaturaren tradizio poetikoan funtziokide dena.
- Organikoa. Jatorrizkoaren eduki semantikotik abiatzen dira, eta ez formatik.
- Desbideratua edo arrotza. Poetak ez du kontuan hartzen ez jatorrizkoaren forma ezta edukia ere.

Vidal Claramontek (1995: 54), Holmesen lau modu horiek iruzkindu zituen. Hala, modu mimetikoak nabarmentzen du jatorrizkoaren eduki semantikoa berez dela arrotza; hortaz, metodo horrek xede-literatura aberats dezake eta aproposena izan daiteke literatura-arau propioak auzitan ipini diren garaietan. Aitzitik, forma analogikoaren efekturik garrantzitsuena da jatorrizko poemaren forma xede-hizkuntzan naturalizatzea; modu hori, beraz, aproposena da xede-literatura bateko egileek beren genero eta forma poetikoak baliozkotzat, onuragarritzat jotzen dituzten garaietan¹⁸.

III.3. Epilogo gisa

Itzulpen-ikerketan, oraindik ere, alderdi asko konponkizun dira. Besteak beste, itzulezintasun linguistikorik eta itzulezintasun kulturalik ba ote dagoen; zeri deitzen zaion itzulpen; itzulpena zientzia den edo ez den; itzultzen irakats ote daitekeen; ikasleei itzulpena deskribatzen erakuts ote dakiekeen; printzipio orokorrak ezar ote daitezkeen itzulpena esplikatzeke eta iragartzeko; itzulpen-ikerketak zeri eman behar dion lehentasuna, produktuari, funtzioari edota prozesuari; baliokidetzarik izan ote daitekeen, beharrezkoa ote den halakorik...

Dena dela, Steiner-ek esan zuen bezala (1980: 236), auziak bi gaitara ekar daitezke: bata, zerk gailendu behar duen, bertasio literarioak ala bertasio literalak, hots, formak ala edukiak; bestea, itzultzaileak askatasunik ba ote duen jatorrizkoaren esanahia nolana adierazteko.

Beste ildo batean, azken ikerketek jada existitzen ziren kontzeptuen ikuspegi berriak garatu dituzte. Esaterako, *kultura-ondasun* kontzeptua Bassnett eta Lefeverek eman zuten (1998); ondasun hori da gizabanako batek, hezkuntza deritzon sozializazio-prozesuaren ondoren, gizartean onartua izateko beharrezkoa duen informazioa. Itzulpenek, hain zuzen, kulturen ondasuna zirkulazioan jartzen dute, eta gizarte jakin baten kultura-ondarea eraldatzen dute. Horrenbestez, kultura norabide-aldaketa edo paradigma-aldaketa bihurtu da azken garaiotan itzulpenen ikerkuntzan, eta manipulazioaren kontzeptua osatu, garatu eta berriztatu du; izan ere, halako ikerketen bidez nabarmendu nahi da, zer-nolako eragin-trukea dagoen kulturen artean, zer-nolako botere desberdintasunak dituzten beren artean kultura hegemonikoek eta kolonizatuek.

¹⁸ Beraz, pentsa genezake –hipotesi gisa– bertasolarien metrika ontzat, baliozkotzat jo dutela alegien euskal itzultzaileek zenbait garaitan –edo ia beti– .

Hortaz, azken garaiotako itzulpen-ikerketak kulturarekin lotuak ditugu: *cultural studies*, *kulturalismoa*, *kultura-konstrukzioa* (Gentzler in Bassnett et Lefevere, 1998: IX-XXI)...

Etikaren alorretik ere heldu zaio itzulpenari (Pym, 1997: 51; Moya, 2004: 151), hitza eta bizitza gurutzatzen diren neurrian. Bi egileok urrezko arautzat dute ezen itzultzaileak besteen lana itzuli behar lukeela besteek berea itzultzea nahi lukeen modu berean.

Bukatzeko, Ekok berriki adierazi digu gauza jakina dela itzultzean ez dugula inoiz gauza bera adierazten (2006: 8-26). Baina *ia* gauza bera adieraz daitekeela. *Ia* horren malgutasuna norainokoa den erabakitzea aldeztu aurretik negoziatu behar diren irizpideen baitan dagoela. Hortaz, garrantzia ematen dio jatorrizko testuak duen asmoa eta iradokitzen duena itzultzeari. Horrenbestez, Ecoren ustez, itzultzea da hizkuntza baten barne-sistema eta hizkuntza horretan emandako testu baten egitura ulertzea eta, hala, irakurleari efektu analogoak sortuko dizkion beste testu bat ekoiztea. Emaitza, beraz, ezin da nolana hikoia izan; gutxienez, sen onak agintzen duenaren baitan jokatu behar dela dio Ekok, nahiz eta edozein kritikok argudia dezakeen itzulpen bat ezin epaitu daitekeela.

Ecoren antzean, Aurelia Arkotxak *medium* baten gaitasunak izan beharra nabarmentzen dio itzultzaileari, baldin eta autore baten izpiritua harrapatu behar badu (2009: 238).

Zailtasunak zailtasun, gaur egun beharrezkoa zaigu, hala ere, jakitea nola funtzionatzen duen itzulpenak: jakiteak plazera sortzen baitu.

IV. KAPITULUA
ESKEMA METODOLOGIKOA
ETA ANALISI-FITXA

IV. ESKEMA METODOLOGIKOA ETA ANALISI-FITXA

Ikusi dugun bezala, literatura itzulia aztertzeko bide ugari ditugu. Traduktologiak, diziplina gaztea bada ere, hizkuntzalaritzaren paradigmatic komunikazioarenera jauzi egin eta, bide horretan, mendekotasun batzuetatik askatu eta ikusmolde eta azterbide berriak jorratu ditu.

Azken hamarkadatan, komunikazio-ekintzat jo da itzulpena, kulturen arteko trukerako gunezat. Hori dela eta, Itzulpen Ikerketa Deskriptiboak gailendu dira eta, horrenbestez, deskripzioa hartu da lan honetako metodologiaren oinarri.

Lan honen helburu nagusia da alegia klasikoen euskal berridazketek gure literaturaren eremuan, Euskal Haur eta Gazte Literaturaren eremuan bereziki, izan duten bilakaera eta erabilera aztertzea.

IV.1. Testuinguruen deskripzioa

Testuinguruak deskribatuko ditut: sorburu-testuena, batetik, eta xede-testuena, bestetik. Sorburu-testuen testuinguruak bosgarren kapituluan deskribatuko dira; xede-testuen testuinguruak, berriz, euskal berridazle bakoitzaren atalean joango dira.

Testuinguruen deskripzioa bideratzeko, interesa, batez ere, itzulpenaren ekoizpena eta harrera gobernatzen dituzten arau eta debekuetan jarriko baita, garaiko ideologia eta poetika azalduko ditut, ondoren, testu-mailako azterketa egitean, Lefeverek adierazitako bi hertsaketa horiek islatzen ote diren ikusteko. Paratestuetan

bilatuko ditut, nagusiki, ideologiaren eta poetikaren arrastoak, horietan ematen baitute idazle eta berridazleek beren asmoen eta kezken berri.

Ideologiari dagokionez, beharrezkoa da zehaztea, lan honetarako, nolako lotura izan duten berridazleek garaian garaiko kultura- eta hezkuntza-giroarekin: zer-nolako kezka pedagogikoak zituzten, zer asmo pedagogiko zerabiltzaten... Paratestuak aztertuko ditut jakiteko zein izan diren lanak argitaratzeko motibazioak, zein izan diren lanen jasotzaileak, eta bestelako jakinkizunak.

Poetikari dagokionez, batez ere, alegiek zer funtzio izan duten arakatuko da. Badu poetikak beste osagai bat generoari, egoerei, pertsonaia prototipikoei lotua dagoena; osagai hori, dena dela, oso finkatua dago alegiaren generoan, eta ez da, horregatik, bereziki landuko.

IV.2. Corpora eta iturriak

Alegia klasikoen euskal corpora arakatzeari izan da lan honen egiteko nagusia. Honako egile eta lan klasiko hauek hartu ditut abiapuntutzat: Esopo, Fedro, *Isopete*, La Fontaine eta Samaniego. Eta, euskaratutako alegiak, denborari dagokionez, muga hauen bitartekoak: hasieratik 2003. urtera arte. Muga horietatik kanpo ere badira alegia klasiko euskaratuak: generoa euskal literatura-sisteman indartzen hasi baino lehenagokoak, bakan batzuk (Axular, Tartas); 2003.etik hona artekoak, beste batzuk. Ataltxo bana eskaini diet bi bazter-aro horiei. Eta, azkenik, formatuari dagokionez, honako hauek hartu ditut: alegia-liburuak, aldizkarietako alegiak eta euskal katalogoetako Haur eta Gazte Literatura goiburupean agertzen diren alegia, alegia-liburu eta albumak.

Corpusa biltzeko, euskal literaturako esku-liburuak (Onaindia, 1972-1990; Mitxelena, 1960; Villasante, 1961; Sarasola, 1976; Calleja 1994; Etxaniz, 1997; Aldekoa, 2004...) erabili ditut abiapuntu bezala, eta corpora osatzeko, honako iturri hauek:

A. Katalogoak:

- 1) ARRIEN, Gregorio, Lino AKESOLO et J. J. GRANJA (1987). *Haur liburu didaktikoen errolda, 1800-1976. Catálogo de obras didácticas infantiles 1800-1976.* (L.g.: i. g.) (II. Euskal Mundu Biltzarra bilduma).

- 2) TORREALDAI, Joan Mari (1993). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia
- 3) TORREALDAI, Joan Mari (1995). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa II : 1993-1994*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 4) TORREALDAI, Joan Mari (1997). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa III : 1995-1996*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 5) TORREALDAI, Joan Mari (1999). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa IV : 1997-1998*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 6) TORREALDAI, Joan Mari (2001). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa V : 1999-2000*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 7) TORREALDAI, Joan Mari (2003). “Euskal liburugintza 2001”, *Jakin*, 134. zka., 11-116.
- 8) TORREALDAI, Joan Mari (2004). “Euskal liburugintza 2002”, *Jakin*, 140. zka., 11-124.
- 9) TORREALDAI, Joan Mari (2005). “Euskal liburugintza 2003”, *Jakin*, 146-147 zka., 11-161.
- 10) BILBAO, Jon (1970-2005). *La Gran Enciclopedia Vasca. Eusko bibliographia*. Donostia: Auñamendi.
- 11) BILBAO, Jon (1985). *Eusko bibliographia*. Donostia: EHU.
- 12) URKIZA, Julen (1999). *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*. Markina: Euskalerriko karmeldarrak.

B. Iturri hemerografikoak:

- 1) *Cuaderno de Sección. Hizkuntza eta Literatura*. Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- 2) *Eskualduna*. Le Basque. Journal Basque-Français hebdomadaire. Donibane, Baiona, 1887-1944.
- 3) *Euskal Erria Guziak Bat*. Montebideo, 1912-1987.
- 4) *Euskaldunentzat Almanaka*. Baiona, 1909-1913.
- 5) *Euskal-Erria*. Donostia, 1880.
- 6) *Euskal-Esnalea*. Tolosa, 1908-1910; Donostia 1911-1931.
- 7) *Euskaria*. Buenos Aires, 1908-1911.
- 8) *Euzko-Deya*. Jaungoikua eta Lagi-zarra. Bilbo: 1916-1923.
- 9) *Gure Herria*. Baiona, 1921-1939, 1950-1976.
- 10) *Herria*. Baiona, 1944.
- 11) *Ibaizabal*. Bilbo 1902-1903.
- 12) *Kili-Kili*. Euskarazaleak, Bilbo, 1977-2000. Bizkaiko Ikastolen Elkartea, Bilbo, 2001.
- 13) *La Baskonia*. Revista euskaro-americana, Buenos Aires, 1893-1943.
- 14) *Pan-Pin*. Zeruko Argiaren gehigarri haurrentzakoa. Hondarribia, 1960-1969.
- 15) *Pays Basque*. Baiona, 1898.
- 16) *Pospolin*. Gaztetxoentzat eleizaren illeroko orria, 1973.
- 17) *Pottolo*. Euskaldun Haurren Agerkaria. Journal des Enfants Basques. Baiona, 1950.
- 18) *Príncipe de Viana*, 1940.
- 19) *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*. Paris, 1883-1887.
- 20) *RIEV*. Donostia, 1907-1937.
- 21) *Umeen Deia*. Iruñea, 1959-1966.

Dokumentuak non diren jakin ondoren, funtsak kontsultatu, ezagutu, eta materiala bildu dut: Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioa, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostiako Haur Liburutegia eta EHUko liburutegiak izan dira agiri gehien kokalekuak.

Corpusa sailkatu dut gero, euskal berridazle bakoitzaren corpusa zehaztuz, euskarazko alegiak egile klasikoen alegiekin alderatuz, honelako taula-molde batean:

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Ramon Intzagarai "ELURMENDI"	<i>Ipuiyak</i>	1922	59 hl	1 Eso 35 Fe 2 Lf 10 Sam 7 hibri

Honako datu hauek adierazi dira zutabe banatan:

- **Euskaratzailea:** izen-abizenak eta goitizena, halakorik izanez gero.
- **Lanak:** alegiak zer liburu edota aldizkaritan plazaratu ziren.
- **Noiz:** zer urtetan plazaratu ziren¹.
- **Alegiak: zenbat, nola.** Zenbat alegia plazaratu ziren liburu eta aldizkari horietako bakoitzean, eta nola, hots, hitz lauz (hl) ala hitz neurtuz (hn).
- **Iturriak:** zenbat alegiak duten iturri gisa Esopo (**Eso**), Fedro (**Fe**), *Isopete* (**Iso**), La Fontaine (**Lf**) edo Samaniego (**Sam**), eta zenbat diren hibridoak (**hibri**), euskaratzaileek iturri horietako bat baino gehiago erabili dutelako eta, ondorioz, iturria oso kutsatua edo nahasia geratu delako. Horretarako, aldezturik, baliokidetzataula bat prestatu dut, zehazten duena klasikoen alegien artean zein diren baliokideak edo zeintzuek duten nola-halako harreman genetikoa beren artean². Genero hipertestuala izaki, oinarrizko lana izan da baliokidetzak finkatzea, euskal alegia bakoitzaren iturria zein den argitzeko.

Batzuetan litekeena da, goiko adibidean bezala (59/55), bat ez etortzea **Alegiak: zenbat, nola** eta **Iturriak** zutabeetako alegia-kopuruak. Kopuruak diferenteak izatea, honelako kasuetan gertatu da: euskal berridazketa bost egile klasiko horiena ez, baizik

¹ Lehen agerraldia hartu da kontuan, hots, bertsiorik zaharrena, jakina baita, genero herrikoia izaki, egile askoren kasuan, beren lanak sarritan argitaratu zirela, eta, halaber, aldizkari ugarietan plazaratu zirela.

² Ikus bedi "Eranskinak" ataleko "2. Alegia klasikoen arteko baliokidetzak" azpiatala.

eta beste egileren batena³ denean; edota, euskal berridazketa euskal alegialariak asmatua denean.

Baita ere, alegiaz alegia, euskal alegien honako datu hauek eman ditut: alegia berridatziaren erreferentzia bibliografikoa lehenik eta, ondotik, iturri klasikoaren laburdura, liburukia eta alegia-zenbakia.

Aldizkari baten erreferentzia denean, honela:

MOULIER, Jules “OXOBI” (1926). “Chochoa oilachko”, *Escualduna*, 1393. zka., 1. **Lf IV-9**

Liburu baten erreferentzia denean, honela:

MOULIER, Jules “OXOBI” (1944). *Haur elhe haurrentzat*. Baiona: Aintzina.

[“Astoa loredun” **Lf V-14**. “Khuiari Khuiakeri” **Lf IX-4**. “Hartza eta bi kaskoinak” **Lf V-20**. “Andreno baten othoitza” **Lf I-16**. “Lehoina eta ziminoak” **Sam I-12**.]

Corpusa sailkatzearen ondorio dira, era berean, tesi honetako beste bi atal hauek:

- “VI.7.11. Irudidun alegien berridazleak”
- “VI.8. Alegia bat edo beste duten berridazleak”

Eta baita honako eranskin hau ere:

- “1. Euskal berridazleak eta haien iturri klasikoak zenbakitan”. Azpiatal bat eskaini zaio alegialari klasiko bakoitzari (Esopo, Fedro, *Isopete*, La Fontaine, Samaniego). Azpiatal bakoitzean, aurkezpen gisa, taula bat jarri dut euskaratzaileak eta alegia-kopuruak adieraziz; gero, alegia klasiko euskaratuen zerrendak, adieraziz nork, zer izenbururekin eta noiz argitaratu diren.

Azpimarratu behar da, lan gaitza eta egiteko nekeza izan dela aldizkarietan barreiatutako alegiak biltzea, eta zailtasun handikoa, halaber, alegia bakoitzari iturria bilatzea, euskaratzaileek askotan ez baitzuten eman jatorrizko alegiaren izenik ezta egilearenik ere. Baina, jakina, nahitaezkoa izan da lan hori, testu mailako azterketari ekiteko.

³ Jakina da bost iturri klasiko nagusi horiez gainera, egile andana batek ekin ziola alegiak lantzeari. Batzuk aipatzearen, Lessing, Gay, Pignotti, Hartzenbusch, Iriarte, nazioartean; Ibáñez de la Rentería bilbotarra, Pisón y Vargas, Govantes eta Xérica arabarrak, gure inguru hurbilean.

IV.3. Kritika

Harrera-polisistema hobeto ezagutzeko, kritika aztertu dut. Izan ere, Lefeverek nabarmendu bezala, nolabaiteko aginte eta estatusa ematen die gizarteak kritikoei eta iruzkingileei.

IV.4. Zabalkundea

Eta, harrera-estetikaren ikuspuntutik, irakurria izateak ematen diolako existentzia testuari (Iser, 1987: 216), obraren zabalkundea ere aztertu dut.

IV.5. Testu mailako azterketa eta lagina

Corpusa bildutakoan, jasoriko materiala hain zabala eta ugaria izan denez, eta gaiari behar duen sakontasunaz ekiteko, bilduriko corpus guztia tesian jaso arren, egile-lagin bat eta testu-lagin bat hartu dut.

Egile-laginari dagokionez, kontuan hartu da, testu-mailako azterketarako, *Isopeteren*, La Fontaineren eta Samaniegoren euskal berridazketei dagokiena bakarrik, eta, haien artean, 10 alegia baino gehiago berridatzi dituzten euskal berridazleen lanak soilik. Esoporen eta Fedroren euskal berridazketen testu-mailako azterketa egitea baztertu dut, jatorrizkoak behar bezala irakurtzeko ezinarengatik.

Testu-laginari dagokionez, testu bilduma oparoak dituzten egileen kasuan, guztia hartu ordez lagin bat hartu dut, Cuéllar-en irizpidearekin bat etorrira (2000: 107). Irizpide horren arabera, halako laginak egiteko, aukeratu litezke lehendabiziko hamar alegiak eta azken hamar alegiak zein lehendabiziko bostak, erdialdeko bost eta azkeneko bostak. Horrelako lagin batek, nolana den, egile bakoitzaren estrategien berri zehatza eman ohi du.

Aukera hori eginik, berridazlerik garrantzitsuenak eta alegiarik ezagunenak sartu dira testu mailako azterketan, eta nahikoa da hori corpus osoaren joerak ispilatzen.

Testu-mailako azterketarako sorburu- eta xede-testuak alderatu ditut. Alderaketa horretan, batetik, Lefeverek adierazitako beste bi hertsatzaileren eragina aztertu dut: diskurtsoaren unibertsoarena eta hizkuntzaren estrategia ilokutiboetarako dagokiena⁴.

Bestetik, didaktika-generoa denez gero, alegiek balioak eta portaera-ereduak transmititzen dituzte: alegietako irakaspenen azterketak eman digu haien berri. Hortaz, irakaspenaren mezua aldatu den ala ez aztertu dut, eta, aldatu bada, nola eta zergatik.

Testu alderaketari amaiera emateko, Holmesek poesia itzultzeko moduez eginiko sailkapenaren ildotik, berridazleek zer bide hartu duten esaten ahalegindu naiz: mimetikoa, analogikoa, organikoa edo desbideratua (ikus bedi supra § “III.2. Poesiaren itzulgarritasuna eta itzulezintasuna”).

Amaitzeko, ondorioak eman ditut, soilik testu-mailako azterketa egin dudan egileen kasuetan. Izan ere, beste atal batean, tesiaren bukaeran, hain zuzen, eman ditut ondorio orokorrak.

IV.6. Analisi-fitxa

Hona, laburbildurik, analisirako atalak eta itemak:

⁴ Ez ditut Lefeverek zerrendatutako estrategia ilokutibo guztiak aztertuko, interesgarrienak eta esanguratsuenak aukeratu ditut soilik.

ANALISI-FITXA⁵

TESTUINGURUEN DESKRIPZIOA

Ideologia:

Nolako garai eta egoeran
Nork berridatzi duen
Norentzat
Zergatik
Noiz eta non
Nork sustatuta
Berridazlearen ideologia zertan den
Testuak osorik berridatzi dituen ala ez, eta zergatik

Poetika:

Funtzioa

CORPUSA ETA ITURRIAK

KRITIKA

ZABALKUNDEA

TESTU MAILAKO AZTERKETA

Diskurtsoaren unibertsoa:

Objektuak, izakiak
Sinesmenak
Ohiturak
Kontzeptuak
Izen bereziak
Paremiak⁶
Arkaismoak
Literatura-alusioak
Generoaren ikuspegia

⁵ Analisi-fitxa honetako itemak lagungarri besterik ez dira aztergaiaren deskripzioa egiteko; ez dira guztiak ezinbesteko, eta, zenbaitetan, zerrendatutakoez gain, bestelakorik ere ager liteke.

⁶ Paremiak, azalpen argia irakur diezaiokegu Joan Mari Lekuona zenari, *Literatura terminoen hiztegia* (2008: 630): "...aforismo eitea duten esaldi laburrak dira, estilo bereziz markatuak eta erabilera jakina dutenak, eguneroko mintzairan, ahozko estilo jasoagoan eta idatzizko estiloan".

Garatek hauxe dio (1995: 18): "Herriak eguneroko bizimodutik atera eta molde tinkoetan erabiltzen dituen, belaunez belaur igarotzen diren eta zerbait irakasten duten esaera gogoetatsu laburrak".

Hizkuntza. Estrategia ilokutiboak:

Konpentsazioa⁷
Esplizitu bihurtzea
Aldaketa morfosintaktikoak
Neologismoak sortzea
Itzuliturua
Betelana eta eletsutasuna
Lautzea
Morfemak errepikatzea
Narratzaile intradiegetikoaren agerpena⁸
Narratarioaren agerpena⁹
Errima eta metrika

Irakaspenen mezua:

Irakaspena lekuz aldatu den edo ez
Mezu berbera edo berdin antzekoa eman den
Mezua desbideratu den
Jatorrizkoan irakaspenik ez dagoenean, zer gertatu den

Poesia berridazteko moduak:

Mimetikoa
Analogikoa
Organikoa
Desbideratua

Ondorioak

⁷ Konpentsazio deritzo esaldi batean esanahiaren, hotsaren edo beste zerbaiten galerarik dagoenean, esaldi bereko edo ondoko esaldiko beste alderdi batean galera hori berreskuratzeari.

⁸ Narratzaile intradiegetikoa da literatura-lanaren barruko narratzaile edo ahotsa.

⁹ Narrataria da literatura-lanaren barruan dagoen figura bat, kontatutakoaren hartzaile gisa balio duena.

V. KAPITULUA

SORBURU-TESTUEN TESTUINGURUAK

V. SORBURU-TESTUAK

V.1. *Isopeteko* alegiak

Ikus bedi supra § “II.4. Alegia, Erdi Aroan”.

V.2. La Fontaineren alegiak

Bibliografia zabala dago La Fontainez eta haren poetikaz (Giraudoux, 1938; Vossler, 1947; Janssens, 1955: 42-52; Guichemerre in La Fontaine, 1964; Adam in La Fontaine, 1966; Geruzez in La Fontaine, 1984: I-XIII; Collinet in La Fontaine, 1991: IX-LX; Dandrey, 1992; Ozaeta, 1997a: 1-135; García Gual, 1999: 217-234). La Fontainek ere idatzi zituen zenbait gogoeta alegien hitzaurrean, zenbait alegiatan eta gainerako paratestuetan (eskaintzak, epilogoak, oharpenak...). Lan eta gogoeta horiek eskuan, La Fontaineren garaiaren ezaugarri nagusiak, alegialariaren figura eta alegiei dagozkien jakingarriak iruzkinduko ditut atal honetan, sorburu-testuingurua nolakoa izan zen ulertaraztea helburu.

Ideologia

Neoklasizismoaren mendean, XVII. mendearen bigarren erdialdean, idatzi zituen La Fontainek alegia-bildumak.

Alegien presentzia izugarria izan zen orduan. Lehenago, Erdi Aroan, *Ysopetak* (Esoporen tradiziozko alegiak) eta *Avionetak* (Avianusen tradiziozkoak) asko zabaldu

ziren. Gero, humanisten arreta erakarri zuten alegiek XVI. mendean. Ez da pentsatu behar, beraz, La Fontainek genero baztertu bat berpiztu zuenik. Generoak, La Fontaineren garaian, helduleku bat eskolan zuen, eskola-ariketetan. Baina ez zegoen eskolan kantonatuta: alegia, XVII. mendean, leku guztietan zegoen, diskurtsoa zein berriketa hornitzen eta apaintzen (abokatuen jarduna, diskurtso politikoa, auzi judizialak, hizlarien hitzaldiak...) (Collinet in La Fontaine, 1991: XXVII-XXVIII).

Garai hartan, gainera, Frantzian kultura-arloan eragina izan zuten bi gertakari nabarmendu behar dira: Frantses Akademiaren sorrera (1635) eta Luis XIV *Eguzki Erregearen* erreinaldia (1661ean hasita). Akademiak ideia klasikoak bermatu zituen, eta korteak, berriz, garaiko modaren arauak ezarri zituen, hala nola *preciosité* delakoa (hots, dotorezia, sentimenduak adierazteko orduan eta literaturan), formarenganako miresmena eta, helburu moduan, plazer estetikoa.

La Fontaineren izaerara hurbiltzeko modu bat bere buruaz eman zuen irudia ekartzea izan daiteke. Mme. de la Sablière-ri zuzendutako hitzaldian lotsarik gabe biluztu zen bertso hauetan :

*Je m'avoue, il est vrai, s'il faut parler ainsi,
Papillon du Parnase, et semblable aux abeilles
A qui le bon Platon compare nos merveilles :
Je suis chose légère, et vole à tout sujet ;
Je vais de fleur en fleur, et d'objet en objet ;
À beaucoup de plaisirs je mêle un peu de gloire.*

(La Fontaine, 1980: 34)

Itxura batean, izaera kontrajarria erantsi zion bere buruari, tximeletaren eta erlearen irudiak baliatuta. Giza psikologiaren arloran aldatuta, denbora-pasa eta jarraikitasunik eza ditugu, batetik, eta kemena eta langiletasuna, bestetik.

Inkoherentzia dirudi bi metafora horiek elkartzeak eta, ondorioz, pertsona batek ezaugarri psikologiko hain kontrajarriak bere baitan biltzeak. Ez dira bateraezinak, ordea; La Fontaineren izaera ondo definitzen dute: “Les incompatibilités, avec lui, s'évanouissent comme par enchantement, les contraires se concilient, les antagonismes se résolvent.” (Collinet in La Fontaine, 1991: X).

Vosslerrek ere ezaugarri kontrajarriak ikusi zizkion La Fontaineri. Zera esan zuen haren estiloaz eta izaeraz ari zela: “...si bien era en la superficie y estilísticamente

un poeta de la sociedad de su tiempo, en lo más íntimo de su ser era un imaginativo y un individualista radical” (1947: 143).

Indibidualismoa nabarmendu zaio askotan. Giraudouxek kontatzen du, La Fontaineren bizimodu eta izaera aldakor, axolagabe eta etxekalteaz xehetasun batzuk eman ondoren, “la solitude et le sommeil” izan zituela alegialariak bi pasiorik gogokoenak (1980: 31). La Fontaineek berak adierazi zuen loaren kontua epitafioan, geroago irakurriko dugun bezala.

Gorago aipatutako bertso-lerroak, beraz, ongi ezkontzen dira biografoek-eta gehien nabarmendu dioten ezaugarriarekin: aniztasun edo dibertsitatearekin, aniztasuna bai bizitzan bai eta obran ere. Bizitzan asmamen handikoa izan zen, jende zalea, adiskide ona, alai...; idazlanetan genero ugari landu zituen, hala nola antzerkia, ipuina, epistola, oda...

Bestalde, zaletasun bat bazuen La Fontaineek: alegietako pertsonaien bidez bere burua erakustea (Ozaeta, 1997a: 24). Zaletasun hori irakurlearekin komunikatzeko nahia da, ez besterik; baina ezaugarri horrek zeharo moldatu zuen alegion diskurtsoa.

Eraginak ere izan zituen. Garrantzi handikoa izan zen, La Fontaineren bizitzan eta obran, Mme. de la Sablièreren etxean eman zuen denbora. Haren saloiko bilkuretan onartu zuten 1673tik aurrera. Hain zuzen, aldarte irekia, espiritu paganoa eta epikureismoa erakutsi zituen La Fontaineek data mugarri hartatik aurrera.

Ildo horretatik, La Fontaineri Gassendiren ideien jarraitzailea¹ eta kartesianismoaren aurkakoa izatea egotzi izan zaio (García Gual, 1999: 225), filosofiari eta moralari dagokienez. Esaterako, bere konposizioek *gaieté* edo alaitasun moduko bat erakusten dute, eta *joie de vivre* edo bizi-poza. Fedro baten ezkortasunaren eta garraztasunaren kontrakoa, hain zuzen. Halaber, adiskidetasunaren gorazarre egin zuen La Fontaineek, bereziki paratestuetan (Mme. de la Sablièreri XII. liburuko 15. alegian egin zion eskaintzan, esaterako). Epikuroarrei bezalaxe, anbizio hutsalak bost axola zitzaizkion La Fontaineri; bizitza bizi, unea bizi, pentsatzeko modu horixe izan zuen frantses alegialariak. Hark idatzitako epitafioa pentsatzeko eta bizitzeko modu horren adierazlea da. García Gualek berreskuratu zuen artikuluan (1999: 229): “Jean s’en

¹ Sistema epikuroarra berpiztu zuen Gassendik, XVII. mendearen lehen erdian.

alla comme il était venu, / Mangea le fond avec le revenu, / Tint les trésors chose peu nécessaire, / Quant à son temps, bien sut le dépenser: / Deux parts en fit, dont il soulaît passer / L'une à dormir, l'autre à ne rien faire.”

Hala ere, Mme. de la Sablièrek eta haren ingurukoek eragin zuzena izan zuten, La Fontainek bizitzaren hondarrean erlijiotasuna berreskura zezan. Eragin hori nabarmena da XII. liburuan.

La Fontaineren iritzian –hitzaurrea irakurtzea besterik ez dago–, umeeek alegiak irakurtzea² oso onuragarria zen, pedagogia-balioen aldetik.

Erabilera pedagogikoen artean, La Fontaineren alegiek frantsesa irakasteko eta ikasteko balio izatea azpimarratu zuen Collinetek.

...il n'existe aucun outil pédagogique plus propre que ses Fables, pour peu qu'elles soient confiées à des mains suffisamment expertes, à rendre d'inestimables services pour l'enseignement du français, depuis son apprentissage le plus humble jusqu'à son niveau le plus élevé (Collinet, 1988 : 327).

Horretaz gain, moral psikologikoa ispilatu zuen La Fontainek alegietan. Orduko pentsalariak (Montaigne, Gassendi, Descartes...) psikologian oinarritu zuten moralak, eta ez, ordura arte bezala, teologian (Vossler, 1947: 94). Garaiko filosofia moralak zientzia natural moduko bat bihurtu zuten.

Hala, bada, moral erlijiosoaren eta etika tradizionalaren sinesmenak irauli zituzten La Fontaineren alegien erakutsiek. Irabazlea indartsuena edota maltzurrena dela erakusten dute alegia hauek; eta justiziak indarra eta amarrua dituela oinarri.

Borondate etikorik eza eta moral-sinesmen sendorik eza ikusi zizkion La Fontaineri Vosslerrek, ez baitago agindurik ezta moral kategorikorik ere haren alegietan. Zuhurtasunaren moralak dario La Fontaineri. Ez du sistema moral finkorik

² Bi kontakizun hizpidera dakartza La Fontainek hitzaurrean. Lehena, historia-kondaira bat da, Krasoren heriotza partiarren aurkako borrokaldian, eta bigarrena alegia bat, ahuntzaren eta azeriaren arteko pasadizoa kontatzen duena. Eta dilema bat planteatzen: bi kontakizunetatik zeinek kitzikatuko duen gehien umeen gogoa. Eta erantzuten du: bigarrenak. Alegiak ergelkeriatzat jo arren, “ces badineries ne sont telles qu'en apparence ; car dans le fond elles portent un sens très solide. Et comme par la définition du point, de la ligne, de la surface, et par d'autres principes très familiers, nous parvenons à des connaissances qui mesurent enfin le ciel et la terre, de même aussi, par les raisonnements et conséquences que l'on peut tirer de ces fables, on se forme le jugement et les mœurs, on se rend capable des grandes choses.” (La Fontaine, 1991: 8)

ezarri nahi. Nahiago du eguneroko eginbeharretarako jakinduria-arau batzuk behin eta berriz adierazi. Moral enpirikoa da haren moralala (op. cit.: 130).

La Fontaineren moralala zertan den Janssenssek agertu zigun ezin hobeto:

En gros la morale de La Fontaine présente deux aspects : elle est négative ou positive. Négative, elle constate l'existence d'un vice ou d'un mal, et cette constatation équivaut à un mise en garde (*Le Corbeau et le Renard*); positive, elle fournit des préceptes de conduite (*Le Chartier embourbé*). Dans l'une et dans l'autre, on reconnaît les leçons que l'auteur a tirées de son expérience de la vie et qui l'ont conduit à adopter cette règle fondamentale : prudence et mesure (Janssens, 1955 : 45).

Rousseauk, baina, La Fontaineren alegien moralala eta balio pedagogikoa ukatu eta gaitzetsi zituen: alegiok haurra bertutera baino galbidera eramaten dutela idatzi zuen *Émileren* bigarren liburuan³. Laugarren liburuan, aldiz, onetsi egin zituen⁴, baina irakaspenak kendu behar zirela adierazi zuen⁵.

Rousseuren iritzien aurkakoa dugu Janssens. Janssensen iritzian alegiek badituzte onurak umeentzat, eta ez da egia La Fontaineren moralak umeak bultzatzen dituenik bizioetan erortzera. Kontua da nolako iruzkinak eta oharrak egiten zaizkien alegiei umeak hartzaile direnean (Janssens, 1955: 46).

Generoaren izaerarengatik sarritan ondorioztatu da La Fontaineren asmoa umeak heztea zela, umei moralala erakustea zela. Ez da horrela. La Fontaineren alegiak ez dira berez-berez umeentzat; ez da umea, behintzat, hartzaile nagusia. Eta iritzi hori defendatu zutenen aurka, ironiaz ekin zion La Fontaine bere alegia-liburuetan, tarteka, poesia-genero jasoak imitatzeari, hala nola, epopeia eta amodio-poesia, garaitsuan modan zeudenak (1991: 69). La Fontaine ez zen hezitzaile bat izan (Rousseau, 1990: 140; Vossler, 1947: 148; Janssens, 1955: 45). Edozein modutan, alde batera utzita La Fontaineren alegien moralala onargarria den edo ez, eta alegiek funtzio pedagogikorik baduten edo ez, umeentzako hamaika egokitzapen argitaratu dira.

³ “Se hace aprender las fábulas de La Fontaine a todos los niños, y no hay uno solo que las entienda; si las entendieran sería peor aún, porque la moral está tan desproporcionada para su edad que los llevaría más al vicio que a la virtud” (1990: 140).

⁴ “Así, de un hecho saca él [haurrak] una máxima, y la experiencia que hubiera olvidado, pronto se graba por medio de la fábula en su juicio” (Rousseau, 1990: 333).

⁵ “¿Qué significan esos cuatro versos que La Fontaine agrega a la fábula de la rana que se hincha? ¿Necesita ese gran pintor escribir los nombres debajo de los objetos que pinta? Lejos de generalizar con ellos su moral, la particulariza, la restringe, en cierta forma, a los ejemplos citados e impide que se aplique a otros. Me gustaría que antes de poner las fábulas de ese autor inimitable entre las manos de un joven, se suprimieran todas esas conclusiones por las que se toma la molestia de explicar lo que acaba de decir tan clara como agradablemente” (Rousseau, 1990: 334).

Garaiko gizartearen kritika egitea ere egotzi izan zaie La Fontaineren alegiei. Zenbait kritikoren ustez (Ozaeta, 1997a, 100-102) badago halako harreman bat alegietako animalien eta La Fontaineren garaiko pertsonaien artean: Erregea, Colbert eta beste zenbait pertsonaia ezagun agertzen dira, haien ustez, lehoiaren, otsoaren eta bildotsaren larruaren azpian. Denbora-muga jakin bat ezartzen diete kritiko horiek La Fontaineren alegiei, garaiko gizarteko pertsonaiak direla esatearekin batera.

Beste zenbait autorek, berriz, ukatu egin dute La Fontainek bere garaiko gizartea islatu nahi zuenik. Antoine Adamek, esaterako, sendo ukatu zuen hori:

N'en croyons rien. La Fontaine est encore trop près de la fable ésoopique pour donner à son volume un sens aussi moderne (in La Fontaine, 1966: 12).

Hortaz, Adami jarraituz, lehoiak ez du Luis XIV.a irudikatzen, ezta azeriak kortesanoak sinbolizatzen ere. Pertsona zehatza baino, jende xehea zapaltzen duen pertsonaia aberats eta boteretsua da lehoia; eta azeriak ez du gizarte-maila jakinik ordezkatzeko, baizik eta, modu orokorrean, gizaki maltzur eta hizketa modu labaineko guztiak. La Fontaineren gogoeta, Adamen ustez, hau da:

Il pense donc à des conditions sociales. Mais non pas à une seule. À toutes sa morale peut s'appliquer, puisque la vanité est un trait général de l'humaine nature (ibidem: 13).

La Fontaineren obran animaliak baliabide bat besterik ez dira gizakiak hezteko: “Je me sers d'animaux pour instruire les hommes” (1991: 29, 6 bb).

Poetika

Hona garaiko doktrina klasikoaren ezaugarri batzuk:

- Irakurleari atsegin ematea, haren gogoko izatea, irakurlea baita sormen-lanaren jomuga eta faktore erabakigarria. Hori dela eta, La Fontainek atsegingarri izatea erantsi zion alegiek berezko duten asmo didaktiko eta moralizatzaileari. Irakastea eta ikastea nahitaezkoa da, jakina, baina atsegin hartzeaz batera behar dute. Irakur dezagun, hartarako, “À Monseigneur le Dauphin” eskaintzan zer zioen:

C'est une adresse dont s'est servi très heureusement celui sur lequel Sa Majesté a jeté les jeux pour vous donner des instructions. Il fait en sorte que vous apprenez sans peine, ou, pour mieux parler, avec plaisir, tout ce qu'il est nécessaire qu'un prince sache (La Fontaine, 1991: 3).

Are gehiago, orduko Frantzia, atsegintzea arau bakarra zela adierazi zuen La Fontainek lehenengo alegia-bildumaren “Préface”-an: “On ne considère en France que ce qui

plait : c'est la grande règle, et pour ainsi dire la seule" (ibidem: 9). Berriro hartu zuen gaia hizpide, seigarren liburuko 1. eta 2. alegietako bertso-lerro hauetan: "En ces sortes de feinte il faut instruire et plaire / Et conter pour conter me semble peu d'affaire" (ib.: 209, 5-6. bb).

- Egiantzekotasuna eta *bienséance* (egokitasuna, ahalkea, begiramena) delakoa errespetatzea. Egiantzekotasunaren gaiak, edozein modutan, ñabardurak ditu La Fontaineren obran. Inoiz idatzi izan da, Giraudouxen irakur daiteke, bere gaztetako lanbidea zela-eta⁶, La Fontainek natura ezagutzearen eta behatzearen esperientzia erantsi ziela alegiei. Vosslerrek, baina, ukatu zuen hala izan zela. Haren ustez, La Fontaine alegien bidez iritsi zen animalien mundura; ez, aitzitik, animalien bidez alegietara (1947: 79). Beraz, literatura-esperientzia zegokeen oinarrian.

- Arrazoimenaren nagusigoa da beste printzipio klasikoetako bat. *Bons sens* esaten zitzaion, beste modu batean, arrazoiari; sen ona berdin arrazoaia, hortaz. La Fontainek berak *bons sensa sottiseari* kontrajarri zion, hau da, ergelkeriari, generoaren poetikaz ziharduela (1991: 178). *Bienséance*arekin badu zerikusia: egokia arrazoizkoa da. Naturaren eta arrazoiaren aurkako guztia, aldiz, desegokia da (Vossler, 1947: 21).

- Arte-lana giza naturaren isla da mende klasikoaren estetikan. Naturalismoa izan zen La Fontaineren bizitza-ikusmoldearen ezaugarri nagusia: ez zuen naturaz gaindikoa ikustea lortzen. Horregatik, artean bilatu zituen La Fontainek bizitzan ezin aurkitu zitzakeen oreka, armonia eta betetasuna. Halatan, bada, gizakia, gizartea eta giza grinak ispilatzen dira La Fontaineren gogoetetan, ironiaz eta umorez.

Gizakia handinahia da, traidorea; zibilizazioak atzera egin du. Ez dago errukirik La Fontainerenean. García Gualek, ildo horretan, zera dio: "El mundo de las bestias parlantes es pintoresco, divertido, pero encierra un fondo cruel y descubre una visión desilusionada del comportamiento feroz de los humanos" (1999: 222). Giraudouxen esanetan (in La Fontaine, 1980: 102), La Fontaineren alegia bakoitzak moral laikoaren eta moral erlijiosoaren printzipioa ukatzen du, hau da, justiziak munduan erreinatzen duelakoa, dela instituzioen bikaintasunarengatik, dela probidentzia dibinoarengatik. Egia bakarra dago, ostera, La Fontaineren alegietan: gizakien maltzurkeriarengatik eta arduragabekeria dibinoarengatik erreinatzen du injustiziak munduan.

⁶ Château-Thierry dukerriko baso-ikuskaria izan zen, aita bezala.

- Hartzaillea *honnête homme*⁷ duelako, hizkuntza natural eta garbian idatzi behar du idazleak. Hizkuntza modu hori espiritu finaren adierazle eta edertasunaren adierazpide da. Honelakoxea da *honnête homme* hori: edertasuna estimatzen duen gizaki laua.

- Egile klasikoek imitatu egin zuten. Hala egin zuen La Fontainek ere: inspirazio iturri asko izan zituen. Sortzailea izan zen, hala ere, imitazioa erabiltzean. Imitazio sortzailea da, beraz, La Fontaineren imitazio modua; mirabekeriarik onartzen ez duen imitazioa. Dandreyk honela mugatu zuen: “une imitation libérale, qui ne soit point un esclavage” (1992: 110).

- Hizkuntzaren aldetik, arau hertsia indartu ziren klasizismoan: arkaismoak, dialektalismoak eta neologismoak baztertu ziren. Horrek pobretu egin zuen hizkuntza, idortu eta zurrundu. La Fontaineren hizkuntza-hautua, aldiz, bestelakoa izan zen: onartu egin zituen hitz mota horiek guztiak eta gehiago.

Laburtuz, aldi berean klasiko eta moderno izan zen frantses alegialaria: La Fontainek ideia klasikoenganako maitasuna eta joera berrien onarpena nahasi zituen (Ozaeta, 1997a: 13). Egokitu egin zen doktrina klasikoaren mugen barruan baina, aldi berean, burujabea izan zen (ibidem: 22).

Hona Dandreyren hitzak, ondo adierazi baitzuen La Fontaine zertan den klasiko eta zertan moderno:

...d'un côté l'imitation des Anciens et de la Nature, le plaisir au service de l'instruction, la maîtrise des règles et le goût le plus sur, fait d'harmonie, de mesure, d'équilibre et de discrétion. De l'autre, (...) l'esthétique galante et le plaisir mondaine, une revendication de nouveauté sans complexe, un goût irrépressible pour la diversité jusqu'au seuil de l'irrégularité (1992: 106).

Alegiagintza modernotu eta indarberritu zuen La Fontainek, eta bere ekarpenen berri paratestuetan eman zuen. Esaterako, alegiaren osagaiak zein diren adierazi zuen “Préface”-an:

L'apologue est composé de deux parties, dont on peut appeler l'une le corps, l'autre l'âme. Le corps est la fable ; l'âme, la moralité (La Fontaine, 1991: 9).

⁷ *Honnête homme* hori nola edo hala ezaugarritzeko, Pascal-en *Pensées* erabiliko dut, Narbaitzen euskarazko bertsioan: “Ez dadila [norbaitez] erran ahal « matematikaria » ez dela etare « predikaria », ez etare « mintzatzaille ederra », bainan « gizon zuzena ». Denek kalitate daukaten hori zaut bakarrik gustatzen. Norbait ikustean haren liburuaz orhoitzea, marka txarra...” (1980: 35).

Besteak beste, irakaspenaren auzian izan zen berritzailea. Jokabide bat baino gehiago erabili zuen: batzuetan, bukaeran ipini zuen irakaspena; beste batzuetan, hasieran, Fedrok bezala. Hala ere, ez zuen beti esplizituki adierazi irakaspena; noiz edo noiz, irakurleak ondorioztatu behar du alegiaren erakutsia.

Irakaspena bigarren plano batean uzteak, horrexek bereizten du La Fontaine aurreko alegialariengandik, Janssens ustez:

Ce qui distingue La Fontaine des fabulistes précédents, c'est que la morale, qui est leur premier souci, est pour lui tout à fait accessoire. Poète, il se préoccupe moins de corriger les mœurs que d'écrire des vers; fabuliste, il ne perd pourtant pas de vue que l'enseignement moral ne peut être éliminé de la fable : il lui fait donc une place, mais une place secondaire (Janssens, 1955: 45).

Ildo berean, Guichemerrek esan zuen anekdotaz gehiago axolatu zela La Fontaine irakaspenaz baino:

Une comparaison des fables de La Fontaine avec celle d'Esopé et de Phèdre montre que l'anecdote l'a intéressé beaucoup plus que la moralité proprement dite, souvent réduite à un ou deux vers (Guichemerre, 1964: 181).

Urrunagora joan zen Giraudoux (1980: 105): "J'ai découvert que les fables de La Fontaine ne sont pas de fables, mais des contes". Areago: "...c'étaient nos contes des *Milles et Une Nuits...*" (ibidem: 107).

Bestelako berritasunik ere egotzi izan zaio. Dandreyren ustez, La Fontaineren meritu nagusia hau da: "la transposition d'un genre didactique en poème" (1992: 16). Ñabardurak jarri behar zaizkio, hala ere, baieztapen horri, gauza jakina baita Fedrok eta beste batzuek emana zutela aspaldi poesiainoko jauzi hori.

Baina, zein izan zen, ordea, meritu nagusia? Zer egin zuen La Fontaineek ordura arteko alegialariek egin ez zutena? Zergatik da gaur egun ere idazlerik herrikoiena Frantzian⁸?

Gustu ona izatea, horra lehenengo meritua. Vosslerrek "gustu onaren genio" deitu zion (1947: 29). Dandreyk dioskunez (1992: 16), bestalde, La Fontaineek apologoaren laburtasun lakonikoa alaitasun kitzikatzailerik bilakatu zuen. Irakurleei gustagarri gertatu zitzaie, gozamina eta gogoeta eragiten baitzizkien. Geruzek dio

⁸ Frantziako haur guztiek ikasi dute buruz La Fontaineren alegia bat edo beste. Horren lekuko izan zen gure aita zena, Donibane Lohitzuneko eskolan ikasi baitzituen alegia batzuk, familia hara aldatu zenean, faxismotik ihesi. Beti izan zituen testu haiek akorduan. Beti izan zen konposizio haiek erraz erreztatzeke gai.

(in La Fontaine, 1984: VIII-IX) alegiek irakurlearengan xarma edo inkantamendu moduko bat sortzen dutela: La Fontainek irudi bat sortzen du eta ariman barneratzen da irudi hori; alegietako sinbolo bizidunengan gizartea ispilatuta ikustea, gainera, plazer iturri da irakurlearentzat. Gozamen, inkantamendu eta plazer sortzaile izaten jarraitu dute, gorabeherak gorabehera, La Fontaineren alegiek, ordutik hona. Meritua, beraz, gozagarri izatea da, beste ezer baino gehiago.

Atsegingarri izate hori, bestalde, darabilen hizkuntzan datza. Bigarren meritu hori ere nabarmendu zion Vosslerrek (1947: 97). La Fontaineren alegietan osagai hizkuntzazkoa⁹ lehen planoan dago eta horregatik da La Fontaine, beharbada, itzulgaitza, eta, era berean, esaten da, itzultzean alegiek asko galtzen dutela.

El francés de La Fontaine no es un idioma del momento o de la moda, sino una especie de francés moderno y antiguo a la vez... No es tampoco un idioma de la corte, sino un francés popular y cortesano a la vez (ibidem: 109).

Vosslerri kasu egitera, gortean arkaismoak eta hitz teknikoak gorroto zituzten, eguneroko bizimoduaren betebeharrak gogorarazten baitzizkieten; hain zuzen, hitz horiexek erakarri zuten La Fontaineren arreta.

Hirugarren meritu bat nabarmendu diote La Fontaineri: artista izatea estiloaren arloan. Bertso librea erabili zuen, batez ere. Neurri- eta errima-askatasun handiz jokatu zuen. Oro har, La Fontaineren helburua ez zen erritmoaren, errimaren eta melodiaren bidez musika-efektu egokia bilatzea, baizik eta esanahia eta komikotasuna txertatzea osagai horiekin (Vossler, 1947: 122).

Corpusa eta iturriak

Bi alegia-bilduma argitaratu zituen La Fontainek. Lehenengo bilduma 1668koa da, sei liburuk osatua (I-VI), Frantziako Dofinari eskaini zion eta François Chauveau garaiko ilustratzailearik famatuaren grabatuak izan zituen hornigarri. Bigarren bilduma 1678-79koa da, bost liburuk osatua (VII-XI). Bi bilduma horietako liburuek 18 eta 29 alegia bitartean dituzte, XI.ak izan ezik, bederatzi bakarrik baititu. 1694an, 73 urte zituela, liburu bat (XII.a) argitaratu zuen.

⁹ Esapide, lokuzio eta lexiko berezia, batik bat.

Paratestu¹⁰ ugariz hornitu zituen La Fontainek bere alegiak. Garrantzi handikoak izateagatik –alegiagintzaren poetikaz eta bizitzaz, oro har, zenbait gogoeta bildu zituen haietan– hona paratestuen zerrenda, eskema batean:

Jean de La Fontaine <i>Fables choisies mises en vers</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ À Monseigneur le Dauphin (prosaz) ▪ Préface (prosaz) ▪ La Vie d'Ésope le Phrygien (prosaz)
Livre premier	<ul style="list-style-type: none"> ▪ À Monseigneur le Dauphin (bertsoz)
Livre deuxième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fable I (exordioa, alegien poetikaz, 18 bertso-lerro)
Livre troisième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fable I <i>À M.D.M</i> (27 bertso-lerro ditu eskaintzak)
Livre quatrième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fable I <i>À Mlle de Sévigné</i> (17 bertso-lerro ditu eskaintzak)
Livre cinquième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fable I <i>À M.L.C.D.B.</i> (32 bertso-lerro ditu eskaintzak)
Livre sixième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fables I et II (“Les fables ne sont pas ce qu’elles semblent être”, alegien poetikaz dihardu) ▪ Épilogue
Livre septième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Avertissement ▪ À Mme de Montespan
Livre huitième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fable IV <i>À M. de Barillon</i> (33 bertso-lerro ditu eskaintzak) ▪ Fable XIII <i>Pour Mlle de Sillery</i> (29 bertso-lerro ditu eskaintzak)
Livre neuvième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Discours à Mme de la Sablière (badu zenbakirik gabeko alegia bat: “Les deux Rats, le Renard et l’Œuf”)
Livre dixième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fable XIV <i>Discours à M. le Duc de La Rochefoucauld</i> (alegiaren ondoren, 12 bertso-lerro)
Livre onzième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Épilogue
Livre douzième	<ul style="list-style-type: none"> ▪ À Monseigneur le Duc de Bourgogne, liburuaren hasieran. Eskaintza. Prosaz. ▪ Fable I <i>À Monseigneur le Duc de Bourgogne</i> (alegiaren aurreko exordio luzea, 26 bertso-lerro) ▪ Fable Ven aurreko eskaintza (22 bertso-lerro): <i>À Monseigneur le Duc de Bourgogne, qui avait demandé à M. de La Fontaine une fable qui fût nommée « Le Chat et la Souris ».</i> ▪ Fable XII <i>À Son Altesse Sérénissime Monseigneur le Prince de Conti</i> (35 bertso-lerro ditu eskaintzak) ▪ Fable XV <i>À Mme de la Sablière</i> (54 bertso-lerro ditu eskaintzak) ▪ Fable XXIII <i>À Mme Harvey</i> (24 bertso-lerro ditu eskaintza-exordioak) ▪ Fable XXIV <i>À Mme de la Mésangère</i> (22 bertso-lerro ditu eskaintza-exordioak)

¹⁰ Paratestuaz, hona *Palimpsestos* liburuak dakarren definizioa: “...*paratexto*: título, subtítulo, intertítulos, prefacios, advertencias, prefacios, epilogos, prólogos, etc.; notas al margen, a pie de página, finales; epígrafes [...] y muchos otros tipos de señales accesorias, autógrafas o alógrafas, que procuran un entorno (variable) al texto...” (Genette, 1989: 11).

La Fontainek zenbait autore nabarmendu zituen lehen bildumako hitzaurrean: Esopo, Sokrates, Fedro, Aviano, Planudio... Hala ere, generoaren aitatzat Esopo jo zuen: “Je chante les héros dont Ésope est le père” (1991: 29, 1 bb). Bigarren bildumaren hasierako oharpenean, VII. liburuko “Avertissement”-ean hain zuzen, Pilpay aipatu zuen, “sage indien” horri zor zizkiola gai gehienak.

La Fontaineren iturriez jardutean, ikertzaile gehienek garai hartako alegia-bilduma ezagun bat aipatu ohi dute, La Fontaineren alegien inspirazio-iturri gisa: Isaac-Nicolas Névelet suitzarrak 1610ean latinera itzulitako alegia-bilduma, hain zuzen:

C'est une tradition chez les commentateurs de La Fontaine d'admettre qu'il a eu recours, pour trouver les fables dont il s'est inspiré, à un recueil très en vogue de son temps, très commode et très complet : *Mythologia Æsopica Isaaci Nicolai Neveleti*, Francfort, 1610, petit in-8 (Recueil de fables ésopiques de I.-N. Nevelet, Francfort). On y trouve non seulement le texte d'Ésope avec sa traduction en latin, le tout enrichi de gravures, mais la plupart des fabulistes. Cependant cinq fables de La Fontaine sont empruntées à Ésope, qui ne figurent pas dans le recueil de Nevelet (Radouant in La Fontaine, 1929: XXVI).

Iturrien ikerketan, ordea, Collineten lana da, beharbada, bikainena. Collinetek alegiaz alegia aztertu zituen iturriak La Fontaineren alegien eta ipuinen edizioan. Oharretan bildu zuen informazio hori guztia (in La Fontaine, 1991: 1031-1323). Collineten arabera, hauek dira La Fontaineren obran zuzenki eragin zuten iturriak: Esopo, Fedro, Aviano, Abstemius, Pilpay... Zeharka eragin zuten, aldiz, beste autore hauek: Platon, Zizeron, Lukrezio, Birgilio... Bestelako iturriak ere atzeman zizkion Collinetek: *Roman de Renard*, Erdi Aroko *Fabliaux* direlakoak, Rabelais, Corrozet...

Hala, bada, iturriak diferenteak dira liburu-bilduma bakoitzean. Lehen bilduman Esoporen eta Fedroren eragina nabarmena da: zuhurtasuna da printzipio moraletako bat (Ozaeta, 1997a: 90). Bigarren bilduman alegien tonua aldatu egin zuen. Edukien aldetik, tankera filosofikoko eta moraleko kezka plazaratu zituen. Tradizio gassendiarraren arrastoan sartua zebilen, zeinak gomendatzen baitzuen gauzen, naturaren eta gizartearen ordena onartzea, zeren alferrikakoa baita matxinatzea, ordena hoberik amestea eta, errealitatea gure kimeren arabera ez delako, arranguratzea. Jada ez da alegiotan inondik inora ageri Esoporen alegiei darian jakinduria (Adam in La Fontaine, 1966: 18). Gaiak beste inspirazioetatik datozkio eta ugariagoak dira aurreko bilduman baino. La Fontainek Pilpay indiarraren *Le Livre des Lumières ou la Conduite des rois* apologo-bilduma ezagutu zuen, 1644an agertu baitzen frantsesez. Arnasa berria, ekialdeko inspirazioa bazuena, ekarri zion liburu horrek eta, ondorioz, aurrekoak baino tonu

serioagoa hartu zuen. Azken liburuan, XII.ean, epikureismoaren eta kristautasunaren arteko borrokan murgildu zen La Fontaine, eta halako ezkortasun bat dario liburu horri.

Beraz, alegialariak eta alegiak ezagutzen zituela argi dago. Are gehiago, baitezpadakoa izan zuen autore horiek ezagutzea, imitazioa baitzen klasikoen sorkuntzaren abiapuntua. Gai gehientsuenak maileguan hartu zituen¹¹. La Fontainek ez zuen helburu izan gai aldetik berritzaile izatea; hala ere, betiko gai berak erabili arren, “su originalidad está en la forma y en el tono poético” (García Gual, 1999: 232).

Kritika eta zabalkundea

Idazle onartua izan zen, oro har, bere mendean.

Baita XVIII.ean ere. Hala ere, kritiko azaldu ziren bi egile, harekiko. Voltaire da horietako bat: hizkuntza zuzen ez erabiltzea leporatu zion; baita sinpleegia izatea ere. Rousseau da bestea: ezaguna da *Émilien* La Fontaineren alegien moralaz idatzitakoa.

XIX. mendean, Lamartinek gogor jo zuen La Fontaineren aurka *Prèmières méditations* liburuan, Rousseauen ildo beretik, esperientzia mingotsa izan zitzaielako alegia haiek irakurritzea. Stendhal, Balzac eta Flaubert, aldiz, aldeko agertu zitzaizkion.

XX. mendean, berriz, sinbolisten eta mugimendu surrealistakoen iritziz, La Fontaine eta hark ordezkatzeko zuena ez ziren onargarriak. Uko egin zioten mugimendu horiek klasizismoari. Hala ere, epai onak izan zituen beste autore batzuen aldetik, hala nola Apollinaire eta Gide, gure autorearen klasizismoa miretsi baitzuten. Valéryk, berriz, partzialki onartu zituen La Fontaineren lanak eta, guztien artean, alegiak lehenetsi zituen.

Laburtuz, La Fontaineren aldeko eta aurkako iritzi-gorabeherak beti egon dira klasikotasunaren eta modernotasunaren artean sortzen den dialektika zaharraren menpe.

Kritikak kritika, harrera zabala izan du La Fontaineren alegiagintzak. Horren froga dira bere garaian izan zuen zabalkundea eta XVIII. eta XIX. mendeetako berrargitalpen kopuruak (125 eta 1200, hurrenez hurren).

¹¹ La Fontaineren 244 alegietatik 17 edo 18 bakarrik dira hark asmatuak (Radouant in La Fontaine, 1929: XX).

V.3. Samaniegoren alegiak

Bibliografia zabala dugu Samaniegoz eta haren obraz eta garaiaz (Astigarraga, 1840; Eguren, 1867; Jareño in Samaniego, 1969; Palacios, 1975 eta 2002; Alborg, 1985; Estévez, 1985; Azurmendi, 1985; Auzmendi, 1986; González de Zárate, 1995; Ozaeta, 1997a; Apalategi, 2005; Lasagabaster, 2005; Sudupe et alii, 2008...). Samaniegok berak ere hainbat gogoeta plazaratu zituen *Fábulas en verso castellanoko* hitzaurrean eta gainerako paratestuetan. Lan eta gogoeta horiek aldean ditudala, Samaniegoren garaiaren ezaugarri nagusiak, alegialariaren figura, eta alegiei dagozkien kontuak iruzkinduko ditut atal honetan, sorburu-testuingurua nolakoa izan zen ulertaraztea helburu.

Ideologia

Laguardian jaioa (1745-1801), Baionako jesuitetan¹² hezi zen, eta Bordeleko ikastetxeren batean osatu zituen ikasketak (Palacios, 1975: 26). Hezkuntza horren bidez, kultura maila nahikoa erdietsi zuen, baita frantses kultura-zaletasuna eta hango zenbait ohitura ere. Lege-ikasketak egin zituen bi urtez, Valladoliden. Musika gustuko zuen: Frantzia biolina eta bihuela jotzen ikasi zuen eta biolin-birtuosotzat zeukaten. Musika-zaletasuna agerikoa da alegia batzuetan.

Nekazari-jatorriko aita-ama onen seme zen, asmamen handikoa, abegitsua, mahai onaren maitale eta adiskideekin berriketan jardun zale: apaizen aurka hitz egiten zuten maiz mintzaldi horietan, eta gai libertinoak jorratzen zituzten.

Tolosako alkate izan zen 1775ean, urtebete.

Bergaran bizitzen jarri zen osabak, Xabier Munibe Peñafloridako kondeak, lagunduta. Bergarako Erret Mintegiaren presidente izan zen, aditua baitzen hezkuntza-gaietan, 1780an eta 1782an.

Ordezkarri izan zen Madrilen, 1782tik 1785era, Arabako Foru Aldundiak bidalita, eta, horrenbestez, Foruetako eskubideak defenditu zituen han, borboitarren gortearen aurrean.

¹² Jesusen Lagundian gogoko zuten alegien generoa hezkuntza-programetan sartzeari, González de Záratek ohartzen duenez (1995: 18).

Eszeptiko eta sinesgabea, burlati, epikureo eta estoikoa, ezaugarri horiek guztiak biltzen zituen, aldi berean, Samaniegok. Ilustratu tipikoa izan zen Laguardiakoa, hots, deserosoa boterearentzat; entziklopediazalea ere bai, garaiko modaren arrastoan.

Armonia unibertsalaren zentzu guztiz horaziarra¹³ zuen, eta zentzu hori izan zuen existentzia-gidari, “El pastor y el filósofo” alegian (VI-1) irakur dezakegun bezala: “En el feliz estado en que se goza / del vivir ni envidioso ni envidiado”. Jareñoren iritzian, *aurea mediocritas* kutsua duen mezu hori da, beharbada, Samaniegoren alderdirik baliozkoena eta egungoena (in Samaniego, 1969: 41).

Arazoak izan zituen Logroñoeko Inkisizioarekin, liburu debekatuak irakurtzeagatik eta bere portaera arinxko, lasaka eta limuriarengatik. Atxilotzeko autoa eman zuen auzitegiak, haren idazki batzuk moralgabeak zirela iritzita. Hori zela eta, idatzi ohi da Portugaleteko karmeldarren komentuan erretiratu zela 1793an. Baina, Palaciosek ikertu zuenez (1975: 117), hori ez da egiazko datua. Samaniego ez zen toki hartan egon, ez baita agertzen egoiliarren zerrendan, Humboldt eta beste zenbait bezala, esate baterako. Palaciosek sumatzen du horregatik eta beste zantzu batzuegatik (hala nola, Jovellanosen, Samaniegoren adiskidearen, *Diario* egunerokoa irakurrita), Inkisizioaren eragina oso ahuldua zegoela ordurako: “Podríamos decir que se trataba de una institución para juzgar y castigar a «herejes» pobres, ya que las personas de cierta posición social conseguían escapar siempre a sus posibles rigores, o rebajar sus penas” (ibidem).

Beraz, bere garaian badaezpadakotzat jo zuten moralaren aldetik, libertino kutsukotzat; hala eta guztiz, paradoxikoki, espiritu moralizatzailekotzat jotzen dugu gaur egun, are moralistatzat ere, hainbestearaino non, harrigarria bada ere, haren alegiak irakurtzeko ohiturak ikastetxe erlijiosoetan iraun duen luzaroen.

Generoaren etapa berri bati hasiera eman zion Samaniegok Espainian, La Fontainek Frantzian eman zion moduan: La Fontainek arnasa berria ekarri zion generoari eta alegiagintza modernoaren eredua taxutu zuen; ondoren, Iberiar

¹³ Gogoan har bedi, Horazioren *Ars Poeticaren* bertsio bat idatzi zuela, argitaratu ez zuen arren (*Versión parafrástica del Arte Poética*). Berriki atara du argitara Emilio Palaciosek, Samaniegoren *Obras Completas. Poesía. Teatro. Ensayos*. lanean (2001). Horrek erakusten du, argiro, bazuela gure Samaniegok halako gogaidetasun bat Horazioren erakutsiekin. Bertsioa dela-eta, aldeko epai ezin laudoriozkoagoak eskaini zizkion García Gualak, arabarraren heriotzaren berrehungarren urteurrenaren karietara antolatutako biltzarrean (García Gual in Palacios, 2002: 70-79).

Penintsulara eramán zuen generoa Samaniegok. Horregatik, beharbada “*el La Fontaine español*” deitu izan dio zenbaitek¹⁴.

Jakitun zen Samaniego generoari ukitu berri bat ematen ari zitzaioela, eta, horregatik, nazioko lehenengo alegialariatzat jo zuen bere burua, gidaririk gabekotzat: “...el primero en la nación que ha abierto el paso a esta carrera, en que he caminado sin guía” (Samaniego, 1969: 55).

Originalitate kontzeptuarengatik izan zuen harreman liskartsua Iriarte alegialariarekin. González de Záratek laburtu zuen arazoaren muina:

...el problema entre ambos autores surgió por el concepto de “originalidad”, pues si bien el alavés fue el primero en adaptar este género de los apólogos poco menos que olvidado en la España del siglo XVIII, Iriarte compuso sus fábulas orientadas por primera vez a la crítica literaria y, por otra parte, no siguió en sus relatos las fuentes tradicionales sino que más bien son “inventadas” lo que a todas luces justifica el término de originales (1995: 18).

Iriartek “bedeinkatu” egin zuen Samaniego, arabarra alegiak idazten hasi zenean; geroago, ordea, kanariarrak gaitzetsi egin zuen haren alegiagintza, are iraintzerainoko bertso ozpinekin: “Por más que en metro latino / voces castellanas usas / no te permiten las musas / dejar de hablar vizcaíno / El rebuzno de pollino / en que el verso se trocó /...” (Iriarte in Palacios, 1975: 85)¹⁵. Bi idazleón sesio tematiaren azpian, nola ez, giza grinak eragindako jeloskortasun, bekaitz eta gainerako sentimenduak

¹⁴ «De Samaniego está dicho todo, con llamarle *el La Fontaine español*» idatzi zuen M.A. Príncipek bere *Fábulas en verso castellano y en variedad de metros* liburuan argitaraturiko “Historia de la Fábula desde Esopo hasta nuestros días” lanean, 1861. urtean (García Gual in Palacios, 2002: 51).

¹⁵ Iriarteren bertsoak beren horretan hartuz gero, esan liteke Samaniegok euskaraz bazekiela. Tamalez, literatura izaki, batek daki bertsoak irudizko adieran ez ote zituen erabili Iriartek, euskal herritar erdaldunen euskal joskeraz iseka egiteko. Hala ere, oso litekeena da Samaniego euskalduna izatea, edo, erabat euskalduna izan ez bazen ere, euskarazko oinarri batzuk izatea, behintzat (ama, Juana Maria Teresa Zabala, Tolosakoa zuen). Inon ez dut Samaniegoren euskalduntasuna egiaztatua ikusi; ezta ezeztatua ere.

P. S.: Gaiaz berba egin nuen Iñaki Aldekoa irakaslearekin eta, gerora, lekukotasun polita eman zidan, Jose Mari Iturralde idazlearekin Samaniegoren euskalduntasunaz solastatu ondoren. Haien e-mail bidezko hartu-emanetik jaso dut pasarte, atrebentziarekin. Iturralde ari zaio Aldekoari erantzuten:

Samaniego: berak ez zian ezer euskaraz idatzi. Baina Tolosako alkate izan huen eta gainera, hemen terrenoak eta zizkian, eta maiz etortzen huen Tolosara. Begi bistakoa duk garai hartan Tolosan ibiltzeko (duela hirurehun urteko Tolosa hartan) behar-beharrezkoa izango zuela euskara (nire amona zenak ez zekian hitz bakar bat ere gazteleraz, duela ehun urte. Pentsa zer nolako giroa izango zen hemen bi mende lehenago). Orduan suposatzea duk hitz egin gutxi apika, baina ulertu dena egingo zuela euskaraz. Bistan zegok behartuta zegoela euskaraz ulertzea eta zertxobait sikiera erabiltzea garai hartan eta Tolosan gainera.

Juan Garmendia Larrañagak badik liburuxka bat Samaniegori buruz, nik berarekin hitz egin diat eta bera ere uste horretakoa duk. Zoritxarrez ez zegok arrasto idatzirik horri buruz. Baina, esan bezala, euskararekin nola edo hala moldatuko zela, hori seguru duk. (2008-11-7)

Bihokie hirurei nire esker ona, oin-ohar honetatik.

ditugu¹⁶. Baita lehia ere; izan ere, Iriartek 1782an argitaratu zuen *Fábulas literarias* alegia-bilduma, Samaniegok baino urtebete geroago, hain zuzen.

Ilustrazio¹⁷ edo Argien Mende deritzo Europan, batez ere Frantzian eta Ingalaterran, ia XVIII. mende osoan nagusitu zen pentsamendu-joerari. Pentsaera berri hartan, arrazoia gailendu zen; izan ere, bizitza ulertzeko moduari zientzia-metodoa aplikatu zitzaion. Horrela, Jainkoarengan oinarrituriko ordura arteko ordena baztertu egin zen, eta gizakiarengan oinarrituriko ordena finkatzen hasi zen, laikotasunari bidea emanez.

Higikunde berritzaile hark eragin handia izan zuen ekonomian, politikan eta gizarte-arloetan. Eta higikunde haren adierazpide estetikoari, berriz, neoklasizismo deritzo.

Luze iruzkindu zituen Ozaeta ikertzaileak Samaniegoren garaiko kultura-giroaren ezaugarri nagusiak (1997a: 241-270). Hauek ditugu, horietariko zenbait, laburturik:

a) Hizkuntzaren arloan, orduan finkatu zen hizkuntza-kodea: hizkuntza garbi irauarazteko nahia zegoen, eta asmo horrekin sortu zen «Real Academia Española de la Lengua» (R.A.E.) delakoa, 1713an. Berehala *Diccionario de Autoridades* argitaratu zuen Akademiak, lehen liburukia 1726an, eta bigarrena, 1739an.

Geroago, *Orthographia española* moldatu zuen R.A.E.k, 1741ean. Eta 1771n *Gramatica de la lengua castellana* argitaratu zuen. Eskola-testu gisa ezarri zuen Carlos III.ak, 1780an.

¹⁶ RSBAPeko Arabako Lurralde Historikoko agiri-funtsaren zerrendan agiri batek atentzioa eman dit. “Fábulas” gaiaren azpian dago sailkatua eta izenburu hauxe du: “Original de las observaciones sobre las fábulas de Iriarte que suenan impresas en Filadelfia año de 1782 bajo el nombre supuesto de Don Justo Miesindo”. Eta honako ohar hau, izenburu horren azpian, benetako autorea nor den adierazten duena: “Su verdadero autor es Don Félix M^a de Samaniego escritas de su puño y letra e impresas en Vitoria en casa de Robles al cuidado de Dn Lorenzo Prestamero-1782”. Izan ere, Don Justo Miesindo ezizenaren azpian gorde zuen bere burua Samaniegok, baina, nonbait, haren idazkerak salatu zuen eta ikertzaileek identifikatu ahal izan zuten idazkiaren jatorria.

¹⁷ *Ilustrazio* hitza makulu-hitz gisa hartzen da askotan, Francisco Aguilar-ek dioskun moduan. Tokian tokiko izendapenak diferenteak dira, eta ez dira guztiz sinominotzat hartu behar: *Lumières* Frantzian, *Aufklärung* Alemanian, *Iluminismo* Italian, *Enlightenment* Ingalaterran (Aguilar in Palacios, 2002: 32).

Ikusten denez, hizkuntzari buruzko kezka egon zen mende osoan barrena, eta erudizio-lan garrantzitsuak ekarri zituen kezka horri erantzun beharrak, hala nola Mayans eta Siscar-en *Origenes de la Lengua Española*, 1737an.

Bestalde, itzulpen asko egin ziren mende hartan, ezaguera-egarri handia zegoelako eta kosmopolitismoa maite zutelako. Halaber, Europako literatura nagusiak ezagutu nahi izan zituzten orduko jende ikasiek.

Ilustrazioaren ideia-ekarpenek, obra didaktikoen eta zientzia positiboak lantzeak, gainera, beharrezko egin zuten, maiz, gaztelaniak zientziaren arloan falta zuen lexikoa. Galizismo uholde bat abiarazi zuen horrek, baina aurkako erreakzioa piztu zuen, ondorio gisa. Eztabaida-giro gorria egon zen, horregatik, kontserbadoreen eta berritzaileen artean, lexikoari buruz.

b) Politikaren arloan, borboitarrak Espainiako koroa eskuratu zuten garaia dugu hura eta Ondorengotza-Gerra eta Independentzia-Gerra izan ziren garai horretako zedarriak.

Espainiak mendearen hasieran bukatu zuen Estatu gisa egituratzen, lagun izan zituela Utrecht-eko bake-ituna (1713) eta administrazio-batasuna; administrazio-batasun hori gauzatzeko, besteak beste, Aragoiko foruak deuseztatu zituzten.

Orduko monarkiaren pentsaera batasunzale eta uniformetasunzale horren aurrean, Joxe Azurmendik dioenez (1985: 384), euskal jendeak hautsi egin zuen ordura arteko ideologia-moldearekin: ondorioz, monarkiarenganako atxikimendua eta foruzaletasuna bereizi egin zituzten euskal herritarrek, eta elkarren aurka jarri; horrenbestez, Euskal Herriko ordura arteko ideologia hezurmamitzen zuten bi oinarriak bereizita gelditu ziren.

Ilustratuak, nolana den, ez ziren gehiegi arduratu zentralismoaren erasoan pean desegiten ari zen foru-sistemaz. Ilustratuek politika-erregimenaren auzia bazter batean utzi zuten.

Mendearen lehen erdiak aipatzeko gauza askorik ez zuen ekarri. Bigarren erdian, Carlos III.a erregearen agintaldian (1759-1788), ilustratuen atxikimendu baldintzarik gabera eduki baitzuen, ideia berriak zabaldu ziren. Carlos III.ak eraberritu egin zuen

irakaskuntza-sistema, eta zientzia-irakasgaietan eta ikerkuntzan oinarritu zuen. Erret-Etxearen zaindaritzapean jarri zituen unibertsitateak.

Despotismo Argituaren garaia izan zen hura: monarken izaera absolutista eta haien asmo eraberritzailea, aldi berean. “Dena herriarentzat baina herria aintzat hartu gabe” zen orduko goiburua¹⁸, aldaketak egin bai, baina gizarte-ordena hautsi gabe. Herriaren ongizatea areagotu zuten, oinarrizko hezkuntza emanez, baina ez gehiegi. Herritarren osasunaz ere kezkatzen hasi ziren.

Hala, bada, eredu horretatik hurbil ibili zen Carlos III.a. Norabide-aldaketa bat egon zen politikan, ordea, Carlos IV.arekin: ilustrazio-higikundea galgalk jarrita egon zen, eta batzuetan Inkisizioaren mende. Aranda kondearekin suspertu zen, berriro ere, Ilustrazioa, 1792an.

Xosé Estévezek (1985: 42-45), espainiar ilustrazioaren ezaugarri nagusiak hauek izan ziren: sentsualismoa, filosofia-oinarri gisa; tradizioaren eta modernitatearen arteko *entente cordiale*; gizartearen eraldatzea pedagogian eta hezkuntzan; liberalismoa; Ekonomia-Elkarteen sorrera eta zabalkundea; gutxiengo baten ekimena izatea; periferian umotu eta gertatu izana, nagusiki.

Gutxiengo bat ziren ilustratuak, eta, botereak lagundurik, erreformak egin nahi izan zituzten, esparru guztietan, Espainiari galdutako kultura eta duintasuna itzultzeko. Gizajende masa ezikasi handi bati, funtzionarioei, apaiz-jendeari eta unibertsitateko katedradunei aurre egin behar izan zien gutxiengo horrek, iraganaren eta ohikeriaren zale zen jendetzari. Kritikoa zen, batez ere, ilustratuen jarrera; kristau-ideologia zuten, gizarte arazoez kezkatuak zeuden; bizimodu bidezkoagoa eta askeagoa lortu nahi zuten.

Aitzitik, kanpotik etorritako edozein ekarpenen aurka jarri zen kontserbadore-jende hura guztia, eta espainartasuna aldeztu eta aldarrikatu zuen. Ilustrazioa ateismoarekin lotzeraino ere iritsi ziren.

Frantziako Iraultzako gertakariak oztopatu zuten, behin betiko, ilustratuen ekimen orokor hura.

¹⁸ Alzibarren testu batetik hartu dut gaztelaniazko goiburuaren itzulpena (in Sudupe et alii, 2008: 98). Dirudenez, goiburu hori Cayetano Alcázar katedradunak erabili zuen lehenengoz, 1933ko testu batean: “Revolución desde arriba, con un fondo democrático. Todo por el pueblo, pero sin el pueblo” (Francisco Aguilar in Palacios, 2002: 44).

c) Zientziaren arloan, espiritu berri bat sustatu zen, behaketa- eta esperimendazio-metodoen arrakastaren ondorio izan zena.

Berrikuntza guztiak prentsaren bidez iritsi ziren jendearengana. Hortaz, egunkariak eta aldizkariak ugariak izan ziren mendearen bigarren erdian.

d) Eliza behaztopa-harri izan zen Despotismo Argituarentzat. Elizaren aberastasuna gai eskandalagarria zen ilustratuentzat; gurtza barneratua eskatzen zuten ilustratuek, benetako erlijioa, erlijio soila, praktika hipokritei bizkarra erakutsiko ziena. Elizako agintarien botereari galga jarri nahi izan zioten: jesuitak iraitzi egin zituzten 1767an, botere handia bildu zutelako eta Aita Santuaren alde agertu zirelako, hark Europako nazioetako agintariei aurka egin zientetan.

Inkiszioa mende osoan barrena egon zen indarrean: Erregea haren boterea murrizten saiatu zen; hala ere, espainiar ilustratuek Inkiszioaren erasoak nozitu zituzten, Samaniego lekuko.

Hego Euskal Herrian, dena dela, ilustratuek ez zuten halako etsaigorik erakutsi Elizaren aurka. Frogatu denez, gainera, abade askok aldeztu zituzten ilustratuen ideiak (Estévez, 1985: 33). Iñaki Aldekoak antzeko iritzia du:

...badirudi gure ilustratu ospetsuak oso esaneko zirela erlijio kontuetan, edo hala ziren bederen beren jauregi-ataritik kanpo. Badirudi halako *laissez-faire* tolerante bat egon zela Elizaren aldetik handiki horienganako (Aldekoa in Sudupe et alii, 2008: 40).

Elkarren eskutik ibili ziren, ohi denez, eliz agintariak eta hemengo ilustratuak:

Beti agertu ohi zuten Peñafloidaren lagunek halako errespetu interesatu bat Elizarekiko; hala beharko, elkarren babesaren beharrean zeuden pribilegioei eutsiko bazieten. Ez ziren hemen Frantziako aristokraziak zuen portaeratik asko aldentzen: han eta hemen “mezatan kristau eta operan pagano” voltairearra litzateke bizitzarako lema (ibidem: 41).

e) Hezkuntza Estatuaren ardurapean egon zen: doakoa eta uniforme behar zuen hezkuntzak, oinarrizko gaia baitzen ilustratuen ideologian. Carlos III. arekin goi-hezkuntzaren erreformari ekin zitzaion eta lanbide-hezkuntza hasi zen garatzen Ekonomia Elkarteen bidez.

«Real Sociedad Bascongada de Amigos del País» izan zen Iberiar Penintsulako lehen Ekonomia-Elkartea. Guztira 84 Ekonomia-Elkarte sortu ziren, baina RSBAP izan zen eraginkorrena hezkuntzaren alorrean.

Azkoitiko Zalduntxoen iluntzeroko hizketaldietan jaio zen Ekonomia-Elkarte bat sortzeko ideia, eta Xabier Munibe Peñafloridako kondea izan zen eragile nagusia. Elkartearen lehenengo Batzar Orokorra 1765eko otsailaren 7an egin zen, Azkoitian. Samaniego hango kide osoa izan zen, 1765. urte hartatik bertatik aurrera.

Elkarteak helburu zuen “cultivar la inclinación y el gusto de la Nación bascongada hacia las Ciencias, Bellas Letras y Artes, corregir y pulir las costumbres, desterrar el ocio, la ignorancia y sus funestas consecuencias y estrechar más la unión de las tres provincias Vascongadas, Alava, Vizcaya y Guipúzcoa”.

Natura-zientziak izan ziren RSBAPen kezka nagusia, baina literaturari ere tarte bat utzi zioten. Analfabetismo-tasa gutxitzen ahalegindu ziren, eta, horretarako, ikastetxeak sortu zituzten, irakaskuntza gauza erabilgarrietara bideratuz. Azken helburua ikasleek lanpostuak errazago lortzea zen.

1790. urtera arte iraun zuten Elkartearen ekimenek, eta handik aurrera gainbehera hasi zen.

Irakaskuntza publikoa funtsezko gaia izan zen Elkartearen eztabaida-programetan eta ekimenetan. Eta hala, Bergarako Erret-Mintegia sortu zuten, 1778an, Carlos III.a erregearen babespean. Bertan, irakaskuntza orokorrak eta berezituak eskaini ziren. Norentzakoaz jardunez gero, zehaztu behar da, Altzibarrek dioenez, Bergarako Mintegia “euskal noble gazteen hezkuntzarako” sortu zutela (in Sudupe et alii, 2008: 99). Hau da, “nobleteriaren seme-alabei zegokien hezkuntza bultzatu zuten”¹⁹.

Bergarako Mintegia ezaguna izan zen haren liberalismoarengatik eta zientzia positiboan zabalkundearengatik. Kontserbadoreek, ostera, zalantzatan jarri zuten Mintegiaren lana, eta gehiegizko utilitarismoa eta maila eskasa egotzi zizkioten. Eperik emankorrena 1782-87 bitartekoa izan zen. Gainbehera 1788an hasi zen, eta 1794an desegin zuten frantsesek.

Guztiarekin, Espainiako lehen eskola laikotzat hartzen da Bergarako Mintegia, eta “Institución Libre de Enseñanza”ren aurrekaritzat.

¹⁹ Alabentzako ere ba ote zen ikusi behar genuke. Izan ere, Palaciosek ematen du honen berri: Euskal Herriko Adiskideen Elkarteari bazebiltzion buruan neskentzako mintegi bat egiteko asmoa, baina “tampoco llegó a buen puerto el plan de un Seminario para Señoritas, que la Bascongada pretendía establecer en la ciudad de Vitoria” (2002: 19).

Samaniegok kemen handiz hartu zuen parte Elkartearen zeregin pedagogikoetan, eta garai batez Bergarako Mintegian bizi izan zen, kide osoen arteko txandakako presidentetza egokitu zitzaiolako. Orduantxe hasi zen alegiak idazten.

Ikasleen soziologia-arloari dagokionez, Altzibarrekin bat dator, neurri batean, Azurmendik (1985: 386) esandakoa:

Ilustratuek XVIII. mendean, ikasketen kontzeptu berri bat ekarri dute, xedeak nahiz metodoak iraultzeko asmoz.

Asmoz esan behar, Euskal Herriari dagokionean behintzat, oso urrutira iristerik ez bait da egon. Fundatzailearen asmoen kontra, ikasleria Bergaran kontserbadorea izan da.

Peñafloridako kondearen eskariz konposatu zituen Samaniegok alegiak. Mintegiko batzarretan, zientzia-idazkiak eta literatura-lanak irakurtzen ziren, eta kondeak ilobari eskatu zion alegiaren bat irakur zezan. Jendaurreko irakurraldi horietako batean “La mona corrida” irakurri zuen gure poetak eta, arrakasta ikusita, generoa lantzeari eman zitzaion. 1776rako bazituen 39 alegia aurkeztuak Euskal Herriko Adiskideen Elkartean.

Berak esanda, honengatik ekin zion alegiak idazteari: “Es puramente obra de mi pronta obediencia, debida a una persona, en quien respeto unidas las calidades de tío, maestro y jefe” (Samaniego, 1969: 51). Eta adierazi zuen, osabaren iritzian, hezkuntzan zetzala herri-zoriontasuna.

Alegien hartzailea nor den lehen liburuaren eskaintzan adierazi zuen Samaniegok: “A los caballeros alumnos del Real Seminario patriótico Vascongado” .

Didaktika-kezkak gidatu zuen haren lana, arau moralak direlako haurren espirituaren lehen bazka, hark idatzi zuenez (ibidem: 52). Kezka horrek ekarri zuen bertso errazak egin nahi izatea, alegietako gaiak umeen ulermen-gaitasunera etorrarazteko. Aitortu zuen ikasbide moduko bat izan zela beretzat, Rousseauk La Fontaineren alegiei buruz egindako kritika, hau da, alegia gehienak haurren adimenarentzat desegokiak zirelako (egia esan, ez zuen Rousseau beren-beregi aipatu, “un autor moderno” baizik). Hala ere, galdera bat pausatu zuen: “¿quién tendrá bastante filosofía para acertar a ponerse en el lugar de éstos [haurrak], y medir así los grados a que llega la comprensión de un niño?” (ib.: 54-55).

Halaber, hitzurrean dioskunez, hauxe lortu nahi zuen: “igual acogida que en los niños, en los mayores, y aún si es posible, entre los doctos; pero a la verdad, esto no es tan fácil” (ib.: 52).

Galderak galdera eta zalantzak zalantza, badirudi asmatu egin zuela: Mintegiko ikasleek aldarte onez onartu zizkioten, eta haiengandik etorri zitzaizkion lehenengo epai onak. Eta, gero, arrakasta heldu zitzaion, arrakasta guztizkoa: bete-betean sartu zen literatura-munduan alegiekin.

Poetika

Neoklasizismoa arteetan, horixe zen, hain zuzen, garaiko poetika; eta printzipio neoklasikoak, dakigunez, honako hauek: idealismoa, hots, arrunta den oro baztertu beharra; unibertsalismoa; egiantzekotasuna; naturaren imitazioa; arrazoiaren nagusitasuna; gustu ona; klasikoen imitazioa; eta pragmatismoa.

Ezaugarri horien artean, hain zen garrantzitsua gustu onaren kontu hori, non Peñafloidako kondeak hitzaldi bat eman baitzuen Adiskideen Elkartearen Batzar batean, Gasteizen, 1776ko urtarrilaren 20an, literaturan gustu ona izan beharraz.

Genero pragmatiko gisa gauzatu zen alegia XVIII. mendean, hezkuntza publikorako genero gisa; izan ere, portaera moraleko auziek liluraturik zeuzkaten idazleak, eta, gainera, literaturek eta arteek xede baliagarri bat izan behar zuten, dela didaktikoa, dela morala edo soziala. Horregatixe, alegien arrakasta.

Alegiak Ilustrazioaren kultura-espirtuaren adierazgarrietako bat izan ziren, horrenbestez. Irakatsi bai, baina atsegin emanez, betiere: Horazioren *Ars poeticako* goiburua famatua izan zen, azken buruan, ilustratuen jarraibide eta eredu.

Corpusa eta iturriak

Garai eta egoera jakin hartako lana da *Fábulas en verso castellano, para el uso del Real Seminario Bascongado* (1781, 1784). Poesia ilustratuaren fruituetako bat dira Samaniegoren alegiak: irakasteko, hezteko, atsegin emateko edo ongi pasarazteko tresna.

Valentzian argitaratu zituen, 1781ean, lehenengo bost liburuak (105 alegia). Hiru urte geroago, 1784an, Madrilen, bigarren partea: lau liburu (52 alegia). Eta hala osatu zuen bere lana. Guztira, bada, 157 alegia, hitzaurrea eta eskaintzak, bederatzi liburutan. Hitz neurtuzko alegiak dira, baina izaera narratiboa dute.

Samaniegoren lanak eragin zuzena izan zuen alegia gehiago ekoitz zitezten. Akuilu gisa funtzionatu zuten Samaniegoren alegiek, idazle samalda batek generoari ekin ziezaion, nola Espainian, hala Hego Euskal Herrian ere. Esaterako, *Fábulas en verso castellanoren* ondotik agertuko zen La Fontaineren alegia guztien gaztelaniazko lehen itzulpena, 1787an, Bernardo María de la Calzadak egina. Halaber, geroago, Bizenta Mogelen *Ipui onac* (1804), eta Juan Antonio Mogelen alegiak.

Lehenengo hiru liburuak bere ongileei eskaini zizkien gure alegialariak.

Hala, lehen liburua “A LOS CABALLEROS ALUMNOS DEL REAL SEMINARIO PATRIÓTICO VASCONGADO” eskaini zien. Zientzien argiak goraiatu zituen eskaintzako bertsoetan. Era berean, lan neketsuaren laudorioa egin zuen: ikasle zalduntxoei esaten die lan egin behar dela uzta jasotzeko. Baina aldi berean adierazi zuen bere bertsoak irakurtzea ez dela lan nekosoia, zeren eta “en estos versos trato / de daros un asunto / que instruya deleitando”. Atsedenerako bertsoak direla, ondoren lanari gogoz ekiteko, berriz. Eta Esopo aipatuz ixten du bertso-sorta (Samaniego, 1969: 56-57).

Bigarren liburua osabari eskaini zion: “A D. JAVIER MARÍA DE MUNIVE E IDIAQUEZ, CONDE DE PEÑAFLOIDA, DIRECTOR PERPÉTUO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAÍS”. Lausenguz betetako eskaintza da, osabaren ilustratu-izaera nabarmentzeko: herritarrak hezteko, egituratzeko eta lanean jartzeko haren ahalegin iraunkorra azpimarratzen du. Samaniegok gatz eta piper handiko bertsoetan kontatzen du nola jarri zuen osabak lanean: “el sabio Presidente que nos rige / Tiene aun al más inútil ocupado. / Darne, Conde, querías un destino, / Al contemplarme ocioso e ignorante. / Era difícil ; mas al fin tu tino / Encontró un genio en mí versificante” (ibidem: 78). Eta zer klasiko eman zizkion osabak jarraitu beharreko eredu gisa: “A Fedro y Lafontaine por modelos / Me pusiste a la vista” (ib.).

Hirugarren liburua “A DON TOMÁS DE IRIARTE”-ri eskaini zion. Bertsogintza garbi eta soilaren aldarri egin zuen. Eta Iriarte du horren eredu: “A la naturaleza imploras solo. / Y ella, sabia, te dicta tus verdades. / Yo te imito” (ib.: 91). Onean ibiliko zen Iriarterekin artean ere, harremana ozpindu baino lehen. Izan ere, hirugarren liburuko lehen alegian, arrano atzaparkari, hego-arin eta zoliaren parekotzat jo zituen Iriarte eta haren idazkera: “El Águila eres tú, divino Iriarte; / ya no pretendo más sino admirarte” (ib.: 98).

Samaniegok bizkarra erakutsi zien gaztelaniazko ordura arteko alegiei: hautsi egin zuen tradizioarekin, hala nola *Sendébar*, *Calila e Dimna* eta abarrekin²⁰. Europatik zetorren XVIII. mendeko korronte berria ilustratuagoa eta pedagogikoagoa zen (Jareño in La Fontaine, 1969: 27-28). Horregatik, Samaniegok kanpoko iturri europar haiek hartu zituen aintzat bere alegiak ontzeko. Eta ondoren, Europari eta munduari itzuli zizkion alegiak (ibidem: 23): “después de vestir ‘de basquiña’ (sic) los temas adoptados, los devolvió más allá de las fronteras”.

Prosazko hitzaurrean eman zuen bere iturrien berri: Esopo, Fedro eta La Fontaine hautatu zituen, alegia-bilduma ugari irakurri eta gero. Badakigu imitazioa zela XVIII. mendeko poetikan ezaugarri nagusietako bat. Samaniegok, poetika horretaz jakitun, ez zuen originala izan nahi izan, ezta egundoko erdiespen poetikorik egin nahi izan ere (ib.: 20). Aitortu zuen Esopo berehala utzi zuela alde batera, gaztelaniak laburtasuna eta bizitasuna falta zituelako latinaren moduan aritzeko; geroago, Fedro ere baztertu zuen, haren estilo bikaina ezin imita zezakeelako. La Fontaineren ereduari jarraituz idaztea erabaki zuen, argumentuak Esopotik hartuz, eta askatasunez bere jenioari jarraituz, alegiaren gorputz nagusia aldatu gabe, baina, ahal izanez gero, aldarte berria eta grazia emanez (Samaniego, 1969: 52-54).

La Fontaine izan zuen, bada, eredu nagusi, baina bere erara eraberritu zuen. “Prólogo”an La Fontainerekiko zordun zela aitortu zuen baina soilik “La Cigarra y la Hormiga” eta “El Cuervo y el Zorro” alegietan eta besteren batean (“alguna otra”) (ibidem: 53). Aitorpen horretan, hala ere, motz gelditu zen Samaniego. Izan ere, %35 dira La Fontaine, nola edo hala, oinarri harturik ondutako alegiak: 56 alegia 157etatik

²⁰ García Gualek, dena dela, iradoki zuen Samaniegok ez zuela tradizio hori behar bezala ezagutzen, eta harrotu zela ez ezagutzeaz (in Palacios, 2002: 57).

(Ozaeta, 1997a: 144). Horietatik gehienak, 44, poeta frantsesaren lehenengo sei liburuetakoa dira; 12, berriz, bigarren bildumatik harturikoak (ibidem: 279).

Samaniegok La Fontaineri zor dizkion ezaugarriak hauek dira, Ozaetaren aburuz: halako epikureismo bat; tonu lizuna, entziklopedia kutsukoa, garai hartan modan zegoena; izaera pedagogikoa; bertsokera libre erabili izana...

Lehenengo edizioan ez ipini arren, aitorten moduko ohar hau ipini ohi zuen arabar alegialariak beste edizio askotan, hitzaurrearen ostean: “A excepción de un corto número de argumentos sacados de Esopo, Fedro y La Fontaine, todos los asuntos contenidos en los apólogos de los libros VI, VII y VIII, pertenecen al fabulista inglés Gay. El libro IX es original”.

García Gualek Gayren eragin hori non atzeman daitekeen nabarmendu zuen: “abundan más que en los anteriores [libros] las referencias culturales, aparecen otros personajes, son más frecuentes los humanos, y ciertos temas parecen menos dedicados a ilustrar a los jóvenes que a expresar una consideración irónica y pesimista de la hipocresía mundana” (in Palacios, 2002: 61). Baita zenbat alegiatan atzeman daitekeen ere: “He contado 18 fábulas inspiradas en otras tantas de Gay, entre las 33 de los tres libros indicados” (ibidem).

Originala izateko halako ahalegin berezi bat onartu diote ikertzaileek, berak esandakoa onetsiz. Esaterako, González de Záratek dio (1995: 19) azken alegia-liburua dela, IX.a hain zuzen, originalena eta pertsonalena, Iriartek *original* terminoari eman zion adieran.

Beste alegia batzuetan, berriz, gaztelaniazko tradizio lirikotik jaso zuen gaia. Adibidez, “El ciudadano pastor” alegian (IX-16), trufatu egiten da artzain-generoak hartu zuen samurkeriazko bide belaxkaz (Jareño in La Fontaine, 1969: 39).

Kritika

Kritikari dagokionez, ikertzaile askok alderatu dute Samaniego La Fontainerekin, eta ondorio antzerakoak atera dituzte. Ozaetaren ustez (1997a: 277), esaterako, Samaniegoren lana La Fontaineren alegien egokitzailea da.

Batzuen ustez, birsortze horretan Samaniego ez zen La Fontaineren mailaren parera iritsi: Samaniegoren alegiak La Fontainerenak baino luzeagoak eta berbatsuagoak dira, oro har (Jareño in La Fontaine, 1969: 30).

Irakaspenei dagokienez ere, kritikari gehientsuenak bat datoz. Ideia bera dugu esaldiotan: Jareñoren ustez (ibidem), “la moraleja acaba perdiéndose en los pormenores y zigzagueos del relato”; La Fontainek, aldiz, iradoki egiten du irakaspena. Alborgen iritziz (1985: 533), Samaniego barreiatu egiten da gogoeta egitean, eta, batzuetan, azalpenezko alderdia baino dezente handiagoa da irakaspena. Ozaetaren irudiko (1997a: 525), irakaspena esplizitatzeko joera du Samaniegok, eta deskripzio-indarra irabazten du, baina laburtasuna galtzen.

Adierazkortasun fonikoa ere apalagoa da Samaniegorenean, baina adierazkortasun-falta hori lexiko-aberastasunarekin konpentsatzen du (ibidem).

Samaniegok, umeen mailara egokitzeagatik, herri-hizkera erabili zuen. Ozaetak honela laburbiltzen du bi alegialarien tonuen aldea:

Menos formal, menos elegante que La Fontaine, más cercano a Esopo, llega a veces a ser pedestre. Ese tono más infantil le hace a Samaniego perder la inmensa gama de registros, los contrastes de los niveles de lengua contenidos en las fábulas francesas: los rasgos arcaizantes, el lenguaje jurídico, los términos improprios, las frecuentísimas expresiones idiomáticas, la grandilocuencia, a veces ilustrada con alusiones mitológicas, el estilo paródico y burlesco de los adjetivos maróticos... y la fina ironía... (ib.: 526).

Neurri-ugaritasunaren alde egin zuen Samaniegok, irakurleen arreta pizteko eta monotonía saihesteko (Samaniego, 1969: 55). Ohikoenak, hala ere, biko errimadun hamaika silabadunak dira, oin hautsiko zazpi silabadunen aukerarekin. Beste ahapaldi mota batzuk ere erabili zituen, hala nola, erromantzeak, hamardunak, lauho txikiak eta *seguidillak*. La Fontainek, aldiz, bertsokera librea erabili zuen, batik bat.

Samaniegoren errima pobreagoa da La Fontainerena baino (Ozaeta, 1997a: 523).

Zabalkundea

Samaniegoren alegia-bilduma ezin konta ahala aldiz argitaratu zen XVIII. eta XIX. mendeetan. Valentziako eta Madrilgo lehen edizioen ondoren (1781, 1784), beste hainbat lekutan eta urtetan berrargitaratu zen: Madril, Bartzelona, Sevilla Granada, Logroño... Zabalkunde handia izan zuen, halaber, Espainiatik kanpo: Perpignan

(1824) eta Parisen (1835...) argitaratu zen. Baita New Yorken ere (1826) (Jareño in La Fontaine, 1969: 20-21).

Alegialari garaikideek eredu izan zuten Samaniego, eta gaurko kritikoen artean, Lasagabasterren iritzian, esaterako, arabarra izan zen “el mejor, sin duda, de los fabulistas vascos y uno de los mejores de la lengua castellana” (2005: 156). Lasagabasterrek gaineratu zuen Samaniegoren alegiagintzak eragin handia izan zuela euskarazko alegiagintza hain oparo landu zedin, XIX. mendean.

Klasikoaren maila lortu zuen irakaskuntzan, Espainian ez ezik, Frantzian ere bai (Jareño in La Fontaine, 1969: 21). Baina, gainbehera XX. mendearen 40ko hamarkadan hasi zitzaion (Ozaeta, 1997a: 143).

VI. KAPITULUA

EUSKAL BERRIDAZLEEN ALEGIAK

VI. EUSKAL BERRIDAZLEEN ALEGIAK

VI.1. Aszetika eta alegiak

Euskaraz idatzitako lehenengo alegiak XVII. mendeak ditugu. Axularren *Gero* (1643) eta Tartasen *Onsa hiltzeko bidia* (1666) aszetika-liburuetan agertu ziren, etsenplu modura.

Etsenpluak kontakizun laburrak dira, eta diskurtso batean tartekatuta joan ohi dira entzuleak edo irakurleak ikasgai onuragarri baten bidez konbentzitzeko. Oro har, erlijio-doktrina bat edo portaera-eredu bat argitzeko erabiltzen ziren etsenpluak. Erretorika klasikoan dute jatorria eta, ondoren, IV. mendean, San Ambrosio eta San Gregorio hasi ziren erabiltzen, arrakasta handiz. Geroago, XIII. mendean, sermoietan hasi ziren sistematikoki erabiltzen, eta XVI-XVII. mendeetan arrakasta handia lortu zuten, Trentoko kontzilioaren (1545-1563) eraginez (Salaberri Muñoa, 1997: 296). Etsenpluetan honako gai hauek agertzen ziren, besteak beste: Bibliako pasarteak, pertsonaia historikoak, Greziako eta Erromako herriak eta pertsonaiak, filosofoak eta haien pentsaera, eta historia naturaleko gaiak, hots, animaliak eta landareak.

VI.1.1. Axular

Etsenplu sorta zabala tartekatu zuen Axularrek *Geron*. Batzuetan, iturria aipatu zuen (Plutarc., Prov.) eta beste batzuetan ez zuen aipatu, seguru asko, oso gai ezagunak eta erabiliak zirelako garai hartan, eta, beharbada, Esopo, Fedro eta abarretatik edo

Isopetetik zuzenean hartu ordez, zeharbidez bestelako iturrietatik eta baita ahozko tradizioetik ere hartu bide zituelako¹. Iturri zeharkakoak izan edo iturri zuzenak izan, Esopo eta *Isopeten* agertzen diren alegia batzuetako gaiak baliatu zituen Urdazubiko idazleak, lau etsenplutan, gutxienez, euskal irakurlea onbideratzeko eta salbatzeko. Honako etsenplu hauetan ditugu alegiak:

- “Xinhaurriaren gobernuaz” diharduen etsenplua (Axular, 1977: 35-37). Axularrek *Prov.* laburdura eman zuen iturri gisa. Esopok ere jorratu zuen gaia². Nagientzako aholkua da, zuhurtziaz jokatu eta lanean has daitezen.
- “Bi xakur gazte”-en etsenplua (Axular, 1977: 93-95). Axularrek *Plutarc.* laburdura eman zuen iturri gisa. Esopok ere badu gai hori³. Semeak (sic) umetatik hezteko eta mendean edukitzeko aholkua dugu.
- “Gorputzeko mienbroetan ezta inbidiarik” adierazpenarekin hasten den etsenplua (Axular, 1977: 355-357). Axularrek ez zuen iturririk eman. Dena dela, bai Esoporen⁴ bai *Isopeteren*⁵ tradizioan dagoen alegia da. Elkarri lagundu eta barkatu beharraz.
- “Uli farfailla”-ren etsenplua (Axular, 1977: 439). Axularrek ez zuen iturririk aipatu. Bi alegiatan landu zuen gaia Esopok⁶, eta sabelkoikeriaren arriskuaz ohartarazi zuen bietan. Axularrek, ordea, haragiaren plazeraren arriskuaz ohartarazteko erabili zuen.

Ikusten denez, kristau ona izateko eta bekatuan ez egoteko portaera-ereduak eskaini zituen Axularrek lau etsenplu-alegia horietan, txikitandik heziera ona izatearen beharra eta elkarri lagundu beharra nabarmenduz, eta nagikeria eta sexu-plazera gaitzetsiz.

¹ Salaberri Muñoak *Geroren* iturriak ikertu eta arakatu zituen bere doktorego-tesian (1997), eta dio: “*Gero*-n bildutako aipamen horietatik askok (erreferentziatu gabekoak barne) Plutarkoren *Apotegmatik* jasoak diruditen arren, garaiko liburu aszetikoetan barreiatsuak aurkitzen ziren gehienak eta ez bide zen jatorrizko liburuetara joan beharrik erreferentzia zuzenak izateko. Aipamenekin adierazi bezala, fondo amankomun ezagun batekoak bailiran agertzen dira normalean” (ibidem: 298). Etsenpluen iturriei atal bat eskaini zien (295-303).

² Cf. Esopo/Chambry, 336.

³ Cf. Esopo/Chambry, 175.

⁴ Cf. Esopo/Chambry, 159.

⁵ Cf. Isop III-16.

⁶ Cf. Esopo/Chambry, 238 eta 239.

VI.1.2. Tartas

Tartasek bi alegia tartekatu zituen *Onsa hiltzeko bidia* aszetika-liburuan. Iturri gisa Esopo erabili zuela aitortu zuen Tartasek, liburuan haren latinezko izena baliatuz: *Esopus* “espiritu aleguera eta placent hura” (1911: 39) eta *Aesopus* “filosofa eder eta maitagarri hura” (ibidem: 48). Horregatik bidezkoa da pentsatzea latinezko testu bat izan zela Tartasen iturria. Garai hartarako, gutxienez, honako testu hauek baziren latinez: Lorenzo Vallaren itzulpena (1438), Rinucciok Planudioren bildumatik egindako itzulpena (1473)...

Lehenengo alegiak (Tartas, 1911: 39-40) lehoi zaharra eta azeria ditu protagonista⁷. Tartasek heriotzaren akordu eta beldurra ordu oroz begien aurrean eta arimaren erdi-erdian eduki ditzan ohartzen du sinestun kristaua. Horretarako, azeriaren moduan joka dezan gomendatzen dio kristauari Tartasek, zuhur, lehoi eriaren leizean heriotza baino ez zegoela ikusi baitzuen azeriak, eta haren atzaparretatik ihes egin. Hona irakaspena: “çuré azquen urhatssa, eta laucia onsa eguin deçaçun, çuré bici orotan prepara cité çaudé sentinelan, çure dembora orotan eztuçu behar ikhassi lectioné bacoitzbat baici, horida onsa hilcia”.

Bigarren alegian (ibidem: 48-49) inurria eta ‘cicada’ agertzen dira⁸. Tartasek kristaua ohartarazten du txitxarraren jokabidea arbuiatu eta inurria eredu gisa har dezan, zeren eta “ezpadeçagu ordu honez eguin prouisioné obra honez hilciaz, eta herioaz orhitçen, guré arimac bertcé mundian gossiac hilen ditu, launaren auharian eztugu vkhanen parteric, ez bochiric cicada miserablé eta elguer hayer, heldu cen beçala, helduco çaucu, guri eré”.

Hortaz, kristau-salbazioa da bi alegion irakaspena, hil aurretik kristauak zer jokaera izan behar duen, ondo hil eta Jaunarekin bat egiteko. Erdi Aroko *Exempla* bildumetako etsenplu modura erabili zituen Tartasek, jende xeheak arreta jar zezan predikuetan eta erlijio-irakaspenetan. Didaktika-bide soil bat da, azken buruan, doktrina-emaileak entzulea edo irakurlea gogatu eta bertutean hezteko: tresna erretoriko bat erlijio-ideologia jakin baten zerbitzuan.

⁷ Cf. Esopo/Chambry, 196.

⁸ Cf. Esopo/Chambry, 336.

Prosa aszetikoari lotua egon zen alegien erabilera. Tresna erretoriko soil izateari utzi, eta autonomia irabazten hasiko zen mogeldarren ekimenez. Lehendabiziko maila dugu, hortaz, Axularren eta Tartasen erabilera. Prosa narratiboa garatzeko ezinbesteko pausoak, Lasagabasterren hipotesiak iradokitzen digunez:

A mí se me ocurre pensar, como hipótesis que debería ser verificada con trabajos monográficos sobre el tema, que en ese proceso lento en la literatura vasca que va de la prosa ascética a la prosa narrativa, la fábula podría ser vista como una especie de mediación, tanto en el nivel formal como en el temático.

En lo formal, porque la estructura literaria de la fábula descansa sobre elementos de naturaleza narrativa –personajes, acción...– y en lo temático por el fuerte didactismo que inspira en la fábula el desarrollo de la acción, orientada en todos los casos a la justificación y explicitación de la moraleja final (2005: 156-157).

Mogeldarrena, zeharo autonomia, hurrengo maila.

VI.2. Euskal alegiagintzaren jaiotza

Euskal alegiagintza, literatura-genero autonomo gisa, Bizenta Mogelen eta osaba Juan Antonioren eskutik etorri zen, XIX. mendearen hasieran. Euskal alegiagintzak, baina, hezkuntzaren bidetik irabazi zuen autonomia hura.

Ilustratuen kezka nagusietako bat hezkuntza izan zen. Eten egin behar zen iluntasunaren eta ezjakintasunaren aroa eta, horretarako, herri xehea hezi egin behar zen Zientzien eta Letra Onen bidez. Ongizatea, ilustratuentzat, horrenbestez, hezkuntza publikoan oinarritzen zen. Horrela, ondare intelektuala belaunez belaun garatutako heziketa-prozesutzat jotzen badugu, Barnouw-ek dioskun modura (1992: 12), argi utzi behar da Ilustrazioa gune erabakigarria izan zela prozesu horretan.

Ondo dakigunez, adiskideen Elkartearen eta Bergarako Erret Mintegiaren itzalean hazi zen Ilustrazioa Euskal Herrian. Xabier Munibe Peñafloredako kondearen ekimenez sortu ziren Elkarte 1763an, eta Mintegia 1776an.

Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen araudi behin betikoa 1771.ean onartu zuen Carlos III.ak. Araudi horretan, lau batzordetan banatu zen Elkartearen lana: “Comisión primera de *Agricultura y Economía Rústica*... Comisión segunda de *Ciencias y Artes útiles*... Comisión tercera de *Industria y Comercio*... Comisión quarta de *Historia y Buenas Letras*, cuyo objeto será la ilustración y cultura del publico” (*Estatutos*, 1985: 8). Aldarrikapen programatiko horren bidez ikusten da euskal

ilustratuak literaturaz arduratu zirela; batez ere, literaturak bete behar zuen funtzioaz. Lehenago ere jorratu zuen bidea Xabier Munibek, literaturaren zertarakoa zein zen adieraziz, Adiskideen Elkartearen antolatzeke atariko hitzaldi batean:

Las Bellas Letras, que hacen otra clase de nuestra Sociedad, y abrazan la Historia, la Política, las Lenguas, y toda suerte de Literatura, os proporcionarán los medios mas propios de ilustrar a vuestros compatriotas (Munibe, 1999: 12).

Herritarrak ilustratzea, hots, irakastea edo eskolatzea, kultura eta ezagupenak eskaintzea, horra hor literaturaren funtzio nagusia. Literaturaren ikusmolde utilitarista nabaria da Muniberen hitzetan.

Peñafloridako kondearen ikusmolde hori, dena den, asmo orokor baten baitan egon zen, Ur Apalategik aztertu duenez:

...herri xumea hezi nahia ez datorkio [Peñafloridari] kontzientzia sozial batetik, baizik eta herria modernizatzeko egin gogo duen erreforma ekonomiko eta moralari eraginkortasun handiagoa emateko kezkatik (2005: 42).

Garai hura aztertu dutenen artean, Miren Billelabeitiak azpimarratu zuen (2003: 63) literatura ez zela izan jardun autonomoa, eta kulturaren eta zorionaren arteko lotura egin zutela ilustratuek: zenbat eta jakintsuago izan, hainbat eta zoriontsuago gertatuko zen herritarra.

Aldekoa Beitiak, era berean, literatura, gure lehendabiziko alegialarien jardunean, hezkuntzaren eta moralaren zerbitzuko tresna izatea nabarmendu zuen:

Tanto los Moguel como los Azkue, al igual que sus antecesores, participan en lo sustancial de una misma concepción de lo literario como instrumento al servicio de la instrucción y la moral edificantes (2004: 85).

Moral horrek lotura zuzena du erlijioarekin. Izan ere, Elkartearen sortzaileek jakin zuten entziklopedista frantsesek natura-zientzietan egindako aurrerapenak baliatzen. Ez zuten besarkatu, ordea, haien ideal zientifikoaren eta filosofikoaren esanahi antikatolikoa (Urkixo, 1929: 6). Gizakia hezteko bidean, erlijioa osagaietako bat izan zen. Auzi ikertua da euskal ilustratuek kristau fedeari zioten atxikimendua:

Lejos, por tanto, de ser rígidamente escolástica, la formación de Munibe estuvo abierta a una visión más moderna del mundo, que, como venía ocurriendo en algunas corrientes francesas de la Compañía de Jesús, estaba sentando las bases de una Ilustración creyente capacitada para conciliar la fe cristiana con la tradición científica renovadora (Astigarraga, 2002: XXIV).

Halatan, bada, mogeldarrek, Adiskideen Elkartearen hezkuntza-asmo orokorrera eta ilustratuen fede kristauarekiko atxikimendura⁹ etorrarazi zuten alegiagintza.

Europako beste literaturetako lanekin alderatuz, euskaldunen lana beranduxe etorri zen: 1668koa dugu La Fontaineren *Fables* lana, 1727koa John Gayren *Fifty-one Fables in Verse* eta 1759koa Lessingen *Fabeln*. Generoa inguruko literaturetan noiz agertu zen kontuan hartzen badugu, ostera, mogeldarren lana ez da hain berandukoa: 1776koa da Darretcheren itzulpena (*Fables causides de La Fontaine en bers gascons*, Baiona), 1781koa Samaniego arabarraren *Fábulas en verso castellano*, 1789koa Ibáñez de la Rentería bilbotarraren *Fábulas* eta 1792koa Florian okzitaniarraren *Fables*. Mogeldarren alegiak, beraz, lan horien ondo-ondotik etorri ziren. Kontuan har dezagun, gainera, gaskoierazko itzulpena izan zela argitaratzen lehena, Frantziako hizkuntza ez-administratibo guztien artean (Arkotxa, 2003b: 5).

Mogeldarren ondoren, alegialari andana bat sortuko zen Euskal Herrian bai euskaraz (lan honetan barrena emango dut haien berri), bai gaztelaniaz (Ramón de Pisón y Vargas arabarra, *Fábulas originales en verso castellano*, 1819; Angel Casimiro de Govantes arabarra, *Fábulas, cuentos y alegorías morales*, 1833; Pablo de Xérica gasteiztarra, *Fábulas*, 1869) (González de Zárate, 1995: 18-22).

Hortaz, ondoriozta liteke euskal herritar eskolatuek alegietarako isuria bazutela eta, neurri batean, Euskal Herriko alegialarien eraginez esportatu zela generoa Espainiara.

Adiskideen Elkarteak, baina, gaztelaniaz sustatu zuen alegien aldeko giroa Hegoaldean, eta ez euskaraz.

Oreka falta sumatzen da, oro har, hizkuntzen trataeran Elkartearen *Estatutos* direlakoetan eta ikasleentzako arauetan. Badago euskararen aldeko jarrera, bai. Esate baterako, “Reglamento” delakoan: “El estudio de las Lenguas es el mas propio para la juventud... Deberán empezar por el de las Nacionales, como son el Bascuence, y el Castellano, luego le seguirán el Latin... el Francès, el Inglès y el Italiano” (*Estatutos*, 1985: 8). Baita honako honetan ere: “Unos se dedicarán a las Mathematicas... otros a la

⁹ Lino Akesolok adierazi zuenez (1977: 59), alegiagintzaren bidez sartu ziren euskal apaizak, lehengo aldiz, literatura hutsezko sailletara.

Poesia Castellana en general...; otros se aplicarán a pulir, y cultivar la lengua Bascongada, ò recopilar lo mas raro, y escogido que haya escrito en ella, assi en prosa, como en verso, y á perfeccionar la Poesia Bascongada” (ibidem). Honako aipu honek ere erakusten du euskararen eta euskal poesiaren aldeko jarrera: “La Comision de Historia, Política y Buenas Letras ha de dedicarse á la Historia y Geografía Nacional, y a la lengua y poesía Bascongada” (ib.: 41).

Edozelan ere, Adiskideen Elkarteko estatutuetan ez dugu euskararen mesedetan aurkituko gaztelaniaren alde pasarte honek erakusten duen adinako kemenik:

Siendo utilísimo à todos los hombres en cualquiera situación que se hallen, saber leer con sentido, escribir correctamente y contar con expedición, será uno de los principales objetos en que se ocupen estas Comisiones fomentar y mejorar quanto sea posible las Escuelas de primeras Letras. (...) procurarán asimismo se les dén muestras de caracteres hermosos, limpios y faciles, y que se les instruya en los principios de la Gramática y Ortografía Castellana, conforme a los tratados que ha dispuesto la Real Academia Española, estimulando la aplicación de los muchachos y el zelo de los Maestros con distribuir algunos premios en cada Escuela para los primeros, y en cada Provincia para los segundos (ib: 42).

Estatutuei igartzen zaien euskararen aldeko jarrera epel hori edo, bestela esanda, gaztelaniazko irakaskuntzaren aldeko jarrera irmo hori, Lasagabasterrek adierazi zuen:

Digamos de entrada que el euskara no es objeto, ni teórico ni práctico, del interés y la atención de la Sociedad Vascongada y de los Amigos del País, que escribieron siempre en castellano, con la excepción de esas mínimas incrustaciones de euskara en las breves piezas teatrales de Peñaflores (1986: 50).

Dena dela, Altzibar ez da uste berekoa, eta erantzun egin zion Lasagabasterren uste horri (Altzibar, 1998: 97-131), zenbait lan euskaraz egin zirela nabarmenduz¹⁰.

Kontuak kontu, Juan Antonio Mogelen alegiak argitaratzeko egitasmoak Adiskideen Batzarraren ezetza jaso zuen.

VI.2.1. Bizenta Mogel (1782-1854)

Ideologia

Emakumea, ikasketaduna, idazlea. Bere garaiko joera nagusien eta aurriritzien aurkakoa dugu Bizentaren idazle-jarduna. Sehaska onean jaioa, aita mediku izan zuen ogibidez, eta Adiskideen Elkartean irakasle (Altzibar, 1982: 457).

¹⁰ Muniberen *El borracho burlado* (1764) eta *Gabon-sariak* (1762), ikasle zalduntxoan hitzalditxoak, P. Astarloaren bertsoak...

Emakume izateagatik azalpenak eman behar izan zituen azkoitiarrak *Ipui onac* alegia-liburua (1804) argitaratu izana zurrizteko. Ironia apur bat erantsi zien azalpen horiei, “Iracurle euscaldunari” izenburupeko hitzaurrean: “...ez dago quiola nescacha bati bururic ausitzea liburuguñen: asco du nescacha batec gorua eta jostorratza zucen erabiltzea...” (ibidem: 9). Eta, aurrerago: “¿Obe ez ote da, emacumea banaiz ere, igarotzea orduac onetan cer janci-berri dan gora ta beera aitatzen baño?”

Ikasketei dagokienez, nebarekin batera ikasi zuen latina, osaba Juan Antonio irakasle zutela, zortzi urte zituenetik. Izan ere, aita hil zitzaien eta Markinara, osabarenera, aldatu ziren Azkoititik neba-arrebak. Hartara, Fedro, Virgilio eta Esopo irakurtzen ohitu zen. Datu horiek guztiak, hitzaurre berean eman zizkigun:

Naiz sinistu, naiz ez, esan bear det, gaztechoa nintzala iracurri ta azaldu oi nituela Fedroren latinezco Ipuia; artu oi nuela atsegin guciz andia enzunaz Chacur, Otso, Aiceri, Ollar,... Abere, Lauoñeco, ta Egaztien itzqueta alcarren artecoac. Zortzi urte nituenean ecusiric nere neba, edo anaia icasten asi zala gure Osabarequin latinezco izquerea, jarri citzatan buruan icasi bear nuela nic ere. Ala, buruari neque gogorric eman gabe, loari bere orduac emanda, ta cigor zaurigarriaren beldurric ez nuela, jolasez becela, irten nuen nere asmoarequin Virgilioren itzneurtu, ta apainduetan gozatzen nintzala. Edoceñec daqui Esoporen ipui latinez ta itz lotu gabeetan daudenac, errazagoac dirala aditzen, Fedro, ta Virgilioren itz lotuac baño (ib.: 9-10).

Bere ezagutzak ere aitzakiatu behar izan zituen, ez baitzen orduan batere ohikoa emakumeak ikasketak izatea¹¹. Santuak eta Jainkoa baliatu zituen aitzakietarako (ib.: 16):

Jaquiteac ez du eragozten virtute andi batera igotzeco. Santa Florentina, Santa Paula, Santa Brigida, ta beste Santa batzuec, emanac ziren liburuetara. Baciaquien latinez ez ece, gueiago ere; ez, eguiaz egaatzeco arrotasunez, ta jaquin nai utsez, ta bai bideac artzeco Jaungoicoagana.

Osabari, hala ere, alde batetik, damutu zitzaion ikasketa gehiago eman ez izana. Beste aldetik, konforme agertu zen bere erabakiarekin. Honela aitortu zion gutun batean Vargas Ponce espainiar ilustratuari (Altzibarren aipua, 1982: 458):

He de confesar mi ierro, o acierto, en no haver fomentado más los estudios de mi sobrina. La singularidad y genio de una muger me hicieron tener alguna altanería de espíritu. (...) Paré en esto por cobardía, o por temor. Podía haverla instruido algo en Física, pero no soi mathematico. Entraba mui bien en el francés con la instrucción de los Clérigos de dicha Nación (...) creí la bastaba saber la traducción.

¹¹ Aipu esanguratsua ekarri zuen Xabier Kaltzakortak gai honetaz, Bizenta Mogeli buruzko monografiko batean (Bidegileak bilduma, 1982: 2). Izan ere, emakumea eskolatua izatea kaltegarria zelako ustea oso errotua baitzegoen. Agirre Asteasukoaren *Eracusaldia* II. liburitik ateratako hitzak eman zituen Kaltzakortak, horren lekuko: “...mutillai eman bear zate, albada, eskola ona... bada escribitzen jaquitea, [nescacha] batzuentzat ona izan arren, gueyenentzat caltetsu izan liteque.” Agirrek 1808 inguruan idatzi zituen *Eracusaldia*, Bizenta Mogelen garaian, hain zuzen.

Idazteko zaletasuna dela eta, baditu beste lan batzuk *Ipui onac* alegia-liburuaz gainera. Esaterako, *Gabonetaco cantia Vizcaitar guztientzat* (1819). Itzultzaile ere jardun zuen: *España'ko Gotzai-buruaren Artzai idazkia* (1820) euskaratu zuen. Eta testu-zuzentzaile ere bai, Ulibarri arabarraren laguntzaile hain zuzen, haren testuak orrazten ibili baitzen (Altzibar, 1982: 462; Kaltzakorta, 1992: 5-6).

Nolanahi den, apaltasun zintzoz, seguru asko emakume-kondizioak eraginda bere burua gutxietsi beharrez, berretsi egin zuen egiletza (1804: 16):

Arbezate bada Euscaldunac, nescacha baten emaitza, edo presente au. Gauza onic badago, esandezatela iñorena dala, ez nerea; oquerric badacuste egotzi nere gañera; berdin arteac ez du emango sagarric.

Idatzi, eta euskaraz idatzi behar zelako kontzientzia argia izan zuen Bizentak. “Adigarria” oharreko hitzak, lekuko:

Ai baleude aitatu ditudan becelaco jaquitunac, Samaniego ta Renteria Euscaldun euscarara eman batzuec! Beste egunic ecusico luque gure Poesiac, edo versoguintzac. Asi bear da ta jarraitu, aurreratuco bada (ibidem: 89).

Handiki baten semeari, Victor Muniberi, eskaini zion alegia-liburua Bizentak. Beste alegialari batzuen eskaintza-ereduari jarraitu zion horretan azkoitiarrak. Antzeko edukiak dituzte, esaterako, La Fontainek *Monseigneur le Dauphini* idatzitako eskaintzak (1668) eta Bizentarenak. Frantziako Dofinak, Louis XV.a gerora, 7 urte inguru zituen, eta Victor Munibek, 6 inguru. Xabier Munibe Adiskideen Elkartearen sortzailearen biloba zen Victor, gerora Peñafloidako X. kondea eta, Bizenta Mogelen hitzei erreparatuz gero, literatura eta musika maite zituzten sendi batean hazi zen:

...zu cera guciz Ipui zalea. (...). Leiatzen cera ceu ere buruz icasten, ta besteai gero contactzen. (...). Arquituco dezu canta gaitzat catu eizariaren Ipui zortzicoan berariz ipiñia. Badezu norc zortzico berri bat soñuan atera, ta irutzen bazera zure arrebaz gaztecho aitatu ditudanequin, cein ederqui irtengo duen catuaren zortzicoac. Aita jaunac biolinarequin laguntzen dizutela! (1804: 7-8)

Eskaintzaren goiburuan Don Victor Munibe ta Aranguren egon arren, beste jende mota bat zebilkion Bizentari buruan. Izan ere, gaztetxoentzat eta nekazariantzat atondu zituen alegiak:

Ipuioc atera nai ditut gaztecho, ta necazariantzat, edo Bizcaian esan oi dan becela, nequezaleentzat (ibidem: 1).

Kezka soziala bazuela erakusten du horrek, garaiko ilustratuek heziketa gizarte klase apaletara zabaltzeko erakutsi zuten kezka bera, hain zuzen. Erabaki horrek

baldintzatu egin zuen alegietako gaien aukera eta trataera: alegiak erraz ulertzeko moduan egokitze asmoa agertu zuen Bizentak:

Ipui ondo egiñetan ez dira arqitu bear aurcho, ta necazariac erraz adituco ez dituzten gauzac. Onetan uts egiten dute, egia badio Samaniego jaunac, ipuilari geienac (ib.: 91).

Liburuaren izenburua bera ere, oso argigarria da, jakiteko zer helburu eta zer hartzaile izan zituen Bizentak jomuga: *Ipui onac, ceintzuetan arqituco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco ematen ditu euscaráz arguitará ume eta necazariantzat Vicenta Antonia Moguel eta Elguezabalec.*

Poetika

Liburuaren hitzaurrean, Bizentak umetan ipuinzale izan zela diosku eta zaletasun horretatik etorri zitzaioala alegiak idazteko trebetasuna. Helduaroan, ordea, ipuinak irakaspene edo “ondorengo ona” izatea ezinbestekotzat jo zuen, ipuina zuzenesteko:

Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen, zoro zororik, ta pocez erotuta, atso ipuiac. Sinisten nituen eguia andi batzuec becela, Peru ta Mariaren ipui farragarri ta sustrai gabeac... Orain, bada, ¿ondoric, ta ondorengo onic ez cecarten ipui eroac ambat atseguin ematen bacidaten, nere adinaren argiabarretan sartu baño lehenago, zenbat eztituco ez zan nere biotza irakurri nituenean gerora ipui onac? (ib.: 10-11)

Barruan gorderik daramatzaten irakaspen onengatik¹² goretsi zituen Bizentak alegiak:

¿Cein ederqui adierazoten duten [ipuiac] estalqui ederren azpian, andiquiak, chiquiquiac ta jaquintsuac berac icasi bear dituzten onac izateco bideac! (ib.: 11-12)

Umetan hain kitzikagarria gertatu zitzaion herri-tradizioko ipuingintza baztertu, hots, “Peru ta Mariaren ipui farragarri ta sustrai gabeac”, eta irakurleak onak izateko bidean jarriko zituen ipuin moralzaleak goretsi zituen Bizentak. Moralaren –moral kristauaren– zerbitzupeko literatura molde baten alde jarri zen azkoitiarra.

Corpusa eta iturriak

Ipui onacen, 58 alegia plazaratu zituen gipuzkeraz (edota, bestek zehaztu bezala, bizkaiera ukitua duen gipuzkeraz), lehenengo 50 alegiak hitz lauz, eta azken zortziak, bertsoz. Zortzi horiek osaba Juan Antoniorenak direla zehaztu zuen Bizentak

¹² Perraulten gogoetei jarraitzen diela ematen du, akademiko frantsesak ipuinetako irakaspen ezkutuei “instructions cachées” deitu baitzien: “Il n’est pas croyable avec quelle avidité ces âmes innocentes... reçoivent ces instructions cachées” (Perrault, 1695), Zipes-en aipua (1968: 30).

hitzaurrean: “Azquenerontz dauden ipui itz neurtuco, edo versodunac, ez dira nereac, ta bai nere Osaba cerbait ezagunari artuac” (ib.: 12).

Alegiez gain, baditugu “Don Victor Munibe ta Aranguren-gori” egindako eskaintza, “Iracurle euscaldunari” hitzaurrea eta “Adigarria” oharra, azken hori osabaren bertsozko alegien aurretik ipinia. Bestalde, hiztegia dakar liburuak amaieran, bi zatitan banatua: bata, Bizentaren alegiei dagokie; bestea osabarenei.

Bizentak erretorika eta ironia baliatuz adierazi zuen –baina argi eta garbi– berak euskaratu zituela alegiak (ib.: 9): “¿Nola nic siniserazoco diet ascori, eusqueratu ditudala erdaldun jaquitunac arguiratu dituzten Ipuia?”

Nor dira “erdaldun jaquitunac”, ordea? Zein hizkuntzatatik itzuli zituen Bizentak alegiak? Zer iturri baliatu zuen?

Bizentak ez du inon esaten ez latinetik ezta grekotik ere itzuli zuenik, baina, latina aipatu zuelako, nahasmena egon da alegien iturriari buruz: “¿*Nolaco arrotasuna berriz latiñezco itzcuntzarequin liburu onen asmoa aguertzea?* Orretaraco bear litzaque jaquitea Eusquera, Gaztelania, eta Latinezco iru izcuntzac?”¹³ Egia da, liburuaren asmoa agertzeko, Zizeronen latinezko aipu bat jarri zuela *Ipui onaceko* hasierako orri batean; Sexto Roscio Amerinoren aldeko mintzalditik ateratako aipu bat, hain zuzen. Izan ere, obraren asmoa eta xedea ederki adierazten zituelakoan jarri zuen Bizentak aipu hau: “Etenim hæc conficta arbitrator... ut / effictos nostros mores in alienis personis / expressamque imaginem vitæ quotidianæ / videremus. // Cicero pro sexto Rosc. Amer. 16”¹⁴. Ez da inola ere ulertu behar, hala ere, latinetik itzuli zituenik alegiak.

Mogeldarren ikertzaile Xabier Altzibarrek *Ipui onaceko* iturri posibleei buruz hipotesi bat landu zuen. Izan ere, Eleuterio Basozabalen¹⁵ eskuizkribua (1808) eman zion Altzibarri Unzeta familiak eta, hala, ikertzaileak egiaztatu ahal izan zuen bizkaierazko 60 alegia zeudela eskuizkribu hartan, Juan Antonio Mogelen izenean, eta *Ipui onaceko* Bizentaren alegien berdin-berdinak, edukiaren aldetik. Berdintasun hura zela-eta, zenbait zalantza agertu zituen, 1982ko artikulu batean, *Ipui Onaceko* egiletzaz:

¹³ Letra etzana, nik jarria.

¹⁴ “Izan ere, iruditzen zait poetek sortuak direla gauza hauek guztiak, geure ohiturak ikus ditzagun pertsonaia arrotzengan ispilatuak, eguneroko bizitzako irudi bizi bat bezala” (Luis Mari Mujikaren itzulpena).

¹⁵ Eleuterio Basozabal, Bizenta Mogelen senarra.

1802. inguruan J. Antonio *Peru Abarca* eta *Alegiak* edo *Ipuinak* lantzen zebilen. *Ipui Onac* argitara aurretik Bizentari eragin zizkion gipuzkeraz berak ordurako bizkaieraz itzulirik zituenak (1982: 459).

(...)

Ene iritiz, badaude arrazoi batzuk pentsatzeko Bizentak J. Antonioren ipuinak gipuzkeraz landu zituela, orrazaldi eder bat emanez, edo bien artean landu zituztela, baina bizkaierazko textoa aurrean zutelarik. (ibidem: 465).

Eta baita ere, *Ipui Onaceko* sorburu-hizkuntzaz eta euskaratze-prozesuaz:

Ez da, ene ustez, latinetik zuzenean eginiko itzulpen bat, bizkaieratik gipuzkeratze bat baizik, edo bestela, J. Antonioren maisugoaren pean aldi berean erdal textoaren (zentzu zabalean) bizkaieratze eta gipuzkeratzea (ib.: 465).

Baina eta Esoporenak eta, zein textotatik itzuli zituen J. Antoniok? Latinetik ala gaztelertatik? ...Esoporen gaztelertazko zenbait itzulpen (Janer, 1489.ekotik etab.) laburragoak dira Mogelenak baino. J. Antoniok narrazioa eta batez ere fabularen moralitate edo aplikapenean luzatzea maite du, elkar hizketa zuzenak ezartzen ditu, erretoriko izan nahi du. Horregatik, itzulpen zehatza ez denaren susmoa dut (ib.: 468).¹⁶

Eta ondoren, hipotesi eta iritzi horiek frogatzen saiatu zen Altzibar, zenbait hizkuntza-xehetasun emanez, bi testuon alderaketatik ateratakoak.

Nolanahi den, Bizentaren alegien iturria González de Záratek eman du zehatzen, orain arte, behintzat:

Todas ellas provienen sin duda de la traducción al euskera del incunable editado en Zaragoza por Juan Hurus en 1489 con el título *La vida de Esopo con sus fábulas historiadas* y que supone la más antigua impresión de la colección esópica en castellano (1995: 23).

González de Záratek argudiatu zuen Bizentaren bildumak Hurusen bildumako hurrenkera berean eman zituela alegiak, eta berdinak direla izenburuak bi liburuotan. Hala ere, nik neuk egiaztatu dudanez, hurrenkera eta izenburu berak dituzte, Hurusen edizioaz gain, baita beste bi *Isopete* hauek ere: *Esopete ystoriado* (Okzitaniako Tolosa, 1488) delakoak eta *Libro del ysopo famoso fabulador historiado en romançe* (Burgos, 1496) delakoak.

Hortaz, seguru asko, Gaztelako erromantzezkoa izan zen Bizentaren iturria: *Isopete* izen generikoaz deituriko libururen bat. Bizentak berak zenbait zantzu utzi zituen. Esaterako, honako ohar hau, 14. ipuinaren ondoren: “Hasta aquí se han sacado las Fábulas más acomodadas á la capacidad y genio de los niños, y vulgo Labrador del

¹⁶ Altzibarrek eskuartean izan zuen edizioa, seguru asko, Florencio Janer-ek 1871n apailatutako alegia bilduma izan zen (*Las fábulas de Esopo, con las de Samaniego y de Iriarte*, Bartzelona, Imprenta de J. Jepús). Cotareloren bibliografiatik atera dut datua (1929: XXXII).

libro I° de Esopo. Las siguientes se hallan en el libro II°” (1804: 26). Baita beste ohartxo hau ere laugarren alegiaren izenburuaren azpian: “Esop. Fab. IV”.

Zantzu horiek, hala ere, argigarri dira, alde batera, baina nahasgarri, beste alde batera. Izan ere, *Isopete* guztien edukia eta egitura hau da: *La vida del Esopo. Libro Primero. Libro Segundo. Libro Tercero. Libro Quarto. Las fábulas extravagantes. Las fábulas nuevas de Remicio. Las fábulas de Aviano. Las fábulas coletas. Las fábulas añadidas*. Eta, bistan denez, Bizentak “libro I°” eta “libro II°” baino ez zizkigun aipatu. Beraz, litekeena da, Cotareloren ohar bibliografikoak kontuan hartuta, Bizentak eskuartean erabili zuen liburua edizio garaikide bat izatea, izan ere, oso ugariak baitira orduko edizioak (cf. Cotarelo, 1929).

Guztira, Bizentarenak, beraz, 50 alegia dira, hitz lauzkoak, iturria *Isopete* dutenak.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Bizenta Mogel	<i>Ipui onac</i>	1804	50 hl	50 Isop

MOGEL, Bizenta (1804). *Ipui onac : ceintzuetan arquituco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco / ematen ditu euscaráz arguitará ume eta necazariantzat Vicenta Antonia Moguel eta Elguezabalec*. Donostia: Antonio Undiano.

[“Otsoa, ta Bildotsa” **Isop I-2**. “Zacurrá, ta Ardiá” **Isop I-4**. “Chacurra, ta Aragui zatia” **Isop I-5**. “Leoia, Beia, Auntza, ta Ardia” **Isop I-6**. “Otsoa, ta Curulloa” **Isop I-8**. “Guizona, ta Suguea” **Isop I-10**. “Echeco, eta Campoco Saguac” **Isop I-12**. “Arranoa, ta Aizeria” **Isop I-13**. “Belea, ta Aizeria” **Isop I-15**. “Leoia, Basurdea, Cecena, ta Astoa” **Isop I-16**. “Astoa, ta Chacurchoa” **Isop I-17**. “Leoia, ta Sagua” **Isop I-18**. “Ontza, ta bere ama” **Isop I-19**. “Enadea, ta beste Choriac” **Isop I-20**. “Lapurra, ta Eche-chacurra” **Isop II-3**. “Eiza-chacurra, ta bere Jabea” **Isop II-7**. “Erbiac, ta Iguelac” **Isop II-8**. “Otsoa, ta Irudia” **Isop II-14**. “Eulia, eta Mandoa” **Isop II-16**. “Eulia, ta Chindurria” **Isop II-17**. “Otsoa, Aiceria, ta Chimua” **Isop II-18**. “Guizona, ta Ogui-gaztaia” **Isop II-19**. “Iguela, eta Idia” **Isop II-20**. “Leoya, ta Arzaia” **Isop III-1**. “Zaldia, ta Leoya” **Isop III-2**. “Zaldia, ta Astoa” **Isop III-3**. “Lurreco Abere, ta Goietaco Egaztiac” **Isop III-4**. “Aizeria, ta Otsoa” **Isop III-6**. “Basauntza, ta Eizaria” **Isop III-7**. “Aiceria, Ollarra, ta Chacurrac” **Isop III-8**. “Aita, ta Seme gaiztoa” **Isop III-11**. “Escua, Oñac, ta Sabela” **Isop III-16**. “Guizona, eta Astoa” **Isop III-18**. “Aiceria, ta Matsac” **Isop IV-1**. “Ogui-gaztaia, ta Sagua (Mustela)” **Isop IV-2**. “Itzaia, ta Otsoa” **Isop IV-3**. “Otsoa, ta Achurlaria” **Isop IV-5**. “Aragui-epallea, ta Ariá” **Isop IV-6**. “Chori-artzallea, ta Choriac” **Isop IV-7**. “Guizon eguia zalea, Guezurtia, ta Chimoa” **Isop IV-8**. “Astoa, ta Leoya” **Isop IV-10**. “Arranoa, ta beste Egaztiac” **Isop IV-11**. “Leoya, ta Aiceria” **Isop IV-12**. “Otsó, ta Asto gaisotua” **Isop IV-13**. “Chindurria, ta Chirrisquia” **Isop IV-17**. “Pagoa, ta Cañaberea” **Isop IV-20**. “Mandacoa, Aiceria, ta Otsoa”

Isop Extrav-1. “Mica egarritua” **Isop Aviano-20.** “Necazaria, ta Idisco gaztea” **Isop Aviano-21.** “Piztia ichusi, ta Guizon videaztia” **Isop Aviano-22.**]

Kritika

Harrera ona izan zuen liburuak bere garaian, eta baita gero ere. Hala, bada, Manterola kexu zen Bizentaren liburua agortua zegoelako eta zaila zelako ale bat topatzea. Donostiar kazetariak epai onak izan zituen Bizentaren lanarentzat: “...hecha en fácil y correcta prosa, y en el lenguaje sencillo en que deben estar escritas las producciones destinadas, como esta, á la infancia y el comun de las gentes” (1878: 2^a serie, tomo IV, 83).

Hizkuntza-kontuei buruzko kritikak nagusitu ziren hasierako edizioetan, hala nola Txomin Agirrerren 1912ko hitzaurrean, hizkuntzari buruzko estetika-ikuspegi garbizalearen eraginez, seguru asko:

Euskera garbian biurtuak dira, baña nungo orubetik datozen agirian daukate; gure jaskera, menditar jaskera ipiñi zaiote, baña arrotz usaia eztute utzi; itz eder egokiak dakarrzkite, baña itz oiek, gure mintzoerari dagokion bezela, beren leku berezietan jarriak eztaude. Ezagun zaio egilleari, mingaña edo lumea euskeraz zerabillen bitartean, burua erderazko gogamenetan zebilkiola (1912: xx).

Geroago, ordea, Bizentak Euskal Haur Literaturari egindako ekarpena azpimarratu dute zenbaitek. Jon Juaristiren eta Jon Kortazarren ustez, esaterako, *Ipui onac* tradizio idatzian kokatu behar da, haur eta gazte literatura eraikitzeko behar zen tradizio idatzian¹⁷.

Etxaniz Erlek bere *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historian* euskal haur literaturako lehen liburutzat jo zuen:

1804an Bizenta Mogelek *Ipui onac*, euskaraz haurrentzat idatzitako lehen liburu literatur-didaktikoa argitaratu zuen, Europa osoan zabaldurik zegoen “instruir deleitando” korrontearen barnean (Etxaniz, 1997: 97).

Etxanizek, dena dela, liburuaren xede moral eta didaktikoarengatik, haren literaturtasuna auzitan jarri zuen:

Egileak “onac” adjetiboa jartzerakoan ipuin horiek moralki onak direla adierazi nahi digu, ez dio hainbeste begiratzen ipuinon edertasunari edo horiek irakurtzerakoan izan daitekeen atseginari...

Berez nahiko moralistak eta pedagogikoak diren osagaiak, oraindik ere moralagoak, zuzenagoak egin zituen Bizentak. Argi dago ez dela estetika, ez hitzaren edertasuna idaztera animatu zuena egilea, eta alde horretatik, liburu hori haur eta gazte

¹⁷ Etxaniz Erlek ekarritako aipua (1997a: 100).

literatura barruan kokatu izan bada ere, zorrotzak izanik ez genuke literatur lantzat hartu behar (ibidem: 98-100).

Edozelan ere, Maite Iribar ediziozileak euskal literaturaren esparruan kokatu zuen Bizentaren alegiagintza: “Bizenta Mogelen ohore nagusia, itzulpenekin izan bada ere, euskal literaturara lehen alegiak ekarri izana da” (Mogel, 1991: 11).

Mari Jose Olaziregik (2003: 219), bestalde, nabarmendu zuen Bizenta Mogel izan zela “euskal literatur tradizio androzentrikoan pitzadura bat ireki zuen lehenego emakumea”.

Zabalkundea

Bi alegia jaso zituen Manterolak *Cancionero Bascon* (1878: 2^a serie, tomo IV, 82- 89), “Otsoa ta bildotsa” eta “Belea eta Aizeria”, hain zuzen.

XIX. mendearen hondarrean, lau aldizkaritan plazaratu zizkioten alegia batzuk, Bilboko *Beti Bat* eta *Euskalzale*¹⁸ aldizkarietan eta Gipuzkoako *Euskal-Erria*¹⁹ eta *Euskal-Esnalea* aldizkarietan.

XX. mendean, liburu modura, edizio bat baino gehiago argitaratu ziren: *Euskal-Esnalea* aldizkarikoek atondutakoa, 1912an, Txomin Agirrerren hitzaurrearekin; Auspoa bilduman argitaratutakoa, 1963an, Juan San Martinen aitzinsolasarekin; Maite Iribarren edizioa, 1991n; eta Leticia Aristirena, 2000n.

Testu mailako azterketa

Objektuak, izakiak. Maiz, izenondoak erantsita ezaugarritu zituen animaliak: el lobo/Otso gaiztoa (Isop 33; BM 2); la oveja/ardi gaisso (Isop 34; BM 3); leon/leoitzar izugarri bat (Isop 61, BM 40); el leon/Leoy tontotzarra (Isop 61, BM 44); cavallo/zaldi mardo ta guicen (Isop 61, BM 44); un asno/Asto macal, argal pisuaren pisuz macurtua ta obendua (Isop 62, BM 45); bestias/Lurreco Abere (Isop 62, BM 49); aves/Goietaco

¹⁸ *Euskalzale* aldizkarikoak, 13 ipuin, Azkuek argitaratuak, Bilbo, 1899: “Otsoa, ta bildotsa”; “Zakurra, ta ardia”; “Tsakurra, ta aragi zatia”; “Leoia, beia, auntza, ta ardia”; “Otsoa, ta kuruloa”; “Gizona ta sugea”; “Etseko eta campoko saguak”; “Arranoa ta aizeria”; “Belea ta aizeria”; “Leoia, basaurdea, zezena ta astoa”; “Astoa ta tsakurtsua”; “Leoia ta sagua”; “Ontza ta bere ama”. Horietako batzuk gaztelaniazko itzulpenarekin.

¹⁹ *Euskal-Erria*, Donostia, 1880-1885: “Otsoa ta asto gaisotua”; “Leoya ta aizeria”; “Gizona ta Astoa”; “Otsoa ta irudia”; “Chakurra ta aragi-zatia”; “Mika egarritua”; “Zakurra ta ardia”; “Zaldia ta leoya”.

Egaztiak (Isop 62, BM 49). Baita naturako elementuak eta landareak ere: viento/egoi aice zatar ta sendoa (Isop 80, BM 79); una cañavera/Cañabera argal, miazti, icaracorra (Isop 80, BM 79).

Bana-banaka aipatzen ditu, batzuetan izen multzokarietako osagaiak. Adibide honetan, zertzuek osatzen duten *guarniciones* direlakoak zehazten da euskal testuan:

...guarniciones argentadas & doradas... Isop 62	...catea cillarrezcoz, jarlecu, ugal, ta anca estalquiz urrez bichitua... BM 45
---	---

Animaliak zerrendatu zituen beste adibide honetan:

...las animalias... Isop 62	...Leoy, Cecen, Otso, Basaurde, Catamotz... BM 49
-----------------------------	---

Sinesmenak. Jainko paganoak isilpean gorde zituen:

...entre si gemjendo se quexa delos dioses. Isop 62	cijoan aurrera erneguz ta biraoca, madaricatzen zuela sortu zan ordua. BM 47
---	--

Eta Jesukristo eta kristauak testura ekarri zituen:

[Ø] Isop 80	Esopoc baño obeto jaquinbear dute eguia au Jesu-Christoren escolan aci diranac. BM 81
-------------	---

Kontzeptuak. Tirania diru-gosearekin lotu zuen Bizentak, eta behartsu izatea nekazari argal izatearekin:

por tirania buscando ocasiones beuen la sangre & afan delos inocentes & pobres. Isop 34	...diru goseac darabiltza aitzaquia, ta esesio billa , edateco Necazari argalaren odol, edo bearra. BM 2
---	--

Epailea agintari bihurtua dugu adibide honetan:

...ante el juez... Isop 34	...Aguintari baten aurrera. BM 3
----------------------------	----------------------------------

Zezenketen irudia baliatu zuen ‘anfiteatro’ itzultzean ‘plaza edo toqui agiri ta langatu bat’ emanez, eta ‘zezena’, lehoiaren ordeaz:

[el leon] Después desto fue tomado para estar en la arena del amphiteatro, o lugar de las armas et rriptos. (...) salio el leon para el con grand jmpetu & furia. Isop 61	Egunac igarota arrapatu zuten Leoya Guizon batzuec, ta eraman zuten lotuta Erri andi batera presondegui caiolatu baten gordetzeco, ta ateratzeco Plaza edo toqui agiri, ta langatu batera, Cecenac atera oi diran bezela, botatzeco jan garrizat Guizon Gaiztaguiñac. BM 41
---	---

Izen bereziak. Oro har, eman egiten ditu halakoak: Libia/Lidia (Isop 126, BM 87); Atlas/Atlos (Isop 126, BM 87);

Paremiak. Era askotako estrategiak erabili zituen:

- Adibide hauetan, literalki itzuli eta paremia berdin-berdinak eman zituen Bizentak. Baina, nahikoa iruditu ez eta, gainera, beste paremia bat gehitu zuen:

E assi segund el prouerbio comun: Quien todo lo quiere, todo lo pierde. Isop 34	Obe dala, esan oi dan bezela, echachori, edo curro bat escuan, Arrano egatua baño ²⁰ : Guacia billatzea dala guacia galtzea ²¹ BM 6
Dize el prouerbio que nunca es fiel njn ygual la particion que se faze entre mayores & menores... BM 35	Andi ta chiquien arteco partilla, ez da inoiz berdiña. Ala da esana, ta ala izana eracastendigun becela Ipui eder onec. BM 6

- Adibide honetan, itzulpen literala eman zuen, euskaraz paremia baliokiderik ez dagoelako. Bertsoetan eman zuen Bizentak. Eraitza ez daiteke euskal paremiatzat har:

“Non es juego de rreyr tener cara con dos fazes, conla vna maldezir, conla otra poner pazes”. Isop 127	Ezda farra eguiteco, Arpegui bi iduquitzea, Batez paquea saltzea, Besteaz auçi emateco. BM 88
--	---

- Inoiz uko egin zion paremia itzultzeari:

...como non pueda alguno serujr a dos señores ²² . Isop 62	[Ø] BM 51
---	-----------

- Batzuetan, jatorrizkoan paremiarik ez, eta paremia bat eman zuen testu-zati oso baten orde:

Delos ombres falsos que contra los buenos mueuen pleitos & trahen falsos testigos se dize esta fabula:... Isop 34	Auzi zalea, eche ondatzallea ²³ . BM 5
---	---

Baita paremia itxurakoa sortu ere. Kasu honetan, esakunetan sarri erabiltzen diren ‘ezpain’ eta ‘bihotz’ bikotea erabiliz²⁴:

[Ø] Isop 61	...guezurra nerabillen ezpañetan, ta asmo gaiztoa biotzean. BM 44
-------------	---

Konpentsazioa. Bizentak egiturazko aldaketa sistematiko bat egin zuen jatorrizkoaren aldean. Izan ere, *Isopeteko* alegien hasiera halako exordio bat izaten da, alegietako eduki moralala edo portaera-eredua aurrezaten duena. Bizentak kendu egin zuen exordioa, baina bere alegien bukaeran, bertsoetan edo esaldi bakarrean, eman zuen horko edukiaren arrastoren bat edo beste, exordioan baino laburrago, hala ere:

El Esopo del innocente et sin culpa & del improbo malo rrecuenta tal fabula:... Isop 33	Eguia iduquizazu gauza alpertzat Gaizto asmodun, ta asco jaquiñentzat. BM 2
Delos ombres falsos que contra los buenos mueuen pleitos & trahen falsos testigos se dize esta fabula:... Isop 34	Auzi zalea, eche ondatzallea. BM 5
Alas vezes pierde el cubdicioso lo que tiene en su poder queriendo tomar lo ageno, delo qual se dize tal fabula:... Isop 34	...bacoitzac eutsi beardiola bereari, ta larga iñorenari. BM 6

²⁰ Gotzon Garate: “Arranoa hegan baino, txepetxa eskuan hobe”.

²¹ Gotzon Garate: “Dana gure dabenak, dana galdu”; “Dena nahi, dena galdu”.

²² Gotzon Garate: “Quien a dos amos ha de servir, a uno de ellos ha de mentir”.

²³ Gotzon Garate: “Baserritar kalezale, etxe hondatzaile”; “Tabernazalea, etxe hondatzailea”.

²⁴ Gotzon Garate: “Ezpainak hurbilago, bihotzak urrunago”; “Ezpain finak, bihotza latza”.

Qualquier que faze bien al malo puede rrescebir mal por ello & non bien, de que oyras este exemplo:... Isop 35	<i>Gaiztoac ez daquite eguiten onic, Ematen ere ez iñori esquerri.</i> BM 9
Como los poderosos deven fazer gracia a los pequeños et menores & que avunque passe largo tiempo non deven olvidar la gracia los que la rresciben prueua esta fabula. Isop 61	<i>Mesedeac dituzu artu? Ez zaiteala iñoiz aztú.</i> BM 43
Los que se veen en prosperidades non deven fazer injuria a alguno et deven conoscer que la rrueda dela Fortuna es dubdosa et se puede mudar, segund nos enseña esta figura:... Isop 62	<i>Zapaltzen duenac beetua, Artuco du bere lecua.</i> BM 48
Alos que son soberujos & duros de coraçon et non se quieren someter a su señor suele acaesçer como ala aya... Isop 80	<i>Ez inoiz burua goratu gueiegui. Eroria izan ez zaitean beregui.</i> BM 81
Muchos ay que preguntan soberujosamente questiones sin cuenta que ellos non saben sus rresponciones et desean ser maestros sin primero aver seydo discipulos, segund que rrecuenta en esta fabula:... Isop 85	<i>Ez galdetu bear ez danic, Ez aditzeco nai ez dezunic.</i> BM 84
Apenas se castigan por palabra nj por açotes los que son rrebeldes et de mala naturaleza, sobre los quales se pone tal parabola:... Isop 126	<i>Gaizto gogortuaren ecividea, Da urcabera eramatea.</i> BM 86

Zuzeneko solasera aldatzen du kontakizunaren haria, batzuetan. Adibide honetan, gertatutakoa protagonistaren gogoeta gisa jarritz:

...quedo sin lo vno et lo otro, perdiendo lo que tenia pensando de alcançar lo otro que le parescia mayor, lo qual non pudo aver. Isop 34	Abiatu zan amorrus esaten ¿cerc erabilli nau gueiagoren billa? Zori gaiztoan galdu det nerea. BM 6
---	--

Honelako adibideak erruz aurkitu daitezke Bizentaren testuan:

[el lobo] rrogo ala grulla que, como ella tuviesse largo cuello, le quisiesse poner melizinas & y le librasse de aquel peligro sacando le aquel huesso, prometiendo le por ello de le dar grand gualardon. Isop 35	Atoz ona , diotsa Otsoac; lagunzaquizquit arren. Zuk dezu lepo lucea igarocodezu mocoa nere eztarriraño; ta ala ateracodidazu gatigatzatan ezurra. Ori eguiten badidazu, ez naiz inoiz aztuco... BM 8
...fingio que era su amjgo & avn simulo sotilmente ser grand fisico & assi se lleo al cavallo saludando lo por palabras fermosas. Isop 61	Urreratu citzaion, ta asco nai balio becela, edo adisquidearen estaliz, diotsa. Ni naiz Sendaguille edo Medicu chit aditua. BM 43

Neologismoak. Hitzen bat edo beste asmatu zuen Bizentak, maileguaren ondoan, euskarak gaztelaniaren beharrik ez duela frogatzeko:

...contrato conel lobo, conel buytre & conel millano que testiguassen por el contra la verdad. Isop 34	...Testigu, edo Aguiritzalletzat Otsoa, Arranoa ta Mirua... BM 3
--	--

Hitz sortu berriak edo zabalkunde gutxikoak hedatzeko asmoz, sinonimia erabili zuen:

...grand fisico... Isop 61	Ni naiz Sendaguille ²⁵ edo Medicu chit aditua. BM 43
“Por cierto dignamente he padescido este mal... Isop 61	Nerea da obena edo culpa... BM 44
[Ø] Isop 62	Nere Corta edo Egontoquia... BM 46

²⁵ OEHn, ‘sendagile’ sarreran: “Osagile y sendagile muy usuales en V y G parecen voces creadas a fines del siglo XVIII”.

Itzulingurua. Adibide honetan, satiro bat zer den eta nolako itxura duen azaltzeko:

...un satjro vino a el... Isop 127	Irten cion esan degun becelaco Abere zatar, edo Guizon-piziatu ichusiac, ceñari ematen dioen Satyroaren icena. BM 87
------------------------------------	--

Betelana eta eletsutasuna. Oro har, den bezala ematen du jatorrizkoaren edukia. Askotan, hala ere, bestelako xehetasunak gehitu zituen Bizentak, berbatsu:

El lobo non curando dela verdad nin rrazon, dize le: —¿Et por eso me maldizes? Isop 33	Otso gaiztoac ez enzuna eguinic Bildotsaren arrazoi eder, issilgarriari, esatendio: ¿Cergatic lotsa galtzen didazu? Cergatic niri gaizqui esan? Ori da Nagusiago bati videgabe andia eguitea. BM 1
---	--

Adibide honetan, kontakizuna hobeto uler dadin, testua zabaldu zuen:

Finalmente dixo le el lobo:... Isop 34	Ez ceducanean Otsoac cer eranzun arrazoi ain arguiei, estalquiac quenduric, diotsa,... BM 2
--	---

Xehetasunak eta azalpenak gehitu zituen eta testua luzatu, bestetan:

La vaca, cabra & oveja tenian compañia conel leon & como enlas sierras andando tomassen un cieruo, partieron lo en quatro partes. E el leon tomo la primera parte deziendo: —Yo tomo esta como leon & la segunda parte es mia porque soy mas fuerte que vosotros. La tercera defiendo porque corri mas que todos & quien tocare la quarta parte tenga me por enemigo. E assi tomo todo el cieruo para si solo. Isop 35	Beia, Auntza, ta Ardia alcartu ta lagunduciran bein leoi batequin eizan arrapatzenzana alcarren artean partiltzeco. Basoan cebiltzala, arrapatuzuten Basauntz bat. Lau guera, esanzuten Leoyez beste irurac, ta laurendu beardegu Basauntz au. Gueldi, gueldi, dio Leoyac. Naiz ni Abere gucien Buru, ta Nagusia: lauren bat zor zait alde onetatic: bigarren laurena ere neuri dagoquit, naizalaco sendoena : irugarrena ecin iñorc quenducodit zuec baño ariñago ebilli naizalaco, ta ni gatic izan ez balitza, igues eguingocizuten Basauntz onec: laugarrenari icutzendionac, jaquin bearcodu , izango nauela ni bere etsaya. Beldurrac issilducituen beste irurac, ta icasizuten urregoraco ez laguntzea, ez burua bat eguitea Leoy sendo ta arroarequin. BM 7
...prometiendo le por ello de le dar grand gualardon. Isop 35	Ori eguiten badidazu ez naiz inoiz aztuco ; izangonaitzatu esquertsu ta onguiña; ezagutucodet zuri zorco dizudala nere vicitza; izangoguera adisquide bioc, ta nere bearrean jartzen bacera, lagunducodizut beti, baita eman ere bearsari, edo aloguer ona. BM 8

Elipsiak eta jakintzat eman daitezkeenak esplizitatu egin zituen, batzuetan:

[Ø] Isop 44	Bata ta bestea cebiltzan, norc nori guezur caltegarria sartu. BM 44
Et el leon caydo enel suelo de tan fuerte golpe estuvo sin sentjmiento vn buen espacio. Mas, como tomo su sentido & fuerça tornando en si, non vio mas el cavallo. Isop 61	...largatzen du Leoytzarra conorte gabe, ta artzen du Zaldiac iguesa. Bereganatu zanean Leoya arpegui ongui mallatuz, ez zuen aurrean ecusi Zaldiric. BM 44

Bestetan, kontakizuna aberastu zuen deskripzio, xehetasun eta ekintzen aldetik:

...vn asno, el qual venja cargado de luengas tierras. Isop 62	...Asto macal, argal, pisuaren pisuz macurtua ta obendua, ta atzetic maquillada gogorrac ematen ciozcana Astazai erruqui gabeac. BM 45
---	--

<p>— Marabillo me como non te despedaço de coçes porque non fiziste lugar para que passasse & avn devjeras estar & quedar mjentra que yo passaua. [Ø] Isop 62</p>	<p>Arrituta naitziagoc, Asto zatarra, nola osticadaz asetzen ez audan. ¿Cergatic baztertu ez, ni icusita? ¿Cergatic egon ez aiz gueldi bazter batean ni igaro artean? ¿Nor naizala uste dec? Nago ni ain apaindua, cillar ta urrez pichitua. Nere Corta edo Egontoquia garbiago ciagoc ascoren echeetaco guela, ta Loteguiac baño. Nere Echecho Nagusiagoc eguiten diezte aguiraca gogorrac Morroiaiegunoro garbitzen ez badute nere egonlecuca; Ascaan autsic ez du aurquitu bear, ez da garagarrian ere. Garbitzen dizquide oñac; leundu bear dituzte nere bizcarra, ta anquea: nere illeac argui eguin beardu. Beguira bada, cein mardo, guizen, ta mamitsua nagoan. I berriz, zatar ori, burutic oñetara ago, edo autsez josia, edo basatua: aguiiri dituc bizcar-ezurrac; jostorraz edo eztena cirudiec ire berna zanco gabeac: burua jaso ecindec; belarri macaldu ta zaurituac aguiiri dituc; videan nequea, ta echean gosea. Onelacoa izanic, ez didac lotsa gueiagoc gordecoc? Lenengoa gatic, barcatzen diat; baña beguira beste bein onelacoric guerta ez didin. BM 46</p>
---	---

Aurreko adibidean bezala, “Lurreco Abere, ta Goietaco Egaztiac” alegian ere, hamaika lerroko testu-zabalkuntza egin zuen Bizentak “peleó la águila” ekintza deskribatzeko.

Testua lautzea eta soiltzea helburu zuela, eguraldiari buruzko xehetasunak eta beste batzuk kendu zituen euskal bertsiotan, zuzenki mamiari lotzeko:

<p>En el tiempo de yvierno, como fiziesse muy fuerte tempestad, agora de nieves & lluvias, agora de vientos & de eladas, un peregrino, o rromero, camjnando en rregiones longinquas & apartadas llega a vna montaña donde avia grandes nieves & crueles vientos en tanto grado que non paresçia el camjno nj el sabia donde se acoger. E acaesçio que estando assi el camjnante, vn satyro vino a el. Es de saber que satyros son vnos ombres de pequeña estatura que moran enlas partes de Libia enel monte Atlas, los quales tienen vnos pequeños cuernos en las fruentes & han los pies semejanter a los de las cabras. Isop 126-127</p>	<p>Lidiaco aldamenetan dagoan, ta Atlas deritzon mendi batean ezagutzen dira piztia izugarri ta ichusi batzuec: buruetan dituzte Idiscoac becelaco adarrac; oñetan dirudite Auntzac, ta beste gucian daucate guizon nano, edo chiqui baten ichura. BM 87</p>
---	--

Irakaspenen mezua. Aldeak daude irakaspenera emateko orduan.

- Mezu berdin antzekoa eman zuen askotan:

<p>Esta fabula significa que non deve ombre, cubdiciando lo ageno et dubdoso, dexar lo suyo que es cierto, avnque lo que cubdicia le paresca mas. E assi segund el prouerbio comun: Quien todo lo quiere, todo lo perde. Isop 34</p>	<p>Ipui onec esan naidu paquean gorde bear degula garbiro deguna. Galdu oi dala vide onez dagoana, gueiegui iduqui naiz. Obe dala, esan oi dan bezela, echachori, edo curroe bat escuan, Arrano egatua baño: Guacia billatzea dala guacia galtzea: bacoitzac eutsi beardiola bereari, ta larga iñorenari. BM 6</p>
<p>E assi nos muestra esta fabula que non deve mostrar el ombre otra cosa delo que es, mas que se deve tener por quien es & non se alauar de officios que non sabe si non quiere caher en verguença. Isop 61</p>	<p>Ipui onec esan naidu, ez degula iñoiz sartu bear ez daquigun, ta ez dagoquigun lanean. Iñori calte eguiten dionac, eracarrico duela caltea bere burura. BM 45</p>

Berdin antzekoa bai, baina azalpen luzexegoak emanez, eta ezaugarriak, nolokotasunak eta portaerak zehaztuz:

<p>Esta fabula amonesta que non tome ombre compañía con mayores porque el trabajo es para los menores & el provecho para los mayores. Isop 35</p>	<p>Ipui onec eracastendioe guizon argal, me, ta necazariei, ez burua bat eguita beren artu emanetan berac baño andiagoequin, oec badira arroac, ascojaquin, ta oquerrac Nequea izangoda argalentzat; irabazia sendo dirudunentzat. Oec guicenducodira necazaria argaltzendan demporan. BM 7</p>
<p>Esta fabula amonesta que njnguno sea ingrato dela gracia que rrescibe, mas antes que faga otra gracia o seruicio quando el caso ofresciere a aquel de quien rrescibio gracia o beneficio. Isop 61</p>	<p>Ipui onec eracusten du, izan bear degula esquertsuac gueure onguillaquin, ta mesedeac gueitu bear dizquioguezala, mesedeac eguin dizquiügenai. Esquergabetasuna dala gaitziritzia beti. BM 42-43</p>

Beste honetan, jatorrizkoan halakorik ez agertu arren, zigorraren eta beldurraren beharra aldarrikatzen da haurtxotatik hasita, heziera ona izateko:

<p>Significa esta fabula que los ombres de mala naturaleza et criança semejantes son alos toros brauos que jamas se quieren castigar por disciplina nj palabra fasta que los matan las justicias enforcando los o en otra malaventura sean acabados. Isop 126</p>	<p>Ipui onec dio, gazte uzu, natu char, ta aciera gaiztoaco berandu, nequez, ta ascotan iñoiz ere eci ecin dirala. Cigorrada, aguiraca ta beldur garri guciac alperrac dirala. Idiscoa gorputztu, mardotu, ta cecendu bada, jaiquico da jabe beraren contra. Onelaco guizasemeac bacarric eci oi dira , edo presondegui gogorretan , edo obeto urcabeen. Ala bada chiquichotatic eman bear da aciera ona; aurchoac cigorchoa ecusita beldurtzen diranean. BM 86</p>
---	---

Exordioa eta irakaspena batuz, bertsook sortu zituen Bizentak, erakutsiaren muina bilduta:

<p>Como la prudencia & industria muchas vegadas suplen & complen la vez o defecto delas fuerças nos enseña la presente fabula: (...) Significa que por arte & ingenjo puede ombre fazer muchas cosas, las quales por fuerça non podria complir. Isop 126</p>	<p><i>Asco dezaque escuac, Baña gueiago buruac. Garaituco dezu ecin eguiña, Baldin bacera asco jaquiña.</i> BM 85</p>
--	---

- Beste batzuetan desbideratu egin zen. Adibide honetan, boteretsuei men egitea hobe dela esaten da euskal testuan; halako determinismo bat badagoela goikoek goiko eta menpekoek menpeko izaten jarrai dezaten.

<p>Quiere dezir esta fabula que los ombres malos & falsos buscando otros semejantes falsarios fazen mucho mal & dapño alos innocentes & pocopudientes. Isop 34</p>	<p>Ipui onec esan naidu , guizon gaizto, ascotaco, ta indartsuac billatzen dituztela beren guisaco lagunac, ta eguin calte asco argal, oben gabeco, ta itz eguiñaz gaizquiago irtengo duteenetan: larga oi dituztela larru utsean, ta gorrian berac ederqui jancitzeco. Obedala auciric artu gabe lenengotic escazen diotena ematea, gueroenean costu guciequin ematea baño. Ardiac eraman balu aurrera aucia beste Aguintari Nagusiago baten gana, ez ziran bere ille guciequin paquetuco bere etsaiac. Aragui zaleac izanic, eramango zuten mamia bera, ille ta guci. Icas bearda Ipui onequin ebaquitzen auciac mugonez, beranduagora larga gabe. Obe da bear orduan escu atz bat ebaqui, guero escutur gucia baño. BM 5</p>
--	---

Kasu honetan exordia eta irakaspena batu zituen eta jatorrizkotik erabat aldendu zen, forma eta garapen aldetik. Hiriaren eta hiritartasunaren gaiak baztertu zituen, baina eutsi zion saldukeriaren gaiari:

<p>Delos ombres et de dos lenguas puso tal fábula el Esopo. Aquel que en dos partes se mostrare empecible & contrario, en entreambas partes viujra sin agradescimjento & ingrato & sera culpante a ssi mesmo: (...) Quiere dezir que quien dexa su parentela & generacion & passa a los contrarios que es rrazon que non aya nj goze de cosa, nj de libertad alguna de su naturaleza porque non es buen cibdadjno el que trata con los enemjgos dela cibdad, como non pueda alguno serujr a dos señores. Isop 62</p>	<p>Ipui onec dio <i>Bere odoleco, ta adisquiden Saltzallea</i> <i>Dala bere buru galtzallea.</i> BM 51</p>
--	--

- Irakaspena kristautasunaren alorrera eramán zuen Bizentak zenbaitetan, kristau doktrinako gaiak sartuz:

<p>Quiere nos mostrar este exemplo que los ingratos malos se mueuen a enojar a aquellos que les fazen bien que non remunerar les & por la miel les dan venino & por el fructo pena & por la piedad engaño. Isop 36</p>	<p>Ex du onec esan nai Christauac gaizqui eguingoduela on eguiñaz bere etsai lurrecoari. Jesu-Christoc aguintzen digu erantzuteco guc on eguiñequin, gaizqui nai, edo eguindigutenai: escatzeco Aita Cerucoari berac gatic; maite izateco biotzez, izangaitecen bere umeac, ecusiric nola erorten dira neuri lurraren ongarriac, gaiztoen ta onen soroetara. Anciñaco esana da, <i>eguin ondo edoceñi, beguiratu gabe nori.</i> Ipuiac bacarric esan nai du, nolacoac diren gaizto asco; cein esquer galducoac; nola ezagutzaric ez duten eguiten zaizten mesedeac gatic. BM 11</p>
<p>Quiere dezir que njinguno non piense que la muerte le sera folgura, porque non se gana la folgança por muerte, mas por merescimjento. Isop 67</p>	<p>Ipui onec eracasten dioe batzuei, ez gueiegui irabaci nai izatea; ez, mendeco ta morroi mirabeai neque larregui, edo gogorregruiac artuerazotzea; ta beste batzuei, ez dei eguita eriotzari erneguz. Eriotza charrarequin ez dira bucatzen atsecabe guciac. Christau batec beguiratu bear dio beldur onez eriotzari. Etorquizunac eracarri bear gaitu ez ernegatzera atsacaben artean, ta artzera paquez lurreco nai ez, ta pena garriac. BM 63</p>
<p>E desta manera muchas vezes los soberujos son destruydos rresistiendo et los humildes escapan dando lugar et suffriendo a los mas fuertes. Isop 80</p>	<p>Ipui ecin ohea adierazotzeco gizon arro, astin ta buruiritzicoai, nola gueroenean izango diran beratuac. Burua macurtzen dutenac, edo humillatzen diranac gueldituco dira zutic, calte gabe, aiceric gogorrenac garaitu ecin dituela. Cembat mutill ta guizon arroc, indarrac eracutsi naia gatic, iritziric sendoagoac diradela burruca ta maquillaca, garaituac izan dira, jo dute bea, lurpera gorputza emateraño! O arrotasuna! Cembat galdu dituzun! Orregatic eguia garbia da, beratzen dana, goratua izango dala, ta jaiquitzen dana biotz arrotuz, beratua. Esopoc baño obeto jaquinbear dute eguia au Jesu-Christoren escolan aci diranac. BM 81</p>

Ondorioak

Bizenta Mogelek gertutik jarraitu zien kontakizunaren hariari eta edukiei. Dena dela, aske antzean itzuli zuen, emaitza onargarria izan zedin hartzailetzat hartu zituenen artean: nekazariak eta gazteak.

Horregatik, moldaera asko egin zituen.

Egiturari dagokionez, *Isopeteko* alegietako exordioak kendu eta alegiaren bukaeran eman zituen, bertsoz, irakaspenaren ondoren. Alegiaren edukia azken bertso horietan bildu nahi izan balu bezala, bertsolariak egiten duten modu berean.

Narrazioa arintzeko, testua zabaldu zuen elipsiak esplizitatuz, izen multzokariak zehaztuz, zehar estilotik estilo zuzenera aldatuz, elkarrizketa baliatuz, galdera erretorikoak eginez, jatorrizkoen ordezkari euskal kulturako edo errealitateko kontzeptuak sartuz (zezena, plaza, nekazari argalaren irudia...), xehetasunak eta deskripzioak ugalduz, berbatsu jokatuz, azken buruan.

Herri-hizkera erabili zuen. Agerikoa du hori paremiak itzultzeko eta, ez dagoenean, beste paremia batzuk tartekatzeko edo sortzeko ahaleginean, hitanoaren erabileran eta abarretan. Herri hizkera ederto ezagutzen zuela erakutsi zuen Bizentak.

Baina, emakume ikasia zen aldetik, ez zuen errazkeriara jo, eta, esaterako, izen bereziak eta exonomastika bere horretan itzuli zituen, gehienetan. Neologismoak sortzeko eta sinonimoak emateko joera ere erakutsi zuen, euskara noranahiko zela ikusarazteko.

Irakaspenen edukiari dagokionez, mezu berdina antzekoa eman zuen askotan, baina batzuetan, kristau-doktrinako gaiak tartekatu zituen irakaspenetan, alegien hartzaileak onak izateko bidean jar zitezten. Moralaren –moral kristauaren– zerbitzupeko literatura molde baten alde jarri zen horrela azkoitiarra.

VI.2.2. Juan Antonio Mogel (1745-1804)

Ideologia

Juan Antonio Mogel eta haren idazlanak erromantizismo aurretxoan kokatu behar dira, Konbentzio Gerraren garaian (1796). Garai emankorra, Entziklopedismoak umotutako emaitzak orduan jaso baitziren Euskal Herrian (Justo Garate, 1936: 9).

Jesuiten ardurapeko Nobleentzako Erret-Mintegian ikasi zuen Juan Antoniok, Calatayud-en, hiru urtez²⁶ (Altzibar, 1991: 4).

Juan Antonio Mogelek Adiskideen Elkartean parte hartu zuen, literatura-batzordeko kide gisa (Kortazar/Billelabeitia in Uriarte, 1987: 13). Familiatik zetorkion Elkartearekiko konpromisoa: aita Juan Ignacio ilustratu bikaina izan zen, peñafloridatarren mediku eta adiskide; anaia Juan Ignacio bazkide-irakasle izan zen eta, aitaren arrastoari jarraituz, medikuntza-gaiak landu zituen (Altzibar, 1991: 2).

Halatan, bada, Juan Antoniok euskarazko alegiak argitaratzeko ahalegina egin zuen Adiskideen Elkartean. Elkarteak, baina, eskerrak eman bai, “por su celo y aplicación”, baina ez zuen egitasmoa diruz hornitu eta lana ez zen argitaratu (Altzibar in J.A. Mogel, 1995: 24). Bestalde, Elkarteak eskatuta, Azpitarte egiten ari zen hiztegian laguntzen ibili zen eibartarra.

Juan Antoniok harreman intelektualak izan zituen orduko jakintsuekin, hala nola Humboldt, Astarloa, Vargas Ponce, Añibarro eta abarrekin (Villasante, 1979: 205). Zientziari buruzko interes orokorrak filologia-kezka berpiztu zuen garai hartan. Hartara, jakintsu horien kezka nagusietako bat hizkuntzak izan ziren, oro har, eta euskara, bereziki. Humboldten iritziz, hizkuntzen ikerketan Juan Antonio izan zen onenetakoa, *Vasconiako* ikertzaileen artean (Garate, 1936: 50). Haatik, Mogelek berak Larramendiren ekarpenak nabarmendu zituen, *Artea* eta *Diccionario*a argitaratu zituenetik gipuzkoar apaiz batzuen euskara eta kultura-maila hobetu zirelako. Baina, liburu haiek baino gehiago baserritarren hizkuntza ikastea ikusi zuen premiazoago Juan Antoniok. Larramendi bezala, gainera, euskoiberista izan zen, garai hartako gehienak bezala.

²⁶ Félix María de Samaniegoren anaia Antonio Eusebiok ere han egin zituen ikasketak, 1754tik aurrera (Palacios, 2001: XI).

Beste zenbaitekin, berriz, ez zen hain ondo konpondu. Samaniegorekin, esaterako. Adinkideak ziren Samaniego eta Mogel, 1745ean jaiotak. Ez ziren, horratik, adiskide bikainak izan. Honela adierazi zuen ideia hori Justo Garatek: “De los Moguel y de los marquineses en general tenía Samaniego un concepto no muy alto, quizá debido a la circunstancia de que Juan Antonio Moguel delatase a los poseedores de libros prohibidos y aspirase a ser nombrado por el arzobispo de Selimbria revisor de aquéllos...” (Garate, 1936: 29).

Paradoxikoa da hori, jakinda, gainera, “Mogelen alegiak Samaniegoren alegietan inspiratzen direla batez ere”, Martín Muñoz (1985: 213), Kortazar eta Billelabeitia (in Uriarte 1987: 13) eta beste asko ohartu direnez.

Esan bezala, Ilustrazioko espirituaren ildoan kokatu behar da Juan Antonio, oro har. Baina, badirudi une batean atzera egin zuela: ikaratu egin zen Konbentzio Gerraren ondorioak eta Iraultzaren bilakaera ikusita²⁷. Hala, *frantses* paper eta kazetari zabalkundea galaraztearen, inkisidore-lanetan jardun zuen azken urteetan, liburu-ikuskatzaile gisa (Sudupe, 1997: 45).

Ildo beretik, Fausto Arocenaren *Brumas de nuestra historia* liburuan (1952: 87-88), Juan Antoniok Lazkano abadeari buruz esandakoak kontatzen dira, eta pasarte irakurrita ikusten da Inkisizioaren morroi izan zela Juan Antonio Mogel, eta fedearen desbideratzei antzematen iaioa izan zela, eta nor zen heretiko eta nor ez haztatzen trebea.

Dena dela, norabide bikoitzeko harremana izan zuen Inkisizioarekin. Izan ere, Inkisizioak bera zigortu zuen 1779an, Alzibarrek ohartzen duenez (1991: 5), “zenbait neska gazteren zuzendaritza izpiritualetan agertutako liluramendu eta jokaera nabarmenarengatik”.

Alegien hartzaile gisa, Juan Antoniok hiru giza talde aipatu zituela ondorioztatu zuen Kortazarrek (in Uriarte, 1987: 16):

-«gazteak», beste alde normala denez olerkigintza neoklasikoan, gazteak baitira heziketa baten beharrez aurkitzen den gizatalderik argiena,
-«irakasleak», bere bizkar gain dutelako gazteriaren erakusketen beharra,

²⁷ Aterpe eman zien Juan Antoniok Iraultzatik ihesi Iparraldetik Hegoaldera etorritako abadeei (Etxaide, 1990: 275).

-«echeburuak», hauek ere berebiziko lana dutelako etxeko guztien heziketan.

Baina, nabarmendu zuen, batez ere, pertsona helduentzat idatzi zuela Mogelek.

Soziologikoki, mendebaldeko eta erdialdeko irakurleak izan zituen, batik bat, jomuga. Ohiko praktika izan zuen testuak gipuzkeraz eta bizkaieraz lantzea, batetik bestera igarotzea. Horren adibide dugu, Humboldtten *Collectánea lingüística*ko erlijio-testu bat, “en dialectos guipuzcoano y vizcaíno” Mogelek jarria (Garate, 1936: 104). Halaber, gipuzkeratik bizkaierara igarotzeko ohituraren lekukotasun bi gutxienez baditugu: hiztegitxo bat, gipuzkerazko zenbait hitzen bizkaierazko eta gaztelaniazko ordainekin²⁸, eta gutun bateko ohartxo (1801-09-02), zeinean Mogelek Jose Maria Murgari eskatzen baitio latinezko testu klasiko batzuen gipuzkerazko bertsioak bidaltzeko, bizkaieraz ipini nahi zituelako (ibidem: 75). Dena dela, euskalkie dagokienez, bizkaiera literarioaren aitzindaria dugu, oroz gain, Juan Antonio.

Poetika

Neoklasikoa da Mogelen alegien estiloa. Estilo horren zenbait ezaugarri nabarmendu zituzten Kortazar eta Billelabeitiak (in Uriarte, 1987: 13-22) Mogelen lanetan. Esaterako, adieraztearen garbitasuna, barrokoaren iluntasunaren aurka, diskurtsoa ulergarria izan zedin. Halaber, idatzitakoa bizitzarako praktikoa eta erabilgarria izatea. Eduki praktiko horiek, dena dela, klase menperatzaileak adierazitakoak ziren: literatura “nagusien morroi” bihurtu zen, hortaz, eta “gizarte burgesak eskatzen zituen egien propaganda” bilakatu.

Bi helburu praktiko nagusi egotzi izan zaizkio J. A. Mogel alegialariari: kristau morala zabaldu nahi izatea (San Martin, 1959; Kortazar in Uriarte, 1987; Altzibar, 1991) eta euskara edozein arlotan erabiltzeko gai zela erakustea (Kortazar in Uriarte, 1987; Altzibar, 1991).

San Martinek gogo-gardentasuna ikusi zuen zenbait alegiaren irakaspenetan:

Ta bere [alegia] geieneri, apaiz bati dagokionez, ta olerkari kristau baten ametsezko dei zerutarren oiartzunak lurrera isuriko diran gisan, gogo-gardena agiri zaie (1959: 46).

²⁸ Izan ere, kexu ugari jaso zituen Mogelek, *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac* gipuzkeraz argitaratu zuenean, hitz asko ulergaitz gertatzen zitzaizkielako irakurleei (Villasante, 1979: 210).

Helburu kristau moralzale hura beste zenbaitek ere aipatu du. Altzibarrek, esate baterako:

Mogelek euskal jendeari (bizkaitarrei kasu honetan) kristau morala irakasteko itzuli zituen alegiak, berariaz adierazi bezala: “para la Instrucción del Pueblo biscaino”(in J.A. Mogel, 1995: 26).

Euskara zabaltzeari dagokionez, bestalde, hona zer dioen Kortazarrek:

Mogelek gizarte hartako nagusiei erakutsi nahi die euskara ere gai dela edozein gai tratatzeko, edozein era erabilteko. (...) bere baliorik garrantzitsuena euskaraz egitean dago. (...) lanaren ideologiarekin batera euskararen posibilitateaz ere konbentzitu nahi duelako jente jakintsua (in Uriarte, 1987: 16).

Horretarako, Mogelek europar kulturako egile klasikoak euskaratzeko ahalegina egin zuen, hala nola, Zizeron, Tito Livio, Esopo, Fedro... Horretan da Mogel originala (ibidem: 15). Alegiak, hortaz, ahalegin horren emaitza dira.

Euskara gai eta malgu dela erakutsi nahi izan zuen, baita ere, Mogelek. Vargas Ponceri idatzitako gutun batean hauxe esan zuen Juan Antoniok (1803-09-07): “Tengo trabajadas «otras muchas» [alegiak] para hacer ver que el Bascuence, nada cultivado en este ramo (sino sólo en los llamados zortzicos y quartetas), es adaptable a todo metro” (J. Garate, 1936: 92).

Altzibarren ustean, helburu apologetiko bat ere badu Juan Antoniok. Euskararen garbitasunak kezkatu zuen. 1802an Vargasi idatzitako gutuna erabili zuen Altzibarrek, horren erakusgarri:

...he trabajado la versión vascongada... no pocas fábulas de Esopo y Fedro, sin que el castellano más hábil, leyendo nombre por nombre, me halle un vocablo no vascongado. (Mogel in Altzibar, 1982: 469).

Corpusa eta iturriak

Kontuan har dezagun alegia bat bera ere ez zela argitaratu bizirik zela eta sakabanatuta eta berandu ikusi zutela argia. Horrez gain, egilearen izena aipatu gabe bildu ziren, zenbaitetan; beste zenbaitetan, biltzailearen ukitua jasan zuten testuek. Gainera, iturri askotatik hartu zituen Mogelek alegietako gaiak. Argi dago gustuko generoa zuela alegiagintza eta gertutik ezagutzen zituela alegialari askoren lanak.

Vargas Ponceri idatzitako gutun batean (1802-05-24), iturrien aitortza egin zuen Juan Antoniok:

Yo, además de los Diálogos que le cité a Vm he trabajado a versión vascongada, ya en prosa, ya en verso vario, no pocas fábulas de Esopo y Fedro... (Altzibarrek ekarritako aipua, 1982: 463).

Basozabalen eskuizkribuan, gainera, “Ensayo de la Poesía bascongada en algunas Fábulas” atalean, 6., 7., 8. eta 9. ipuinetan Ibáñez de la Renteríarenak direla jakinarazi, eta Renteríaren alegien zenbakiak eskaini zituen Mogelek.

Horiek horrela, Altzibarrek eredu gehiago bazirela iradoki zuen: “Esopo eta Fedroz aparte, Samaniego eta Rentería, biak aipatuak, eta are gehiago” (1982: 468).

Kortazar eta Billelabeitiak Samaniegoren lana aipatu zuten, bereziki, Juan Antonioren ereduaren artean:

Mogelek berak dioskunez, bere iturriak ez dira frantsesak, klasikoak baizik. Baina puntu horretan ez zetorren egiazkor Mogel gurea. Bere iturriak ez dira klasikoak bigarren puntu batean baino, Samaniegoren lana jarraitzen du hurbiletik, eta horregatik, hasiera hasieran gaion iturria klasikoa izan arren ere, zuzenago eta zintzoagoa liteke iturriak auzoko urak jarraitzen zituela esatea (in Uriarte, 1987: 14).

Hori gutxi balitz bezala, *Ipui onaceko* Juan Antonioren IV. alegiako ohar batean, Bizentak Samaniegori jarraitu zion gertu-gertutik. Hona, bi testuak konparagai. Samaniegoren “Prólogo”-koa, lehenik:

Con la variedad de metros he procurado huir de aquel monotonismo que adormece los sentidos y se opone a la varia armonía, que tanto deleita el ánimo y aviva la atención. (...) se hallará en mis versos gran copia de endecasílabos pareados con la alternativa de pies quebrados o de siete sílabas... (1969: 55).

Bizentarena, orain:

Para no incurrir en el gran vicio del monotonismo, que adormece los sentidos, y hace enfadosa la oración mas elocuente, quando, por el contrario, la varia armonia deleyta el ánimo, y aviva la atención, se ha procurado la variedad de metros, sin echar en olvido nuestro común Zortzico. Pero es preciso confesar, que los versos endecasílabos pareados con la alternativa de pies quebrados, ó de siete sílabas, tienen no sé qué de mayor y más agradable armonía. Con todo será muy fastidioso este metro, si no se lee con sentido y expedición: ¿Y habrá muchos vascongados que así los lean? (1804: 103).

Bizentak, gainera, hizpidera ekarriak zituen ordurako Samaniego eta Rentería, euskaraz jarraitu beharreko eredu gisara, Juan Antonioren alegien aurretik idatzi zuen “Adigarria”-n:

Ez da gaitza igartea, certan dagoan gure Poesia, edo versoguintzen laburtasuna. Dago bada bururic necatu ez dalaco; oitu ez diralaco Euscaldunac zortzico, ta laucoetara baizic. ¡Ai baleude aitatu ditudan bezelaco jakitunak, Samaniego ta Renteria Euskaldun

euskarara eman batzuek! Beste egunik ecusico luquee gure Poesiac edo versogintzac (op. cit: 89-90).

Orain arte esandako guztia kontuan hartuta, eta Mogelen alegiak irakurri eta autore klasikoen alegiekin konparatuta, ikus dezagun noizkoak, nork bilduak, zenbat diren eta zer iturri duten eibartarraren alegiek:

1) *Peru Abarca* (c. 1802/1881). Hiru alegia moldatu zituen Juan Antoniok liburuan: bat, hitz neurtuzkoa, eta bi, hitz lauzkoak. “Azeria eta charria” alegiari buruz, Manterolak bere *Cancioneron* honako hau adierazi zuen:

La fábula de Esopo *El Asno y el Cochino* ha sido libremente imitada en dialecto vizcaino por el ilustrado sacerdote de Marquina D. Juan Antonio de Moguel (1878, 1ª serie, tomo IV: 68-69).

Manterolak adierazi nahi du tradizio esopoarraren ildotikoa dela. Alegia hori Fedrorenean, *Isopeten* eta Samaniegorenean jasotzen da. Horregatik, hibridotzat hartu dut.

“Baso ta etxeco sagubac” eta “Mozulua eta egaztiak” alegiak ere, azken hori biltzaileek eman ez duten bakarra, hibridotzat jo ditut.

2) *Ipui onac* (1804). Zortzi alegia hitz neurtuzko plazaratu zizkion Bizentak osabari. Zortzi horietatik bat, “Catu Eizari basocoa Zortzikoan”, Samaniegorena da. Gainerakoak, Ibáñez de la Renteríarenak²⁹.

Zortzi alegien iturriak González de Záratek (1995: 24 eta 353-357) zehaztu zituen, baina ez dut beraren iritziarekin bat egiten “Catu Eizari basocoa Zortzikoan” alegiaren iturriari dagokionez; izan ere, esan zuen Juan Antoniok asmatu zuela.

3) Basozabalen eskuizkribua (c. 1808)³⁰. Funts pribatu batean dago. Juan Antonioren 70 alegia daude, 60 hitz lauzkoak dira eta 10 hitz neurtuzkoak.

²⁹ Honako hauek dira egile horrenak: “Andra alarguna, ta Oloa”; “Otsoa, ta Anchumea”; “Lapurrac, eta Ollarra”; “Baserritarra, ta Basaurdea”; “Chacurra, ta Catua”; “Cata-motza, ta Zacurra”; “Astoa, eta Otsoa”.

³⁰ Altzibarrek azalpen batzuk eman zituen *Ipuinak* liburuan (1995), Eleuterio Basozabalek egindako eskuizkribu horri buruz: “Eskuz idatzitako liburu hark *El Rústico y Minerva* zuen izenburutzat eta *Peru Abarka*-ren kopia zen baina ondoan zera zioen: «Ademas, contiene este Libro trozos selectos de las oraciones de Ciceron; Alexandro; etc. y Fabulas, traducido todo al Bascuence Vizcayno por dho Señor Moguel, de cuyos originales papeles los he copiado con todo cuidado yo Eleuterio de Basozabal. Año de 1808»” (1995: 23).

Hitz lauukoetatik, 50 Bizentaren liburukoen berdinak dira, baina bizkaieraz (1.etik 51.era, 18.a ez baitu Bizentak ematen). Ikusi dugunez, Altzibarrek uste du egiletza ezin zaiola Bizentari soilik egotzi, baina nik 50 alegia horiek Bizentaren izenean ipini ditut, beraren izenean argitaratu baitziren.

Beraz, Basozabalen eskuizkribuko hitz lauuko hamar alegia soilik jarri ditut Juan Antonioren izenpean: 18. alegia eta 52.etik 60.era bitartekoak. 18. alegiaren iturria *Isopete* da, eta 52-60 bitartekoena, Fedro. Juan Antoniok berak adierazi zuen, Basozabalen eskuizkribuan ageri denez, 52.a eta 53.a Fedrorenak zirela.

Hitz neurtuzko hamar alegiak, bestalde, Basozabalen eskuizkribuan “Ensayo de la Poesía bascongada en algunas Fábulas”³¹ izenburupean bildurik agertu ziren. Hamar alegietatik bi dira ordura arte argitaratu gabeak. Bi horietatik bat Juan Antoniok asmatutakoa da, “Azerija ta eperra”³² hain zuzen, eta besteak, “Basauntza eta idijak”, Fedro du iturri.

4) *Fábulas en dialecto vizcaino* (c. 1840/1907-1909). Zabalaren eskuizkribua. Pariseko Liburutegi Nazionalean dago. Julio Urkixok *RIE* Ven bi sortatan argitaratu zuen, 1907 eta 1909an. Guztira, hamaika alegia eta bi aldaera dira Juan Antonio Mogelenak, Zabalak berak hala adierazita. Hitz neurtuzkoak dira denak.

Zabala moldatzaile izan zen ustea ibili da ikertzaileen artean. Zelaietaren ustez, esate baterako, “Zabala-k, gehienetan, Mogel-ena jaso baino gehiago beste *versio* bat” eman ohi digu (in Zabala, 1986: 23). Altzibarrek, antzera (in J.A. Mogel, 1995: 30): “Zabala eta Uriarteren bildumetan datozen Mogelen alegi hauek Uriarte eta Zabalaren moldaerak dira eta ezin dira hartu Mogelek bere eskuz idatziak balira bezala”. Alegia horietatik hiru dira ordura arte jaso gabekoak: bat Samaniegorena da; beste biak hibridoak dira.

5) *Poesía Bascongada. Dialecto Vizcaino* (c. 1856/1987). Uriarteren eskuizkribua. Arantzazuko artxiboan dago. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak edizio

³¹ Adiskideen Elkartean argitaratu nahi izan zituen alegiak izenburu berean bildu zituen.

³² “Azerija ta eperra” alegiak, hala ere, badu antzik Esopo 180, Isopete III-8, Samaniego IV-14 eta La Fontaine II-15ekin, baina oso aldatua dago. Mogelek berak dio “de nueva invención” dela (Basozabal, 1808: 62, in J.A. Mogel 1995: 154). Gainera, Manterolak dioskunez, “el escritor vizcaino ha hecho su versión con la libertad suficiente para que merezca ser considerada como original” (1880, serie III, “I. Poesías alegóricas”, 72). Eta, Altzibarrek, azkenik, “Juan Antonio Mogelen buruko edo jator (...), asmatua” dela (1992: 186).

bat atondu zuten 1987an, eta egiaztatu zuten Juan Antonio Mogel dela Uriarteren bilduman agertzen diren lehen 27 alegia sinatu gabeen egilea (1980: 255). Hala ere, Manterolak, lehenago, Uriarte jo zuen horietako bost alegiaren egiletzat: “Nescatilla ezne saltzallia” (1878, 2^a serie, tomo IV, 47), “Atsua eta ispillua”, “Arraintzaillia ta arrainchua”, “Azerija ta eperra” eta “Bazoco auzi okerra” (1880, serie III, “I. Poesías alegóricas”, 70-71).

Juan Antonioren 27 alegietatik 14 Uriarteren eskuizkribu honetan beste inon ez dira jaso. Nire iritzian, horietatik bi Juan Antoniok sortuak dira: “Azerija eta Baserri chacurra”³³ eta “Basoco auzi oquerra”³⁴; hamaikak Samaniego dute iturri eta batek, *Isopete*.

Guztira, beraz, 119 alegia idatzi zituen Juan Antoniok, baina desberdinak 90: 28 hitz neurtuzko eta 62 hitz lauzko. 90 alegia horietatik, 30 dira tesi-lan honetarako hartutako egile klasikoenak: 13 Sam, 10 Fe, 2 Isop, 5 hibri. Beste 60 alegiak bestelako iturrietakoak dira: 50, Bizentarenak; 7, Ibáñez de la Renteríarenak. Eta 3, asmatuak.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Juan Antonio Mogel	<i>Peru Abarca</i>	c.1802/1881	2 hl, 1 hn	3 hibri
	<i>Ipuí onac</i>	1804	8 hn	1 Sam
	<i>El Rústico y Minervako</i> “Fabulas” atala (Basozabalen eskuizkribua) / <i>Ipuinak</i>	c. 1808/1995	60 hl 10 hn	9 Fe, hl 1 Isop, hl 1 Fe, hn
	<i>Fábulas en dialecto vizcaino</i>	c. 1840/1907-1909	11 hn	1 Sam 2 hibri
	<i>Poesía Bascongada</i>	c. 1856/1987	27 hn	11 Sam 1 Isop

MOGEL, Juan Antonio (c. 1802/1881). *El Doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado maisu Juan*. Durango: Julian de Elizalde, 88-89, 96-102.

³³ “Azerija eta Baserri chacurra” alegiak oinarrian *Isopete*ko II-3 eta Fedroren I-23 izan ditzake, baina alderantziz kontatu digu alegia Mogekek; nire ustez, hori dela eta, asmatutakotzat hartu behar dugu.

³⁴ “Basoco auzi oquerra” alegia originaltzat jotzen du Manterolak: “se cuenta entre las originales” (1880, serie III, “I. Poesías alegóricas”, 73). Badu antzik La Fontaineren VII-1 eta Samaniegoren III-2 alegiekin, baina oso aldatua dago eta asmatutakotzat hartu behar delakoan gaude.

[“Azeria eta charria” **hibri**. “Baso ta ehecho sagubac” **hibri**. “Mozulua eta egaztiac” **hibri**.]

MOGEL, Juan Antonio (1804). “Ipuiac itz neurtu, edo verso Euscarazcoan”, in Bizenta MOGEL, *Ipui onac...*, 89-113.

[“Catu Eizari basocoa Zortzikoan” **Sam IX-12**.]

MOGEL, Juan Antonio (1995). *Ipuinak*. Edizioa: Xabier Altzibar [Eleuterio Basozabalen eskuizkribuko “Fabulas” ataletik hartutakoak (c. 1808)].

“Hitz lauzko ipuinak”, 77-79, 132-147:

[“Otso eta antxumiarena” **Isop II-9**. “Erle, erlaero ta kuruminuarena” **Fe III-13**. “Esopo Ipuingña jokuan” **Fe III-14**. “Asto asko jakiña” **Fe I-15**. “Ardi ta basauntzarena” **Fe I-16**. “Erroi arruarena” **Fe I-3**. “Kurrilloe ta erbiarena” **Fe I-9**. “Basaunz ta idijena” **Fe II-8**. “Esopo Ipuingña ta mutil lotsagaistokua” **Fe III-5**. “Neba ta arreba birena” **Fe III-8**.]

“Hitz neurtuzko ipuinak”, 151-153:

[“Basauntza eta idijak” **Fe II-8**.]

MOGEL, Juan Antonio (c. 1840/1907). “Fábulas en Dialecto Vizcaíno”, in Julio de URQUIJO (1969), *Revista Internacional de los Estudios Vascos. Revue Internationale des Études Basques*. Tomo I, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 533-534. [1907-1936ko lehen edizioaren edizio faksimilea].

[“Atso ezain, burua eder eguiten evana” **hibri**. “Otso gaishotua ta ardi ascoyakina” **Sam III-9**.]

MOGEL, Juan Antonio (c. 1840/1909). “Fábulas en Dialecto Vizcaíno (jarraipena)”, in Julio de URQUIJO (1969), *op. cit.*, Tomo III, 34-35.

[“Arrantzallea ta chibi bacarra” **hibri**.]

MOGEL, Juan Antonio (c. 1856/1987). “Ipuñac”, in Jose Antonio URIARTE, *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaíno*. Edizioa: Jon Kortazar, Miren Billelabeitia. Testuaren begiralea: Joseba A. Lakarra. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 46-65. [c. 1856ko eskuizkributik hartua].

[“Chacurra ta Astua” **Sam III-13**. “Astua eta ugarasijuac” **Sam III-12**. “Belia eta Suguia” **Sam III-11**. “Ardi chacurra ta azerija” **Sam VIII-9**. “Catu lapur birena” **Sam VII-9**. “Chacur bijac” **Sam IX-3**. “Eztilapurra” **Sam IX-17**. “Nescatilla ezne saltzallia” **Sam II-2**. “Eiztari birena” **Sam IX-11**. “Azeri gaisotua” **Sam VII-1**. “Otsua eta Azerija eizan” **Isop III-6**. “Catua eta Chorijac” **Sam IX-1**.]

Kritika

Alegiak berridazteko modua aipagai izan du zenbaitek. Aurrena, Bizentak:

La narración difusa de esta y algunas otra Fábulas en Poesía, no debe ser censuradas. Se ha procurado agrandar á los rústicos habiendo pintado las circunstancias de los hechos según uso del país. Hace tambien parecer mas fecundo á nuestro idioma, y semejante ampliacion hace mas elocuente la narración (1804: 103).

Beharrezkotzat jo zituen Bizenta Mogelek halako moldaketa, aldaketa eta zabalkuntzak. Nolakoak eta zenbaterainokoak diren jakingo dugu aurrerago, azterkizunetako bat baita puntu hori.

Ustez Uriarterenak zirela-eta, honela epaitu zuen Manterolak (1880: 73) Juan Antonioren alegien estiloa: “como poeta no es de gran talla, sus versos adolecen á menudo de dureza y aun de incorreccion, pero sus obras serán siempre estimadísimas, especialmente bajo el punto de vista filológico...”.

Juan San Martinek Mogelen hizkuntzaz hauxe esan zuen: “garbizale bai baina ez garbikerizale” (1959: 49).

Kortazar eta Billelabeitiak hauxe idatzi zuten Uriarteren bildumakoak aztertuta:

Lehendabiziko olerkietan, 18. olerkiraino, euskal idazleak ia itzulpen hutsak egiten ditu, ez du bere kabutik ezer berririk eskeini. 18. zenbakidunetik 27.eraino, zentzuz, argumentuz, edo gaiez aldatzen ditu alegiak, eta 27.ean bere alegi orijinala eskeini digula uste dugu (in Uriarte, 1987: 15).

Eta aurrerago, Mogelen berridazteko prozeduretako batzuk zehaztu zituzten: irakurlea zuka tratatzen du, hurbiletik lotu nahi duelako; helduentzat idazten du, batez ere; erlijiotasuna agerikoa da mezuetan, eta zuhurtasuna; irakaspenak zenbaitetan ez du zerikusirik argumentuarekin; askotan baieztapen gogor batekin bukatzen da alegia; egiaren bila dabil egilea, eta, hala, ‘egia’ eta ‘beharra’ hitz nagusiak dira; oso erretorikoak dira, luzeak, elipsirik gabeak, estatikoak, eta metaforarik gabeak; hiperbatona darabil; sinonimoak pilatzen ditu; metrika erdal kutsukoa da eta errima erdal legearen arabera, hots, errima betea edo kontsonantea.

Mogelek testuetan oharrak jarri ohi zituela gaineratu zuen Altzibarrek. Batez ere, hitz zailak, edo irakurleari ulertzen zail gerta zekizkiokeenak argitzeko (Altzibar, 1998: 256). Eta, gaztelaniaz eman zituen, zenbaitetan.

Altzibarrek bere edizioko hitzaurrean (in J.A. Mogel, 1995: 23) honela idatzi zuen: “hitz-lauzko alegilari gisa nabarmentzen delakoan gaude, iloba Bizenta Mogelekkin batera, honetan euskal literaturan bakarrenetarikoak baitira”.

Zabalkundea

1995ean argitaratu zuen Alzibarrek *Ipuinak*, ustez alegia guztiak ematen zituela³⁵.

Testu mailako azterketa

Objektuak, izakiak. Euskal ordain baliokideak eman zituen eskuarki Juan Antoniok.

Dena dela, zenbaitetan ordain gehiago eta diferenteak egokitu zizkien jatorrizkoei. Esaterako, “Catu eizari basocoa” alegian *oilagor, eper, satorrac, erbia, birigarroa, choriac* egokitu zizkien jatorrizko *conejos y perdices* animaliei. Baita “Nescatilla ezne saltzallia” alegian ere: *huevos, cien pollos, cochino, dinero, vaca, ternero/eun arrautza, eun bat chitachu, ollascoac, ollandac, olluac, diru asco, bei bi, chalchuac, bigae ta idiscuac, beiac ta idijac, eznia* (Sam 80, JAM *Nes*³⁶). Halaber, “Azeri gaisotua” alegian: *gansos inocentes, pavos, pollos.../erbi, eper, anzarrac, ollategui, usacumiac...* (Sam 171-172, JAM *Aze*). Estilo-aukera izan liteke ugaritasun hori. Edo baserriko bizimoduaren aberastasun ustekoa erakutsi edo iradoki nahi izatea.

Bestetan kopurua aldatu zuen: *dos mil avecillas/berreun bat chorichu* (Sam 198, JAM *Catua eta chorijac*).

Aldaketa batzuk arbitrarioak dira: *el asador/Echeco urdiarentzat eguan zucuba* (Sam 180, JAM *Catu lapur*). Eta alegiaren hari narratiboa aldarazi zuten, ondorioz.

Bestalde, izenondo jakinekin ezaugarritu zituen animaliak, zenbaitetan: *Raposo/Azeri zuurra* (Sam 196, JAM *Ard*); *gatos/catu erpecari* (Sam 196, JAM *Ard*).

³⁵ *Peru Abarcako* “Mozulua eta egaztiak” alegia falta zaio (Arejitak (1990: 13) *Peru Abarcaren* edizioan erabili zuen izenburua hartu dut).

³⁶ Hiru hizki etzanek alegiaren izenburua adierazten dute: hortaz, *Nes* laburdura “Nescatilla esne saltzaillia” alegiari dagokio. Izan ere, aldizkarietan agertu zirelako, ezinezkoa da orri-zenbaki soila jarriz erreferentzia zehatza ematea. Horregatik, hemendik aurrera, alegiaren lehen hiru hizkiak hartuko dira aldizkarietako alegien laburdura gisa, testu mailako azterketetan. Batzuetan, hala ere, lehen hiru hizkiak alegia bat baino gehiagoren erreferentzia izan daitezkeelako, laburdura luzatu egin dugu: *Catu lapur* (“Catu lapur birena”), *Catua eta Chorijac* (“Catua eta Chorijac”). Irakurleak egile bakoitzaren “Corpusa eta iturriak” ataleko alegia-zerrendetara jo dezake, laburdurak zein alegiari dagozkion jakiteko.

Sinesmenak. Samaniegok ironia antiklerikal fina erabili zuen pasarteren batean, bere ideologiari jarraituz; Juan Antoniok ezabatu egin zituen arrasto guztiak:

Cierto Gato, en poblado descontento, Por mejorar sin duda su destino (Que no sería Gato de convento), Pasó de ciudadano a campesino. Metióse santamente Dentro de una covacha... Sam 180	Anciña erri batean Vici zan Catua, Gueldi egon bearrez Guciz gogaitua: Iguesá artu nai du Echetic basora Igarotzeco egunac Bere gogo osora. JAM <i>Catu lapur</i>
---	--

Orobat, Jainko paganoak ezabatu zituen:

Por Júpiter estamos condenadas A vivir sin remedio encenagadas... Sam 107	[Ø] JAM <i>Ast</i>
Y así nos premia Júpiter divino... Sam 108	[Ø] JAM <i>Ast</i>

Eta 'zerua' aipatu zuen, portaera-arauak zuzenesteko:

[Ø] Sam 107	«Ez dozu bota bihar biraoric... Cerubagaitic ez esan gaizquiric. JAM <i>Ast</i>
-------------	--

Bekatua eta lohitasuna: kristau-kontzeptuok hizpidera ekarri zituen, jatorrizkoak halakorik ez esan arren:

Si no estás inocente [Ø] Sam 107	Buruba ichi doc orain loituric Eta ire pecatubac aguerturic. JAM <i>Ard</i>
----------------------------------	--

Ohiturak. Ehiza. Mogelek, batzuetan, gizakiak aipatu zituen, animalien ehiztari:

[Ø] Sam 172	Guizon armadun eizarijac Eta baserritar guztijac, Gure billa dabiltzaz beti. JAM <i>Aze</i>
-------------	---

Kontzeptuak. Bikaintasuna izaki zerutarrekin lotu zuen:

“La miel, dice, está muy buena: Es un bocado exquisito... Sam 219	¡O ce ezti gozua! Aingueruben jana bera. JAM <i>Ezt</i>
--	--

Delituaren ordaintzat bekatua eman zuen, kristau-morala areagotuz:

... “¡Oh qué demencia! Exclamó Zapirón en altos gritos, ¡Cometer el mayor de los delitos!... Sam 180	Au jatia litzateque pecatuba. Diño Zapiron conciencija andicua. JAM <i>Catu lapur</i>
--	---

Gosea eta asea. Maiz tartekatu zituen Mogelek jan-eza eta gose asea, jatorrizkoak halakorik ez esan arren:

Su débil fuerza, la pesada carga El paso tardo, la carrera larga... Sam 107	Oiñ astunac, bidia lucia, Urte ascuaac, bestetic gosia. JAM <i>Ast</i>
[Ø] Sam 180	«Ez da goseric gaur gure sabeletan... JAM <i>Catu lapur</i>

Izen bereziak. Pertsona-izenak egokitu zituen zenbaitetan, gaztelaniazko izena baztertuz eta izenondoari izen kategoria emanez: Pedro Ponce el valeroso/Don Azkor

(Sam 212, JAM *Eiz*), Juan Carranza el prudente/Don Bildur³⁷ (Sam 212, JAM *Eiz*). Eta euskaldunduz: Juana/Praisca (Sam180, JAM *Catu lapur*).

Animalien izenak euskaldundu egin zituen batzuetan: Micifuz/Missichu (Sam180, JAM *Catu lapur*); Sultán/Churi (Sam 201, JAM *Chacur bijac*). Bestetan ez zituen aldatu: Zapirón/Zapiron (Sam180, JAM *Catu lapur*); Pinto/Pinto (Sam 201, JAM *Chacur bijac*). Beste batzuetan ezabatu egin zituen: El señor *Mirrimiz*, gato de maña/Catua (Sam198, JAM *Catua eta chorijac*).

Paremiak. Ez zuen estrategia finkorik erabili paremiak berridazteko orduan.

- Batzuetan, literalki itzuli zuen, baina emaitza ez daiteke har XHko paremiatzat:

Prestad auxilio, si quereis hallarlo. Sam 109	Nai dabenac aurquitu Laguna premia orduban Bestiai euren estuban Biar deutse lagundu. JAM <i>Cha</i>
---	---

- Bestetan, libreki itzuli zuen:

No anheles impaciente el bien futuro; Mira que ni el presente está seguro. Sam 81	Darabillena ondasun macala Ontzi auscor ta argaletan, Ezer baga escu utsetan Gueldituco da beriala. JAM <i>Nes</i>
--	---

- Bestetan, paremia baliokide gisakoa sortu zuen:

Quien malas mañas ha... Sam 173 ³⁸	<i>Azeria ilten bada zarrez</i> <i>Egongo da beteta guiratsez.</i> JAM <i>Aze</i> ³⁹
---	--

- Bestetan, jatorrizkoan ez egon arren, paremiaren bat tartekatu zuen:

[Ø] Sam	Asco direla zaietan zioguijac Urunetan barriz eroeguijac. JAM <i>Catu lapur</i> ⁴⁰
---------	--

Literatura-alusioak. Adibide honetan Juan Antoniok Cervantesen literatura-pertsonaiari eta literatura-pasarteari eutsi zien:

El prudente temeroso, A una encina se abalanza, Y cual otro Sancho Panza, En las ramas se salvó. Sam 212	Don Bildur Jaunac orduban Arech batera igo eban, Sancho Panzac eguin eban moduan Alanche vicitzia gordetacuan. JAM <i>Eiz</i>
---	--

³⁷ Berceoren obrako erreferentzia.

³⁸ Esakun ezaguna da gaztelaniaz Erdi Aroaz geroztik, gutxienez: “Quien malas mañas ha, tarde o nunca las perderá” (O’Kane, 1959: 154).

³⁹ Mokoroan eta Garaten ez da ageri. Bai, ordea, honako hauek: *Azeriak ile zaharra uzten du baina aztura zaharra ez; Azeri zaharrari ilea joan, baina antza ez eta beste asko.*

⁴⁰ *Peru Abarcan* erabili zuen eta azalpentoa eman (1881: 121): “Zaijetan zioგი, urunetan ero. [...] Esan gura dau, zai apur bat galdu eztedin bildur ta ikara; ta uruna ondatuba gaiti ardurarik ez”. Cf. *OEHN*, halaber, ‘zogi’ sarrera: «"Prudente, avisé, circumspect, sage. Zaijetan zur, zogi, iriñetan ero, prudent quand il s'agit de son et fou quand il s'agit de farine"».

Oraingoan, aldiz, baztertu egin zuen Orfeoren erreferentzia:

Y más diestro que el músico de Tracia... Sam 199	[Ø] JAM <i>Catua eta chorijac</i>
--	-----------------------------------

Adibide honetan Enrique de Villenaren obra aipatzea saihestu zuen. Harakinen mozteko arteaz jardun zuen Villenak *Arte Cisoria* idazlanean. Ironia galdu zen euskal berridazketan, horrenbestez:

Que en el arte cisoria, sin gran pena, Pudiera dar lecciones a Villena. Sam 180	[Ø] JAM <i>Catu lapur</i>
--	---------------------------

Generoaren ikuspegia. Emakumea otsein-lanetan marraztu zigun:

A las once y aún más de la mañana La cocinera Juana, Con pretexto de hablar a la vecina... Sam 180	Egun baten eguberdi aurrian Eguala Praisca otseña escaratxian, Urten eban bentana batera, Auzoco nescatilla otseñagaz berba eguitera. JAM <i>Ast</i>
--	---

Samaniegok esnedunaren deskripzio luzea egin zuen: emakume prestua, airosa, atsegina, alaia, eta bera bakarrik moldatzen dakiena; halako emantzipazio kutsu bat baduena, beraz. Mogelek, ordea, deskripzioa baztertzean, ezaugarri horiek guztiak ezabatu zituen:

Llevaba en la cabeza Una Lechera el cántaro al mercado Con aquella presteza, Aquel aire sencillo, aquel agrado, Que va diciendo a todo el que lo advierte ¡Yo sí que estoy contenta con mi suerte! Porque no apetecía Más compañía que su pensamiento, Que alegre la ofrecía Inocentes ideas de contento, Marchaba sola la feliz Lechera, Y decía entre sí de esta manera: “Esta leche vendida... Sam 79-80	Nescatilla bat bein erri batera joian Eznia eroiala bere morcuan: Ondochu saldu ta aberastuteco Eta egun onac guero igaroteco. Salduco dot, diño, eznia...JAM <i>Nes</i>
---	--

Sorburu-hizkuntzaren morfosintaxia xede-hizkuntzan islatu zuen batzuetan Juan Antoniok. Kasu honetan ‘zelan’ galdegilea erabiltzen du berdintasuna adierazten duen konparaziozko partikularen ordean (legez, bezala). Egitura jatortzat har liteke ‘zelan...halan’ egitura balitz. Ez da, ordea, bigarren osagai hori ageri. Jatorrizkoari dion atxikimenduaren frogatzat hartu behar da sintaxi-lizentzia hori:

De un modo muy afable y amistoso El Mastín de un Pastor con un Raposo Se solían juntar algunos ratos, Como tal vez los perros y los gatos Con amistad se tratan. Sam 196	Alcarregaz adisquidetasunian Ebiltzen olguetan ta jolasian Ardichacur ta Azeri zuurra. Celan catu erpecari ta chacurra... JAM <i>Ard</i>
--	---

Oro har, jatorrizkoari estu atxikiz itzuli zituen Juan Antoniok alegia gehienak, batez ere Uriarteren bilduman jasotakoak. Hona, adibide gisa, hiru alegia-hasiera:

<p>Un Perro y un Borrico caminaban, Sirviendo a un mismo dueño; Rendido éste del sueño, Se tendió sobre el prado que pasaban. El borrico entre tanto aprovechando Descansa y paze; más el Perro, hambriento, “Bájate, le decía, buen jumento;... Sam 108</p>	<p>Chacur bat, eta astua bein joiazan Guizon bategaz bidian, Au luac artu ebanian, Solo batera sartu zan Bedarra jatera Astua Asi zan atsedenez. Barriz igarua gosez Eguan chacur guizajua. Astuari deutsa onec esaten Macurtu zaquidaz laguna...JAM <i>Cha</i></p>
<p>Muy cargado de leña un burro viejo, Triste armazón de huesos y pellejo, Pensativo, según lo cabizbajo, Caminaba llevando con trabajo Su débil fuerza la pesada carga. El paso tardo, la carrera larga; Todo, al fin, contra el misero se empeña, El camino los años y la leña. Entra en una laguna el desdichado... Sam 107</p>	<p>Asto zar, azur aguiri, argala Ezcabidun ta narru zabala Buruz joian bein issillic Egur atoz iduna macurturic. Oñ astunac, bidia lucia, Urte ascuac, bestetik gosia. Atsacabe guztijac jaco batuten. Dacarrela vizitzia madaricatuten. Orra nun beinguan Sartuten dan cinguir basatuan... JAM <i>Ast</i></p>
<p>De un modo muy afable y amistoso El Mastín de un Pastor con un Raposo Se solían juntar algunos ratos, Como tal vez los perros y los gatos Con amistad se tratan. Cierta día El Zorro a su compadre le decía: “Estoy muy irritado; Los hombres por el mundo han divulgado Qu mi raza inocente (¡qué injusticia!) Les anda circuncirca en la malicia... Sam 196-197</p>	<p>Alcarregaz adisquidetasunian Ebiltzen olguetan ta jolasian Ardichacur ta Azeri zuurra. Celan catu erpecari ta chacurra, Nosbait lecu baten Alcarregaz lotan eta jaten. Azerijac esaten deutsa lagunari: “Emon deutsat nic lecu aserriari ¿Badaquizu cer zabaldu dan lurrian? Azerijac bizi dirala euren caltían. JAM <i>Ard</i></p>

Zuzeneko solasa erabil izuen Mogelek, inoiz, zehar estiloan egon arren jatorrizkoa:

<p>Pero callaba en vano, Mientras no se acercaban a su mano Los músicos volantes; pues quería <i>Mirrimiz</i> arreglar la sinfonía. Sam 198</p>	<p>¡Ay, bacengoce, diño, urrian Neure inguruan lurrian! Baña celan nic ona eracarri? Miaoca asiten banaz ni; ¡Agur nire bazcarija! ¡Agur niretzat choriija! JAM <i>Catua eta Choriyac</i></p>
---	---

Narratarioaren agerpena. Batzuetan kendu egin zuen ahots hori.

<p>Considere el lector piadosamente. Sam 213</p>	<p>[Ø] JAM <i>Cat</i></p>
--	---------------------------

Neologismoak sortzen ahalegindu zen zenbaitetan eibartarra. Badaezpada ere, irakurleak ulertuko ez zituelakoan, gaztelaniazko esanahia eman zuen parentesi artean: “Zozo chistuagaz naz *bituco* (Hare el duo)” (JAM *Catua eta Choriyac*); “*Bardinian erabilteco soñuac* (Para llevar el compás)” (JAM *Catua eta Choriyac*).

Ildo berean, gaztelaniaz eman zituen zenbait hitzen ordainak parentesi artean, ulertzen zailak zirelakoan-edo: “(manojos) Egur atoz” (JAM *Ast*); “*cinguir basatuan* (pantano)” (JAM *Ast*).

Betelana eta eletsutasuna. Eletsu jokatu zuen zenbait alegia itzultzean. “Catu eizari basocoa” alegia, esaterako, jatorrizkoa baino bost aldiz luzeagoa da.

“Eiztari birena” alegian, jatorrizkoa eduki berriz hornitu zuen eta, hein handi batean, hari narratiboa aldatu zuen. Jatorrizkoan, esaterako, ez dago otsoari buruzko kontakizunik; izenondo soil batez deskribatzen da:

<p>Vieron venir de frente Al lobo más horroroso. Sam 212</p>	<p>Ebillen baso ta bideetan Otso andi bat goseberia; Bildurturic eucan gentia Erri inguru guzti areetan. Bidasti asco cituan galdu, Guizon araguijaz ederto apaldu. Eta berba guichitan Izu gogorra zan errijetan. (...) Aguertuten jaque Otsua Puusca ta aguiñac aguiriric Beguitzar bijac gorrituric. JAM Eiz</p>
---	---

Jatorrizkoan, elipsia baliatuz, irakurlearen irudimenaren esku utzi zuen Samaniegok narrazioaren kateamendua. Juan Antoniok, ordea, ekintza oso bat asmatu zuen:

<p>Pedro Ponce allí murió. Sam 212</p>	<p>Don Azcor sendo guriac Aserre andijac arturic, Ta osticoca asco eguiñic. Indarrac ditut niriac, Diño, ta ez nic iguesic. Otsua jaco aurreratuten Don Azcor dago icharoten, Guztija suac arturic. Itutzat dauca Otsua Jaurtiguiten deutsa tirua Baña utsian Ta arerijua da bere ganian Otsuac dau beera botaten Aguiñac an deutzaz ezarten: Eta zatituric Ichiten dau ill, ta odolusturic. JAM Eiz</p>
---	--

Juan Antoniok, halaber, ekintzaile agertzen digu Don Bildur pertsonaia zuhurra: otsoa hil zuen. Galdera erretorikoak tartekatu zituen Mogelek, beldurtien eta zuhurren aldeko jarduna luze garatzeko eta diskurtso hori indartzeko:

<p>[Ø] Sam 212</p>	<p>Don Bildur eguan urrian Beguiria arech ganian. Otsua dau azpijan icusten Sutumpa deutsa zucenduten: Eta otsagaz batera Ezarten dau illic lurrera. Don Bildur jauna viciric Don Azcor barriz beian illic. ¿Cetaraco dira putz guieguijac?</p>
--------------------	---

	¿Cetaraco billatu arriscua? ¿Cetaraco gorde ez burua? ¿Cetaraco alaco azarquerijac? Auzcaraco ascoc aupadia: Guerraraco barriz icaria. ¡O eraquerija! ¡Alperric galdutia vicija! JAM <i>Eiz</i>
--	---

Berdin jokatu zuen alegia hauetan ere: “Los dos perros” (26 bertso-lerro), “Chacur bijac” (51 bertso-lerro).

Lautzea. Adibideak gehituz samurtu nahi izan zuen Juan Antoniok jatorrizkoaren esanahia:

[Ø] Sam 201	Ordijari dirautso ordijac. <i>Ez doc biar horrela moscortu</i> <i>Ez ardaoz guztiz concertu.</i> JAM <i>Chacur bijac</i>
-------------	--

Batzuetan, inausi egin zituen zenbait bertso-lerro, ironia-kutsua irakurleari zail gertatuko zaiolakoan-edo:

Charlatanes se ven por todos lados, En plazas y en estrados, Que ofrecen sus servicios, ¡cosa rara! A todo el mundo por su linda cara. Éste, químico y médico excelente, Cura a todo doliente; Pero <i>gratis</i> : no se hable de dinero. El otro, petimetre caballero, Canta, toca, dibuja, borda, danza, Y ofrece la enseñanza <i>Gratis</i> , por afición, a cierta gente. Veremos en la fábula siguiente Si puede haber en esto algún engaño. La prudente cautela no hace daño. Sam 198	[Ø] JAM <i>Catua eta Chorijac</i>
---	-----------------------------------

Nahiago ditu hitz konnotazio gabeak, ironia edo bigarren esanahiren bat adieraz dezaketen ordainak baino:

Escuchando el concierto De dos mil avecillas... Sam 198	...entzuten Berreun bat chorichuc Eguiten eben <i>cantua.</i> JAM <i>Catua eta Chorijac</i>
--	---

Ironiak eta ziri-esamoldeak aurrerago ere badaude alegia berean, metaforen eta bestelakoen bidez; Mogelek, ordea, baztertu egin zituen halakoak:

Pero callaba en vano, Mientras no se acercaban a su mano Los músicos volantes; pues quería <i>Mirrimiz</i> arreglar la sinfonía. Sam 198	¡Ay, bacengoce, diño, urrian Neure inguruan lurrian! Baña celan nic ona eracarri? Miaoca asiten banaz ni; ¡Agur nire bazcarija! ¡Agur niretzat choriija! JAM <i>Catua eta Chorijac</i>
Fui Gato de un maestro de capilla;... Sam 199	[Ø] JAM <i>Catua eta Chorijac</i>

Batzuetan irudizko esanahia eman zuen (compás=atzaparra) eta, zer gerta ere, esanahi zuzena ere bai (compás=berdinean erabilteco soñuak):

Echando su compás hacia el más gordo Consigue <i>gratis</i> merendarse un tordo. Sam 199	Ateraten dau atzaparra catuac <i>Bardinian erabilteco soñuac</i> (Para llevar el compás) Atrapetan dau zozua Egualaco lodi ta mardua. JAM <i>Catua eta Chorijac</i>
--	---

Edozelan ere, hizkuntza metaforikoa galdu zuen askotan euskal bertsoiak:

¡O loca fantasía, Que palacios fabricas en el viento! Sam 81	Negarrac darraico pozari, Ecerezac aberats ustecuari... JAM <i>Ast</i>
---	---

Onomatopeiak. Berdin antzekoak: Fu/fuuka (Sam 180, JAM *Catu lapur*).

Hurbiltze fonologikoa. Bitxia da Juan Antonioren mimesi-ahalegina:

¿Sin duda que será para enjuagarte, Limpiar bien el garguero, Abrir el apetito, Y tragarme después como a un pollito ? Sam 180	Gura eunke malmutz, garbitu polito, polito cintzurra, ta ataraco neure azurra ire aguietan apurtu. JAM <i>Ots</i>
--	---

Errima eta metroa. “Catu eizari basocoa” alegian zortziko txikia erabili zuen Juan Antoniok, jatorrizko hamaika eta zazpi silabadun bertso-lerroen orde. Beste alegia gehienetan jatorrizko metrikara hurbiltzeko ahalegina egin zuen.

Gaztelaniazko estrofen berezkotasuna ere apurtu zuen Mogelek batzuetan: Samaniegoren “El Ladrón”, esaterako, hamardun edo *décima* bat da, hots, errima kontsonantedun 10 bertso-lerro zortzsilabadunek osatutako ahapaldia; euskarazkoak “Eztilapurra” alegiak, aldiz, lau bertso-lerro gehiago ditu, nahiz denak badiren, hori bai, errima kontsonantedunak eta zortzsilabadunak.

Gauza bera egin zuen “Los dos cazadores” alegia berridaztean: bi hamardunek osatzen dute Samaniegoren alegia hori; Mogelek, aldiz, hamar silabadun 13 laukoz eta biko hoskide batez eman zituen bi *décimak*.

Errimari dagokionez, gaztelaniazko errima kontsonantera jo zuen Mogelek.

Irakaspenen mezua. Alegia guzti-guztiei eman zien irakaspena.

- Gehienetan mezu berbera edo berdin antzekoa eman zuen:

Prestad auxilio si queréis hallarlo. Sam 105	<i>Nai dabenac aurquitu</i> <i>Laguna premia orduban</i> <i>Bestiai euren estuban</i> <i>Biar deutse lagundu.</i> JAM <i>Cha</i>
--	---

Baina, batzuetan lekuz aldatu zuen irakaspena. Adibide honetan, esaterako, Samaniegok alegia-hasieran ipini zuen irakaspena; Mogelek, bukaeran, eta irakaspena etorri datorrela iragarritz (*iracasiac, icasbidia*), irakurlearen arreta erakartzeko:

<i>Procure ser en todo lo posible, El que ha de reprender, irreprehensible.</i> Sam 201	<i>¡O ce eguia andijac, Ta edoceñentzat arguijac ! Iracasiac ipuiñ onetan Dauquee icasbidia; Dago ondo iracastia Eguitada zucenetan.</i> JAM Chacur bijac
---	---

Honako hau ere bukaeran jarri zuen Juan Antoniok, eta bere erara moldatu. Samaniegok hasieran jarri zuen:

<i>La prudente cautela no hace daño.</i> Sam 198	Sinigsacha ta zurra Ez bazara batzuetan Zabaldua dago gaiztuetan Berba laban ta guzurra. JAM <i>Catua eta Chorijac</i>
--	---

- Batzuetan esplizitatu egin zuen:

<i>¡Cuanto importante saber con quién se trata!</i> Sam 106	<i>Bai: bacocho gordeburua gaisto deunga guztietatic, ta euren berba leunetatic izan ezdedintzat galdua.</i> JAM <i>Ots</i>
--	---

Oraingo adibidean, jatorrizko irakaspena esplikatatu nahi izan zuen, argiago uzteko:

<i>Pedro Ponce alli murió. Imitemos a Carranza.</i> Sam 212	<i>¡O eraquerija! Alperric galdutia vicija! Buruba arriskuetic gordetia Da centzun andicua izatia.</i> JAM <i>Eiz</i>
---	---

- Beste batzuetan desbideratu egin zen. Adibide honetan, kritika soziala egiteko; izan ere, agintarien gaiztakeria azpimarratzen da, jatorrizkoan baino areago:

<i>Con que sea la cosa que se fuere ¿La podrá usted hacer, si otro la hace?</i> Sam 213	<i>Aguintaria bada Calteguiñ andia, Nola cigorperatu Lapurcho chiquiá? Lapur artutzalleac, Badira lapurrac, Irentsico dituzte Mami, ta ezurrac.</i> JAM <i>Cat</i>
---	--

Fedearen onura azpimarratu zuen adibide honetan:

<i>Es de suma importancia Tener en los trabajos tolerancia: Pues la impaciencia en la contraria suerte Es un mal más amargo que la muerte.</i> Sam 108	<i>Nequiagaz laztanduteco baquia Beguiria contuz zerura: Itoco dozu zuc estura Eta arindu naibaguaia.</i> JAM <i>Ast</i>
--	--

- Irakaspena sortu zuen Mogelek zenbaitetan, jatorrizkoan irakaspenik ez izanagatik ere. Kutsu moralistagoa hartzen dute halakoetan Juan Antonioren mezuek, jatorrizkoen aldean. Oraingo honetan, bekatua eta zigorra aipatu zituen, bidenabar:

[Ø] Sam 181	Ipui au certaraco da asmatuba ? Izan dedin munduban ezagutuba: Asco dirala zaijetan cioguijac. Urunetan barriz eroeguijac. Eta barriz pecatuba, Izango dala azquenic castigauba. JAM <i>Catu lapur</i>
-------------	---

Irakaspen sortu horiek funtzio ohartarazlea dute batzuetan:

[Ø] Sam 173	<i>Ascoc dauquez berba onac auan;</i> <i>Baña gogo charrac barruan:</i> <i>Eta griña char ondo sustraitua</i> <i>Gaztiagaz izango da zaartua.</i> JAM <i>Chacur bijac</i>
[Ø] Sam 199	Sinisgacha ta zurra Ez bazara batzuetan Zabaldua dago gaiztuetan Berba laban ta guzurra. JAM <i>Catua eta Chorijac</i>

Poesia berridazteko moduak. Jatorrizkotik ahalik eta hurbilen itzuli nahi duen berridazle baten aurrean gaude. Izan ere, oso kontuan hartu zituen Mogelek jatorrizkoaren forma eta edukia. Eutsi egin zion gehienetan argumentuaren hari nagusiari.

Dena dela, batzuetan hari nagusitik desbideratu eta libreki itzuli zuen, narrazio-haria luzatuz, inausiz edo aldatuz.

Halaber, modu mimetikoaren zantzuak ere erakusten ditu, onomatopeien trataeran, sintaxi-egituraren bat kalkatzean, hurbiltze fonologikoak egitean, pertsona-izenak itzultzean eta abarretan.

Hala ere, orokorrean, modu analogikoaren eta modu organikoaren artean jauzika ibili zen Samaniegoren poesia berridaztean.

Ondorioak

Samaniegoren testuei hurbiletik jarraitzeko ahalegina egin zuen Juan Antoniok. Batez ere, Uriarteren bildumako alegietan da oso nabaria ahalegin hori esamolde, deskripzio, pertsona-izen, eta abarretan, zenbaitetan mimetiko izateraino. Behin baino

ez zen desbideratu nabarmenki Samaniegoren testutik, poema bere egin eta berariaz berridazteko: “Catu Eizari basokoa” alegian.

Guztiarekin, luzeagoak dira Juan Antonioren alegia guztiak. Izan ere, elipsi narratiboak esplizitatu zituen, batzuetan. Beste batzuetan, aukeratutako neurrien eraginez eletsu jokatzera behartuta egon zen.

Orokorrean, kultura-erreferente arrotzak, literatura-alusio jasoak eta metaforak ezabatu edo lautu egin zituen.

Testuen tonuari dagokionez, Samaniegoren ironia-alderdia erabat apaldu edo guztiz ezabatu zuen askotan Mogekek.

Horrelako berridazte prozedurak erabilita, gauzak garbi adieraztea zuen helburu, testu ulergarria egitea, hori guztia neoklasizismoko poetikaren baitan.

Bestalde, euskara edozein arlotan erabiltzeko gai zela erakutsi nahi izan zuen. Horretarako neologismoak erabili zituen baina, ulertuko ez zirelakoan, gaztelaniazko esanahia eman zuen parentesi artean.

Izen bereziak euskaldundu zituen, testua xede-hizkuntzan eta -kulturan hobeto uler zedin eta erabilera praktikoa izan zezan, azken buruan. Objektuak, izakiak eta ohiturak itzultzeko orduan ere manipulatu zuen testua. Nekazarien eta ehiztarien giroko ordainak eman zituen halakoak itzultzeko, baserriko bizimoduaren aberastasuna nabarmentzeko.

Metrikari dagokionez, Samaniegok 11-7 sarritan erabili zuen. Berdin-berdina egiten saiatu zen Juan Antonio. Hala ere, ez zuen errespetatu gaztelaniazko ahapaldi-sistema. Errimari dagokionez, gaztelaniazkoaren aurrean menpekotasuna erakusten du, errima kontsonantea hautatu baitzuen, euskal ereduko hoskidearen kaltean. Erakutsi nahi izan zuen euskara gai zela edozein neurri- eta errima-sistemara egokitzeko.

Irakaspenetan mezu berbera eman zuen gehienetan. Batzuetan, hala ere, areagotu egin zuen kritika soziala; bestetan, kutsu moralistagoa hartzen dute mezuek. Irakaspenen mezua emateko moduan, Samaniego soutilagoa da: irakurleak atera behar

ditu ondorioak sarri. Juan Antoniok, aldiz, zenbaitetan, adibidez hornitu zuen testua, edo, bestela, luze garatu zuen jatorrizko esaldi bakarreko mezua.

Kristautasun- eta jainkozaletasun-zipriztinak badira, han-hemenka, Juan Antonioren alegietan. Ildo horretan, testua manipulatu zuen bere sinesmenekin talka egin ez zezan: Samaniegoren antiklerikalismoa esplizituki edota ironiaz agertzen zuten testu-zatiak ezabatuz, jainko paganoen izenak kenduz, eta kristau-kontzeptuak testura ekarriz. Irakaspenetan ere desbideratu zen behin baino gehiagotan jatorrizkotik, eta agerian utzi zuen kutsu moralista kristau hori.

Emakumearen irudi diferentea eman zuen Samaniegoren testuaren aldean: emakumea menpekoago agertu zigun.

Manipulazio horiek guztiek alegiak moral kristaura etorrarazteko eta testua naturalizatzeko eta irakurleei hurbiltzeko helburu argia erakusten dute, oro ohar.

VI.2.3. Juan Mateo Zabala (1777-1840)

Ideologia

Bilbotarra. Frantziskotarra. Misiolari ibili zen Bizkaian. Zarauzko komentuan bizi izan zen 25 urtean, eta han hil zen. Euskarari buruzko lanak idatzi zituen, baina hil ondoren argitaratu ziren denak. Horietakoa dugu *Fábulas en dialecto vizcaíno* (1907, 1909), luzaroan argitaratu gabe egondakoa.

Izan ere, Azkuek eskuizkribu bat aurkitu zuen Parisko Liburutegi Nazionalean, eta Urkixori bidali zion, adieraziz, bere ustez, eskuizkribu hura Zabalarena zela.

Eskuizkribu horretako “Sarrerea”n zenbait ideia utzi zizkigun bere pentsamoldeaz. Zabalak sarrera hartan bertsoz idatzi zuen euskaldunok ez dugula erdararen beharrik bertsoak ipintzeko, argi utziz, horrela, Larramendiren jarraitzailea zela.

Eskuizkribu berean “Anchinaco euskaldunen alabantzac” ditugu, Zabalak eskuizkribura ekarritako bertsoak, norenak ziren ez zekiela. Zaila da esaten bertsook aukeratu izanak noraino erakusten duen Zabalaren ideologia; edozein modutan, euskaldunen aldeko apologia egiten da, eta euskara, fedea eta legeak dira gai nagusiak.

Gutziz ezkorra zen Zabala, ordea, euskaldunon euskararekiko atxikimenduari dagokionez. Izan ere, 1826an Ulibarri arabar euskaltzaleak Zabalari galdetu zion ea bazuen gogorik euskarazko hiztegirik eta gramatikarik egiteko eta Forua itzultzeko. Zabalak erantzun zion ez zuela merezi hainbeste diru eta denbora xahutzea gero inork erosi eta irakurri behar ez bazituen⁴¹. Euskararen orduko egoeraren berri ematen digu datu horrek.

Poetika

Asko idatzi zuen Zabalak, prosan batez ere, sermoiak zehazki, Bizkaian eta Gipuzkoan predikatuak egiteko (Arejita, 1998: 3). Genero didaktikoa da sermoigintza, irakasteari lotua, eta, uste izatekoa denez, alegiek helburu hori berori badutelako hautatu bide zuen alegiagintza bilbotarrak.

Uste hori finkatzeko, interesgarria da oso alegiei egin zien “Berba-aurrecoa” (Zabala, 1907: 91-92). Aitzakiak jarriz zuritu nahi izan zuen bere zaletasuna: “¿Noc esango eustan neuri ipuin-guiñan eguingo nevala?”, “... etzala ori ez ene bururaco, ez ene bici-moduraco”, eta makalaldi batean idatzi zituela. Alegia batzuk bereak zirela adierazi zuen, berak apainduak eta biribilduak; beste alegia batzuk, berriz, inorenak zirela eta “Bizcai-coratu” egin zituela. Gainera, Bizenta Mogelen hitzaurreko ideia batzuk kopiatu eta ipuinzaletasunaz eta Peru eta Mariaren ipuinen sustraibakotasunaz jardun zuen Zabalak: “Baakit nic gueure euscaldunac ipuinzaleac direala. Gogoan dot oraindo celan umetan entzun gueroazan aoa zabalac eta adurra erigula, Peru ta Mariaren ipuin sustraibaacoac” (cf. Bizenta Mogel, 1804: 7 eta 10).

Eta alegiagintza zeregin dongea edo alferren egitekoa ez dela argi uzteko, bere ogibidearen arlora ekarriz, ebanjelioko parabolak (cf. Goyhetché, 1852: VI)⁴² irakurtzeko dio, hango ipuin, ikaskizun eta irudietan aurkituko baitu irakurleak aurreiritzi horiek uxatzeko modua.

⁴¹ Ikus Ulibarriren *Gutunliburua*, 1975: 1826ko epaillaren Ieko Ulibarriren gutuna eta 1826ko martiaren 9ko Zabalaren erantzuna.

⁴² Urte batzuk geroago, Goyhetchek idatzi zuen alegiak direla “Ebanyelioco parabola eta comparantcen idurico condaira labur batçu...”

Alegien onbidez eta haien moralaz jardun zuen, bestalde; “ipuin mamintsu on” deitu zien alegiei, eta kontuan hartu eta bete beharrekotzat jo zituen: “irakurri eguizuz eta eguizezuz ipuin on oneec: eta alan baderitzazu buruz hartu”.

Hain zuzen ere, irakurleak buruan erraz har zitzan, bertso neurtuetan eman zituen Zabalak alegiak, Anjel Zelaietak azpimarratu zuenez:

...ipuingintzaren jomuga irakastea da gehiago, atsegingarritasuna baino (...). Arrazoi hauexengatik idatzi izan ditu, neurri handi batean, hitz-neurtutan ere, irakurleak buruan errez har ditzan (in Zabala, 1986: 25).

Zelaietaren iritziz (ibidem: 26) “...ba dirudi irakurleago zabalago batentzat diharduela: «irakurri egizuz ta egikezuz» dionenean, ez du inolako mugarik jarten”.

Corpusa eta iturriak

Hil eta gero argitaratu ziren Zabalaren lanak. Oztopo da hori jakiteko alegiak noiz idatzi zituen. Bi zehaztasun ditugu, hala ere, horren inguruan. Lehena, Ruiz de Larrinagarena (1924a: 80): “Como en ninguna de las cartas que forman su correspondencia activa y pasiva con Lécluse hemos visto la menor alusión a estas Fábulas, y además la mención que de ellas se hace en su obra principal «El Verbo Regular» es hacia su fin o término [...] creemos que las compondría en sus últimos años”. Izan ere, Zabalak *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* liburuan adierazi zuen alegia-bildumatxo bat ondua zuela: “Yo tengo formada una pequeña colección de doce fábulas ajenas, y veinte y tantas mías” (Zabala, 1848: 166). Bigarrena, Akesolorena (1977: 51): “Itz-aurrea ezarri eutseneko, 1833gn urtea zan gitxienez, J. Bizenta (sic) Mogelek aurreko Gabonetarako atera eta argitaratu eban kantua bertan aitatzen dan ezker”. Horiek direla eta, Zabala hil zen urtea hartuko dut gutxi gorabeherako alegien sortze-data gisa. Hortaz, c. 1840.

Gauzak horrela, bi zatitan, *RIE* Ven argitaratu zuen eskuizkribua Urkixok, 1907 eta 1909. urteetan, “Fábulas en dialecto vizcaino” izenarekin. 1909ko *RIE* Ven, eskuizkribuaren azken atala azaltzen da, aurkibide moduko bat, “Liburu onec dituzan gauceen barri laburra” deritzona, eta bertan eskuizkribuaren edukia zerrendatzen da: “Berba-aurrekoa”, “Sarrerea”, “Anchinaco euscaldunen alabantzac”, “Ipuiñen aurreco yakin-bearra”, “Ipuiñ onac”, 35 ipuin guztira, eta “Notas...”, hiztegi moduko bat. Ipuin on horien aldamenean, batzuetan, egilearen izena adierazi zuen Zabalak, honela:

“Moguel-ena” (3, 6, 12, 15, 20, 22, 25, 28, 30, 31 eta 32. ipuinen ondoan); “Salaberrirrena”⁴³ (21.aren ondoan); “D^a Maria Vicenta Antonia Moguel-ena” (35.aren ondoan). Gainera, J. A. Mogelen 22 eta 30. alegien aldaera bana eman zuen, zenbakirik gabe.

Beraz, 35 alegietatik 11 J.A. Mogelenak dira, bat Salaberrirrena eta beste bat Bizentarena. Zabalarenak 22 dira.

Orduz geroztiko edizioek, hala ere, zifra hori nahasi egin dute, “Zabalkundea” atalean ikusiko dugun bezala. Nahaspila Zabalak berak sortu zuen, eskuizkribuaren “Berba-aurrecoa”-n honela esan baitzuen: “Ogueta bat dira neureac ta amabi besteenac” (Zabala, 1907: 91). Dena dela, Ruiz de Larrinagak (1924a: 80) dio auzia argituta utzi zuela Zabalak, *Enmiendas y Adiciones* liburuxka argitarabakoaren 16. orrialdean: “22 son mías y 12 agenas”.

Zabalaren alegien iturriei buruz Aitzolek hausnartu zuen (in Zabala, 1934: 15). “Ez deritzaigu ogeitabat alegi oetatik Zabala’renak yatorriz diranik, agian, bat edo beste ez izanik. Baliteke berea «Madril’go itsu barri zabaltzallak»... Hartzenbusch alegiariarena ez bada, noski”. Neuk egiaztatu dudanez, alegia hori ez da Hartzenbuschena. Bestela, zuzen ibili zen Aitzol: batetik, alegia gehienak ez dira jatorriz Zabalarenak, eta, bestetik, bakarren batzuk Zabalak sortuak-edo dira. Baliokidetzak ematen saiatu zen Aitzol, eta Esopo, Fedro, La Fontaine eta Samaniego baliatu zituen Zabalarekin alderatzeko⁴⁴. Nire ustez, hala ere, ez zen fin ibili baliokidetzak batzuk finkatzeko garaian: Zabalak ez zituen Fedro eta La Fontaine iturri gisa erabili; bai, ordea, Esopo, *Isopete* eta Samaniego. Nire irakurketen eta konparazio lanaren ondorioz, honela egokitu ditut, iturriaren arabera, Zabalaren 22 alegiak: Esopotik, zazpi alegia; *Isopetetik*, alegia bat; Samaniegotik, lau alegia; hibridoak, sei alegia. Lau alegia beste nonbaitetik hartuak diren edota Zabalak sortuak ote diren ez dakit. Alegiak ba ote diren ere, zalantzatan jarriko nuke, gainera: “Ama-alaba,

⁴³ Zabalak Lécuse-ren *Grammaire basquetik* hartu zuen Salaberriren “Bi adinen arteco guifona eta bere bi emaztegayac” alegia (1826: 215-216).

⁴⁴ Baliokidetzak hauek utzi zizkigun:

“Zaldi artoa eta asto apala”k Samaniego’ren “El asno y el caballo”rekin anaitasuna du. “Agure gogaitua ta balbe txarra”k La Fontaine’ren “El leñador y la muerte”rekin eta Samaniego’ren “El viejo y la muerte”rekin. “Osagilla, gaixoa il ezkeroz erremedioa esan euana”k Esopo’ren “El médico y el enfermo”rekin eta Samaniego’ren “El enfermo y el médico”rekin. “Ezkongea eta emaztegai biak, gaztea ta zar-nastea”k Fedro’ren “El hombre con dos amantes”ekin. “Asto nekeak amaitua ta illa, ta zaldi biotz gogorra”k Esopo’ren “El caballo y el asno”rekin eta Samaniego’ren “El asno y el caballo”rekin; “Leoiartz auska indargetuak, ta lukia”k Esopo’ren “El león, el oso y la zorra”rekin... (Aitzol in Zabala, 1934: 15).

cardanchillo eder cantaria miruac ilten icusiac”; “Madrilgo itsu barri zabaltzaillac”; “Guizon parrasta ta guizon yakina” eta “Il baten ganeco ama-aizteen negarrac, ta erostarienac”.

Hortaz, 18 alegia dira lan honetan erabilitako egile klasikoak iturri dituztenak⁴⁵.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Mateo Zabala	<i>Fábulas en dialecto vizcaíno</i>	c. 1840/1907	17 hn	7 Eso 1 Isop 3 Sam 3 hibri
	<i>Fábulas en dialecto vizcaíno (jarraipena)</i>	c. 1840/1909	5 hn	1 Sam 3 hibri

ZABALA, Juan Mateo (c. 1840/1907). “Fábulas en Dialecto Vizcaíno”, in Julio de URQUIJO (1969), *RIEV*, Tomo I, 90-98, 529-543.

[“Zaldi artoa, ta asto apala” **Isop III-3**. “Azuarra ta luki miñ-artua” **Eso 31**. “Ugazab’andra eraguin-guilleguia, eta nescatilla otsein ollar-iltzallac” **Eso 89**. “Arraintzalle uste utsetacoac” **Eso 23**.]

[“Erbi bicitzeaz gogaituac ta ugarashioac” **Eso 191**. “Agure gogaitua ta balbe charra” **hibri**. “Asto iru yabe bata baño bestea deungagoac izana” **Sam IV-2**. “Guizon escu-eutsi lanez betea ta adiskide esan onecoa” **Eso 344**. “Aceri mats-gurea” **hibri**. “Catu ariman bildur-eguiac” **Sam VII-9**. “Osaguilla, gaishoa il ezkerro erremedioa esan evana” **Sam IV-5**. “Aztu, besteen gauceen igarlaria, ta bereetan itsua” **Eso 233**. “Asto nekeac amaitua ta ila, ta zaldi biotz gogorra” **hibri**. “Leoi-artz auska indarguetuac, ta lukia” **Eso 200**.]

ZABALA, Juan Mateo (c. 1840/1909). “Fábulas en Dialecto Vizcaíno (jarraipena)”, in Julio de URQUIJO (1969), *RIEV*, Tomo III, 27-40.

[“Ollar bi pelascatuac ta gudatuac, gueiago eguina ta azpiratua” **hibri**. “Basauntz mats-orri-yalea” **hibri**. “Ilteco egoan gurasoaren burubide ona ta ume cintzoro bearguillac” **hibri**. “Isopo agurea yolastuten ta olguetan” **Sam VII-6**.]

Kritika

Iritzi-ildo nagusi bi ditugu. Lehenak adierazten du indarra falta dutela Zabalaren alegiek. Eguskitzaren iritzian, esaterako, gatzik gabeak dira. Zabalaren euskara goraiatu arren, oro har, bilbotarrak huts egin zuela dio Eguskitzak:

⁴⁵ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

...Zabala'ren ipuin oneik euskera garbi ta edefean dagozala esan daikegu; baña, tamalez, gatz eta gazo gafi gitxitxu dauke. Gayak, bai, gayak egokiak dira; baña *egostarin* eta *gazaegi* dagoz-ta, ipuin bikañak daukaguzanik ezin esan daikegu (1922: 28).

Mitxelenak antzeko zerbait diosku (1988: 121): "...correctas pero frías...". Baita Igone Etxebarriak ere (in Agirreazkuenaga et al., 1991: 143): "...zuzen eta egoki idatzita egon arren ez dauke Iturriagarenak dauken bizitasunik".

Bigarren iritzi-ildoko kritikoek Zabalaren alegiak goraiatu egin dituzte. Aitzolen ustez, esaterako, "irudipen aberatsekoa zan... Bere olerkiak bertsoz oparotsuak, itzez aberatsak, esakeraz iaioak eta aditza erabiltzen bikaiñenetakoak ditugu" (in Zabala, 1934: 16). Areago, Zabala baino alegialari hoberik ez da jaio, Aitzolen iritzian: "Bere aiñekorik ez degu eduki. Idazle bezela gure izkera sakonkiro ezagutzen zuan. Ba ditu bere akatsak; baiña olerkiok darioten irakaskintza bikaiñenetakoa degu".

Etxaide, halaber, Zabalaren bertsogintzaren zalea da. Haren iritzian (1958: 166), alegialari zaharretan "garaiena, jatorrena, euskera erabiltzen giarrena ta gorena" da Zabala. Gainera, bilbotarra iaioa da bere alegiei "euskal-kutsu jatorra eraxten eta berebere zaion nortasunez jazten" (ibidem: 167). "Euskal-mentalitatez jantziena" iruditzen zaio Etxaideri (ib.: 171).

Epelago jokutzen dute Orpustanek eta Arejitak. Orpustan ez zaigu adoretzu agertzen Zabalaren alde, ezta aurka ere (1996a: 147): "Du moins signalent-elles la permanence de la vogue des fables depuis la fin du XVIII siècle". Arejitak, berriz, dio "...bilduma labur, ustez apal, baina ondo borobildurikoa" dela (1998: 3).

Zabalkundea

Urkixok *RIE* Ven argitaratu zituen geroztik, hirutan plazaratu dira Zabalaren alegiak.

"Euskaltzaleak" elkarteak edizio bat atondu zuen 1934an, Aitzolen hitzaurrearekin, *Eusko alegiak* izenburuarekin. Izan ere, Azkuek Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresuan adierazi zuen pena zela Zabalaren alegiekin liburu bat ez egitea (*Primer Congreso...*, 1919: 478). Beharbada, Azkueren esanak akuilaturik prestatu zuten edizioa. Liburu hartarako, Mogelen alegiak baztertu ziren. Baina, akats batzuk gertatu ziren: 22. alegia eta haren aldaera, biak Juan Antonio Mogelenak, Zabalaren

alegiak balira bezala azaldu ziren; hortik, seguruenik, Aitzolen hutsa alegia-kopurua emateko orduan (“ogeita lau dituzu Zabala’ren alegiak”).

Anjel Zelaietak edizio bat prestatu zuen 1986an: *Fábulas en dialecto vizcaíno*. Zabalaren eskuizkribuko alegia guztiak argitaratu zituen Zelaietak edizio horretan⁴⁶.

Kortazar eta Billelabeitiak Uriarteren bilduma argitaratu zuten, *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaíno* izenarekin (1987). Orduan berriz ere ikusi zuten argia, Zabalaren 10 alegiak⁴⁷, eskuizkribuko 4, 5, 8, 11, 16, 17, 18, 26, 29 eta 33.ak hain zuzen. Gainera, bi bildumen arteko (*RIEV*, Uriarte) desberdintasunak eman zituzten edizioaren egileek.

VI.3. Alegiak gaztelania eta frantsesa ikasteko

Euskal eremuetako eskola-ume gehienak euskaldun elebakarrak ziren XIX. mendearen hasieran, eta irakaskuntza-hizkuntzak, berriz, bi erdarak, kristau-ikasbidea irakasteko izan ezik, tradizioz, euskaraz irakasten baitzen, bai hegoaldean (Eguren, 1867: VI) eta baita iparraldean ere (Iztueta, 1996: 230). Kristau-ikasbidea izan zen, hortaz, euskarazko alfabetatze bide bakarra urte askoan.

Izan ere, erdarazko irakaskuntzak bere bidea egina zuen XVIII. mendean, euskara baztertzen zuten txosten, xedapen eta debekuen bidez⁴⁸. Lehen tresna juridiko horien ondoren irakaskuntza publikoa finkatzeko legeak onartu ziren: Guizoten legea (*Loi du 28 juin 1833 sur l’instruction primaire*) eta Moyanoren legea (*Ley de Instrucción Pública*, 1857). Lege horiek mugatu zuten irakaskuntza publikoaren hizkuntza-politika, frantsesaren eta gaztelaniaren mesedetan eta gainerako hizkuntzen kaltean. Euskal

⁴⁶ Honela diosku Zelaietak: “Beste zenbait, hots, 3, 6, 12, 15, 20, 22, 25, 28, 30 eta 31.ak Juan Antonio Mogelenak dira”. Ahaztu egin zitzaion Zelaietari 32.a aipatzea.

⁴⁷ Hona izenburuak: “Madrilgo itsubarrizabaltzallaac”; “Guizon escu-etsi”; “Ollar pelascatuac”; “Ilteco egoan”; “Guizon parrasta, ta guizon yaquina”; “Medicu gaissoa il ezquero”; “Azuarra ta luqui min artua”; “Il baten ganeco”; “Ugazaba andra eraguinguilleguia”; “Erbi, bicitzeaz gogaitua eta ugarasioac”.

⁴⁸ Espainiako erresuman, Carlos III.aren 1768ko “Real Cédula” erret-agiriko VII. artikulua xedatu zuen lehen letrak, latina eta erretorika gaztelaniaz irakats zitezela.

Frantziako Errepublikan, berriz, “Barère-ren txostena”-k (1794) ohartarazi zuen ezen “le fanatisme parle le basque. Cassons ces instruments de dommage et d’erreur”. Geroago, urte berean, *Convention Nationale*-aren dekretuak xedatu zuen hainbat departamendutan, haien artean Pirinio Apaletako departamenduan (“dans la partie des Basses-Pyrénées dont les habitants parlent un idiome étranger”), ezen udal guztietan irakasle bana ezarriko zela frantsesa irakats zezan.

Herriko eskoletan gaztelania eta frantsesa nola irakatsi izan zen, horregatik, irakasleen kezka nagusietako bat.

Eskoletan, hizkuntza administratiboak sustatzearen aldeko testuinguru horretan, ekimen elebidun batzuk bideratu zituzten zenbait irakaslek, gaztelaniaz edo frantsesez irakurtzen eta idazten ikastea errazagoa izan zedin: hiztegiak eta gramatika elebidunak argitaratu zituzten (Astigarraga 1825, Iturriaga 1841 eta 1842, Archu 1852 eta 1868, Eguren 1867 eta 1876) eta alegiak itzuli (Astigarraga 1825, Iturriaga 1842, Archu 1848).

Gramatikak eta hiztegiak argitaratzeko zioei buruz, Astigarragak honako hau idatzi zuen:

Para facilitar, pues a la juventud bascongada el estudio de la gramática castellana y aun de la latina he creído muy conveniente coordinar y publicar este diccionario manual poniendo de él algunas observaciones sobre ambas lenguas (Astigarraga, 1840: V-VI).

Archuk bere gramatika elebiduneko aitzin oharrean, berriz, honako hau:

En composant cette Grammaire bilingue, l’auteur a eu pour but de fournir aux instituteurs du Pays Basque un moyen facile d’initier leurs élèves à la connaissance de la langue française (Archu, 1868: “Avertissement”).

Lasaren iritzian, ekimen horiek, zenbaitetan, euskara eskoletan defenditu nahi izatearen seinale izan ziren (1968: 29). Beste kasu batzuetan, gaztelania eskolan sartu beharra itzulitururik gabe aldarrikatu zen. Hori dugu Eguren ikuskatzailearen kasua:

La conveniencia y hasta la necesidad apremiante que hay de enseñar la lengua castellana en las escuelas de Guipúzcoa es hoy notoriamente reconocida (1867: V).
[...] los que no entienden el castellano se ven privados de uno de los más poderosos medios de progreso intelectual (ibidem: VIII).

Edozelan ere, hizkuntza ordezkatzeko urrats erabakigarriak izan ziren ekimen horiek guztiak, irakaskuntza-sistemako euskal ikuskatzaile eta maisu haien bultzadaz. Uste izatekoa da, hala ere, egoera aurre-elebidun horretan, nola edo hala, euskara ere landuko zela. Euskarak lortu bide zuen garapen mailaz mintzatu zaizkigu Eizagirre eta Dávila:

...gaztelera eta frantsesaren ezartze politika honek euskaraz irakurtzeko eta idazteko garapen maila bat suposatu zuen zeharka; hizkuntza arrotzen ezagutza errazteko asmotan eskoletan erabili ziren irakurketa-testu, doktrina eta hiztegi elebidunen bitartez hain zuzen (1991: 34).

Euskarazko irakaskuntzaren aldeko gogoetak, aitzitik, gutxi izan ziren. Bakarrenetariko bat Jose Pablo Ulibarrirena dugu. Arabar euskaltzale hark euskal eskolak sortzeko ideia aurkeztu zuen Gernikako Batzar Etxean 1829-1830ean, ikasketak euskaraz egin zitezen. Eskolako hizkuntza-arazoa garrantz ekarri zuen hizpidera Ulibarrik *Gutunliburuan*:

Guero onelangoac ecarten ditubes maizusat herdaldunac escoletan eta gauza guztietan lotsa guichiaz Vizcai Donzua galduteco (Ulibarri, 1975: 9).

Akesolok Ulibarriren figura hartu zuen ikergai, eta haren asmoak eta ekintzak gogorarazi zituen:

[...] promovía la rehabilitación social del euskera. [...] hizo campañas en favor de que se implantase oficialmente en el País Vasco la enseñanza del vascuence en las escuelas, y propuso a quienes juzgó más capacitados la preparación de un diccionario y una gramática que recogieran el más completo caudal de voces y de leyes del habla vasca. Y aún fue más ambicioso en sus planes y exigencias, que no se contentaban con menos que la implantación de lo que pudiéramos llamar escuela vasca, es decir, enseñanza del vascuence y enseñanza, además, en vascuence sobre todas las asignaturas corrientes en cualquier otra escuela o grado de enseñanza (in Ulibarri, 1975: VIII).

Alegiak, bada, erdaren aldeko giro horretan argitaratu ziren (Iturriaga 1842, Archu 1848). Bi erdarak ikasteko material gisa argitaratu ere: Archuk berariaz aitortu zuen helburu hori bere liburuaren hitzaurrean; Iturriagak horrelakorik ez zuen adierazi baina, edozein modutan, “dakigunetik ez dakigunera” erabili ohi zuen leloarengatik, bere alegiak Samaniegoren alegiekin konparatzeko erabili izana oso litekeena da, hots, gaztelania euskarazko testuen bidez ikasteko.

Oso adierazgarriak dira, horren harira, Astigarragaren *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramáticako* hitzak alegien erabilerari buruz:

También podrán imprimirse algunas fábulas, modelos de cartas y diálogos que tengo trabajados en ambos idiomas, los cuales servirán de grande auxilio á los bascongados para ir aprendiendo bien el castellano, el latín y cualquiera lengua extranjera, pues todas ellas están sugetas como la castellana y latin, á las reglas invariables de la gramática general (Astigarraga, 1840: VII).

Adibide gisa, Ibáñez de la Renteríaren alegia bat eman zuen gramatika-analisisa egiteko (ibidem: 64): “FABULA, que sirve de ejemplo para el análisis gramatical. EL LOBO Y LA MARRANA (Rentería – Libro I. Fábula 53).”

Eta pedagogikoki, gramatika ikasteko, poesia ere erabili beharra arrazoitu zuen (ib.: 65): “Como el ejercicio de analizar, ya la prosa y ya la poesía es uno de los que más contribuyen a que los jóvenes hagan progresos en el estudio de la gramática...”

Alegiak, beraz, espresuki erabili ziren hizkuntza-konparazioan garai hartan.

VI.3.1. Agustín Pascual Iturriaga (1778-1851)

Ideologia

Etxe handiko semea izan zen. Andoainen eta Oñatiko unibertsitatean ikasi zuen, eta pentsaera ilustratu-liberaleko giroan hezi eta hazi zen. Elizgizona izan zen.

Bi lagun-talde izan zituen Iturriagak: bat Hernanin, bestea Donostian. Jende ikasia zen, lagunarte jaso, goi-mailakoa, jende ilustratua, askotariko ideologiak biltzen zituen. Haiekin biltzen zen lagunartean, honetaz eta hartaz hitz egiteko. Aurreko belaunaldietako ilustratuen nahiak sumatzen direla diosku Andres Alberdik (1990: 9), Iturriagaren eta haren inguruko lagun kezkatuen artean (Berroeta, Lasala, Iztueta...). Garai bateko Bergarako Mintegian eta hernaniarraren eskolan, bietan ikusten da gizartean hezkuntza hedatzeko premia.

Kezka horrek akuilaturik, irakaskuntza-kezka puri-purian zebilen giro batean bizi baitzen, Iturriagak eskola bat sortu eta kudeatu zuen Hernanin, anaia Cayetano eta Manuel Larrarte maisuarekin batera, 1818an hasi eta 1823ra bitartean, eta arrakasta handia izan zuen. Espainiako «Trienio Constitucional» aroa (1820-1823) bukatu zenean eten zen eskolaren ibilbidea. Eskolak ez zuen lortu irakaskuntzan jarraitzeko baimenik, konstituzio erregimenaren aldekotzat jo zutelako (Alberdi, 1990: 3).

Eskola zabalik izan zuen garaitsu horretan, proiektzio publikoa ere izan zuen, ordeko diputatu izan baitzen Gipuzkoatik Espainiako korteetarako. Apalegia iritzi zion, ordea, kargu horri Lasala adiskideak (Lasala, 1884: 17): “pudo ser mucho en la política española y no pasó de Diputado á Cortes suplente elegido por Guipuzcoa de 1820 á 1823”.

Baina, bere pentsatzeko moduagatik-edo, salaketa anonimo baten sufrikarioa nozitu zuen Iturriagak (1822-10-20). Agi denez, Hernaniko maisuak egina⁴⁹. Salaketaren edukia Arocenak eman zuen osorik (1952: 7). Hona ale batzuk: Voltaireren

⁴⁹ Mariano Arizmendi, Hernaniko maisua. Izena Mikel Zalbidek jakinarazi zuen, Euskaltzaindiako sarrera-hitzaldian (2007: 72). Baina arretaz erabiltzeko datua dela gaineratu zuen. Azterraldia behar duena.

aldeko zela eta haren dotrinaren hedatzaile, herriko gazteria galbidean jartzen ari zela, iruzurtia eta engainatzailea zela.

Lasalak Iturriagaren alde mintzatu behar izan zuen esanez (1884: 15) hernaniar apaizak Espainiako literatura oso atsegin zuela eta Frantziako filosofoen gorabeherei adi egoten zela, baina, hala ere, “nadie he conocido más alejado de todo lo que fuera Enciclopedia que Iturriaga”.

Lehenengo karlista-gerraren ingurumarian kokatu behar dira, inondik ere, idazki izenpetugabea eta hark erakusten duen etsaigo-tonua.

Hala ere, izenpetu gabeko idazki kaltegile horrengatik, eta bestelako etsaigo-moduengatik, erbestea ezagutu zuen. Bere gogoz Hondarribira aurrena, eta eliz agintez Zestoara hurrena, 1823an (Zugasti, 1954: 27; Zalbide, 2007: 75). Hurrengo urtean, baina, Hernanira itzuli zen, eta handik gutxira epaiketa egin zioten: errege-indultuaren barruan gelditu zen isuna ordainduta, baina debekatu zioten irakasle-lanean jardutea.

Orduantxe hasi zuen Juan Inazio Iztuetarekin gutun-trukea⁵⁰, haien arteko harremanaren lekuko (ikus bedi Garmendia, 1968: 166-190). Euskararen iraupena eta egin asmo zituzten euskal lanak izan zituzten hizpide, besteak beste, gutun horietan: “euscara ederra ez galceco baicic aberasteco ta apaintceco eguiten ari gueran liburuchoc” (ibidem: 169); “...gure eusquera escuetatic joan ez daquigun...” (ib.: 170); “...la Junta del fomento se reunirá dentro de poco y se tratará en ella de pedir permiso para la impresión de la cartilla y libros. No creo que encuentre dificultad en conseguirlo... está conseguido lo que buscamos, que es la conservación de nuestra lengua” (ib.: 182); “...sin recurrir a la Junta de Inspección de Madrid, donde puede haber enemigos de nuestra lengua, y aquí enemigos de otra especie en la Junta de Inspección del Pais” (ib.: 186).

Era berean, garai hartako gipuzkoar agintariengan ere nabari da Adiskideen Elkartearen itzala. Irakurri besterik ez da egin behar 1830eko ekaineko Batzar Nagusien erabakiak zer zioen. Izan ere, Sustapen Batzorde bat sortzea adostu zen industria, merkataritza eta euskara indartzeko. Egitasmoaren bultzatzaileek berek adierazi zuten

⁵⁰ Zalbideren ustez, gutun-harremana 1824tik aurrerakoa izan zen, hots, eskola itxi ziotenetik aurrerakoa (2007: 140).

Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen antzeko zerbait egitea zutela helburu (Lasa, 1965: 185).

Iturriagak, Gipuzkoako Batzar Nagusien eskariz, 1830ean txosten bat egin zuen, *Memoria*, euskararen iraupenari buruz (in Lasa, 1965: 187-196). Txosten horretan garbi adierazi zuen umeez eskoletan irakurtzen euskaraz ikasi beharko zutela lehenik eta ondoren gaztelaniaz, eta ez, ordura arte bezala, gaztelania jakin gabe, irakurtzen gaztelaniaz ikasi, zigorrak erabiliz, eraztunarena, kasu. Gaizki iritzi zion, baita ere, umeez eskola barruan gaztelaniaz hitz egin behar izateari, iruditzen baitzitzaien hitz egiten hasi orduko maila bat beharrezkoa dela, eta, horregatik, gaitzetsi zuen “por imitación” ikastea.

Iztueta-erikiko gutun-trukean ere antzeko iritziak irakurtzen dizkiogu (Garmendia, 1968: 179): “Orain dala saspi urte hume choaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nubenean cer eraqueria andia eguiten zan emengo escoletan erderaz gaiztia iracurtcen eracustearaquin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea. (...) Iduritcen zat eusquerasco liburuetan bear litzaqueala gure escoletan eracutzi iracurtcen erderascoetan asi baño leen. (...) Beti naigabe andi batequin ecustenditut gure muthilchoac iracurtcen erderasco liburuac, monjac latinescoac becela, cer iracurtcen duten ezdaquitela, eta adinic onena ecer icasi gabe iragotcen zaiotela.”

Iturriagak argi azaldu zuen gaztelaniak eta euskarak elkarren eskutik joan behar zutela irakaskuntzan, era horretara bai euskara eta bai gaztelania aterako baitziren irabazten. Argi zeukan, ordura arteko eskolaren metodologiari jarraituz gero, euskara desagertzeko bidean jarriko zela. Eta euskararen desagertze horretan tresna nagusia eskola zela.

Horrelakorik gerta ez zedin, gaztelania erakusteko garai hartako metodo bortitzei kontra egin zion (eraztuna, erdara hutsezko irakaskuntza...), eta elebitasun kengarriari kontra egin zion, hots, euskara-gaitasuna garatu ordez hizkuntza hori ezabatu nahi zuen hezkuntza-sistemari aurre egin zion, eta, horren ordez, sen onak agintzen zuena proposatu zuen: “se debe proceder siempre de lo conocido a lo desconocido” (in “*Memoria*”). “Dakigunetik ez dakigunera”, hots, euskaratik gaztelaniara.

Hizkuntzen auzi horretan, baina, hernaniarrak argi zuen, Peñafloredak-eta bezalaxe, gaztelaniaren beharra zutela Hegoaldeko euskaldunek. Esate baterako, *Diálogos basco-castellanos* liburuan hauxe esan zuen:

Es muy de estrañar que siendo el romance la lengua de nuestro gobierno, y estando los Señores maestros de primeras letras encargados de enseñárselo a sus discípulos, por sernos á los bascongados necesario é indispensable á unos, útil á otros y conveniente á todos, no se hayan proporcionado medios auxiliares, que faciliten su enseñanza (Iturriaga, 1842: “Prólogo”).

Luis Mari Mujikak adierazi zuen Iturriagaren metodoak benetako aurrerapena ekarri zuela, zigorrak baztertu zituelako, baina euskararen mendekotasuna nabarmendu zuen “respecto al uso definitivo del castellano, como vehículo cultural alto” (1979: 287).

Ildo horretan, Paulo Iztueta zorrotzago eta kritikoago agertu zen Iturriagaren asmoen eta helburuen aurrean (1996: 232). Haren ustez, Iturriagaren eta abarren metodo-liburuek “eskola euskararen bidez erdalduntzeko helburu didaktiko garbia dute”. Euskal testu hauek menerapen-tresna gisa hartu behar direla dio Iztuetak, “ikasle euskalduna erdalduntzea baitzen azken helburua”. Iztuetak ez zuen heziketa elebidun orekaturik ikusi Iturriagaren asmoetan.

Lasalak (1884: 5), aldiz, goraiatu egin zuen Iturriagaren ibilbidea, esanaz ez zela bizi izan korrante politiko jakin baten ikuspegi estuan: “...en él hacían armónicos un vivo sentimiento euskaro, el patriotismo español, el amor a la humanidad”. Azaldu zuen, baita ere, jarraikitasun handiz ekin ziola euskara lantzeari⁵¹:

Tenía, pues, amor al idioma por el idioma, á la literatura por la literatura. Y al dedicarse con tanta constancia á las letras euskaras hacía un acto recomendable; que bueno es procurar que se conserve algo un idioma primitivo... (Ib.:16).

Berriz ere erbesteratu behar izan zuen, 1835ean: lehenengo Hendaiara, eta Milafrangara gero, Arrangoitzeko markesaren Larraldeko jauregian bizitzera (Zalbide, 2007: 79-80). 1840an Hernanin zen berriro.

⁵¹ Nonbait, atzenda zuen euskara Iturriagak. Iztuetarekiko gutun-trukean agertzen du Iturriagak berak atzentze hori: “Nola guc ez degun icasi eusquera gueren gaste demboran, icasi izan guerezaquean (...)la lan andiari narraizquio, esagutcendet ceren itz bacoitcian dictionarioa escuan artubear, baña uste det irtengo naicela nolarebait sasitic, eta bearbada gure ondorenguac, gure lana dela bitarte, euscaldun ede(...) ateraco dira.” (Garmendia, 1968: 171).

Dirudienez, Larraldeko jauregian ondu zituen alegiak, Arrangoitzeko konde Bernaten laguntza izan zuela (Hiriburuko alkate, Iturriagaren eskaintzan irakur daitekeenez) (ibidem).

Hernanira itzuli ondoren, Iturriagak hiru liburu argitaratu zituen, eskola itxi behar izan bazuen ere, bere irakaskuntza-kezkaren adierazgarri zirenak: *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1841), *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842), eta *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado, dialecto guipuzcoano* (1842).

Haren liburuak eta pentsamoldea aintzat hartuta, euskal pedagogo aurrerakoitzat jo izan da Iturriaga. Tesi hori darabilte Lasak (1965), San Martinek (1978), Bujandak (1991) eta Odriozolak (1995). Hona, denek errepikatu duten ideia, eta San Martinek egoki adierazi zuena: “Irakaskintzari buruzko bere ideiak, pedagogia aldetik, garai hartarako aski aurreratuak ziren” (1978: 136).

Alegia-bilduma “Euskal-Erriko gazteriarri” eskaini zion Iturriagak, nahiz eta, inoiz, nekazariak aipatu zituen Iztuetarekiko gutun-trukean, bere lanen jasotzaile gisa: “Nic sinisten eta esperatcen dedan eran provinciaco Jaunac beguiratcen badie gure lanari, ecusico du cer gausac ateraco ditugun eta cer prochusoac (sic) necazari jendearentzat eta cer honra andia emango diogun euskalerriarri” (Garmendia, 1968: 174).

Ildo horretatik, Iturriagak alegiak jende xehearentzat idatzi zituela esan zuen Manterolak:

...y escribía á la vez sus fábulas para que sirvieran (...) de lectura corriente á nuestras clases populares, tuvo muy buen cuidado de ponerlas al alcance de estas, haciendo que todos sus cuadros se parezcan á los que nuestros aldeanos ven á cada momento en su propia casa, y que hasta el lenguaje de los héroes y protagonistas de sus alegorías sean el corriente y vulgar en el uso diario (Manterola, 1880: serie III, 38).

Poetika

Fábulas y otras composiciones... liburuko eskaintzan argi azaldu zuen ordurako latinez eta gaztelaniaz zeuden ipuinak euskaraz ere ematea zuela helburu, eta alegion azken xedea heziketa elebiduna zela.

Dakigunetik ez dakigunerako bide pedagogikoan, guztiz litekeena da, Iturriagaren asmoetako bat izatea lehenik ikasleek bere Samaniegoren euskal moldaerak irakurtzea, eta ondoren Samaniegorenak lantzea. Kontuan har dezagun, Samaniegok gaztelania lantzeko erabili zituela bereak Bergarako Mintegian.

Dena den, beste helburu batzuk suma dakizkioke Iturriagaren alegiagintzari, helburu linguistiko elebidunzale horretaz gainera. Esate baterako, moral-liburu gisa irakurria izatea. Manterolak egoki adierazi zuen:

Y es que éste, que atendía mas que á un fin lingüístico á un objeto literario, y escribía á la vez sus fábulas para que sirvieran de libro práctico de moral... (Manterola, 1880: serie III, 38).

Beste ildo batetik, euskal iruditeriara hurbiltzeko Iturriagak egindako ahalegina azpimarratu zuen Aitzolek:

Gure Iturriaga'ren elburu txalogarriena, auxe: arrotz ipuiak euskeraltzea eta eusko gogoari atsegin zaizkan amets ereduz eta irudiz apaintzea. Euskotasunez, olerkari atzerritarren alegiak kutsatzea (Aitzol, 1932: VIII).

Seve Callejak, Iturriagak generoa zergatik hautatu ote zuen galdezka zebilela, moda, irakurtzeko atseginak izatea eta irakaspenak edukitzea jo zituen arrazoitzat:

Zerk bultzatu ote zuen Iturriaga ipui liburu hau lantzeraz? Ziur aski aro honetako ipui boladak bultzatuko zuen eta zalantzarik gabe Hernani'ko ikasleentzat zer ikasi haundikoak eta gai atseginak izateak (Iturriaga, 1990: 7).

Corpusa eta iturriak

1842an, 60 urtetik gora zituela, argitaratu zuen Iturriagak *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado, dialecto guipuzcoano*. 49 alegia ditu liburuak. Alegiez gainera, beste atal hauek ere baditu: “Euskal-Erriko gazteriarri” eskaintza, Virgilioren lehen eta hirugarren eglogen bertsoak, San Inazioaren Martxa, ezpata-dantzaren letra eta 741 hitzeko euskara-gaztelania hiztegia.

1880an, Manterolak *Cancionero Bascon* (Tomo III, 44-70) 6 alegia gehiago argitaratu zituen, Iturriagaren eskuizkribu batean aurkitu zituenak⁵².

⁵² Halaber, eskuizkribu horretan aurkitu zuen, hasiera gisa, “Arcangoitzko Jauregiko seme, Iriburuko Alkate, Baionako batzarre andian esertzen dan Bernardo Jaunari” zuzendutako eskaintza (ibidem: 36).

Baita ere, eskuizkribuan, Iturriagaren liburuko azken hiru alegiak oso aldatuta eta beste bertso mota batean idatzita zeudela ikusi, eta argitaratzea erabaki zuen Manterolak: “Artzanora eta otsoa”, “Mendiak aurgiten”, “Aizkora eta kirtena”. Era berean, “Otsoa ta artzanora” alegiaren hirugarren aldaera bat ere argitaratu zuen.

Manterolak Iturriagaren testuek originalak diruditela idatzi zuen, alde handiak baitaude Samaniegoren alegien eta hernaniarraren alegien artean; edozein modutan, aldaeren oinarrian Samaniego dagoela iradoki zuen:

Las fábulas de Iturriaga, más que versiones o imitaciones de otra lengua, parecen originales. [...] se observa muchísima mas semejanza entre algunas producciones de Samaniego y de Lafontaine, [...], que entre el texto de Samaniego y las versiones guipuzcoanas de Iturriaga (Manterola, 1880: Tomo III, 37).

Aitzolek ere Samaniegoren lanarekin alderatu zuen Iturriagaren ekimena eta antzekotasunak bilatu. Aitzolen ustez, “Samaniego`k Bergara`ko ikaslientzat alegiak neurtu zituan bezelaxe, Iturriaga`k (sic) ere Ernani`ko ikastetxekoentzat mota orretako olerkitxoak sortzea bururatu zitzaion” (1932: VI). Arrazoi du Aitzolek; eta antzekotasun zehatzak behar izanez gero, hona bi: izenburuak eta eskaintzak.

Izenburuei dagokienez, *Fabulas en verso castellano* da Samaniegorena eta *Fábulas... en verso vascongado*, Iturriagarena. Izenburua erdaraz emanez, Samaniegori erreferentzia egitea zukeen Iturriagak helburu.

Eskaintzei dagokienez, hiru motibo komun dituzte: hasierako bertsoetan, gazteengana zuzentzeko modu adeitsua, “o jóvenes amables” eta “gazteri ederra”; erdialdean, piztien hitz egiteko gaitasunari buruzko aipamena, “Los perros, y los Lobos, / Los Ratones, y Gatos, / Las Zorras, y las Monas, / Los Ciervos, y Caballos / Os han de hablar en verso / Pero con juicio...” eta “Bai, on da jaquitea / chit omen zequitela / ederqui izquetan / chacur eta catuac, / auntzac, azeriac...”; eta, bukaeran, Esopo hizpidera ekartzea, “Pues escuchad a Esopo, / Mis Jóvenes amados” eta “Orra Esopo jaunac / nai duen saria / eta orra nic ere / nai dedan guzia”.

Alegiak irakurrita, honela sailkatu ditut, iturrien arabera: 51 alegiaren iturria Samaniego da, 3 hibridoak dira⁵³, eta “Anton ehegalgarria”, berriz, Iturriagak asmatutakoa delakoan nago.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Agustin Pascual Iturriaga	<i>Fábulas y otras composiciones...</i>	1842	49 hn	45 Sam 3 hibri
	<i>Cancionero Basco</i>	1880	6 hn	6 Sam

⁵³ Baina Samaniegok ez ditu.

ITURRIAGA, Agustin Pascual (1842). *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado, dialecto guipuzcoano: con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*. Donostia: Ignacio Ramón Barojaren moldiztegia.

[“Aceria eta Olloa” **Sam III-5**. “Chacur biac” **Sam IX-3**. “Errementaria eta Zacurra” **Sam I-9**. “Catu biac” **Sam VII-9**. “Hitz ontzia” **Sam III-15**. “Otsoa eta Arcomea” **hibri**. “Eche arratoya eta Soro arratoya” **Sam I-8**. “Esnasaltzallea” **Sam II-2**. “Astoa, eta Cherria” **Sam I-1**. “Berritsua” **Sam II-12**. “Abereac izurriarequin” **Sam III-2**. “Chicharra eta Chingurria” **Sam I-2**. “Iguelac erregue escatcen” **Sam II-16**. “Asto buru gogorra” **Sam II-3**. “Belea eta Aceria” **Sam V-9**. “Ollarra eta Aceria” **Sam IV-14**. “Auntzac eta aquerrac” **Sam II-19**. “Leoia eta Chimuac” **Sam I-12**. “Euliac” **Sam I-11**. “Suguea eta Necazaria” **Sam II-7**. “Arrantzalea eta arraia” **Sam II-9**. “Leoia zarrez iltcen” **Sam III-4**. “Artzaia eta Ardiac” **Sam II-4**. “Otsoa eta Cigoña” **Sam II-6**. “Choarrea eta Erbia” **Sam II-10**. “Iturricoriña” **Sam I-13**. “Suguea eta lima” **Sam I-17**. “Adisque de bi eta artza” **Sam I-19**. “Arcumea eta Otsoa” **Sam II-18**. “Urdalla eta beste gorputzaren parteac” **hibri**. “Jaquintsuna eta necazaria” **Sam V-4**. “Changurruac” **Sam V-7**. “Aita bere semeaquin” **hibri**. “Arratoi eta sagüen batzarrea” **Sam III-8**. “Atsoa eta arcacoso” **Sam III-10**. “Astoa eta iguelac” **Sam III-12**. “Astoa eta Chacurra” **Sam III-13**. “Erliquidun Astoa” **Sam IV-8**. “Leoya eta Astoa” **Sam III-14**. “Chimua lotsaturic” **Sam IV-1**. “Jupiter eta Astoa” **Sam IV-2**. “Medicu itzontzia eta eria” **Sam IV-5**. “Mando zamatuac” **Sam IV-9**. “Aceria eta matsac” **Sam IV-6**. “Leoia eta Arratoia” **Sam IV-12**. “Otsoa eta Artzanora” **Sam IX-5**. “Mendia arguiten” **Sam II-15**. “Aizcora eta quirtena” **Sam IV-16**.]

ITURRIAGA, Agustin Pascual (1880). “Fábulas diversas. I. Inéditas de D. Agustin Iturriaga”, in Jose MANTEROLA (1981), *Cancionero Basco. Poesías en lengua euskara*. Tomo III, 35-70. [1880ko lehen edizioaren edizio faksimilea].

[“Erbiak eta igelak” **Sam IV-13**. “Leoia eta akerra” **Sam IV-15**. “Chaberama eta arranoa” **Sam IV-11**. “Asto leoi larruz jantzia” **Sam V-5**. “Oriña eta aiena” **Sam IV-7**. “Eiztaria eta zakurra” **Sam IV-10**.]

Kritika

Euskal literaturaz arduratu diren gehienek eman dute Iturriagaren alegiei buruzko epaia. Epai gehienak oso aldekoak dira. Lasalaren iritzia lehenengoetakoa dugu:

Dedicóse á verter en admirable verso bascongado églogas de Virgilio y fábulas de Samaniego y de Iriarte, añadiendo composiciones propias. La espontaneidad, la sencillez, la gracia constituyen la excelencia principal de sus versos (1884: 19-20).

Orixek goraiatu egin zuen Iturriagaren alegiagintza:

Ez dirudite itzuliak, euskerara sortuak baino: euskerara ain egokiak daude gure baserritarrentzat. Gizon ikasia ta jakintsu askia zen, eta alegien eta gainerako poesien itzulketan ez dugu Iturriaga adinekorik (1927: 213).

Alegialariak konparatzen hasi eta leku onean utzi zuen Mitxelenak, besteen aldean, bere *Historia de la Literatura Vascan* (1960): “Es mejor que los anteriores [Mogel, Zabala, Archu, Goyetche] el sacerdote guipuzcoano” (bigarren edizioan, 1988: 121). Berdin pentsatu zuen Santiago Onaindiak (1973: 260): “Oxobi atera ezker, euskal alegilaririk onena dugu Iturriaga.”

Etxaidek, ostera, Iturriagaren estiloa estu hartu zuen:

Tamalez, Iturriaga'k luzeegi jarduten du bere ipuitan eta euskeraz batez ere esakera laburrak daukan gatzta ta indarra alperrik galtzen du eta sarritan erdal-kutsudun esaerak erabili ere bai. Euskal kutsua ta giarra eraxten etzan ene ustez Zabala bilbotarra bezain trebea izan, baiñan ba-ditu ala ta guziz ere zenbait ipui benetan aoxurigarri (1958: 96).

Aingeru Irigarai, aldiz, ez zen bat etorri Etxaiderekin (1958):

Pero creemos, disintiendo del autor [Etxaide], que Iturriaga es uno de los mejores fabulistas vascos, a nuestro juicio más vivaz y natural que Zabala, aventajando a Archu e incluso a Goyhetche (1958: 278).

Etxaidek, bere liburuaren bigarren argitalpenean, Irigarairen kritikari heldu eta hauxe idatzi zuen (1990: 191):

Baliteke hala izatea. Nik neuk ez dut gonbaraketa lan bat egin eta neure zalantzak baditut. Alabaina, uste dut ororen gainetik Otsobi Bidarraitarra dagoela.

Edozein modutan, bigarrenez hartu zuen estu Iturriagaren lana:

Iturriagaren alegiok arrotz alegilari sonatuen goi-mailarik bai ote? Nik (sic) ezezkoan nago, zeren Iturriagaren garaian –eta orain ere nekez– euskal-literaturak ez baitzuen garapenik aski maila horretara iristeko (ibidem: 193).

Gregorio Mujikak, berriz, tarteko iritzia utzi zuen:

Utsaldirik ez dutela ez det esan; euskera garbiagoan ezin egin zitezkeala ere, ez. Alaiak, egokiak, bear bezelakoak, euskerazale jakintsuentzat bakarrik egindakoak izan ez diran ipuiak izan bear duten bezelakoak dirala, bai, esan det (1910: 24).

Zabalkundea

Iturriagaren zenbait alegia aldizkarietan argitaratu ziren XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, hala nola, *Euskalzale* (44 alegia), *Euskal-Erria* (16), *Euzko Deya* (7), *Ibaizabal* (6), *La Vasconia* (5) eta beste hainbatetan. Haien arrakastaren eta harrera zabalaren froga dugu hori.

1910ean, Gregorio Mujikak, hernaniar ospetsuei buruzko bere liburuan, 4 alegiaren bertsio desberdinak argitaratu zituen⁵⁴. Ez dakigu, ordea, zer eskuizkribu erabili zuen eta non egon daitekeen.

Uriartek bere bilduman (c. 1856/1987), zortzi alegiaren aldaerak eman zituen⁵⁵. Kortazarrek eta Billelabeitiak zortzi alegia horiek 1842ko liburukoekin alderatu eta desberdintasunak eman zituzten (in Uriarte, 1987: 299-300).

Liburu moduan, 1884. urtean, euskarazko titulua ipinita berrargitaratu zen Iturriagaren liburua, Tolosan, edergarri askorekin apainduta: *Ipuyac eta beste moldaera batzuec Guipuzcoaco izqueran neurtubac: euscal-erderazco itztegui labur batequin, itzic illunchoenac arguitzeco*. Baita izen-abizenak jarrita ere; izan ere, 1842koan egilearen laburdurak baino ez baitziren ageri (D.A.P.I.P.). Berriz argitaratu zen liburua 1932an, Tolosan, *Ituriaga'ren Ipuiak* izenburuarekin eta Aitzolen hitzaurrearekin. Auspoa bilduman plazaratu zen 1967an. Geroago, 1990ean, Mensajero-Gero argitaletxearen umeentzako “Kimu” sailean, Seve Callejaren hitzaurrearekin. Eta berriki, 2008an, Hiria argitaletxeak Iturriagaren alegia-sorta bat plazaratu du.

Testu mailako azterketa

Objektuak, izakiak. Gehienetan ordain baliokideak aukeratu zituen Iturriagak. Batzuetan, dena dela, ordain desberdinak egokitu zizkien jatorrizkoei, hurbilekoak batzuk: Zorra/Aceri Jauna (Sam 101, Itu 2); queso fresco de Holanda/Gazta Flandesca (Sam 65, Itu 20); vianda/Odolquiac, lucaincac eta chorizoac (Sam 65, Itu 20). Zeharo bestelakoak, beste batzuk: dispensera/catua (Sam 65, Itu 21); El Perro/Turco, Turcocho (Sam 66, Itu 6-8), ruido de mis dientes/plater soñuak (Sam 66, Itu 6); labradores/anaiac (Sam 82, Itu 74); un Joven/Perucho (Sam 82, Itu 74); Charlatán/Chiquiratzallea (Sam 110, Itu 13); un hombre/Egurguille bat (Sam 124, Itu 140); acebuche/artea (Sam 124, Itu 140); el molinero/artzai bat (Sam 138, Itu *Ast*); espada, arado, pluma, remo, cayado/asto, cherriac, mandoac, zaldiac, guizon, abereac (Sam 113, Itu 124).

Sinesmenak. Jainkoa askotan ekartzen du testura. Oraingoan, patuaren orde:

Para no trabajar debo al destino	Ez cituen zacurrac
----------------------------------	--------------------

⁵⁴ “Belea eta Atseria”, “Zakur biak”, “Errementaria ta Txakurra” eta “Euliak eta ezitia”.

⁵⁵ “Barritsua”, “Adisquide bi eta artza”, “Anton Echegalgarrija”, “Eulijac” (birritan), “Artzaña ta ardijac”, “Suguia eta necazarija”, “Curloia eta erbija” eta “Otsua eta bildotsa”.

Haber nacido perro, no pollino.— Sam 66	Eguin Jaungoicoac Lanean ariteco, Baicican astoac. Itu 8
El destino , y no es cuento, A todos nos cargó como al jumento. Sam 67	Eta lan egiteco Gure Jaungoicoac Guztioc gaituela Egiten astoac. Itu 9

Bestetan, jatorrizkoan ez agertu arren:

Así se lamentaba de su suerte. Sam 58	Jaincoari esanaz Indazu laguntza. Itu 28
[Ø] Sam 122	¿Zertarako Jainkoak Ginduen erbiak Egin mundu onetan Onen beldurtiak? Itu <i>Erb</i>

Jainko paganoen aipamena kristauen Jainkoaren aipamen bihurtu zuen bestetan:
¡Oh, dioses!/Gure Jaungoicoa (Sam 70, Itu 79); Júpiter/Jaungoicoa (Sam 94, Itu 64).

Ohiturak. Inauteri garaian islatu zuen txerria hiltzeko ohitura Iturriagak.

A la pocilga alguna gente avanza En guisa de matanza, Armada de cuchillo y de caldera. Sam 58	Ostegun guicen egun Deritzan goicean Golpeca asten dira Etchecho atean; Esnatcen da astoa Eta icusten du Araquiña barrena Deadarca sartcen, Esanaz, guacen, guacen, Non dago cherria? Itu 28
---	--

Kontzeptuak. Gosea. Azeria gosaldu gabea da; jatorrizkoak ez dio halakorik.

Una zorra, cazando, De corral en corral iba saltando;... Sam 101	Aceri zar andibat Gosaldu gabea Cebillen sasiz sasi Errabiz betea; Illuntcera cij Joan, Eta mocaduric Jan gabe arquitecn zan Gaisoa oraindic. Itu 1
---	--

Boterea eta errespetua. Ez zion eutsi jatorrizkoaren metaforari: Disfraz del caballero/Leoiaren larrua (Sam 138, Itu *Ast*).

Boteregunea, Madrilen:

Sábelo el Rey: lo llama, y al momento... Sam 88	Orra non bereala Daquien erreguec Cer abillidadea Daducan Tristanec, Bere berealache Deitcen du Madrilla... Itu 51
--	--

Izen bereziak. Pertsona-izenekin ez du estrategia finkorik erakusten: Ø/Tristan (Sam 87, Itu 30); Fabio/Ø (Sam 116, Itu 130); Juana/Ø (Sam 180, Itu 10); Pedro Fernández/Ø (Sam 138, Itu *Ast*). Toki-izenekin ere ez: Ratópolis/Ø (Sam 65, Itu 20); Ø/Paris (Sam 110, Itu 13); Tetuán/Ø (Sam 68, Itu 63). Animalien izenekin ere ez: Roepán Primero/Ø (Sam 65, Itu 20); Micifuz y Zapirón/Zapiron eta Misipi (Sam 180, Itu 10); Sultán/Sultan (Sam 201, Itu 2); Pinto/Pinto (Sam 201, Itu 3). Mitologia-izenekin ere ez: Júpiter/Jupiter (Sam 92, Itu 45); Astrea/Ø (Sam 100, Itu 40). Historiako pertsonaiak ezabatu zituen, oro har: Tito/Ø (Sam 121, Itu 131).

Paremiak. Era guztietako estrategiak erabili zituen Iturriagak.

- Askotan euskal paremia berdin-berdina ematen du:

Quien pretende sin razón Al más fuerte derribar, No consigue sino dar Coces contra el aguijón. Sam 74	Eroqueri andia Oi dec nerequico Aculloa jotcea Bortizqui ostico. Itu 83 ⁵⁶
...el refrán castellano Dice: Más vale pájaro en la mano...? Sam 86	Chit errepain eder bat Icasi nian nic, Ondec ic aditcea Gaur nere aotic; Obea dec escuan Seguru choria, Ez airian dabillen Egazti andia. Itu 71 ⁵⁷
...mi panza No se llena jamás con la esperanza. Sam 86	Esperantzac ez oi dic Betecten triparic. Itu 71 ⁵⁸
Pues ¿a qué estado el hombre llama bueno? Al propio nunca; pero sí al ajeno. Sam 113	Iñorc ez estimatzen Bere suertea, Ustez dala besteena Ascotzaz obea. Itu 124 ⁵⁹

- Bestetan euskal paremia baliokidea eman zuen:

Es el peor enemigo el que aparenta No poder causar daño; porque intenta, Inspirando confianza, Asegurar su golpe de venganza. Sam 69	Argatic esan oida, Etsai aguiria Ez dala ain gaiztoa Non dan estalia. Itu 67 ⁶⁰
Aparta tu amistad de la persona Que si te ve en el riesgo te abandona. Sam 75	Ez dezu artu bear, Jaquizu gaurdandic, Zure adisquedetzat Guizon beldurtiric. Itu 84 ⁶¹
No anheles impaciente el bien futuro; Mira que ni el presente está seguro. Sam 81	...chacurraren Gaberdico ametsac. Itu 26 ⁶²

⁵⁶ Cf. Gotzon Garate: *Ostikoa akuluaganako, idientzat gaxo.*

⁵⁷ Cf. Gotzon Garate: *Eskuan txepetxa oba, arranue egaran baño.*

⁵⁸ Cf. Gotzon Garate: *Esperantzac ez du sabela betetzen.*

⁵⁹ Garatek berdin-berdin jaso. Iturriagari, antza denez.

⁶⁰ Ikus aurreko oharra.

⁶¹ Ibidem

⁶² G. Garaten: *Pobreak txakur-amets asko.*

Después de tanto ruido, solo viento. Sam 91	Urrutitica Eguñagatic Inchaurrac soñu andiac, Alderatuta Izan oi dira Ascotan inchaur chiquiac. Itu 109-110 ⁶³
---	--

- Batzuetan itzulpen literala eman zuen, baina emaitza ez daiteke har euskal esapide edo paremiatzat:

Haz bien, dice el proverbio castellano, Y no sepas a quién; pero es muy llano Que no tiene razón ni por asomo : Es menester saber a quién y cómo. Sam 84	Errepañac oi dio Eguin ezazu on, Eta eguin ezazu Ez daquizula non. Itu 77-78
“¿Quién te mandó insultar al afligido...?” Sam 86	...beñere Zori gaiztocoaz Ez degu egon bear Farraz eta burlaz. Itu 79
Prestad auxilio, si quereis hallarlo. Sam 109	Besteac laguntcea Guri nai badegu, Guc ere besteai Lagun beaiegu. Itu 116
Así la suerte adversa es tolerable, comparada con otra miserable. Sam 122	Onela eguiten da Gure suertea. Charragoen aldean Zan baño obea. Itu <i>Erb</i>
Es ladrar a la luna El alegar servicios al ingrato. Sam 120	Eskergabeetatik Sekula guztian, Ez esperatu ezer Bazaude premian. Itu <i>Eiz</i>

- Beste batzuetan, era librean itzuli zuen:

Nada teme perder quien nada tiene. Sam 82	Patu gaiztoarequin Danean bat jaio, An edo emen bici Oro oro bat zaio. Itu 53
¡Cuántas veces resulta de un engaño, Contra el engañador el mayor daño! Sam 82	Guezurtiac eguiten du Beretzat caltea, On da beti eguia Non nai esatea. Itu 75
Jamás convino Hacer del andaluz al vizcaíno. Sam 109	Farra eragiten du Guizon beldurtiac, Esaten asten bada Bere balentiac. Itu 119
Conviene al poderoso Para los infelices ser piadoso. Sam 121	Argatica munduan Andi izan arren, Ez daqui batec noren Bear izango den. Itu 132
Siempre trabaja en su daño El astuto engañador; A un engaño hay otro engaño, A un pícaro otro mayor. Sam 123	Gutziz asco jaquiña Zan aceri zarra, Baña ollarra ere Ez bide zan narra. Itu 60
La fuerza de las leyes Suele ser el ejemplo de los reyes. Sam 141	Emac egemploa, Nai badec seguitcea Ire lecioa. Itu 96

⁶³ Garaten: Urrutiko intxaurra bete-betea, bertara joan ta hutsa. Soinu aundik eta intxaur gutti.

Edo, libre itzuli eta paremia diferente bat gehitu zuen:

El destino, y no es cuento, A todos nos cargó como al jumento. Sam 67	Onela icusten du, Dirala laratzac Errian diran eche Guztietan beltzac ⁶⁴ , Eta lan egiteco Gure Jaungoicoac Guztioc gaituela Egiten astoac. Itu 9
--	---

- Askotan, dena dela, uko egin zion osagai paremikoak itzultzeari:

Los humanos corazones Perecen en las prisiones Del vicio que los domina. Sam 68	[Ø] Itu 68
Pero escarmiente ahora en tal cabeza. Sam 70	[Ø] Itu 82
¡Oh loca fantasía, Qué palacios fabricas en el viento! Sam 81	[Ø] Itu 26
De árbol caído todos hacen leña. Sam 101	[Ø] Itu 73
Gato por liebre. Sam 102	[Ø] Itu 2
Al asno muerto la cebada al rabo. Sam 116	[Ø] Itu 127
Es hacer de la ciencia vano alarde Dar el consejo cuando llega tarde. Sam 116	[Ø] Itu 127
Si besan la peana, es por el santo. Sam 118	[Ø] Itu 117

Literatura-alusioak. Enrique de Villenaren obra aipatzea saihestu zuen Iturriagak. Harakinen mozteko arteaz jardun zuen Villenak *Arte Cisoria* idazlanean. Ironia galdu zen euskal berridazketan, horrenbestez:

Que en el arte cisoria, sin gran pena, Pudiera dar lecciones a Villena. Sam 180	[Ø] Itu 12
--	------------

Adibide honetan, erreferentzia arrotza saihestu zuen: Al Cid matando moros en España/Ø (Sam 69, Itu 67).

Beste adibide honetan, Bibliako pasarte baten aipamena dakar euskal bertsoiak:

[Ø] Sam 91	Dudaric gabe, Esaten zuten, Juicioco eguna Da aditcera Tormenta onec Guri ematen diguna... Itu 138
------------	---

Generoaren ikuspegitik, ohargarria da neskataria gazte irakurleei zuzendu zitzailela narratzailea “Iturricoriña” alegian, gorputzaren edertasunaz diharduen alegia batean, hain zuzen:

[Ø] Sam 70	Ez da cer farric eguin Iracurtzalleac, Bazerate benturaz
------------	--

⁶⁴ Gotzon Garaten: *Etxe guzietan, laratza latza.*

	Nescatcha gasteac; Jaquin bear dezute Gaur dan egunetic Ez duela oriñac beste ispilluric. Itu 80
--	--

Emakumearen edertasun-ereduak edo kanonak zer-nolakoa behar zuen izan adierazi zuen esnesaltzailea deskribatzean:

Llevaba en la cabeza Una Lechera el cántaro al mercado Con aquella presteza, Aquel aire sencillo, aquel agrado... Sam 79-80	Nescacha bat zijoan Plazara neguan, Escuan chanchilla ta Caicua buruan. Gorputz liraña zuen Guerrya chit mea, Ilea erporaño ⁶⁵ Urre colorea: Perla guisaco ortzac, Aoa chiquiya, Beguiac beltz andiac, Ezpaña gorriya, Ibillian iñori Ecer zor ez cion. Itu 24
--	--

Hazkurri-emailea eta osasun-gordetzailea, emakumezkoa:

Le manda dé lecciones a un jumento Sam 88	Badiat [asto] bat echean Eta dec emea, Luzaro edan diat Nic aren esnea. Berari zor cioat Nire osasuna, Gueroztic uste diat Derala laguna. Itu 31-32
---	--

Boteretsua eta indartsua, gizonezkoa:

Te juzgarán virtuoso, Si eres, aunque perverso, poderoso... Sam 100	Mundu onetan beti Indarra dutenac, Ez badirade ere Mutillic onenac esan oi da dirala Chit guizon prestuac... Itu 39-40
--	---

Baita gizakiak ere: Los humanos corazones/guizonac (Sam 68, Itu 68).

Andre adindu elizkoi baten potret gupidagabea egin zuen Iturriagak “Atsoa eta arcacuso” alegian. Izan ere, jatorrizkoari jarraituz gero, ez zuen zertan: gizonezkoa da protagonista, eta ez zuen Samaniegok halako ezaugarri negatiboz hornitu:

“Oye, Júpiter sumo, mis querellas, Y haz, disparando rayos y centellas,	Gure goico bicitzan Bizi zan atsoa
--	---------------------------------------

⁶⁵ Manterolak idatzia: “En el País Vasco ha sido siempre insignia de honra y de castidad el llevar las solteras el pelo descubierto y suelto en trenzas. (...). Las casadas y solteras corruptas debían llevar el cabello cubierto” (1878, Tomo I, 23-24).

Que muera este animal vil y tirano, Plaga fatal para el linaje humano ; Y si vos no lo hacéis, Hércules sea Quien acabe con él y su ralea.” Este es un Hombre que a los dioses clama, Porque una Pulga le picó en la cama ; Sam 106	Zan elizaracoia Zan Jaungoicozcoa. Beti mar mar cegoan Echean elizan, Beti paternosterrac Esaten arizan. (...) Baña zuen gaisoac Eraman chiquia, Edoecin gauzac zuen Estutcen guztia. Egun batez arizan Errabiz atsoa Ecin arrapaturic Gonan cucusoa... Itu 105-106
--	---

Konpentsazioa. ‘Escrupuloso’ adjektiboa izenburutik kendu, baina irakaspenean ipini zuen Iturriagak, kristau batzuen jokabidea ezaugarritzeko:

LOS GATOS ESCRUPULOSOS. Sam 180	Cembat ez ote dira Cristaben artean Escrupuloz beteac... Itu 12
---------------------------------	---

Adibide honetan, alegien arteko lotura-bertsoak kendu zituen, baina gero berreskuratu zuen, beste alegia batzuei aplikatuz, lotzeko modu hori:

El ejemplo siguiente Nos hará esta verdad más evidente. Sam 84	[Ø] Itu 78
[Ø] Sam 138	Eta icus dezazun Dala au Egia, Iracurri ezazu Urrengo ipuia. Itu 89-90

Esplizitu bihurtzea. Adibide honetan, jatorrizkoaren esanahi bikoitza esanahi uniboko eta denotatibo bihurtuta dago:

...yo prometo Para mañana, hablando con respeto, Hacer el puerco más perfectamente,, Sam 110	Gurrinca eguiten Itu 14
--	-------------------------

Aldaketa morfosintaktikoa eta kategoria gramatikalen aldaketa. Beroriketa eta trataera adeitsua:

“¿Qué más tiene que yo cualquiera conde? Para no trabajar debo al destino Haber nacido perro, no pollino.— Sam 66	Cer du gueiago, jauna, Nic baño condeac? Nic becin ongui daqui Bere mesedeac, Sortcetic dacarrela Norc bere patua... Itu 7
---	---

Zuzeneko solasetik zehar estilora:

“Par diez, dijo un patán, que yo prometo Para mañana, hablando con respeto, Hacer el puerco más perfectamente; Si no, que me la claven en la frente.” Sam 110	Eta mutico batec Dioque esaten, Jocatuco diola Gurrinca eguiten. Itu 14
--	--

Galdera erretorikoa, irakurlearen arreta piztekoa, ezabaturik:

Pero ¿qué sucedió la vez tercera? Sam 82	[Ø] Itu 74
--	------------

Betelana eta eletsutasuna. Batzuetan gehitu egiten du:

Pinto, gran tragador, su compañero, Le encuentra con la presa encarnizado Ojo al través, colmillo acicalado... Sam 201	Pinto aren laguna, Ez jale chiquia, Zocoz zoco cebillen Galduric guztia Sultanen billa eta, Sucalbazterrean Noiz bait topatu zuen, Etcñic lurrean, Ari isterra jaten Aleguin guztian, Arturica aurreco Bi oñen erdian, Beldurrez ez ciola Utzico paquean, Marmar asi zan Sultan Pinto icustean Beguiac armaturic Jasoric sudurra, Letaguiñaz puscacñen Zuela ezurra. Itu 3
--	---

Pasarteak asmatu zituen, hari narratiboa aberasteko-edo.

[Ø] Sam 66	Egun baten lapurrac Dirua cuchatic Ostu zuten, sarturic Atceco aldetic. Oartu zen orduan Errementaria Falta zala echean Zan diru guztia. Burua galdu, eta Arturic maquilla, Eche guztitic dabill Zacurraren billa. Atorquit onontz Turco, Oju eguiten dio, Zacurra ichill ichill Badijoaquo Guztia beldurturic, Belarriac bean, Burua macur, eta Buztana ancapean. Turco, esaten dio, Zertaraco aut nic? Ezdioc echeari Eguiten conturic:... Itu 5-6
------------	---

“Catu biac” alegian ere pasarte luze bat gehitu zuen Iturriagak (1842: 10, 5-28 bb). Era berean, “Hitz ontzia” alegiaren sarreran, hogeitaz berraztertutako betelana dugu

(ibidem: 13, 1-20 bb). Berdin, “Mendia aurguiten” alegiaren sarreran: 21 bertso-lerroko betelana (ib.: 137-138, 1-21 bb).

Lautzea. Oro har, jatorrizkoak darabilen adjektibazioa saihestu zuen Iturriagak: hermosa cristalina fuente/iturria (Sam 70, Itu 79); enramados cuernos/adarrac (Sam 70, Itu 80); lebrel fiero/zacurrac (Sam 70, Itu 80); Lima de acero/ lima (Sam 74, Itu 82); Un maldito Gorrión/Choaar batec (Sam 86, Itu 78); diestro Gavilán/Gabiroi bat (Sam 86, Itu 79); hombres temerosos/Gendea (Sam 91, Itu 138); bramidos espantosos/deadar (Sam 91, Itu 138).

Baita hiztegi berezitua ere. Zuzenbidearen alorrekoa, kasu honetan: docto presidente, resolución, magistrados, congreso, nueva ley, derogación, reforma, norma/Ø (Sam 139-141, Itu 94-96). Medikuntza-hiztegia: paciente, jeringa, cirujano, operación/Ø (Sam 84/, Itu 76).

Irakaspenen mezua. Ez da harritzekoa hemengo irakaspenak lehenago ere agertu izana, paremien atalean. Izan ere, Samaniegok askotan erabili zuen osagai paremikoa irakaspenen lehengai gisa. Izaera morala baitute, oro har, paremiekin.

- Askotan mezu berbera edo berdin antzekoa eman zuen:

<i>Quien pretende sin razón Al más fuerte derribar, No consigue sino dar Coces contra el aguijón.</i> Sam 74	Eroqueri andia Oi dec nerequico Aculloa jotzea Bortizqui ostico. Itu 83
<i>...Amigo Infeliz del que ayuda a su enemigo.</i> Sam 124	Bere etsaiari Eman badio Noizbait norbaitec escua Len edo guero Icusico du Galduric bere burua. Itu 142
<i>Así la suerte adversa es tolerable Comparada con otra miserable.</i> Sam 122	Onela eguiten da Gure suertea. Charragoen aldean Zan baño obea. Itu <i>Erb</i>
<i>Así son los cobardes fanfarrones, Que se hacen en los puestos ventajosos Más valentones cuanto más medrosos.</i> Sam 94	Izaten oi da guizon Chit icaracoya Toqui segurutica Gutziz fanfarroya. Itu 86

Berdin antzeko mezua eman bai, baina lekuz aldatu zuen irakaspena, alegia-hasieratik alegia-bukaerara. Bertsolaritzaren teknikari jarraituz, beti ere:

<i>Procure ser en todo lo posible, El que ha de reprimir, irreprimible.</i> Sam 201	Besteri consejua Nai dionac eman, Lenaz icusi beaic Bera premian dan. Itu 5
---	--

Mezu berbera eman arren, irakaspena zabaldu egin zuen batzuetan, azalpenak emanez eta adibidez hornituz:

<p><i>El destino, y no es cuento, A todos nos cargó como al jumento.</i> Sam 67</p>	<p>Onela icusten du, Dirala laratzac Errian diran eche Guztietan beltzac. Eta lan egiteco Gure Jaungoicoac Guztioc gaituela Egiten astoac. Itu 9</p>
<p><i>Así si bien se examina, Los humanos corazones Perecen en las prisiones Del vicio que los domina.</i> Sam 68</p>	<p>Baña izan oi dira Guizonen erdiac, Batzuec tripazaiac, Besteac ordiac: Eta iltcen oi dira Gaztetasunean, Bici nai dutelaco Ase ta betean. Itu 68</p>
<p>¡Cuántas veces resulta de un engaño, Contra el engañador el mayor daño! Sam 82</p>	<p>Guezurtiac eguia Baldin badu esaten, Guezurtia dalaco Ez zaio sinisten; Onela eguiten du Beretzat caltea, On da beti eguia Non nai esatea. Itu 75</p>
<p>¿Quién te mandó insultar al afligido, Y a más, a más meterte a consejero, No sabiendo mirar por tí primero? Sam 86</p>	<p>Inorc mundu onetan Ez dezaque esan, Ur onetatica nic Ez det bear edan, Usteric guchiaena Guc degun orduan Arquitu oi guerade Besteen lecuan, Argatica beñere Zori gaiztocoaz Ez degu egon bear Farraz eta burlaz. Itu 79</p>

Gizaki guztiak eror daitezke edertasunaren itsukerian, Samanigoeren alegian.

Iturriagarenean, aldiz, bi gizaki mota bereizten dira: txoroak eta zentzua dutenak.

<p><i>Así frecuentemente El hombre se deslumbra con lo hermoso; Elige lo aparente, Abrazando tal vez lo más dañoso; Pero escarmiente ahora en tal cabeza: El útil bien es la mejor belleza.</i> Sam 70</p>	<p>Choroac engañatcen Oi ditu ichurac, Ez ordea beñere Centzua dutenac. Itu 82</p>
--	--

Aurkako kontzeptuak baliatuz, mezuaren edukia berdin antzera formulatu zuen Iturriagak, soro-arratoiaren ahotan jarria. Jatorrizkoan narratzaileak ematen du irakaspena.

<p><i>Volvióse a su campaña en el instante Y estimó mucho más de allí en adelante, Sin zozobra, temor ni pesadumbres,</i></p>	<p>Obediat nic ascoz Pobreza paquean, Ez aberastasuna</p>
---	---

Su casita de tierra y sus legumbres. Sam 66

Icaren artean. Itu 23-24

- Beste batzuetan desbideratu egin zen. Adibide honetan, literatura-egileen gorabeheretatik kristauen (edota jende xehearen) hezibidera jauzi egin zuen: zuhur jokatzeko urrutiko liluren aurrean:

<p><i>Hay autores que en voces misteriosas, Estilo fanfarrón y campanudo Nos anuncian ideas portentosas; Pero suele a menudo Ser el gran parto de su pensamiento, Después de tanto ruido, solo viento.</i> Sam 91</p>	<p>Onela guerta oi da cristabac Maiz urrutico gauzaquin, Argatica guc Bizi beagu Gure errepain zarraquin, Gueldi ez gaitezen Asco bezala Guero chalma andi batequin Urrutitica Eguiñagatic Inchaurrac soñu andiac, Alderatuta Izan oi dira Ascotan inchaur chiquiac, Egia andi au Eracuticcen Digu esperenciatic. Itu 109-110</p>
---	---

Kasu honetan, moralistago jokatu zuen Iturriagak. Izan ere, Samaniegok mezu praktikoa, lurtar eta laiko bat eman zuen gaztelaniazko errefracuaren esanahia iraultzean eta ezeztatzean: ongia egiteko, zehatz jakin behar dela onuraduna nor den. Iturriagak, aldiz, ongiaren eta gaizkiaren dikotomia doktrinala azpimarratu zuen, zikoinaren ontasun berezkoa eta otsoaren gaiztotasun berezkoa nabarmenduz:

<p><i>Haz bien, dice el proverbio castellano, Y no sepas a quién; pero es muy llano Que no tiene razón ni por asomo : Es menester saber a quién y cómo.</i> Sam 84</p>	<p>Errepañac oi dio Eguin ezazu on, Eta eguin ezazu Ez daquizula non. Otso gaiztoa beti Gure igues dabill, Beldurrez ez dezagun Atzeman, eta ill; Eta cigoña berriz Bici da gurequin Ceren ez dizaioque Iñorc gaitcic eguin. Itu 77-78</p>
--	--

Adibide honetan ere moralistago jokatu zuen hernaniarrak, jatorrizkoan ez baitago langileen aldeko eta alferren aurkako portaera-eredurik:

<p><i>Pues ahora, que yo como, Baila, pese a tu cuerpo.</i> Sam 60</p>	<p>Ni len necatu eta Banoa jatera, Zu gueldi egoncera, Zoaz cantacera. Lagundu bear zaio Bearguilleari, Ez ordea beñere</p>
--	---

Beste irakaspen honetan, jatorrizkoaren kritika soziala jaso zuen Iturriagak, eta errealtate gordinagoa deskribatu zuen, gainera; baina kristau-ikasbidearen araberrako ideia moral bat txertatu zuen⁶⁶, behartsuengan zeruko itxaropena pizteko, Jainkoaren begien aurrean denok berdinak garelako:

<p><i>Te juzgarán virtuoso, Si eres, aunque perverso, poderoso; Y aunque bueno, por malo detestable, Cuando te miran pobre y miserable. Esto hallará en la corte quien la vea Y aún en el mundo todo. ¡Pobre Astrea!</i> Sam 100</p>	<p>Mundu onetan beti Indarra dutenac, Ez badirade ere Mutillic onenac, esan oi da dirala Chit guizon prestuac, Estaltcen diralaco Aien pecatuac, Beste aldetic berriz Gende beartsua Ardit baten gatica Oi da urcatua. Baña guertatatcen oi da Au gure artean, Bestela izango da An gora joatean; Ceren izango guera Guztioc an berdin Naiz erregue emen izan Naiz izan arlequin Itu 77-78</p>
--	--

Kristaubide ona zein zen erakustea hartu zuen helburutzat, irakaspen luzatu honetan. Jatorrizkoan salaketa bigun bat baino ez dena, sermoi zentzagarri bihurtu zuen Iturriagak:

<p><i>Tenemos en el cielo los mortales Recursos, en las desdichas y los males: Mas se suele abusar frecuentemente, Por lograr un antojo impertinente.</i> Sam 106</p>	<p>Au da guertatcen dena Cristau ascorequin, Ecin duten orduan Nai dutena eguin: Baña engañatutcen Dirade gaisoac Guizonac, agureac, Andreac atsoac, Baldin uste badute Gure Jaungoicoac Enzungo dituela Aien errezoac, Iguesi bidaltceco Udan cucusoac, Ez badira garbitcen Echeco zocoac. Gure otoitzac dira Gauza chit ederrac, Ez ordea baguera Otoizle alferrac, Errezoac eguiten Diran bitartean,</p>
---	---

⁶⁶ Mt 20,16: “Horrela, azkenengoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko” (*Elizen arteko Biblia*).

	<p>Jardun bear du beti Bacoitzac lanean, Ez badegu ereiten Soroan acia, Ez zaigu etorrigo Cerutic garia; Eta badaucatcigu Ciquiñac zocoac Ez zaizquigu faltaco Chimitz cucusoac. Itu 107-109</p>
--	---

Beste irakaspen honetan ere, erabat desbideratu zen jatorrizkotik. Generoen eta rolen banaketa tradizionala sutsuki aldeztu zuen, eta trabestismoa gaitzetsi:

<p><i>El mérito aparente</i> <i>Es digno de desprecio;</i> <i>La virtud solamente</i> <i>Es del hombre el ornato verdadero.</i> Sam 95</p>	<p>Contrara guertatcen da Gaurco egunean, Aquerrac auntz nai dute Izan gueiengan; Guizonac, andre moten Manerac arturic, Icusten dirade maiz Chimu biurturic. Auntzac auntz beau izan, Aquerrac aquerra, Guizonac indartsua, Andreac ederra, Bestela buruz bera Joango da mundua, Eta gueldituco da Betico galdua, Ematen zaiolaric Culpa jaincoari, Norc eman bearrean Bere buruari Itu 63</p>
---	--

- Irakaspena sortu zuen Iturriagak zenbaitetan, mezua ez zitzaiolako aski argia iruditzen. Horregatik adibidez hornitu beharra, kasu honetan zenbait kristauren jokabidea salatzeke:

<p>[Ø] Sam 181</p>	<p>Cembat ez ote dira Cristaben artean Escrupuloz beteac, Ecin dutenean, Eta besteen gauzaz, Escrupulo gabe Eguiten diradenac Albadute jabe. Itu 12-13</p>
--------------------	---

- Eta bestetan ez zuen irakaspenik eman:

<p>Nadie encuentra embarazo En dar un largo plazo A importantes negocios; mas no advierte Que ajusta mal su cuenta sin la muerte. Sam 88</p>	<p>[Ø] Itu 34</p>
---	-------------------

Poesia berridazteko moduak. Iturriagak ez zuen kontuan hartu jatorrizkoaren forma, eta zortziko txikia erabili zuen edukia emateko. Horrek aldaketak egin beharra ekarri zion, besteak beste, alegiak luzatzea, ahalik eta eduki gehiena euskaraz jartzeko. Eutsi egin zion gehienetan argumentuaren hari nagusiari.

Dena dela, batzuetan hari nagusitik desbideratu egin zen, narrazio-haria luzatuz, inausiz edo aldatuz, eta irakaspenak moldatuz.

Guztiarekin, modu analogikoaren eta modu organikoaren artean jauzika ibili zen, oro har, Samaniegoren alegiak berridaztean.

Ondorioak

Samaniegoren testuak abiapuntutzat harturik, bere erara moldatu zituen Iturriagak alegiak. Euskal irakurleak jomuga, zortziko txikira aldatu zuen jatorrizkoaren metrika, testu biziak, arinak eta musikaltasunez eta erritmoz beteak sortzeko. Kantatzeko ohitura aintzat hartu izana litekeena da.

Lautu egin zuen jatorrizkoa, erdal adjektibazioa inausiz, hiztegi berezitua soilduz, kultura-erreferenteak herri-gogora hurbilduz, literatura-alusioak kenduz: herri-hizkeraren mugen barruan jokatuz, azken buruan.

Garrantzitsua da ikustea zenbat estrategia erabili zituen osagai paremologikoa euskaraz emateko. Izan ere, herri-hizkeraren mugen barruan jokatu zuela erakusten digu horrek.

Hartzaile kristaua izan zuen Iturriagak gogoan. Horren erakusgarri dira, jatorrizkoaren aldean jarrita, nabarmenak diren desbideratzeak eta Jaungoikoaren aipamen ugariak. Irakaspenetan ikus daiteke bi testuen arteko alde hori ongien. Kristau jokabideak nolakoa behar zuen izan adierazi zuen irakaspenetan Iturriagak. Askoz moralistagoa da, oro har, alderdi horretan Iturriaga.

Generoaren ikuspegitik, misoginia-zantzuak agerikoak dira, han-hemen, testuan barreiatuak. Baita generoen arteko banaketa tradizionala aldezteko eta iraunarazteko grina ere.

Hertsatzaile ideologikoaren ispilu dira berridazte-prozedura horiek guztiak: izan ere, ilustratua izanik, irakurle xehea (Euskal Herriko gazteria, nekazari jendea) erakarri nahi zuen. Abadea izanik, irakurleak onbideratu nahi izan zituen. Eta, azkenik, gizona izanik, ez zuen sentiberatasunik izan emakumeen zapalkuntza iraunarazten zuten gaien aurrean.

VI.3.2. Jean Baptiste Archu (1811-1881)

Ideologia

Eskola-sistemari lotua egon zen urte luzez Iparraldeko lehen alegialaria. Maisu ikasketak egin eta gero, Bordeleko eskola pribatu batean izan zuen lehenengo lana; bi urte geroago, La Réoleko eskola publikoan hasi eta hamalau urte eman zituen lan horretan, harik eta, 1850ean, La Réoleko arrondizamenduko eskola-ikuskatzaile izendatu zuten arte.

Archuren lanbidea, “Eskolazalia”, agertu zen liburuaren izenburuan. Ogibidea adieraztea ohitura zen arren (cf. *Fableac... Goyhetché apheçac itzuliac*, 1852), datu esanguratsua da, irakasle izatea garrantzi handikoa-edo zela adierazten baitu. Izan ere, irakaskuntzak garrantzi handia hartu zuen Archuren garaiko Frantzian, “Guizoten legea” jarri baitzen indarrean 1833an. Lege horrek bultzada handia eman zion lehen hezkuntzari eta, irakaskuntzaren garrantziaz ohart zitezenean, ministroak zirkular bat zabaldu zuen irakasleen artean. Besteak beste, gizartearen egonkortasuna hartu zuen hizpide:

L’instruction primaire universelle est désormais une des garanties de l’ordre et de la stabilité sociale (Guizot: 1833).

Unibertsaltasuna dela-eta, gogora dezagun, hala ere, neskentzako eskolak egotea proposatu zuela Guizot ministroak baina ez ziotela aintzat hartu: hortaz, *universelle* kontzeptua oker erabilia dago hor, praktikan unibertsoaren erdiak soilik izan baitzuen lehen hezkuntza jasotzeko eskubidea. Okerrak oker, lege hark Frantziako historiaren aro oso bat markatu zuen. Puntu nagusiak honako hauek izan ziren: 500 biztanletik gorako udalek mutilentzako eskola bat finantziatzea eta irakasle bat mantentzea; departamendu bakoitzak irakasle-eskola bat izatea; ikuskatzaile-gorputz bat eratzea. Ikuskatzaile-gorputzekoa izan zen Archu.

Guizoten legeak eta Espainiako 1857ko Moyanoren legeak bizkortu egin zuten eskola bidezko alfabetatze-prozesua, frantsesez eta gaztelaniaz, Euskal Herrian. Horren harira, berriki, Jean Petit psikolinguista eta Reims-eko Unibertsitateko irakasle emerituak lege horren eragina iruzkindu du, Jean-Luc Mélanchon ministroari zuzendutako gutun batean:

C'est sous le règne de Louis-Philippe que le mouvement d'éradication des "patois" s'accélère. La loi Guizot, votée en 1833, stipule que chaque commune de plus de 500 habitants doit ouvrir une école primaire et, en conséquence, recruter et rémunérer un maître. Une école normale est créée dans chaque département. La monarchie restaurée emboîte ainsi le pas au jacobinisme révolutionnaire des années 1790. L'unification linguistique et scolaire programmée, mais non réalisée par la Révolution, entre maintenant dans sa phase de concrétisation. L'élimination impitoyable de toutes les langues régionales encore en usage sur le sol français est dès lors commencée.

Préfets, recteurs, inspecteurs d'académie, inspecteurs primaires et instituteurs œuvrent maintenant dans le même sens et cette action unificatrice revêt des aspects de persécution (Petit, 2006: 6-7).

Jazarpen horren adibideak ugari dira. Aski izango dira bi ale, Torrealdaik jasotakoak (1998: 32-33). Lehena, Mauleko barrutiko ikuskatzaileak adierazia, 1833an: "J'ai exigé des instituteurs l'abolition entière de l'usage de la langue basque en classe. Je leur ai également recommandé d'abandonner entièrement la pratique de la lecture basque, suivie dans tous les temps dans leurs écoles." Bigarrena, Pirinio Apaletako prefetak iragarria, 1846an: "Nos écoles au Pays Basque ont particulièrement pour objet de substituer la langue française au basque".

Poetika

Frantsesez eta euskaraz jarri zion izenburua Archuk bere alegia-liburuari: *Choix de fables de la Fontaine ... eta La Fontainaren alegia-berheziak...* Liburuko alegiak ere frantsesez eta euskaraz "begiz-begi" ipini zituen. Hautu hori hezkuntza-sistema zaharretatik zetorren tradizioan oinarritzen da, Arkotxak ohartzen duen moduan (2006: 44): izan ere, alegien edizio elebidunek funtzio pedagogikoa izan zuten hezkuntza-sistema zaharretan, parez pare jarrita grekera eta latina, eta, orobat, latina eta herri-hizkuntzak. Azken buruan, Archuren estrategia nagusia da, Arkotxaren iritziz (ibidem), "alegia hizkuntza batetik bestera joateko zubi-tresna ludiko bezala" erabiltzea.

Liburu horretako "Uskal Herriari" poeman argitu zigun Archuk bere ustez alegiak zer eta zertarako diren: "Ghezurtto batzu, hau da eghia / Zure haurren

tchostatzeke, / Menturaz hen skolatzeke. / Tchostatzia, / Skolatzia / Hanitz alditan / Berthokietan / Egoten dia.” (1848: 7). Horazioren esakun famatua dugu poematxoaren mamian: ‘tchostatzia’ eta ‘skolatzia’ elkarren eskutik, *Ars poeticako* “instruire aut delectare” hura, azken batean.

Liburu bereko “Aitzin-beghia”-n bere helburuen berri eman zigun Archuk: “ene lehen atsia izan da Frantzia guziak alxatzen duen gizon horen ohizpenaren alxatzia Uskal-herriaren erdian; bigarrena aldiz, (...), holaxet franzes minzajia ikhas ahal dezeten aisago” (ibidem: 9-11). Bi helburu, beraz: alegialari frantsesaren ospea Euskal Herrian zabaltzea, bata; euskal herritarrek frantsesa erraz ikasteko bitarteko egokia eskaintzea, bestea.

Archuk legeak ipinitako helburua bete zedin argitaratu zituen alegiak, eta beren-beregi aipatu zuen legeak zertara behartzen zituen irakasleak, horrela argitalpenaren beharra justifikatzeko:

Erranen daute, arauz, Errearoaren 1833 eta 28-ko legheak zabaldu duela muga berribat ikhastarzunari, eta uskal-herriko ikhaserazlek behar dutela bere skolierer frantsesa erakutzi (ib.:11).

Frantsesa irakasteko behar hura behin eta berriz agertu zuen sarreran:

Frantzia nahi bada sorthurik diren, badire hanitz Bortu iphar aldeko izkerrian zoinek bere anaien, bere aitzindarien minzajia enthelegatzen ez tutenak. Nolaz hori? - Zeren ez tuten bi minzagetan izkiribaturik diren libururik (ib.).

Eta geroago ere bai:

Uskal-herriko haurrek behar lukete, hola da ja ene ustea, *habil-enekinkobat*, gramatikabat, zoinekin ikhas ahal dezen berek Franzes hitzkuntza. Gramatika hori haur hoi en eskuetara hel artino, uste dut alegia igorten deitzedan hoi en aisaeraziren dereiela Franzesaren ikhastia (ib.: 13).

Alegien hitzkuntza aztertu zuen Ricardo Gómezek, eta ondorioztatu zuen Iparralde guztiko eskolatan ulertua eta zabaldua izateko asmoa izan zuela Archuk:

Espero zitekeen Altzurukuko maisuak zubereraz idatziriko itzulpena laga ziezagun: baina [...] Archuk lan honentzako barreatze asmoak Zuberoatik at ere kokatzen zituen, Iparralde guztiaren haur-eskolatan alegia. Ziuraski, xede horrek eraginda burutu zuen itzulpena, zuberera ardatz hartu bazuen ere, beste euskalkitako hitzak eta bereziki adizkiak erantsi baitzituen (1990:15).

Testua hedatzeko asmo hori, frantsesa ahalik eta umerik gehienengana zabaltzea baino ez zen, euskarazko testua praktikan frantsesa ikasteko bitartekari huts besterik ez baitzen. Liburua ele bitan argitaratu izana, hau da, testua euskaraz ere argitaratu izana,

legea betetzeko zailtasun pedagogikoen ondorioz etorri zen; ez, aitzitik, halako euskaltzaletasun baten ondorioz. Izan ere, euskaldun hutsak edota gaskoidunak ziren udalerrri gehienak⁶⁷ (cf. Lasa, 1968: 104-105). Archuk berak adierazi zuen zailtasun hori sarreran: “Bainan nola erakhuts ahal diote [frantsesa]? - Eztute uskaldun, eta franzes gramatkarik, eztute-uskaldun eta franzes hitzteghirik” (1848: 11).

Guztiarekin, eskola-material baten aurrean gaude. Seve Callejaren iritzian (1994: 86), eskola ikuskatzaile izateak bultzatu zuen Archu bai alegiak bai gramatika egitera, “horrela eskolatik eta eskolarako idazten duen lehenengo idazleetako bat bihurtuz, Euskal Haur-Literaturan hainbestetan errepikatu den kasua”.

Corpusa eta iturriak

La Fontainaren alegia berheziak liburua La Réolen argitaratu zen, 1848an, Pasquieren moldiztegian. La Fontaineren 50 alegia hautatu zituen Archuk eta frantsesez eta euskaraz “begiz-begi” ipini. Hitz neurtuz eman zuen euskal berridazketa. Horietatik bi alegia, 8.a eta 43.a, lehenago ere argitaratuak zituen Etxepareren poesiei buruzko liburuaren azkeneko orrialdeetan (*Poésies basques de Bernard Dechepare, recteur de Saint-Michel-le-Vieux*, 1847); horiek, baina, ez dira tesi-corpusean jasoko.

Archuren alegia liburua honela dago banatua: eskaintza, frantsesez; “Uskal-Herriari” izenburu duen poematxoa, euskaraz; “aitzin-beghia” edo sarrera, frantsesez eta euskaraz; jarraian, ortografiari buruzko ohar batzuk eta gramatika bat, biak frantsesez; alegiak, berrogeita hamar guztira, frantsesez eta euskaraz aurrez aurre ezarriak eta, amaitzeko, euskara-frantses hiztegia, akats-zerrenda eta aurkibideak.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Jean Baptiste Archu	<i>La Fontainaren aleghia-berheziak, neurt-hitzez</i>	1848	50 hn	50 Lf

⁶⁷ Lasak *Enquête sur la situation des écoles primaires en 1833* delakoa iruzkindu zuen bere liburuan. Inkesta hori ikuskatzaileek egina da. Honako pasarte hauek ez dute zalantza izpirik uzten (104-105): “En el cantón de Bayona Noroeste, «el gascón es el idioma que se habla en Anglet, y los niños no hablan absolutamente el francés»”. “En el Bajo Adur, cantón de Bayona Nordeste, «la lengua popular... es un idioma completamente extraño a nuestra lengua», nos referimos al vasco.” “...Tardets, donde no se encuentra «más que cuatro alcaldes capaces de **comprender** el francés»”.

ARCHU, Jean Baptiste (1848). *Choix de fables de La Fontaine traduites en vers basques par J.-B. Archu Instituteur. La Fontainaren aleghia-berheziak, neurt-hitez franzasetik uskarara itzuliak*. La Reole : Pasquierren moldeteghian.

[“Belia eta Hacheria” Lf I-2. “Ighela Idia bezain handi jin nahi dena” Lf I-3. “Bi Mandoak” Lf I-4. “Oxoa eta Hora” Lf I-5. “Biga, Ahunza eta Ardia Lehoarekin” Lf I-6. “Hiriko Arathoa eta Kampoko Arathoa” Lf I-9. “Oxoa eta Achuria” Lf I-10. “Haritza eta Kanabera” Lf I-20. “Konseillua Arathoek etchekirik” Lf II-2. “Oxoa minzo Hacheriaren kontra Tchiminoaren aitzinian” Lf II-3. “Lehoa eta Elchoa” Lf II-9. “Lehoa eta Arathoa” Lf II-10. “Urzoa eta Inhurria” Lf II-12. “Erbia eta Ighelak” Lf II-14. “Oillara eta Hacheria” Lf II-15. “Khamelia eta Makhilak igherikan” Lf IV-10. “Herioa eta Egurkaria” Lf I-16. “Alderdiak eta Sabela” Lf III-2. “Oxoa Arzainturik” Lf III-3. “Hacheria eta Akherra” Lf III-5. “Emaztiak eta Kochelua” Lf VIII-6. “Hacheria eta Mahaxak” Lf III-11. “Arzaina eta haren arres Saldoa” Lf IX-19. “Oxoak eta Ardiak” Lf III-13. “Oxoa eta Zikoina” Lf III-9. “Hacheria eta Zikoina” Lf I-18. “Oxoa, Ahunza eta Ahuinia” Lf IV-15. “Zamaria Orkhatzaz mendekatu nahian” Lf IV-13. “Arrain tchipia eta Aranzaria” Lf V-3. “Hacheri buztan mutza” Lf V-5. “Axa eta haren bi Neskatoak” Lf V-6. “Zamaria eta Oxoa” Lf V-8. “Laboraria eta haren Semeak” Lf V-9. “Mendia haur Minetan” Lf V-10. “Oillo urhe araultze errulia” Lf V-13. “Hartza eta bi Lagunak” Lf V-20. “Bi Zorroak” Lf I-7. “Esne salzalia eta Kotchua” Lf VII-9. “Zamaria eta Astoa” Lf VI-16. “Alhargunxa gaztia” Lf VI-21. “Nekezalea eta Sughea” Lf VI-13. “Ihiziak izurriaz eri” Lf VII-1. “Arathoin mundia utzi duena” Lf VII-3. “Ilhainxa eta Erresinola” Lf IX-18. “Zia eta Khuia” Lf IX-4. “Tchiminoa eta Gathua” Lf IX-17. “Zapataina eta Diruduna” Lf VIII-2. “Ghizon zaharra eta hirur Muthil gaztiak” Lf XI-8. “Erzo bat eta Zuhur bat” Lf XII-22. “Bi Adichkidiak” Lf VIII-11.]

Kritika

Kritiken artean, aldekoak dira gehienak; badu Archuren lanak, hala ere, gaitzesleren bat edo beste.

Lehen lerroko idazletzat jo zuen Hiribarrenek *Euskaldunac* poema luzean (1853: 156): “Eskaldunen lorea, Archu Chuberoco, / Luma eta bihotzez lehena lerroco /...”. Abbadie, Salha, Baratzabal eta beste izan zituen Hiribarrenek, zuberotarren artean, kantagai.

Adituen artean, itzulpena goi mailakoa zelako ustea zebilela adierazi zuen Francisque Michelek. Edozein modutan, idazkera bitxia gertatu zitzaizela, zubereratik aldendu eta beste euskalkietara labain egin zuen neurrian:

Les connaisseurs s'accordent à placer très-haut cette traduction, tout en regrettant que l'auteur, au lieu de s'en tenir à l'ancienne orthographe et au dialecte suletin, ait cru devoir puiser dans les autres et employer une façon d'écrire bizarre (Michel, 1857: 522).

Manterolak, berriz, literalegia iritzi zion euskal bertsoari bere *Cancionero Bascon*. Zuritu egin zuen literaltasun hori, baina, hizkuntzak konparazio bidez ikasteko itzulpen literalak egokiagoak direlako aitzakiaren pean:

...las versiones de M. Archu, he dicho, son completamente literales, y así es en efecto: el ilustrado Profesor de la Réole ha copiado de La Fontaine hasta aquellos detalles del momento, que en traducciones de esta índole pueden muy bien, y deben casi siempre, suprimirse ó modificarse cuando ménos, dando así á las composiciones el mayor carácter posible de universalidad. Es preciso, sin embargo, decir en su elogio, que el sistema seguido por M. Archu es muy lógico, supuesto su propósito de que su colección sirviese de texto de lectura y de análisis en las Escuelas del país vasco-francés, pues bajo este punto de vista no puede dudarse que las traducciones literales son las más convenientes para el estudio comparativo de las lenguas, por más que las composiciones originales puedan literariamente perder una parte de su belleza al ser vertidas á un idioma extraño (1877, 1ª serie, t.4: 22).

Apologia-kutsua darie, berriz, Jean Ithurriagueren hitzei (1929: 492): “...La Fontaine me paraît être « lui-même » dans l’expression euskarienne plus réellement encore si possible, que dans sa langue originale !”.

Artikulu berean, itzulpena berriz argitaratzeko arrazoiak adierazi zituen Ithurriagueren: maisu frantsesaren lana eskoletan erabiltzeko aukera izatea, batetik, eta testua haurrek ulertzen zuten hizkuntzan egotea, bestetik:

...pourquoi ne pas rééditer la traduction de J.-Archu ? On la répandrait dans nos écoles du Pays Basque. On engage bien sans pudeur le petit écolier d’Irissarry ou d’Irouléguay dans le « maquis » de chefs-d’œuvre français... écrits en français ; on lui enseigne aussi les fables de La Fontaine: quelle attention peut-il apporter à des récits présentés en une langue qu’il balbutie à peine ? (ibidem: 494)⁶⁸

Lafittek, bestalde, Archuren idazkeraren dotoretasuna eta naturaltasuna nabarmendu zituen: “...l’instituteur Archu transpose, en souletin élégant et naturel, les Fables de La Fontaine...” (1941: 49-50).

Santi Onaindiak, berriz, ez zuen izan ereduzko egileen artean. Trakets iritzi zion, besteak beste, Archuren joskerari:

⁶⁸ Irisarri eta Irulegiko eskola-haurrek frantsesa ozta-ozta lardaskatzen zutelako lekukotasun horren ildotik, Pierre Encrevék datu hau eman zuen, Victor Duruy hezkuntza-ministroaren 1863ko inkesta oinarri:

Le français gagna du terrain en France durant tout le 19^{ème} siècle, surtout en pays roman et dans les villes, notamment avec la loi Guizot de 1833 qui imposait une école dans chaque commune; mais les langues de France persistèrent longtemps: en 1863, l’enquête de Duruy établissait que le quart des français ne parlaient pas du tout français et que l’école usait de la langue régionale dans 12 départements (Alsace, Lorraine, Bretagne, Pays Basque et Corse) (Encrevé, 2005: 6).

Bere asmoa txalogafi dala be, afotz ipuiñok bere erara josi ta eusko-gogoz aberastu ta edertasun-txinpartez apaintzean, etzan goi-goiko mailaraño igon. Itz-joskera baldana, irudipen eratsia (1954: 439).

Kontuan hartu behar da Onaindiak hitz horiek idatzi zituen garaian indar handia zutela, artean ere, Altuberen arau sintaktikoek.

Marivi Unamunoren ustez, Archuk ez zuen helburu literariorik izan. Itzulpenaren literaltasunarengatik atera zuen ondorio hori: “hizkuntzak konparazio bidez irakastea eta irakurtzen irakastea gai atseginak aukeratuz izan zitezkeen bere nahiak” (in Agirreazkuenaga et al., 1991: 109).

Zabalkundea

Manterolak Archuren alegia batzuk sartu zituen, beste euskalkietako itzulpenekin batera, *Cancionero Bascon* (1878): “Esne salzalia eta kotchia”, “Oxoa eta achuria”, “Hacheria eta akherra” eta “Belia eta hacheria”, hain zuzen ere.

Archuren liburuak edizio bakarra izan du, 1990ean Euskal Editoreen Elkarteak berrargitaratu zuen arte. Ricardo Gómezek prestatutako edizio horrek euskarazko alegiak bakarrik jaso zituen eta frantsesezko alegiak baztertu. Archuren euskal alegien iruzkina egin zuen Gómezek, sakon eta zorrotz, filologiaren ikuspuntutik. Noizean behin frantsesezko testua hizpidera ekarri zuen, itzulpen kontuak argitzeko.

Testu mailako azterketa

Sinesmenak. Kristautentzako egokitzeak ditugu, batez ere. Adibide honetan, Jainkoari egotzi behar zaio gauzen arrazoia, ez naturari:

Le Chêne un jour dit au Roseau : Vous avez bien sujet d'accuser la Nature ... Lf 64	Kanaberari haritzak Behin erran zion : Ezteizu zuri Gainkoak Eman sortze eta indar hon... Ar 91
--	---

Beste honetan, berriz ere, nahiago du *Jainkoa* aipatu frantsesezko metonimia erabili baino.

...que peut-il faire, Que de prier le Ciel qu'il vous aide en ceci? Lf 254	Zer eghin ahal dezake, Othoitze baizik Jainkoari ? Ar 213
--	---

Honako honetan, ikono kristaua –gurutzea– hobiaren materiaren ordez:

...il grava sur leur marbre Ce que je viens raconter. Lf 442	... haien kurutze gainean Nik hemen dudana erran. Ar 235
--	--

Kontzeptuak. Egokitu egiten ditu zenbaitetan. Esaterako, haize-motak aldatuta daude euskarazkoan. Iparrekoa, hegoko bihurtuta, eta ekialdekoa, iparreko:

Tout vous est aquilon ; tout me semble zéphir . Lf 64	Oro zuretzat ditzu hegora ; Guziak iphar zitatzut iduritzen. Ar 94
--	---

Apaizen aurkako izaera satirikoko alegia honetan (VII.3), berriz, pertsonaia bat aldatu zuen: derbixearen tasunak kaputxinoaren figurak iradokitzen dizkigu euskal testuan. Izan ere, alde batetik, derbixeak bezalaxe, errari ibili ziren kaputxinoak Archuren garaian: iraitzi egin zituzten Errepublikatik eta Penintsulatik, eta hala, bai Iparretik Hegora eta Hegotik Iparrera ibili ziren kaputxinoak Euskal Herrian. Beste alde batetik, kaputxinoek pobretasun-botoak egin ohi zituzten, derbixeek bezalaxe. Aski arrazoi, Archuk kaputxinoa derbixearen figurarekin pareka zezan. Bestalde, exotismoa ekidin zuen horrela, eta osagai hori etxekotu:

Qui désignai-je à votre avis Par ce rat si peu secourable ? Un Moine? Non, mais un Dervis : Je suposs qu'un Moine est toujours charitable. Lf 254	Zure iduriala nortaz niz mintzatzen, Arhatoin bekaiztiaz baniz aiphatzen? -Apezaz? -Ez, bena bai kapuchiaz Sinhexi nahi dut aphezak Emaila direla guziak. Ar 213
--	--

Izen arruntak ere bai:

L'histoire nous apprend... Lf 249	Zaharrek diote... Ar 205
Vos scrupules font voir trop de délicatesse Lf 250	Zure erreligioniak Eguiten zitu chuchen sobera Ar 205

Izen bereziak. Ez du erakusten Archuk jokabide bateraturik. Izenaren jabea nolakoa, itzulpen-estrategia halakoa:

- Animalien izen bereziak: Rodilardus/Rodilardo (Lf 71, Ar 95).
- Pertsona-izenak euskaratu egiten ditu, oro har: Perrette/Maillaita (Lf 266, Ar 185), Picrochole, Pyrrhus/Phette, Maneche (Lf 267, Ar 189), Jean/Johane (Lf 267, Ar 191).
- Geografia izenak naturalizatu zituen: Caucause/Ahuñe (Lf 64, Ar 93). Alegiazkoak ere bai: Ratapolis/Arathoin hiriko (Lf 253, Ar 211).
- Mitoak, pertsonaia historikoak, obra klasikoetako pertsonaiak eta beste, batzuetan kendu, besteetan onartu, eta zenbaitetan naturalizatu zituen: Sofi/Ø (Lf 39, Ar 189), Thémis/Ø (Lf 73, Ar 99), Morphée/Ø (Lf 309, Ar 237), Esope/Esope (Lf 227, Ar 199), Monomotapa/Monopotapa (Lf 309, Ar 237), Garo/Garo (Lf 353, Ar 219), Phénix/erreghia (Lf 32, Ar 75), Achéron/Ifernia (Lf 249, Ar 203), Bertrand avec Raton/Beiñat eta Raton (Lf 378, Ar 221).

- Jentilizioak ere egokitu zituen: Renard gascon...normand/Hacheri napartarra...laphurtarra (Lf 124, Ar 135).

Paremiak. Archuk ez zion ixkin egin paremiak itzultzeari. Paremia bakoitzari bere ordaina eman zion. Gehien-gehienak literalki itzuli zituen; bakarren batzuk modu librean. Baina ez dira xede-kulturan berezko paremiak. Hona adibide bat edo beste:

- Itzulpen literala eman zuen gehienetan:

Un Tien vaut mieux que deux Tu l'auras. Lf 182.	Biga izanen tuk beno, Baten etchekitzia hobe duzu. Ar 157
--	--

- Eta itzulpen librera jo zuen beste askotan:

Plutôt souffrir que mourir, C'est la devise des hommes. Lf 54.	Herioak oro dutu sendotzen. Hobe da ghien bezala egoitia Eziez eta hilzia. Ar 119.
---	--

Arkaismoak. La Fontaineren 'marri' hitza egokitu zuen Archuk:

La dame de ces biens, quittant d'un œil marri Lf 266	Beghiak nigarrez bustirik Ar 189
--	----------------------------------

Literatura-alusioak. Literatura- eta filosofia-aipamena (Greziako zazpi jakitunei buruzkoa) galdu egin da adibide honetan:

Plus content qu'aucun des sept sages. Lf 291	Zuhurrak baino irusago zen. Ar 225
--	------------------------------------

Metaliteraturazko alusio bat dugu hemen: 'ghezur' ematen du 'fable'-ren ordain:

De cette vérité deux fables feront foi, Tant la chose en preuves abonde. Lf 85	Eghia hau bi ghezur hoietan Ikhasiren duk aisa ta bertan Ar 105
---	--

Generoaren eta sexuaren ikuspegia. Sexu-kontu bat garbitu edo xahutu zuen, bertsoak inausiz. Erabatekoa da, gainera, inausketa zeren testu frantsesari ere zentsuratu baitzizkion bertsook:

J'ai mon épée, allons. Vous ennuyez-vous point De coucher toujours seul ? Une esclave assez belle Était à mes côtés : voulez-vous qu'on l'appelle ? Non, dit l'ami, ce n'est ni l'un ni l'autre point. Lf 309	Hotx, ezpatarekin nuzu [Ø] Ezta, derio adichkidiak Gauza horietarik bata ez bestia Ar 239
--	--

Adibide honetan, berriz, liberalago jokatu zuen, jatorrizkoa osoki itzuliz. Galtzen da, hala ere, frantsesezko esapidearen polisemia (Faire le sabbat: marraskaz egon, zalaparta egin, baina, baita ere, 'akelarrea egin'):

Or un jour qu'au haut et au loin Le Galand alla chercher femme, Pendant tout le sabbat qu'il fit avec sa dame... Lf 71	Egunbatez urrun eta gora Joan zelarik emaztekarra, Eta bere andria gatik Marraskaz zegoelarik... Ar 95
---	---

Bere horretan itzuli zuen Archuk genero-bortizkeria erakusten duen pasarte hau:

Va s'excuser à son mari En grand danger d'être battue. Lf 267	Beldurreki makhilaren Ghizona gana joan zen. Ar 189
--	--

Esplizitu bihurtzea. Adibide honetan heriotza izendatzeko modua aldatuta dago: metaforaren ordeztu, haren esanahi zuzena: La main des Parques blêmes/hilzia (Lf 441, Ar 233).

Aldaketa morfosintaktikoak. Noka darabil Archuk otsoaren ahotan axuriarekiko elkarrizketan, eta ez toka. Horrek irauli egiten du, modu positiboan, hitanoaren euskal erabilera. Izan ere, toka hartu ohi da euskal erabilera neutrotzat, animalien arteko elkarrizketetan.

Qui te rend si hardi de troubler mon breuvage ? Lf 44	Zertako ene edaria, Dun thurbusten? Ar 89
--	--

Beste adibide honetan, Azeriaren maltzurkeria adierazten du tratamendu aldaketak. Lehenik, berorika urruntasunezkoan (ikasiaz zukeen Archuk erabilpen hori, erabat arrotza baita zubereraz); zuka adeitsuan, gero;

Et bonjour, Monsieur du Corbeau. Que vous êtes joli ! que vous me semblez beau ! Sans mentir, si votre ramage... Lf 32	Egun hon, agur, gure jaun beliari! Zoin pollit, zoin eder den! Eghiazki, zure botzak... Ar 75
--	---

Eta, azkenik, toka; eta, jarraian, 'jauna' bokatibo ironiazkoa, kontrastea lortzearen:

...Mon bon Monsieur, Apprenez que tout flatteur... Lf 32	Jakintzak, jauna,... Ar 77
---	----------------------------

Bestalde, zenbaitetan, zuzeneko solasera aldatu zuen frantsesez zehar estiloko dagoena:

Il pria le Cheval de l'aider quelque peu. Lf 231	Lagunt nazu zuk, ahal baduzu, Bestela ni hilen nuzu Heltu gabe hiriala. Ar 191
--	--

Itzulingurua. Honako hau, neurriak eta errimak beharturik, seguruenik:

mendiants Lf 35	Eta athez athe joaten diener... Ar 83
-----------------	---------------------------------------

Lautzea. Testua lautzearen, hemengo esapide jasoa kendu zuen Archuk:

Et le financier se plaignait Que les soins de la Providence N'eussent pas au marché fait vendre le dormir. Lf 291	Gure dirudunak zuen ghaltatzen Zeren [Ø] merkatian loa etzen salzen... Ar 227
---	--

Osoki lautu zuen pasarte honen hizkuntza jasoa: jainko-izena eta esapide jasoa saihestu zituen eta haren esanahia eman. Nazioaren goitizena, bestalde, zuzenean ezabatu zuen:

L'autre, afin de monter aux grandes dignités, Dans les emplois de Mars servant la République. Par un coup imprévu vit ses jours emportés. Lf 442	Bestiak gherlan, aitzindaria Izan nahiz, galdu zien bizia; ... Ar 233
--	---

Galdu egiten du euskarazko testuak zenbaitetan alor semantiko jakin bateko hiztegia. Kasu honetan justiziaren arlokoa:

Pour ce prétendu vol par lui fut appelé. Devant le Singe il fut plaidé, Non point par avocats, mais par chaque partie. Lf 73	Ohoinkeria egin zuela [Ø]. Tchiminoaren aintziniala Jiten dira bi aizoak. Emaiten duzte bere arazoak, Batak hola, bestiak hala. Ar 99
---	---

Beste honetan erlijio kutsukoa:

Le demeurant des Rats tint chapitre en un coin Sur la nécessité présente. Dès l'abord leur Doyen... Lf 71	Aratho bizi zienak dia elhestetazen, Chokobatetan, bere beharetan gainen. Behala zaharrenak... Ar 97
---	--

Beste honetan ogasunaren arlokoa:

Deux Mulets cheminaient ; l'un d'avoine chargé ; L'autre portant de la gabelle. Lf 34	Bi mando zoatzen bidian; Batak olho bestiak diru bizkarrian. Ar 79
...le Mulet du fisc... Lf 34	...mando diruduna... Ar 79

Gerra arloko terminoak ezabatu zituen, testua lautzearen, beharbada:

À peine il achevait ces mots Que lui-même il sonna la charge, Fut le Trompette et le Héros. Dans l'abord il se met au large... Lf 81	Hitz hoiek tielarik erraiten [Ø] Gherla du berehala hasten. Ar 101
---	---

Irakaspenen mezua. Honako estrategia hauek erabili zituen irakaspenak itzultzeko:

- Irakaspen berdina ematea. Archuk irakaspen ia guztien mezuak zeuden-zeudenean eman zituen. Adibidez, paremia-irakaspena literalki itzuli zuen.

Ventre affamé n'a point d'oreilles. Lf 380	Eztik beharirik sabel gossiak. Ar 217
--	---------------------------------------

Literala ez izan arren, eduki semantikoa osoki eman zuen adibide honetan:

Qu'un ami véritable est une douce chose. Il cherche vos besoins au fond de votre cœur ; Il vous épargne la pudeur De les lui découvrir vous-même. Un songe, un rien, tout lui fait peur Quand il s'agit de ce qu'il aime. Lf 310	Eghiazko adichkidia Ala gauza ezta! Zure beharren ikhertzera Badoa zure bihotz erdira; Etzitu zu uzten Beharraren erraitera. Amexak, ez deusak ditu loxerazten, Adichkidia han denian zerbaiten. Ar 239-241
---	--

- Irakaspeneko adibidea lautzea. Oraingo honetan, irakaspeneko 'Erregea vs Printzeak' dikotomia euskal irakurleari anakroniko gertatuko zitzaiola iritziko zion Archuk, eta 'handiak vs txipiak' ipiniz lautu zuen:

...Raton N'était pas content, ce dit-on.	Hola hola hanitz alditan, Tchipienak besterentzat lanetan
---	--

Aussi ne le sont pas la plupart de ces Princes Qui, flattés d'un pareil emploi, Vont s'échauffer en des Provinces, Pour le profit de quelque Roi. Lf 379	Ari ghira. Probechiak noren dira? Handienen, Ez chipienen. Ar 225
---	--

Hala ere, lautze horrekin batera, halako ideologia-lerratzte bat sumatzen da Archuren bertsoetan. Izan ere, narratzaile intradiegetikoak txipien –zapalduen– artean kokatzen du bere burua. Herri txikien aipamena ote da hori?

Poesia berridazteko moduak. Archuk ez zien jarraitu La Fontaineren neurriari ezta errimari ere. Batez ere, eduki semantikoari eman zion garrantzia, ez formari. Eduki semantikoa itzultzen saiatu zen eta, hortaz, La Fontaineren pentsaera, oro har, egoki eman zuen. Ondo egiazta daiteke hori irakaspenak irakurrita, zintzo-zintzo eman baitzuten gehien-gehienak, akademiko frantsesak sortu bezala.

Horrenbestez, poesia itzultzeko modu analogikoaren eta organikoaren artean ibili zen Archu, bere helburua lortzeko, frantsesa ikasteko, itzultzeko modurik egokiena iruditu baitzitzaion.

Ondorioak

Guizot legearen testuinguruan jaio zen Archuren berridazketa, irakaskuntza- eta hizkuntza-batasuna helburu zituen legearen garaian. Hertsatzaile ideologiko horrek gidatu zuen Archuren lana. Izan ere, lehen hezkuntzan frantsesa irakasteko materiala sortzea izan zen Archuren asmoa: horregatik hautatu zuen La Fontaine eta horregatik, halaber, plazaratu zuen testu elebiduna, ikasleek testua uler eta ikas zezaten, hain zuzen.

Zubereraz kanpoko hitzak eta itzuliak badituelako, ondoriozta daiteke testua Ipar Euskal Herri osoan zabal zedin nahi zuela Archuk.

Literala izatea egotzi ohi dio kritikak oro har: paremien itzulpena, esaterako; baita irakaspenak itzultzeko modua ere. Hala ere, askotan egokitu zuen testua Archuk: kristau-federa lerratu zen batzuetan; egokitu egin zituen zenbait kontzeptu; etxekotu egin zituen pertsona-izenak, geografia-izenak eta jentilizioak; itzuli gabe utzi zituen zenbait mito, pertsonaia historiko eta kultura-erreferente klasiko; lautu egin zuen testua, arlo semantiko berezitetako hitzei dagokienez; inausi egin zuen sexu-konturen bat edo beste... Horrek guztiak adierazten du xede-kultura aintzat hartu zuela gure berridazleak; baita jasotzaileak euskal gaztetxoak izatea ere.

VI.4. Martin Goyhetche (1791-1859)

Ideologia

Goyhetche alegialaria, *Fableac edo Aleguiac* lanaren egilea, Martin izan zela eta ez Léonce, Jon Bilbaoren *Eusko bibliographian* eta, ondorioz, literatur kritika-lan ia guztietan agertzen den bezala⁶⁹, Aurelia Arkotxaren aurkikuntzari eta ikerketei esker (2003a, 2003b) dakigu. Léoncek *Saint-Jean-de-Luz-Historique* lana (1856) idatzi zuen baina, obra horren egiletzaz gain, La Fontaineren itzulpenarena ere egotzi izan zaio orain arte.

Martin Goyhethek irakurriak zituen “bi fable multço, bata Suberotar Yaun batec, bertcea Guipuzcoaco Yaun Aphez batec, berxutan publicatuac” (“Aitcin-solhasac publicoari”, 1852: i) –Archu eta Iturriagaren lanak dira bi multzo horiek, bistan denez– eta horregatik etorri zitzaion gutizia “Laphurdico hitzcuntçan lan beraren eguiteco” (ibidem: v). Lapurtar irakurleei garai hartako literatur genero ugarienetako bat eskaini nahi izan zien.

Aurelia Arkotxaren ustez, gainera, Goyhethek ezagutuko zituen garai hartako Baionako gaskoierazko alegia itzultzaile-egokitzaileak, hala nola, Darretche, Lesca eta Dubourg (2003b: 5). Arkotxak galdera pausatzen du: ezagutuko ote zituen Goyhethek Mogeldarren alegiak, Juan Mateo Zabalarenak eta Iriarterenak? Erantzun beharko banu, baiezkoaren alde egingo nuke, ikusirik urruñarrak generoari zaletasun berezia ziola, hain berezia, non lan hori egiteaz desenkusatu behar izan baitzuen apaizen iritzietatik babesteko.

Helduak eta haurrak bereizi zituen Goyhethek alegien hartzaileen artean: haurrek “ikhasten dituzte lorietan eta condatcen, baiña perroketaren pare, mamiaz edo moralaz casu guti eguiten dutelatic”; helduek, ordea, “eracurtcen dituzte centçuzki, eta hirriz daudela irexten dute irakhaspen on cembait” (1852: vii). Hartzaile bikoitzaren auzia agertzen du bereizketa horrek.

⁶⁹ Arkotxaren argitasunetan baino lehenago, Patri Urkizuren lanean soilik irakurri dut Martin izena (2000: 310).

Galbahe ideologikoa erabili zuela diosku Goyhetchek. La Fontaineren alegiategia ondo ikusi, ondo irakurri eta ondo arakatu ondoren, alegia “arinscoac, legArchuac eta izpirituen harrotcera eta bihotcen asaldatcera daronxaketenac” (ibidem: ix-x) baztertu egin zituen. Eta “gaiçoa” deitu zion La Fontaineri, horrelako alegiak idazteagatik.

Badirudi, aitzinsolasa irakurrita, bere ingurukoek ez zutela begi onez ikusten abade bat alegiagintzan, alegiak, zenbaiten iritzian, “gauça ariñac, erguelac eta illhaunac” zirela (ib.: vi), abadeek “ocupamendu serios eta solidoagoric” (ib.: viii) behar zutelako. Hori dela eta, bere jarduna zuritu zuen, esanez “apheçac ere bere pausa orduac” (ib.: x) badituela, eta ordu horiek baliatuz “aise” burutu zuela lana.

Adierazi zuen ez zegoela euskarazko ez gramatika baturik ezta neurtitzak egiteko araurik ere. Beraz, berak honela konpondu zuen egin beharrekoa: hizkuntzan “endelgatceco errechena” eta bertsoetan neurrik “yustuenac” eta punturik “ahalic hobekiena parecatuac” erabiliz. Hala ere, sinpletasun hori lortzeak nekeak ere eragin omen zizkion.

Poetika

Bere itzulpen lanaren balioa erakusteko, alegiak ebanjelioko kontakizunen modukoak direla esan zuen Martinek: “...fableac dira Ebanyelioco parabola edo comparantcen idurico condaira labur batçu [...] morala edo iracaxpen cembait bere baithan cerratua dakhartenac” (ib.: vi).

Goyhetcheren helburuari bagagozkio, argi adierazi zuen mamia “onguia eta eguia” (ib.: iii) dela, “morala edo iracaxpena” (ib.: vi), “probetchatceco”, hain zuzen ere (ib.: xii); eta, azala, berriz, “hirria” (ib.: iii eta xii).

Corpusa eta iturriak

Pariseko Bibliothèque Nationaleko eskuizkribuen saileko “Fonds Celtique & Basque” (FCB, hemendik aurrera) arakatzan ari zela, Martin Goyhetcheren eskuizkribu bi aurkitu zituen Aurelia Arkotxak 2000. urtean. FCB 163 eskuizkribuan, *Fableaceco* sei kapituluez gain, beste kapitulu bat ere, “Lafontenen fableena. Liburu Çazpigarrena”, ordura arte ezezaguna, azaldu zen agerira eta, gainera, FCB 162 eskuizkribuan, Jean-

Pierre Claris de Florian (1755-1794) alegialari frantsesaren 110 alegiaren lapurterazko zirriborro bat, ordura arte desagertutzat jotzen zena (Arkotxa, 2003b: 3) eta Laffitek (1941: 50) eta Lacombek aipatua zutena.

FCB 163ko La Fontaineren alegien “Liburu Çazpigarrena”-k 27 alegia biltzen ditu⁷⁰.

Goyhetcheren *Fableac edo Aleguiac...* liburuko atalak honako hauek dira: aitzinsolasa, 150 alegia sei liburutan banatuak –25 alegia liburu bakoitzeko–, eta hiztegi xume bat (euskara-euskara), lapurterazkoak ez diren hitz eta adizkiak ulertarazteko. Alegiak ez zituen La Fontaineren hurrenkera berean eman, baina adierazi zigun alegialari frantsesaren zein alegia den, horrela bere itzultzaile kontzientzia azaleratuz. Itzultzaile kontzientzia hitzaurrean ere ikus dezakegu, esaten digunean ahalegindu dela alegiak ematen “Lafontenen penxatceco eta mintçatceco laiñotasunean” (1852: xi).

Nabarmendu behar da La Fontaineren liburu guztietatik itzuli zuela zer edo zer, eta euskaldun bakarra dela horrela jokatu duena, gaur arte, behintzat.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Martin Goyhetche	<i>Fableac edo Aleguiac Lafontenenetaric berechiz hartuac</i>	1852	150 hn	150 Lf

GOYHETCHE, Martin (1852). *Fableac edo Aleguiac Lafontenenetaric berechiz hartuac / Goyhetche apheçac franxesetic escoarara berxutan itçuliac*. Baiona: Fore eta Lasserre.

[“Belea eta Acheria” **Lf I-2**. “Ttirritta eta Chinaurria” **Lf I-1**. “Guiçona eta Herioa” **Lf I-16**. “Iguela Idiaren berdiñ eguiñ nahia” **Lf I-3**. “Bi Mulac” **Lf I-4**. “Bildoxa eta Oxo” **Lf I-10**. “Urdea, Ahuntça eta Cikiroa” **Lf VIII-12**. “Ezkurra eta Cuya” **Lf IX-4**. “Pegar-esnea” **Lf VII-9**. “Bi Medicuac” **Lf V-12**. “Bi Pelegriñac eta Ostria” **Lf IX-9**. “Buru pelatua” **Lf I-17**. “Astoa eta Chacur ttikia” **Lf IV-5**. “Astoa ihician” **Lf V-21**. “Arratoiña hermitau” **Lf VII-3**. “Arratoiña eta Ostria” **Lf VIII-9**. “Amiamokoa eta Arraiñac” **Lf VII-4**. “Ora eta Oxo” **Lf I-5**. “Ohoiñac eta Astoa” **Lf I-13**. “Hirico Arratoiña eta baserricoa” **Lf I-9**. “Astoa eta Ora” **Lf VIII-17**. “Oxo eta Ardiac” **Lf III-13**. “Acheria eta Akerra” **Lf III-5**. “Laboraria eta bere Semeac” **Lf V-9**. “Mendia ernari” **Lf V-10**. “Arraiñ ttikia eta Arraintçalea” **Lf V-3**. “Oxo eta Ora mehea” **Lf IX-10**. “Acheria eta Cigoña” **Lf I-18**. “Lehoiña eta Arratoiña” **Lf II-11**. “Urçoa eta Chinaurria” **Lf II-12**. “Oxo eta Acheria” **Lf XII-9**. “Herbia eta Apoarmatua” **Lf VI-10**. “Astoa eta bere Nausiac” **Lf VI-11**. “Miga, Ahuntça eta Ardia

⁷⁰ Ikus bedi Arkotxa 2003b-ko “Appendix V”. Bertan ematen du Goyhetcheren “Liburu Çazpigarrena”-ko alegien izenburuen zerrenda.

Lehoiñarekin partçun” **Lf I-6**. “Orkatça bere buruari beha ithurri batean” **Lf VI-9**. “Iguela eta Arratoiña” **Lf IV-11**. “Herbiaren beharriac” **Lf V-4**. “Acheria Buztanaz gabetua” **Lf V-5**. “Oxoa eta Cigoiaña” **Lf III-9**. “Çaldia eta Oxoa” **Lf V-8**. “Lehoiña, Oxoa eta Acheria” **Lf VIII-3**. “Axoa eta bi Nescatoac” **Lf V-6**. “Çapataiña eta Bankiera” **Lf VIII-2**. “Artçaiña eta Ixaso” **Lf IV-2**. “Haurra eta Escola-nausia” **Lf I-19**. “Agudea eta Astoa” **Lf VI-8**. “Dirucoia tresora galduric” **Lf IV-20**. “Yabearen beguia” **Lf IV-21**. “Burdinezco eltcea eta Lurrezcoa” **Lf V-2**. “Dirucoia eta Urrezco arraultce-eguille oilloa” **Lf V-13**. “Acheria, Chiminoa eta Animaleac” **Lf VI-6**. “Gathu çaharra eta Sagu gaztea” **Lf XII-5**. “Orkatz eria” **Lf XII-6**. “Lehoiña çahartua” **Lf III-14**. “Edaillea eta bere Emaztea” **Lf III-7**. “Çuhur baten errana” **Lf IV-17**. “Astoa erlekiekin” **Lf V-14**. “Orkatça eta Mahaxtea” **Lf V-15**. “Lehoiña eta Astoa ihician” **Lf II-19**. “Iguelac Erregue-galdez” **Lf III-4**. “Oxoa, Ahuntça eta Pittica” **Lf IV-15**. “Oxoa artçaiñ billhacatua” **Lf III-3**. “Herbia eta Iguelac” **Lf II-14**. “Tresora eta Bi Guiçonac” **Lf IX-16**. “Chiminoa eta Gathua” **Lf IX-17**. “Lehoiñ eria eta Acheria” **Lf VI-14**. “Arratoiña eta Elefanta” **Lf VIII-15**. “Çamaria eta Astoa” **Lf VI-16**. “Ora, ahocoa itçalarentçat largatcen duena” **Lf VI-17**. “Acheria eta Mahax-mulcoac” **Lf III-11**. “Senharra, Emaztea eta Ohoiña” **Lf IX-15**. “Itçaiña basan guelditua” **Lf VI-18**. “Oillarra eta Perla” **Lf I-20**. “Suguea eta Lima” **Lf V-16**. “Oillarra eta Acheria” **Lf II-15**. “Mandoa bere ethorkiaz hartua” **Lf VI-7**. “Yupiter eta Bordaria” **Lf VI-4**. “Ora beharriez gabetua” **Lf X-8**. “Çaldia eta Orkatça” **Lf IV-13**. “Gathua eta Acheria” **Lf IX-14**. “Emaztekiac eta Secretua” **Lf VIII-6**. “Agudea eta hirur Yaunttoac” **Lf XI-8**. “Erho bat eta Çuhur bat” **Lf XII-22**. “Lehoiña guerlara goaki” **Lf V-19**. “Bufuna eta Arraiñac” **Lf VIII-8**. “Animaliac içurriteaz erituac” **Lf VII-1**. “Peisanta eta Suguea” **Lf VI-13**. “Ora nausiaren bazcaria daramana” **Lf VIII-7**. “Hartça eta Bi Compaiñoac” **Lf V-20**. “Herioa eta hilltcera doana” **Lf VIII-1**. “Haritça eta Sesca” **Lf I-22**. “Ihiztaria, Belatcha eta Allauda” **Lf VI-15**. “Lehoiñaren Gorthea” **Lf VII-6**. “Carroa eta Ulia” **Lf VII-8**. “Arranoa eta Phica” **Lf XII-12**. “Bi Ahuntçac” **Lf XII-4**. “Acheria, Uliac eta Sagarroia” **Lf XII-13**. “Listorrac eta Erleac” **Lf I-21**. “Emazte ithoa” **Lf III-16**. “Sabela eta Membroac” **Lf III-2**. “Erhoa çuhurtcia saltcen” **Lf IX-8**. “Eiharaçaiña, hunen Semea eta Astoa” **Lf III-1**. “Gaizki ezcondua” **Lf VII-2**. “Uzkinachoa, Paonaren lumez berreguindua” **Lf IV-9**. “Camelua eta Çaro-çama” **Lf IV-10**. “Andreyerra soillaru batean sarthua” **Lf III-17**. “Iguzkia eta Iguelac” **Lf VI-12**. “Lehoisaren Oxekiac” **Lf VIII-14**. “Diru-biltçaillea eta Chiminoa” **Lf XII-3**. “Oillarra, Gathua eta Sagu ttipia” **Lf VI-5**. “Herbia eta Epherra” **Lf V-17**. “Arranoa eta Untça” **Lf V-18**. “Paona Yunoni pleiñtaca” **Lf II-17**. “Suguearen buru buztanac” **Lf VII-16**. “Mirua eta Rochiñoleta” **Lf IX-18**. “Andreyerra, Lapiña eta Gathua” **Lf VII-15**. “Belea, Arranoa imitatu nahia” **Lf II-16**. “Ora emea eta bere Laguna” **Lf II-7**. “Oxoa eta Artçaiñac” **Lf X-5**. “Tresor-gordetçaillea eta bere Confidentia” **Lf X-4**. “Gathua eta Arratoiña” **Lf VIII-22**. “Gathua eta Arratoiñ çaharra” **Lf III-18**. “Lehoisa eta Hartça” **Lf X-12**. “Artçaiña eta Arthaldea” **Lf IX-19**. “Apoarmatua eta Bi Ahateac” **Lf X-2**. “Guiçona eta Sugue ixua” **Lf X-1**. “Alhargun gaztea” **Lf VI-21**. “Oxoa eta Acheria” **Lf XI-6**. “Langosta eta bere Alaba” **Lf XII-10**. “Chiminoa” **Lf XII-19**. “Acheria, Oxoa eta Çaldia” **Lf XII-17**. “Gau-Aiñhara eta Bi Andreyerrac” **Lf II-5**. “Epherra eta Oillarac” **Lf X-7**. “Bordaria, Ora eta Acheria” **Lf XI-3**. “Yupiter eta Pasayera” **Lf IX-13**. “Ulia eta Chinaurria” **Lf IV-3**. “Egurguillea eta Oihana” **Lf XII-16**. “Lehoiña, Chiminoa eta Bi Astoac” **Lf XI-5**. “Bi Adizkideac” **Lf VIII-11**. “Lehoiña eta Ulia” **Lf II-9**. “Arratoiñen biltçarra” **Lf II-2**. “Asto cardoz cगतua, eta Asto gatcez cगतua” **Lf II-10**. “Acheria eta Indi-Oillascoac” **Lf XII-18**. “Gathua eta Bi Garraioac” **Lf XII-2**. “Guiçona eta Çurezco idola” **Lf IV-8**. “Acheria eta Guiça-Itchura” **Lf IV-14**. “Artçaiña eta Erreguea” **Lf X-9**. “Artçaiña eta Lehoiña” **Lf VI-1**. “Lehoiña eta Ihiztaria” **Lf VI-2**. “Oxoa haucitan Acheriarekin Chiminoaren aicnean” **Lf II-3**.]

Kritika

Manterolak *Cancionero Bascon* (Primera série, tomo IV, 1878) Goyhetcheren bi alegia argitaratu zituen, “Pegar esnea” (ibidem: 27-29) eta “Belea eta Acheria” (ib.: 62-63). Azken hori da, Manterolaren ustean, Goyhetcheren bildumako onenetarikoa, nahiz eta ez zuen iritzia arrazoitu.

Hiribarrenek, *Eskaldunac* poeman, Urruñaz ari dela, Goyhetche eta haren alegiak goraiatu zituen: “Yende hoberena da hango populua, / Lumako ere badu seme bat hautua: / Goyetchen aleguiec buru seinalatzen, / Damuric ezdirela perla hoic prezatzen! / Eskalduna ezbalitz den becen guibela, / Hetan den gatza luke bilduren bertzela” (1853: 124). Aurelia Arkotxarentzat bertso horietan argi geratzen da irakurleak urriak zirela eta, beraz, alegien eragina ere, ustez, txikia izan zela: “Les vers laudatifs que lui dédia en 1853 Jean-Martin Hiribarren semblent contrebalancer une audience populaire restée semble-t-il mince. [...]. Si les fables ne sont pas estimées à leur juste valeur par les récepteurs éventuels, c’est que ceux-ci n’ont pas les moyens de les comprendre, qu’ils sont «attardés» (*gibela*). Il y a également là, bien entendu, une allusion à la vertu opérative des fables” (2003b: 5).

Hizkuntza-hautuari buruz idatzi dute zenbaitzuek. Michelek, esaterako, dio lapurtera dela Goyhetcheren hautua baina “de façon à être goûté en Espagne” (1857: 523). Ideia hori zabaldu zuen geroago:

...le langage de l’auteur a le défaut de n’être ni labourdin ni guipuzcoan. Goyhetche montre de la prédilection pour les formes contractées des verbes usitées en Espagne. Il fait usage aussi de beaucoup de termes qui ne sont pas connus en Labourd... (ibidem: 524).

Hain zuzen, hiztegitxoan argitu zituen Goyhethek halako formak.

Michelek La Fontaineren eta Goyhetcheren lanak alderatu eta ondorio batzuk atera zituen, hala nola, urruñarrak ez zuela literalki itzuli, testu frantsesa zabaldu egin zuela, baina galdu egin zituela frantsesezko testuak dituen berezotasuna eta gatza eta piperra. Edozelan ere, “le recueil de M. L’abbé Goyetche est un bon livre basque”, Michelen ustez (ib.).

Hizkuntza hautuaren harira, Karl Boudak filologia-analisi bat egin zuen Goyhetche abadearen lapurtera langai hartuz. Izan ere, ongi itzulia eta hizkuntzaren

aldetik aski interesgarria (1973: 163) iruditu zitzaion Goyhetcheren lana. Boudak dio, baita ere, itzultzaileak ez zuela zehaztu haren hizkera euskalki jakin batekoa zenik, baina tituluak berak salatzen duela lapurterazkoa dela eta, oro har, ia testu osoari buruz hori esan daitekeela baina, edozelan ere, badirela aldaera eta forma-gorabehera ugari (ibidem: 168). Eta, horietako batzuk ekialdeko euskalkietan usu erabiltzen direla.

Gai berari buruz, Josu Pikabeak dio Goyhetcheren obra berezia dela “kostalde ingurukoa izaki eta halarik ere behe-nafarreraren eragina” duela (1991: 651).

Itzulpen lanari eta literatur alderdiari gagozkiola, Lafittek “poète de bureau” deitu zion Goyhetcheri. Archurekin alderatu eta Goyhechek “plus lourdement” itzuli zuela. Edozelan ere, Lafittek miretsi egin zituen Goyhetchek erabili zuen hiztegi zabala eta aditz trinkoei buruz zuen ezagutza (1941: 49-50).

Onaindiaren iritzia, berriz, hauxe dugu: “Baekian, antza, euskal-efia guztiz ipuin-zalea dala, ta euskerari ernai eusteko alegi efikoiak bear dirala, ezez ta goxo idatziak. [...]. ...bizkor ta bizi erabili bear dau ipuinlariak bere luma, ifi jolaska, bafe-antzean; [...]. Or idazle onen akats bat” (1954: 440).

Orpustanek oso garrantzitsutzat dauka Goyhetcheren ekarpena, alegia kopurua kontuan hartuz gero: Archuk baino hiru aldiz gehiago eta Fedrok baino hiru alegia gutxiago besterik ez (1996a: 142). Eta, kontuan har bedi Orpustanek hori esan zuela Arkotxak Florianen alegien itzulpenak eta La Fontaineren alegiez osatutako zazpigarren liburua aurkitu baino lehen. Orpustanen irudiko, Goyhetcheren alegiak tresna pedagogiko ezin hobekak dira (ibidem: 149) Elizak irakaskuntzan zituen helburuetarako: “le rôle moralisateur”, hain zuzen (ib.: 153).

Aurelia Arkotxaren ustez, Goyhetchek da “le plus prolifique des fabulistes basques, auteur-adaptateur d’au moins 287 fables à présent répertoriées”, eta horregatik “Martin Goyhetchek devrait ainsi occuper la place qui lui revient dans l’historiographie littéraire basque du XIXème siècle” (2003b: 11).

Zabalkundea

Goyhetcheren lanak, handia izan arren, oihartzun txikia izan du.

XIX. mendean, Manterolak bi alegia tartekatu zituen *Cancionero Bascon* (1878), “Pegar esnea” eta “Belea eta Acheria”. Bestalde, *Revista Euskaran* hiru alegia argitaratu zizkioten 1879an: “Acheria, chimiñoa eta animaleac”, “Gathu zaharra eta sagu gaztea” eta “Lehoisaren oxekiac”.

XX. mendean, zorte hobea izan zuen. Edizio faksimilea argitaratu zuen Hordago argitaletxeak, 1978an. Olariagak, bestalde, *Alukiss* izenburuko bestiariorako (1992) Goyhetcheren alegia bat jo zuen begiz, “Acheria eta belea”, hain zuzen.

Testu mailako azterketa

Objektuak. Zehatzetik orokorrera zein orokorretik zehatzera jauzika ibiltzen da zenbaitetan itzultzailea: errimatu beharrak eraginda batzuetan; xede-kulturako osagaiak gertukoagoak izango zaizkiolakoan irakurleari, besteetan. Adibide honetan, esaterako, zehatzetik orokorrera jo zuen, errimatzeke:

Pas un seul petit morceau De mouche ou de vermisseau. Lf 31	Ez chichari, ez marmotcha; Etchea ceducan huxa; Gy 3
--	---

Adibide honetan, berriz, orokorretik zehatzera jo zuen:

Maître Corbeau, sur un arbre perché... Lf 32	Musde Bele cegoen haritz tontorroan... Gy 1
--	---

Sinesmenak. Kristautentzat jainko bat bakarra dagoenez, manipulazio bat egin zuen Goyhetchek “aux Dieux” itzultzean.

Du Goujon ! c'est bien là le dîné d'un Héron ! J'ouvrirais pour si peu le bec ! aux Dieux ne plaise ! Lf 255	Bah! Bah! Dio, bechtela hauc: hau ezta nire plata; Arraiñ chirtchill hori bethi, erientcat utzten da. Gy 30
--	---

Goyhetcheren ideologiak eragina du zenbait irudi itzultzeko orduan. Batzuetan, irudia aldatu egiten du. Honela, adibide honetan, La Fontainek adierazi nahi du kleroa izan ohi dela justizia emaile eta indartsuenaren zerbitzuko. Goyhetchek, apaiza izanik, abokatu-jendearengana desbideratzen du arreta:

Un Loup quelque peu clerc... Lf 250	Abokat aire bat çuen Oxo bat han guertatcen cen. Gy 160
-------------------------------------	--

Zenbaitetan ez du irudia osoki ematen. Fraideak aipatzea saihesten du hemen:

...J'ai souvenance Qu'en un pré de Moines passant... Lf 250	Behiñ batez niñdoala Phentce bat bera beçala... Gy 160
--	---

Ohitura bati, ezkontzeari, dagokio adibide hau. Erantsia dago, ez baitago halakorik jatorrizkoan:

[Ø] Lf 266	Horla dotea billduric falta eguin ez deçake, Ezkontça on baten bidez naiz eguiñen etheco andre. Gy15
------------	---

Kontzeptuak. Harrotasunaren deskripzioa, jatorrizkoan urrats bizian ibiltzea; euskarazkoan, ordea, buruzut ibiltzea:

Il marchait d'un pas relevé... Lf 34	Gora darama burua... Gy 8
--------------------------------------	---------------------------

Beste honetan *sénateur* hitzaren orde, trufaz erabiltzen baita hemen kontseilari zahar eta pausatua adierazteko, matronaren irudia darabil itzultzaileak:

...il laisse la Tortue Aller son train de Sénateur. Lf 222	Bertcea aldiz partitcen da matrona bat iduri. Gy 58
---	---

Hala ere, eutsi egin zion batzuetan hizkuntza irrigarriaren osagai konnotatiboari:

Avec son ami Bouc des plus haut encornés.Lf 114	Aker adarretan halto cen baten compañian. Gy 41
---	---

Izen bereziak. Izenaren jabea nolakoa, itzulpen-estrategia halakoa:

- Animaliak, askotan, haien ezaugarri bereizleaz aipatu zituen: Maître Renard/maltcurra (Lf 32, Gy 1); Baudet/beharri-luz (Lf 250, Gy 160); Oiseau/Gormant handia (Lf 255, Gy 30).
- Animalien izen bereziei, berriz, eutsi egin zien: Rodilard/Rodilardo (Lf 133, Gy 247); Grippeminaud/Gripamino (Lf 280, Gy 234).
- Pertsona-izenak, bakarren bat izan ezik, euskaldundu egin zituen: Guillot/Manoel (Lf 110, Gy 114); Pierrot/Patchicu (Lf 139, Gy 82); Perrette/Aneta (Lf 266, Gy 15).
- Mitoak, pertsonaia historikoak, obra klasikoetako pertsonaiak eta beste aldatu egin zituen gehienak. Testuaren ulermena errazteko: Acheron/Erresuma ilhuna (Lf 249, Gy 157); un voisin d'Amphitrite/ixasoaren auzo (Lf 139, Gy 82). Edo garaiari egokitzeko: L'Attila, le fléau des Rats/ Gathuen Bonaparte (Lf 133, Gy 247).
- Izenburuak. Batzuetan luzeago, bestetan motzago: Le Héron/Amiamokoa eta arrainac (Lf 255, Gy 29). Gehienetan berdintsu.
- Tratamendua. Batzuetan eutsi zion tratamenduari: Maître Corbeau/Musde Bele (Lf 32, Gy 1). Beste batzuetan, ez: Sire Loup/Oxoa (Lf 32, Gy 32). Beste zenbaitetan senitartekotasun-kutsua erantsi zion: Allez, vous êtes une ingrante/Ene arreba maiteñoa (Lf 122, Gy 71).

Paremiak. Itzulpen-estrategia bat baino gehiago erabili zuen Goyhetchek:

- Itzulpen literala eman zuen gehienetan, euskaraz halako paremia baliokiderik ez dagoelako-edo:

[Il m'a dit qu'il ne faut jamais Vendre la peau de l'Ours qu'on ne l'ait mis par terre. Lf 204 ...un sou quand il est assuré Vaut mieux que cinq en espérance. Lf 139	[Erran çautac] iñoiz eztela saltceco Hartçaren larrua berac dabillcaïño. Gy 204 ...hobe da ukhaitea Sos bakhar bat escuetan Ecen ez hamar menturan. Gy 83
--	---

- Eta itzulpen librerara jo zuen beste askotan:

Plutôt souffrir que mourir, C'est la devise des hommes. Lf 54	Eta yasateco cer-nahi dukegun; Hobe dela bethi Yauna deïthu lagun. Gy 6
--	--

- Gutxitan eman zuen euskal paremia baliokidea:

Un Tien vaut mieux que deux Tu l'auras. Lf 182	Ceren hobe... Handia naskian baino, tchikia segurean. Gy 47
--	--

- Oso gutxitan uko egin zion, dena dela, frantses paremia itzultzeari:

La raison du plus fort est toujours la meilleure. Lf 44.	[Ø] Gy 9.
--	-----------

Arkaismoak. La Fontainek barra-barra erabili zituen hitz zaharkituak. Euskaraz ordain berdinek ez, eta esanahia baino ez zuen itzuli Goyhetchek:

Rien d'assuré, point de franche lippée. Lf 35	Behiñere ez ase onic. Gy 32
---	-----------------------------

'Goujat', gaskoiera zaharrea, dama batengana zakarki zuzentzen den gizon gazteari esaten zitzaion. Hori esplikatatu behar, ordea, Goyhetchek.

...et bons pour les goujats... Lf 124	...on... mutico tçarrentçat... Gy 129
---------------------------------------	---------------------------------------

Generoaren ikuspegia. Jatorrizkoak ez dakar, bertsootan, emakumeenganako inolako gaitzespenik. Goyhetchek nabarmendu egin zen arlo honetan, gaitzespenezko gehikuntzen bitartez:

Quand, trois filles passant, l'une dit: C'est grand honte Qu'il faille voir ainsi clocher ce jeune fils... Lf 106	Hirur nescatila pasatcen baitciren, Nola, ohi beçala, mocoluce ciren: Cer ahalkeria! Batec derra oihuca, Doan nerhabea horrela mainguca! ... Gy 200
--	--

Eta aurrerago gai berberaz:

[Ø] Lf 106	Oh! Baiña hirur mocoac. Eztire hoiñ labur ez guelditcecoac Asco bertce ditcho oraiño Çaharrari badoazco... Gy 200
------------	--

Hala ere, jatorrizkoak genero bortizkeriaz dakarren pasarte bat ezabatu egin zuen Goyhetchek.

Va s'excuser à son mari En grand danger d'être battue. Lf 267	[Ø] Gy 16
--	-----------

Konpentsazioa. Bateko adjektibo galdua besteko animalia bati erantsi zion itzultzaileak.

Ni Loups ni Renards n'epiaient La douce et l'innocente proie. Les Tourterelles se fuyaient. Lf 249	Acheriac eta oxoac ya etciren ocupatcen Oillo eta arcumeac nondic arrapa cetçaketen. Ihesca tortoila eztiac elkhar ganic çabilltcan. Gy 157
--	---

Aldaketa morfosintaktikoak. Zuzeneko solasera aldatu zuen, zenbaitetan, frantsesez zehar estiloan dagoena.

Il se dédit alors, et maudit les présent Que le Ciel lui fait tous les ans. Lf 221	Orduan miñekiñ dio, Ceruac niri certaco Daut eman garraiatceco Ondicozco edergaillua Copetaco aparailua? Gy 64
--	--

Bestetik, itzultzaileak narratzaile intradiegetikoaren ahotsa saihestu zuen batzuetan, besteetan ez.

J'ai lu chez un conteur de fables, Qu'un second Rodilard, l'Alexandre des Chats Lf 133.	Gathu famatu bat bacen... Gy 247.
Toutes, dis-je, unanimement... (ibidem)	Oroc, diot, dute berdiñ... Gy 249

Itzulingurua erabili zuen batzuetan, testua lautzeko: horrela, 'Phénix' saihestu, eta, parafrasi luze baten bitartez, azeriak adierazi zuen belearen berdingabetasuna:

Vous êtes le Phénix des hôtes de ces bois. Lf 32	Oihan hautan ez laite garabic, Aber ez hegaztin, acinda ez choririk Ederrez çurekin ihardun lironic. Gy 2
--	---

Betelana eta eletsutasuna, hots, azalpenezko gehikuntzak. Baliabide ohikoa izan zuen Goyhetchek. Alegia guzti-guztietan aurkitu daitezke adibideak. Esaterako, "Ttirrita eta Txinaurria"-n txindurriak txitxarrari bihia ukatzeko aitzakia arrazoitu egin zuen Goyhetchek:

La Fourmi n'est pas prêteuse; C'est là son moindre défaut. Que faisiez-vous au temps chaud ? Lf 31	Chinaurria baita guti prestatçaille Gutiago are emaille: Badiotço ttirrittari: Oro çaito elkhar iduri; Hartecan handi promesac, Nasai ciñac eta hitçac: Ondoan ill ephecoa Nihoiz ez aguertcecoa. Caritatezco leguea Ezta alferrac bazcatea : Nekhez tugunac uztatu Nekhez guc utzten ditugu : Eta çuc uda cenean Certan bada ciñaraman ? Gy 3-4
---	---

Beste batzuetan, neurriak eta errimatu beharrak eragiten dute betelan hori. Esaterako, "Amiamokoa eta Arrainac" alegian:

Ma commère la Carpe y faisait mille tours Avec le Brochet son compère. Lf 255.	Ibai baten heguitic penxaketa çoala Urean ikhusten ditu dosteta cebillçala, Içokintcho eta platucha ainguiria eta amorroñac: Mokoaren azpiraiño datoherzkio choroac. Gy 30
---	---

Betelanaren adibiderik esanguratsuenetako bat “Acheria eta mahax-mulcoac” alegia da. Jatorrizkoa baino lau bider luzeagoa da.

Lautzea. Batzuetan zenbait pasarte itzultzea saihestu zuen. Esaterako, “Eyharaçaina, hunen semea eta astoa” alegian 26 bertoko sarrera luzea dago itzuli gabe. Apologoaz, fikzioaz, dihardu La Fontaineren testuak; Racanen eta Malherberen arteko elkarrizketa bat dago eta Racanek aholkua eskatzen du. Izan ere, Malherberen ahotan jarriko zuen La Fontainek alegia. Goyhetchek, ordea, alegia itzultzeari ekin zion zuzenean eta gainerakoa baztertu egin zuen, irakurlearentzat zaila-edo izango zelakoan.

Testua lautzea eta irakurleari zenbait ezagutza ematea helburu, oin-oharrak erabili zituen Goyhetchek jainko-, pertsonaia- eta geografia-izenak azaltzeko: *Yupiter, Bakhus, Sokrate, Larhun mendia*.

Irakaspenen mezua. Goyhetchek aitzin-solasean irakurleari esaten dio zilegi duela, irakaspen hoberik atera uste badu, nor berea ateratzea:

[irakaxpena] fableguilleac fable bacotcharen ondotic eçartcen ohi du. Baiña hau baino hoberic bere cascotic edo bihotcetic eracurleac athera uste badu, cillegui çαιο eguita (1852: vi).

Hori adieraziz, zilegitasuna ematen dio bere buruari La Fontaineren irakaspenak aldatzeko. Horrenbestez, bada, hona Goyhetcheren modurik erabilienak irakaspenera berrantolatzen:

- Irakaspenera emateko, zenbait sarrera-formula eranstea: *Fabetto hau certaraco? / Oror irakhasteraco...*(Gy 4); *Fable huni darraiona, / Da segidan dathorrena* (Gy 6), *Fable hunec irakaxpen ainichco badituzke* (Gy 16)...
- Adibide gehiagorekin hornitzea eta alegia luzatzea. Esaterako, “Iguela Idiaren berdiñ eguiñ nahia” alegiaren irakaspenera berdintsua den arren, zabaldua dago nola adibideei dagokienez, hala mezuaren azalpenari dagokionez ere. Bestalde, XIX. mendeko euskal gizarteko klaseak islatu zituen itzultzaileak: laborariak, emakume langileak, tarteko klaseak, jende ikasia, aberatsak. Jatorrizkoan, ordea, erreinu-antolakuntza ohikoari dagozkionak ditugu:

<p>Le monde est plein de gens qui ne sont pas plus sages : Tout bourgeois veut bâtir comme les grands seigneurs, Tout petit prince a des ambassadeurs ; Tout marquis veut avoir des pages. Lf 33.</p>	<p>Ascoc ez dute munduan Funts guehiago buruan. Laborariac nahi du Goldea pluman trucatu: Eta utciric capelua Chapelaz gorde burua. Nesca lanecoac ere Dama aditu nahi luke: Baçαιο estofa eciña, Duken bedere façoïña Artecoac nahi luke Gorago dena imitatu; Beherean denac ere Bedere artecora heldu. Horla phermatuz sobera Etcheac doaz lecera. Baiña çuhur içaiteco Batbederac içar beço, Ethorkiari tonua Eta bolxari gastua. Gy 7</p>
---	--

Adibideekin hornitze hori berori egin zuen, besteak beste, honako alegia hauetan: “Eyharaçaina, hunen Semea eta Astoa”, “Animaliac içurriteaz erituac”, “Amiamocoa eta arraiñac”.

- Irakaspen agerikorik ez dagoen tokian berea ematea. Esaterako, “Ttiritta eta Chinaurria” alegian La Fontainek ez zuen irakaspenik eman; Goyhetchek, berriz, bai: gazte alferrari zahardade behartsua datorkiola iragarriz interpretatu zuen jatorrizko alegia. Are gehiago, La Fontainerenean txindurria da pertsonaia gaitzetsia (“La Fourmi n’est pas prêteuse; / C’est là son moindre défaut”), edo, behintzat, parez pare daude txirritaren eta txindurriaren sinbolismoak: musikarenganako amodio galdua eta poesiaren axolagabetasuna batetik, eta etorkizunerako etenik gabeko pilaketa-lana, bestetik. Beldurraren pedagogia erabili zuen Goyhetchek txindurriaren ahalegin kementsua saritzeko eta txirritaren kezkarik eza gaitzesteko.

<p>[Ø] Lf 31</p>	<p>Fabetto hau certaraco? Oror irakhasteraco, Adin gasteen dena alfer eta nagui, Çaharrean maiz dela gose eta egarri. Eta huzcur dagonac denean lan-bide. Badukela ondoan cer yan gabe yan-bide. Finean gaizki dena ohitu gaztean, Çaharrean bioa çacua soiñean. Gy 4</p>
------------------	--

Hori berori egin zuen “Ora eta Oxo”, “Amiamokoa eta arrainak” eta “Lehoiña çahartua” alegietan ere.

- Irakaspen berdina ematea. “Gathua eta Arratoiñ çaharra” alegian, esaterako, osagai semantikoak trukatu zituen Goyhetchek, dotore, irakaspenaren esanahia aldatu gabe:

Il était expérimenté Et savait que la méfiance Est mère de la sûreté. Lf 134	Çuhurtcia falta etçuen. Eta baçakien segurantça dela Mesfidantçaren alaba. Gy 250
--	---

Jatorrizkoen berdin antzeko irakaspenak ditugu alegia hauetan ere: “Edaillea eta bere emaztea”, “Acheria eta mahax-mulcoac”, eta “Oxoa, Ahuntça eta Pittica”.

- Irakaspenen kutsu morala areagotzea. “Acheria eta akerra” alegian bukaerako irakaspen-paremia bazter utzi eta berea eman zuen Goyhetchek. Oso tonu moralistan, adiskide on eta txarrez jardun zuen:

Car, pour moi, j’ai certaine affaire Qui ne me permet pas d’arrêter en chemin. En toute chose il faut considérer la fin. Lf 115	Nire aferec deitzen naute. Lagun tçarrekin ez yunta, Bethi çatçu onac hauta Onekin on çare egonen, Baita ascotan hobeturen: Tçarrekin tçar bihurturen, Hauc çaituzte bai eraman, Urrun bide makurrean, Ondoratu çarenean; Utcico çaituzte hantche: Eta hec bereaz eguin badukete, Contu çutaz hartu gabe Hirriz handic ganen dire. Gy 43
--	--

Antzera jokatu zuen beste hauetan ere: “Herbia eta Apoarmatua”, “Uzkinacho Paonaren lumez berreguindua”.

“Edaillea eta bere Emaztea” alegian, gainera, misoginia erakusten du:

[Ø] Lf 119	Fabletto huni nere ustez, bi gauça badarraizco. Bata, edateco ohitçari, darraiona lucesco. Haren esclabo dagola, hilltceco orduraino Baita casic haratago, Fableco guiça lekhuco. Bigarrena, ema ezconduac, ez dukeiala ondotic Moyenic, correyticco, senharra biciotic. Aitciñetic behar dela, sahex ona hautatu, Utciric gazte debocha, gazte prestua hartu: Eta tristeac hautuan, trumpatu direnean, Goçoric ez duketela, baicican othoitcean, Gurutcearen aldean. Non ez duten nahiago, senharrekin trincatu, Bi burutan etcheari, bieç betan eman su: Nola gure tokietan, maiz ikhusten baitugu. Gy 103-104
------------	--

- Irakaspena kristau-fedearen alorrera lerratzea. Kristau onaren eginbeharrak nolakoa behar duen izan adieraziz, eskuarki. Honela, “Orkatça bere buruari beha

ithurri batean” alegiaren irakaspenean, erlijioaren eta bertutearen garrantzia nabarmendu nahi du Goyhetchek, eta diru-etekin, ospe eta edertasunaz arduratuta egotea gaitzetsi:

<p>Nous faisons cas du Beau, nous méprisons l’Utile ; Et le Beau souvent nous détruit. Ce Cerf blâme ses pieds qui le rendent agile ; Il estime un bois qui lui nuit. Lf 221</p>	<p>Orkatz hura beçain choro garela çait iduri, Probetchos çaicuna dugu preçatcen ohi guti; Caltacor edo inutillaz, hartuagoac gaude. Intres, ospe, edertasunac, lilluratcen gaituzte. Berthute, erligioneac, desgustu demaigute; Hauc gabe hec bitartean, cer dukete balio? Gogoari guc ochala, maiz hori baguiñerro! Gy 64</p>
--	---

Poesia berridazteko moduak. Goyhetchek, batez ere, eduki semantikoari eman zion garrantzia, eta ez formari. Horregatik, galdu egiten dira La Fontaineren baliabide poetiko asko eta era askotakoak. Baliabide horiek maisuki erabiltzeak, hain zuzen, goi mailara igo zuten La Fontaine. Esaterako, “Le Loup et le Chien” alegian, *-ment* errimak adierazten du otsoaren itolarria:

<p>Mais il fallait livrer bataille Et le Mâtin était de taille, À se défendre hardiment. Le Loup donc l’aborde humblement, Entre en propos, et lui fait compliment Sur son embonpoint, qu’il admire. Lf 35</p>	<p>Baina guducau hortaco behar cen, Eta orac guduco hazcar cirudien. Oxo beraz humillki aldera badoaco, Eta cerbait ere moldez solhasean sartceco: Gy 32</p>
---	--

Alegia berean, bukaerako bertsoa prosodikoki zatitua egoteak esanahiari eransten dion arintasuna galdua dugu euskal bertsoan. Hori bai, jatorrizkoaren eduki semantikoa badugu, ia gehiena:

<p>Cela dit, maître Loup s’enfuit, et court encor. Lf 36</p>	<p>Eta gaiçoa oraindic ez omen daite gueldi. Gy 33</p>
--	--

Halaber, formaren funtzioari erreparatu zion. Euskal literaturan funtzioakide ziren bertso neurri eta errimak erabili zituen: arnasa luzeko bertso-lerroak.

Horregatik, poesia itzultzeko modu analogikoaren eta organikoaren artean ibili zen.

Ondorioak

Alegien aldeko giro batean itzuli zuen Goyhetchek La Fontaineren lana.

Helburuetako bat lapurteraz idaztea izan zuen, zubereraz eta gipuzkeraz landua baitzegoen generoa.

Ahalik eta hizkerarik ulerterrazena erabiltzen saiatu zen, euskara landu gabe egotea kontuan hartu zuelako.

Ideologiaren hertsatzailea ere sumatzen zaio, zein alegia itzuli behar zituen erabakitzeke orduan: alegia arinxkoak baztertu zituen, izpiritua eta sentimenduak asalda zitzaketenak. Gainera, gainditu behar izan zituen apaizgoak generoaz zituen gaitzespenezko iritziak.

Itzultzaile kontzientzia izan zuen eta, horregatik, alegia bakoitzaren iturria zein zen adierazi zuen.

Inoizko alegialaririk emankorrena da Goyhetche. Nabarmendu behar da La Fontaineren XII. liburuko 29 alegietatik 14 euskaratu zituela. Kontuan har dezagun liburu horretako beste hiru alegia baino ez direla euskaratu, 2003. urtera arte, behintzat. Liburu hartan isuri zuen La Fontainek bere kristau zaletasuna, bizitzaren hondarrean. Esanguratsua da, beraz, moralaren eta filosofiaren alorretatik.

Agerikoa du Elizak irakaskuntzan zituen helburuak aintzat hartu zituela, alegiak ebanjelioko parablekin alderatzean, esaterako. Hala, irakaspenak aldatzeko lizentzia hartu zuen: rol moralizatzaile hori hor dugu, nagusiki. Halako didaktismo ebanjeliko bat garatzeko erabili zituen alegiak, ongia zer den adieraztearren, moral kristauaren arabera.

Hartzaile bikoitza izan zuen jomuga zeregin moralizatzaile hartan: haurrak eta helduak; baina helduak batez ere, haurrek alegiok ikasten dituztelako mamiari kontu gutxi eginez.

Diskurtsoa xede-kulturaren unibertsora ekarri zuen askotan: objektuak aldatuz, jainko paganoak ezkutatuz, izen bereziak euskaldunduz edo itzuli gabe utziz, osagai konnotatiboa bestelakotuz... Are gizartean indarrean zegoen misoginia azaleratuz eta genero bortizkeria ezabatuz.

Betelana eta eletsutasuna da Goyhetcheren estrategia ilokutibo erabiliena. Bestalde, testua lautu egin zuen askotan, paratestuak kenduz eta oin-oharrak erabiliz, jainko-, pertsonaia- eta geografia-izenak argitzeko, hartzailea oso kontuan hartu zuelako.

Esanahiari, ildo narratiboari, eman zion garrantzia formari baino gehiago.

VI.5. Ramon Etxezarreta (1808-1879)

Etxezarreta abokatua izan zen eta euskaraz oso gutxi idatzi zuen. Durangarra zen, eta horregatik 10 alegia bertsozko bildu zizkion Uriartek bere *Poesía Bascongada Dialecto vizcaíno* eskuizkribuan. Jon Kortazarrek dioenez (in Uriarte, 1987: 10), Etxezarretaren alegiak argitaratu barik egon ziren Uriarteren eskuizkribua argitaratu zen arte.

Iturri klasikoekin alderatuta, 10 alegia hauetatik 8 Samaniegorenak dira; beste biak, “Goiztarra eta naguija” eta “Epigrama edo Biur-surria”, hain zuzen, ez datoz tesi honetan erabilitako iturri klasikoetatik⁷¹.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Ramon Etxezarreta	<i>Poesía Bascongada. Dialecto vizcaíno.</i>	c. 1856/ 1987	10 hn	8 Sam

ETXEZARRETA, Ramon (c. 1856). “Don R. E. renac”, in Jose Antonio URIARTE (1987), *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaíno*. Edizioa: Jon Kortazar, Miren Billelabeitia. Testuaren begiralea: Joseba A. Lakarra. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 79-82.

[“Adisquide bi eta artza” **Sam I-19**. “Lenengo chimurra” **Sam IX-6**. “Burumurrija eta eulija” **Sam I-18**. “Urrezco arrautzadun ollua” **Sam V-6**. “Chacurra eta cocodrilua” **Sam V-23**. “Zacuto bijac” **Sam V-20**. “Aicerija, eta buru-utzia” **Sam I-7**. “Salicio Ardizaña” **Sam IX-13**.]

VI.6. Alegiak Euskal Pizkunderako

Euskal Pizkundeko alegiagintza hiru eragileren ekimenez elikatu zen, batez ere: Anton Abbadia, mezenas gisa; Jose Manterola, biltzaile eta kritiko gisa; eta Aitzol, kultura-eragile gisa.

Anton Abbadia izan zen, Lore Jokoak 1851n sortu zituenez geroztik, euskararen eta euskal literaturaren zutaberik sendoenetakoa, Euskal Herriko zazpi probintzietan. Patri Urkizuk (1998: 70) dioskunez, mezenas handi bat izan genuen euskaldunok Abbadiarengan. Poesia indartu zuen Abbadiak “Koplarien guduak” deitutakoen bitartez, eta, horri esker, genero nagusietakoa bihurtu zen poesia, estu-estu loturik herri-lirikari

⁷¹ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo egile honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

eta bertsolaritzari, eta, Haritzelarrek ikertu duenez (1998), poeten gogo-bihotzetan borborrean zeuden gaiak, hala nola baserritar-giroa, emigrazioa, herri-bestak, gerlak, euskara eta politika (*xurien* eta *gorrien* arteko hika-mikak Iparraldean, eta foruen deuseztatzea Hegoaldean).

Giro horretan, poetek eta bertsolariek alegiak landu eta lehiaketa haietara aurkeztu zituzten, eta baita zenbaitetan saria irabazi ere alegiokin. Patri Urkizuk apailaturiko bertso eta aireen bilduman (1997) irakur daitezke koplarien gudueta alegia haiek: Gratien Adema, Auguste Etcheberry, Ramon Artola, eta Pepe Artolarenak, besteak beste.

Euskal kulturaren aldeko beste suspertzaileetariko bat, Hegoaldeko probintzietan, foruen galeraren ondoren, Jose Manterola izan zen. *Cancionero Basco* (1877-1880) argitaratu zuen eta *Euskal-Erria* aldizkaria sortu (1880-1918).

*Cancionero Basco*ko orrietan, euskal alegialarien lanak eta alegiei buruzko kritikak atondu zituen, era guztietako poesien artean. Alegialari batzuen lanak lehenengo aldiz argitaratu zituen (Iza y Agirre, Serafín Baroja, Pierre Ibarrart); beste batzuenak, berriz, berrargitalpenak ziren, baina ikuspegi kritikoz eta filologikoz iruzkindu zituen (Bizenta Mogel, Iturriaga, Archu, Goyhetche...). Poesia-genero guztiak eta euskalki guztiak jaso nahi izan zituen bere kantutegian. Beraz, alegiagintzari ere heldu zion, literatura-genero apala izan arren, alegiek mezu sakona eskaintzen dutelako.

Euskal-Erriako orrietan, bestalde, garaiko alegia-agiritegirik aberatsena osatu zuen. Arrese Beitia, Ramon Artola, Rosario Artola, Eusebio Azkue eta Jose Manterolak berak *Euskal-Erria*n argitaratu zituzten idazle klasikoak alegien berridazketak. Baita eurek sortutakoak ere. Izan ere, alegiak sortzea modan egon zen, erromantizismoaren eraginez. Aurrekoek gainera, honako idazle hauek ere alegiak sortzeari ekin zioten: Juan Ignacio Uranga, Victoriano Iraola, Cirilo Erkizia, Jose Otamendi, Felipe Kasal, Klaudio Otaegi... Bertsolarien moldeak erabili zituzten horietako askok alegiak taxutzeko.

Idazle horien obran, alegiek zati bat baino ez dute osatzen. Alegietara jo zuten politika eta gizarte gaiak lantzeko, horrela generoa dibertsifikatuz, Europako beste herrialdeetako egileek egin bezala. Bide berriak urratu zituzten euskal alegialari haiek; generoa ez zen hain atxikia egon, moral soilari eta irakaskuntzako erabilerari,

mogeldarren garaian bezala, hots, generoaren hastapenetan bezala. Asmamena landu, txinparta eta gatza erantsi, eta eguneroko errealitate soziopolitikoak agertzea izan ziren egile horien zio nagusiak alegiei ekiteko orduan.

Abadiaren eta Manterolaren kultura-nazioaren ideia estatu-nazioaren zedarrietara ekarri zuen Sabino Aranak geroago. Arana Goiriren jardunak eta ideiek itzal luzea izan zuten hizkuntzan eta kultura-ekoizpenean, oro har, eta haur-liburugintzan, zehazki.

Geroago, Jose Ariztimuño “Aitzol” kultura-eragilea dugu. Olerkiari eta olerkariari berebiziko garrantzia eman zien Aitzolek, Euskal Pizkundeko kultura-egitasmoaren barruan, olerkariaren beharra baitzuen hizkuntzak, behar bezala landu eta aurrera aterako bazen. Hitz hauek idatzi zituen 1930ean: “Izkera-langille bearrenekoak, olerkariak dira. Oiek ele gogor eta gordiña, olaetan burni gorria meetzen duten eran, bizkortu eta gozotzen dute; oiek irudi biziz, asmaketa zorrotzaz, eta amets-ereduz aberastutzen dute... Idazleak aisago eta errezago ibili ditezten, olerkariak, erdikaldi nekeak igarota, buru-auste gorriak ikusita, izkeraren bide zabalak idikitzen dituzte” (Ariztimuño, 1986: 8).

Hitz neurtuaren barruan, alegiak eta alegialariak –“ipui egille” deitu zien Aitzolek– aintzat hartzekoak direla adierazi zuen, 1932an, Iturriagaren *Ipuiak* liburuko hitzaurrean:

Izkera geienak ipuilari trebeak izan oi dituzte. Englande’n, Gay alegilari –ipui egille– ospetsuena: Doitxerri’n, Lessing eta Gellert gorenena: Italia’n Roberti, Pignotti eta Bertola irudipenez aberatsena: Parantze’n La Fontaine’k berenganañoko ipuilarien izen argienak estali zituana: España’n Hartzenbusch eta Campoamor goizargiz jantzienak.

Euzkadi, berez izan zaigu ipuilari. Euskera ernai izan zaigun basterretan ipui eta alegi errikoiak entzun genezazke. Atso zimelari Balearrain’go auzoan neronek ipuitxo batzuek ikasi nizekion.

[...] Jatorriz Eusko-erria ipulari izaki. Ipuia eta alegi oiek erritarren ezpaitatik jaso bearrean gaude euskaltzaleak. Ipuilari trebeak guratatik sortzea arrigarria ez da noski. Oetatik geienak euskeraz idatzi zutenak: banaka batzuk erderaz, ere, bai (ibidem: 49-50).

Erdal sailean Samaniego eta Ibáñez de la Rentería euskal herritarrak aipatu zituen; euskarazko sailean, ordura arteko euskal alegialari gehienak. Eta hau gaineratu zuen: “Eusko elerti baratzeko kimu loretsuak, alegi eta ipuiak izan zaizkigula aitoren genezake” (ib.).

Samaniegozaletasuna Hegoaldeko euskal idazleen artean noraino zegoen sartua erakusten digu, baita ere, “On Felix Maria Samaniegori bere ildako eunkidan” Pepe Artolaren bertso-sailak: “Zure izena zeñek / ez du ezagutzen? / Jaio orduko batek / non ez du entzuten? / Lendabiziko letrak / astian ikasten, / denen aurrera zera / poliki azaltzen, / eta gure zentzura / goxo-goxo sartzen” [...] “O zer ikasbide ta / buru argitzea / dan zure ipuiyak / irakurritzea! / Naikua da eskuan / bat beiñ artutzea, / eta berari pozez / begira jartzea, / eta lo dan zentzua / azkar esnatzea” (2006: 326).

Hala ere, geroago, Hegoaldeko euskal poetak Espainiako poeten bertso-neurriak hartzen hasi ziren (Aldekoa, 2004: 129). Hala, poliki-poliki bada ere, berritze poetikoa gertatu zen euskal poesiaren alorrean Lizardi, Lauaxeta eta beste poeta batzuen ekimenez. Berritze horrek esplika lezake alegiak poeten jomugatik kanpo gelditu izana, eta, neurri batean, alegiarik aurkitu ez izana Hegoaldean, Espainiako gerra zibilaren aurretxoan. Izan ere, ordura arteko poesia egileek bertsokera tradizionala eta bertsolarien moldeak erabili zituzten. Hala, poeta horien obretan, beste mota bateko lanen artean, alegiak ere agertzea konstante bat da. Gogoan har, bestela, aurreko egileak: Eusebio Azkue, Felipe Arrese Beitia, Ramon Artola, Gratien Adema... Poesia idazteko modu hori, beraz, eten egin zen XX. mendeko bigarren-hirugarren hamarkadetan.

Hiru kultura-eragile nagusi horien ekimenez gain, euskal eskolak sortzeak eta euskal hezkuntza suspertzen hasteak ere lagundu zuten, XX. mendeko bigarren hamarkadan alegiagintzaren iraupenean eta bilakaeran. Alegien generoa, berriro ere, eskolaren esparruko irakurgaitzat hartzen hasi zen, aspaldi luzean ez bezala. Izan ere, eragile-funtzioa izan zuen eskolak haurrentzako eta gazteentzako liburugintzan. Ikasliburuak sortu beharra berehala ikusi zen. Eta egileek ekin zioten langintza horri, beren gisara nahiz talde edo erakunderen batek eskatuta.

Hala, bada, beste askoren artean, alegien alorrean, Altuna Aldasororen lana (1920) eta Ramon Intzagarairen liburua (1922) plazaratu ziren testuinguru horretan. Haurrentzako “Libros de lectura y cuentos” atalpean sailkatu zituzten Arrienek eta abarrek *Haur liburu didaktikoen erroldan* (1987).

Arrienek (ibidem: 8) eta bestek (Intxausti, 1990: 140; Torreal dai, 1997: 105), nabarmendu zuten bezala, Euskal Pizkundeko kultura-susperraldiak zuzenean eragin zien haur literaturari eta liburu didaktikoen garapenari.

Hegoaldean ez ezik, Iparraldean ere mamitu ziren euskaltzaletasuna eta kultura-eta didaktika-kezka. Izan ere, lehenengo Mundu Gerraren ostean, 1921. urtean, Ustaritzen, gazte multzo bat bildu zen zerbait egin nahiz euskal kulturaren alde: Barbier, Apeztegi, Elissalde, Dassance, Souberbielle anaiak, Garmendia eta beste. Horien artean, Oxobi. Besteak beste, *Gure Herria* aldizkaria sortu zuten gazte horiek beren lanak eta kezkak agertzeko (Haritxelar, in Moulier, 1966: 8).

Berriki, Xabier Hiriartek “Uztaritzeko Eskola” izena⁷² jarri zion gazte talde horri, nonbait Sarako Eskolako idazle-taldeak izan zituen irizpide berdintsuak atzeman zizkiolako-edo. Izan ere, Sarakoek bezala, Uztaritzeko idazle haiek helburu bikoitza izan zuten: ideologia nahasmenaren ondorioz, kristau ideologia finkatu nahi izan zuten eta euskal zaletasuna iratzarri. Helburu horietaz gainera, beste ezaugarri bat ere izan zuen talde hark: didaktismoa (in Moulier, 2003: 8-9).

Gogora dezagun, baita ere, tartean, urte gogorak izan zirela euskararentzat, euskal liburuentzat eta, oro har, euskaldunen antolamendu politikoarentzat. Debekuen bidez⁷³ eragotzi ziren euskara eta euskal liburugintza⁷⁴, bai Primo de Riveraren diktaduraren garaian (1923-1930), baita faxisten altxamenduaren eta Espainiako gerraren ostean ere.

Horrenbestez, alegia eta alegialari asko ditugu Euskal Pizkunderan: egoera soziopolitikoak eragin zuen kultura-susperraldiaren eraginez, Pizkunderaren hastapenetatik XX. mendeko bigarren hamarkadara arte; eta, baita ere, irakurgai-liburu eta material didaktikoak sortu beharraren beharrez, euskal hezkuntza hasi berriaren testu-gosea ase zedin, Pizkunderaren azken hamarraldietan.

⁷² “Gizaldi gaztea” ere esan izan zaio (Lourdes Otaegik, “Poesia Vasca del siglo XX”n).

⁷³ Katixima euskaraz erakusteko debekua (1902), Iparraldean. Frantziako Errepublikako Irakaskuntza Publikoko eta Arte Ederretako Ministroak zabalduko zirkularra (1925), lehen hezkuntzan frantsesa ez besteko hizkuntzak eta dialektoak erabiltzea baztertu zedin adoretzen zuena (Torreal dai, 1998: 49-50; 74-77).

⁷⁴ Espainiako Gobernuak, 1925ean, Erret-Ordena baten bidez, gaztelaniaz ez beste idatzitako liburu guztiak erretiratzeko agindu zuen. Litekeena da horixe izatea Joseba Altunaren *Ume euskaldunen laguna* irakurgai-liburua erretiratzeko arrazoia. Izan ere, *Haur liburuen erroldako* ohar batek honela dio: “libro de lectura para los niños de las escuela. Edición destruida posteriormente por la Diputación de Bizkaia” (1987: 20).

VI.6.1. Gratien Adema “ZALDUBY” (1828-1907)

Ideologia

Gai askotako neurtitzak idatzi zituen Adema abadeak, goitzenak erabilia: “Zalduby”-z gain, “Artzain Beltcha”, “Haranbeltz”, “Hergaraya”, “Oiharrepe”, “Senperetarra” eta “Uxaleguy”.

Larresoroko ikastegian neurtitz zaletu zen Gratien Adema gazte denboran, Xarritonek kontatzen digun moduan (1985: 47). Elizanburu adiskidearekin batera hasi zen bertsoak ontzen; saio horietako batean, La Fontaine euskaratzeari ekin zioten, zeinek hobeto itzuliko: “«Kuaia eta ezkurra» Ademak, «Otsoa eta bildotxa» Elissamburuk”. Ikastegi horretan bertan urte bete eman zuen maisu Ademak, 1854an.

Ademaren bi eskuizkribu argitaragaberen berri dugu Xarritoni esker. Lehenengoa familiak gordetzen duen *Ene loreac* eskuizkribua da. Eskuizkribu hori irakurrita Xarritonek egiaztatu zuen Ademak 1850. urterako bazituela onduak La Fontaineren zazpi alegia (ibidem: 48).

Bigarren eskuizkribua *Zalduby artzain beltxaren neurtitzak* da. Xarritonek hauxe diosku: “Bere lanarteetan Gratien Adema kalonjeak bere eskuz biltzen ditu liburuxka ttipi apain batean «Zalduby artzain beltxaren neurtitzak», beren apaindura eta musika propioarekin argitaratu nahi zituen bere obra profanoak” (ib.: 51-52). Ademaren gutuneria (Irigoien, 1957: 334) irakurrita ondorioztatu dudanez, eskuizkribu hori 1894a baino lehen egina zegokeen. Bestalde, Lafittek, Ademari buruzko artikulu batean, eskuizkribu horretako 13 neurtitz horien izenburuak eta neurtitzok ondu zitueneko urteak eman zituen (1933: 25). Alegiak dira 13 neurtitz horietatik 10.

Ademak, antza, bere neurtitz horiek, tartean alegiak, bilduma gisa argitaratu nahi zituen. Asmo hori Azkueri adierazi zion 1894ko apirilaren bateko gutunean (Irigoien, 1957: 334): “Nik, berrogoi eta hamar urthe huntan egin kanta eta neurthiz hoberenak laster argitaratuko ditut Jainko onak bizi eta osagarri ematen badarot”. Asmo hori bete gabe zegoen bi urte geroago. “Ene neurthitzak ez dire oraino agertu” idatzi zion Azkueri 1896ko abuztuaren 22ko gutunean (ibidem: 337). Ametsak amets huts zirauela hilko zen Adema. Nolanahi den, bizi zelarik, banaka agertu ziren bere alegiak zenbait agerkaritan.

Baina, bera hil eta gero, 1908an, *RIE* Ven argitaratu ziren Ademaren neurtitzak. Hortxe, hain zuzen, irakur daiteke Adema euskararen alde egindako aldarria, euskaldunek arrotzekin euskaraz egin dezaten: “Eskualdunek arrotzekin / Ahanztea Eskuara, / Odolari hori berdin / Ukho egitea da. / Gauden erne sar ez dadin / Ahalke hori gutara”. Bernat Etxepareren oihartzuna⁷⁵ dakarkigu, berriz, honako bertso hauetan: “Ederrena mintzaietan / Eskuara da, diote. / Eskualdunek arrotzetan / Hortaz ohore dute” (Adema, 1908: 757).

Bestalde, garaiko gatazka ideologikoen eragina izan zuten Ademarengan eta bere obran. Gauza jakina da, XIX. mendeko eztabaida ideologikoen zurrunbiloan, Adema, apaiza izanik, *xurien* aldeko, *xuria*, erregezalea zela; bai eta *gorrien*, errepublikazaleen, zirikatzaile handia (“Errepublika” koplaren lekuko).

Eztabaidagaietako bat, esaterako, eskola izan zen: ordura arte apaizen ardurapean egon zen eskola, eta, ondorioz, erlijioa irakastea. Errepublikak ezarritako lege berrien bidez, aldiz, errient laikoak izan ziren ordutik aurrera eskoletako arduradunak. Eztabaida ideologiko hori aise egiazta daiteke garaiko kazetak irakurrita, *Le Réveil Basque* eta *Eskualduna*, batik bat. *Gorrien* tesien aldekoa lehena, eta *xurien*en aldekoa, bigarrena. Gorriek zerabilten goiburuetako bat “Errieta eskolan eta apezan elizan” izan zen (Alberbide, 2007: 140).

Poetika

Nabarmendu behar da Ademaren neurtitzak eta alegiak, oroz gain, kantatzekoak direla, eskuizkribuek idatzia daramaten musika, lekuko. Herri xeheak kantatzekoak zirela, gainera. Xede horretatik datozkio Ademari kritiko gehienek gero aitortu dizkioten tasun batzuk: herrikoitasuna, naturaltasuna eta sinpletasuna.

Kantatzekoak, bai, baina ez edonolako edukiz hornitzekoak, mamiz betetzekoak baizik. *RIE* Veko “Aitzin hitzak” sarrera-bertsoetan ohartzen gaitu Adema hitzaren garrantziaz: “Askoren kanta da bethi / Tilili-ta-talala: / Hitz bat gabe, aire bati / Jo zak eman ahala. / Astoak ere badaki / Orroaz halahala.” (Adema, 1908: 757).

⁷⁵ Cf. Etxepare, 1968: 128. “Ezein ere lengoajerik / Ez frantzesaren ez bertzerik / Orain ezta erideiten / Heuskararen parerik”. Eta “Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden...” (ibidem: 130).

Ademak hitzari ematen zion garrantzi horren ondorio izan zen, behin eta berriro, alegia berberak argitaratzea⁷⁶, aldaketa txikiak egin ondoren. Helburu zuen hitza garaiari egokitzea, garaian esanguratsua zena aukeratuz.

Corpusa eta iturriak

Cancionero Bascon (1878) agertu ziren Sarako Lore Jokoetan 1873an saritutako bi alegiak: “Bildotxa eta Otsoa” eta “Belea eta Acheria”, hain zuzen. Corpuseko beste hamalau alegiak honako aldizkari hauetan argitaratu zituen: *RBPL*, *Eskualduna*, *Euskal-Erria* eta *Pays Basquen*. Aldaera zaharrenak jaso ditut corpusean.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Gratien Adema “ZALDUBY”	<i>Cancionero Basco</i> <i>RBPL</i> ⁷⁷ <i>Eskualduna</i>	1873 1884-1887 1898-1901	2 hn 8 hn 6 hn	16 Lf

ADEMA, Gratien (1873). “Bildotcha eta oxoa”, in Jose MANTEROLA (1981), *Cancionero Basco. Poesías en lengua euskara*. Primera série: tomo IV, Donostia: Sendoa, 43-44. [1878ko lehen edizioaren edizio faksimilea]. **Lf I-10**

ADEMA, Gratien (1873). “Belea eta acheria”, in Jose MANTEROLA (1981), *op. cit.*, 63-65. **Lf I-2**

ADEMA, Gratien (1884). “Acheria eta akherra”, *RBPL*, I, 415-416. **Lf III-5**

ADEMA, Gratien (1884). “Abereak izurritearekin”, *RBPL*, I, 498-500. **Lf VII-1**

ADEMA, Gratien (1886). “Hartzaren laguntza”, *RBPL*, III, 25. **Lf VIII-10**

ADEMA, Gratien (1886). “Khuia eta hezkurra”, *RBPL*, III, 85. **Lf XI-4**

ADEMA, Gratien (1886). “Lurrezko eltzea eta burdinazkoa”, *RBPL*, III, 130-131. **Lf V-2**

ADEMA, Gratien (1886). “Beharra eta indarra”, *RBPL*, III, 209-210. **Lf VI-18**

ADEMA, Gratien (1887). “Erleak eta liztorrak”, *RBPL*, IV, 15-16. **Lf I-21**

ADEMA, Gratien (1887). “Aita chuhurregiari seme barraiari”, *RBPL*, IV, 124. **Lf IV-20**

ADEMA, Gratien (1898). “Hartz bat eta bi ihizlari”, *Eskualduna*, 557. zka., 4. **Lf V-20**

⁷⁶ Esaterako, “Azeria eta Akherra” alegia *Euskal-Errian* 1884 eta 1896an, *Eskualdunan* 1896 eta 1909an eta *Euskarian* 1909an.

⁷⁷ *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*. Aldizkari horretan zortzi alegia plazaratu zituen Ademak. Horietatik seik frantsesezko bertsoia dute aldamenean ipinia, “Jean de Soule” goitzeneko batek izenpetuta. “Jean de Soule” hori nor zen Bidador zendu berriak argitu zigun (1999):

Paris aldeko Montfort-l'Amaury sendagile aritu zen Felix LARRIEU (1863-1941) zuberotarrak abondo lan idatzi zituen euskal gaiez zein euskaraz, tartean *Mauleon et le Pays de Soule pendant la révolution* — Parisen 1899.ean—, edota «Un essai de calendrier républicain en basque» —Vinsonen *Revue de linguistique et de philologie comparée* aldizkarian, 1891.ean—. Jean de Soule ezizenaren azpian ere itzulpen ugari egin zuen *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* aldizkarian. Orobat ezagunak dira Charles Bordesen kantutegietan tajutu zituen itzulpenak.

ADEMA, Gratien (1898). “Asto bat errelekiekin”, *Eskualduna*, 558. zka., 4. **Lf V-14**

ADEMA, Gratien (1898). “Otsoa eta amiamokoa”, *Eskualduna*, 590. zka., 4. **Lf III-9**

ADEMA, Gratien (1901). “Arrotoinezko bilzarre bat”, *Eskualduna*, 730. zka., 4. **Lf II-2**

ADEMA, Gratien (1901). “Otsoa eta zakhurra”, *Eskualduna*, 737. zka., 4. **Lf I-5**

ADEMA, Gratien (1901). “Haitza eta ihia”, *Eskualduna*, 742. zka., 4. **Lf I-22**

Kritika

Iritzi emaileen artean, Manterola izan zen aurrenekoa. Manterolak Ademaren “Belea eta Acheria” alegia sarituari buruz zera dio (1878: 56): “...es notable por la ligereza de su forma y la facilidad de su versificación”.

Daranatzek, bestalde, neurtitzen musika-alderdiaren bikaintasuna nabarmendu zuen (1908: 122): “Il était excellent musicien et c'est lui-même qui a adapté à ses poésies la musique qui leur convenait le mieux.”

Orixek, berriz, hizkuntza hartu zuen hizpide (1927: 214): “Euskera garbia dizu, yayoa, eřaxa, bakuna, funtsezkoa edo itz alfeřik gabea, leguna, eřitařa.”

Lafitteren ustez, kantiketan distirutzen du abade-poetaren maisutasunak; alegiak, edozein modutan, guztiz landuak eta guztiz naturalak dira haren iritzian (1941: 53).

Epai onak egin zizkion Onaindiak Ademari (1974: 310): “Lafontain'en erara biribilduriko alegi sailla, ederra duzu benetan”.

Villasantek, bestalde, Ademak hitzari ematen zion garrantzia nabarmendu zuen (1979: 196): “Su verso ha sido hecho para ser cantado, pero el texto es la base intelectual de la música. Adema concedía una importancia decisiva a la letra. Rehacía sus poemas una y otra vez”. Azken ukitua eman beharraren eman beharrez ditugu hainbeste aldaera.

Marivi Unamunok, beste ildo bat jorratuz, Ademak Jainkoa maiz aipatu zuela nabarmendu zuen, eta deigarri-edo gertatu zitzaion (in Agirreazkuenaga, 1991: 110).

Ademaren poeta izaera hartu du zenbaitek hizpide. Horrela, bada, “La Fontaine euskalduna” izengoitia eman zion baten batek eta izengoiti hori erabili da usadioz zenbait azterlanetan. Nork egokitu zion deitura hori ez dakit. Aipamenik zaharrena

Daranatzen testu batean aurkitu dut (1908: 123): “Le fini de ses productions poétiques a valu à M. Adema le nom de «La Fontaine basque»”. Poeten mailara altxatzen du, nolana den, deitura horrek Adema.

Poeta izaera horretaz, Ales Bengoetxeak dio Adema ia-ia poeta dela, “poetatasunaren mugetan” dagoela (in Adema, 1991: 18). Nonbait, “herri xehearentzat” idatzi zuelako eta “ez jende ikasiarentzat” (ibidem: 19). Edota, bestela esanda, jende ikasiarentzat ez idatzi arren, erdiespen poetiko bikainak biribildu zituelako. Edozein modutan, Bengoetxearen ustez, Ademak “birsortze lan izugarria” egin zuen eta haren lana ez zen itzulpen hutsa izan.

Zabalkundea

Hil ondoan, 1908an, *RIEVEN* plazaratu ziren Ademaren neurtitzak zazpi sailetan. V. sailean, “Fables. Artzain beltzaren neurthitzak” izenburuaren pean, “Aintzin hitzak” eta 18 alegia datoz, denak neurtitzez. Alegien aldaera guztietatik, azken bertsio gisa hartu behar dira *RIEVE*koak, beraz. Hori dela eta, lehenago aldizkarietan argitaratutakoen aldean, oso aldatuta daude *RIEVE*ko horiek: ahapaldi gehiago dituzte, hitz eta izenburu batzuk aldatuta daude... Lehenengo 16 alegiak ordurako argitaratuta zeuden; 17.a eta 18.a, berriz, ez. Hala ere, bi hauek, “Tripota” eta “Elhez ez, nahiz biz”, hurrenez hurren, nire ustez, ez dira alegiak. “Tripota”-k badu antz handia Perraulten “Les souhaits ridicules”-ekin, are gehiago, bertsozko ipuin horren bertsio murriztua da (cf. Perrault, *Contes* 1697). “Elhez ez, nahiz biz”, berriz, irudipena dut pasadizo barregarri bat dela, alegia modura kontatua.

Hil ondoren aldizkari ugarian ere plazaratu dira Ademaren alegiak banaka-banaka, hala nola *Eskualduna*, *Baskonia*, *Euskaria*, *Eskualdunentzat Almanaka*, *Euskal-Erria Guziak* eta *Herrian*.

Geroago, 1991n, *Kantikak eta Neurtitzak* liburua dugu, EEEk argitaratua eta Ales Bengoetxeak apailatua. Gratien Ademaren bizitzari eta obrari buruzko hitzaurrea du liburuak, eta hiru neurtitz sail. Bigarreanean Ademaren alegiak datoz, *RIEVEN* argitaratu ziren bezal-bezala. Aldaketa bakarra dago, hala ere: alegia bakoitzaren

izenburuaren ondoan urte bat jarri zuen Bengoetxeak, itxura batean alegiak lehenengoz argia ikusi zueneko⁷⁸.

Ansorenak *Euskal kantak* liburuan Ademaren “Belea haragiki” alegia jaso zuen eta iruzkin hau egin zion: “Egun oso ezaguna Iparralde osoan” (1993: 172-173).

Bukatzeko, Hiria argitaletxeak Ademaren *Kanta eta neurtitza hautatuak* plazaratu du, berrikitan (2006). Bost alegia hautatu ditu Hiriart ediziozileak, Ademaren neurtitzen artean.

Testu mailako azterketa

Objektuak. *Zuhaitz* eta *gasna* eman beharrean, *haitz* eta *zitzi* eman zituen. Ematen du arbitrariotasunez egindako itzulpen-hautua dela; edo, bestela, zortziko txikiaren neurriak eragindakoa dela:

Maître Corbeau, sur un arbre perché, Tenait en son bec un fromage. Lf 32	Jasan-ahalicaco citci bat mocoan, Belea zagon behin Haitz baten cascoan. Ad <i>Bel</i>
--	---

Hurrengo adibidean, ordea, arbitrariotasuna agerikoa da, neurriari dagokionez ondo baitzegokeen ‘sudurrera’ itzultzea:

Un gland tombe ; le nez du dormeur en pâtre. Lf 353	Kopetara hor zaio hezkur bat erortzen Ad <i>Khu</i>
--	--

Beste behin, *Otsoa* eman zuen *tigrearen* ordez (Lf 250, Ad *Abe*), exotikoa baita tigrea gurean.

Sinesmenak. Jainkoa Naturaren ordez:

La Nature envers vous me semble bien injuste. Lf 64	«Jainkoak egin gaitu zu eta ni biak,... Ad <i>Hai</i>
--	--

Bestalde, kontzeptu kristau bat txertatu zion Ademak alegia berberari: handiak eta txikiak denak dira berdinak Jainkoaren begien aurrean. Jatorrizkoak ez dakar halakorik:

⁷⁸ Aldaera horien bila ibilita, ezin izan nituen urte horiei dagozkien bertzioak eskuratu. Hori dela-eta, Bengoetxearekin berba egin nuen eta hark adierazi zidan data horiek Xarritonek eman zizkiola, Ademaren eskuizkribuak oinarri harturik. Gainera, Lafitteren 1933ko artikuluko alegien izenburuak eta urteak irakurrita, konturatu nintzen data horiek eta Bengoetxearenak bat datozela. Zalantzarik gabe, Ademak bere bi eskuizkribuetan adierazitako datei dagozkie EEEren bilduman agertzen diren datak; alegien testuak, ordea, *RIEV*etik atera zituen Bengoetxeak.

[Ø] Lf 64-65	Ihardetsi zioen haitzari ihiak: «Jainkoak egin gaitu zu eta ni biak, «Hari berdinak zaizko handi'ta tikiak; «Igzki beraz gaitu argitzen guziak. Ad <i>Hai</i>
--------------	--

Haritza, baina, ihia ez bezala, laikoa dugu: ez du erlijio-kezkarik:

[Ø] Lf 64-65	«Ez diat hik bezala Jainko acholarik. Ad <i>Hai</i>
--------------	--

Laikoen aurkako ildoak jorratu zuen beste zenbait alegiatan. Honako adibide honetan, esaterako, sinesgabeen aurka egiten du. Gaitzetsi egiten ditu Jainkorik nahi ez duten boteretsuak; Errepublikako agintari laikoei edota euskal errepublikazaleei zuzendua da gaitzespena, beharbada:

Dieu fait bien ce qu'il fait. Lf 353	Jainkoak egin gauzak chuchen dire denak, Handienak bezala orobat mendrenak. Mundu huntan Jainkorik nahi ez dutenak, Guzien makhurtzeko hek dire lehenak. Ad <i>Khu</i>
--------------------------------------	---

Jarraiko adibidean, jatorrizkoari puska luzea gehituz, ia bikoiztu zuen alegia. Honako gai hauek hartu zituen hizpide: Lehenik, libertatea atxiki behar dela dio, mehatxupean ikusten baitzuen libertatean bizitzea; Errepublikan, garai hartan bizi zen giro politikoaren aipamena da, zalantzarik gabe. Bigarrenik, hiriko emigrazioaren alderdi makurra nabarmentzen du, eta, horretarako, irudi bortitza erabiltzen, hala nola antzarak gizentzeko modua. Eta, hirugarrenik, baserritarren bizimodua gorai patzen du, eta senitartekoak batasun estuan bizi direlako irudi bukolikoa ematen.

Et ne voudrais pas même à ce prix un trésor. Cela dit, maître Loup s'enfuit, et court encor. Lf 36	Ez naik ez ni estekan nihork atchikitzen; Nausirik ez jaberik Ez diat ni baizen; Hire bizi moduak ez naik tirriatzen; Adios oihanerat, berritz nauk itzultzen. Libertatea zer den otsoak badaki: Gutartean hainitzek ez dakite aski, Libertate zuzena Zer den bereziki: Eta hura zein oso Behar den atchiki.
--	---

	<p>Beren herritik asko dohazi hor hara, Hiri'ta gobernuko emplegetara Ilhunpean preso da gizentzen antzara. Jendea ere naski estekan luzara.</p> <p>Laborari biziak ez da dudarikan, Badu bertze gozorik gure basherritan. Chuhurki'ta chimenki hantche bizirikan, Bakotcha bereekin batusun handitan. Ad Otsoa eta zak</p>
--	---

Kritika soziala egin zuen Ademak. Jende xehea oso aintzat hartu zuen, eta handikiak gaitzetsi. Jende xehearentzat etsenplu da ihiaren irudia: mendrea, baina, malgutasunari esker, hauskaitza:

[Ø] Lf 65	<p>Ihi gaichoa zagon hantche ukhurtua. Gero ikhusi nuen berritz chutitua, Bere mendretasunaz beraz, salbatua... Horra, jende cheheak zure etsemplua. Ad Hai</p>
-----------	---

“Erleak eta liztorrak” alegian eduki politikoa, lauso agertzen bada ere, nabarmentzeko modukoa da. Jatorrizkoak justiziaren geldotasuna eta burokrazia salatzen ditu; Ademarenak, berriz, botere-aldaketaren gaia dakarrela ematen du, jatorrizkoaren irudi bera erabiliz: liztorrak erleen kofoinean sartzea. Aldendu egiten da zeharo jatorrizkotik eta, pertsona-izenik eta leku-izenik aipatu gabe, boteredun berriek eragindako aldaketak zuzenduko dituen norbait iragartzen du (*Jinen da makhur hoien/Chuchentzaile gaitza*), aieru gisa-edo. Dudarik gabe, Errepublikako gertaera politikoen baitan interpretatu behar da Ademaren alegia. Lausotasun hori desagertzen da, gainera, alegia honen beronen *RIE*veko berridazketan⁷⁹:

À l'œuvre on connaît l'artisan. Lf 62	Lehengoek eginak Bali'edo fundi;...
---------------------------------------	--

⁷⁹ Izan ere, berridazketa horretan bi ahapaldi gehiago ageri dira, eta berariaz agertu zuen haietan Ademak nori buruz ari zen: alde batetik, lehengo printzeak eta Eliza, eta, bestetik, lege-egile laiko berriak, errepublikarrak, hain zuzen: “Lehengo Printzer eta/ Elizari esker,/ Bazen hainbertze gauza/ handi eta eder/ Heien ebaslez eta/ chahutzazilez leher/ Lehengo jabeeri/ dire orai ahier.// Lehenguen asmuak/ aise baliatuz,/ Berenak dituztela/ dagozi espantuz./ Berak lege-egile,/ Jainkoa khasatuz,/ Jenden kontzientzia/ hil dute debekuz.//”

	Hoberenak barraia; Oro itzuliphurdi; Nor nahi manhatzaile: Munduak dirudi Burua galdurikan Zoro edo hordi. Jinen da makhur hoiien Chuchentzaile gaitza; Hark du lanho beltzaren Leizetako giltza: Jadanik maiz airean Chimistak dabilta Ihurtzuria ere Laster daite mintza. <i>Ad Erl</i>
--	--

Legearen hertsikeria salatu zuen bestetan, La Fontaineren alegian horrelakorik esplizituki ez dagoen arren:

Allez, vous êtes une ingrate ; Ne tombez jamais sous ma patte. Lf 122	Urus haiz uste gabez Ez baihaut iretsi. Hortan kito garela Behar nauk sinhetsi. Otso horren iduri Da esker gabea Guziz meneko badu Ongi egilea. Ongiari gaizkiaz Ez ihardesteia, Hau bera zaio aski Hertsia den legea. <i>Ad Ots eta ami</i>
---	---

Bestalde, sexu-kontu bat xahutu egin zuen Ademak, euskal bertsoan:

Or un jour qu'au haut et au loin Le Galand alla chercher femme, Pendant tout le sabbat qu'il fit avec sa dame... Lf 71	Otsaileko gauetan, gathu zahar hura Hauxoko etchetarat baitzohan ardura,... <i>Ad Arr</i>
---	--

Azpimarratzekoa da Ademak amodioa hizpide hartu izana alegia batean, jatorrizkoan horrelakorik ez dagoen arren. Bikotekideen argitasun gutxiari eta ohitura gaitzesgarriari egozten die adiskidetasun zintzoaren falta. Arima-artzain bati dagokio iruzkina, inondik ere⁸⁰:

Rien n'est si dangereux qu'un ignorant ami ; Mieux vaudrait un sage ennemi. Lf 308	Amodioan balitz Buru'ta berthute, Adichkidantza ona Orduantche laite. <i>Ad Hartzaren</i>
---	--

Kontzeptuak. Ipar haizearen enbataren ordeztu ihurtzuria ipini zuen Ademak, indarraren sinbolo gisa:

⁸⁰ Cf. San Agustin: "Adiskidantza deseginez gero, ezin iraungo dute ariman ezkontzaren loturek, ez ahaidegoaren edota kidegoaren lokarriek, hauetan ere lagunarteko elkarlotura baitago" (2003: 269).

Du bout de l'horizon accourt avec furie Le plus terribles des enfants Que le Nord eût porté jusque-là dans ses flancs. Lf 65	Haitz hura hedoi hurbilago baitzen Ihurtzuria zaio gainerat erortzen. Ad <i>Hai</i>
---	--

Lanbidea ere aldatu egin zuen. *Magistraten* ordez *aberats* eman zuen. Nonbait arrotz zitzaion Justizia. Edo botere ekonomikoa izatearekin lotzen zuen:

D'un Magistrat ignorant C'est la robe qu'on salue. Lf 196	Aberatsak hartzekotz Ohorea bere, Behar luke diruaz Bertzerikan ere. Ad <i>Ast</i>
--	---

Izen bereziak isiltzea da estrategia nagusia, testua lautzea helburu zuela.

- Animalien izen bereziak. Izen arruntari izenondo bat jarriz itzuli zituen: Un Chat, nommé Rodilardus/Gathu zahar bat (Lf 71, Ad *Arr*). Besteetan izena jarriz zion animaliarri: Le Lion/Hamikaho lehoina⁸¹ (Lf 249, Ad *Abe*).
- Mitoak, pertsonaia historikoak, obra klasikoetako pertsonaiak eta beste. Itzuli gabe utzi zituen ia guztiak: Achéron/Ø (Lf 249, Ad *Abe*); Bellérophon/Ø (Lf 307, Ad *Hartzaren*); Flore/Ø (Lf 307, Ad *Hartzaren*); Pomone/Ø (Lf 307, Ad *Hartzaren*); Esope/Ø (Lf 168, Ad *Ait*). Itzuliz gero, euskal nortasuna eman zien: Garo/Perttoli (Lf 353, Ad *Khu*);
- Geografia izenak: Caucase/Ø (Lf 64, Ad *Hai*)
- Titulua eta tratamendua. Gehienetan isildu egin zituen halako formak: Sire...Votre Majesté/Jauna...Ø (Lf 44, Ad *Bil*); Maître Corbeau/Belea (Lf 32, Ad *Bel*); Maître Renard/Acheria (Lf 32, Ad *Bel*); Capitaine Renard/Acheria (Lf 114, Ad *Ach*); Maître Baudet/hi (Lf 196, Ad *Ast*). Batzuetan, hala ere, egokitu egin zituen: Monsieur du Corbeau/Musde Belea (Lf 32, Ad *Bel*); Monsieur le Doyen/Arrotoin Presidenta (Lf 71, Ad *Arr*)
- Jentilizioak. Alegia naturalizatu eta hemengo kolorea eman nahian, bi lagunok nondarrak diren adierazten du Ademak.

Deux Compagnons pressés d'argent À leur voisin Forreur vendirent La peau d'un Ours encore vivant ; Lf 203	Larrugin bati behin Bi Santagraziar... Ad <i>Hartz bat</i>
---	---

Paremiak. Ademak ez zien frantses paremiei ardurarik ipini. Bi estrategia nagusi izan zituen. Lehena, itzulpen libreria jotzea:

⁸¹ Xehetasun komikoa dirudi. Izan ere, *hamikatu* goseak erabat ahuldutakoa adierazteko erabiltzen da, izenondo gisa batez ere (Ipar.). Goyhethek ere erabili zuen *Amiamokoa eta arrainac* alegian (1852: 30): "Badago oraiño ere, baiña gosea ez duke sofri,/ hamicatua azkenean partitcen da tristeki".

La raison du plus fort est toujours la meilleure. Lf 44	Azcarrac duenean partida flacoa, Haucia zoinena den erran gabe doha. Ad <i>Bil</i>
Je plie et ne romps pas. Lf 64	Hi den mendren haizeak hagoka etzanik : «Ni ordean niagok, burua gorarik :...» Ad <i>Hai</i>
Ne nous associons qu'avecque nos égaux. Lf 181	Flako bahaiz, ez hadin aise hauts ez chila, Azkarrago denari ez haucirik bila ; Hire chokotik guti aldara hadila : Seguretik dagona hura duk abila. Ad <i>Lur</i>

Bigarrena, ez itzultzea:

À l'œuvre on connaît l'artisan. Lf 62	[Ø] Ad <i>Erl</i>
En toute chose il faut considérer la fin. Lf 115	[Ø] Ad <i>Ach</i>

Behin bakarrik eman zuen frantses paremia, literalki-edo:

Il m'a dit qu'il ne faut jamais Vendre la peau de l'Ours qu'on ne l'ait mis par terre. Lf 204	«Hau gogoan har zak «Larrua saldu gabe «Hil behar dik hartzak.» Ad <i>Hartz bat</i>
---	---

Eta, beste behin, euskal erran zaharra eman zuen frantses paremiarik ez zegoen tokian. Ukitu moralista eman zion alegiari horrela; jatorrizkoan ez baitzegoen tankerako juzkurik:

[Ø] Lf 169	Erran zahar hau ez da Arrozoin gabea » Biltzaileari seme » Barraiatzailea ⁸² . » Ad <i>Ait</i>
------------	--

Arkaismoak. Saiatu zen Adema batzuetan arkaismoa gordetzen. Baina, badaezpada, euskal ordain naturala ere erantsiz:

Voilà l'Opératrice aussitôt en besogne. Elle retira l'os ; puis pour un si bon tour Elle demanda son salaire. Lf 122	Operatze hoi sari, Hor gure barbera Otsoari da hasten Galdez bortz libera. Ad <i>Ots eta ami</i>
---	---

Gehienetan, hala ere, esapide naturalak edo ordain neutroak eman zituen hitz zaharkituen ordeztu:

...point de franche lippée Lf 35	«Ai! Nik ere bai banik hik dukan gozoa! Ad <i>Ots eta zak</i>
Un Loup donc étant de frairie... Lf122	Otsoak ahari bat Baitzuen klaskatu... Ad <i>Ots eta ami</i>

⁸² Cf. Gotzon Garate: *Aita biltzaikari, semea despendatzaile (barreari); Bada batzaile bezenbat barreatzaile.*

Espizitu bihurtzen du, batzuetan, Ademak La Fontaineren testuan iradoki besterik egiten ez dena. Adibide honetan, irria sortzea helburu:

Le tourne, le retourne, approche son museau, Flaire aux passages de l'haleine. C'est, dit-il, un cadavre : ôtons-nous, car il sent . Lf 204	Galtzatarat eginik Han zagon gaizoa. Hurbiltzen ahoa : «Phu ! dio, hau hila duk; « Hauk usain gaichtoa! » Ad <i>Hartz bat</i>
---	---

Aldaketa morfosintaktikoak. Lagunarteko erregistroa darabilte otsoak eta zakurrak beren artean, eta ez frantsesezko *vous* errespetuzko eta urruntasunezko hori. La Fontainek, nonbait, gortekoen (zakurra) eta probintziako nobleen (otsoa) arteko tratua iradoki nahi zuen erregistro horrekin. Galtzen du hori euskal itzulpenak, baina arintasuna eta naturaltasuna irabazten.

Attaché? dit le Loup : vous ne courez donc pas Où vous voulez ? Pas toujours, mais qu'importe ? Lf 36	Otsoa irriz zaio hasten zakhurrari: « Errak , zer duk lephoko «uhale eder hori? Zakhurrak errepusta: «Ez erran nihori. «Hunen esteka haütsiz « nauk hunat ethorri. Ad <i>Otsoa ta zak</i>
---	---

Zuzeneko solasera aldatu zuen, zenbaitetan, frantsesez zehar estiloan dagoena.

Deux Compagnons pressés d'argent À leur voisin Fourreur vendirent La peau d'un Ours encor vivant ; Mais qu'ils tueraient bientôt, du moins à ce qu'ils dirent. Lf 203	Larrugin bati behin Bi Santagraziar: « Mendian dugu hartz bat «Hil gogoa bihar «Haren larrua dugu « Zuri saldu behar. » Tratua egin zuten, Hamar untza zilhar. Ad <i>Hartz bat</i>
--	---

Lautzea. Ohikoa du estrategia hori alegia guztietan mezua zortziko txikiaren moldean egokitze, batetik, eta hizkuntza jaso apaltzeko, bestetik. Oraingoan *Phénix* hitza saihestu zuen, ulergaitz gertatuko zaiolakoan irakurle euskaldunari:

Et bonjour, Monsieur du Corbeau. Que vous êtes joli ! que vous me semblez beau ! Sans mentir, si votre ramage Se rapporte à votre plumage, Vous êtes le Phénix des hôtes de ces bois. Lf 32	«Agur Musde Belea; «zoin eder zaren zu! «Zure luma pullitaz «Liluratcen nauzu, «Cantua luma becein «eder ahal duzu; «Ai! Entzun nahi nuke: «othoi canta zazu.» Ad <i>Bel</i>
---	---

Solemnitae-formula baten parodia ezabatu zuen, ironia ulertuko ez zelakoan.

Par ma barbe , dit l'autre, il est bon; et je loue Les gens bien sensés comme toi. Lf 114	Akherrak lorietan: Baietz bai gogotik . Ad <i>Acheria eta akh</i>
---	---

Oraingoan, narrazioaren xehetasun bat galdu du euskal bertsoak. Izan ere, astoaren hobenak arinago eman zezan txertatu zuen La Fontainek fraide-larrearena narrazioan. Halaber, deabruaren aipamena galdu da. Galera horiek guztiak Ademak hautaturiko eredu poetikoaren hertsatzaileak eraginikoak dira.

L'Âne vint à son tour et dit : J'ai souvenance Qu'en un pré de Moines passant, La faim, l'occasion, l'herbe tendre, et je pense Quelque diable aussi me poussant, Je tondis de ce pré la largueur de ma langue. Lf 250	Hor gero azkenekotz, Astoa heldu da. «Kontzientzian, dio, «Hau dut errenkura: «igortzen baininduten «Etchetik barura, «Larreko belharretik «Jan dut nik ardura» Ad Abe
--	---

Hautu poetiko hori dela-eta zenbaitetan sinkopa erabili behar izan zuen Ademak, zortziko txikiaren neurrira egokitzearren.

On n'osa trop approfondir Du Tigre, ni de l'Ours, ni des autres puissances Les mins pardonnables offenses Lf 250	Horiek ere ordean Handi eta azkar... –Holako ihizier Nol'eta nor jazar. Ad Abe
---	---

Morfemak errepikatzea. Jatorrizkoan onomatopeiarik ez egon arren, ipini egin zituen halakoak Ademak:

Il ouvre un large bec... Lf 32	Coac-coac! arrai hasten da... Ad Bel
Le vent redouble ses efforts, Et fait si bien qu'il déracine Celui de qui la tête au ciel était voisine... Lf 65	Haize zirimolak du bihurriki jotzen Bai eta erroz gora Krisk krask aurdikitzen. Ad Hai

Irakaspenen mezua. Honako estrategia hauek erabili zituen:

- Batzuetan La Fontainek irakaspena hasieran eman zuen, esaera batean bildua. Prozedura hori baztertu egin zuen Ademak, eta beti eman zuen irakaspena bukaeran. Zalantzarik gabe, bertsoaritzaren teknikak bere egin zituelako.
- Irakaspen berdin antzekoa ematea eta adibide gehiagorekin luzatzea:

Apprenez que tout flatteur Vit aux dépens de celui qui l'écoute. Lf 32	«Ez gaitela, to, fida «lausencariari, «Ez cerbait garelaco «gure usteari. Ad Bel
Rien n'est si dangereux qu'un ignorant ami ; Mieux vaudrait un sage ennemi. Lf 308	Lagungo moldegaitzek holache daukute On baino gehiago maiz egiten kalte Amodioan balitz buru' ta berthute, Adichkidantza ona orduante laite. Ad Hartzaren

- Irakaspena berdin antzekoa ematea baina geopolitikaren alorrera eramatea. Oraingo honetan, XIX. mendeko bi gertaera historikoren aipamenak gaineratu zituen: Erromaren eta Estatu Pontifizioen zatikatzea, Italiak sustatua, eta Alsazia eta Lorenarena, Alemaniak gauzatua:

<p>La raison du plus fort est toujours la meilleure. Lf 44</p>	<p>-Azcarrac duenean partida flacoa, Haucia zoinena den erran gabe doha. Oxoac bildoxari eguin cioena Jainco leguetic campo norc orai condena? Italian, Prusian, hori da zucena; Bertcetan ere ascoc eguiten dutena. Ad <i>Bil</i></p>
--	--

Ohartzeko modukoa da gertaera historiko horien aipamenak kendu egin zituela geroko bertsioetan. Honela irakur daiteke *RIE* Ven: “Jainkorikan ez balitz, / nork liro kondena! / Jainco legetik kanpo / zertan da zuzena? / Galde zazu indarrez / zoin den nausi dena”.

- Irakaspenen kutsu soziala areagotzea. Adibide honetan, La Fontaineren paremia gisako irakaspenak –eta, oro har, alegiak– ez duen kutsu soziala gaineratu zion Ademak. Gizakien mundura ekarri zuen gaia: bi giza taldez ari da, baina zaila da esaten klase sozialez diharduen edo garai hartako talde politikoez, *xuriez* eta *gorriez*, hain zuzen. Kontuan hartzekoa da zanpatuen taldean kokatu zuela bere burua idazle-narratzaileak:

<p>En toute chose il faut considérer la fin. Lf 115</p>	<p>Zembat bi zangotako Acheri holako; Guri esker baitire Jarriak gorachko! Eta gutarik zembat Errekan beharko, Ez baikaituzte handik Heiek atherako! Ad <i>Ach</i></p>
---	--

Ordena sozialaren kritika badu, hala ere, La Fontaineren beste irakaspen honek. Ademak nola edo hala eutsi zion eduki horri: gortea, hala ere, ez zuen hizpidera ekarri:

<p>Selon que vous serez puissant ou misérable, Les jugements de Cour vous rendront blanc ou noir. Lf 250</p>	<p>Munduaren artean Ere hala hala Sakifikatua (sic) da Maiz jende aphala. Ad <i>Abe</i></p>
--	---

Poesia berridazteko moduak. Ademak zortziko txikia erabili zuen alegiak euskal literaturara ekartzeko, gure tradizio poetikoan txertatzeko. Itzulitako guztiguztiak zortziko txikian eman zituen. Hautu horrek ahozko literaturaren eta herri-literaturaren esparrura hurbilarazi zuen La Fontaineren alegiagintza. Horren froga dugu, baita ere, beti eman izana irakaspena bukaeran, La Fontainek ez bezala, zenbaitetan hasieran eman baitzuen.

Jatorrizkoaren formaz ez ezik, edukiaz ere ezaxolatu zen Adema, askotan. Ez axolatze horretan bi berridazte modu bereiz daitezke:

Batzuetan, modu analogikoaren eta organikoaren artean ibili zen Adema. Izan ere, eduki semantikoa, nola edo hala, ekarri zuen zortziko txikiaren zedarrietara. Hari narratiboari, kontakizunaren hariari eutsi egin zion. Ez zen erabat aldendu jatorrizkotik Baina bere egin zuen Ademak jatorrizkoa eta, horregatik alusio literarioak, osagai jasoak, arkaismoak, konnotazioak eta xehetasunak oro inausi zituen.

Beste batzuetan, berriz, erabat aldendu zen jatorrizkotik, eta modu desbideratua edo arrotza deritzona aukeratu zuen zenbait alegia itzultzeko: “Beharra eta indarra”, “Erleak eta Liztorrak” eta “Aita chuhurregiari seme barraiari” ditugu desbideratze horren lekuko.

Ondorioak

Abade, irakasle eta euskaltzale, hiru afizio eta ofizioon aztarna utzi zuen La Fontaineren alegia berridatzietan.

Egokitze lan handia egin zuen Ademak, bai jatorrizko testuaren kontzeptuak euskaldunen unibertsoa ekartzen, bai hizkuntza-mailako estrategiak erabiltzen ere.

Euskaldunen unibertsoa ekartze horretan, hertsatzaile handia da Ademaren ideologia, dualismotan emana: kristautasun- eta jainkozaletasun-zantzuak eta laikoaren eta errepublikazaleen aurkako jarduna; emigrazioaren gaitzespenak eta baserriko bizimoduaren laudorioak; handikien aurkako epaiak eta jende apalaren aldekoak. Baditu, halaber, arima-artzain aholku-emaile gisako baten berriketaldiak, legearen hertsikeriaren salaketak... Ideologia zantzu horiek garai hartako *xurien* eta *gorrien* arteko eztabaida ideologiko-politikoei dagozkie, oro har.

Hizkuntza-mailako estrategiei dagokienez, hertsatzaile garrantzitsuak dira hartzailea –herri xehea– eta zortziko txikia aukeratu izana: kultura jasoko izenak ez zituen eman, paremiei ardurarik ez zien ipini, La Fontaineren testuak dituen ñabardurak eta osagai konnotatiboa baztertu zituen, lautu egin zuen hizkera jaso...

Irakaspenak berridaztean oso modu librean jokatu zuen: luzatu egin zituen adibide gehiagorekin, geopolitikaren eta gizarte-borrokaaren arloetara lerratu zen mezua adibidez hornitzean...

Hauxe da emaitza: bertso herrikoi zuzen garbi naturalak, garaitsuan indarrean zegoen lirika herrikoiaaren ildokoak.

VI.6.2. Felipe Arrese Beitia (1841-1906)

Ideologia

Eskultore santugilea izan zen ofizioz Arrese, eta afizioz olerkari. Ez zen eskolatua izan. Lore Jokoetan askotan saria lortu zuen: berezkoa zuen jakituria.

Karlisten jarraitzaile izan zen, baina gutxika-gutxika haren pentsaera aldatuz joan zen (Urrutia, in Arrese Beitia, 1999: 28). Sota, Campion eta Iturralderekin batera *Euskalerrria* elkarte foruzaleko kide izan zen. Edozelan ere, Arreseren olerkietan, 1896tik aurrera, Arana Goiriren ideologiaren eragina nabaria dela adierazi zuen Urrutiak bere ikerketan (ibidem: 30).

Halatan, bere olerkietako gairik behinenak aberria eta euskara izen ziren: bi karlistaldien artean jaio izanak eragin handia izan zuen haren olerkigintzako gai-aukeraketan eta ideologian.

Guztiarekin, noizean behin, gauza barregarriak eta alegiak ere ondu zituen, “bihotza atsedeteko” (Larraoetxea, 1926: 170).

Manterola kultura-eragile donostiarra ezagutu zuen. Izan ere, Donostiara joan behar izan zuen otxandioarrak, bigarren karlista-gerrak iraun bitartean (Urrutia in Arrese Beitia, 1999: 24). Manterola hil arte posta-harremana izan zuten. Gutunekin batera, zenbait alegia bidali zizkion *Euskal-Erria* aldizkarian argitara ziezazkion. Kontuan hartzen badugu Manterolak alegiagintza *Euskal-Erria* aldizkarian eta bere

Cancionero Bascon bildu eta sustatu zuela, oso litekeena da Manterolak akuilatuta ekitea Arresek olerki-sail horri.

Corpusa eta iturriak

Arreseren alegia guztiak *Euskal-Erria* aldizkarian plazaratu ziren lehendabizi, 1881. eta 1902. urteen artean. Zenbaitetan, aldamenean Samaniegoren gaztelaniazko testua zutela azaldu ziren; beste zenbaitetan, euskaraz soilik, baina “Versión libre de Samaniego” oharra zeukatela; beste batzuetan, berriz, euskarazko testu soila agertu zen Arreseren izen-abizenekin, oharrik gabe.

Urrutia ikertzaileak Arreseren alegien iturriez hauxe adierazi zuen (ibidem: 48): “Gehienak bere eskuz idatzitakoak diren arren, Felix María Samaniegoren zenbait alegi ere badira euskarara itzuliak”. Lehenago ere Santi Onaindiak esana zuen (in Arrese Beitia, 1956: 13) alegia gehienak “bere-bereak zirela azal ta mamin”.

Nire azterketaren arabera, 29 alegietatik 12 Samaniegoren alegien itzulpenak dira eta 17, berriz, tesian erabilitako iturri klasikoez kanpoko alegiak⁸³.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Felipe Arrese Beitia	<i>Euskal-Erria</i>	1881-1902	29 hn	12 Sam

ARRESE BEITIA, Felipe (1881). “Ekandu charrak alporjetan”, *Euskal-Erria*, 3. libk., 90. **Sam V-20**

ARRESE BEITIA, Felipe (1881). “Mona bat”, *Euskal-Erria*, 3. libk., 124. **Sam VII-5**

ARRESE BEITIA, Felipe (1881). “Orma-choria”, *Euskal-Erria*, 3. libk., 124. **Sam I-4**

ARRESE BEITIA, Felipe (1881). “Otsoa, aiseria eta chimiño jueza”, *Euskal-Erria*, 3. libk., 234. **Sam V-13**

ARRESE BEITIA, Felipe (1881). “Arrizko burua ta aiseria”, *Euskal-Erria*, 3. libk., 268. **Sam I-7**

ARRESE BEITIA, Felipe (1881). “Peru errena eta mutill gaizto bat”, *Euskal-Erria*, 4. libk., 96. **Sam V-10**

ARRESE BEITIA, Felipe (1882). “Olloa ta arrautzak”, *Euskal-Erria*, 5. libk., 192. **Sam V-6**

⁸³ “Umilltasuna eta arrokeria”, “Nekazari ernegau bat”, “Kitu”, “Mundua beti bat”, “Auzi bat”, “Maria Martiña”, “Zarika eta nekosta”, “Indarra ta mañea”, “Ezjakiñen kontuak”, “Beti gazte gura”, “Non nai arantzea”, “Azartu baten saria”, “Mukertasuna”, “Tranpea lotsagarri”, “Itsu argi bat”, “Luzea laburtzea” eta “Norbaitek jausi bear”.

ARRESE BEITIA, Felipe (1882). “Su-gizona ta chakurra”, *Euskal-Erria*, 5. libk., 247-248. **Sam I-9**

ARRESE BEITIA, Felipe (1882). “Artista bat eta laurka”, *Euskal-Erria*, 5. libk., 259. **Sam I-6**

ARRESE BEITIA, Felipe (1882). “Fortunea”, *Euskal-Erria*, 7. libk., 112. **Sam I-3**

ARRESE BEITIA, Felipe (1882). “Astoa ta charria”, *Euskal-Erria*, 7. libk., 112. **Sam I-1**

ARRESE BEITIA, Felipe (1882). “Erbiak eta ugaraxoak”, *Euskal-Erria*, 7. libk., 128. **Sam IV-13**

Kritika

Iritzi kritikoari bagagozkio, nabarmendu behar da Arreseren alegiei buruz gutxi idatzi dela. Iritziak, oro har, obra osoari dagozkio.

Edozein modutan, Arturo Kanpionek honela diosku alegiei buruz (in Arrese Beitia, 1900: XXVI):

[...] varias de ellas pertenecen al *fondo común fabulable*, y únicamente interesan por la destreza y acierto del versificador. Pero la mayoría obedece á cierta intención satírica social, de mucho sabor euskaro por las descripciones y exhibición de tipos, aunque la lección moral ó precepto de sabiduría práctica sea de índole general.

Bedita Larrakoetxeak alegiek ematen dituzten ikaskizunei buruz jardun zuen (1926: 172): “...olefkarriak irudi egokien bidez ipuin oneitan ikaskizun edefak emoten dauz.”

Mitxelenak, berriz, Arreseren euskara izan zuen hizpide (1957: 118): “Euskera eder, sendo eta ugarian mintzatzen da beti.”

Eta Xabier Hiriartek, azkenik, garaiko testuinguruan kokatu zuen poeta (in Arrese Beitia, 2003: 10): “Arrese Beitia ez da bere herrixkan isolaturik ageri den poeta autista bat; aitzitik bere poemagintzaren iturburua Euskal Herri zabalean eta bere garaiko kezka ideologikoetan datza.”

Zabalkundea

Sarri argitaratu dira Arreseren alegiak haren olerki-bilduma batzuen barruan.

Esate baterako, 1900. urtean, *Felipe Arrese ta Beitiak egiñiko ama euskeriaren liburu kantaria* plazaratu zen Kanpionen hitzaurrearekin. 125 olerki dira guztira, sei

ataletan banatuak. Alegiak “Ipuiñak” sailean sartu ziren, bildumaren hirugarren atalean, hain zuzen. Atal hori 54 olerkik osatu zuten, eta horietatik 10 dira alegiak.

1902. urtean, *Asti orduetako bertsozko lanak* bilduma argitaratu zen. Arrese Beitiaren 129 poema jaso ziren eta horietatik 18 dira alegiak. Olerkiak sailkatu gabe plazaratu ziren.

1930ean, *Olerki Sortatxua* argitaratu zioten. Hamasei poemak osatzen dute sortatxo hura, eta horietatik bi besterik ez dira alegiak.

Santi Onaindiak, bestalde, Arrese Beitiaren 300 poema bildu zituen 1956ko *Olerkiak* izeneko bilduman. Bederatzi sailetan banatu zituen Onaindiak olerkiok. Sail hauetako bat, VI.a hain zuzen ere, alegiena izan zen. VI. atal horretan 28 alegia jaso zituen Onaindiak.

1987an, Gurutze Aldabaldetrek, Amaia Boneta eta Mertxe Goikoetxeak apailatutako *Olerki sorta bat* plazaratu zuen EEEk. Hiru alegia aukeratu zituzten 43 poemako olerki sorta osatzeko. “Bestelakoak” izeneko sailaren azpian sartu zituzten alegiak, irakurgai, ipuin eta hamalaukoekin batera.

Lanik osatuena eta biribilena, zalantzarik gabe, Itziar Urrutiak moldatu zuen 1999an. Urrutiak, eskertzekoa da hori, iturrietara jo zuen, eta gainera, alegia bakoitza zenbat aldiz eta non argitaratu zen argitu zuen. Ontzat eman zuen Urrutiak (in Arrese Beitia, 1999: 47) Aita Onaindiak emandako sailkapena, baina bi alegia gehiago jaso zituen: “Ekandu txarrak alporjetan” eta “Luzea laburtzen”. Onaindiak jasotako “Ontzia”, berriz, baztertu egin zuen. Guztira, beraz, 29 dira Arrese Beitiaren alegiak, Urrutiaren ustez. Bat nator berak aditzera eman zuen alegia kopuruarekin.

Azkenik, *Olerki hautatuak* izeneko liburua plazaratu zuen Hiria argitaletxeak 2003an. Hautatutako 18 olerkietatik bakarra da alegia.

Testu mailako azterketa

Objektuak, izakiak. Bakanetan desbideratu zen: Codorniz/Orma-choria (Sam 61, AB *Orm*); pozo/ibai (Sam 61, AB *For*); un estruendo/tiro ots (Sam 121, AB *Erb*).

Kontzeptuak. Zuzentasuna eta zitalkeria ez dira ageri jatorrizkoan: Mono Juez/Chimiño Juez arteza, un Lobo/otso zitala (Sam 145, AB *Ots*); la Zorra/aiseri zitala (Sam 64, AB *Arr*); Fortuna inconstante y adversa/Fortuna gaiztoa (Sam 61, AB *For*).

Izen bereziak. Batzuetan izena eman zion pertsonaiari. Adibide honetan, baina, baldintza poetikoengatik: un buen cojo/Peru errena (Sam 143, AB *Per*).

...una dos, tres Cojo es. Sam 143	...bat ...bi ...iru: errena da gure Peru . AB <i>Per</i>
--------------------------------------	--

Paremiak. Literalki itzuli zituen, baina emaitzak ez daitezke har euskal esapidetzat:

Así la suerte adversa es tolerable, comparada con otra miserable. Sam 122	Bere bizimoduaz ez danak kontentu Charrago dagoanari beyo begiratu. AB <i>Erb</i>
Así ven los [vicios] ajenos, Mas no los propios. Sam 151	Errez dakusguz besteenak, Obe litzake bai ikusiko Baleus bakoçhak berenak. AB <i>Eka</i>

Bakarren bat modu librean itzuli zuen:

El destino, y no es cuento, A todos nos cargó como al jumento. Sam 67	Ezagutu eban orduan astuentzat bakarrik Ez dala lana Chacurrentzat bere bai, ona espada Ugazaba. AB <i>Su</i>
--	--

Edo ez zuen itzuli:

Reveses de Fortuna Llamáis a las miserias. Sam 61	[Ø] AB <i>For</i>
--	-------------------

Generoa. Gizakia beti da gizonezko.

Esto hacen todos... Sam 151	Grinau barriz da gizon danena AB <i>Eka</i>
¿Por qué, si son reveses De la conducta necia? Sam 61	Eta geyenez ori dok gizonen errua AB <i>For</i>

Aldaketa morfosintaktikoak. Lehenengo pertsonatik hirugarrenera:

En una alforja al hombro Llevo los vicios... Sam 151	Alporjetan ekandu charrak Erabiltzen dauz gizonak... AB <i>Eka</i>
---	---

Neologismoak sortzen ahalegintzea. Mailegu gordinetik ihesi, beharbada: Busto/Arrizko burua (Sam 64, AB *Arr*).

Itzulingurua. Bakarren bat dugu: Mina/Urrezko iturri on egunerokoa (Sam 139, AB *Oll*).

Betelana eta eletsutasuna. Azalpen laburrak tartekatu zituen:

Después de olerlo: “Tu cabeza es hermosa, Pero sin seso.” Sam 64	Egiñ ei eutsan, zelakoa zan Ikuste arren, usaiña: Aragia a etzala Igarririk laster ala, Dinotsa: «galant azan ezkerro, Garaunak non dituk bada?» AB <i>Arr</i>
--	---

Eta bestelako justifikazio batzuk asmatu:

Esta contradicción es cosa buena; La dijo el docto Mono con malicia. Sam 146	Ken zakidaze biok emendik ¿Zer egin neikek testigu barik? AB <i>Ots</i>
---	--

Betelan gutxi dute, dena dela, Arreseren alegiek, estu lotzen baitzaizkio gehienetan jatorrizkoaren edukiari, salbu-eta “Erbiak eta ugarañoak” alegian, oso bertsio librea egin baitzuen.

Metrika. Euskal ahapaldiak erabiltzera jotzen du, zortziko handia, hain zuzen, “Ekandu charrak alporjetan” eta “Mona bat” alegietan, kasu. Baina, batzuetan huts egiten du neurrian (9-, 8a, 10-, 8a...):

En una alforja al hombro Llevo los vicios, Los ajenos delante, Detrás los míos. Sam 151	Alporjetan ekandu charrak Erabiltzen dauz gizonak, Atzeko aldean norberenak ta Aurrean lagunarenak. AB <i>Eka</i>
--	--

Irakaspenen mezua. Honako estrategia hauek erabili zituen:

- Gehienetan mezu berbera edo berdin antzekoa eman zuen:

<i>El apetito ciego</i> <i>¡A cuántos precipita,</i> <i>Que por lograr un nada,</i> <i>Un todo sacrifican!</i> Sam 62	Sabelari geiegi emotea gaitik munduan ikusten da zorigach ugari. AB <i>Orm</i>
<i>¡Cuántos hay que teniendo lo bastante,</i> <i>Enriquecerse quieren al instante,</i> <i>Abrazando proyectos</i> <i>A veces de tan rápidos efectos,</i> <i>Que sólo en pocos meses,</i> <i>Cuando se contemplaban ya marqueses,</i> <i>Contando sus millones,</i> <i>Se vieron en la calle sin calzones!</i> Sam 139	<i>Ay zeinbat ete dagoz mundu zabalean</i> <i>Aberastu gurean egan bat batean</i> <i>Sarturik asmo barri tratu larregian</i> <i>Ondo bizi ziranak len euren tokian</i> <i>Geldituta billosik ta zorren azpian?</i> AB <i>Oll</i>
<i>Bien se deja ver</i> <i>Que es pintar como querer,</i> <i>Y no fue león el pintor.</i> Sam 64	«Ori dok lana Egitea nai dan legez: Baldin nik ori pintau banajok Izango zuan aldrebes». AB <i>Art</i>
<i>Si en esto para el ocio y los regalos,</i> <i>Al trabajo me atengo a los palos.</i> Sam 59	Onetara badatoz gero atsegiñak, Beto makillakadak naiz izan samiñak. AB <i>Ast</i>

Ñabarduraren bat erantsita, batzuetan: eroso bizi zalea eta nagia izatea, adibide honetan:

<i>Así suele suceder</i> <i>A quien su empresa abandona</i> <i>Porque halla, como la mona,</i> <i>Al principio qué vencer.</i> Sam 177	Beste hainbeste egiñ oi dabe Eroso bizi zaliak. Edozer bear neke erichirik Laster izten dau <i>nagiak</i> . AB <i>Mon</i>
---	--

Ugazaba gaiztoa izatea:

El destino, y no es cuento, A todos nos cargó como al jumento. Sam 67	Ezagutu eban orduan astuentzat bakarrik Ez dala lana Chacurrentzat bere bai, ona espada Ugazaba. AB Su
--	---

- Beste batzuetan desbideratu egin zen.

Como este hay muchos, Que aunque parecen hombres, Solo son bustos. Sam 64	Zeinbat diran ederrak Kanpo ta azalez Baña zentzudun dira Ezaiñak geienez. AB Arr
---	--

- Eta bestetan ez zuen irakaspenik eman.

Porque al hombre sólo afrenta Lo que supo merecer, Padecer." Sam 144	[Ø] AB Per
--	------------

Poesia berridazteko moduak. Eduki semantikoa ahalik eta fidelen ematea izan zuen helburu Arrese Beitiak. Nabarmena da hori argumentuari dagokionez eta baita irakaspenaren mezuari dagokionez ere. Hortaz, itzultzeko modu organikoaren muge barruan ibili zen Arrese, batez ere.

Ondorioak

Arrese Beitiaren olerki-sailik ezagunenak aberri-kantuak diren arren, alegiek ere osatu zuten otxandioarraren olerkigintza oparoaren ataltxo bat. Idatzi zituen alegia gehienak asmatutakoak izan ziren, garaitsuan zebilen joerari jarraituz. Samaniegoren testu bakan batzuk baino ez zituen hartu berridazketagai.

Zeukan ideologia eta bizi izan zuen garai historikoa kontuan hartzen badira, erraz uler daiteke gaztelaniaz zeuden alegiak euskaraz eman nahi izatea.

Samaniegoren alegien berridazle fidela dugu, oro har, Arrese Beitia. Ez da batere aldentzen jatorrizko alegietatik, eta argumentua eta irakaspenen mezua ahalik eta gertuen ematen ahalegindu zen.

Herri xehea izan zen bere olerkigintzaren hartzaila, eta horregatik, zenbaitetan, lautu egin zuen testua. Alegiak hartzailarengan pentsatuta hautatu zituen: motzak eta gai errazekoak, garaiko hartzailak laburtasunaren gatza eta piperra atsegin zituelako. Eta, hartzaille mota hori jomuga zuelako, euskal metrika erabili zuen alegia batzuk berridaztean.

VI.6.3. Ramon Artola Larrañaga (1831-1906)

Ideologia

Tolosan jaioa, kriseilugile eta margolari izan zen ogibidez; afizioz, bertsogile. Liberala, karlisten bigarren gerratean liberalen *voluntarios* deitzen zirenetan ibilitakoa (Zabala in R. Artola, 1995: 8).

Orduko aldizkarietan argitaratu zituen bertsoak, hala nola, *Euskal-Erria*, *Euskalzale* eta *Ibaizabalen*. Baita bertso-paperetan ere. Zenbait sari eskuratu zituen bertsoengatik. Bere alegiei esker ere sari batzuk irabazi zituen, hala nola Donostian, Lore-Jokoetan 1885 eta 1886. urteetan, eta Durangon 1886an (ibidem: 12). Alegiagintzak garai hartan pizten zuen interesa adierazten du lehen saria alegia bati eman izanak.

Alegiak euskarari zion amodio beroagatik idatzi zituen. Eskuizkribuko hitzaurrean jasota utzi zuen ideia hori:

...liburu onen moldatzaileak egin du lan au ondar aletxo batez lagun egiteagatik gure izkuntza gozo euskerari, berari donekidatzen dion amorio beroagatik (ib.: 17).

Corpusa eta iturriak

Euskal-Erria aldizkarian 208 alegia plazaratu zituen Artolak, 1882 eta 1898. urteen artean. Alegietatik berak sortutakoak zein diren eta iturri klasikoetan oinarriturikoak zein diren jakin behar da lehenik. Ez da lan makala izan. Izan ere, protagonistak, lekuak eta egoerak aldatu zituen Artolak berridazketa horietan, eta, ondorioz, guztiz mozorrotu zituen iturri klasikoak. Nolanahi den, hamabiren bat bereak ez zirela adierazi zuen Artolak eskuizkribuaren hitzaurrean:

Irakurlaririk arkitzen bazaio lan oni, eta batez ere au bear ain pazientzia duanik aurrenengotikan azkenegon irakurtzeko, asi bañan len agerkaitzen diot arkituko dituala, gañerako ipui berri txar eta nolabaitekoen artean, amabiren bat osoro berriak ez diranak; da esatea, zerbait gutxi asko irurizten diranak beste lenaz diran kontutxoetara, oetakoen artean zeintzuk diran batzuk *Artza eta lapurrak*, *Katamotza eta otsoa*, *Astoa eta jabeak*, *Azari setosoa*, *Kurrilloak eta olloak*, *Arbola eta arrosa*, *Erlejuba eta gizona* eta beste banaren batzuek, iya berenez zeintzuk diran ezagutzen diranak (ib.: 17).

Artolaren iturriei buruz González de Záratek, bestalde, honako hau idatzi zuen:

...en su mayoría podríamos precisar que son originales. No obstante algunas en lo substancial del relato presentan cierta relación con las fábulas de Esopo, La Fontaine y Samaniego (1995: 25).

Alegia guztiak irakurrita, iturri klasikoak ondo ezagutzen zituela eta erabili zituela egiaztatu dut. Zenbait iturritako argumentu, xehetasun eta irakaspen elkarren artean nahastu eta original itxura erantsi nahi izan zien Artolak bere testuei. Gehienbat, Samaniego eta La Fontaine baliatu zituen. Esopo eta Fedro ere ezagutzen zituelakoan nago. Eta, ziurrenik, Euskal Herriko alegialari garaikideak, hala nola, Ibáñez de la Rentería eta Angel Casimiro de Govantes. Izan ere, moda-modan zegoen generoa Artolaren garaian.

Hortaz, honela banatu ditut iturriaren arabera: 1, Esoporena; 1, La Fontainerena; 5, Samaniegorenak; 13, hibridoak⁸⁴; eta 188, bestelako iturrietakoak edo asmatuak⁸⁵.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Ramon Artola	<i>Euskal-Erria</i>	1882-1892	208 hn	1 Eso 1 Lf 5 Sam 13 hibri

ARTOLA, Ramon (1882). “Arranoa eta belea”, *Euskal-Erria*, 6. libk., 21-22. **Sam III-1**

ARTOLA, Ramon (1885). “Astoa eta zakurra”, in *Euskal-Festak Donostian 1885: oroimengarria uri onetako bilguma bereziaren erabakiz argitaratua = Juegos Florales euskaros en San Sebastián 1885: memoria publicada por acuerdo del consistorio de esta ciudad*, Donostia: Ignacio Ramon Baroja-ren Semeen Moldizkira, 14-15. **hibri**

ARTOLA, Ramon (1885). “Azariya zakur jantziyan”, *Euskal-Erria*, 12. libk., 359. **Lf III-3**

ARTOLA, Ramon (1885). “Zakurra eta euliya”, *Euskal-Erria*, 12. libk., 390. **Sam I-18**

ARTOLA, Ramon (1885). “Gabirabaren eiza”, *Euskal-Erria*, 12. libk., 467. **Sam II-5**

ARTOLA, Ramon (1885). “Azariya eta zakurra”, *Euskal-Erria*, 13. libk., 113. **Eso 246**

ARTOLA, Ramon (1886). “Esnasaltzallea”, *Euskal-Erria*, 14. libk., 284. **hibri**

ARTOLA, Ramon (1886). “Armiarma eta enara”, *Euskal-Erria*, 14. libk., 569. **hibri**

ARTOLA, Ramon (1886). “Astoa eta zaldia”, *Euskal-Erria*, 15. libk., 142. **hibri**

ARTOLA, Ramon (1886). “Arratoiak eta katuba”, *Euskal-Erria*, 15. libk., 164. **hibri**

ARTOLA, Ramon (1886). “Tximuba”, *Euskal-Erria*, 15. libk., 324-325. **Sam V-15**

ARTOLA, Ramon (1886). “Otsoak eta mirotza”, *Euskal-Erria*, 15. libk., 555. **hibri**

ARTOLA, Ramon (1887). “Barakulloa eta eperra”, *Euskal-Erria*, 16. libk., 74. **hibri**

ARTOLA, Ramon (1887). “Azariya ardi jantziyan”, *Euskal-Erria*, 16. libk., 139. **hibri**

⁸⁴ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

⁸⁵ Horiek guztiak zein diren jakiteko, honako datu-base hauetara jo dezake irakurleak: Jon Bilbao (1976), Julen Urkiza (1999). Edo, bestela, Zabalak apailatutako bi liburukietara (Artola, 1995).

- ARTOLA, Ramon (1887). “Astoak”, *Euskal-Erria*, 16. libk., 171-172. **Sam IV-5**
- ARTOLA, Ramon (1887). “Otsoa eta saguak”, *Euskal-Erria*, 16. libk., 246-247. **hibri**
- ARTOLA, Ramon (1888). “Azariya eta ollarra”, *Euskal-Erria*, 18. libk., 54-55. **hibri**
- ARTOLA, Ramon (1888). “Legoia eta astoa”, *Euskal-Erria*, 18. libk., 123. **hibri**
- ARTOLA, Ramon (1889). “Azari setosoa”, *Euskal-Erria*, 21. libk., 203-204. **hibri**
- ARTOLA, Ramon (1890). “Astoa eta otsoa”, *Euskal-Erria*, 23. libk., 454-456. **hibri**
- ARTOLA, Ramon (1891). “Erbi ama-umeak”, *Euskal-Erria*, 25. libk., 83-85. **hibri**
- ARTOLA, Ramon (1892). “Ancheta, olagarroa eta igaraba”, *Euskal-Erria*, 27. libk., 329-330. **hibri**

Kritika

Iritzietan, denek azpimarratzen dute Artolaren bertsoen izaera herrikoia.

Hala, bada, Onaindiak (1954: 356), Artolaren bertsogintzaz ziharduela, “goi egazkarik” ez duela dio, baina badituela bai “alegi txukunak, ipuin adoretuak eta olerkitxo eztiak: euskalduna berez izan kantari”.

Villasantek “el popular bertsolari Ramon Artola” berri laburtzua eman zuen (1979: 390). Ildo beretik, González de Záratek (1995: 25) Artolaren alegien “mercado carácter popular” delakoa nabarmendu zuen.

Zabalkundea

1995. urtean, Ramon Artolaren 41 alegia argitaratu zituen González de Záratek *Corpus. Fabulistas vascos de los siglos XVIII y XIX* liburuan. Hala ere, bost ez dira, nire ustez, Ramonenak, haren seme Jose Artolarenak baizik⁸⁶.

Urte berean, Antonio Zabalak bi liburuki plazaratu zituen Artolaren alegiekin, “Auspoa Liburutegia” sailean, *Ipuiak edo kontutxoak* izenburupean. Alegia guztiak bildu zituen. Zabalaren bildumaren oinarri nagusia (201 alegia, hain justu) Artolaren eskuizkribu bat izan zen, alegialariaren ondorengoek ordura arte ondo gorderik eduki zutena. Honela dio eskuizkribuak lehen orrialdean:

Ipuiak edo kontutxoak. / Beraren egillea / Ramon Artola. / 1896'eko urtean izkribatua / Donostian (Zabala in R. Artola, 1995: 10).

⁸⁶ *Euskal-Erria* aldizkarian begiratuta egiaztatu dut “Pepe” Artolarenak direla honako hauek: “Ardiyak”, “Ollua eta Iputargiya”, “Katubak”, “Zakurrak” eta “Gabiraba eta Belea”. González de Záratek, Ramonen izenean agertzen diren I, II, III, IV eta XV. zenbakidunak, hurrenez hurren.

Hala ere, eskuizkribuan baino zazpi alegia gehiago jaso zituen Zabalak bere argitalpenean. Zazpi alegia horiek *Euskal-Erria* aldizkaritik jaso zituen.

VI.6.4. Jose Artola Elizetxea (1864-1929)

Donostian jaioa. Ramon Artolaren semea. Linternero eta margolari, lanbidez; idazle, antzerkigile eta aktore, zaletasunez⁸⁷.

Asko idatzitakoa, *Euskal-Erria* aldizkarian, batez ere, eta beste zenbait aldizkaritan: *Euskalzale*, *Ibaizabal*, *La Unión Vascongada*... Alegiak eta bestelako olerkiak idatzi zituen, batik bat. Baita antzerkia ere. Alor horretan, "Euskal Fedea" antzerki taldeko kiderik garrantzitsuen izan zen urtetan.

Sari asko irabazi zituen Lore-Jokoetan, horietako batzuk bere alegiekin. Plazako gizona, alaia eta umoretsua. Izaera herrikoi hori haren testuetako hizkeran islatzen da. Alegien tonua erregistro horretara emana dago; ez du estilo hanpaturik onartzen.

Antonio Zabalak 1961ean argitaratu zituen Jose Artolaren zenbait bertso; horien artean, zortzi alegia.

Corpusa eta iturriak

Alegia asko idatzi zituen, 63 guztira. Gehienak asmatuak dira; banaka batzuek, hala ere, jatorri klasikoa dute.

Alegiok irakurri ostean, aita Ramonek erabili bezalakoxe estrategiak baliatu zituela begi bistakoa da, jatorri klasikoa dutenei dagokienez: protagonistak, lekuak eta egoerak aldatu zituen Pepek berridazketa horietan, eta, hala, iturri klasikoak ezkutatu egin zituen. Guztiarekin, argumentuek edota egoerek jatorriaren aztarna utzi digute, zenbaitetan. Honela banatu ditut, hortaz, Peperen alegiak, iturria zein den: 1, Esoporena; 2, La Fontainerenak; 2, Samaniegorenak; 12, hibridoak⁸⁸. Beste 46 alegiak bestelako iturrietakoak edo asmatuak dira⁸⁹.

⁸⁷ "Maritxu nora zoaz" kanta ezaguna ere Pepe Artolak idatzi zuen.

⁸⁸ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

⁸⁹ Horiek guztiak zein diren jakiteko, honako datu-base hauetara jo dezake irakurleak: Jon Bilbao (1976), Julen Urkiza (1999).

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Jose Artola	<i>Euskal-Erria</i>	1886-1902	63 hn	1 Eso 2 Lf 2 Sam 12 hibri

- ARTOLA, Jose (1886). “Gabiraba eta Belea”, *Euskal-Erria*, 15. libk., 104. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1887). “Zakurra eta Erliak”, *Euskal-Erria*, 16. libk., 315. **Sam IX-17**
- ARTOLA, Jose (1887). “Erbi-iñudea eta katua”, *Euskal-Erria*, 17. libk., 186-187. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1888). “Kirkirra eta Itzaya”, *Euskal-Erria*, 18. libk., 459-460. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1888). “Azeri arrua”, *Euskal-Erria*, 18. libk., 460-461. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1888). “Zakurra, Zozoa eta Astoa”, *Euskal-Erria*, 18. libk., 461. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1889). “Azeriya eta Pulpoa”, *Euskal-Erria*, 20. libk., 207. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1889). “Baratzako arrosa eta sasikoa”, *Euskal-Erria*, 20. libk., 232-233. **Eso 101**
- ARTOLA, Jose (1890). “Arbol sendoa eta argala”, *Euskal-Erria*, 22. libk., 310. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1890). “Usoak eta Chanchangorriya”, *Euskal-Erria*, 22. libk., 368. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1890). “Bi Ollarrak”, *Euskal-Erria*, 22. libk., 369-370. **Sam V-14**
- ARTOLA, Jose (1891). “Zakurra”, *Euskal-Erria*, 25. libk., 143-144. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1891). “Azeriya”, *Euskal-Erria*, 25. libk., 210. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1899). “Ardiyak”, *Euskal-Erria*, 40. libk., 378-379. **Lf XII-4**
- ARTOLA, Jose (1899). “Ollua eta Ipurtargiya”, *Euskal-Erria*, 40. libk., 379-380. **hibri**
- ARTOLA, Jose (1899). “Zakurrak”, *Euskal-Erria*, 40. libk., 443-444. **Lf VIII-7**
- ARTOLA, Jose (1902). “Subia eta Igela”, *Euskal-Erria*, 47. libk., 486. **hibri**

VI.6.5. Rosario Artola Elizetxea (1869-1950)

Ramon Artolaren alaba. Donostian jaioa.

Zazpi alegia ditu, denak bertsoz. *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu zituen 1893. eta 1899. urteen bitartean. Horietatik bi hibridoak dira: “Arrosa” alegiak Esoporen gai bat darabil eta “Bi saguak” alegiak, berriz, Samaniego du oinarri, baina gai hori berori Govantesek eta Ibáñez de la Renteriak ere landu zuten. Beste bostak asmatutakotzat jo ditut⁹⁰.

⁹⁰ “Astoa ta Otsoa”, “Katu zarra ta gaztia”, “Aseriyak”, “Bi choriyak”, “Chori eriya”.

Santi Onaindiak dioenez, “lorak eta txoriak kantatu zitun, eta saguak, astoak, katuak, axeriak, ...” (1974: 227). Gaitegi hori erabiltzeak alegietara bideratu zuen Rosario.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak⁹¹: zenbat, nola	Iturriak
Rosario Artola	<i>Euskal-Erria</i>	1893-1899	7 hn	2 hibri

ARTOLA, Rosario (1893). “Arrosa”, *Euskal-Erria*, 28. libk., 212-213. **hibri**

ARTOLA, Rosario (1893). “Bi saguak”, *Euskal-Erria*, 28. libk., 213-214. **hibri**

VI.6.6. Juan Maria Roman Dornaku “BERA” (1878-1959)

Beratar kaputxino honek zazpi alegia berridatzi zituen eta *Euskal-Esnalea* aldizkarian argitaratu, 1912tik 1917ra.

Sei alegiatan garbi adierazi zuen izenburuan “Goyetxe’ren ipuinak” edo “Goyetxe’ren alegiak” zirela. Garai hartako hizkuntza-irizpideei jarraituz, Goyhetcheren alegiak hartu, eta ukitu garbizalea erantsi zien. “Astua ta zerriya” (1912) alegia, ordea, ez da Goyhetcherena. Azken hori hibridoa da, eta beste seiak, noski, La Fontainerenak⁹².

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Roman Dornaku	<i>Euskal-Esnalea</i>	1912-1917	7 hn	6 Lf 1 hibri

DORNAKU, Juan María Román “BERA” (1912). “Astua ta zerriya”, *Euskal-Esnalea*, 25. zka., 13-15. **hibri**

DORNAKU, Juan María Román “BERA” (1912). “Goyetxe’ren ipuinak. Astoa ihizian”, *Euskal-Esnalea*, 39. zka., 182-184. **Lf V-21**

DORNAKU, Juan María Román “BERA” (1912). “Goyetxe’ren ipuinak. Astoa gorpuzkiekin”, *Euskal-Esnalea*, 41-42. zka., 217. **Lf V-14**

DORNAKU, Juan María Román “BERA” (1913). “Goyetxe’ren ipuinak. Lun edo Leoin zahartua”, *Euskal-Esnalea*, 56. zka., 125. **Lf III-14**

DORNAKU, Juan María Román “BERA” (1914). “Goyetxe’ren ipuinak. Gizona ta erioa”, *Euskal-Esnalea*, 78. zka., 70-71. **Lf I-16**

⁹¹ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

⁹² Eskema metodologikoan adierazi dudana bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

DORNAKU, Juan María Román “BERA” (1917). “Goyetxe’ren alegiak. Belea ta axeria”, *Euskal-Esnalea*, 155. zka., 132. **Lf I-2**

DORNAKU, Juan María Román “BERA” (1917). “Goyetxe’ren alegiak. Ttirritta ta xinaurria”, *Euskal-Esnalea*, 156. zka., 146-147. **Lf I-1**

VI.6.7. Joseba Altuna Aldasoro “AMILGAIN” (1888-1971)

Ideologia

EAJkoa zen. Gerra ostean, frankismoak jazarria eta zigortua. Euskaldun berria. Bizkaiko Foru Aldundian euskara-irakasle, 1936 arte. Itzultzailea. Atzerriko idazleen lanak itzuli zituen, hala nola, Grimm anaien ipuinak, Oskar Wilderenak, Afanasievenak eta Esoporen alegiak.

Euskal eskolak indartzea helburu, haur liburu didaktikoak prestatu zituen, umeez euskaraz irakur zezaten. Haur liburu horien artean, *Ume Euzkeldunen Laguna* (1920) da⁹³ aipatzekoa. Irakurgai-sorta bat prestatu zuen libururako, tartean alegiak, orduantxe jaiotako euskal eskoletan eta euskal hezkuntzan erabil zedin. Didaktika-bide gisa, umeez ikastea eta atsegin hartzea uztar zitzaten nahi izan zuen: “idazti au irakuriaz asko ikasiko dozube ta noxian bein sendo bañe-egin be”.

Bi hartzaile desberdin dituzte bere alegiek: “Mutiko-neskato euskaldunei” eskaintza ez-sexista egin zuen Altunak *Ume Euzkeldunen laguna* irakurgai-liburuan; herritar heldu abertzalea zuten, berriz, hartzailetzat *Euzko-Deyako* Esoporen alegiek.

Corpusa eta iturriak

Ume Euzkeldunen laguna liburuan 8 alegia moldatu zituen, ipuin eta bestelako irakurgaiekin batera, hitz lauz. Horietatik sei datoz iturri klasikoetatik: bat, Esopotik; hiru, La Fontainetik; bat, Samaniegotik, eta beste bat hibridotzat hartu dut. Beste biak, “Amilgain”-ek asmatutakoak edo beste iturri batzuk erabiliz moldatutakoak dira⁹⁴.

Bestalde, hitz lauzko 27 alegia argitaratu zituen Altunak *Euzko-Deya* aldizkari jeltzalean, “Esoporen ipuñak” izenburu orokorraren pean eta “Amilgain” goitzenarekin.

⁹³ *Haur liburu didaktikoen erroldan* (1987: 40) ohar bitxi hau irakur daiteke: “La 2ª edic. 1920. Libro de lectura para los niños de las escuelas. Edición destruida posteriormente por la Diputación de Vizcaya”.

⁹⁴ “Arkumia ta azerija”, “Katuba ta azerija”.

Iturri nagusia *Isopete* ugarietako bat izan zen. Izan ere, 27 alegietatik 25 bilduma horri dagozkio. Bi baino ez dira, beraz, beste iturri batzuetatik ateratakoak: “Agurea eta semeak”, Esopotik eta “Otsua eta txakurra”, Fedrotik.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Joseba Altuna “AMILGAIN”	<i>Ume Euzkeldunen laguna</i>	1920	8 hl	1 Eso 3 Lf 1 Sam 1 hibri
	“Esoporen ipuñak”, <i>Euzko-Deya</i>	1921-1923	27 hl	25 Isop 1 Eso 1 Fe

ALTUNA, Joseba (1920). *Ume Euzkaldunen Laguna. Irakurteko bigarren idaztija*. Bilbo: Euzko-argitaldaria.

[“Lugiñaren esanak” **Lf V-9**. “Esan, bai, baña...” **hibri**. “Batu ta indafa eukiko dozube” **Eso 86**. “Uso bijak” **Lf IX-2**. “Bakotxak bere ustia” **Lf III-1**. “Ólafa ta azerija” **Sam VI-4**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1921). “Esopo’ren ipuña”, *Euzko-Deya*, I. zka., 13-14.

[“Otsua ta bildotsa” **Isop I-2**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1921). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, III. zka., 35-36.

[“Ólafa ta pitxija” **Isop I-1**. “Saguba, ugarixua ta miruba” **Isop I-3**. “Gixona ta sugia” **Isop I-10**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1921). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, IV. zka., 53-54.

[“Otsua ta amianua” **Isop I-8**. “Ugarixubak bakaldun-eske” **Isop II-1**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1921). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, V. zka., 75-76.

[“Otsua ta txakura” **Fe III-7**. “Erbiñudia ta sagubak” **Isop IV-2**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1921). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, VII. zka., 103-104.

[“Agurea ta semiak” **Eso 86**. “Merkurio ta egúrgiña” **Isop Remicio-13**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, VIII. zka., 5-6.

[“Arakiña ta arijak” **Isop IV-6**. “Eskubak, oñak eta sabela” **Isop III-16**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, IX. zka., 21-22.

[“Txakura ta okela-zatija” **Isop I-5**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, X. zka., 33-34.

[“Luna, beya, auntza ta ardiya” **Isop I-6**. “Belea ta lukija” **Isop I-15**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, XII. zka., 71-72.

[“Auntza, auntzumia ta otsua” **Isop II-9**. “Lugiña ta sugia” **Isop Extravagante-8**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, XIII. zka., 36-37.

[“Txakufa ta ardiya” **Isop I-4**. “Usuak eta mirotsa” **Isop II-2**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, XIV. zka., 97-98.

[“Uriko saguba ta basefikua” **Isop I-12**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, XV. zka., 113-114.

[“Afanua ta azeriya” **Isop I-13**. “Lapufa ta txakufa” **Isop II-3**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, XVI. zka., 133-134.

[“Otsuak eta ardiyak” **Isop III-13**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1922). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, XIX. zka., 177-179.

[“Afantzalia ta afañak” **Isop Remicio-7**. “Zezena ta saguba” **Isop Aviano-23**.]

ALTUNA, Joseba “AMILGAIN” (1923). “Esopo’ren ipuñak”, *Euzko-Deya*, XX. zka., 1-2.

[“Artzain guzultija” **Isop Remicio-10**. “Katuba ta sagubak” **Isop Remicio-8**.]

Kritika

Gutxi idatzi da Altunaren alegiei buruz. Santi Onaindiak (1975) zer edo zertxo aipatu zuen Esoporen alegietako euskarari eta irakaspenei buruz: “Pilloa argitaratu zigun, poliki euskeraz jarrita. Orrez gaiñ, gure erriarentzat bereziki, ondoren onuragarriak atera zizkigun euretatik”.

Guztiarekin, baditugu iruzkin batzuk hark itzultitako ipuinei buruz. Altunaren euskara hartu zuten, batez ere, iruzkingileek hizpide.

Wilderren ipuinak euskaratu zituela-eta, Irigaraik euskalki kontuak aipatu zituen (1928: 166): “el dialecto vizcaíno que emplea es fácilmente comprensible, de sintaxis

castiza y natural. De vez en cuando se ve que echa mano de palabras de otros dialectos...”.

Arriandiagak (1929: 66-67), berriz, Grimm anaien ipuinak “euskerar garbijaz ta éfazaz” itzulita zeudela esan zuen arren, “okeftxuren batzuk” *zuzendu* zizkion. Hitz berrien gaitzak jota zegoen orduan euskal literatura eta, horregatik, Arriandiagaren proposamen hau: “¿*Ipopotamo* zer da?... *ur-zaldija* esan eta erabilizkero, edozeinber euzkaldunek bat-baten uleftuko dau zetariko aberia dan *ipopotamo* ori”.

Testu mailako azterketa

Objektuak, izakiak. Erreferente ia guztiak, jatorrizkoen baliokideak dira. Gutxitan desbideratu zen: Margarita o jaspide/pitxija (Isop 33, Alt *Ola*); flautas trompetas/txilibituba⁹⁵ (Isop 110, Alt *Ar*).

Kontzeptuak. Gutxitan desbideratu zen: cubdicioso/zidafigile (Isop 33, Alt *Ola*).

Izen bereziak. Pertsonaiak, batzuetan, izenondoak erantsita ezaugarritu zituen: El mozo/Artzain guzufti-zentzunbakuak (Isop 111, Alt *Art*).

Mitoak, obra klasikoetako pertsonaiak eta beste, berdin itzuli zituen, oro har: el Esopo/Esopo; Mercurio/Merkurio (Isop 112, Alt *Mer*).

Generoa. Gizona erabili zuen genero neutro gisa:

Como el prudente & el cuerdo... Isop 110	Gixon zufa... Alt <i>Kat</i>
--	------------------------------

Beste batzuetan, ekidin egin zuen halako erabilera:

...non tome ombre compañía con mayores... Isop 35	Altsubakin ibiltia ezta zuzena... Alt <i>Lun</i>
---	--

Konpentsazioa. Batzuetan, promitioa irakaspenean eman zuen Altunak:

Como el prudente & cuerdo si vna vez es engañado de algunos, despues non cree a los fingidos et falsos ombres prueba esta fabula. Isop 110	Gixon zufa bein atzipetu daikegu, baña gero eztautse guzufecko esanai jaramonik egingo. Alt <i>Kat</i>
--	--

Zuzeneko solasera aldatu zuen, zenbaitetan:

...la qual se le offresce mucho & dize que es contenta de lo passar muy seguramente... Isop 34	...erantzun eutson: —Pozik lagunduko aut. Alt <i>Sag</i>
--	---

⁹⁵ Grafari dagokionez, saiatu naiz jatorrizkoan bezala transkribatzen, baina t, d eta l kapeladun hizkien ordeez honako hauek erabili ditut: ṭ, ḍ eta ḷ.

Baita zuzenetik zeharkakora ere, bestetan:

...diziendo: "Ay de los lobos". Isop 111	Otsua etofala esanaz.... Alt Art
--	----------------------------------

Konnotazioak. Sarri erabili zuen ironia eta, halakoetan, tipografikoki markatu zuen, letra etzanez, hain zuzen: *laguntxuba* (Alt *Kat*); ori *pentsetan* ba-dozu (Alt *Kat*); *sarija* (Alt *Lun*); *gure ixen ona* zaintzen alegindu bial (Alt *Bel*); *gramatika* asko ekijan (Alt *Erb*).

Neologismoak. Arana Goirik eta haren eskolakoek sortutakoak zabaltzeko ahalegina egin zuen: *ludija*, *lagi*, *euzkotaf* (Alt *Ola*); *gentzan itxi* (Alt *Kat*), *irasi* (Alt *Art*), *txindi* (Alt *Bel*); *eresija* (soñuba) (Alt *Ar*). Batzuetan, parentesi artean azalpena eman: *eresija* (soñuba) (Alt *Ar*); *luna* (leoya) (Alt *Lun*); *bakaldun* (eége) (Alt *Uga*), *batin* (ziuf) (Alt *Ar*). Eta 'edo' juntagailua baliatuz: "jakingiak edo ezer eztakijenak" (Alt *Ola*).

Betelana eta eletsutasuna. Ez dago halakorik, are gehiago, trinkoago eta eskematikoago berridatzi zuen. Batzuetan, testu-zatiak inausiz. Esaterako, promitioak ez zituen itzuli:

El Esopo del inocente et sin culpa & del improbo malo rrecuenta tal fabula. Isop 33	[Ø] Alt <i>Otsua ta Bil</i>
Aquel que piensa mal & cosas contrarias contra otro non puede fuir el mal, segund que desta fabula se muestra Isop 34	[Ø] Alt <i>Sag</i>
El poderío & mando delos poderosos & rricos non es mas si non quanto se conforman por voluntad & fauor conlos inferiores et sus subditos, como declara esta figura. Isop 127	[Ø] Alt <i>Zez</i>

Lautzea. Testua errazago uler zedin, batzuetan zenbait eduki inausi egin zituen:

se lleo ala rriuera de mar & assentando se en vna rroca & peña... Isop 110	Ixontziño baten baruban... Alt <i>Ar</i>
El pastorçillo ponja algunas escusas, deziendo que los lobos avian fuydo por partes non manifiestas. Isop 111	[Ø] Alt <i>Art</i>
...avnque yo supiesse que te avian tornado en fuele o barqujn... Isop 111	[Ø] Alt <i>Kat</i>

Beste batzuetan, baina, testua zabaldu zuen:

[Ø] Isop 111	Baña guzufetan, euren lepotik bafe-egiteko goguz ebiñala igarita... Alt <i>Art</i>
--------------	--

Irakurleari hiztegia eta adizki trinkoak ulertaraztea helburu zuela, parentesi artean sinonimoak eman zituen: *dezauguzanakin* (ezautzen *doguzanakin*) (Alt *Ar*); *itzala*

(geriza) (Alt *Txa*); atzipetu (engañau) (Alt *Bel*); bezuzea (efegalua), amianuari (zigueñari), mokua (pikua) (Alt *Otsua ta Ami*); bekatxez (enbiriz) (Alt *Esk*).

Irakaspenen mezua. *Isopeteko* alegietako irakaspenak nahiko berdintsu itzuli zituen, baina adibide bat gaineratu zien, beste paragrafo batean emanda edo tipografia-ikur bereziak ipinita. Adibide guztiek garai hartako *Euzkadi* inarrostean zuten ideologia-gatazkekin dute zerikusia.

Esopo ekarri zuen hizpidera halako adibideetan: “Esopo’ren ipui au”, “Esopo’k erakusten deuskun antzera”, “Esopo’ren afantzalea”, “Esopo’ren sagubak”. *Isopeteko* alegietako promitioetan Esopo aipatzen dela konpentsatu nahian: “Amonesta esta fabula de el Esopo”, “Esta fabula rrecuenta el Esopo”...

Halaber, adibideak, maiz, esaldi adierazkor batez bukatu zituen, harridurazkoa edo ironiazkoa, gehienetan.

Adibideotan adierazi zuen ideologia honako gai hauen ingurukoa da:

Jeltzaleak eta *Euzkadiren* arerioak:

<p>Esta fabula significa que cerca delos malos & falsos non ha lugar la verdad nin rrazon, nin vale otra cosa contra ellos saluo la fuerça sola. E semejantes lobos se fallan en cada lugar, los quales por tirania buscando ocasiones beuen la sangre & afan delos innocentes & pobres. Isop 34</p>	<p>Gogo dongiai ezin leikijoe egirik edo gauza zuzenik esan, eurentzako indaia baño beste lagirik eztago-ta.</p> <p style="text-align: center;">◆◆◆◆</p> <p>Jeltzaliak, be, baukagu, zoritxañez, bildots onen antza. Eta Euzkadi’re arerijuak, otsuarena. Eztogu gauza andirik egin bial, otso malmutz orek bere aginakaz geu zaurituteko. Beti dago zain, ia noiz ta zelan kalterik egin daiskegun. Oretarako atxakijak ugari asmetan dauz. Eta, jakiña, nai-ta-ez bere erpietara jausi-bial.</p> <p>Baña inoiz ixan leike bildots otzana otso ikaragañija bigurtutia.</p> <p>Eta orduban... joi orduban!... Alt <i>Otsua ta Bil</i></p>
<p>Significa esta fabula que los que piensan mal et dapño a otros & lo ponen por obra alas vezes se destruyen a ssi mesmos por fazer mal a otros et assi peresçen los que so espezie de bien fazen mal. Isop 34</p>	<p>Safi jazoten da inori kalterik egitian norberari be egin.</p> <p>Euzkadi-areyo zitalak safi-askotan ibilten dira geuri zelan kalterik egingo oldozketan. Eta guri, bai, batzutan kaltia egin, baña eurok be eztira eurena artu-barik geratzen.</p> <p>Gixon orek olako mirubak bialko ebezan, euren asmo okefak zuzentzeko. Alt <i>Sag</i></p>

Batzuetan, hitzaldi sutua sortzerainoko tonuan, garaiko politika-giro mikaztua eta Espainiarekiko gatazka agerian utziz:

<p>E assi todas las cosas se fazen bien en sus tiempos convenientes. Isop 110</p>	<p>Eztogu gauza bañirik asmau bial, lendik dezauguzanakin (ezautzen doguzanakin) ondo bagagoz. Zufa da ez erabilitia, ondo uñtengo yakun ba tin (ziuf) eztakigun gauzarik.</p> <p>◆◆◆◆</p> <p>Jeltzaliak eztiran euzkotañak bai-dauke añantzale oñen antza. Esan gura dogu jeltzaliak ez-ixanda, Euzkadi'ren lagi, ele, ekandu ta ostantzekuak matetan ei-dabezan euzkotañak.</p> <p>Onok be, bein baño geyagotan, esan darue, Euzkadi'ri dagokijon eta zoñ-yakon gusti-gustija atzera jaristeko gertu dagozala, eurak be euzkotañen eskubidiak aintzat aytzen eta matetan geu beste dirala. Eta abañ ta abañ.</p> <p>Bai, orixe esaten dabe.</p> <p>Baña Euzkadi'ren eskubidiok loñtuteko, Esopo'ren añantzale-antzera, txilíbituba ezeze gitaña joteren dabe.</p> <p>Itxuraz, uste dabe musikiaz añaupauko dabezala eukok. Bai, zeretik. Astija alpeñik galdu, bai.</p> <p>Eurak diñuenez, euzkotañ onak dira, euzkomatasunian geure mañara eldu dira, gorago igon ezpa-dira be. Baña euzkotañen gauzaok loñtutiañen, eukok ostu dauskubezanai atsekaberik emon gura ez.</p> <p>Itz leunaz, buruba makuñtutiaz loñtu gura dabe makiñlagaz baño egin ezin leikena. Labankerijak alde batetik, labankerijak bestetik... beste zerik eztago.</p> <p>Euzkotañak, bai, euzkotañ zinduk, Euzkadi benetan mate dabenak. Ori azalez. Baña bañutik, gusti ori baño lenago... ¿españazale amuñatubak!</p> <p>Karlatañ, jaimetañ, mauratañ, eñkaltzale ta ostantzeko Alderdi añotzalietañ olako euzkotañ asko dagoz, beti beti guzuñetañ, guzuñ utzetañ dabiltzanañ.</p> <p>Esopo'ren añantzaliak, baña, txilíbituba jotiaz ezer loñtuten ezebanik iñañi ebanian, ereskin ori alde batera itxi ta saria bota eban, añañak añañetako biderik onena orixe da-ta. Baña euzkotañ españazaliok eztabe oñenbesterik egiten. Gitaña jo ta jo diñardube. Eta ez ori bakañik. Noxian-beinka, buruba jaso, abua zabaldu ta alako jotaren bat abesten dabe.</p> <p>¿Itxura ona aytuko eban oraingo Euzkadi'k, olako aldeztaliak baño ezpa'leukez! Abe zañen atzera, sitsak jota legoke. Eta sitsadun abeak daukezan etxiak, lasteñ jausten dira luñera. <i>Alt Ar</i></p>
---	---

Tiranoak eta menpekoak:

<p>Significa esta fabula que el que es engañado vna vez non deve creer a los falsos simuladores. Isop 111</p>	<p>Gixon zufa bein atzipetu daikegu, baña gero eztautse guzuñezko esanañ jaramonik egingo.</p> <p>◆◆◆◆</p> <p>Ipuin onen katu-antzekua gure areyua da (areyo ori zein, bayetz iñañi ¿ezta?) Gu, ostera, sagu kotauak.</p> <p>Katu madarikatubok ezkañ gentsan isten. Gauñ zartada bat, bijañ beste diabrukeri bat, ezin bere onduan nasai bixi.</p>
---	---

	<p>Zitalok gofoto aundija dausku. Al ba'leu, jene!... il eta birinduko gindukez. Oratiño, baña, aizkide-antzez geure aufera aufkezten da. Eta leunkeri andijak egiten dauskuz geu atzipetuteko. Baña alpeñik. Esopo'ren sagubak katuba ezautzen eban eraz, geuk be aspalditik dazaugu geure laguntcuba. Eta al-dogunetan, alde-egiten dogu beragandik jBa-da ezpa-dan!... Alt Kat</p>
--	---

Inperioa eta inperioari lagundu zioten euskaldunak:

<p>Esta fabula amonesta que non tome ombre compañia con mayores porque el trabajo es para los menores & el prouecho para los mayores. Isop 35</p>	<p>Altsubakin ibiltia ezta zuzena, onura gustija eurentzat aflu ta lana inorenzat isten dabelako. ◆◆◆◆</p> <p>Aldi gustijetan, antziñan eta orain, euzkotafak espanafakin ibili dira, luna, beya, auntza ta ardiya ibili ziran letxe. Alkafegaz ibili, au, ori ta bestia loftuteko. Batian Europa-Ameriketa'ko erijak garatu ta azpiratzen; bestian inungo aberaskijak artzen... Baña euzkotañoi jazo yake Esopo'ren bei, auntz eta ardi kotauai jazo yakena: ostutakua banandu biar zanian, espanafak, lunak lez, gustija artu, lagunai abua zabalik itxita. Euzkotafak sendo lan-egin, bai, baña onura andirik artu ez. Onureak artzeko bestiak beti gerfu. Oratiño, euzkotafak ezeuken zetan sartu olako zereginetan. Eta ondo ibazita dauke. Espanafakandik artutako sarija kirtenai yagoken sarija da Alt Lun</p>
---	--

Euskaldunen legeak, ohiturak eta hizkuntza:

<p>Esta fabula rrecuenta el Esopo contra aquellos que leen este libro & non lo entienden, los cuales non saben la virtud dela margarita & assi non pueden chupar la miel delas flores. E a estos poco aprouecha leer, saluo tan solamente para aver solas delas palabras materiales. Isop 33</p>	<p>Jakingiak edo ezer eztakijenak eztabe jakitia aintzat artzen, kirten batzuk diralako. Euzkotafak, be, ainbat eta ainbat gauza on daukaguz. Baña olañak pitxijaz egin ebana egin daruagu: guretzako eztira gauza—esan. jZegatik? Asto galantak garalako. Or daukagu Euzkera edera; or daukaguz ekandu onak; or abesti politak; or lagi zuzenak... jBaña zer? Eurok ezetsi ta erbestera juaten gara, ele, ekandu, abesti ta lagi zatañen bila. jHamaika kirten yagozak ludijan! Alt Ola</p>
--	--

Batzuetan, kronika politikoa egiteraino:

<p>E esto le vino a aquel pastor mentiroso porque otras vezes avia mentido, non le creyeron quando de verdad pidia socorro. Isop 111</p>	<p>Guzufak kaltia beti dakañ. Guzuñtijari eztautsa inok ziñesten, egija esaten ba-dau be. ◆◆◆◆</p> <p>Euzkadi'n dagozan Alderdi arotzaliak, Esopo'k erakusten dauskun artzañaren antzekuak dira. Arek be, gau ta egun, euzkotañai deika egon yakezan, Euzkadi'ren eskubidien aizkidiak eta</p>
--	--

	<p>mataliak zirala esanaz. [redacted] Eta euzkotařok, deya entzunda, eurakana juañ ziran. Baña bertora elduta, igafi eben guzufeñtan baño ezebiltzala ařano-ziztriñok. [redacted] Euzkotařak orixe igafi ebelarik, Alderdijokandik alde-egiten asi ziran. [redacted] Agertu zan gero Arana-Goiri'k irasitako Alderdija ta au ixan zan, egiz, beste alderdi ořentzako otsua. Euron artaldietan sařtu ta ixugařizko kaltia egin eutsen. [redacted] ¿Zelan, baña? [redacted] Banan-banan, euzkotař gustijok kentziaz. [redacted] Onezkerok, nařu-gořijan, itxura bařegařijan lotu dira Alderdijok. Alt Art</p>
--	---

Herri txikien ahalmena (apur bat desbideraturik, irakaspenaren bigarren partean):

<p>Quiere dezir que los señores et poderosos que deven conformarse con los subditos & non los deven menospreciar por pequeños que sean si quieren guardar su estado & honrra. Isop 127</p>	<p>Senduak eta alsubak makalen eta ezeukijen bilduf ixan biař dira, areyuak, txikijak ixanda be, bilduřgařijak diralako. [redacted] ◆◆◆◆ Euzkadi-albuetako efi aundi-ařuok goguan euki biařko leukie Esopo'ren ipuin au. [redacted] Eurak zezenak, zezen aundi-senduak; geu sagubak, sagu txiki-makalak. Baña bein-edo-bein sagubak zezenai zirija sařtu ta nasai bixiten ez itxi egiten dautsie. [redacted] Arduraz ibili, ba. Alt Zez</p>
--	---

Emigrazioa:

<p>Amonesta esta fabula que ninguno deve oyr njñ crear las palabras engañosas & de vana aluança, ca la vana & falsa gloria causa et trahe verdadero enojo & dolor. Isop 37</p>	<p>Koipekerijak ařisku aundikuak dira ta gauza onik eztakaře. Min labanaz zurikatzen gabezanak, eztabe gura besterik egu atzipetu (engañau) baño. [redacted] ◆◆◆◆ Euzkadi, ta batez-be Bizkaya, auxe ta auxe dala; onenbeste ta ořenbeste txindi emoten daula txiruentzako; emen iñun baño obeto ařtubak dirala gexuak eta ezer eztaukenak... Ori ta geyago be esaten dauskube atatik ona, emen bixiteko asmoz, datosanak. [redacted] Eta geu, orixe entzunda, bela zentzunbakua letxe, ařopuztuten gara. ¡Oi!, bijotza nasai-nasai geratzen yaku... [redacted] Eta jakiña; koipekeri ořek esaten jařatu dagijentzat, txindija pařa-pařa emoten dogu. Bai, ba; gure ixen ona zaintzen alegindu biař. [redacted] Ařotzak eztau besterik gura, ¿ezta! Txindi ori ařtu ta «¿jamaika kirten yagozak ludijan!» esanaz, gure lepotik baře-dagi. [redacted] ¿Iñoiz ikasiko ete-dogu Esopo'ren bela ařoputza-lakua ez ixaten? [redacted] Eztakit, ba; eztakit, ba... Alt Bel</p>
--	---

Behin eta berriz agertu zituen ideioak beste irakaspenetan: “Jeltzaliak” bildots onak dira, eta “Euzkadi'ren arerioak”, otsoak; “Euzkadi, txiro, baño azke”; “Jel-ustiak ziran batuten gindubezanak”; “Epaikarija, areyo-ařtetikua da”; “Euzkotařak, be, miru

españafaren atzapafetatik igesteko”, “Jeltzaliak eztiran euzkotafak”; “euzkotaf españazaliok”; “Abeñi bat dogu: abeñi txikija ta txirua. Baña ezto gu gura besterik”; “Antzin-antziñetik eduki dogun buru-jaubetasuna Jaun-Goikua’k eta ez beste iñok emona ixan da”...

Ondorioak

Hertsaketen artean, ideologiak du eragin gehien Altuna Aldasoreen berridazketetan. Aitzakia edo tresna huts bihurtu ziren alegiak Altunaren luman diskurtso politikoa eta ideologia zabaltzeko. Agiri du hori irakaspenak azaltzeko erabili zituen adibideetan, ideologia jeltzalea agertzen baita, nola edo hala, adibide horietan.

Ideologiaren hertsatzaileak hizkuntza ereduari ere eragin zion, hiztegi mailan batez ere, Arana Goirenen hizkuntza-ereduari lotu baitzitzaion alor horretan. Hala ere, hiztegi hori ulertarazteko bide didaktikoak erabili zituen (parentesiak, ‘edo’ juntagailua eta sinonimia).

Gainerakoan, estu lotu zitzaion jatorrizkoari, gehienetan. Zenbaitetan, hala ere, urrundu zen jatorrizkotik, baina, batez ere, testua lautzeko, ulerterrazago egiteko.

Ideologia eta hizkuntza-eredua herritar xeheengana helarazteko premia nabarmendu dakioke, lautze-estrategia horiek direla-eta.

VI.6.8. Ramon Intzagarai “ELURMENDI” (1878-1947)

Ideologia

Donostiarra. Apaiza. Euskaltzain osoa, sorrerako hamabietatik bat. Frantsesa, grekoa eta alemana zekizkien. Euskara irakasten ere ahalegindu zen, Donostiako «Círculo Integrista»-n. *Argia* asterokoaren sortzaileetakoa izan zen 1921. urtean. Garaiko aldizkarietan asko idatzi zuen, *RIE* Ven eta *Argian*, batez ere.

Ipuiyak liburua argitaratu zuen 1922an. Bertan, 59 alegia plazaratu zituen, hitz lauz, 104 orritan. Irakurgai eta ipuin-liburuaren artean sailkatu zuen Arrienek bere haur liburu didaktikoen erroldan (1987).

Corpusa eta iturriak

Zenbait iturri klasiko erabili zituen Intzagaraik *Ipuiyak* berridazteko. Fedro izan zuen iturri nagusi: 35 alegia kokatu ditut Fedroren izenpean. Samaniego izan zen kopuru aldetik bigarren iturria: 10 alegia egokitu dizkiot. Kopuru murritzez, Esopo (1) eta La Fontaine (2 alegia). Zazpi alegia, berriz, hibridoak dira, ezin baitaiteke inoren egiletza irmoki aldeztu. Lau alegia, aldiz, tesi honen corpusetik kanpo utzi ditut: “Astoa ta zinburiña”, Iriarterena delako (“El burro flautista”, hain zuzen) eta beste hirurak, beste iturri batekoak edo Intzagaraik berak asmatuak direlako ⁹⁶.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Ramon Intzagarai “ELURMENDI”	<i>Ipuiyak</i>	1922	59 hl	1 Eso 35 Fe 2 Lf 10 Sam 7 hibri

INTZAGARAI, Ramon “ELURMENDI” (1922). *Ipuiyak Elurmendi’k euskeratuak*. Donostia: Eneko Deunaren irarkola. ARGIA’ren idaztiak.

[“Zakur atzeritafa” **Fe I-19**. “Zakur gosetia” **Fe I-20**. “Zakur zintzoa” **Fe I-23**. “Igel aundinaya” **Fe I-24**. “Uxo ergelak” **Fe I-31**. “Igel ikaratiya” **Fe I-30**. “Leoya ta astoa” **Fe I-11**. “Iskiñoso afoa” **Fe I-13**. “Mirua, erbiñudea ta basurdea” **Fe II-4**. “Bi asto zamari” **Fe II-7**. “Otsoa ta bildotxa” **Fe I-1**. “Igelak nagusi eske” **Fe I-2**. “Iskiñoso edernaya” **Fe I-3**. “Zakur zuriya” **Fe I-4**. “Beya, auntza, ardiya ta leoya” **Fe I-5**. “Otsoa lañi” **Fe I-8**. “Bufigoia ta erbiya” **Fe I-9**. “Oreiña ituriyan” **Fe I-12**. “Astoaren sena” **Fe I-15**. “Oreña ta ardiya” **Fe I-16**. “Igelak eta eguzkiya” **Fe I-6**. “Zapatagiëa sendagië” **Fe I-14**. “Azerixa ta amiomo edo ziguña” **hibri**. “Leoya azkenetan” **Fe I-21**. “Leoya ta xagua” **hibri**. “Nilo ibayan” **Fe I-25**. “Miru ta axeri amak” **Fe I-28**. “Basauntza itzulika” **Fe II-8**. “Mofoi zuriya” **Fe II-5**. “Lotsagabea ta jakintsua” **Fe III-5**. “Katamotza ta artzayak” **Fe III-2**. “Euliya ta mandoa” **Fe III-6**. “Zakura ta otsoa” **Fe III-7**. “Anton ta bere adizkideak” **Fe III-9**. “Óloa ta ufezko efastuna” **Fe III-12**. “Pagoa ta kañabela” **hibri**. “Ólazar bat eta lapurak” **Eso 158**. “Erbiñudea irin-jantziyan” **Fe IV-2**. “Indioláren efeminka” **Fe III-18**. “Axeriyen mastipean” **hibri**. “Gizona ta zugea” **hibri**. “Txefiya ta astoa” **Sam I-1**. “Zaldiya ta astoa” **hibri**. “Mitxeleta ta barakurkúlua” **Sam VIII-7**. “Abere artean izufiya” **Sam III-2**. “Xaguxara ta erbinudea” **Sam VIII-6**. “Txaberama ta apobeltza” **Sam IV-11**. “Ólara ta axeriyá” **hibri**. “Arkumea ta otsoa” **Sam II-18**. “Ólar azkara” **Sam VI-4**. “Bi zakur” **Sam IX-3**. “Kosk samiña” **Sam I-17**. “Margolarien lana” **Sam I-6**. “Akuriya, erbiñudea ta katua” **Lf VII-15**. “Uxo ta txinguriya” **Lf II-12**.]

⁹⁶ “Txardieta, albanoa ta ixkira”, “Jakintsu bat eta bere mofoya” eta “Otsoa ta arkumea”.

Kritika

Onaindia da liburu horretaz iritzia eman duen bakanetakoa (1975: 169). Gustuko izan zituen Onaindiak alegiak eta alegien euskara: “Euskeratuak izan arren, oso politikak dituzu ipuiok, euskera goxo-goxoan idatziak”.

Testu mailako azterketa

Objektuak, izakiak. Batzuetan, objektuak aldatu eta gehitu zituen: Cuchillo y caldera / ganibeta, aiztoa, katea, kakoa (Sam 58, In 67). Eta egokitu: copa de un árbol / téla gañe (Sam 162, In 83); metal/altzairua (Sam 74, In 85).

Bestetan, animaliak egokitu zituen: León... Tigre... Oso... Asno/Leoia... Azaria... Katamotza... Astoa (Sam 99, In 72-74); águila/apobelatza (Sam 120, In 77).

Sinesmenak. Zenbaitetan Jainkoa agertu zuen, jatorrizkoan ez egon arren: fortuna/Jainkoa (Sam 194, In 71); justo cielo/Jainkoa (Sam 99, In 73); lo dispuso así la Providencia/Jainkoak bakoitzari berea eman zioke (Sam 120, In 77).

Ohiturak. Esaerak dioen gisan, odolkiak –mesedeak– ordainetan izan ohi dira euskal herrietan: gizalegezko portaera hori esplizituki adierazia dago itzulpenean:

Con sólo que me des cuatro lecciones, Ligera volaré por las regiones... Sam 120	–Erakutsi zadak egan ibiltzen. Etzaik, ařanetan! damutuko. Nik ordainduko diat mesede ori gazta ta esne-mamiz. In 77
--	--

Kontzeptuak. Azeriaren azerikeria eta zurikeria ez dira jatorrizkoan bezala islatzen. Beste gertakizun batzuk agertzen ditu kontzeptu horien ordean:

Señor, dijo la Zorra, en todo eso No se halla más exceso Que el de vuestra bondad, pues que se digna De teñir en la sangre ruin, indigna, De los viles cornudos animales Los sacros dientes y las uñas reales. Sam 99	Axeriyak bere okefak aitortu zituen uřen: –Neguan gaude, jaunak,... basefi-ondotan ibiltzea gogotsu zait... bi kapoi edef jan ditut... In 73
--	--

Lanbide-izenen bat egokitu zuen: cerrajero/erremendari (Sam 73, In 83); artífice/margolari (Sam 64, In 85).

‘Errege’ hitza ekidin zuen lehoia izendatzeko orduan. Gainera, astoa hiltzeko agindua batzarrak ematen du, eta ez lehoiak. Berridazlearen ideologiarekin zukeen zerikusia:

Pronuncia el Rey [el León] de muerte la sentencia, Y ejecutóla el Lobo a su presencia. Sam 99	Abek izan ziren katamotzaren adi ta auenak. Batzañari astoren ilketa eskatu zion, ta batzañak ilarazi zuen asto gaxoa. In 75
--	--

Izen bereziak. Pertsona-izenak egokitu zituen: Juana la madruguera/andre ernaya (Sam 161, In 82). Mitologia-izenak ezabatu zituen: Astrea/Ø (Sam 100, In 75), Júpiter/Ø (Sam 193, In 76). Baita Esoporen izena ere: Esopo/Ø (Sam 193, In 76).

Euskal leku-izenak eman zituen, gertakizuna Euskal Herriko txokoren batean dela adierazi nahiz: Ø/Bordatxuriko artzaya, Ø/Aranburuko ukulua (Sam 99, In 75).

Batzuetan eutsi egin zion tratamenduari: señor Lobo/Otsoko jauna (Sam 94, In 81). Bestetan, ez: caballero Lobo/otsoa (Sam 94, In 81).

Paremiak. Bi baino ez zituen itzuli behar izan, eta bion ordainak eman zituen. Bat, ordain berdina emanez itzuli zuen:

Quien pretende sin razón Al más fuerte derribar, No consigue sino dar Coces contra el agujón. Sam 74	Akuluari ukabilkada eman nai diyonari, orixe gertatzen zayo ⁹⁷ . In 85
---	--

Bestea, esapide diferentea emanez itzuli zuen, gaitzespen-tonua areagotzeko:

El que tiene de vidrio su tejado, Esto logra de bueno Con tirar las pedradas al ajeno. Sam 195	Zoñi piztuak, nondik ote datorren ikusi beza ⁹⁸ . In 71
--	---

Konpentsazioa. Enumerazio bat kendu eta beste modu bateko bat eman zuen:

En los montes valles y collados, De animales poblados, Se introdujo la peste de tal modo... Sam 98	Abere artean izuñiya sortu zan. Gurdika iltzen omen ziran saldi, beor, asto, axeri, otso, artza, katamotz ta leoyak. In 72
--	--

Adibide honetan, objektuaren nolakotasuna geroago eman zuen:

Y la insensata dormía En una lima de acero. Sam 74	...limari koskaka ari zitzayon. (...) ¿ez al dakik altzairua bera txetzen diadala? In 85
---	---

Aldaketa morfosintaktikoa eta kategoria gramatikalen aldaketa. Zuzeneko solasera aldatu zuen maiz Intzagaraik, jatorrizkoan zehar estiloan dagoena:

La Águila se rió del desatino; La aconseja que siga su destino, Cazando torpemente con paciencia, Pues así lo dispuso la Providencia. Ella insiste en su antojo ciegamente... Sam 120	Apobelatzak asañe erantzun omen zion: —Baina ez al dek igañzen, zuntzuna alen zuntzuna, ori eziñeko gauza dekala? Jainkoak bakoitzari berea eman zio, ta ez au i egarako aukeratu. Ago ba, ire gauzetan, ta abil taka-taka
---	--

⁹⁷ Garaten: *Ostiko akuluaganako, idientzat gaxo.*

⁹⁸ Garate: *Zorri illa piztua, maiz gaitzua.*

	ta patxadan, batere estutu gabe. (...) —Ori dek ori erantzuna!... Ondo afo, zital ta erekoitza ago!... ¿Zef gaitz letorkikek, neri egan erakutsi-ta? In 77
--	---

Harridura esaldi gehiago ditugu euskal bertsoian:

“Yo decía, trabajo y como paja... Sam 58	—Ze afane! Nik lan egin, ta lastoa ematen zidatek... In 67
[Ø] Sam 192	—Bai, afane-etxe!... In 76

Animalien artean toka izan ohi da neutroa⁹⁹; Intzagaraik, aldiz, noka darabil tximeletari zuzentzeko (In 69-71). Baita saguzarraren eta erbinudearen arteko hizketan ere (In 75-77). Eta “Ólar azkaña” alegian oilarra azeriari zuzentzen zaionean ere bai.

Neologismoak gutxitan erabili zituen. Bakarrenetako bat: enda (In 76). Lexiko garbizalea, gutxitan ere bai: ixkiluak (In 73).

Lautzea. Inausi egin zuen zenbaitetan jatorrizkoa, alegiaren mamira joatearren. Sarrera-bertsoak kenduz, adibide honetan:

Aunque te haya elevado la fortuna Desde el polvo a los cuernos de la luna, Si hablas, Fabio, al humilde con desprecio Tanto como eres grande serás necio. ¡Qué! ¿Te irritas? ¿Te ofende mi lenguaje? “No se habla de ese modo a un personaje.” Pues haz cuenta, señor, que no me oíste, Y escucha a un Caracol. Vaya de chiste. Sam 193	[Ø] In 69
--	-----------

Lautzeko estrategiatzat har dezakegu, beharbada, parentesi artean hitz zailen edo gutxi erabilien gaztelaniazko itzulpena ematea, hala nola ‘mitxeleta (mariposa)’, ‘barakufkuíua (karakola)’...

Baita gaztelaniazko deskripzio aberatsak baztertzea ere. Esaterako:

Ojo al través, colmillo acicalado Fruncidas las narices y gruñendo. Sam 120	[Ø] In 78
--	-----------

⁹⁹ Cf. Intzagarairen “Txaberama ta apobelatza” alegia (1922: 77-78): toka darabilte bi piztiok beren artean hizketan.

Cf. Pepe Artolaren “Zerriya eta ollua” alegian. Oiloak zerriari galdera bat egin, eta zerriak oiloari diotso: “Bai, neriak [arto-aleak], ¿zergatik / galdetzen dek ori?”

Onomatopeiak. Noizik behin tartekatu egin zituen, jatorrizkoan halakorik ez egon arren: Ø/ taka, taka (Sam 120, In 77). Baita hitz hoskideak ere: Ø/zirika-mirika (Sam 99, In 74); Ø/Otx!... Motx!... (Sam 99, In 74).

Hitz-jokoak. Jatorrizkoak ez zuen hitz-joko bat erantsi zion Intzagaraik bere bertsioari:

Hablas, dijo Sultán, perfectamente... Sam 202	–Ederki ari aiz, Txuri –erantzun ziyon Gofik–. Erderki ari aiz txuriketan. In 78
---	--

Adibide honetan, errima-jokoak erabili zituen, prosa izanda ere:

[Ø] Sam 120	An, biyak asafatu ziran, ta gogor noski. Beti bezela, txaberamak bereak eta zortzi. In 78
-------------	---

Irakaspenen mezua. Honako estrategia hauek erabili zituen mezua berridazteko:

- Askotan jatorrizkoaren mezua ematen saiatu zen. Hauetan, berdin-berdina da mezua:

<i>Yo, pues a más de cuatro, Muy zorros en sus tretas, Por hablar a destiempo, Los vi perder la presa.</i> Sam 162	Maltzur asko, beren lanean trebe izanafen, abo ta itzak galtzen ditu. In 83
<i>Quien pretende sin razón Al más fuerte derribar, No consigue sino dar Coces contra el aguijón.</i> Sam 74	Akuñuari ukabilkada eman nai diyonari, orixe gertatzen zayo. In 85

Mezua berdin samarra da beste adibide honetan, baina eletsuago jokatu zuen euskal alegialariak, irakaspenera argitzearren. Kontuan hartzeko irakaspenera dela gaineratu zuen azken esaldian:

<i>Si en esto para el ocio y los regalos, Al trabajo me atengo y a los palos.</i> Sam 59	–I astoki, emendik aurrera ixo ta ixo! Makilka erabiltenean, ez abil gaizki. Aldameneko txefiya iltzera zeramatek, obetoegi bizi zalako. Ipui onek, galtzeko apurik ez du. In 68
--	--

Orain, berdina antzeko mezua, baina motzean:

<i>El que tiene de vidrio su tejado, Esto logra de bueno Con tirar las pedradas al ajeno.</i> Sam 195	Zofi piztuak, nondik ote datorren ikusi beza. In 71
<i>Bien se deja ver Que es pintar como querer, Y no fue león el pintor.</i> Sam 64	Pintatzea bat, izatea beste. In 86
<i>Así son los cobardes fanfarrones, Que se hacen en los puestos ventajosos Más valentones cuanto más medrosos.</i> Sam 94	Egia. Babes onean dagoen arkumetxoak ere zaunk egin oi du. In 82

- Beste batzuetan, berriz, zertxobait aldendu zen jatorrizkotik. Harroen aurka dihardu euskal bertsoiak; jatorrizkoak ez du hain esplizitu aipatzen halako jokaerarik:

<i>Para que así escarmiente Quien desprecia el consejo del prudente.</i> Sam 120	Afo izatea non nai txafa da, besteren etxean txafago. In 78
--	---

Ezberdina eta tokiz aldatua; hasieran baitago jatorrizkoan. Intzagaraik berea sortu zuen, alegiari amaiera emateko:

<i>Procure ser en todo lo posible, El que ha de reprimir, irreprimible.</i> Sam 201	Zakur batek, bestea aguro ezagutu oi du. In 84
---	--

Hau ere desbideratzen da jatorrizkotik. Izan ere, zilegi uzten du Samaniegoren irakaspenak amarruez baliatzea estutasunetik irteteko. Euskal bertsoian ez dago tokirik aldakorrenzat ezta iruzurgileentzat ere. Jende arteza balioesten da, ondorioz, modu moralistagoan:

<i>Aquí aprendió de Esopo La gente marinera, Murciélagos que fingen Pasaporte y bandera. No importa que haya pocos Ingleses comadres; Tal vez puede de un riesgo Sacarnos una treta.</i> Sam 193	Ondo jafiya dago ipui au. Gaur txuri ta bigar beltz azaltzen diranentzat. In 76
--	---

Adibide honetan, jatorrizkoan argiago adierazten da gizartearen moral bikoitza; euskal bertsoian, irakurleak inferitu behar du ipuineko gertaeretatik zein diren gaitzesgarri:

<i>Te juzgarán virtuoso, Si eres, aunque perverso, poderoso; Y aunque bueno, por malo detestable, Cuando te miran pobre y miserable. Esto hallará en la corte quien la vea Y aún en el mundo todo. ¡Pobre Astrea!</i> Sam 100	Amaika bider, gizartean gertatzen dana. In 75
---	---

Poesia berridazteko moduak. Alegiok prosaz ondu zituen eta, Intzagaraik ez zuen kontuan hartu jatorrizko testuaren forma. Bai, ordea, eduki semantikoa, oro har. Modu organikoa erabili zuen Samaniegoren testua itzultzeko.

Ondorioak

Jatorrizkoaren aldean, oso berdintsuak dira Intzagarairen alegiak hari narratiboari eta irakaspenen mezu moralei dagokienez. Ez hainbeste, ordea, xehetasunei dagokienez.

Euskal irakurle apala hartu zuen Intzagaraik jomuga. Izan ere, herri-hizkeraren arauen barruan berridatzi zuen Samaniegoren testua: testua lautuz, gertakizuna Euskal Herrian kokatzearen leku-izenak eta bestelako izenak egokituz, irakurleen kultura-unibertsoko edukiak tartekatuz, hizkuntza zuzena eta apaindurarik gabea erabiliz, jatorrizkoaren deskripzio joriak baztertuz, hitz-jokoak sortuz.

Nabarmentzekoa da alegiak ipuin-egiturara ekarri zituela: elkarrizketak tartekatuz, zuzeneko solasa aintzatetsiz, harridura-esaldiak erabiliz...

Jainkoaren aipamen laburrez zipriztindu zuen testua, jatorrizkoak halakorik ez erabili arren. Intzagarairen bokazioaren erakusgarri da hori.

VI.6.9. Jules Moulier “OXOBI” (1888-1958)

Ideologia

Garai hartako kultura-eragilearen zantzu eta ezaugarri guztiak erakutsi zituen Oxobik: *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileetariko bat izan zen, hizlari trebea mintzaldi eta predikuetan, eta idazlea, euskararen iraupena eta lehen hezkuntza lotu zituen idazlea. Izan ere, «Uztaritzeko Eskola» deitutakoaren beste apaiz idazleekin batera, gizarte zibilean aurkitzen ez ziren intelektualen funtzioa bete zuen Oxobik (Hiriart in Moulier, 2003: 9).

Hizkuntza-kezka izan zuen Oxobik, beharbada gaztetan debeku garaiak ezagutu zituelako euskararentzat. Xarritonek kontatzen digun gisan, “1903-1905 urte haietan beretan, hain zuzen, ikusi zuen bidarraitar gazteak, nola Frantziako gobernuaz jazartzen zitzaien euskaldunen mintzairari, Pabeko prefetak zigortzen zituenaz geroz Bidarraiko bi apaizak, eta beste franko, ez zitelako beren herrietako haurrei «katixima» euskararen orde frantsesez eman nahi” (1990: 7).

Oxobiren hizkuntza-kekaren adierazgarri dira *Alegiak* liburuko “Axular idazleari” eskaintzan dauden bertso hauek: “Lagunak ez lokhar: / Aditurik elkar, / Dugun Eskuara sar / Eder, jori, hazkar, / Orotan!! //” (1926: 9). Lehen idazle baxenabartarraren hitzak dakartza akordura: “Euskara, / habil mundu guzira”. Kezka

horren beste lekuko bat “Eskuara” poema adoretua¹⁰⁰ da, *Haur elhe haurrentzat* liburuko alegien artean agertzen dena.

Kultura-kezka ere izan zuen Oxobik. Euskal Herriko jendeak eta haien mintzamoldeak ederki asko ezagutu zituen. Alegietan agertu zituen batak eta besteak: inguruko herrietako eskualdunak, buhameak, kaskoinak. Gurasoen jatorriak (kanboarra aita, itsasuarra ama) eta aitaren lanbideak (guarda, leku-aldakuntza ugari izan zuena) zerikusia daukate ezagutza zabal horretan. Kaskoin piska bat ere entzun zuela esana du Xarritonek, aitaren lanbideko lagunaren ahotik (1990: 6).

Euskal Herriko mendebaldeko literaturaren ezagutza ere bazuen. Ainhoa Beolak ikertu duenez, neologismoak erabili zituen Hegoaldeko zenbait idazleren antzera, eta haren inguruko joeraren aurka. “Idazle ikasia eta landua zela” ondorioztatu zuen Beolak (in Moulier, 1992: XIII). Bat nator horrekin. Alegialariak, behintzat, ezagutzen zituen: Iturriagaren eragina, batez ere, azpimarragarria iruditu zait.

Poetika

Kezka horiek guztiak zituelako, ardura didaktikoa hartu zuen bidarraitarrak, alegiak eta bestelako poemak idaztean: euskara eta euskal kultura helarazi nahi izan zituen Oxobik molde herrikoietan. Horren lekuko ditugu, besteak beste, alegiak; bai eta, alegia ez direnetan, *Haur elhe haurrentzat* liburuko zenbait konposizio, herri-kulturaren ondarea oinarri harturik ondutakoak¹⁰¹. Hain zuzen, herri-kultura aintzat hartu zuelako da indartsua Oxobiren poemagintza.

Eta hori guztia haurrentzat: *Alegiak* liburuko hitzaurrean, desira bat agertu zuen bidarraitar idazleak: “Den bezala, liburutto hau onhartuko dautatet agian euskaldun haurrek”. “Eskualdun haurrentzat egina da”, adierazi zuen. Bai eta alegiok gustuko izan ezean, atsegin hartuko zutela haurrek “beha eta beha, P. Garmendia, Saratar adiskideak egin aphaindureri”. Argi adierazi zuen Oxobik, beraz, nor zerabilen gogoan alegiok

¹⁰⁰ Herri-lirikan bezala, *imposibilia* erabili zuen Oxobik maisuki: “Iratzea mertchikaz betehe jarriko, / Zezen beltza zazpi chahalez erdiko, / labettoa elhur churiz gorrituko, / Eskualdunek Eskuara dute galduko. // Ur gainean ezarri dute zubia, / Hartan erein ogiko hazi garbia, / Han jin arte irin ophilño churia, / Eskuarak ez, ez du galduko mihia. //” (1944: 20).

¹⁰¹ Hala nola “Bat eta bat!” eta “Petirisantsen kantua”, doinu ezagunak ezarri baitzizkien kanta zitezen; “Akherraren...”, aho-korapilo ezagun bat baliatuz idatzitako poema jostagarria; “Astoa eta Otsoa”, euskal kantutegiko pieza batean oinarritua; eta “Akhelarre” eta “Negutik udarat” poema estilizatuak.

idatzi zituenean. *Gure Herria* aldizkarian agerturiko alegien hartzailea nor zen, halaber, argi dago, “Haurren chokoa” zeritzan sailean argitaratu baitzituen.

Corpusa eta iturriak

Garaiko aldizkarietan hasi zen Oxobi alegiak argitaratzen, 1922tik aurrera. *Gure Herria*, *Escualduna* eta *Aintzina* aldizkarietan, hain zuzen. Kontuan hartu behar da Oxobik poema bera leku eta garai ezberdinetan argitaratu zuela, aldaketa batzuk eginda, hitzak aldatuz edo bertso osoak aldatuz nahiz ezabatuz, Gratien Ademak egin zuen antzera.

Aldizkarietan barreiatutako zenbait alegia jasota, *Alegiak* liburua argitaratu zuen, 1926an. Oso liburu landua da, umeei atsegina pizten dien horietakoa, Garmendiaren marrazkiez hornitua. Liburua Axular idazleari eskaini zion lehen poeman. Ondoren, 14 poema datoz, eta horietatik 13 dira alegia, “Etxea” izenburukoa ez baitzaio lotzen generoari. Liburu honi buruz, *Gure Herria* aldizkarian, aldizkariko arduradunek ohar bat idatzi zuten “Bi garratoinak” alegiaren ondoan (1926: 3. zka., 144): “Alegia hau bezalako hamalau badira, ahotik ezin utziak, Baionan agertuak, chez SORDES, Imprimeur, Quai Galuperie. BAYONNE. Oro potretekin, irriz leher egitekoak baitira hauk ere. Pollitagorik ez dugu nehun ikusi”. Alegietan ageri diren pertsonaiak, elkarrizketak eta umorea xede-hizkuntzan onargarriak direla erakusten du ohar horrek; kultura-gidoien barruan jardun zuela Oxobik, xede-kulturan onargarri ziren moldeen baitan aritu zela.

1944an, *Haur elhe haurrentzat* plazaratu zuen. 18 poema ditu, eta horietatik 11 alegiak dira.

Nik, orain arte legez, alegia bakoitzaren lehenengo agerraldia hartu dut azterketarako. Beraz, honako hauek jaso ditut: *Gure Herriako* 21 alegia (“Astoa eta Hiru Jabeak” baztertu dut oinarrian ez baitu nire azterketako iturririk), *Escualdunako* alegia bat, *Aintzinako* beste bat eta *Haur elhe haurrentzat* liburuko bost alegia, ordura arte argitaratu gabeak.

Iturriari buruzko arrasto txiki bat 1926ko *Alegiak* liburuko aitzinsolasean utzi zuen Oxobik: “Eskuaraz jauntzi ditut bertzek ametsturikako alegia batzu.” *Bertze* hori, duda barik, La Fontaine da. Horixe diosku Haritzelarrek: “La Fontaine frantses alegia

egilearen gisan kondatu ditu” (in Moulier, 1966: 12). Eta hala dela baieztatzen dut: La Fontaine da gehien-gehienen iturria. Salbuespen bakarra “Lehoina eta ziminoak” alegia da, ez baita Lafontainerena, Samaniegorena baizik. Harrigarria da Hegoaldeko alegialaria erabili izana; beharbada, gaia Iturriagari jaso zion eta ez Samaniegori. Hipotesi horren aldekoa naiz, besteak beste, Iturriagaren eragina ikusten dudalako “Hartza eta gaskoinak” alegiak dakarren irakaspenean ere.

Guztira, beraz, 26 alegia dira La Fontainerenak eta bat Samaniegorena:

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Jules Moulier “OXOBI”	<i>Gure Herria</i>	1922-1953	21 hn	26 Lf
	<i>Escualduna</i>	1926	1 hn	1 Sam
	<i>Aintzina</i>	1942	1 hn	
	<i>Haur elhe haurrentzat</i>	1944	5 hn	

MOULIER, Jules “OXOBI” (1922). “Belea eta acheria”, *Gure Herria*, 2. zka., 86. **Lf I-2**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1922). “Akerra eta acheria”, *Gure Herria*, 3. zka., 169-170. **Lf III-5**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1922). “Ttirritta eta chinhaurria”, *Gure Herria*, 10. zka., 589. **Lf I-1**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1923). “Igela... idia bezenbat nahiz!”, *Gure Herria*, 3. zka., 169. **Lf I-3**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1923). “Erbia eta apoharmatua”, *Gure Herria*, 8. zka., 497-499. **Lf VI-10**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1923). “Bi astoak”, *Gure Herria*, 12. zka., 733-734. **Lf II-10**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1924). “Bi zakurrak”, *Gure Herria*, 6. zka., 379-380. **Lf I-5**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1925). “Otso bat artzain”, *Gure Herria*, 2. zka., 109. **Lf III-3**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1925). “Urtsoa eta chinhaurria”, *Gure Herria*, 3. zka., 170-173. **Lf II-12**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1925). “Mandoaren espantuak”, *Gure Herria*, 4. zka., 220. **Lf VI-7**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1926). “Bi garratoinak”, *Gure Herria*, 3. zka., 143. **Lf I-9**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1926). “Chochoa oilachko”, *Escualduna*, 1393. zka., 1. **Lf IV-9**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1935). “Acheria eta oilarra”, *Gure Herria*, 6. zka., 491-492. **Lf II-15**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1936). “Saguen biltzarrea”, *Gure Herria*, 1. zka., 6-7. **Lf II-2**

MOULIER, Jules “OXOBI” (1938). “Artzainaren arraintza”, *Gure Herria*, 4. zka., 289-290. **Lf IV-2**

- MOULIER, Jules "OXOBI" (1938). "Ulia eta chinhaurria", *Gure Herria*, 4. zka., 290-291. **Lf IV-3**
- MOULIER, Jules "OXOBI" (1939). "Sugea eta Ganich", *Gure Herria*, 1. zka., 25. **Lf VI-13**
- MOULIER, Jules "OXOBI" (1942). "Amiamokoren balentria", *Aintzina*, 10-12. zka., 56-58. **Lf VII-4**
- MOULIER, Jules "OXOBI" (1944). *Haur elhe haurrentzat*. Baiona: Aintzina.
 ["Astoa loredun" **Lf V-14**. "Khuieri Khuiakeri" **Lf IX-4**. "Hartza eta bi kaskoinak" **Lf V-20**. "Andreno baten othoitza" **Lf I-16**. "Lehoina eta ziminoak" **Sam I-12**.]
- MOULIER, Jules "OXOBI" (1950). "Erbia eta igelak", *Gure Herria*, 1. zka., 34. **Lf II-14**
- MOULIER, Jules "OXOBI" (1950). "Azeria, otsoa eta mandoa", *Gure Herria*, 2. zka., 93-95. **Lf XII-17**
- MOULIER, Jules "OXOBI" (1950). "Azeriak auzia bere", *Gure Herria*, 3. zka., 165-167. **Lf VIII-3**
- MOULIER, Jules "OXOBI" (1953). "Orkhatza bere irudiarekin", *Gure Herria*, 1. zka., 37. **Lf VI-9**

Kritika

Bat datoz iritzi emaile guztiak Oxobiren alegiagintza epaitzeko orduan: alegia egile bikaina da, guztietan bikainena. Iritzi hori zuen Onaindiak (1954: 1.115): "Euskal-idazle jator bikain baten afean gagoz".

Haritzelarri, bestalde, Oxobiren olerkietatik alegiak bereziki zitzaizkion gustatzen (in Moulier, 1966: 11). Bai eta proposatu ere, zehar lerroak lantzeko: "La Fontainen alegiak ikasten dituztelarik gure hurrek eskoletan, ez ditzazkete ikas Oxobiren alegiak? Horiek dira gure Eskual kulturaren ontasunak".

Villasantek, berriz, hizkuntza hartu zuen hizpide (1979: 315): "El vascuence de "Oxobi" es bien trabajado y nervudo, de sintaxis popular, dicción corta, contraída. A veces fácil y suave, a ratos árido y difícil...".

Mitxelenaren ustean (1988: 150), Oxobi "ha sido en sus *Alegiak* el mejor fabulista en lengua vasca. Por su vivacidad, por la maravillosa flexibilidad y poder expresivo del lenguaje, constituyen una verdadera creación en un género que casi por definición es tan poco original".

Xarritonek ildo beretik jo zuen (1990: 10): "gure ustez guztiak gainditu zituen Oxobik". *Alegiak* liburuaren zabalkundeaz eta harreraz ari zela: "berehala Euskal Herri

osora zabaldu zuen argitalpen txukun horrek egilearen omena”. Arrazoiak eman zituen Xarritonek bere iritzia aldezteko: “Zinez harrigarria da hitz neurtuaren betea, hotsen musika, treituen zehatza, ipuinak buruan buru daraman urratsaren zuzena”.

Orobat, Callejak (1994: 97-98): “Oxobiren *Haur elhe haurrentzat* ume euskaldunentzat libururik onenetakotzat hartu behar da”. Callejak kontu interesgarriak gaineratu zituen liburu horren harreraz eta erabileraz. Esaterako, hogeita hamar urte geroago ere, Iparraldeko ikastolen elkarteak, Seaskak, gehien erabili zuen irakurliburua izan zela. Eta ahozko literatura-tradizioa igaro zirela bidarraitarraren zenbait olerki (ibidem: 94): “Daniel Landart antzerkigileak esan zigun, umetan guraso eta aitita-amama askok olerkiok esan eta esan egiten zituztela, harik eta umeek buruz ikasi arte”. Baina, zoritxarrez, Hegoaldean ez zuela zabalkunde handirik izan, euskalkia traba zelako Hegoaldeko euskaldunentzat (ib.).

Etxaniz Erlek Mitxelenaren iritzia berretsi zuen: “Euskal alegiaririk onena, Oxobi” atalburuaren pean ekin zion bidarraitarraren obra iruzkintzeari. Hezkuntzaren arlora bideratu zen Etxanizen jarduna. *Alegiak* liburuaz adierazi zuen alegien erabilera didaktikoa, moralizatzailea, oso handia izan dela eta testuak irakaskuntzarako daukala balio handiagoa, atseginerako edo plazererako baino (1997: 179-180). *Haur elhe haurrentzat* liburuaz, berriz, zera esan zuen:

[...] euskara horrek zailtzen du haurren irakurketa zenbaitetan; agian horixe litzateke liburu horri lepora dakioken desorekarik handiena, haurrentzat izatea edukiz, baina ez formaz. Hala ere, euskarazko produkzioaren barnean kalitate handiko testua dugu, didaktismoaren eta estetikaren arteko borroka horretan, Oxobik azken hau zaindu baitzuen (ibidem: 224).

Azkenik, olerki hautatuen edizioa atondu zuenean, Hiriartek Oxobiren kezka didaktikoa hartu zuen hizpide (in Moulier, 2003: 9): “Oxobik puntaraino eramane du bere ardura didaktikoa hainbat alegia eta parabola idatziaz”. Uztaritzeko Eskolako kezka bikoitzaren oinarria da ardura hori; izan ere, Uztaritzeko idazle haiek “gerla osteko ideologia nahasmenaren ondorioz kristau ideologia finkatu nahi dute batetik eta euskal zaletasuna iratzarri bestetik” (ibidem: 8).

Zabalkundea

1966an, Haritxelarrek Oxobiren lanak bildu zituen, *Oxobiren lan orhoitgarri zombait* liburuan. Beste lan batzuen artean, *Alegiak* eta *Haur elhe haurrentzat* liburuetakoa alegiak agertu ziren argitalpen horretan.

1979an, berriz argitaratu zen *Alegiak* liburua, Ramuntcho Partarrieuren marrazkiak lagun.

1992an, edizio kritiko bat prestatu zuen Ainhoa Beolak EEErentzat, besteak beste, Oxobiren poema eta alegiekin. Klasiko bat berreskuratu zen edizio horren bidez publiko zabal batentzat¹⁰².

Antton Olariagak (1992: 37-38) *Alukiss* bestiariorako Oxobiren “Erbia eta apoharmatua” aukeratu zuen.

Koldo Izagirrek eta Joseba Tapiak *Apoaren edertasuna* (1998) CD-liburuan Oxobiren “Igela idiari beha” alegia baliatu zuten.

Azkenik, 2003an, Hiria argitaletxeak Oxobiren olerki hautatuak, tartean alegia batzuk, plazaratu zituen, Hiriarten hitzaurrearekin.

Testu mailako azterketa

Objektuak. Orokorretik zehatzera, kolore-kontrastea eta indar handiko irudia lortzearen:

Maître Corbeau, sur un arbre perché, Tenait en son bec un fromage. Lf 32	Zurchuri baten punttan, punttaren punttan, gure belea zagon nola gasna jan! Mou <i>Bel</i>
---	---

Adibide honetan ere jo zuen Oxobik orokorretik zehatzera:

Gageons, dit celle-ci, que vous n’atteindrez point Si tôt que mi ce but. Si tôt ? Êtes-vous sage ? Lf 222	—Jauna, erranean nago: Banize’a zu bezenbat Heltzeko gaintto hartarat. Mou <i>Erbia eta apoharmatua</i>
---	--

Bestetan ez dago ageriko arrazoirik objektu-aldaketa justifikatzeko:

¹⁰² Alegiei gagozkiela, hala ere, zuzenkizun bat aurkitu diot edizioari: “Alegiak” atalburupean dauden zenbait poema ez dira alegiak.

L'un d'éponges chargé marchait comme un courrier Lf 83	Mattinek zama bat lasto Bazeraman Lorietan:... Mou <i>Bi astoak</i>
---	---

Sinesmenak. Jainkoa da dohainen emaila:

Si le Ciel t'eût, dit-il, donné par excellence Autant de jugement que de barbe au menton... Lf 114	Jainkoak balako egin Aberats nola bizarra Mou <i>Ake</i>
---	---

Eta aginpidea du naturako gertakarietan:

Quand la bise fut venue. Lf 31	Jainko jaunak lurrerat Izotz hormak igorri... Mou <i>Tti</i>
--------------------------------	---

Jatorrizkoan inolako erreferenterik ez egon arren, Jainkoa ageri da berridazketan:

[Ø] Lf 71	Jaun Goikoak berak daki Mou <i>Sag</i>
-----------	--

Lanaren balioa azpimarratzen da, eta familia lanaren inguruan biltzea. Jatorrizkoan behin ere ez da esaten txindurria langilea denik. Aitzitik, haren hutsak nabarmendu zituen La Fontainek. Oxobik, baina, ezabatu egin zituen La Fontainereneko txindurriaren makurrak, eta lanaren onurak nabarmendu:

La Fourmi n'est pas prêteuse, C'est là son moindre défaut. Lf 31	Gor dago Chinhaurri. Lasterka, tarrapatan: Aitamek artoa, Haurñoek ogia, Mutilek lastoa, Neskatchek garia, Bota denak baltzan, Janen gero baltsan! Tzirri, tzirri, tzirritan, Hegaldunak jostetan, Chinhaurriak lanetan! Mou <i>Tti</i>
---	---

Sexua, leungarriz:

Le Galand alla chercher femme, Pendant tout le sabbat qu'il fit avec sa dame,... Lf 71	Otsail bibitan gatuak,... Mou <i>Sag</i>
---	--

Aitakeriaz eta kontserbadurismoz jardun zuen Oxobik neskatilen portaerak nolakoa behar zuen esatean. Jatorrizkoak, gainera, ez dakar halakorik, adibide honetan:

Il est assez de Geais à deux pieds comme lui, Et que l'on nomme plagiaires. Je m'en tais, et ne veux leur causer nul ennui: Ce ne sont pas là mes affaires. Lf 152	Nechkatoko menditarra, Hirirat, othoi, ez lerra. Mou <i>Cho</i>
---	--

Rolen banaketa zehaztu zuen, jatorrizkoan halakorik ez den arren: etxeko jauna, hortik zehar; etxekoandrea, umeekin:

Le Héron au long bec emmanché d'un long cou. Il côtoyait une rivière. Lf 255	Hots, Amiamoko jauna, Chitan utzirik laguna, Ur bazterrez bazabilan Bere bi makhilekilan. Mou <i>Ami</i>
---	---

Ohiturak. Batzuetan Euskal Herriko zenbait ohitura eta jarduera txertatu zituen konposizioei euskaltasuna ematearren. Esaterako, kanturako joera euskaldunen artean:

[Ø] Lf 84	Ordukotz gure Petan, Biderat iganikan, Hasia zen kopletan... Mou <i>Bi astoak</i>
-----------	---

Baita uso-ehiza ere: Etxalar, Urdazubi eta inguruotako udazkeneko uso-pasa eta ehiza-garai hori dakarzkigu “Urtsoa eta Chinaurria” alegian Oxobik:

L'autre exemple est tiré d'Animaux plus petits. Le long d'un clair ruisseau buvait une Colombe,... Lf 85	Urri ondar haizearen hauskoaren Beroa: Andre zoro mokokari, haur ergelen gogoa; Bainan ere pago, gaztain, haitz ederren Hostoa Ordudanik, heriok aurkituren Da joa! Hichtu luze saminetan horra nun den Hegoa... Eta, nekez, begizatuz mendi heien Lepoa, Urtsoño bat, -beldur dela sarearen- Badoa, Ur hotzketa, egarriak zeren duen Ithoa! Hur nunbait: Ainho ez bada, Urdazubi... Mou <i>Urt</i>
--	--

Zenbait figura eta pertsonaia berezi ekarri zituen alegietara. Umorea, kolorea, ziria eta irria helburu. Esaterako, buhameak maiz agertzen dira:

Le demeurant des Rats tint chapitre en un coin Sur la nécessité présente. Des l'abord leur Doyen, personne fort prudente, Opina qu'il fallait... Lf 71	Predikari: Toño Chahar Eta Geazane Chingar: Bat arra, bertzea eme, Biak erotik buhame. Mou <i>Sag</i>
---	--

Baita kaskoinak ere:

Deux Compagnons pressés d'argent... Lf 203	Urtharril mina zela, bi kaskoin ihizin, Elhurrez elhur, nekez, mendian zoazin. Mou <i>Heh 26</i>
--	---

Halaber, amerikano euskaldunaren figura txertatu zuen umorez eta ziriz: dirutu egin da hura; ez, hargatik, jakitun bihurtu:

Un villageois... Lf 353	Petan Larrubeltz, etcheko jauna, Ameriketan luzaz egona, (Ikusiaren ikasia ez) Badabila hor, landa bazterrez. Mou <i>Heh 11</i>
-------------------------	--

Eta jendarmea, metonimiaz, janzkeraren ezaugarri bat aipatuz:

[Ø] Lf 139	Urean zelarik, Ustegabetarik, Gizon ez bada, jaun, Hor jin kachketadun. Mou <i>Art</i>
------------	---

Pertsonaiok sartzearekin batera, haien mintzamoldeak ere tartekatu zituen. Elkarrizketa honetan, esaterako, kaskoinen mintzamoldea¹⁰³ eta euskara nahastu zituen. Emaiza oso bizia, jostaria eta irrigarria:

[Ø] Lf 42	<p><i>Aujame, Biribil:</i> Pot eman, musu bil... Buhamia erdaraz, Eskualduna eskuaraz: –Bunjur, –Agur. –Ke boz bin? –Hirekin? –Nei paz ün gat! –Etzakiat!...? –Ni kan tapauk, –Ona diauk... –E tustem, –Ba omen, –De ke grata, –De ke harta, –Salbu hi'ta, ..Kaka meta!!! –Ke boz bin? –Bai berdin! –Dun, bam zen, –Hots, goazen... <i>Mou Bi garratoinak</i></p>
-----------	--

Halaber, amerikano euskaldunarena, hura irrigarri uzteko:

[Ø] Lf 353	<p>–Eso no ba bien, ombre, karako, Karkula pa bon –eta holako. Españolari nahas frantsesa, Bien lotzeko, eskuara saltsa; Urhea dir dir ahokoetan, Yo se, yo soi-ka mintzo da Petan. <i>Mou Heh 11</i></p>
À quoi songeait, dit-il, l'Auteur de tout cela ? Il a bien mal placé cette Citrouille-là :... Lf 353	<p>–Ke barbarida, khuia gaizoak, Zuen egile okher, zozoak Nola zaituzte hoin apha! utzi, Bare zikhinen... (perdon)... kakuntzi. <i>Mou Heh 11</i></p>

Gaztelaniazko hitzak josi zizkion protagonistaren jardunari: *eso no ba bien, hombre, ke barbarida*¹⁰⁴, *perdon*...

¹⁰³ Cf. Miranderen “Kama-goli” poema (1962: 17). Uste izatekoa da Mirandek Oxobiren libertimendu literarioak ezagutuko zituela.

¹⁰⁴ Cf. Bernardo Atxagaren “Orduan” poema, 1978ko bertsioan: “Astelehen edo astearte batetan gogoia higan nuela / nire sexoan arkitzen dun Bagdag / nire zerebroan hazten ditun Canadako basoak / idatzi ninan gauzez / ...”. Geroago, 1990ean, honela: “Astelehen edo astearte batetan, gogoia higan nuela, / Nire seksoan aurkitzen dun, *qué barbaridad, Bagdag*, / idatzi ninan gauzez, / ...”. Batetik bestera, Oxobi irakurri izanaren eragina, beharbada.

Adibide gehiago topa daitezke Atxagaren poemagintzan, Oxobiren eragin estetikoaren dutenak. Esaterako, Oxobik “Akhelarre” poeman: “Armiarmo, / Kakamarlo, / Apho, bare, sathor, suge / Sagarroi, pitots, basurde; / Arrano, sai, miru, bele.../ Sorgin tzarrak ez loale” (1944: 7). Atxagak, “Trikuarena” poeman: “...Amaitu da negua, / Ni trikua naiz, Bi sapelaits gora dabilta hegaletan; / Barraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel, / Zein putzu edo zulotan izkututzen zarete? / Hor dago erreka. Hau da nire erresuma, Goseak nago” (1990: 6).

Kontzeptuak. Artasuna eta emetasuna egokitu zizkien Oxobik animaliei: idia, ar; igela, eme. Toka-nokaren erabileran du ageriko:

[Ø] Lf 33	Igelak idiari: Nola duk tripa hori? Idiak igelari: So' gizan bada niri! Mou <i>Ige</i>
-----------	---

Beste adibide honetan frantsesezko *Doyen* pertsonaia ezabatu eta buhame arraren eta emearen figurak tartekatu zituen:

Des l'abord leur <i>Doyen</i> , personne fort prudente, Opina qu'il fallait... Lf 71	Predikari: Toño Chahar Eta Geazane Chingar: Bat arra, bertzea eme, Biak errotik buhame. Mou <i>Sag</i>
--	---

Euskal Herrian ehiza errotua dagoenez gero, *ehiztari* nahiago izan zuen *kaiku*, *kirten*, *artaburu* edo gisako zerbaite bano *croquant* itzultzeko:

Passe un certain <i>Croquant</i> qui marchait les pieds nus. Lf 86	Ba bainan <i>ihiztaria</i> ... Mou <i>Urt</i>
--	---

Kontzeptu eskatologikoak tartekatu zituen batzuetan, haurrei barre eginaraztea eta komikotasuna zituzkeela helburu, beharbada:

[Ø] Lf 83	Buztana bihurtuz gora, Turrut eta zart! ahora Egin dako <i>bertze hura</i> ! Mou <i>Bi astoak</i>
Trouvent l'Ours qui s'avance, et vient vers eux au trot. Voilà mes Gens frappés comme d'un coup de foudre. Lf 203	Urtharril mina zela, <i>bi kaskoin</i> ihizin, Elhurrez elhur, nekez, mendian zoazin; Bepetan eta hurbil hartz bat zankoten jin. Ihiztariek tiro-ka...galtzetan egin! Mou <i>Heh</i> 26

Izen bereziak. Halako naturalizazio-asmo orokor bat erakutsi zuen Oxobik, izenei dagokienez, alegia guzti-guztietan:

- Animalien izen bereziak: Izen berezia ezarri zien askotan animalien izen arruntei, euskal deitura bat, gehienetan: Deux Coursiers/Jaun Mattin eta Jaun Petan (Lf 83, Mou *Bi astoak*); Le Rat de ville/*Aujame* garratoina, Gaskoina (Lf 42, Mou *Bi garratoinak*); Le Rat des champs/Garratoin eskualduna *Biribil* (Lf 42, Mou *Bi garratoinak*). Batzuetan, jentilizioa eman zien: Un Baudet/Hiriburuiar asto gazte bat (Lf 196, Mou *Heh* 9), umorea erantsi eta ziria sartzeko.
- Toki-izenak: Askotan *bataiatu* zituen jatorrizkoan ageri diren toki-erreferente arruntak, euskal kolorea emateko: ville/Baiona (Lf 42, Mou *Bi garratoinak*); champs/Errobi (Lf 42, Mou *Bi garratoinak*); Ø/Chopolo'ko erreka (Lf 42, Mou *Bi garratoinak*); un puits/Chilo-Gaitzeko erreka (Lf 114, Mou *Ake*); gué d'une rivière/Ibarbide'ko erreka (Lf 83, Mou *Bi astoak*); Ø/Ainho ez bada, Urdazubi

- (Lf 85, Mou *Urt*); Ø/ Etchalar (Lf 85, Mou *Urt*); Ø/Janik Etchebesten oloa (Lf 219, Mou *Man*); Ø/Donapaleu (Lf 219, Mou *Man*)...
- Pertsona-izenak, berdin: on le mit au moulin/Pelo'ren eiheran muthil sartu (Lf 219, Mou *Man*); Un villageois/Petan Larrubeltz (Lf 353, Mou *Heh* 11)...
 - Mitoak, pertsonaia historikoak, obra klasikoetako pertsonaiak eta beste, ordainik gabe utzi zituen, oro har: un voisin d'Amphitrite/ Ø (Lf 139, Mou *Art*); Coridon ou Tircis/Ø (Lf 139, Mou *Art*); Jupiter/Ø (Lf 141, Mou *Uli*); Phebus/Ø (Lf 142, Mou *Uli*); Ésope/Ø (Lf 227, Mou *Sug*); le Rat du bon Horace/ Ø (Lf 255, Mou *Ami*). Edota, bestela, erreferente arrunta eman zuen: l'Oiseau de Venus/Urtsoa (Lf 86, Mou *Urt*).
 - Titulua eta tratamendua. Egokitu zituen halakoak: Maître Corbeau/gure belea (Lf 32, Mou *Bel*)

Paremiak. Kontu gutxi egin zien Oxobik frantses paremiei. Joera nagusia du ez itzultzea: jatorrizko alegietan agertzen diren hamaika esapideetatik hiru baino ez zituen itzuli. Modu librean eman zituen hirurak. Hona horietako bat:

...fi du plaisir Que la crainte peut corrompre. Lf 43	Banoa Uztaritze'rat, Chopolo'ren laguntzerat! Mou <i>Bi garratoinak</i>
--	--

Dena dela, beste biak Oxobik euskal paremia bat oinarri eraiki zituen, euskal paremiatzat har zitezten¹⁰⁵:

La Mer promet monts et merveilles ; Lf 140	Arrainkia behar ? Urean sar, Uretik ar ! Mou <i>Art</i>
Rien ne sert de courir ; il faut partir à point. Lf 222	Geroa dela geroa Buru arinen leloa. Mou <i>Erbia</i>

Literatura-alusioak. Ahozko literaturako haur-olerkien hitzak erabili zituen. Kasu honetan kantuaren hitzak apur bat aldatuz, ezezka jarriak baitaude:

Gageons, dit celle-ci, que vous n'atteindrez point Si tôt que moi ce but. Si tôt ? Êtes-vous sage ? Lf 222	—Zu lehen, ni aintzinago... Hots, arri, arri mandoko. Bihar ez Iruñerako. Mou <i>Erbia eta apoharmatua</i>
--	--

Baita kantagintza tradizionalakoak ere: bi bertso-lerro hauek *Baratzeko pikoak* kantu tradizionaletik hartu eta moldatu zituen¹⁰⁶:

¹⁰⁵ Euskal esapide hauen usaina dute Oxobik sortutakoek, hurrenez hurren: *Jan nahi baduk loina, sar ezak urean oina; Geroa, alferraren leloa.* (Iturria: Gotzon Garate, *Atsotitzak*).

¹⁰⁶ Cf. Ansorenaren *Euskal kantak*: “Baratzeko pikoak / hiru hosto ditu / dantzan dabilen horrek / oinak arin ditu. / Oinak arin-arinak, burua arinago, dantzan hobeki daki / artajorran baino”. Aita Donostiak bildu zuen 1934an, Amaiurren.

[Ø] Lf 31	Oinak arin arin eta buruz arinago, Mari-mutil goseak hil, negua jin deno. Mou <i>Tti</i>
-----------	---

Hauetan euskal kantu ezagun baten bertso-lerro bat tartekatu zuen:

L'un d'éponges chargé marchait comme un courrier ; Lf 83	Mattinek zama bat lasto Bazeraman Lorietan: Traka-traka, tra ka-tra ka <i>Nor gira gu'ka</i> . Mou <i>Bi astoak</i>
--	---

Aldaketa morfosintaktikoak. Zuzeneko solasera aldatu zuen, zenbaitetan, jarduna. “Bi astoak” alegia da horren lekuko. Lagunarteko elkarrizketa bizian jarri zituen astoak Oxobik, hika.

[Ø] Lf 83	Trikitrin, trak, trikin, «Errak, gaicho, Mattin?» Trikutrin truk, trikun, «Othoi, nezak lagun?»
-----------	--

Narratariora erabili zuen zenbaitetan gure berridazleak. Haurrengana zuzentzen dela ematen du:

[Ø] Lf 83	Orai behar dautzuet aiphatu Azkenean zer zen hor gerthatu . Mou <i>Bi astoak</i>
-----------	---

Eletsutasunez jardun zuen Oxobik: pertsonaiak aurkeztu zituen, ekintza baino lehen, alegien hasieran. Tipografikoki ere nabarmendu zituen batzuetan, beste ahapaldietatik bereiziz. Batzuetan, luze jardun zuen:

Capitain Renard allait de compagnie Avec son ami Bouc des plus haut encornés. Lf 114	Akerra duk, akerra dun, Oi, aker adar makurra! Bizkarra dik, bizkarra din Burdina bezen gogorra! Bizkar gainean hezurra, Kokotsa pean bizarra... Bizarra bai, buztana nun? Oi, aker buztan mokorra! Zentzua dik, zentzua din Buztana bezen laburra! Mou <i>Ake</i>
--	---

Bestetan, labur:

Une Grenouille vit un Boeuf Qui lui sembla de belle taille. Lf 33	Igela, Ergela, Tripa Chabal chabala, Putzutik zagon, Idi bati beha. Idia Lodia, Tripa jori joria, Janik bazka on, Etzen beldur meha. Mou <i>Ige</i>
--	--

Baina beti luzeago jatorrizkoa baino:

La Lièvre et la Tortue en sont un témoignage. Lf 222	Erbitto bat: Beharri chut, buztan labur, Ausik, itzul, beha, jauzi... bethi beldur. Mou <i>Erbia eta aphoarmatua</i>
---	--

Lautzea. Baztertu zituen, oro har, garaiko hurrei arrotz gerta zekizkiekeen kontzeptuak, hitzak, irudiak, sinbolismoak eta metaforak. Esaterako: Phènix/Ø (Lf 32, Mou *Bel*); tapis de Turquie/Ø (Lf 42, Mou *Bi garratoinak*); Empereur romain/Ø (Lf 83, Mou *Bi astoak*); gaillards Pèlerins/ Ø (Lf 83, Mou *Bi astoak*); obole/Ø (Lf 86, Mou *Urt*); train de Sénateur/Ø (Lf 222, Mou *Erbia eta apoharmatua*); calendes/Ø (Lf 222, Mou *Erbia eta apoharmatua*)...

Morfemak errepikatzea. Aliterazioa, erritmoa eta adjektibazioa, jatorrizkoan baino aberatsago, haur hizkerara hurbiltzea helburu. Ondoko adibidean, *R* ahostuneko aliterazioa euskarazko hitz-korapilo batekin lotua dago¹⁰⁷:

Capitain Renard allait de compagnie Avec son ami Bouc des plus haut encornés. Lf 114	Akerra duk, akerra dun, Oi, aker adar makurra! Bizkarra dik, bizkarra din Burdina bezen gogorra! Bizkar gainean hezurra, Kokotsa pean bizarra... Bizarra bai, buztana nun? Oi, aker buztan mokorra! Zentzua dik, zentzua din Buztana bezen laburra! Mou <i>Ake</i>
---	---

Aliterazioa ekintzei adierazkortasuna ematearren: *i* bokala erbiaren arintasuna markatzeko, eta *o* bokala apoarmatuaren astuntasuna adierazteko. Jatorrizkoan, zenbait metafora eta esapide erabili zituen La Fontainek animalion izaera adierazteko:

...il laisse la Tortue Aller son train de Sénateur. (...) [Le Lièvre] partit comme un trait... Lf 222-223	Oinak arin, Kaskoz berdin, Erbi tcharra irriz hasi; Gogor, konkor, Bainan ez gor, Aphoarmatuak erasi. Mou <i>Erbia eta aphoarmatua</i>
--	---

Hitz-jokoak, paronomasiak eta paralelismoak, lirika herrikoian bezala. Erritmoa biziagotzeko eta adierazkortasuna indartzeko:

La Cigale,... Lf 31	Ulitchak firrindan, Uliak farrandan, Erleak burrumban, Listorak barrandan, Uli beltzak baltsan, Non ez diren... saltsan! Mou <i>Tti</i>
---------------------	--

¹⁰⁷ Akerrak adarrak okerrak ditu.

Quand sur l'eau se penchant une Fourmis y tombe; Lf 85	Bethi bilha, bethi kurri, Urerat zen erori. Mou Urt
[Ø] Lf 85	Gure urtsoa jautsi. –galtzen bada gal!– Hor, edateko gal, gal, gal, Duelakoan ahal. Mou Urt
[Ø] Lf 85	Urhats bat eta urhats bi Sagar ala marrubi. Mou Urt
[Ø] Lf 85	Hegal bat eta bi hegal, Oraintchet arras apha. Mou Urt
[Ø] Lf 86	Hurup eta josta, Itzul eta kurri. Mou Urt
[Ø] Lf 152	—Chichtulari, michtulari... Mou Cho
[Ø] Lf 219	Bainan, Mainan, Phereka, Mereka,... Mou Man
[Ø] Lf 255	Eta vrist! Zerk egin du vrist! Zilhar izpi, zilhar chimist? Mou Ami

Onomatopeien alorrean ere guztiz aberatsa da Oxobi. Efektu-mailakoa da Oxobiren helburua: irakurleei zirrara estetikoa eragitea, hartzaileak gonbidatzea hizkuntzarekin josta daitezen; baita bitarteko mnemoteknikoak ematea eta erritmoa biziagotzea ere. Alegia guztietan dugu adibideren bat, jatorrizkoak halakorik ez duen arren. Hona batzuk: “Acheriak ttapattan / tta pa tta pattan, / berea ez du hetsi... / gasna iretsi!” (Mou *Bel*), “Hurup, hurup, ezin edan, / akerra eri / Pal, pal, pal, pal, tta’pa tta pan... / sendo acheri!” (Mou *Ake*), “Ttiritta chirrikari: / Tzirri, tzirri, kitzirri, / Mari-Orratzari...” (Mou *Tti*), “Karrun kurren marmarrankak, / Marrun murren Karkarrankak” (Mou *Ige*), “Trikitrikin trikutrikun” (Mou *Bi astoak*), “Pluf, plaf, eta pumpalapan!”, “Tü, tü, tui, tui, tri hi hi [zozoak]”, eta abar.

Irakaspenen mezuak aldatu egin zituen, oro har.

- Irakaspena kentzea, jatorrizko alegiaren osagai narratiboa askietsita. Horixe du prozedurarik ohikoena Oxobik:

La chétive Pécore S’enfla si bien qu’elle creva. Le monde est plein de gens qui ne sont pas plus sages : Tout bourgeois veut bâtir comme les grands seigneurs, Tout petit prince a des ambassadeurs; Tout marquis veut avoir des pages. Lf 33	Ba, bainan... ezinbertzea: Urratu zankon hertzea! [Ø] Mou <i>Ige</i>
--	--

Beste alegia batzuetan ere hala: Mou *Ake*; Mou *Bi astoak* Mou *Man*; Mou *Bi garratoinak*; Mou *Ach*; Mou *Sag*; Mou *Ami*; Mou *Heh* 9; Mou *Heh* 11...

Horietan guztietan osagai narratiboa lehenetsi zuen, eta ez irakaspena. Alegia ipuinen antzera bukatu zuen, ildo narratiboa biribilduz. Adibide bat “Astoa

loredun” alegia dugu: joan-etorri bihurtzen du Oxobik La Fontaineren astoaren joana.

Beste adibide bat: “Le Gland et la Citrouille”-ko irakaspena baztertu egin zuen, nahiz eta ondo zetorkion helburu ebanjelikoetarako: “Dieu fait bien ce qu’il fait”/Ø (Lf 353, Mou Heh 11). Nahiago izan zuen Oxobik, hala ere, ildo narratiboa eta trama aberastu.

- Irakaspena desbideratzea. Plagiatzaileez dihardu La Fontainek; Oxobik, aldiz, garaiko neskatala baserritarrek zer jokabide hartu behar zuten izan zuen hizpide:

Il est assez de Geais à deux pieds comme lui, Et que l’on nomme <u>plagiaires</u> . Je m’en tais, et ne veux leur causer nul ennui: Ce ne sont pas là mes affaires. Lf 152	Nechkatoko menditarra, Hirirat, othoi, ez lerra. Mou <i>Cho</i>
---	--

Beste adibide honetan, adiskidetasuna hartu zuen Oxobik irakaspeneko gai; bai eta, ideia indartzeko, haltza eta mizpiraren irudi adierazkorra ere. La Fontainek, berriz, dio ez saltzeko ez daukazunik. Litekeena da Oxobik irakaspen hori Iturriagarenetik¹⁰⁸ maileguan hartu izana:

Il m’a dit qu’il ne faut jamais Vendre la peau de l’Ours qu’on ne l’ait mis par <u>terre</u> . Lf 204	-Huna zer dautan erran hartzak beharrira: «Gizon, adiskidetan bi mota badira, Makhil geitzat haltzari nagusi mizpira, Beldurti tchar batekin ez jin ihizira.» Mou <i>Heh26</i>
---	---

Kutsu morala areagotu zuen irakaspen honetan. Beldurraren pedagogia agerikoa da. Oxobik txirritaren jokabidea gaitzetsi zuen, eta ‘mari-mutil’ deitu. Jatorrizkoan bestela dira gauzak: La Fontainek ez du txirritaren jokabidea gaitzesten. Nabarmentzekoa da, bestalde, *Ikasbidetzat* atalburua:

[Ø] Lf 31	<i>Ikasbidetzat</i> Oinak arin arin eta buruz arinago, Mari-mutil goseak hil, negua jin deno. Mou <i>Tti</i>
-----------	--

Beste irakaspen honetan, mesfidantza eta kutsu arrazista areagotu zituen arrotzez, jatorrizkoaren *tout inconnu* generikoaren ordeztu *arrotz maketoak* esapidea emanez. Garaiko aranismoa jaso zuen, eta, ondorioz, haren kutsu gaitzeslea:

Cet animal vous a sur la mâchoire écrit Que de <u>tout inconnu</u> le sage se méfie Lf 489	<u>Arrotz maketoen</u> zinak Gezurrez josiz eginak... Gu gauden gor. Mou <i>Azeria</i>
---	--

¹⁰⁸ Cf. Iturriaga (“Adisquide bi eta artza”, 1842): “Munduan adisquide / Mota asco dira; / Ez dezu artu bear, / Jaquizu gaurdandic, / Zure adisquidetzat / Guizon beldurtiric”.

Poesia berridazteko moduak. Sortzaile baten aurrean gaude, poeta baten aurrean, berridazle honi dagokionez. Bidarraitarrak bere egin zituen La Fontaineren alegiak eta molde eta eduki berriak eman zizkien. Ez zituen kontuan hartu ez jatorrizkoaren forma ezta adierazia ere, neurri handi batean. Eutsi egin zion argumentuaren hari nagusiari zenbaitetan, baina, beste askotan, desbideratu egin zen. Desbideratze horren adibiderik argiena, beharbada, “Andreño baten othoitza” (*Heh 27*) dugu.

Beraz, poesia berridaztean, modu organikoaren eta desbideratuaren artean jauzika ibili zen, batetik bestera.

Ondorioak

Ideologiaren hertsatzaileak gidatu zuen Oxobiren berridazketa-lana, neurri handi batean. Kultura-eragilea izan zen Oxobi, eta euskal herri-kulturaren ondarea helaraztea izan zuen helburuetako bat. Hala, ingurunearen ardura berezia erakutsi zuen: jende-modu eta mintzamolde ugari agertu zituen alegietan (euskara ez bestekoak ere bai: gaskoiera, buhameen hizkuntza, amerikano euskaldunaren *code-switching*, mendebaldeko idazleen lexiko garbizalea...).

Bere apaiz kondizioaren bitartez uler daitezke, bestalde, berridazketetako zenbait manipulazio, hala nola, Jainkoa testura ekartzea.

Hizkuntza-kezka eta hezkuntza-ardura ere izan zituen Oxobik: euskararen iraupena eta lehen hezkuntza elkarri lotuak ikusi zituen. Garaiko ezaugarria da didaktismoa, testugintza osoki markatu zuena. Haurrentzako testuak behar ziren, hizkuntzak iraungo bazuen, eta bide hori jorrazteko hautatu bide zituen Oxobik alegiak. Garaiko poetikaren hertsatzailatzat har daiteke hori.

Didaktika-bide horretan sartuta, kontu egin zien aurreko alegialariek ondutako lanei. Argiro ikus daiteke, zenbaitetan, Iturriagaren ezagutza zuela, gutxienez.

Euskal kulturaren unibertsora ekarri zituen Oxobik La Fontaineren alegiak. Horregatik, euskal kulturemaz josiak ageri dira: kontzeptu, izen berezi eta euskal tradizioko kantuen alusioetan ikus daitezke, batik bat, halakoak. Naturalizazio asmo argia erakutsi zuen Oxobik. Euskal kulturako erreferente horiek, dena dela, ez dute zer

ikusirik gai politiko, sozial edo historikoekin, Adema batek, esaterako, erakutsi zuen bezala. Bai, ordea, Ipar Euskal Herriko garaiko gizarteko pertsonaia mota jakin batzuekin, eta herrien arteko lehia, umore eta ziriekkin.

Hizkuntzaren alorrean, aske jokatu zuen Oxobik. Baina ez edonola: adierazkortasuna landu zuen ezin gehiagoraino. Hartarako bitarteko ugari erabili zituen: onomatopeiak, hitz hoskideak, erritmo bizia, errima aberatsa, tropoak (aliterazioa eta paranomasia, batik bat), irudien estilizazioa... Lautu ere egin zuen testua, kontzeptu arrotzak inausiz; baina, baita ere, testua luzatu zuen, eletsu, narrazioa biribiltzeko, dela hasierako bertso-lerroetan pertsonaiak aurkeztuz, dela bukaeran ipuin tankera emanez. Didaktismoak eta hartzaileak haurrak izateak bultzatu zuten Oxobi maila ilokutiboko halako estrategiak erabiltzera.

Irakaspena ez da Oxobiren jomuga. Bizkarra erakutsi zion, oro har, alderdi moralari, irakaspén gehienak itzuli gabe utzita. Generoaren alderdi didaktikoa, dena dela, argumentua egoki garatuz eman zuen Oxobik. Osagai narratiboa lehenetsi zuen, guztiaren gainetik.

Halako bitartekoak erabiltzeak erakusten du haurrak zerabiltzala gogoan Oxobik, alegion hartzaileak neska-mutikoak izan zitezten. Nabarmentzekoa da, alde horretatik, *Gure Herria* aldizkariko “Haurren chokoa” zeritzan sailean plazaratu zirela Oxobiren alegiak.

Emaitza bikaina da, bai lirikaren aldetik, bai narratibaren aldetik, bai eta estetikan eta adierazkortasunaren aldetik ere.

VI.6.10. Pierre Lanouguerre “Pette Zibero” (1896-1945)

Irakasle izendatu zuten Mauleko Saint-François d’Assise lizeo-kolegioan.

Gure Herrian lau alegia argitaratu zituen, 1930. eta 1931. urteen artean, bertsoz, zubereraz. Kantatzekoak zirela begi-bistakoa da, doinua egokitu baitzien («*Santsin*», «*Aitak eman zerautan*», «*Tchorittoa nurat dua*»). La Fontainerenak dira laurak¹⁰⁹.

¹⁰⁹ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Pierre Lanouguerre “PETTE ZIBERO”	<i>Gure Herria</i>	1930-1931	4 hn	4 Lf

LANOUGUERRE, Pierre “PETTE ZIBERO” (1930). “Bi ürzuak”, *Gure Herria*, 3. zka., 221-223. **Lf IX-2**

LANOUGUERRE, Pierre “PETTE ZIBERO” (1930). “Gai-aiñhera eta bi andere ejerrak”, *Gure Herria*, 6. zka., 509-510. **Lf II-5**

LANOUGUERRE, Pierre “PETTE ZIBERO” (1931). “Biesadün”, *Gure Herria*, 2. zka., 113-114. **Lf I-7**

LANOUGUERRE, Pierre “PETTE ZIBERO” (1931). “Kritcha eta uñhürria”, *Gure Herria*, 3. zka., 204-205. **Lf I-1**

VI.6.11. Fabien Hastoy “Betzulako aize ephailia” (1869-1950)

Irakasle izan zen lehen mailako eskola publikoan, lehenik Lapurdin eta ondoren Zuberoako Aloz herrian. Bertan Madeleine de Jaureguiberryrekin egin zuen lan, eta hark bultzatu zuen La Fontaineren alegiak euskaraz egokitzera, ondoren umeekin antzezteko.

Zazpi alegia argitaratu zituen Hastoyk, 1936 eta 1939. urteen artean, *Gure Herria* aldizkarian, denak La Fontainerenak eta bertsoz emanak. “Tchitchatea eta Uñhurria” alegia “tryptique, edo hirur zathitan” landu zuen Hastoyk. Hiru berridazketa egin zituen, beraz: bat zuberera garbian, beste bat amerikanoen zubereraz eta azkena neurtitzezko zubereraz¹¹⁰. Hiruron sarrera gisa poema bat jarri zuen, zeinean Oxobi aipatu baitzuen, eta bere burua, Oxobirekin batera, euskararen alde. Era berean, frantsesez mintzo ziren Ezpeletako euskaldunak kritikatu zituen, gatza, piperra eta ironia maltzurra erabiliz: “Ezpeletak : « ton sale Basque m’est / Indéchiffrable, je le dis tout net ». / (Hori hire falta duk! : arras gero!!)”

Alegia hori argitaratu eta hiru urte geroago, 1939an, “Trois Basques racontant une fable de La Fontaine” artikulua agertu zen *Euzko-Enda* aldizkarian, “ORHIKO TCHORIA”-k¹¹¹ sinatua, Hastoyren berridazketak jasotzen zituena.

¹¹⁰ “ I. Chiberotar chahia... II. Amerikanuen chiberotarra... III. Chiberotarra neurt-hitzetan...”.

¹¹¹ Ez dut jakin, saiatu arren, noren goitizena den “ORHIKO TCHORIA”.

Hastoyk, bestalde, “Zuñ eijerrago?” artikulua (1937) idatzi zuen eta bertan “Oilara eta Azeria” alegiaren hiru aldaera eman zituen, irakurleak onena zein zen epai zezan: lehena, Iturriagarena; bigarrena, Oxobirena, eta hirugarrena, berea.

Handik bi urtera, Hastoyren alegia hori berori eta “Igelak idia bardintu nahi” argitaratu zituen “ORHIKO TCHORIA”-k, *Euzko-Endan*, esanez La Fontaineren alegiak beste hizkuntzetara aldaezinak zirela, salbu eta euskarara, euskararen sintaxiarengatik. Maisulantzat jo zituen “ORHIKO TCHORIA”-k Hastoyren bertsoak¹¹².

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Fabien Hastoy	<i>Gure Herria</i>	1936-1939	7 hn	7 Lf

HASTOY, Fabien “BETZULAKO AIZE EPHAILIA” (1936). “Tchitchatea eta Uñhurria”, *Gure Herria*, 1. zka., 14-16. **Lf I-1**

HASTOY, Fabien “BETZULAKO AIZE EPHAILIA” (1936). “Igelak, idia bardintu nahi”, *Gure Herria*, 5-6 zka., 395. **Lf I-3**

HASTOY, Fabien “BETZULAKO AIZE EPHAILIA” (1937). “Oilarra eta acheria”, *Gure Herria*, 2. zka., 130-133. **Lf II-15**

HASTOY, Fabien “BETZULAKO AIZE EPHAILIA” (1937). “Ezkürra eta Khüya”, *Gure Herria*, 4. zka., 318-319. **Lf IX-4**

HASTOY, Fabien “BETZULAKO AIZE EPHAILIA” (1937). “Gathia, andere-eijerra eta erbittua”, *Gure Herria*, 4. zka., 319-320. **Lf VII-15**

HASTOY, Fabien “BETZULAKO AIZE EPHAILIA” (1938). “Bi uhuñac eta astoa”, *Gure Herria*, 1. zka., 114. **Lf I-13**

HASTOY, Fabien “BETZULAKO AIZE EPHAILIA” (1939). “Bettan eta Raton”, *Gure Herria*, 3. zka., 130. **Lf IX-17**

VI.6.12. Leon Leon “BERRIZARTE” (1896-1962)

Ideologia

Apaiza eta euskaltzalea, Hazparneko harrobikoa, belaunaldiko azken ordekaritzat jo zuten Izagirre eta Mendigurenek *Euskal literaturaren antologian* (1998: 246). Apaizgoari ez ezik, irakaslegoari ere lotua egon zen: urtebete egin zuen gazteen irakasle, 1923an, Hazparneko apaiz-ikastetxe txikian (Onaindia, 1975: 406); geroago

¹¹² Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

ere jardun zuen zeregin berean Baionan bost urtez (Bidador, 1995). Horregatik-edo, umeentzako zenbait lan idatzi zituen: meza liburu bat (*Haurren meza*, 1942) eta, *Pan-Pin* haur-aldizkarian, hitz gurutzatuak.

Alegia sail bati eman zion hasiera Leonek, “Alegia deus ez!”¹¹³ izeneko sarreratxoarekin, *Gure Herria* aldizkarian, 1951n. Sarreratxo hartan, alegiak “ahal bezenbatean hitzez-hitz eta erdarari jarraikiz” itzuli zituela adierazi zuen (5. zka., 281 or.). Funts gutxiko zeregintzat zeukan Leonek alegiak idazteko zaletasuna; atsedeen egunetan “orenak nolazpeit hil behar” eta, horregatixe ekin zion sail horri¹¹⁴.

Corpusa eta iturriak

Alegiak, 52 guztira, denak bertsoz, *Gure Herria* aldizkarian agertu ziren, 1951. eta 1960. urteen bitartean. Leonek asmatutakotzat jotzen dut “Oilarra, ardia eta indioiloa”. Beste alegia guztien iturria La Fontaine izan zen.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Leon Leon “BERRIZARTE”	<i>Gure Herria</i>	1951-1960	52 hn	51 Lf

LEON, Leon (1951). “Ttirritta eta chinaurria”, *Gure Herria*, 5. zka., 281-282. **Lf I-1**

LEON, Leon (1951). “Belea eta acheria”, *Gure Herria*, 5. zka., 282-283. **Lf I-2**

LEON, Leon (1951). “Hiritar garratoina eta larretar garratoina”, *Gure Herria*, 6. zka., 365-366. **Lf I-9**

LEON, Leon (1951). “Otsoa eta bildotsa”, *Gure Herria*, 6. zka., 366. **Lf I-10**

LEON, Leon (1952). “Igela eta idia”, *Gure Herria*, 3. zka., 159. **Lf I-3**

LEON, Leon (1952). “Bi mandoak”, *Gure Herria*, 3. zka., 160. **Lf I-4**

LEON, Leon(1952). “Esneketaria eta pitchar esnea”, *Gure Herria*, 5.zka., 293. **Lf VII-9**

LEON, Leon (1952). “Otsoa eta amiamokoa”, *Gure Herria*, 5. zka., 295. **Lf III-9**

LEON, Leon (1952). “Urchoa eta chinaurria”, *Gure Herria*, 5. zka., 296. **Lf II-12**

LEON, Leon (1953). “Acheria eta mahatsak”, *Gure Herria*, 1. zka., 28. **Lf III-11**

LEON, Leon (1953). “Ezkurra eta khuia”, *Gure Herria*, 1. zka., 29-30. **Lf IX-4**

LEON, Leon (1953). “Haitza eta seska”, *Gure Herria*, 2. zka., 69-70. **Lf I-22**

¹¹³ *Alegia deus ez!* esamoldearen esanahiari buruz honako hau irakur dakiok Orpustani: “[...] le titre *Alegia deus ez* [...] correspond exactement pour le sens à l'expression française *Mine de rien!*”. Beraz, “ezer ez balitz bezala” edo antzeko esapide bat.

¹¹⁴ Zabalak eta Goyhetchek bezala Leonek ere baliatu zituen apaiz orok dituen pausa orduak alegiak itzultzeko (cf. Goyhette, 1852: X).

- LEON, Leon (1953). "Arrain-umea eta arraintzalea", *Gure Herria*, 2. zka., 71. **Lf V-3**
- LEON, Leon (1953). "Acheria eta amiamokoa", *Gure Herria*, 3. zka., 177-178. **Lf I-18**
- LEON, Leon (1953). "Lehoina eta ulitcha", *Gure Herria*, 3. zka., 178-179. **Lf II-9**
- LEON, Leon (1953). "Erbia eta aphoharmatua", *Gure Herria*, 3. zka., 179-181. **Lf VI-10**
- LEON, Leon (1953). "Eiherazain aita-semeak eta astoa", *Gure Herria*, 4. zka., 198. **Lf III-1**
- LEON, Leon (1953). "Garratoinen biltzarra", *Gure Herria*, 4. zka., 201-202. **Lf II-2**
- LEON, Leon (1953). "Oilarra eta acheria", *Gure Herria*, 5. zka., 275-276. **Lf II-15**
- LEON, Leon (1953). "Laborari aita-semeak", *Gure Herria*, 5. zka., 276-277. **Lf V-9**
- LEON, Leon (1954). "Amiamakoa", *Gure Herria*, 1. zka., 60-61. **Lf VII-4**
- LEON, Leon (1954). "Zapataina eta bankiera", *Gure Herria*, 3. zka., 189-190. **Lf VIII-2**
- LEON, Leon (1954). "Abereak izurriarekin eri", *Gure Herria*, 5. zka., 303-305. **Lf VII-1**
- LEON, Leon (1954). "Karrosa eta ulia", *Gure Herria*, 6. zka., 371-372. **Lf VII-8**
- LEON, Leon (1955). "Acheria eta akherra", *Gure Herria*, 2. zka., 126-127. **Lf III-5**
- LEON, Leon (1955). "Astoa eta chakurra", *Gure Herria*, 2. zka., 127-128. **Lf VIII-17**
- LEON, Leon (1955). "Gatua eta garratoin zaharra", *Gure Herria*, 3. zka., 184. **Lf III-18**
- LEON, Leon (1955). "Otsoa, ahuntza eta pittika", *Gure Herria*, 4. zka., 255-256. **Lf IV-15**
- LEON, Leon (1956). "Otsoa artzain", *Gure Herria*, 1. zka., 57-58. **Lf III-3**
- LEON, Leon (1956). "Lehoin zaharra", *Gure Herria*, 1. zka., 58-59. **Lf III-14**
- LEON, Leon (1956). "Otsoa eta zakurra", *Gure Herria*, 2. zka., 95-96. **Lf I-5**
- LEON, Leon (1956). "Uzkinazoa Pauma-lumez aphaindua", *Gure Herria*, 2. zka., 96. **Lf IV-9**
- LEON, Leon (1956). "Ainhera eta chori-umeak", *Gure Herria*, 3. zka., 159-160. **Lf I-8**
- LEON, Leon (1956). "Ohoiak eta astoa", *Gure Herria*, 4. zka., 238. **Lf I-13**
- LEON, Leon (1957). "Herioa eta egur-egilea", *Gure Herria*, 1. zka., 30. **Lf I-14**
- LEON, Leon (1957). "Leizorrak eta erleak", *Gure Herria*, 1. zka., 31-32. **Lf I-21**
- LEON, Leon (1957). "Lehoina eta garratoina", *Gure Herria*, 2. zka., 115. **Lf II-11**
- LEON, Leon (1957). "Ardia, ahuntza eta miga lehoinarekin tratuka", *Gure Herria*, 2. zka., 116. **Lf I-6**
- LEON, Leon (1957). "Hartza eta bi ihiztariak", *Gure Herria*, 3. zka., 158-160. **Lf V-20**
- LEON, Leon (1957). "Haurra eta eskol-emailea", *Gure Herria*, 4. zka., 224-225. **Lf I-19**
- LEON, Leon (1957). "Otsoa eta acheria", *Gure Herria*, 6. zka., 352-353. **Lf XI-6**
- LEON, Leon (1958). "Eltzurhea eta bi gizonak", *Gure Herria*, 2. zka., 95-96. **Lf IX-16**
- LEON, Leon (1958). "Igelak errege galdeka", *Gure Herria*, 3. zka., 173-174. **Lf III-4**
- LEON, Leon (1958). "Erbia eta igelak", *Gure Herria*, 4. zka., 223-224. **Lf II-14**
- LEON, Leon (1958). "Horditzalea eta haren emaztea", *Gure Herria*, 5. zka., 287. **Lf III-7**
- LEON, Leon (1958). "Belea arrano nahi", *Gure Herria*, 6. zka., 345-346. **Lf II-16**

LEON, Leon (1959). “Gau-ainhera eta bi anjerejerrak”, *Gure Herria*, 1. zka., 19. **Lf II-5**

LEON, Leon (1959). “Ziminoa eta gatua”, *Gure Herria*, 6. zka., 383-384. **Lf IX-17**

LEON, Leon (1960). “Azeri zaharra”, *Gure Herria*, 2. zka., 122-123. **Lf V-5**

LEON, Leon (1960). “Aita chaharra eta lau semeak”, *Gure Herria*, 4.zka., 255. **Lf IV-18**

LEON, Leon (1960). “Artzaina eta itsasoa”, *Gure Herria*, 5. zka., 281-282. **Lf IV-2**

Kritika

Iritzi emaile guztiek nabarmendu dute Leonen alegien edertasuna, dela darabilen euskararengatik, dela literatura-genero hori lantzeko moduarengatik. Onaindiak hizkuntzaren garbitasuna aipatu zuen (1975: 409): “Euskera garbia du, oso sentikor eta errikoia; erriak egunero ezpain gain darabilzkin itz eta esan jatorrak, tai-gabe ta jarraian datozkio luma puntara”.

Orpustanek, bestalde, estiloaren bikaintasuna (1996a: 150): “Elles sont de très belle qualité stylistique, parfois proches de La Fontaine”.

Mendigurenak eta Izagirrek, azkenik, haren maisutasuna azpimarratu zuten (1998: 247): “Bere helburua, belaunaldi bereko idazleen antzera, ez zen inola ere goi mailako literatura sortzea, ezpada irakurgai erraz, goxo eta atseginak eskaintzea; alabaina, maisutasun dudaezina erakusten du idaztean”. Halaber, Leonen euskara goraiatu zuten (ibidem): “Hizkuntza, berriz, zoragarria du: esaerak, hitz adierazgarri eta txikigarriak, elkarrizketa arinak...”.

Zabalkundea¹¹⁵

1992an, Euskadiko Euskal Antzerki Topaketan 10. aldian, Leonen *Bortz komedia eta lau alegia* liburua plazaratu zuten Antzertik eta Azpeitiko Udalak. Testua Daniel Landartek orraztu zuen.

1994an, Elena Touyarou-Phagaburuk Leonen testuak, alegiak eta ipuinak bildu, eta liburu moduan argitaratu zituen, *Alegia Deus Ez! Alegiak eta Ipuinak* izenburu pean.

¹¹⁵ Onaindiak akats baterako bidea ireki zuen, Leonek alegiekin liburutxo bat egiteko asmoa zuela iragarri zuenean (Onaindia, 1954: 1.123). Geroago, izena, argitalpen-urtea eta argitalpen-tokia jarri zizkion asmo horri Onaindiak (1975: 408): “*Alegiak* (Baiona, 1960)”. Ikertzaile askok errepikatu dute erreferentzia hori: Calleja, 1994; Bidador, 1995... Nik, hala eta guztiz ere, ez dut inon topatu liburu hori eta, horregatik, pentsatzen dut ez dela existitzen. Euskal Herrian diren datu-base bibliografiko guztiak arakatu ditut eta, besteak beste, Baionako Euskal Museoko arduradunei zuzenean galdetu diet Leonen liburu horri buruz.

57 alegia jaso zituen liburuan. Nik, hala ere, ez ditut hartu alegiatzat honako bost bertso-sail hauek: “Miraila”, “Oilaskoa eta acheria”, “Asto eta zaldi”, “Manech Gichon” eta “Beha niri”.

Testu mailako azterketa

Objektuak, izakiak. Pertsona traukilaren ordaintzat buhame eman zuen:

Passe un certain Croquant qui marchait les pieds nus. Lf 86	Gizon traste kankail bat, Buhamia orobat... Le <i>Urc</i>
---	--

Kasu honetan, errimatu beharrak eragin zuen aldaketa:

Je suis donc un foudre de guerre ? Lf 90	Ha! Zer ihizia haatik ni! Zer soldadoa! Ni ikusi orduko etsaia urperat doa! Le <i>Erbia eta igelak</i>
--	---

Oraingoan, urre eta zilar bihurtzen du gatz-zergen bidez bilduriko dirua:

...l'argent de la gabelle... Lf 34	...urhe eta zilhar ... Le <i>Bi</i>
------------------------------------	-------------------------------------

Fisc orokortu zuen eta *troupe* aldatu:

Sur le Mulet du fisc une troupe se jette Lf 34	Dirudun mandoari zen beraz jazarri [etsaia] Le <i>Bi</i>
--	--

Topikoen alorrekoak, adibide honetan: kaskoia harroa omen da, kukurra tente ibili ohi da; eta normandiarrak ba omen daki nahigabeak axolagabetasun faltsuz disimulatzen. Leonek, ordea, lagun ingelesa ekarri zigun itzulpenera, normandiarraren orde. Beharbada ezaguna zelako ingelesaren izaera Lapurdiren historian barrena:

Certain Renard gascon, d'autres disent normand... Lf 124	Kaskoia zenetz ala Anglesa, ez dakit, ez... Le <i>Acheria eta mahatsak</i>
--	---

Sinesmenak. Jainkoa agertu zuen Leonek, jatorrizkoan ez egon arren:

Notre Laitière ainsi trousseée Comptait déjà dans sa pensée Tout le prix de son lait, en employait l'argent [Ø]... Lf 266	Gogoan zerabilala asko gogoeta: –«Jainkoak plazer badu, esne hau saldu-eta, Hortarik atheratu diru freskoarekin... Le <i>Esn</i>
Mes chers Enfants [Ø]... Lf 165	«Ene haur maiteak, Jainkoari diozkat eskerrak... Le <i>Ait</i>

Harrigarriro, La Fontainek Jainkoa edo haren ordeko esapide bat agertzen duenean, Leonek ezkutatu egiten du:

...si Dieu m'avait fait naître Propre à tirer marrons du feu... Lf 378	...hik bezala lan horren egiten banaki... Le <i>Zim</i>
Grâce à l'Auteur de l'univers Lf 75	[Ø] Le <i>Gau</i>

Bi adibide hauetan, beste erreferente batzuk eman zituen Leonek, jatorrizkoan agertzen diren jainkoak ordezkatzeko. La Fontaineren testuko jainkoak ez dira Leonenak:

Un vrai Mouton de sacrifice : On l'avait réservé pour la bouche des Dieux . Lf 93	Ardi gazte eta gothor baten ume lehena, Hots artzainak herriko aphezarentzat zaukana. <i>Le Belea arrano nahi.</i>
Que Jupin les soumit au pouvoir monarchique. Lf 112	Non zeruak errege bat baitzioten igorri. <i>Le Igelak</i>
Le monarque des Dieux leur envoie une Grue... Lf 113	Hor haatik azkarki sumindu zerua ere Eta bertze errege bat igorri airez aire: Lertsun bat!... <i>Le Igelak</i>

Ohiturak. Mus jokoaren inbido-hordago aukerak ekarri zituen hizpidera, itsasoko uren tentaldiari uko egingo ziola adierazteko:

Vous voulez de l'argent, ô Mesdames les Eaux, Dit-il, adressez-vous, je vous prie, à quelque autre : Ma foi, vous n'aurez pas le nôtre . Lf 139	Mintzo zitzaion noiz edo noiz: «Andere Itsaso, Ez dakit chuchen zer ziren, emazte ala otso; Bainan behin enganatu bainuzu, hartan paso! Imbidoka ez ar haatik niri gehiago, Ez baitautzut eginen ez iduki ez hordago! » <i>Le Art</i>
--	--

Kontzeptuak. Bilo zuria erantsi zion Leonek azeriari. Beharbada, azeriaren izaera iruzurtia¹¹⁶ adierazteko.

Un vieux Renard, mais des plus fins , Lf 184	Azeri zahar bilo zuri bat... <i>Le Aze</i>
---	---

Adibide honetan, erantsitako zuritasunak jakinduria adierazi nahi du:

Corrigez-vous, dira quelque sage cervelle . Lf 89	Kasko-zuri zuhur batek hemen Badakit zertsu dautan erranen:... <i>Le Erbia eta igelak</i>
---	---

Izaera politikoa aldatua dugu hemen:

Les Grenouilles, se lassant De l'état démocratique ... Lf 112	Igelak, errepublikaz aseak lephoraino... <i>Le Igelak</i>
---	--

Beste batzuetan, euskal kulturema bat eman zuen ordainetan. Adibide honetan, esaterako, gosearen eta miseria gorriaren euskal pertsonifikazioa, ipar haizearen ordain:

[La Cigale] Se trouva fort dépourvue Quand la bise fut venue. Lf 31	Ttirittak neguan Petirisants ezagutu. <i>Le Tti</i>
---	--

Baita honetan ere:

Un Homme (...) S'imagina qu'il ferait bien De se pendre, et finir lui même sa misère ; Puisque aussi bien sans lui la faim le viendrait faire... Lf 376	Gaizoak Betirisants ukanki aitaso (...) Egin zuen egun hartan Hobe zuela miletan (...) bere burua garbitzea! <i>Le Elt</i>
---	--

¹¹⁶ *OEhk* honako hau dakar soilik: "BILO-XURI (...) "Qui a les cheveux blancs" Lh y Lrq." Beraz, inolako konnotaziorik ez.

Hala ere, J. M. Preciadok bere tesian ikertu zuenez, honako kontzeptu eta esapide hauekin, beste askoren artean, lotu zuten Aramaioko euskaldunek kolore zuria (1992: 125): faltsua, itxuratia (irri zuria), nagia (ipurtzuri), iruzurtia (barne zuria), ankerra (sabel zuria)...

Edo hizkuntza-maila neutroan eman zuen kultura-erreferentzia. Kasu honetan, *sans autre forme de procès* esapidea erabili zuen La Fontainek adierazteko akusatuen izaera besterik ez dela behar epaia emateko. Itzulpenean, ordea, lauso adierazita dago esanahi hori:

Le Loup l'emporte, et puis le mange, Sans autre forme de procès. Lf 45	Hor otsoak bildotsa hartu, Oihan zoko batetarat joan Eta bertze zerik gabe jan. Le <i>Otsoa eta Bildotsa</i>
---	--

Metonimia erabili zuen: osotasuna partearen ordez. Testua lautzea helburu:

La Cellière du royaume De Satan, reprint-elle... Lf 118	«Ifernuan hiz, horditzale tetelea... Le <i>Hor</i>
--	--

Izen bereziak. Egokitu egin zituen halakoak.

- Animalien izen bereziei euskal nortasuna eman zien Leonek: Rodilardus/Chingartegiko gatu lerdena (Lf 71, Le *Gar*); Bertrand avec Raton/Petantipi eta Beltzino (Lf 378, Le *Zim*); L'Oiseau de Jupiter/Arranoa (Lf 93, Le *Belea arrano nahi*).
- Halaber, pertsona-izenei eta pertsona-erreferenteei: Guillot/Patin (Lf 110, Le *Otsoa artzain*); un suppôt de Bacchus/Santsin (Lf 118, Le *Hor*); voisin d'Amphitrite/Urruñar artzain bat (Lf 139, Le *Art*); Perrette/Kattalin (Lf 266, Le *Esn*); Jean/Petan (Lf 267, Le *Esn*); villageois/Bidachundar (Lf 353, Le *Ezk*).
- Mitoak, pertsonaia historikoak, obra klasikoetako pertsonaiak eta beste saihestu zituen: Cassandre/Ø (Lf 41, Le *Ain*); Jupiter/Ø (Lf 75, Le *Gau*); Oiseau de Vénus/Ø (Lf 86, Le *Urc*); Mars/Ø (Lf 107, Le *Eih*); Jupin/Ø (Lf 112, Le *Igelak*); Coridon ou Tircis/Ø (Lf 139, Le *Art*); Pierrot/Ø (Lf 139, Le *Art*); l'esclave de Phrygie/Ø (Lf 165, Le *Ait*); Garo/Ø (Lf 353, Le *Ezk*). Edo moldatu: habit d'Alecton/arropa gorritan, iduri zinez ifernuko Satan (Lf 118, Le *Hor*).
- Leku-izenak euskaldundu egin zituen: Caucase/Larron (Lf 64, Le *Hai*).
- Tratamendua. Jaun bihurtu zituen animaliak, askotan: Un Loup/Jaun Otso (Lf 110, Le *Otsoa artzain*); Renard/Jaun Acheri (Lf 110, Le *Otsoa artzain*).

Paremiak. Era guztietako estrategiak erabili zituen halakoak itzultzeko.

- Itzulpen literala eman zuen gehienetan; emaitza, baina, ezin har daiteke esapidetzat xede-hizkuntzan:

... fi du plaisir Que la crainte peut corrompre. Lf 43	Phu ikharetan hartu behar den plazera! Le <i>Hir</i>
Plutôt souffrir que mourir, C'est la devise des hommes. Lf 54	Mundu huntan denen leloa oraidino, Phairatzea hobe dela hiltzea baino. Le <i>Her</i>

...entre nos ennemis Les plus à craindre sont souvent les plus petits. Lf 82	...gure etsaietan ttipienak Direla ardura pozoinagarrienak. Le <i>Lehoina eta Ulitcha</i>
Ils sont trop verts... Lf 124	Damurik pherdeak baitira Le <i>Esn</i>
[Il m'a dit qu']il ne faut jamais Vendre la peau de l'Ours qu'on ne l'ait mis par terre. Lf 204	«Beharri-zilorat zer erasi dautan, puttil? Larrua saldu gabe hartza behar dela hil!» Le <i>Har</i>
Le lait tombe ; adieu veau, vache, cochon, couvée. Lf 266	Adio... Adio to Behi, chahal, urde, oilo eta txito! Le <i>Esn</i>
On ne dort point, [dit-il,] quand on a tant d'esprit. Lf 353	Kasko handiko gizonek, diotenez, lo guti. Le <i>Ezk</i>

- Inoiz euskal paremia literala egokitu zion frantses paremiari:

Quiconque a beaucoup vu Peut avoir beaucoup retenu. Lf 40	Anhitz duenak ikusi Anhitz ere du ikasi. Le <i>Ain</i>
Un Tien vaut, ce dit-on, mieux que deux Tu l'auras. Lf 182.	Bi IZANEN-DUK baino TO bat hobe, Delakotz hau eskukoa, Hura aldiz airekoa! Le <i>Arr</i>

- Era librean itzuli zuen beste batzuetan:

Nous [...] Et ne croyons le mal que quand il est venu. Lf 41	Diozue: «Choria chori!» Badakigu guk ere hori! (...) Eta jendeetan badela anhitz chori-buru! Le <i>Ain</i>
Je plie et ne romps pas. Lf 64	Ene kaskoak aldiz, Larronarena iduri, Gogor egiten duela kalerna guziri! Le <i>Hai</i>
Où la Guêpe a passé, le Moucheron demeure Lf 94	Non beleak bere aztaparrak han sartu Eta ezin baitituen handik atheratu. Le <i>Belea arrano nahi</i>

- Beste batzuetan ere, era librean itzuli zuen, baina esapidetzat har daitekeena sortu zuen. Usadiozko euskal paremia bat oinarri zuela, berria eratu zuen¹¹⁷:

La raison du plus fort est toujours la meilleure. Lf 44	Azkarrenak bethi azken hitza bere Le <i>Otsoa eta bildotsa</i>
[Il était expérimenté, Et savait que] la méfiance Est mère de la sûreté. Lf 134	Chuhur baduk, ez fida nor-nahiri. Le <i>Gat</i>
Deux sûretés valent mieux qu'une. Lf 163	Batto baino hobe ditut eiki bi makil... Etsaiak eginen dauk ohore edo leku Balin baduk hogoi ta hameka eta esku. Le <i>Otsoa, ahuntza eta pittika</i>
Rien ne sert de courir ; il faut partir à point. Lf 222	Gero bethi gero! Loloaren (sic) lelo! Eta bethi gero diolakotz Oraikoa galtzen sekulakotz. Le <i>Erbia eta aphoharmatua</i>

- Inoiz, itzuli gabe utzi zuen frantses paremia:

À l'œuvre on connaît l'artisan. Lf 62	[Ø] Le <i>Lei</i>
---------------------------------------	-------------------

¹¹⁷ Sail honetako oinarri izan daitezkeenak, Garateren bilduman topa daitezke erraz. Hona aipatzen ditudanak, hurrenez hurren: *Apezak azken hitza bere; Jendearekin ez sobera fida; Bat ona hobe, bi txarrak baino; Hogeita hamaika eskutik egin du; Geroa, alferraren leloa.*

Qu'on lui ferme la porte au nez, Il reviendra par les fenêtres. Lf 98	[Ø] Le <i>Gat</i>
Celui-ci ne voyait pas plus loin que son nez. Lf 114	[Ø] Le <i>Acheria eta Akherra</i>

- Jatorrizkoan paremiarik ez egon arren, noiz edo noiz euskal esaerak tartekatu zituen itzulpenean. Ordura arteko berridazleek ez zuten erabili prozedura hau:

Comme elle disait ces mots, Le Loup de fortune passe. Lf 162	Aspaldiko errana baita: Otsoa non aipha han gerta. Le <i>Otsoa, ahuntza eta pittika</i>
---	--

Arkaismoak. ‘Goujat’ esaten zitzaion, gaskoiera zaharrean, dama batengana zakarki zuzentzen zen gizon gazteari. Beste modu batean eman zuen Leonek:

...et bons pour des goujats... Lf 124	Eta haur tzar gormantentzat onak... Le <i>Acheria eta mahatsak</i>
---------------------------------------	--

Chaudeau esaten zitzaion salda urtsu bati. Metonimiaz ordeztu zuen Leonek (metalezko pertz bat da *kokela*):

Lui présente un chaudeau propre pour Lucifer... Lf 118	Hurbiltzen zaio kokela beltz bat eskuetan... Le <i>Hor</i>
---	---

Literatura-alusioak. Euskal kantu ezagun baten bertso-lerro bat tartekatu zuen Leonek. Oxobiren eraginez, zalantzarik gabe:

L'un d'éponges chargé marchait [comme un courrier ; Lf 83	Mattinek zama bat lasto Bazeraman Lorietan: Traka-traka, tra ka-tra ka <i>Nor gira gu'ka. Mou Bi astoak</i>	...bere kargaren ederraz nor- [gira-guka Le <i>Bi</i>
---	---	---

Erreferentzia klasikoa delako aldatu zuen jatorrizkoa:

...la barbe de Polyphème... Lf 93	...larreko sasia... Le <i>Belea arrano nahi</i>
-----------------------------------	---

Generoaren ikuspegia. Sexu-kontuetan, eutsi zion Leonek Lafontainereneko genero-bortizkeriazko pasarteari. Gogora bedi Goyhetchek, esaterako, ezabatu egin zuela bere itzulpenean:

Va s'excuser à son mari En grand danger d'être battue. Lf 267	[Ø] Gy 16	Senharraren ganik zonbait paso, Zafla edo tapalako Ez othe duen bilduko!... Le <i>Esn</i>
--	-----------	---

Arkeria: emakumea ikusezin dugu adibide honetan:

Quel esprit ne bat la campagne ? Lf 267	Gizonaren gogoa bethi hegaldaka... Le <i>Esn</i>
---	--

Aldaketa morfosintaktikoak. Toka ipini zuen Leonek azeriaren ahotan bildotsarekin mintzatzeko, eta berorika bildotsaren jardunean azeriari erantzuteko. Jatorrizkoaren tratamenduari eta tituluei eusteko:

Tu seras châtié de ta témérité. Sire, répond l'Agneau, que Votre Majesté Ne se mette pas en colère;	[...] Bilduko dituk hireak eta asto beltcharenak!>> Bildotsak ihardetsi umil-umila: -«Ene Jauna othoi kecha ez dadila,
---	--

Mais plutôt qu'elle considère Que je me vas désaltérant Dans le courant, Plus de vingt pas au-dessous d'Elle ; Et que par conséquent, en aucune façon, Je ne puis troubler sa boisson. Lf 44	Bainan bere begiez ikus dezala Hogoi urratsez beherago nizala Edaten ari... eta beraz nahirik ere, Haren ura ez dezaket zikhint neholere.» Le <i>Otsoa eta Bildotsa</i>
---	---

Vous tratamendua hitanora aldatu zuen, bestetan:

Quoi ! vous osez, dit-elle, à mes yeux vous produire, Après que votre race a tâché de me nuire ! N'êtes-vous pas Souris ? Parlez sans fiction. Lf 75	«Sagu krapauta, Baduk kopeta Hunat ethortzeko, nik etzakiat zerketa, Saguet zer egin dautaten jakinki-eta!» Le <i>Gau</i>
--	--

Zuzeneko solasera aldatu zuen, zenbaitetan, frantsesez zehar estiloan dagoena.

Elle demanda son salaire. Lf 122	«Zer dautazu emanen sari?» Le <i>Otsoa eta amiamokoa</i>
La voilà derechef en danger de sa vie. Lf 75	«Ha! choria, hik segurik ez duk eskapurik...» Le <i>Gau</i>

Betelana eta eletsutasuna. Fidela zaio oro har Leon jatorrizkoari, estu lotzen baitzaio sorburu-testuari. Zenbaitetan, hala ere, testua zabaldu zuen, eletsu. Adibide honetan txindurriaren izaeraz dihardu:

La Fourmi n'est pas prêteuse. Lf 31	Izan dadin beltz ala gorri, Chinaurria bethi chinaurri Hor dago hotz-hotza Chimurrik bihotza. Le <i>Tti</i>
-------------------------------------	--

Beste adibide honetan pasarte luze bat erantsi zion jatorrizkoari:

Un jour que celui-ci plein du jus de la treille, Avait laissé ses sens au fond d'une bouteille, Sa Femme l'enferma dans un certain tombeau. Lf 118	Jornal guzia uzten du botoilaren zolan! Eta echerat nolazpait denean bildu Haren emazte gaichoak zer jasan badu Senharraren sendatzeko zer ez dago eginik? Lausengu, erasi, deusek ez eman deus onik. Egin phereka gocho ala muthur handi, Bainan gizona egundaino bezain hordi; Emazte dohakabea zoko guzietan nigarrez! Berriki, arraila ekarri dioten batez, Sekulako pottoka ederrenaren jabe, Hila iduri zinez, ezagutzarik gabe, Bere buruarekin Emazteak du egin, Senharrari izialdura bat emanez ona, Gaitz hortarik sendatuko duela bai gizona, Mochkorra soineko beltch hoberenez aphaindurik, Haren bi eskuak arrosorioz juntaturik, Halako kutcha batean zuen etzan... Le <i>Hor</i>
---	---

Oraingo adibideetan euskal esapide bat gaineratu zuen:

À ces mots... Lf 32	Hitzak hitz, elheak elhe... Le <i>Belea eta acheria</i>
[Ø] Lf 64	Norat haize Harat aise. Le <i>Hai</i>

Eletsuak dira, halaber, honako hauek: *Art, Aze, Hir, Otsoa, Ahuntza eta Pittika, Zim* eta abar.

Lautzea. Ezabatu zituen jatorrizkoan agertzen diren gizarte-mailak eta goikarguak, eta erreferente orokor bat eman zuen ordainetan: *handi-mandi* gaitzespen kutsukoa, hain zuzen.

Le monde est plein de gens qui ne sont pas plus sages : Tout bourgeois veut bâtir comme les grands seigneurs, Tout petit pince a des ambassadeurs ; Tout marquis veut avoir des pages. Lf 33.	O zonbat jende, ez baitira zuhurrago, Begiak dauzkatena kopetaz gorago, Handi-mandieri aldebat beha egoki, Heien urrats guzieren beharrez jarraiki! Le <i>Igela eta idia</i>
--	--

Morfemak errepikatzea. Aliterazioa, hitz-jokoak, paronomasiak eta paralelismoak, herri-lirikan bezala. Erritmoa biziagotzeko eta adierazkortasuna indartzeko. Oxobiren eragina agerikoa du, zalantza barik, alor honetan:

Le Corbeau... Lf 32	Jaun Bele tetele... Le <i>Belea eta acheria</i>
Envieuse s'étend, et s'enfle, et se travaille Lf 33	Hasi zen beraz buha eta buha Eta gero bere zorroari beha. Le <i>Igela</i>
Il marchait d'un pas relevé, Et faisait sonner sa sonnette Lf 34	Bazoan zango eta buru gora altchatuz Bere pampalina pimpili-pampalinatuz! Le <i>Bi</i>
Se pressa... Lf 122	Saka-saka jan... Le <i>Otsoa eta amiamokoa</i>
Le long d'un clair ruisseau buvait une Colombe, Quand sur l'eau se penchant une Fourmis y tombe. Lf 85	Urcho bat edaten ari hurrupaka Chinaurri bat aldiz lanean harrapakaka... Le <i>Urc</i>
Les Loups mangent glouonnement. Lf 122	Otso guzieren ithoka jaten ohi dute Otso guzieren ithaka jaten ohi dute. Le <i>Otsoa eta amiamokoa</i>

Alegiaren hasieran kokatu zituen horietako batzuk exordio gisa: Ø/Tirritta, Tturrutta! (Lf 31, Le *Tti*); Ø/Igela, Ergela (Lf 33, Le *Igela*); Le Chêne/Haitza, gaitza (Lf 64, Le *Hai*); Perrette/Kattalin, Kachkarin (Lf 266, Le *Esn*).

Alegia barruan ere bai: Maître Renard/Jaun Acheri, Aho-zuri (Lf 32, Le *Belea eta acheria*).

Onomatopeia ugariz zipriztindu zituen Leonek bere alegiak. Oxobiren eragina nabaria da arlo honetan, Oxobi bezain aberatsa ez bada ere:

À la porte de la salle Ils entendirent du bruit... Lf 42	Norbeitik <i>krisk krask</i> idekirik hango athea... Le <i>Hir</i>
Le Rat de ville détale, Son camarade le suit. Lf 42	Ihesi joan <i>tirripiti tarrapata!</i> Le <i>Hir</i>
Et dans cet océan l'on eût vu la Fourmis S'efforcer... Lf 85-86	Urean <i>Chichti-chachta</i> , ahal bezala Le <i>Urc</i>
La Colombe l'entend, part, et tire de long. Lf 86	Urchoak hori aski baitzuen ohartzeko Eta han harat <i>fla fla fla</i> hegaldatzeko... Le <i>Urc</i>
Guillot le sycophante approche doucement. Lf 110	Patin-Otsok, <i>tipi-tapa, tipi-tapa</i> , Emeki-emeki jautsi oihan-aldapa... Le <i>Otsoa artzain</i>
[Ø] Lf 124	<i>Ttapa ttapa</i> joan zen... Le <i>Acheria eta mahatsak</i>
Et qui va balayant tous les sentiers fangeux? Lf 184	<i>Zilin zilin</i> herrestan... Le <i>Aze</i>

...adieu mes gens. Lf 378	...bi ihiziek <i>bricht</i> lekuak hustu! Le <i>Zim</i>
Il s'en alla passer sur le bord d'un étang: Grenouilles aussitôt de <i>sauter</i> dans les ondes Lf 89	Ikusirik <i>pluf pluf pluf</i> urean sartzen Intha hegi hartan zauden igelak:... Le <i>Erbia eta igelak</i>

Irakaspenen mezua. Era askotako estrategiak erabili zituen mezuak emateko.

- Irakaspen berdin-berdina ematea.

Apprenez que tout flatteur Vit aux dépens de celui qui l'écoute. Lf 32	«Jaun, oai, jakizu, balaka eta lausengu, Zu bezalakoan gostuz bizi garela gu!» Le <i>Belea eta acheria</i>
Il n'est pas toujours bon d'avoir un haut emploi Lf 34	Kargutan izaitea ez duk bethi on! Le <i>Bi</i>
Il n'est, je le vois bien, si poltron sur la terre, Qui ne puisse trouver un plus poltron que soi. Lf 90	Oraikoa ikusten dut nik Nehor ez dela hain putrunik Non ez duen egun batez han edo hemen Bera baino putrunago bat hatchemaiten! Le <i>Erbia eta igelak</i>
Que le travail est un trésor. Lf 191	Egiazko eltzurhea dela lana. Le <i>Lab</i>
Dieu ne l'a pas voulu : sans doute il eut raison. Lf 353	Jainkoak egin bethi ongi egin. Le <i>Ezk</i>

Baita beste hauetan ere: *Acheria eta Akherra, Acheria eta Amiamokoa, Arr, Ast, Gar, Gat, Har, Her, Kar, Lab, Lehoina eta Ulitcha, Lehoin zaharra, Oil, Otsoa eta Acheria.*

- Irakaspen berdin antzekoa ematea.

Quant à vous suivez Mars, ou l'Amour, ou le Prince ; Allez, venez, courez ; demeurez en province ; Prenez femme, abbaye, emploi, gouvernement : Les gens en parleront, n'en doutez nullement. Lf 107	Zoaz ezker, zoaz eskun, Zoaz hurbil, zoaz urrun; Igan goiti, Jauts beheiti, Egon etchean ala kurri karrika, Norbeit ariko zaitzu bethi harrika. Le <i>Eih</i>
---	--

Berdin antzeko irakaspen gehiago: *Ami, Lehoina eta garratoina, Lei, Otsoa, Ahuntza eta Pittika, Zap.*

- Irakaspen ezberdina ematea, desbideratua. Adibide honetan, beharbada, bere izaera proberbialarengatik, euskaratzen zaila-edo delako.

Mal prend aux volereaux de faire les voleurs. L'exemple est un dangereux leurre. Tous les mangeurs de gens ne sont pas grands Seigneurs: Où la Guêpe a passé, le Moucheron demeure. Lf 93-94	Onak izanikan ere kartak Partida maiz galduko ausartak. Le <i>Belea arrano nahi</i>
---	---

Kasu honetan, euskal esaera bat oinarri duen esaldi batekin itxi zuen irakaspena:

Toujours par quelque endroit fourbes se laissent prendre. Quiconque est Loup agisse en Loup; C'est le plus certain de beaucoup. Lf 111	Gezurrak egiaren on guziak balitu Zer gizonak gintazken, bertzeak eta gu! Bainan <i>gezurra</i> bethi nonbeitik maingui! ¹¹⁸ Le <i>Otsoa artzain</i>
--	--

¹¹⁸ Garaten honako hauek irakur daitezke: *Gezurtia eta maingua, laster atxemanak; Gezurra aiseago arrapatzeko ezi ez maingua.*

Oraingoan, euskal literatura-tradiziotik datorren gogoeta batez eman zuen irakaspena:

Rien ne sert de courir ; il faut partir à point. Lf 222	Gero bethi gero ! Loloaren lelo ! Eta bethi gero diolakotz, Oraikoa ere galtzen sekulakotz ¹¹⁹ . Le <i>Erbia eta aphoarmatua</i>
--	---

Beste honetan, justiziari zuzendutako kritika desagertu egin zen, eta euskal paremia bat tartekatu zuen; eta, hala, jatorrizko esanahitik desbideratu:

Selon que vous serez puissant ou misérable, Les jugements de Cour vous rendront blanc ou noir. Lf 250	Izan abere ala gizon Astoa bethi asto egon ¹²⁰ . Le <i>Abe</i>
--	--

Beste alegia hauetan ere, modu batera edo bestera, desbideratu egiten da irakaspena:
Elt, Igelak, Ast, Uzk, Ain.

- Irakaspena esplizitatzea.

[Ø] Lf 122	<i>Handi-mandi bati zoazi zu, ahula, Erraiterat on zerbeit egin diozula, Entzunen duzu, eñula, Entzunen haren chirula!</i> Le <i>Otsoa eta amiamokoa</i>
[Ø] Lf 184	Hortan segurik jendeeri nagusi acheriak: Ez itsurat nola-nahi hartzen moda berriak. Le <i>Aze</i>

Beste honetan ere esplizitu egin zuen irakaspena: *Ard.*

- Irakaspenari kutsu politikoa kentzea. Anakroniko iritzi bide zien Leonek jatorrizko testuaren irakaspenoi. Bi kasu hauetan euskal paremia batez edo batzuek eman zuen irakaspena:

Aussi ne le sont pas la plupart de ces Princes Qui, flattés d'un pareil emploi, Vont s'échauder en des Provinces, Pour le profit de quelque Roi. Lf 379	Holako lanarentzat eskuarak derasa: Bertzeen buztanarekin uliak kasa ¹²¹ ! Le <i>Zim</i>
Plusiers se sont trouvés, qui d'écharpe changeants Aux dangers, ainsi qu'elle, ont souvent fait la figue. Le sage dit, selon les gens: Vive le Roi, vive la Ligue. Lf 76	Hori jendeetan ere ikusten dugu. Chuchen zer diren erraiteko, haizeari so; Ardiekin ardi eta otsoekin otso! Hein hortako gizonak gizon uliak Eta duphin guztietako zaliak! ¹²² Le <i>Gau</i>

- Irakaspena kentzea.

Tout puissance est faible, à moins que d'être unie. Lf 165	[Ø] Le <i>Ait</i>
--	-------------------

¹¹⁹ Cf. Axular.

¹²⁰ *Astoa beti asto* (Gotzon Garate, 1998); *Basta ederragatik astoa duk asto* (Mokoroa).

¹²¹ Garaten: *Besteen buztanakin uli kentzen.*

¹²² Garaten: *Dupin guztietako zali.*

Poesia berridazteko moduak. Eduki semantikotik abiatu zen Leon alegiak berridazteko orduan, ez formatik.

Dena dela, formari ere erreparatu zion. Horregatik, euskal literaturan funtzioak ziren bertso-neurri eta errimak erabili zituen, arnasa handikoak.

Poesia itzultzeko modu analogikoaren eta organikoaren artean ibili zen, beraz, Leon Leon.

Ondorioak

Apaiz, euskaltzale eta irakasle, bere lanbideen eta bokazioen aztarnak utzi zituen alegietan. Ideologiaren alorrean, nabarmen utzi zuen Leonek fede kristauari zion atxikimendua: Jainkoa agertu zuen, jatorrizkoan Jainkoa ez agertu arren, eta sorburu-testuko jainko paganoak ezabatu zituen.

Pausa-orduetan berridatzitako alegiak dira; baina plangintza burutsu bati jarraituz argitaratuak: *Gure Herria* aldizkariko “Alegia deus ez!” sail berezitua dugu horren lekuko.

Itzultzaile-kontzientzia izan zuen Leonek. Baita itzultzeko moduaz irizpide argiak ere: sorburu-testuarenganako fidelitatea gordetzea zuen helburu, sail hartako sarrera-hitzetan adierazi zuen bezala. Xede-hizkuntza bortxatu gabe: irakurgai erraz, goxo eta atseginak ondu zituen.

Ezagun du Leonek Iparraldeko alegialarien tradizioa ongi irakurria zuela: Goyhetche eta Oxobi, batez ere. Bi alegialari horien oihartzunak aurkitu daitezke Leonen alegietan.

Goyhetcheren poesia itzultzeko modu bera erabili zuen, alde batetik: eduki semantikoa lehenetsi zuen eta bertsokera funtzioakidea aukeratu; hura bezain berbatsua da Leon, askotan zabaltzen baitu testua; jatorrizkoaren hutsune eta elipsi narratiboak osatzeko, ordea, ez hartatik desbideratzeko.

Bestetik, Oxobiren estilo-prozedura adierazkorak erabili zituen: aliterazioa, hitz-jokoak, paronomasiak eta paralelismoak; izen berezien naturalizazioa; onomatopeiak...

Ezabatu zituen, bestalde, sorburu-testuko kulturema ugari, xede-testua lautu eta leuntzarren, alegiak haur irakurleentzat onargarri izan zitezten. Izan ere, irakurgai goxo eta atseginak eskaini nahi zituen, irakurleek erraz irakur zitzaten.

Alderdi moralari dagokionez, eutsi zion, oro har, irakaspenen mezuari: irakaspen gehienak berdin-berdin eman zituen, edota, bestela, berdin antzeko mezua eman zuen. Dena dela, zenbaitetan desbideratu egin zen Leon jatorrizkotik, mezuko kulturemak eta mezuaren kutsu politikoa ezezagunak edo urrunak zirelako xede-kulturan, eta euskal kulturemak eta esaldi proberbialak eman zituen halakoen ordean, irakaspena irakurlearen erreferentzia-mundura hurbiltzeko.

Antzeko jokabidea erakutsi zuen Leonek esaldi proberbial edo paremiei dagokienez. Inoiz frantsesez halakorik ez dagoenean ere eman zuen euskal esaera zaharren bat: alegiok herriak erabiltzen dituen hitzez eta esaldiz koloreztatzeko. Alegion hartzailea, haurrak ez ezik, herri xehea ere izan zedin.

VI.6.13. Pierre Duni-Pétre “HEGITOA” (1914-2005)

Donibane Garazikoa. Filosofian lizentziaduna. Euskaltzain urgazlea. Frantses administrazioko langilea. “Garaziko Manex” goitizenaren ere erabili zuen.

Alegietako gaiak harturik, bere erara moldatu zituen bost gai. Aldizkaritan plazaratu zituen: *Gure Herria*, *Gure Almanaka* eta *Herrian*. Hibridoak dira hiru; La Fontainerena, beste bat; beste iturriren batekoa, berriz, “Zakurra eta axeria” alegia¹²³.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Pierre Duni-Pétre “HEGITOA”	<i>Gure Herria</i>	1959-1975	3 hn	1 Lf
	<i>Gure Almanaka</i>	1963	1 nh	3 hibri
	<i>Herria</i>	1982	1 hn	

DUNI-PÉTRÉ, Pierre (1959). “Astoa eta zeria”, *Gure Herria*, 2. zka., 79-80. **hibri**

DUNI-PÉTRÉ, Pierre (1963). “Sagia behitegian” (sic), *Gure Almanaka*, 44-45. **hibri**

DUNI-PÉTRÉ, Pierre (1974). “Gatia eta axeria”, *Gure Herria*, 4. zka., 223-224. **Lf IX-9**

DUNI-PÉTRÉ, Pierre (1975). “Xeria basurdetu nahia”, *Gure Herria*, 3. zka., 183-184. **hibri**

¹²³ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

VI.7. Alegiak euskal irakaskuntzarako

Espainiako gerrak eta II. Mundu-Gerrak eten egin zuten euskal kulturaren susperraldia. Debeku eta zentsura-urteak izan ziren gerraostekoak, “basamortuko ibilaldia”, Torrealdairen hitzetan (1997: 230). Euskaldunak, isilarazita. Euskal irakaskuntza ezkutaturik: Donostiako etxe-eskoletan, 40ko hamarkadan jada, eta Bilboko etxeoetan, 50eko hamarkadako bukaeran.

Nolanahi den, basamortua igarota, 60ko hamarkadan, beren bideetara itzuli ziren euskal kulturako eragileak, eta nekez, baina, gutxika-gutxika, suspertzen hasi ziren euskara, euskal kultura, eta euskal irakaskuntza. Honako hauek ditugu mamituriko ekimen nagusiak: ikastolen mugimendua berpiztu eta Euskal Herri osora zabaldu zen (Bilbo, 1957; Iruñea, 1963; Gasteiz, 1966; eta Baiona, 1969); Bertsolari Txapelketa Nagusia berriz antolatzen hasi zen (1960); “Ez Dok Amairu” taldea sortu zen (1965); Durangoko Azoka lehenengo aldiz antolatu zuen Gerediaga Elkarteak (1965); euskara Batua sortzeko prozesuari hasiera eman zion Euskaltzaindiak (Arantzazu, 1968)...

Ekimen horien testuinguruan, HGLri dagokionez, tradiziozko folklorea berreskuratzeari ekin zioten egileek (Lopez Gaseni, 2000: 183), batez ere herri-narratibaren arloan, ipuinak eta elezaharrak, batik bat.

Dena dela, alegiek ere izan zuten garrantzia, tradizioaren berreskuratze horretan, berriz argitaratu baitziren zenbait alegia-bilduma: Bizenta Mogelen *Ipui onak* (Auspoa, 1963), Gratien Ademaren alegiak (*RIEV*, 1969) eta Iturriagaren *Ipuiak* (Auspoa, 1967). Baita Oxobi alegialariari buruzko kritika-lan bat: *Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait* (*Gure Herria*, 1966).

Euskal testuen premia gorria zegoen ikastola hasiberrietan, eta, hala, Santi Onaindiak *Jolasketa* argitaratu zuen 1965ean, 60ko hamarkadan plazaratu ziren hiru testu-liburuetatik bat, hain zuzen. Jolas, abesti, ipuin eta irakurgaiak dira muina. Ipuinei buruz hauxe diosku Onaindiak liburuaren atarian:

Euskaldunok andi ta txiki eder-zale, ipuin zale izanak gara beti. Erriak –esan oi danez–, euren aurtzaroan, ipuiñakaz bizi dira pozkor eta alaitsu. Guk be, aldiaren altzoan barrenduz kondaira zarririk ez dogun arren, enda azkar burutsu adierazle diran ipuin-sail galanten jaube gara: gure literatura ez da urria, zazpi probintziotan atan be, edeski, kontakizun eta ipuiñetan (1965: X).

‘Ipuin’ hitzak hor alegiak ere hartzen ditu bere baitan. 33 alegia bildu zituen, egile ugariarenak: “Elurmendi”, “Legoaldi”, Bizenta Mogel, “Igotz”, Iturriaga, “Amilgain”, R. M. Azkue, N. Etxaniz eta besterenak.

Aldaketak egin zituen Onaindiak testuetan, *ad usum delphini*, haur-pentsaerari eta gogoari begira: “Emen, esku artean daukazun au ume-liburua dan ezker, aurgogoi, pentsaerari dagokiozanak bakarrik aldatu ditut”¹²⁴.

Erabilera handikoa izan zen liburua garaiko ikastoletan, eta kritika onak jaso zituen. Hona, Ibiñagabeitiak Onaindiari berari zuzendutako gutun batean idatzitakoa (Ibiñagabeitia/Onaindia, 1991: 221):

Jolasketa benetan izan iat atsegin eta ementxe nabil irakurri ta irakurri ezitan. Lan eder eta bearrezkoa egin dozu geure aurtxo maitientzat; ikastoletarako beintzet oiñarririk bikaiñena iarri dozu, eta zuk iarri oiñari sendo orren inguruan, etxerik apain eta dotoreenak iaso al izango doguz. A zelako olerki, ipuin eta iolas bilduma ederra egin dozun... (...) Zorionak bada, Onaindia maitea, alako lan ederrak ari dozuzalako gure euskera errukariaren alde. (Caracas'tik 1966'gko Dagonillak 2).

Geroago, Juan Anjel Etxebarriaren ekimena eta itzultzaile-kemena ditugu: *Phedro'ren alegiak* (1965, 1966) eta *Esopo'ren alegiak* (1967) argitaratu zituen jatorrizko hizkuntzetatik itzulita, eta ele bitan. Kultura, euskara eta apaizgaien hezkuntza uztartu nahi izan zituen alegiok itzultzean.

Alegiak, beraz, batez ere, ikastoletako haurrentzako irakurgai moduan erabili ziren, eta, neurri batean, herri-folklorearen beste genero narratibo batzuekin batera, Haur eta Gazte Literatura erretzen lagundu zuten.

70eko hamarkadan ikastolek gora bidean jarraitu zuten. Gipuzkoako Ikastolen Federazioa 1969an sortu zen, ikastolen arazo eta premiei erantzun bateratua emateko asmoz. Geroztik, eta xede berdinez, Iparraldeko Seaska (1969), Arabako Federazioa (1974), Nafarroakoa (1976) eta Bizkaikoa (1977) sortu ziren.

Gorako bide horretan, Samaniegoren alegien euskarazko lehen bertsio osoa argitaratu zuen Arabako Aldundiak, Josu Egea itzultzailearen ekimenez (*Alegiak. Fábulas*, 1979). Ele bitan plazaratu zuen, euskaldun berrientzat lagungarri eta ikastolako umeentzat baliagarria izatea helburu.

¹²⁴ Grimm anaiek euren ipuin-bildumaren hitzaurrean adierazi zuten bezal-bezala.

Berrargitalpenen arloan, Martin Goyhetcheren itzulpena dugu (*Fableac edo Aleguiac Lafontenenetariac berechiz hartuac*, 1978), Hordago argitaletxeak klasikoak berreskuratzeko eginiko ahaleginaren emaitza. Baita Jules Moulierren *Alegiak* (1979) ere, Elkar argitaletxearen eskutik.

80ko hamarkadan ofizialtzea eta erakundetzea nabarmendu behar dira euskal gaiari dagokienez. 1980koa dugu UPV/EHUren sorrera. 1982koa, «Euskararen Normalizazioaren Legea» Euskal Autonomia Erkidegoan. ETB urte hartan hasi zen emititzen. 1986koa dugu «Euskararen Foru Legea», Nafarroako Foru Erkidegoan. Halaber, hezkuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak indarrean jarri ziren Hego Euskal Herrian: Eusko Jaurlaritzak 1981. urtean plazaratu zuen Euskal Autonomi Erkidegorako plangintza, eta Nafarroako Gobernuak foru-dekretu batez arautu zituen hizkuntza-ereduak, 1988. urtean, Nafarroako Erkidegoan. Euskara unibertsitatean sartzan hasi zen aro honetan. Nabarmentzekoak, baita ere, aurreko hamarkadaren bukaeran hasitako Euskal Filologiako ikasketak hamarkada honetan garatu izana (Deustuko Unibertsitatea, UPV/EHU), eta Martuteneko Itzultzaileen Eskola (1980). Erakunde garrantzitsu batzuk ere sortu ziren orduan: Euskal Idazleen Elkarte (1983), Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte (1988), Ikastolen Konfederazioa (1988).

Alegiagintzaren arloan, azpimarragarriena da liburu-merkatu finkatzen hasiberrira alegiek jauzi egin izana. Izan ere, Jesusmari Mendizabalek *Alegiak sudur ondoan begiak* (1985) liburua plazaratu zuen. Prosazko bertsio librea izan zen, ipuinen tankeran moldatua, Erein argitaletxeko “Auskalo” haurrentzako narratiba-sailean.

Hamarkada berean, Delphine Lubeten berridazketa-lana dugu: La Fontaineren alegia gutxi batzuk euskaratu zituen *Maiatz* literatura-aldizkarirako (1989).

Berrargitalpenen arloan, honako lan hau dugu: Zabalaren *Fábulas en dialecto vizcaino* (1986).

90eko hamarkada da, adituen ustez, euskal HGL behin betiko finkatutzat jo daitekeen garaia, 80ko hamarkadako bultzada instituzionalari esker indartuta (López Gaseni eta Etxaniz Erle, 2005: 9). Profesionaltze orokor bat gertatu zen euskal letren eremuan. Horretan lagundu zuten, besteak beste, unibertsitateetan hasitako

itzulpengintza masterrek (Deustuko Unibertsitatea, 1990; UPV/EHU, 1991). Argialetxeak sendotu ziren. Liburugintza egonkortu eta espezializatu zen, noraino eta kanpoko argialetxeak erakartzeraino ere. Liburu-kontsumoa hazi egin zen.

Euskal HGLren baitan, eklektikotasuna nabarmendu behar da genero eta gaien aldetik (ibidem: 107). Testuinguru horretan, artean ere, alegiak ditugu, euskal hezkuntzari eta liburu-kontsumoari lotuta.

Didaktika-ekimenen artean nabarmentzekoa da Etxebarria Ayestaren *Gure fabulak bertsoz* (1996). DBHko zein BBBko maila guztietan erabiltzeko liburua da, eta didaktika-ohar ugari ditu.

Ildo berean, urte bat geroago, *Hamaika abere ipuin. Bizkaiko herri-alegiak* lana argitaratu zuten Labayru ikastegikoek, hura ere didaktika-ohar mamitsuekin. Ahozko euskal literatura oinarri, ahozko hizkera aberasteko ekimena izan zen.

Lehen Hezkuntzako zein euskaltegietako ikasleak jomugan zituela, Iñaki Mendigurenek itzulita, Esoporen 50 alegia argitaratu zituen Elkarlanean-ek (*Alegiak*, 1999).

Ikastoletan erabilgarria izateko nahia agertu zuen Koldo Biguri itzultzaileak ere, Arabako Diputazioak, 2003. urtean, plazaratu zion Samaniegoren alegien edizio elebidunean.

Merkatuaren irizpideen baitan, berriz, Manuel Arregik itzulita, *Alegiak haurrentzat* (2000) plazaratu zuen Tarttalo argialetxeak.

Berrargitalpenen arloan, honako edizio hauek ditugu, gehienak irizpide filologikoz eginak: Archuren *La Fontainaren alegia berheziak* (1990), Bizenta Mogelen *Ipuia onak* (1991), Oxobiren *Alegiak eta Poemak* (1992), Leon Leonen *Alegia Deus Ez! Alegiak eta Ipuinak* (1994), Juan Antonio Mogelen *Ipuinak* (1995), Iturriagaren *Alegiak* (1990), Ramon Artolaren *Ipuiak edo kontutxoak* (1995)...

Hamarkada horietan guztietan, hirurogeikoan hasi eta 2003. urtera bitartean, irudidun-alegiak ere argitaratu ziren album formatuan, ipuin klasikoekin batera

bildumak osatuz. Jon Oñatibia izan zen lehena alegia bat modu horretan argitaratzen, 1962an, “Edili” bildumarako.

Halako irudidun-liburuetan hitzek baino garrantzi handiagoa izan ohi dute irudiek, eta irakurleen atsegin estetiko eta interpretazio-ahalmena kitzikatzea dute helburu. Gizartean ikusizko baliabideak garatzearekin batera ugaritu dira halako argitalpenak.

Irudidun-liburu gisa irakaskuntza-materialetako alegiak ere baditugu. Horien artean nabarmentzekoak dira *Haurtxoa* eta *Urtxintxa* proiektuetarako moldatutakoak.

Bai irudidun-liburuetako alegietan bai 80ko eta 90eko hamarkadetako alegia askotan ere, azpimarratzekoa da alegiek jasan duten egitura-aldaketa: tradiziozko ipuingintzako moldeetan ipini dituzte berridazleek alegiak. Beste norabide batzuk ari da hartzen alegiagintza, zenbait gai narratibitate hutsaren altzoan erortzean eta ipuin soil bihurtzean.

Asimilazio-modu hori aurkako norabidean ere gertatu da euskal berridazle baten ekarpenean: ipuinak alegien moldeetan zedarritu zituen Etxebarria Ayestak *Gure fabulak bertsoz* (1996) liburuan. Adibide bakarra da, dena dela, Etxebarria Ayestarena.

Baina, joera asimilatzaile edo berdintzaile horrekin batera, joera eraberritzaileak ere (ikus supra § “II.6. Alegia, azken garaiotan”) garatu dituzte euskal egile batzuek alegien arloan, bai prosan bai olerkian ere¹²⁵.

Hartzaileari dagokionez, umea da hartzaile nagusia epe zabal honetan. Hala ere, hartzaile bikoitzaren auzia adierazten da paratestuetan. Umeak ez ezik, nagusiak ere

¹²⁵ Eraberritze horretan honako egile hauek izan dute ardura, besteak beste: B. Atxaga, J. K. Igerabide, K. Linazasoro, L. Egia, F. Juaristi, J. Ormazabal, P. Añorga...

Hona ale bat, “Mutrikuko trikua” olerkia (1997), Juan Kruz Igerabiderena: “Bazen Mutrikun triku bat / eta hondartzan izan zuen istripu bat. / Sartu zitzaion arantza / sudur zuloan gorantza / haren mediku izan zen bixigu bat”. Fedroren, *Isopeteren*, La Fontaineren eta Samaniegoren tradizioan aurkitu dezakegu hezurra eztarrian trabatu zaion piztiaren alegia (“Vulpes et ciconia”, “del lobo & dela grulla”, “Le Renard et la Cigogne” eta “La zorra y la cigüeña”, egilez egile). Alegia klasiko horiekin kidetasun agerikoak eduki arren, Igerabideren olerkiak tradizioaren eraberritzea dakar, poesiaren eremuan: irakaspen morala baztertuta, umoreari zirrikitu bat zabaldu eta interpretazioa aukeran utzio dio egileak irakurleari.

Ikerketa-ildo bat jorrazteko adina ematen duten lekukoak badira. Baina, tesi honetaz kanpoko ikerketa da, eta beste une baterako utzi beharko.

izan ziren alegien jasotzaile; halaber, euskaldun hutsak ez ezik, euskaldun berriak ere izan zituzten alegia-euskaratzaileek jomuga.

Bestalde, itzultzailearen figura agertu zen alegiak berridazten. Haur literaturan eta literatura-sisteman, oro har, garai honetantxe hasi zen figura hori garatzen. Santiago Onaindiaren lana figura honen erakusgarri da, edizio osorik plazaratu ez bazuen ere, Esoporen alegiak osoki itzultzeko asmoa antzeman baitakioke. Juan Anjel Etxebarriaren ekimena ere itzultzailearen figurari lotzen zaio. Eta, areago, Egearen eta Biguriren itzulpen osoak.

Edozein modutan, gainbehera doan generoa da alegiagintza, eta alegien tradizioa nolakoa izan den ezagutarazteagatik egin ziren alegien berrargitalpen filologikoak 80ko eta 90eko hamarkadetan. Baita Samaniegoren euskal itzulpen osoak ere; Emilio Palaciosen edizioak, esaterako, asmo filologiko nabarmena du.

Laburbilduz, epe honetako alegiagintza euskal irakaskuntzari estuki lotua egon zen hasieratik. Dena dela, aurreko alegialarien asmoen segidatzat hartu behar da irakaskuntzarekiko lotura hori. Izan ere, Euskal Pizkundean ere, alegiak gai politikoetatik eta gizarte-kritika soiletik aldendu eta irakaskuntzara bideratzeko saio batzuk egin zituzten alegia-berridazleek: Altuna Aldasoro, Oxobi eta Leonek, behinik behin.

Edonola ere, kanonari erreparatuta, HGLko bazterreko genero bihurtu zen alegiagintza, batez ere, euskal HGL 90ko hamarkadan egonkortzen hasi zenez geroztik. Lopez Gasenik eta Etxaniz Erlek beren ikerketan (2005: 99-104) adierazi zuten ezen garai horretan bazterturik gelditu zirela behiala ospe hoberik izaniko baserri-giroko kontakizun umoretsuak, eta, aldiz, hiri-giroko eta gizarte-arazoen esparruko gaiak jaso zutela idazleen, adituen eta, oro har, literatura-sistemaren oniritzia.

Hala ere, euskal HGLko periferian egonagatik, alegiek nolabaiteko agerpen zabala izan zuten bai irakaskuntzan bai irudi-libuetan, testimoniala baino handiagoa behintzat. Generoak berezko indar agortezin bat duen seinale.

VI.7.1. Santiago Onaindia “IGOTZ” (1909-1996)

Amoroton jaioa. Karmeldarra. Gazterik hasi zen euskaraz idazten. Gudarien kapilaua. Espainian preso egondakoa. Euskal Herrira etorri ezinda, 1951 arte. *Karmel* eta *Olerti* aldizkarien sortzailea. Euskaltzalea. Batez ere zabalkunde- eta eragile-lanak burutu zituen. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoa. Denek nabarmentzen dizkiote klasikoen itzulpenak eta olerkien bildumak.

Patxi Uribarren euskaltzainak esana da nekez aurki dezakegula Euskal Literaturaren historian “euskarari Aita Santi Onaindiak adineko ekarpen oparorik eman izan dion idazlerik”.

Izan ere, Onaindiaren itzultzaile-lana oparoa izan baitzen: 44 autoreren lanak ekarri zituen euskarara, horien artean, Esoporen alegiak.

Onaindia euskal umeen irakaskuntzari ere lotua egon zen. Bi lan azpimarratu behar zaizkio: lehena, Lopez Mendizabalen *Xabiartxo* bizkaieratzea (1965); bigarrena, *Jolasketa* (1965)¹²⁶. 1960tik 1968ra bitarteko epean Euskal Herrian argitaratu ziren hiru eskola liburuetarik bat izan zen *Jolasketa*. Helburu argia izan zuen Onaindiak liburua prestatzean: euskal umeek euskal folkloreraren altxorra ezagutzea eta euskaraz jolasteko bitartekoak eskaintzea. Asko erabili zen ikastola zabaldu berrietan.

Corpusa eta iturriak

Bost alegia ditugu, 1961 eta 1966 urteen bitartean, Onaindiaren neurtitzen artean, “Olerti” bildumako liburuetan. Alegietako gaiak hartu eta neurtitz tankera eman zien bizkaitar olerkariak, molde eta hizkera aberatsean. Ezin antzeman dakiekeenez iturri klasiko jakinik, hibridotzat hartu ditut bostak.

1966. urtetik aurrera, *Esopo'ren ipuiñak* izenburuarekin, Esoporen alegiak argitaratu zituen Onaindiak. Juan Berguaren gaztelaniazko bertsioa erabili zuen euskarara ekartzeko. Inon aitortzen ez duen arren, erraz atera daiteke ondorio hori,

¹²⁶ Nik neuk umetan biak erabili ditut.

gaztelaniazkoa eta euskarazkoa konparatuz gero, eta bi bertsioren zenbakiei¹²⁷ erreparatuz gero. Bi epetan heldu zion itzulpen lantegi horri.

Lehenengo aldian, 1966-69, Onaindiak berak kudeaturiko “Olerti” bilduman argitaratu zituen alegiak. Lehenengo urtean, 1966an, hogeitazko alegia itzuli zituen eta ondorengo hiru urteetan, 40 alegia urte bakoitzeko. Guztira, beraz, 140 alegia itzuli zituen lehen epe honetan, Berguaren bertsioko lehen 140 alegiak, hain zuzen.

Bigarren aldian, 1980-90, Eusko Ikaskuntzak kudeaturiko *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura* argitalpenean plazaratu zituen alegiak. Hamar ale inguruko alegia-sortatxoa itzuli zuen urtero. Guztira, 88 ale, Berguaren aurkibideko 101. zenbakitik 188rainoko guztiak. Kontuan hartu behar da, hala ere, lehenengo berrogei alegiak aurreko aldiko azken berrogei alegien aldaerak besterik ez direla eta, beraz, ez ditut corpusean sartu. Hizkuntza-aldaketak dira, garbizale-ukitua eman baitzuen alegiei; lehenengo aldikoak, berriz, herri-hizkeratik gertuago daude¹²⁸.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Santi Onaindia “IGOTZ”	“Olerti” bilduma	1961-1966	5 hn	5 hibri
	“Olerti” bilduma	1966-1969	140 hl	188 Eso
	<i>Cuadernos de sección</i>	1980-1990	88 hl	

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ”(1961). “Lugina ta semeak”, *Olerti*, 3. zka., 102-103. **hibri**

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1961). “Oillarra ta azeria”, *Olerti*, 3. zka., 223-224. **hibri**

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1962). “Azeria ta mats-mordoa”, *Olerti*, 4. zka., 61-62. **hibri**

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1962). “Saia ta eperra”, *Olerti*, 4. zka., 62-63. **hibri**

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1966). “Zigoña ta azeria”, *Olerti*, 8. zka., 42-43. **hibri**

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1966). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Dolorezko izarrak* (Colección “Olerti”), Bilbo: [i. g.], 114-125.

¹²⁷ Berguak Chambryren edizioaren araberako Esopo itzuli zuen gaztelaniara. Hala ere, Chambryren numerazioari ez zion estu-estu jarraitu. Izan ere, Chambryren edizioko 19. alegia falta da Berguaren edizioan. Hortaz, Chambryren 20. alegia 19. alegia da Berguaren edizioan, eta horrela bukatu arte, 357.era arte, desfase txiki horrekin. Kontua da Onaindiaren 19. alegia (“Arranoa eta oillar biak”) Berguaren 19. alegia dela (“El águila y los dos gallos”), eta ez Chambryrena (“Αἰσώπος ἐν ναυπηγίῳ”).

¹²⁸ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

[“On-gaitzak” **Eso 1.** “Iduri-saltzaillea” **Eso 2.** “Arranoa eta azeria” **Eso 3.** “Arranoa eta kakarraldoa” **Eso 4.** “Arrano, artzaiña eta belabaltza” **Eso 5.** “Arrano egamotxa ta azeria” **Eso 6.** “Geziak zaurituriko arranoa” **Eso 7.** “Urretxindorra eta arraia” **Eso 8.** “Urretxindorra eta elaiia” **Eso 9.** “Atenas’ko zorduna” **Eso 10.** “Baltza” **Eso 11.** “Oillarra eta ogi-gaztaia” **Eso 12.** “Katua eta saguak” **Eso 13.** “Musterla eta oilloak” **Eso 14.** “Auntza eta auntzaiña” **Eso 15.** “Auntza eta astoa” **Eso 16.** “Auntzaiña eta basauntzak” **Eso 17.** “Mirabe motza eta Aprodite” **Eso 18.** “Arranoa eta oillar biak” **Eso 20.** “Eperra eta oillarrak” **Eso 21.**]

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1967). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Itzartze* (Colección “Olerti”), Bilbo: [i. g.], 86-96.

[“Arrantzaleak eta atuna” **Eso 22.** “Arriak artu ebezan arrantzaleak” **Eso 23.** “Arrantzale txirularia” **Eso 24.** “Arrantzalea ta arrain aundi ta txikiak” **Eso 25.** “Arrantzalea eta arraintxoa” **Eso 26.** “Arrantzalea ibai nasian” **Eso 27.** “Martin-txoria” **Eso 28.** “Azagariak Meander ertzean” **Eso 29.** “Bere sabela bete eban azeria” **Eso 30.** “Lukia eta laparra” **Eso 31.** “Azeria eta mats-mordoak” **Eso 32.** “Azeria eta sugea” **Eso 33.** “Azeria eta egurgiña” **Eso 34.** “Azeria eta ibai-muskerra” **Eso 35.** “Azeria eta txakurra” **Eso 36.** “Azeria eta leoi-nabarra” **Eso 37.** “Azeria eta tximiño erregea” **Eso 38.** “Tximiñoa ta azeria” **Eso 39.** “Azeria eta akerra” **Eso 40.** “Azeri buztan-motxa” **Eso 41.**]

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1967). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Geldi ta itsu* (Colección “Olerti”), Bilbo: [i. g.], 103-112.

[“Leoirik ikusi bako azeria” **Eso 42.** “Azeria eta arpegi-ordekoa” **Eso 43.** “Gizon bi jainkoetzaz etiketan” **Eso 44.** “Iltzaillea” **Eso 45.** “Eziña eskiñi” **Eso 46.** “Koldarra eta belak” **Eso 47.** “Gizona eta txiñurria” **Eso 48.** “Andra ezigaitza” **Eso 49.** “Malmutza” **Eso 50.** “Arroputza” **Eso 51.** “Buru-zuria eta maitaleak” **Eso 52.** “Itxasoan galdua” **Eso 53.** “Itsua” **Eso 54.** “Zaplandaria” **Eso 55.** “Ikazgiña eta illargiña” **Eso 56.** “Gizonak eta Zeus” **Eso 57.** “Gizona ta luki-emea” **Eso 58.** “Gizona eta leoia, bidez-bide” **Eso 59.** “Gizona eta eztenkaria” **Eso 60.** “Gizona eta irudia” **Eso 61.**]

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1968). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Bakardade* (Colección “Olerti”), Bilbo: [i. g.], 105-114.

[“Gizona eta urrezko leoia” **Eso 62.** “Artza eta azeria” **Eso 63.** “Lugiña eta otsoa” **Eso 64.** “Izarlarria” **Eso 65.** “Igelak errege eske” **Eso 66.** “Auzoko ugarazioak” **Eso 67.** “Igelak eta ur-arka agortua” **Eso 68.** “Igel osagillea eta azeria” **Eso 69.** “Ardatza eta idiak” **Eso 70.** “Iru idi eta leoia” **Eso 71.** “Erkul eta beizaiña” **Eso 72.** “Ipar-aizea eta eguzkia” **Eso 73.** “Leoia eta beizaiña” **Eso 74.** “Saguzarra eta kardantxilloa” **Eso 75.** “Katemea eta Aporodite” **Eso 76.** “Ogi-gaztaia eta karraka” **Eso 77.** “Agurea eta eriotza” **Eso 78.** “Lugiña eta arranoa” **Eso 79.** “Nekazaria eta txakurrak” **Eso 80.** “Lugiña eta sugea” **Eso 81.**]

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1968). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Uhaina* (Colección “Olerti”), Bilbo: [i. g.], 122-131.

[“Lugiña eta larrangilla” **Eso 82.** “Lugiña eta bere semeak” **Eso 83.** “Lugiña eta Zoria” **Eso 84.** “Lugiña eta zugatza” **Eso 85.** “Lugiñaren semeak alkar aitu-eziñik” **Eso 86.** “Atsoa eta osagillea” **Eso 87.** “Emaztea eta senar mozkortia” **Eso 88.** “Alarguna eta

neskameak” **Eso 89.** “Emakumea eta oilloa” **Eso 90.** “Sorgiña” **Eso 91.** “Idia eta bigantxa” **Eso 92.** “Eiztari bildurtia eta egurgina” **Eso 93.** “Txarria eta aariak” **Eso 94.** “Izurdak, balea eta berdela” **Eso 95.** “Demades izlaria” **Eso 96.** “Diojenes eta buru-soilla” **Eso 97.** “Diojenes, bidez bide” **Eso 98.** “Zeus eta aretxak” **Eso 99.** “Egurkariak eta piñua” **Eso 100.** “Izaia eta elorria” **Eso 101.**]

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1969). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Udaberri* (Colección “Olerti”), Bilbo: [i. g.], 108-117.

[“Oreina, ur-jaiotza ta leoia” **Eso 102.** “Orein emea eta mastia” **Eso 103.** “Orein emea eta leoia artzulo batean” **Eso 104.** “Basauntz bepakarra” **Eso 105.** “Aumea eta azeria” **Eso 106.** “Aumea eta azeri txistularia” **Eso 107.** “Ermes eta irudigiña” **Eso 108.** “Ermes eta lurra” **Eso 109.** “Ermes eta Tiresias” **Eso 110.** “Ermes eta edergillea” **Eso 111.** “Ermes’en burdia eta arabitarrak” **Eso 112.** “Irendua eta apaiza” **Eso 113.** “Aerio biak” **Eso 114.** “Suge-gorria eta azeria” **Eso 115.** “Zigolaztia eta karraka” **Eso 116.** “Larrangilla eta ur-sugea” **Eso 117.** “Zeus eta begirunea” **Eso 118.** “Zeus eta azeria” **Eso 119.** “Zeus eta gizonak” **Eso 120.** “Zeus eta Apol” **Eso 121.**]

ONAINDIA, Santiago “IGOTZ” (1969). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Gaztañadi* (Colección “Olerti”), Bilbo: [i. g.], 52-61.

[“Zeus eta sugea” **Eso 122.** “Zeus eta ondasunen upa” **Eso 123.** “Zeus, Prometeu, Atene ta Momu” **Eso 124.** “Zeus eta turtua” **Eso 125.** “Zeus epaikari” **Eso 126.** “Eguzkia eta igelak” **Eso 127.** “Mandemea” **Eso 128.** “Erkul eta Atene” **Eso 129.** “Erkul eta Pluton” **Eso 130.** “Jainkotxua” **Eso 131.** “Zimarroia eta izurdea” **Eso 132.** “Osagille ez-jakiña” **Eso 133.** “Osagillea eta gaixoa” **Eso 134.** “Mirua eta sugea” **Eso 135.** “Irrintzi egin nai izan eban mirua” **Eso 136.** “Txori-eiztaria eta sugedorria” **Eso 137.** “Zaldi zarra” **Eso 138.** “Zaldia, idia, txakurra eta gizona” **Eso 139.** “Zaldia eta jagolea” **Eso 140.** “Zaldia eta astoa” **Eso 141.**]

ESOPO (1984). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*, itzul.: Jakoba Onaindia “IGOTZ”, Zarautz: Itxaropena, 249-252.

[“Zaldia eta gudaria” **Eso 142.**]

ESOPO (1985). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*, itzul.: Jakoba Onaindia “IGOTZ”, Zarautz: Itxaropena, 217-221.

[“Kañabera eta Olibua” **Eso 143.** “Ibaian gorotz egiten eban gamelua” **Eso 144.** “Gamelua, elefantea eta tximinoa” **Eso 145.** “Zeus eta gamelua” **Eso 146.** “Gamelu dantzaria” **Eso 147.** “Gamelu leenengox ikusia” **Eso 148.** “Kakarraldo biak” **Eso 149.** “Karramarrua eta azeria” **Eso 150.** “Larrapotea eta bere ama” **Eso 151.** “Intxaur-ondo” **Eso 152.** “Kastorea” **Eso 153.** “Baratzaiña eta ortuariak” **Eso 154.** “Baratzaiña eta txakurra” **Eso 155.** “Kitara jotzaillea” **Eso 156.** “Zozoa” **Eso 157.** “Lapurrak eta oillarra” **Eso 158.** “Urdailla eta oiñak” **Eso 159.**]

ESOPO (1988). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*, itzul.: Jakoba Onaindia “IGOTZ”, Zarautz: Itxaropena, 309-313.

[“Belabaltza eta luki-emea” **Eso 160**. “Belatxinga ta belak” **Eso 161**. “Belatxinga ta egaztiak” **Eso 162**. “Belatxinga ta usakumak” **Eso 163**. “Belatxinga igeslaria” **Eso 164**. “Belea ta luki-emea” **Eso 165**. “Hermes eta belea” **Eso 166**. “Belea ta sugea” **Eso 167**. “Belea gaixorik” **Eso 168**. “Larratxori gangarduna” **Eso 169**. “Belatxinga ta belea” **Eso 170**. “Belatxinga ta txakurra” **Eso 171**. “Marraskilloak” **Eso 172**. “Kisne antzartzat artua” **Eso 173**. “Kisnea ta bere ugazaba” **Eso 174**. “Txakur biak” **Eso 175**. “Txakur gosetiak” **Eso 176**.]

ESOPPO (1990). “Esopo’ren ipuiñak”, in *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*, itzul.: Jakoba Onaindia “IGOTZ”, Zarautz: Itxaropena, 164-168.

[“Gizon txakur batek aginkatua” **Eso 177**. “Sukaldaria eta txakurra” **Eso 178**. “Prantzes-txakurra eta beronen lagunak” **Eso 179**. “Txakurra, oillarra ta lukia” **Eso 180**. “Txakurra eta txirlea” **Eso 181**. “Txakurra eta erbia” **Eso 182**. “Txakurra eta arakiña” **Eso 183**. “Txakur loak artua eta otsoa” **Eso 184**. “Txakurra eta gerizpea” **Eso 185**. “Txakurra arranaz” **Eso 186**. “Txakurra leoiari jarraika” **Eso 187**. “Leoia eta eltxoa” **Eso 188**. “Zezena eta eltxoa” **Eso 189**.]

VI.7.2. Juan Anjel Etxebarria Martin “DIRAUKET” (1934-1996)

Santurtzikoa, euskaldun berria, euskara irakaslea, eliza-karrera egin, eta gero eliza utzi zuen. Euskaltzain urgazlea. Andima Ibiñagabeitiak idazle sena nabarmenduz: “idazle gazteen artean langileena, baita punterengoena ere”, Karakasko *Eman* aldizkarian.

Kultura klasikoa ezagutzera emateko asmoarekin, *Excerpta* aldizkaria sortu zuen, eta greziar eta latindar autoreen lanak argitaratu zituen bertan.

Ildo beretik, alegiak itzultzeari ekin zion hirurogeiko hamarkadan. Fedro eta Esopo itzuli zituen euskarara, edizio elebidunetan atonduta. Fedroren hiru liburu argitaratzeko asmoa izan zuen; bi baino ez zituen argitaratu, ordea. Hirugarrena, zergatik ez dakigula, iragarri bai, baina ez zen plazaratu.

Fedroren lehen liburua 1965ean argitaratu zuen, “lateratik euskeratuta”. Euskarazko bertsoak eta latinezkoak parez pare jarri zituen. Hitzaurrea, 11 alegia eta epilogoak edo azken-hitza ditu liburuak. Alegien helburuaz jardun zuen hitzaurrean: “Zillegizti-esparrukoak diran egiak izakien ta gizakien bidez sentiaraztea. Ta irakaslanetan diardugun ezker, onuraz batera atsegiña ere ematea”.

Liburu horretan itzultzaile-kontzientzia argia adierazi zuen Etxebarriak. Ordura arteko alegia-berridazleek ez bezalako estrategiak erabili zituela utzi zigun idatzirik

(1965: 4): latinetik zuzen-zuzenean euskaratzen ahalegindu zela, hots, zuzen lotu zitzaiola jatorrizkoari, Bizenta Moglek eta Iturriagak ez bezala, askotan beren gisara ondu baitzituzten beren alegia ederrak.

Fedroren alegien bigarren liburua hurrengo urtean agertu zen, aurreko liburuaren formatu berean. Hitzaurrea dakar; baita hamar alegia latinez eta euskaraz, hitz neurtuetan emanak, eta latin-euskara hiztegitxo bat ere. Alegion beharra aitzakiatu zuen Etxebarriak adieraziz ezen alegiek, artean ere, bazutela “mamiña gaurko lurtarrantzat” eta irakurleak alegion esanetan aurkitu zezakeela euskarria “eguneroko olatuen artean buru-zut ibiltzeko”.

Alegiak ziri-bertsoekin konparatu zituen. Izan ere, Martzialen ziri-bertsoak itzuli zituen garai hartan. Ziri-bertsoek pertsona baten izaera eta kontuak agertu ohi dituzte eta irakurlea ohartarazten dute haren akatsetan ez erortzeko; alegiek, ostera:

...ba-dirudi [...] notin edo abere bat eredutzat arturik esaten dautsela irakurleai: ara nolakoak izaten zarien batzutan. Zentzatu zaitez berandu baiño len. Ta ez zaitez gehiago jausi lengo akatsetan. (Etxebarria, 1966: 4)

1967an, bestalde, Esoporen 11 alegia itzuli zituen, “gerkeratik”. Hitzaurrea idatzi zuen Etxebarriak; ondoren alegiak, euskaraz; gero, grezieraz. Alegien baliagarritasunari buruzko ohiko jakingarriak eman zituen. Hala, bada, Esoporen alegiak umeen heziketarako erabiltzen zirela diosku, “alegiak adimenari ta irudimenari pozgarri ta asegarririk asko emoten dautsie-ta” (Etxebarria, 1967: 4). Halaber, alegietako ikaskizuna dela alegien benetako mamia. Irakaspen horiek lehor eman beharrean “bizi-bizi ta alai” ematen dituztela alegiek (ibidem: 5).

Gainera, bere ahalegina eta lana justifikatzeko, kultura eta euskara jarri zituen jomugan: kultura, “gure apaizgai gazteak baserritik urten ta Salamanka’ra joan barik kulturadun erriak ezagutu dagiezan”; euskara, “gure Errauzkiñe gaixoak zibilizaziñoaren babespean, behintzat, ats-alditxo bat izan dagian, «stulta latiniparlakoak» emondako estu-aldien artean” (ib.: 7)¹²⁹.

¹²⁹ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak

Corpusa eta iturriak

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Juan Anjel Etxebarria "DIRAUKET"	<i>Phedro'ren alegiak</i>	1965	11 hn	21 Fe 11 Eso
	<i>Phedro'ren alegiak II</i>	1966	10 hn	
	<i>Esopo'ren alegiak</i>	1967	11 hl	

ETXEBARRIA, Juan Anjel (1965). *Phedro'ren Alegiak I*. Bilbo: Verdes.

[“Beia, antxumea, ardia ta leoia” **Fe I-5**. “Igelak eguzkiari buruz” **Fe I-6**. “Azeriak antzerki-mozorroari” **Fe I-7**. “Astoak asto-zain zarrari” **Fe I-15**. “Txakur Gosetiak” **Fe I-20**. “Azeria ta arranoa” **Fe I-28**. “Igelak zezen-liskarren beldur” **Fe I-30**. “Sokrates lagunekiko” **Fe III-9**. “Zezena ta txekorra” **Fe V-9**. “Ollarra oe-burdian katuak eroanda” **Fe Perotti-18**. “Artzaina eta auntza” **Fe Perotti-24** .]

ETXEBARRIA, Juan Anjel (1966). *Phedro'ren Alegiak II*. Bilbo: Verdes.

[“Ibaian igerika aragia eroan txakurra” **Fe I-4**. “Igel lertua ta idia” **Fe I-24**. “Txakurrak eta ibai-muskerrak” **Fe I-25**. “Esopo'k berba-lapikoari erantzun” **Fe III-19**. “Astoa ta Galiarrak” **Fe IV-1**. “Azeria ta matsa” **Fe IV-3**. “Sugea erementariarenean” **Fe IV-8**. “Sugea: erruki kaltegarria” **Fe IV-20**. “Mendia aurdun” **Fe IV-24**. “Artza gosez” **Fe Perotti-22** .]

ETXEBARRIA, Juan Anjel (1967). *Esopo'ren Alegiak I*. Bilbo: S. Anton'go Katekesia.

[“Intxaurrondoa” **Eso 152**. “Otxoa ta artzaiñak” **Eso 229**. “Astoa leoi-narruagaz” **Eso 267**. “Belea” **Eso 168**. “Piñua” **Eso 100**. “Zaldia ta morroia” **Eso 140**. “Txitxarra ta iñurriak” **Eso 336**. “Iñurria ta usoa” **Eso 242**. “Baserritarra ta bere semeak” **Eso 83**. “Idiak eta burdi-ardatza” **Eso 70**. “Artzaiña ta otsokoa” **Eso 315** .].

VI.7.3. Josu Egea Otxoa de Angiozar (19--)

Arabar euskalduna. Institutuko irakasle katedraduna, Gasteizen. Samaniegoren alegia guztiak itzuli zituen 1979an, eta argitalpen elebidun batean kaleratu zizkion Arabako Aldundiak. Samaniegoren alegien euskarazko lehen bertsio osoa izan zen: Egeari barkaezina iruditzen zitzaion Samaniegoren alegia-bilduma, gure herriaren harribitxi hura, oso-osorik euskarara itzulita ez egotea. “Euskera amari” eskaini zion liburua, “bihotz-bihotzez”.

Egeak liburuaren hartzailea nor zen adierazi zuen hitzaurrean: ”Ikastoletako umientzat irakurgai egoki izango lirake-ta”, liburua itzultzeko eskatu zion Ixidor Baztarrika adiskide eta liburuaren sustatzaileak. Ildo berean, Ixidor Baztarrikak umeentzako euskal liburuak ekoizteko premia nabarmendu zuen “Irakurleari” atalean:

“Haurrentzat egindako euskal liburuen behar handia dago oraindik, bestalde haurrek oso maite dituzte honelako irakurgaiak”.

Ikastoletako umeak ez ezik euskaldun berriak ere jo zituen hartzailetzat Egeak: “Alegia bakoitzaren beian, zati zailleen azalpe bat ematea, gauzik egokiena dala uste dut. Olan, egonarri ta aldia galdu barik, ikastoletako neska-mutillek eta euskaldun berriek, erosotasun aundiaz, ikas lezakete askoz obeto”.

Horren haritik, hartzaile bikoitzaren auzia agertu zuen geroago:

...eta irakurgai onuragarri izan dira beti umedientzat bereziki; baiña baita adiñekook, aiek irakurtzen poz-atsegiñez, zerbait ikas genezake: BEREN IRAKASPENAK BETIKOAK BAITIRA.

Liburuaren aurkezpenean Egeak adierazi zuen ele bitan kaleratu zuela, argitalpenaren helburua zelako “ayudar a la gente en el esfuerzo nacional de recuperar nuestra lengua” (*El País*, 1980/02/17).

Corpusa eta iturriak

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Josu Egea	<i>Alegiak. Fábulas</i>	1979	157 hn	157 Sam

SAMANIEGO, Félix María de (1979). *Alegiak. Fábulas*. Itzul.: Josu Egea. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

[“Ganorabako ta Zorion” **Sam I-3**. “Astotxoa ta txerriak” **Sam I-1**. “Azeria ta bustua” **Sam I-7**. “Txitxarra ta txindurria” **Sam I-2**. “Gizonak leoia menderatuten” **Sam I-6**. “Arranoa ta kakalardo” **Sam I-5**. “Galeperra (Pozpoliña)” **Sam I-4**. “Jauregiko sagua ta kanpokoa” **Sam I-8**. “Suarotza ta txakurra” **Sam I-9**. “Sugea ta karraka” **Sam I-17**. “Azeria ta amianoa” **Sam I-10**. “Euliak” **Sam I-11**. “Leoinabarra ta tximuak” **Sam I-12**. “Oreiña xirripan” **Sam I-13**. “Leoia ta azeria” **Sam I-14**. “Lurgiña ta amianoa” **Sam I-16**. “Oreine-
mea ta oreinkumea” **Sam I-15**. “Adiskide bi ta artza” **Sam I-19**. “Leoia ta bere gudaloztea” **Sam II-1**. “Arranoa, katemea ta basurde-emea” **Sam I-20**. “Asto zentzuduna” **Sam II-3**. “Aitona ta eulia” **Sam I-18**. “Esneduna” **Sam II-2**. “Arranoa, belamika ta xaberama” **Sam II-5**. “Geziz zauritu txoria” **Sam II-8**. “Otsoa ta amianoa” **Sam II-6**. “Baserritarra ta sugea” **Sam II-7**. “Artzaitxoa ta ardiak” **Sam II-4**. “Arraitxoa ta arrantzalea” **Sam II-9**. “Txoarrea ta erbia” **Sam II-10**. “Berritxuak” **Sam II-12**. “Jobe ta xaberama” **Sam II-11**. “Mirua ta usoak” **Sam II-13**. “Ugaraixo (Igel) biak” **Sam II-14**. “Igelak errege eskatzen” **Sam II-16**. “Mendien umatzea” **Sam II-15**. “Astoa ta zaldia” **Sam II-17**. “Artxoa ta otsoa” **Sam II-18**. “Auntzak eta akerrak” **Sam II-19**. “Zaldia ta oreiña” **Sam II-20**. “Arranoa ta erroia” **Sam III-1**. “Abereak izurriz” **Sam III-2**. “Mirua gaixorik” **Sam III-3**. “Saguen batzarra” **Sam III-8**. “Leoia zaartuta” **Sam III-4**. “Azeria ta oilloa” **Sam III-5**. “Igoa ta leoia” **Sam III-6**. “Leoia maitemindua” **Sam III-7**. “Otsoa ta ardia” **Sam III-9**. “Gizona ta kukusua” **Sam III-10**. “Belea ta sugea” **Sam III-11**. “Astoa ta ugaraixoak

(igelak) **Sam III-12**. “Eiztaria ta eperra” **Sam IV-3**. “Astoa ta txakurra” **Sam III-13**. “Legoia ta astoa eizean” **Sam III-14**. “Barritsua ta baserritarra” **Sam III-15**. “Tximiño alketua” **Sam IV-1**. “Gizon zarra ta eriotza” **Sam IV-4**. “Jobe ta astoa” **Sam IV-2**. “Osagillea ta gaixoa” **Sam IV-5**. “Azeria ta matsak” **Sam IV-6**. “Igoa ta maastia” **Sam IV-7**. “Astoa erlikiz zamatua” **Sam IV-8**. “Mandar biak” **Sam IV-9**. “Eiztaria ta txakurra” **Sam IV-10**. “Xaberrama ta arranoa” **Sam IV-11**. “Erbiak eta igelak” **Sam IV-13**. “Leoia ta sagua” **Sam IV-12**. “Gizona ta erbiñudea” **Sam IV-19**. “Oillarra ta azeria” **Sam IV-14**. “Erbiñudeak eta saguak burrukatzen” **Sam IV-20**. “Leoia ta auntza” **Sam IV-15**. “Artzaiak ta yaguara” **Sam IV-17**. “Aizkora ta kirtena” **Sam IV-16**. “Belatxinga arranditsua” **Sam IV-18**. “Oreiña ta idiak” **Sam IV-22**. “Leoia ta igela” **Sam IV-21**. “Uarra ta ibaia” **Sam IV-24**. “Itxas-bidaztiak” **Sam IV-23**. “Katua ta saguak” **Sam V-1**. “Leoia, otsoa ta azeria” **Sam IV-25**. “Astoa ta otsoa” **Sam V-2**. “Urrezko arrautzak egiten zituan oilloa” **Sam V-6**. “Astoa ta zaldia” **Sam V-3**. “Ugarri egarriak” **Sam V-8**. “Lurgiña ta Goikoaren ardura” **Sam V-4**. “Astoa leoi narruaz jantzia” **Sam V-5**. “Txangurruak” **Sam V-7**. “Errena ta barraban bat” **Sam V-10**. “Belea ta azeria” **Sam V-9**. “Burzaiña ta Erkules” **Sam V-11**. “Azeria ta akerra” **Sam V-12**. “Katama andrea” **Sam V-16**. “Otsoa, azeria ta tximu epaillea” **Sam V-13**. “Txakur meia ta otsoa” **Sam V-18**. “Oillar biak” **Sam V-14**. “Satandrea (Erbiñudea) ta saguak” **Sam V-24**. “Tximua ta azeria” **Sam V-15**. “Leointsa ta artza” **Sam V-17**. “Ardia ta oreiña” **Sam V-19**. “Zorrotoa” **Sam V-20**. “Zorigabeko astoa” **Sam V-21**. “Basurdea ta azeria (lukia)” **Sam V-22**. “Txakurra ta kokordilloa” **Sam V-23**. “Artzaiña ta filosofua” **Sam VI-1**. “Otsoa ta txakurra” **Sam V-25**. “Gizona ta mamua” **Sam VI-2**. “Basurdea ta aaria” **Sam VI-3**. “Azeria, andra, ta oillarra” **Sam VI-4**. “Filosofua ta bordaria” **Sam VI-5**. “Indi-oilloa ta iñurria” **Sam VI-6**. “Gaisoa ta mamua” **Sam VI-7**. “Ganbelua ta arkakusoa” **Sam VI-8**. “Txerria, auntza ta aaria” **Sam VI-9**. “Leoia, katamotza ta bidaria” **Sam VI-10**. “Erioa edo balbea” **Sam VI-11**. “Eros eta Erotasuna” **Sam VI-12**. “Leointsaren illeta” **Sam VII-2**. “Aseri gaisoa” **Sam VII-1**. “Olerkaria ta larrosa” **Sam VII-3**. “Tximinoia edo Tximua” **Sam VII-5**. “Untza (Gautxoria) ta gizona” **Sam VII-4**. “Iñurriak (edo Txingurriak)” **Sam VII-8**. “Esopo ta atenaitarra” **Sam VII-6**. “Akerra bizar-moztua” **Sam VII-12**. “Demetir eta Menander” **Sam VII-7**. “Arranoa ta abereen biltzarra” **Sam VII-10**. “Katu kezkatia” **Sam VII-9**. “Usoa” **Sam VII-11**. “Simonides’en ondoratzea” **Sam VIII-1**. “Filosofua ta kukusua (edo ardia)” **Sam VIII-2**. “Eiztaria ta untxiak” **Sam VIII-3**. “Oskigille (Oskigin, Zapatari) osagillea” **Sam VIII-5**. “Filosofua ta baso-oillarra (edo nauder)” **Sam VIII-4**. “Maiñaria (Saguzarra) ta erbiñudea” **Sam VIII-6**. “Aiñaria (Tximeleta) ta marraskilloa” **Sam VIII-7**. “Eskuzkari bi” **Sam VIII-8**. “Azeria (Lukia) ta txakurra” **Sam VIII-9**. “Katua ta egaztiak” **Sam IX-1**. “Artzai-dantza” **Sam IX-2**. “Txakur bi” **Sam IX-3**. “Menta (Arrakasta, Moda)” **Sam IX-4**. “Otsoa ta artzai-ora” **Sam IX-5**. “Aitona ta salerostuna” **Sam IX-7**. “Estitxu ta izpillua” **Sam IX-6**. “Katama txiliñaz” **Sam IX-8**. “Artzaiña” **Sam IX-13**. “Urtxindorra ta mozolloa” **Sam IX-9**. “Eiztaria ta katua” **Sam IX-12**. “Zozo txistularia (xirularia)” **Sam IX-14**. “Nagusia ta txakurra” **Sam IX-10**. “Lapurra” **Sam IX-17**. “Filosofu gaztea ta bere lagunak” **Sam IX-18**. “Azeria ta otsoa” **Sam IX-15**. “Uritar artzaia” **Sam IX-16**. “Elefantea, zezena ta beste abereak” **Sam IX-19**. “Eiztari biak” **Sam IX-11**.]

Testu mailako azterketa

Objektuak eta izakiak. Erreferenteak aldatu edo egokitu zituen askotan, ziur asko errima eta neurria gorde beharrak eraginda: alguna gente/andre-nagusiak (Sam 59, Eg 15); grano de trigo/ogi-ale (Sam 62, Eg 2); nuevo profesor/atxeter berria (Sam 135, Eg 109); calabazas, melones/zenbait obari: kuia, meloi, luzker, ta zitu ugari (Sam 137,

Eg 113); perdices y pichones/egazti bikaiñak (Sam 220, Eg 197); soldado/lejoiko bat (Sam 215, Eg 197)...

Izen-sintagmak bakundu zituen, adjektiboak kenduz: liebre infeliz/erbia (Sam 62, Eg 19); Águila altanera/arranoa (Sam 63, Eg 19); el triste huido/otsoa (Sam 135, Eg 109); buen jumento/lagun (Sam 135, Eg 109)...

Sinesmenak. Jainkoa agertzeko berariazko gogoia erakutsi zuen arabar berridazleak “Lurgña ta Goikoaren ardura alegian”, gaztelaniazko *Providencia*, antonomasiar, hala ulertu behar bada ere:

<p>[Ø] Aquí la Providencia Manifestarle quiso Que supo a cada cosa Señalar sabiamente su destino. Sam 138</p>	<p>Jaunari eskerrak ematen laztanki ta egi onek siñistuten sendoki. JAINKOAREN ARDURA, JAKITUNENA, GIZA-ONGIAREN BILLA DABILLENA BAITA BIZI DIREANEN GUZIENA. Eg 113</p>
---	--

Kontzeptuak. Ohitura-irudi batez jantzi zuen, adibide honetan, alegia-sarrera, euskal kolorea emateko:

<p>[Ø] Picaba impertinente En la espaciosa calva de un anciano... Sam 74</p>	<p>Pagadi bean, zelaia Zelai erdian, etxea. Etxe-atean, aitona aizea artzen... Udara... Bero larregi. Sargori... Au bai txirene! Txapela kentzen du aitona! Darakus buru soildua, dirdaitsu, zuri-zuria... Ba-dator euli petrala... Eg 39</p>
--	---

Denboran eta espazioan kokatu zituen alegiok, euskal paisaiaren irudi bukolikoa erantsiz, alegia hauei:

<p>[Ø] Un pájaro inocente Herido de una flecha Guarnecida de acero Y de plumas ligeras... Sam 85</p>	<p>Txori ta oianaz Erdi Aroan Euskal-Erria beteta zegoan. Lumatxo ta altzairuztatu geziaz, Gaizki zauritu txori batek, inkaz... Eg 43</p>
<p>[Ø] De la rama de un árbol... Sam 161</p>	<p>Baserri bat... Euskalerrian gaude... Inguruan, zumar zaarrak daude... Zuaitz baten besangan... Eg 137</p>

Izen bereziak. Pertsona-izenak eta pertsonaia-izenak itzultzeko garaian Egeak ez zuen estrategia bateraturik erabili. Batzuetan, egokitu egin zituen: Pedro Ponce el valeroso/Peru Goñi, gizon ausartia (Sam 212, Eg 207); Juan Carranza el prudente/Jone, lagun zuurra (Sam 212, Eg 207); Pedro Fernández/OIANDARRA (Sam 139, Eg 113); Anarda la bella/Estitxu polita (Sam 205, Eg 187). Bestetan, ordain literala eman zuen: Demetrio y Menandro/Demetir eta Menander (Sam 178, Eg 159); Demetrio el

Faleriano/Demeter Falerotarra (Sam 178, Eg 159); Simónides/Simonides (Sam 185, Eg 163). Beste batzuetan, aldiz, ezabatu zituen: Esopo/Ø (Sam 62, Eg 19); Amiclas el barquero/Ø (Sam 82, 37).

Geografia-izenak eta geografia-izenekin lotutakoak itzultzeko garaian ere ez du estrategia bateraturik erakusten. Batzuetan, eman egin zituen: queso fresco de Holanda/olandar gazta berri (Sam 65, Eg 21); monas de Tetuán/Tetuan'go tximuak (Sam 68, Eg 27); Nilo/Nilo (Sam 152, Eg 129). Bestetan, ezabatu egin zituen: Calabria/Ø (Sam 82, Eg 37); toro de Jarama/zezen bat (Sam 222, Eg 203). Inoiz, Euskal Herriko geografia-izenak ipini zituen, alegia naturalizatu nahian: Ø/Euzkadi'ko pagadi batean (Sam 72, Eg 33); Ø/Auñamendiko ibar batean (Sam 82, Eg 47); Ø/Miñao Txiki (Sam 116, Eg 85); Ø/Gasteiz'ko Erreka-Txiki'an (Sam 141, Eg 111); Ø/Naparra'ko iper-aldia (Sam 149, Eg 121). Baita alegia zehatzago kokatu nahian ere: Un señor león andaba.../Afrika'n aldetik leoia dabil... (Sam 123, Eg 97).

Mitologia-izenak itzultzean ere ez zuen estrategia bateraturik erabili. Batzuetan ezabatu zituen: Marte/Ø (Sam 81, Eg 37); Júpiter/Ø (Sam 221, Eg 203); la diosa Ceres/Ø (Sam 73, Eg 31). Bestetan egokitu, jainko-izaera aldatu gabe: Júpiter/Jobe (Sam 63, Eg 19); pastora Nise/Nisan (Sam 217, Eg 201). Edota, bestela, jainko-izaera aldatuta edota izengoiti mundutarra emanda: Bato/Katxo (Sam 200, Eg 181). Bestetan, berdin-berdin eman zuen: Mopso/Mopso (Sam 217, Eg 201); Morfeo/Morfeo (Sam 209, Eg 191).

Animalien izenak egokitu zituen, oro har: Marramaquiz/Gorritzta (Sam 133, Eg 105); Roepán/Ogizale (Sam 133, Eg 105); Sultán/IRU (Sam 201, Eg 181); Pinto/TONI (Sam 201, Eg 181).

Paremiak. Era askotako estrategiak erabili zituen halako esapideak itzultzeko. Hitzez hitz ematen saiatu zen gehienetan. Literal samar itzuli zituen, esaterako, gaztelaniazko esapideok, euskal paremia baliokideak erabiltzea baztertuz:

Es el peor enemigo el que aparenta No poder causar daño; porque intenta, Inspirando confianza, Asegurar su golpe de venganza. Sam 69	ARERIORIK TXARRENA KALTEGABE ITXURADUNA: USTE OSOA PIZTUTZEN TA APENTZA DU ZIURTZEN. Eg 27
Quien pretende sin razón Al más fuerte derribar, No consigue sino dar Coces contra el aguijón. Sam 74	ZIO BARIK SENDOENA AZPIRATU LEIATZEA, KAIÑA UTSALKI OSTIKATZEA... Eg 23

Nada teme perder quien nada tiene.	EZ DAUKANAK EZEBEZ, GALTZEKO BELDURRIK EZ. Eg 37
No tiene juicio Quien deja el propio por ajeno oficio. Sam 136	BERTZEN BEARGINTZA ARTZEA TA NORBERARENA UZTEA, SEN-URRIKO EZAUBIDEA. Eg 109
El que tiene de vidrio su tejado, Esto logra de bueno Con tirar las pedradas al ajeno. Sam 195	BERIÑ-EGATZ EUKITZEN, BERTZENA ARIKATZEN, AUXE BETI DA LORTZEN. Eg 173

Edozelan ere, batzuetan –oso gutxitan– euskal paremia baliokide berdin-berdina eman zuen:

Y que vale por dos el prevenido. Sam 152	GIZON GERTUAK BI BESTE BALIO DU ¹³⁰ . Eg 129
Quien malas mañas ha... Sam 173	“OITURA GAIZTUA, BELU AZTUA” ¹³¹ Eg 151
...el refrán castellano Dice: Más vale pájaro en la mano...? Sam 86	“OBE DA TXORI BAT ESKUAN TA EZ BOST EZKURREAN” ¹³² Eg 49

Eta, bestetan –oso gutxitan–, berdin-berdina ez izan arren, euskal paremia baliokidea eman zuen:

Al asno muerto la cebada al rabo. Sam 116	ILDA GERO, SALDA BERO. Eg 85
---	------------------------------

Inoiz itzuli gabe utzi zituen:

Están verdes. Sam 68	[Ø] Eg 25
Pero escarmiente ahora en tal cabeza. Sam 70	[Ø] Eg 29
Gato por liebre. Sam 102	[Ø] Eg 69

Beste batzuetan, era librean eman zituen:

Después de tanto ruido, solo viento. Sam 91	ZARATA TA AIZEA, AIEN [arroputzen] ARNARIAK. Eg 57
Es ladrar a la luna El alegar servicios al ingrato. Sam 120	BIOTZ ONDO JAIOA, ESKERTSUA. Eg 89

Aldaketa morfosintaktikoak. Sintaxi-aldaketa batzuk jatorrizko sintaxiaren mimetismoz eta errima egin beharrak eragindakoak dira:

<i>Que es un solemne loco</i> <i>Todo aquel que creyere</i> <i>Hallar en la experiencia</i> <i>Cuanto el hombre nos pinta por deleite. Sam 219</i>	Ulertuko bait zuen ongi, alango baten, zoro utsak dirala siñistuten dutela aurki dezakegula gutziz aise, atunez, poetak, atsegin lez, esan diguna antzez. Eg 201
---	---

Adibide honetan, determinatzailearen erabilera ohikoa bortxatzen da errima gordetzearren:

¹³⁰ Gotzon Garaterenean: “Gizon prestu bakarra biren adiña bada”.

¹³¹ Gotzon Garate: “Ekandu gextoa belu anztu doa”.

¹³² Gotzon Garate: “Oba txori bat eskuan ze ez bost ezkurreen”

Un incauto Mancebo Dormía a pierna suelta. Sam 61	Lasai-lasaiki lo egiten zegoen Ganorabako, sen-urriko gizon. Eg 15
--	---

Gaztelaniaz *túka* ari da Samaniego; berorika, Egea:

“¡Oh reina de las aves escogida! ¿Por qué quitas la vida A este pobre animal, manso y cobarde?” Sam 62	—“Egazti oroen erregin autá,” —oiu egin zion eragiñaz— “alako erbi otzan iltzeaz, berori ez al da laidotuta?” Eg 19
--	--

Neologismoak. Joera du neologismoak erabiltzeko eta sortzeko: la Fortuna/ZORION jainkosa (Sam 61, Eg 15); libertar/gaizkatu (Sam 62, Eg 19); herrero/suarotza (Sam 66, Eg 23); estuche molar/agin-kutxa (Sam 135, Eg 109); la Providencia/Goikoaren ardura (Sam 138, Eg 131); vicios/giz-ajeak (Sam 221, Eg 197); circo/Antzoki Biribilla (Sam 222, Eg 203)... Halakoez josita dago euskal bertsioa.

Lautzea. Batzuetan, Samaniegoren testuari Egeak eletsu-edo deritzola ematen du, eta horregatik moztu zituela zenbait zati:

<i>Señores animales, yo pregunto:</i> ¿Habló el asno tan mal en el asunto? ¿Discurrieron tal vez con más acierto El elefante y el toro? No por cierto. Sam 223	[Ø] Eg 205
—“¡Ay infeliz de mí!” bien merecido El pago tengo dentro de mi gran locura. “Yo siempre me llevé el mejor bocado En mi oficio de Lobo carnicero; Pues si puedo vivir tan regalado, ¿A que meterme ahora curandero?” Sam 136	[Ø] Eg 109

Egeak testua biziago, jostarinago eta neurkera laburrean berridatzi zuenean ere gertatu ziren zenbait galera testuan:

Vióse desproveida Del precioso sustento: Sin mosca, sin gusano, Sin trigo y sin centeno. Sam 59	janari barik txiro egonik [Ø] Eg 17
--	---

Zenbaitetan, beste osagai batzuk gehitu, kendu edo aldatu zituen, baina argumentuaren harian inolako eraginik gabe; bai, ordea, errima eta neurria gordetzeko:

¿No ves que ahogarte puedes A poco que te muevas? Sam 61	Bestela makur igitzeagaitik, Ito zindezke osin barrenean. Eg 15
Presa en estrecho lazo La Codorniz sencilla... Sam 61	Galtsoroan pozpoliña lakirio ertsian artuta... Eg 21
<i>Marramaquiz</i> , gran gato, De nariz roma, pero largo olfato, Sam 133	“Gorritzta” katu maltzur, jalea, zur motzago, guztiz hobea berez zan guztiz sagu-zalea Eg 105
Un Burro cojo vió que le seguía Un Lobo cazador y no pudiendo Huir de su enemigo le decía: Sam 135	Astotxo bat dabil errenka ta dakus berari jarraika otsoa. Aidatu-eziñaz esan zion adei aundi az: Eg 109

“¡Oh! Dijo el cazador con ironía,... Sam 135	—“Ene!”, —esan zion otsoak Milikatzen bere ezpañak Eg 109
<i>Si en esto para el ocio y los regalos, Al trabajo me atengo y a los palos.</i> Sam 59	BETIKO NIRETZAT, ALA JINKOA, LAN GOGORRA, MAKILLA TA LASTOA!!! Eg 15

Kultura-erreferenteak ezabatu zituen zenbaitetan. Adibide honetan, administrazioko eginbide bat:

(Pues a todos por Júpiter previno Con cédula <i>ante diem</i> el pollino) Sam 221	[Ø] Eg 203
--	------------

Bestetan, jatorrizkoaren hizkuntza-maila jaso apaldu zuen:

La codiciosa Hormiga Respondió con denuedo, Ocultando a la espalda Las llaves del granero... Sam 60	Baiña iñurria txit irristua da ta zuurra. Galdetu zioan:... Eg 17
--	--

Bestetan, ekintza andana bat ekintza bakar bat emanez adierazi zuen:

Mata, trinchá, devora, pilla... Sam 63	sarraskia eginda... Eg 19
--	---------------------------

Konnotazioa, eufemismoa eta ironia ezabatu zituen, bestetan:

Una bola... De la materia en que continuamente Trabajando se halla, Cuyo nombre se sabe, aunque se calla... Sam 63	Birla kirastun bat... Eg 19
---	-----------------------------

Hiztegia ere lautu edo azaldu zuen. Izan ere, hiztegi laburra ipini zuen alegia bakoitzaren aldamenean. Didaktika-helburu argia izan zuen; baita bere hiztegi-aukeraren zailtasunak argitzea ere; izan ere, zenbaitetan, beste euskalkietako hitzak erabili zituen eta hiztegi garbizalea hobetsi zuen.

Irakaspenen mezua. Gehienetan jatorrizkoa ematen ahalegindu zen.

- Oso berdinak dira euskal bertsioko mezuak, jatorrizkoen aldean:

<i>Si en esto para el ocio y los regalos, Al trabajo me atengo y a los palos.</i> Sam 59	—Hainbeste opor da bigunkeria Ain zorigaizki galtzeko bizia? BETIKO NIRETZAT, ALA JINKOA, LAN GOGORRA, MAKILLA TA LASTOA!!! Eg 15
<i>El apetito ciego ¡A cuántos precipita, Que por lograr un nada, Un todo sacrifican!</i> Sam 62	IRRITS ITXUAK, ASKOTAN, ONDAMENARA DAROA: UZKERIA BURUTU NAI, ETA GERO, DAN-DANA JAI. Eg 21
— <i>Bien se deja ver Que es pintar como querer, Y no fue león el pintor.</i> Sam 64	“Ongi ikusten da margotzen dala gogo izatea bezela; baita margolaria leoirik ez zala” Eg 17
<i>Hablemos en razón: no tiene juicio Quien deja el propio por ajeno oficio.</i> Sam 136	BERTZEN BEARGINTZA ARTZEA TA NORBERARENA UZTEA, SEN-URRIKO EZAUBIDEA. Eg 109
<i>¡Que el ciego apetito Pueda arrastrar tanto! A los brutos, pase;</i>	ZIÑEZ, ULERGARRI DA IRRISKERIAK NARRAZ BASAK EROATEA...;

<i>¡Pero a los humanos! Sam 216</i>	BAINA EZ, GIZAKIAK. Eg 199
<i>¡Lo que tiene el encontrar La pena tras el delito! Sam 219</i>	AU DUK AU IDOROTZEA ERRU-ONDOAN NEKEA. Eg 195

- Antzeko mezua, baina trinko-trinko eta labur, eta, ondorioz, zehazgabeago:

<i>Si alguno llega con astuta maña Y una vez nos engaña, Es cosa muy sabida Que puede algunas veces El huir de sus trazas y dobleces Valernos nada menos que la vida. Sam 135</i>	GUZURTI MALTZURRATIK IGES EGIN BIZITZA YORITZEA NOIZBAIT, BERDIN. Eg 105
<i>De esta suerte los vicios se insinúan, Crecen, se perpetúan Dentro del corazón de los humanos, Hasta ser sus señores y tiranos. Pues ¿qué remedio?... incautos jovencitos, Cuenta con los primeros pajaritos. Sam 221</i>	GIZ-AJEEKIN JAZOTZEN DA OLAN: ANDIAGO BAT DARRAIKE ATZEAN. Eg 197
<i>Pues ¿por qué solamente al buen Pollino Le gritan disparate, desatino? Porque nadie en razones se paraba, Sino en la calidad de quien hablaba. Pues, amigo Elefante, no te asombres. Por la misma razón entre los hombres Se desprecia una idea ventajosa. ¡Qué preocupación tan peligrosa! Sam 223</i>	Zegaitik ezetsi zuten astoa? Begitu zutelako onen “era”; Ez bere argibideen “onbera”! GIZARTEAN BE GERTATZEN DA AUNAN EZ DANDATIK DANDARA..., ANITZETAN Eg 205

- Desbideraturen bat bada. Esaterako, gizabidezko portaerak Jainkoaren agintza ere badira, irakaspen honetan:

<i>Juan, alivia en sus penas al vecino; Y él, cuando tú las tengas, déte ayuda; Si no lo hacéis así, temed sin duda Que seréis el Caballo y el Pollino. Sam 137</i>	NAI DEKENA IRETZAT, BESTERENTZAT: ZENTZU TA JAINKOAREN AGINTZA BAT. Eg 111
---	--

Poesia berridazteko moduak. Edukia jatorrizkotik ahalik eta hurbilen itzultzea izan zuen helburu. Hala, berak egokitutako neurri eta errimen mugen barruan zedarritu zuen edukia. Sarritan, ordea, ezin izan zuen edukia literalki ondo lotu euskarazko alegien neurri eta errimetan. Hori dela-eta, zenbait xehetasun galdu eta zenbait erreferente aldatu eta gehitu behar izan zituen.

Neurria eta errima, Egeak egokitu zizkion alegia bakoitzari, ondo gordez bertsoen neurkera eta hoskidetasuna.

Hortaz, itzultzeko modu analogikoaren eta organikoaren artean ibili zen Egea.

Ondorioak

Ideologiaren hertsatzaileak bideratu zuen Egearen itzulpena, neurri handian, itzultzeari ekiteko erabakiaren abiapuntutik bertatik hasita, idazlearen arabartasuna hartu baitzuen irizpide gisa.

Lehenik, liburuaren formatuari eragin zion hertsatzaile horrek, ele bitan plazaratu baitzuen; izan ere, jendeari euskara ikasten laguntzeko asmoa izan zuen Egeak itzultzeari ekin zionean, hots, berridazleak nahi izan zuen euskalduntze-bidean zeuden irakurleek liburua euskara ikasteko balia zezaten, bi testuen konparazioaren bitartez.

Bigarrenik, itzultzeko estrategiei eragin zien; izan ere, berridazleak oso gutxi desbideratu behar zuen jatorrizkotik, euskal bertsioarekin parez pare jarrita, euskalduntze-bidean zegoen irakurleak euskara ikasiko bazuen.

Hala, edukien aldetik, itzulpen ahalik eta literalena eta hurbilena egiten saiatu zen Egea. Argi ikus daiteke hori osagai paremiologikoa eta irakaspenen mezuak nola itzuli zituen ikusita. Mendekotasunez eta mimetismoz jokatu zuen, alderdi horieki dagokienez; izan ere, berdintsuak dira, formaz eta edukiz, bi arlo horietan bi testuak.

Dena dela, zenbait alegiatan lizentzia hartu zuen euskal kolorea emateko eta, hala, testuak naturalizatzeko, euskal geografiako toponimoak erabiliz, Euskal Herriaren izena baliatuz eta pertsona-izenak euskaldunduz. Baina, ez da joera nagusia euskal bertsioan, inola ere; Euskal Pizkundean maiz erabili ziren halako estrategiak, eta berridazte-modu horren aztarnatzat har litezke Egearen lizentziak, baina gainbehera zihoan halakoen erabilera.

Oso literala izan arren, xehetasun batzuk galdu, irabazi eta aldatu behar izan zituen, baina, ziur asko, errimarengatik eta neurkerarengatik: errima eta neurkera horiek gordetzeko beste euskalkietako hitzak eta joskerak sartu behar izan zituen. Hautatutako euskalkian, mendebaldeko aldaeran, hain zuzen, ez zituen, antza denez, behar zituen oinak aurkitu.

Tipografiaren alorrean ere hartu zuen aintzat ahalik eta hurbilen berridatzi behar hori, eta tipografikoki markatu zituen irakaspenak: letra etzanez ematen dira Samaniegoren testuan; Egeak letra larriz idatzi zituen.

Xede-literatura aberastea izan zuen helburu. Baita euskal hezkuntzaren testu beharrak eta irakurgai egokien premiak asetzea ere.

VI.7.4. Jesus Mari Mendizabal Iraola “BIZARGORRI” (1949)

Ormaiztegiakoa. Ikastolako irakaslea. Idazlea. Genero batzuk landu zituen: narrazio laburrak, egunkarietako zutabeak, itzulpenak, bertso-paperak.

La Fontaineren 39 alegia argitaratu zituen, “libreki euskaratuak”, 1985ean. Alegien kontakizuna hitz lauz eman zuen, eta bukaera, bertsoz. Liburuaren amaieran, bertso bakoitzari dagokion doinua zein izan daitekeen adierazi zuen, “orientabide gisa, beti ere”.

Corpusa eta iturriak

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Jesusmari Mendizabal “BIZARGORRI”	<i>Alegiak sudur ondoan begiak</i>	1985	39 hl	39 Lf

LA FONTAINE, Jean de / Jesusmari MENDIZABAL (egok.) (1985). *Alegiak sudur ondoan begiak*. Il.: Joaquin Resano. Donostia: Erein.

[“Tximua eta izurdea” Lf IV-7. “Azeria eta oilarra” Lf II-15. “Oilar bi” Lf VII-12. “Xagua eta elefantea” Lf VIII-15. “Ostra eta xagua” Lf VIII-9. “Txingurria eta txitxarra” Lf I-1. “Otsoa artzai” Lf III-3. “Hartza eta Lehoiemea” Lf X-12. “Otsoak eta bildotsak” Lf I-10. “Xaguen bilera” Lf II-2. “Lehoia eta arratoia” Lf II-11. “Bi adiskide” Lf VIII-11. “Arrainak eta artzaia” Lf X-10. “Putreak eta usoak” Lf VII-7. “Azeria eta zikoina” Lf I-18. “Mozkorra” Lf III-7. “Belea eta azeria” Lf I-2. “Bi asto: esponja batek; gatza besteak” Lf II-10. “Artzaia eta itsasoa” Lf IV-2. “Diru guztiak galdu zituenaren xuhurrarena” Lf IV-20. “Oilarra eta aztorea” Lf VIII-21. “Gizakiak eta aberastasuna” Lf VII-13. “Enara eta armiarmarena” Lf X-6. “Hontza eta arranoa” Lf V-18. “Katua eta arratoi zaharra” Lf III-18. “Esnezalea eta pitxarra” Lf VII-9. “Jakintzaren abantailak” Lf VIII-19. “Arranoa eta kakalardoa” Lf II-8. “Arranoarena egin nahi izan zuen belea” Lf II-16. “Erbia eta dordoka” Lf VI-10. “Otsoa eta zaldia” Lf V-8. “Koartza” Lf VII-4. “Lehoia eta bere gorrea” Lf VII-6. “Urrezko arraultzak erruten zituen oiloarena” Lf V-13. “Lurrezko pitxarra eta burdinezkoa” Lf V-2. “Atsoa eta bi neskameak” Lf V-6. “Erbia eta igelak” Lf II-14. “Astoa eta zakurra” Lf VIII-17. “Nekazaria eta sugea” Lf VI-13.]

Testu mailako azterketa

Objektuak, izakiak. Azeriaren maltzurtasuna markatua dago euskal bertsoan. Frantsesezkoan ez da halako izenondorik ageri.

Maître Renard, par l'odeur alleché... Lf 32	...gazta usaiak erakarria, hara non datorren zuhaitz ondora azeri maltzurra, —maltzur delako azeri oro—. Men 53
---	---

Adibide honetan, jatorrizkoaren irudi barregarria galtzen da berridazketan: euskal bertsoak galdu egiten du jatorrizkoak duen hiztegi jasoaren eta arruntaren arteko nahasketa. Jasoak dira *sceptre, coursier, Empereur romain*; arruntak, berriz, *ânier, longues oreilles, porter les bouteilles*:

Un Ânier, son sceptre à la main, Menait, en Empereur romain, Deux Coursiers à longues oreilles. L'un d'éponges chargé marchait comme un courrier ; Et l'autre se faisant prier Portait, comme on dit, les bouteilles. Lf 83	Baserritar batek bi asto zeramatzan basoan zehar. Batek esponjak zeramatzan, gatza besteak. Men 55
--	--

Sinesmenak. Kristau-legea aipatzen du Mendizabalek, jokabide zintzo gisa:

Le Chien ne bouge, et dit...Lf 323	Baina zakurrak ez zuen kristaubideko «txarra onez erantzun» harako haren berri, eta honela erantzun zion... Men 116-117
------------------------------------	---

Aldarri modukoak ditugu, euskal testu honetan, bi neskameren ahotan jarritako bertsoak, beren lan-baldintza gogorren aurkako aldarri gisakoak. La Fontaineren jardunean, ordea, halako determinismo bat suma daiteke, klaseen arteko borrokari dagokionez:

C'est ainsi que le plus souvent, Quand on pense sortir d'une mauvaise affaire, On s'enfonce encor plus avant : Témoine ce Couple et son salaire. La Vieille au lieu du Coq les fit tomber par là De Charybde en Scylla. Lf 186	Non dugu neskameok gure pekatua atsedena izateko hain debekatua? Jaiki baino lehen ere soina nekatua, damurikan ez dugu oilarra akatua, arikaixtoko atso madarikatua! Men 111
---	--

Kontzeptuak. Honako galdera erretoriko hau pausatzean “(Car que faire en un gîte, à moins que l'on ne songe ?)”, La Fontainek bere bizimoduaren eta bere bizitza-ikuskeraren apologia egiten du. Gauza jakina da alegietako animalien bidez bere burua erakustea gogoko zuela La Fontainek. Hortaz, erbi hau, kobazuloan sartua, La Fontaineren halako pertsonifikazio bat litzateke, loa eta bakardadea maite zituen poeta harena, pertsona irudimentsu eta ameslari harena. Hori ez da euskal bertsoan ageri. Erbi

zazpikia irudikatu zuen Mendizabalek, kobazuloan sartua; jatorrizko erbia ez bezalakoa, hain zuzen (“Le mélancolique Animal”, bertso-lerro batzuk beherago):

Un Lièvre en son gîte songeait (Car que faire en un gîte, à moins que l'on ne songe ?) ; Dans un profond ennui ce Lièvre se plongeait. Lf 89	Bazen behin, bere kobazuloan sartua, erbi izuti bat. Urduria zen, artega; geldi ezin egona, dena keinu. Men 112
--	---

Frantsesen eta espainiarren handikeriaz dihardu La Fontainek; Mendizabalek, ordea, orokortu egiten du, eta jende orori egozten dio izaera hori:

Se croire un personnage est fort commun en France. On y fait l'homme d'importance, Et l'on n'est souvent qu'un bourgeois : C'est proprement le mal français. La sottise vanité nous est particulière. Les Espagnols sont vains, mais d'une autre manière. Leur orgueil me semble en un mot Beaucoup plus fou, mais pas si sot. Lf 317	Jende gehiegik pentsatu ohi du handi dela ta famatu beren burua jarri ohi dute beste nornahi bezain altu. Eta sekula santan ez dira halakoak konturatu bakoitzak bere neurrian beti behar duela jokatu. Men 14
--	---

Gosea. Maiz agertzen du motibo hori berridazleak, jatorrizkoan esplizituki ez agertu arren. Espainiako gerra zibilaren osteko egoeraren gogorapenak eraginda, beharbada. Edota, bestela, ekintzak lotzeko motibo errepikari horietako bat izan daiteke, ez besterik:

Qu'aperçois-je ? dit-il, c'est quelque victuaille ; Et, si je ne me trompe à la couleur du mets, Je dois faire aujourd'hui bonne chère, ou jamais. Lf 306	—Hara! —esan zuen— norbaitek jana laga du hemen. Jan dezadan, goseak nago eta. Men 18
Sur la branche d'un arbre était en sentinelle Un vieux Coq adroit et matois. Lf 91	Basotik azeria harantz-honantz janari bila zebilela... Men 8
...Le Galand aussitôt Tire ses grègues, gagne au haut, Mal content de son stratagème... Lf 92	Hau esan eta aldegin, dena bat. Ez zen, ez, gustora joan gure azeria, tripa hutsik geratzen bait zen berriro. Men 10

Izen bereziak. Orokorrean ez ditu halakoak itzultzen eta, itzuliz gero, erreferente ezagunago bat ematen du.

- Pertsona-izenak: Pierrot/artzai kuittadua.
- Leku-izenak: Athènes/Atenas (Lf 149, Men 5); Vaugirard/Ø (Lf 150, Men 6); Pirée/Pireoa (Lf 150, Men 6); Rome/Ø (Lf 150, Men 6); Xanthe/Ø (Lf 273, Men 11); les Apennins, le Caucase/Himalaya (Lf 305, Men 17).
- Mitoak, pertsonaia historikoak, obra klasikoetako pertsonaiak eta beste: Amphitrite/Ø (Lf 139, Men 58); Couridon ou Tircis/Ø (Lf 139, Men 58); Pline/Ø (Lf 149, Men 5); Tétys, Phébus/Ø (Lf 185, Men 110); Ésope/Ø (Lf 227, Men 118); Amour, tu perdis Troie/Troyako Helena (Lf 273, Men 11); plus d'une Hélène au beau plumage/dozena bat oilo (Lf 273, Men 12); Téthys/Ø (Lf 305, Men 18).
- Tratamendua: Monsieur de Corbeau/bele, zu (Lf 32, Men 53)

Paremiak. Ez dio ardurarik jartzen halakoak itzultzeari. Bi joera nagusi ditu:

- Modu librean itzultzea. Ez dira euskal esapideak, baina, nola edo hala, eutsi egiten diote jatorrizkoen esanahiari:

[Car] c'est double plaisir de tromper le trompeur. Lf 92	Oilarra bitartean farrez eta farrez ari zen lasai, azeria beldurtu zuelako eta bera engainatzera etorri zena, berak ederki engainatu zuelako. Men 10
Qu'un sou quand il est assuré Vaut mieux que cinq en espérance. Lf 139-140	...zerbait ziurra hobe, ustez lor daitekeen horren bila galtzea baino. Men 60
L'Avarice perd tout en voulant tout gagner. Lf 195	Gehiegizko antsia beti izan da aholkulari koxkorra. Men 103
Que tel est pris qui croyait prendre. Lf 306	Ezjakina zelako, jan nahi zuenak ito zuen bera. Men 19

- Ez itzultzea:

Tire ses grègues , gagne au haut. Lf 92	[Ø] Men 10
La Mer promet monts et merveilles. Lf 140	[Ø] Men 60
Ne nous associons qu'avecque nos égaux. Lf 181	[Ø] Men 107
Il se faut entraider, c'est la loi de la nature. Lf 322	[Ø] Men 115

Literatura-alusioak. “Le Rat et l’Huître” alegian Rabelais-en *Gargantuako* zenbait pasarteren oihartzuna dakar La Fontainek¹³³. Horiek, ordea, ezabatuta daude euskal bertsoan.

J'ai passé les déserts, mais nous n'y bûmes point. Lf 305	[Ø] Men 18
Une s'était ouverte, et bâillant au soleil, Par un doux zéphyr réjouie, Humait l'air, respirait, était épanouie... Lf 305	...ostra haietako batek maskorra ireki zuen, eguzkiaren printza epelak goxatzearen, [Ø] ziur aski. Men 18

Izena aipatzen ez badu ere, Arion Lesboskoa eta haren istorioa dakartza La Fontainek bere alegian: Arion izurde baten gainean lehorrera iritsi zen. Euskal bertsoan ezabatua dago aipamen klasiko hori.

Un Dauphin le prit pour un homme, Et sur son dos le fit asseoir, Si gravement qu'on eût cru voir Ce chanteur que tant on renomme. Lf 149	Izurdetako batek, gizona zelakoan, jar zedila bere bizkar gainean esan zion, eta bai tximuak esana aguro bete ere [Ø]. Men 6
---	--

Oraingoan, poeta klasikoek zerabilten *Filandière* termino poetikoa galdu du euskal bertsoak. Erabilera zaharra irauliz, umorez eta irria eragiteko erabiltzen du La Fontainek:

Il était une Vieille ayant deux Chambrières. Elles filaient si bien que les Sœurs Filandières Ne faisaient que brouiller au prix de celles-ci... Lf 185	[Atso batek] bi neskame hartu zituen lagun zezaten. Gazteak ziren biak eta ahalik eta ongien pasatzeko asmoa zuten [Ø]. Men 109
---	---

¹³³ Rabelaisen *Gargantuako* XXXIII kapitulua («Que boyrons nous par ces deserts...»), eta *Quart livreko* LV. kapitulua («[...] et à pleines oreilles humions l'air, comme belles huîtres en escalle»), hurrenez hurren. Collinetek oihartzunok nabarmendu zituen bere oharretan (Collinet, 1991: 1200).

Generoaren ikuspegia. Androzentrismoa: ‘gizaki’, ‘espezie’ edo ‘dena(k)’ eman beharrean, ‘gizon’ eta ‘gizonak’ eman zituen:

Sans les Dauphins tout eût péri. Cet Animal est fort ami De notre espèce... Lf 149	Izurdeak izan ez balira gizonik gehienak ez ziren itotzetik libratuko. Baina gizonaren adiskide finak izaki beti izurdeak, oraingo honetan ere agertu zuten beren balioa, gizonak bizkar gainetan hartuz eta lehorrera garraiatuz. Men 5
--	--

Ipuin tradizionalen baliabideak. Hasieretan, *omen* eta *bazen behin*, tradiziozko ipuinetan bezala:

Du raport d’un troupeu dont il vivait sans soins Se contenta longtemps un voisin d’Amphitrite Lf 139	Ba omen zen behin ardiak itsas ertzean zaintzen zituen artzain bat. Men 58
Un Lièvre en son gîte songeait... Lf 89	Bazen behin, bere kobazuloan sartua, erbi izuti bat. Men 112

Zenbakiak: ipuinetako erabilera ezaguna, “hiru aldiz”. Jatorrizkoan, behin:

...Le Chien mourant de faim Lui dit : Cher compagnon, baisse-toi, je te prie... Lf 322	Hirugarren aldiz ere ekin zion [zakurrak] eskean, baina bai zera!, astoak lehenean jarraitzen zuen... Men 116
--	--

Konpentsazioa. Testua berrantolatzearen ondorioz, alegiaren hasierako osagaien bat edo beste geroago berreskuratzen saiatzen da itzultzailea:

Ésope conte qu’un Manant Charitable autant que peu sage... Le Villageois le prend...Lf 227	...nekazari bat... Onbera eta xeratsu izaki gizona, sugea hartu... Men 118
--	---

Espizitu bihurtzea. La Fontaineren testuak dituen elipsiak bete egin zituen Mendizabalek, askotan:

Et cependant viens recevoir Le baiser d’amour fraternelle. Ami, reprit le Coq... Lf 91	...jaitsi zaitetz pixka batean eta eman diezaiogun besarkada bero bat elkarri. Laister konturatu zen oilarra dena gezurra zela eta erantzun zion: —Azeri adiskide... Men 9
Adieu, dit le Renard : ma traite est longue à faire. Nous nous réjouissons du succès de l’affaire Une autre fois. Lf 92	Azeria beldurrez dar-dar jarri zen bi zakur zetozela jakin zuenean. Aguro aldegin ez baleza, hantxe ehizatuko, harrapatuko zuten, bera, ehiztari izan nahi zuena. —Adizu, oilarra: oraintxe oroitu naiz banuela beste egiteko bat ere eta banoa. Beste batez ikusiko dugu elkar eta besarkatuko. Men 9

Adibide honetan, azalpen didaktikoa gaineratu zuen:

L’un d’éponges chargé marchait comme un courrier ; Et l’autre se faisant prier Portait, comme on dit, les bouteilles... Lf 83	Noski, gatzak baino askoz ere pixu gutxiago izaki esponjak, asto bat arin-arin zihoan bide estu hartan; bestea, gatzaz zeramana, ordea, astun-astun zihoan eta sarritan gelditu beharra izaten zuen. Men 55
---	---

Inoiz, beste arrazoibide bat asmatu zuen argumentuko gertaerak lotzeko. Kasu honetan, lurrezko pitxar bat zergatik puskatu den esplikatzeko:

Mes gens s'en vont à trois pieds, Clopin-clopant comme ils peuvent, L'un contre l'autre jetés, Au moindre hoquet qu'ils treuvent. Le Pot de terre en souffre : il n'eut pas fait cent pas, Que par son Compagnon il fut mis en éclats... Lf 180-181	Baina hara non ustekabea zotin gaitza sortzen zaion burdinezkoari, zen dena dardaraz jarriz. Dardarizo hauekako batetan, bere lurrezko laguna ondo-ondoan zeramanez, kolpatu eta lurrera bota zuen. Esan gabe doa porrokaturik xehe-xehe geratu zela. Men 107
---	---

Aldaketa morfosintaktikoak. Izen-sintagmak soiltzera jo zuen, oro har, Mendizabalek, hau da, izena soilik ematera, izenondoak eta izenlagunak baztertuta. Jatorrizkoa, ordea, aberatsa da oso alor horretan, garaiko poesiari zegokion eran. Alegion hizkera lautu eta balizko irakurleari irakurketa errazteko asmo orokor baten baitako estrategiatzat har daiteke:

Aperçut un Serpent sur la neige étendu, Transi, gelé, perclus, immobile rendu... Lf 227	Makurtu eta, sugea! [Ø] [Ø] [Ø] [Ø] Men 118
--	--

Elkarrizketak josteko beste sistema bat darabil Mendizabalek: esaldi motzak, jatorrizkoan ageri diren jardun luzeen orde. Erritmo bizia lortzeko:

Frère, dit un Renard adoucissant sa voix, Nous ne sommes plus en querelle : Paix générale cette fois. Je viens te l'annoncer ; descends que je t'embrasse ; Ne me retarde point de grâce : Je dois faire aujourd'hui vingt postes sans manquer. (...) Ami, reprit le Coq, je ne pouvais jamais Apprendre une plus douce et meilleure nouvelle Que celle De cette paix Et ce m'est une double joie De la tenir de toi... Lf 91	—Oilar adiskide, berri on batekin natorkizu. — Ze berri duzu, bada? —Gure arteko borrokak bukatu direla: azeriek eta oilarrek ez dutela zertan gerra eginik. Izar berri bat piztu bait da, gure artera pakea ekarriko duena. Poztu zaitetz, poztu! — Oso pozten naiz, azeri. —Eta gure adiskidetasuna benetakoa dela adierazteko jaitsi zaitetz pixka batean eta eman diezaiogun besarkada bero bat elkarri. (...) Men 8-9
---	--

Estilo zuzenetik zehar estilora igarotzen da zenbaitetan:

Disaient entre leurs dents : Maudit Coq tu mourras. Lf 185	...neskame biek oilarra akabatu zuten. Men 110
--	--

Berridazleak narratzaile intradiegetikoaren ahotsa tartekatzen du, batzuetan:

Sur ces entrefaites un Loup Sort du bois... Lf 323	Baina hara tupustean non agertzen den otso bat nik al dakit nondik. Men 116
---	--

Bestetan, narratzaile hori desagerrarazten du berridazleak:

Ceci n'est pas un conte à plaisir inventé. Je me sers de la vérité Pour montrer par expérience Qu'un sou quand il est assuré... Lf 139	[Ø] Ederki ikasi zuen artzaiak lezioa: zerbait ziurra hobe... Men 60
--	--

Narrataria agertzen da zenbaitetan:

[Ø] Lf 84	Asto honen modura zabiltza akaso, egin, beraz, kaso... Men 57
-----------	---

Betelana eta eletsutasuna. Jatorrizkoak ez dituen xehetasunak gaineratu zituen, askotan, Mendizabalek:

Maître Corbeau, sur un arbre perché... Lf 32	Bele batek behin, zeru zabalean hegaka zebilela, artzai bati zakutoan gazta bat ikusi zion, eta poliki-poliki jaisten hasi zen jaki goxo hartaz jabetzearren. Hamarretako garaian, eta ezer txarrik susmatu gabe, artzaiak zakutotik gazta atera eta alboan utzi zuen, edateko esne hondar baten bila zihoan bitartean. Gazta han ikusi zuenean, belea zas! jaitsi eta rrau! batean mokoz hartu eta inguruko zuhaitz batetan jarri zen... Men 52
Un navire en cet équipage Non loin d'Athènes fit naufrage. Lf 149	...behin altxor aberatsez betetako untzi bat hondoratu egin zen Atenas inguruko itsasoan. Ekaitz gaizto batek jo eta azpira egin zuen. Men 5
Sur la branche d'un arbre était en sentinelle Un vieux Coq adroit et matois. Frère, dit un Renard adoucissant sa voix... Lf 91	Basotik azeria harantz-honantz janari bila zebilela, hara non ikusten duen oilar bikaina adar baten gainean. Men 8

Beste hasiera bat taxutzeraino da eletsu Mendizabal, “Belea eta Azeria” alegian, hain zuzen; bai eta “Atsoa eta bi neskameak” alegian ere.

Hala jokatzek honako funtzio hauek ditu: batetik, ipuin-tankera ematen dio alegiari; bestetik, testuaren irakurketa erraztu egiten du. Horren adibiderik argiena “Urrezko arraultzak erruten zituen oiloarena” alegia da. Ipuin bihurtua dugu hamabi bertso-lerro dituen alegia.

Lautzea. Metaforaz aritu baino testua lautu nahiago izan zuen Mendizabalek, irakurleari begira, hari narratiboa ulergarriago egiteko:

Deux Coqs vivaient en paix ; une Poule survint, Et voilà la guerre allumée. Lf 273	Oilategi batetan paketsu bizi ziren bi oilar. (...) Baina halako batetan oilo bat sartu zitzairen tartera eta biak maitemindu ziren lagun berriaz. Men 11
Dès que Téthys chassait Phébus aux crins dorés... Lf 185	Goizero, eguzki printzak mendi gainetik hasi orduko... Men 110

Irakaspenen mezua. Ohikoa du Mendizabalek bertsoak jartzea alegia bakoitzaren bukaeran (dena dela, behin hasieran eta beste behin tartean jarri zituen). Bertsook irakaspena ematen dute, batzuetan; beste batzuetan, ipuinaren segida eta bukaera ematen dute.

Irakaspena bertsoan ematen duenetan, Perraulten ipuinen egitura gogorarazten du, neurri batean: akademiko frantsesak bertsoan ematen baitzituen *moralitéak* ipuinaren ondotik.

- Irakaspen berdintsua ematea:

Il n'est, je le vois bien, si poltron sur la terre, Qui ne puisse trouver un plus poltron que soi. Lf 90	—Bistan dago beldurti batek nonahi aurki dezakeela beste bat bera baino beldurtiago. Men 114
La Fortune se plaît à faire ces coups ; Tout vainqueur insolent à sa perte travaille. Défions-nous du sort, et prenons garde à nous, Après le gain d'une bataille. Lf 274	Ez dabil ondo irabazteaz harroputz jarri ohi dena, ez dagolako zorionetik aparte zoritxar dena. Saioan edo jokoan ere nagusi gertatzen dena beti izan da hurrengo batez galtzaile ditekeena. Men 13
Je me sers de la vérité Pour montrer par expérience Qu'un sou quand il est assuré Vaut mieux que cinq en espérance ; Qu'il se faut contenter de sa condition ; Qu'aux conseils de la Mer et de l'Ambition Nous devons fermer les oreilles. Pour un qui s'en louera, dix mille s'en plaindront. La Mer promet monts et merveilles ; Fiez-vous-y, les vents et les voleurs viendront. Lf 139-140	Nabarmen daude ipuin honetan garbi asko, bai, egiak: ez dugunaren atzetik beti dihoazkigu begiak, etxetik kanpo handi da dena, gureak txikiegiak... Inbiri horrek maiz jartzen gaitu ahulago eta eriak; ia onera ekartzen gaitun artzain honen komeriak. Men 60

- Irakaspenen kutsu morala areagotzea. Gezurtiak zigorra merezi du; zigorrik ez jasotzeko, tolesgabea izatea hobe:

[Ø] Lf 150	Tximu honetxan gezurrak ez dira jaten xamurrak merezi zitun egurrak! Ez dakienak askoz hobe du kentzea bere beldurrak agertu egi zuhurrak, ez izan inoiz ximurrak, gal ez ditzagun hezurak. Men 7
------------	---

Adibide honetan beldurraren pedagogia dugu:

Je conclus qu'il faut qu'on s'entraide. Lf 323	Nahi ez baduzu hari bezala etor dakizun iluntza gaur has zaitezke prestu ematen albokoari laguntza. Men 117
--	---

- Irakaspena, gutxi edo asko, desbideratua:

Cette fable contient plus d'un enseignement. Nous y voyons premièrement : Que ceux qui n'ont du monde aucune expérience Sont aux moindres objets frappés d'étonnement ; Et puis nous y pouvons apprendre, Que tel est pris qui croyait prendre. Lf 306	Baldin ez badakizu nondik zer zabiltzan bazterrak miatzeko arina ez izan. Etzazula kaskarin joka inoiz bizitzan ostrak xagua legez inork hel ez zaitzan. Men 19
---	---

Apprenez que tout flatteur Vit aux dépens de celui qui l'écoute. Lf 32	Harrosko zara nire hitzak sinesteko. Ea hurrengorako ikasten duzun. (...) Bele beltz harro hori, zer uste zenduan? zer uste zenduan? ederrez ez duzula parerik munduan? Bakoitzari berea jantzi ta kantuan... Zuk krua! eta azeria gaztarekin juan! Ez zara harrotuko hola hurrenguan. Men 54
...qu'il ne faut point Agir chacun de même sorte. J'en voulais venir à ce point. Lf 84	(...) gehio usteak dakar hainbeste atraso. Men 57

- Irakaspena ipuinaren segida eta bukaera baino ez da, zenbaitetan:

[Ø] Lf 150	Azeriak sarritan azerikeria tranpaz lortu nahi zuen bere janaria. Gezurtiak gutxitan lortzen du saria, tripa hutsik joan da gure ehiztaria. Men 10
------------	---

- Irakaspenik ez:

Ne nous associons qu'avecque nos égaux ; Ou bien il nous faudra craindre Le destin d'une de ces Pots. Lf 181	ez noa deus esatera, beraz pitxarren historiari zeuk ondorenak atera. Men 108
C'est ainsi que le plus souvent, Quand on pense sortir d'une mauvaise affaire, On s'enfonce encor plus avant... Lf 186	[Ø] Men 111

Poesia berridazteko moduak. Prosifikazioa dugu berridazketa honen transformaziorik esanguratsuena; beraz, berridazlea jatorrizkoaren formaz ezaxolatu zen. Dena dela, hari narratiboari irmo eutsi zion.

Prosifikatze horretan, ipuin tankera hartu zuten alegiek. Zenbaitetan, gainera, berridazleak, bukaera aldean, irakaspentzat har daitezkeen bertsoak ondu zituen.

Ondorioak

Irakaslea dugu, ofizioz, Mendizabal; afizioz, neurri batean behintzat, bertsolari, zaletasun hori erakusten baitigu haren bertso-papergintzak.

Bi alderdi horiek islatzen dira La Fontaineren alegien berridazketan: ipuin tankerako irakurgaiak egin zituen irakaskuntzan aritzeko, baina, halaber, bertsolariaren aztarna utzi zuen, alegia bakoitzaren bukaera aldean bertsoak jarrita.

Kontuan hartzekoa da Mendizabalen liburua Erein argitaletxeak “Auskalo” sailean plazaratu zuela. Batik bat, haurrentzako narratibak osatzen zuen sail hura; oso litekeena da argitaletxearen edo Mendizabalen hautua, hau da, berridazketa hitz lauzkoa izatea, sailaren izaerak mugatu izana.

Halaber, orduko poetikaren hertsatzaileak ere eragina izan zuen. Izan ere, urte haietan, euskal HGL narratiba-bide berriak jorratzen ari bazen ere, tradiziozko ipuingintzak indar handia zuen oraindik ere.

Liburuaren izenburuak ‘alegia’ hitza ekarri arren, ohartuki jokatu zuen Mendizabalek alegiak ipuin bihurtze horretan, hainbestearino non, inoiz, “ipuin” izena irristatzen baitzaio han-hemen: “Oraingo ipuin honen ondoren / ez noa ezer esatera” (1985: 108).

Ipuin bihurtzean, jatorrizkoaren kulturema, ideologia-zantzu, izen berezi, paremia, konnotazio eta literatura-alusio ugari galdu egiten dira. Berridazleak horiek guztiak itzuli baino nahiago izan zuen testua lautzea eta narrazioa eta argumentua xehe-xehe ulertaraztea, balizko irakurlearen *mesedetan*. Horregatik jokatu zuen Mendizabalek batzuetan berbatsu: jatorrizkoaren elipsiak esplizitatuz, xehetasunak gehituz, alegia-hasierak zabalduz eta azalpenak emanez. Oro har, luzera handiagoa eman zien alegia guztiei.

Libreki euskaratu zituen, beraz, alegiak. Kontatzeko dira, baina, baita ere, kantatzeko, bertsoei egokitu zizkien doinuak lekuko. Balio pedagogiko argia du horrek guztiak: bai aukeratu zuen generoa aukeratu zuelako, baita moldatu zuen moduan moldatu zuelako ere.

Bidenabar, Mendizabal dugu La Fontaineren prosazko alegia-bilduma bat euskaraz argitaratzen lehena.

VI.7.5. Delphine Lubet (19--)

Donibane Garazikoa. Egun, erretreta hartua. *Maiatz* aldizkariko kolaboratzaile. Poesia landu du, batik bat. Euskarara itzultzea maite du, alegiak bereziki. Ikastolak bisitatzen ditu eta han alegiak kontatzen. Lubetek elkarrizketa batean (Ametza Ikastola, 2007) adierazi zuen La Fontaineren 40 bat alegia itzuli dituela baina ez dituela argitaratu. Baita ere, CD batean bildu dituela zenbait alegia.

Lau alegia argitaratu ditu Delphine Lubetek, bertsoz, *Maiatz* aldizkarian, 1989an. Laurak La Fontainerenak dira¹³⁴.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Delphine Lubet	<i>Maiatz</i>	1989	4 hn	4 Lf

LUBET, Delphine (1989). “Alegiak”, *Maiatz*, 18. zka., 8-9.

[“Kabalak, eri izurritearekin” **Lf VII-1**. “Axeria eta mahatsak” **Lf III-11**. “Belea eta axeria” **Lf I-2**. “Alportxak” **Lf I-7**.]

VI.7.6. Juan Manuel Etxebarria Ayesta (1948)

Zeberioztarra. Irakasle Deustuko Unibertsitatean, eta Euskal Filologian doktore.

Gure fabulak bertsoz argitaratu zuen 1996an, eta urtebete geroago audioa. Didaktika-liburua da, oro har, alegiak abiapuntu hartuta, Etxebarriaren lana. Hiru atal ditu: sarrera, 30 alegia eta didaktika-bidea.

Lehen atala, “Sarrera” delakoa, liburuaren aurkezpen moduko bat da: zer den alegia, zer tradizio nagusi egon diren alegiagintzan, nola antolatu duen liburua eta zein den liburuaren jasotzailea.

Alegiak jakiteari buruz dio oso normala dela guk euskaldunok “Bibliako edo eta Esopo zaharraren fabulak ezagutzea era bateko edo besteko irakaskuntza bitarteko” (1996: 7). Hortaz, kulturen arteko trukea gertatu dela, hots, gu euskaldunok, “beste

¹³⁴ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

kulturetan sartzen joan garen neurrian, geurea galdu gabe, jakina, aberastuz joan gara guk geuk geneukan altxor autoktonoa” (ibidem: 8).

Liburuaren jasotzailea edozein euskaldun da. Hala ere, Etxebarriak dio egoki-egokia dela DBHtik hasi eta Batxilergo zein goragokoentzat “bakoitzak bere adinean adineango azterketa egin eta behar diren emaitzak lor ditzan” (ib.: 9). Eguneroko bizitzarekin uztartu nahi du egileak alegien mundua. Izan ere, “hirukoitasun bat” lortu nahi luke: “ESKOLA-ETXEA-HERRIA”. Irakaslearen bizkar uzten du hori lortzeko zubi-lana, “eskolan landuak, etxean eta gero herrian ere jarraipena izan dezan” (ib.).

Sarrerari amaiera *moraleja* batekin ematen dio: “Urak handi itsasoan / zuhaitz ugari basoan / euskaldun izan, euskaraz bizi / zeure bizitza osoan” (ib.: 10). Euskaraz bizitzeak du garrantzia Etxebarriarentzat, eta helburu hori du, besteak beste, bere lanak.

Alegiek osatzen dute bigarren atala, 30 guztira. Neurri eta doinu bana, guztiak diferenteak, egokitu die egileak, pentagrama eta guzti. Arrazoia argitzen du egileak sarreran: “fabula bakoitza ezagutzeaz gain, Euskal Herriko bertso-mota eta euren musika-soinu ezberdinak ezagutu eta gozatzeko” (ib.: 9). Bestalde, marrazki bana dute alegiek, testu bakoitzaren edukia eta mamia azaltzeko.

Hirugarren atalean didaktika-bidea proposatzen du Etxebarriak testua aztertzeko: irakurtzea eta abestea, arloak identifikatzea, hiztegia lantzea eta iturriak ezagutzea. Arloak zehazten ditu gero, eta arlo bakoitzean landu beharrekoa: etnografia, linguistika, literatura, antropologia, soziologia, erlijio eta sineskerak, etika eta ohitura zaharrak (ib.: 139-143).

Corpusa eta iturriak

Alegion jatorri bikoitza aipatu zuen Etxebarriak: “Fabula aukeraketa honek Euskal Herria bera du oinarrietako bat eta bere ondoan, mundu zabala, batez ere mundu greko-latinoa. Iturriak, idatziak izan dira batez ere, baina ahozkoa ere bai, oraindino zorionez, gure Euskal Herri zaharrean ahorik aho dabiltzalako belaunaldiz belaunaldi fabula eta gainetikook” (ib.: 140). “Batzuk Euskal Herrikoak eta beste batzuk Euskal Herriratuak” (ib.: 141).

Liburua irakurrita, 19 alegiak dute zerikusia tesian darabiltzadan iturri klasikoekin. Honela banatu ditut: Esoporen corpusean 2, La Fontainerenean beste 2 eta hibridoak 15. Izan ere, ezinezkoa da 15 horiek egile bati egokitzea. Hain daude aldatuak jatorrizkoaren aldean, ezen gaiari baino ez baitakioke antzeman.

Gainerako guztiak, 11 hain zuzen, kanpoan utzi ditut. Horietako batzuk euskal ipuin tradizionalak dira, jatorriz, eta alegia tankera eman die Etxebarriak. Hain zuzen, urteotako joeraren alderantzizkoa; izan ere, ipuin-tankera ematea izan baita alegia-berridazleen joera nagusia. Honako hauek dira: “Mari Anbotokoa eta olagizonak”, “Perutxu, jentilak eta garia”, “Zozoa, ipurtikara eta txindorra”, “Lamiña eta neskatoa”, “Perutxu, jentilak eta errota” eta “Perutxu, jentilak eta burdingintza”. Beste alegia batek Grimm anaien ipuin batean du oinarria: “Basajauna eta gizona” (“Der Wolf und der Mensch”). Euskal folklorearen altxorretik ateratako alegia bat dago: “Kukua Euskal Herrian”. Beste bat Axularren etsenplu batetik: “Kirikinoa eta umegintza”. Bestelako iturrietatik: “Aita zaharra asilora barik etxera” eta “Saia eta azeria”¹³⁵.

Ondorio gisa, esan daiteke Etxebarriak ahozko tradizioko kontakizunak (alegiak, ipuinak, ohiturak) moldatu zituela bertsozko alegien tankeran.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Juan Manuel Etxebarria	<i>Gure fabulak bertsoz</i>	1996	30 hn	2 Eso 2 Lf 15 hibri

ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel (1996). *Gure fabulak bertsoz. Mota, neurri, errima eta soinu ezberdinez*. Bilbo: Ibaizabal

[“Txirritxirria eta inurria” **hibri**. “Azeria eta txakurra” **hibri**. “Txakur denagura eta dena beharrekoa” **Eso 178**. “Belea eta azeria” **hibri**. “Artzain gezurtia eta otsoa” **hibri**. “Urregorria galondopean” **hibri**. “Baga-usoa eta inurria” **hibri**. “Txakurra eta haragia” **hibri**. “Erbia eta dortoka” **hibri**. “Baserritar zekena eta urregorria” **hibri**. “Oihaneko pizti izurriketaren epaiketa” **hibri**. “Sugea eta nekazaria” **Lf VI-13**. “Azeria eta mahatsak” **hibri**. “Gizonaren adina” **Eso 139**. “Mutil batek neska maitale bi” **hibri**. “Basahuntza eta iturria” **hibri**. “Baserritarra, ezkurra eta kalabaza” **hibri**. “Neska ederra neskazahartuta ezkondu” **Lf VII-4**. “Baserritarraren seme konponduzinak” **hibri**.]

¹³⁵ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, haren lanak ez baititu betetzen han adierazitako irizpideak.

Zabalkundea

Euskal urtea ohituraz betea liburua argitaratu zuen Etxebarriak, 2003an. 1996ko liburuko bost alegia tartekatu zituen. Esopo aipatu zuen “Txirritxirria eta inurria” alegiaz jardutean (2003: 73): “Naturarekin batera, neguko lozorroan egon diren pizti guztiak ere biztu egiten dira. Inurriagandik hasita, denak ari dira negurako egiten, txirritxirria edo girgilua salbu. Hortik sortu omen zen Esoporen ha fabula zaharra, guk euskaldunok geure mundura egokitu badugu ere”. Beste lau alegiei buruz asko kontatzen direla dio.

VI.7.7. «LABAYRU» Ikastegia

Hamaika abere ipuin. Bizkaiko herri-alegiak lana argitaratu zuen Labayru Ikastegiko lantaldeak (Adolfo Arejita, Nerea Agirre, Loli Hernandez, Asier Astigarraga, Jaione Ibarra, Juanjo Respaldiza), 1997an. Bizkaian aho-belarriz jasotako ipuinak dira, ahozko literaturaren lekukoak, Labayrukoek beren Ahozko Literaturaren Artxiboan gordeak zituztenak.

Liburuko kontakizunok “literatura idatziaren beste eredu orokor eta landu baten ordezkari”-tzat, alegiaren ordezkari-tzat, hain zuzen, jo zituzten egileek, ahozko eta idatzizko literaturen arteko eragin-trukea nabarmenduz: “Sarri jazoten den moduan, literatura-moeta landuak herritartu egiten dira, aho-literaturako generoak eredu literarioetara ekarri egiten diren moduan” (1997: 9).

Ahozkoak direlako, “kontakizunok herri-kulturako eta usadioetako hainbat ezaugarri jantzirik agertuko zaizkigu. Hiztegiaren aukeran, bizimoduen deskribapenean eta egunoroko ekintzen berri ematean ipuinotan galdu aginean dagoen giro baten berri emango zaigu” (ibidem: 10).

Liburuaren erabilizaile posibleak eta helburuak zehaztu zituzten sarreran: guraso nahiz irakasleak, ipuinok Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurrei kontatzeko (2-8 urte); Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikaslea (8-10 urte), ipuinok irakurri eta kontatzeko; 10-12 urteko neska-mutilak, didaktika-materiala sakon-sakon aztertzeke.

Didaktikaren alorrari dagokionez, ipuin bakoitzaren ostean, ariketak proposatu zituzten, eta, ipuin guztiak eman ondoren, ariketa orokorrak. Ariketon helburua hizkuntza aberastea da, ahozko adierazmena, batez ere. Liburuaren amaieran ariketa guztien erantzunak eskaini zituzten.

Corpusa eta iturriak

Liburuaren izenburuak berak bi kontzeptu dakartza: abere-ipuina eta alegia. Edozein modutan, alegiek, nola edo hala, animalia-ipuin ere badiren arren, irakaspena dute bereizgarri. Hori dela eta, liburuko hamaika kontakizunetatik lau baino ez dira alegiak. Gainerako zazpiak¹³⁶ animalia-ipuin tradizionalak dira eta, horregatik, baztertu egin ditut.

Alegia hauen iturriak euskal ipuin tradizionalak zein ipuin klasikoak dira: hibridoak, beraz¹³⁷.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Labayru Ikastegia	<i>Hamaika abere-ipuin</i>	1997	4 hl	4 hibri

LABAYRU IKASTEGIA (1997). *Hamaika abere-ipuin. Bizkaiko herri-alegiak*. Bilbo: Labayru / Ikastolen Elkarte.

[“Mirua eta Azeria” **hibri**. “Abereen batzarra” **hibri**. “Azeria eta Amiamua” **hibri**. “Astoa eta Txarria” **hibri**.]

VI.7.8. Iñaki Mendiguren Bereziartu (1954)

Ezkio-Itsasokoa. Irakaskuntzan lan egin zuen eta itzultzailea da gaur egun.

Esoporen alegiak plazaratu zizkion Elkarlanean-ek “Irakurmendi” bildumako sail gorrian. Bildumaren helburua euskara ikasten ari diren gazte eta helduei “mailaka egokitutako materiala” ematea dela zehazten da aurkezpenean. Sail gorria goiko mailako ikasleei zuzendutakoa da, “euskaltegietako 7. urratsetik aurrera edo BBB eta

¹³⁶ “Azeria eta Otsoa”, “Azeriaren hiru egiak”, “Txolin Sierra”, “Astoa, Txakurra, Katua eta Oilarra”, “Gizona eta Otsoa”, “Zazpi Ahunzkuma” eta “Ondo eginaren pagua”. Edizio-akats batengatik-edo “Zazpi Ahunzkuma”, aurkibidean egon badagoen arren, argitaratu barik gelditu zen.

¹³⁷ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

LHko 6. mailatik aurrera irakurtzeko”, hain zuzen ere. 1500 hitzetatik gorako lexikoa du. Hori dela eta, orrialdeen azpialdean zenbait hitzen esanahia argitzen da, gaztelaniazko itzulpena eskainiz.

Guztira, 50 alegia dira, hitz lauz, “gazte nahiz helduek irakurtzeko modukoak”, J. M. Ortizen marrazki ederrekin hornituak¹³⁸.

Corpusa eta iturriak

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Iñaki Mendiguren	<i>Alegiak</i>	1999	50 hl	50 Eso

ESOPPO (1999). *Alegiak*. Itzul.: Iñaki Mendiguren; il.: J. M. Ortiz. Donostia: Elkarlanean.

[“Harri bat arrantzatu zuten arrantzaleak” **Eso 23**. “Azeria eta mahatsak” **Eso 32**. “Azeria eta mozorroa” **Eso 43**. “Naufragoa eta Atena” **Eso 53**. “Astronomoa” **Eso 65**. “Nekazaria eta bi semeak” **Eso 83**. “Boreas eta Helios” **Eso 73**. “Ur bila zebiltzan igelak” **Eso 68**. “Etxekoandrea eta neskameak” **Eso 89**. “Emakume zaharra eta sendagilea” **Eso 87**. “Emakumea eta oiloa” **Eso 90**. “Bidaiariak eta hartza” **Eso 254**. “Artea eta kanabera” **Eso 143**. “Erlezaina” **Eso 235**. “Oreina eta parra” **Eso 103**. “Oreina iturrian” **Eso 102**. “Euliak” **Eso 239**. “Errege aukeraturiko tximinoa eta azeria” **Eso 38**. “Tximinoaren eta gameluaren dantza” **Eso 306**. “Urrezko arrautzak zituen antzara” **Eso 287**. “Asto jostaria eta jabea” **Eso 275**. “Aita eta alabak” **Eso 299**. “Gizakiaren urteak” **Eso 139**. “Estatua-saltzailea” **Eso 2**. “Zeus eta dortoka” **Eso 125**. “Zeus eta gizakiak” **Eso 120**. “Inurria eta kakalardoa” **Eso 241**. “Sendagilea hiletan” **Eso 134**. “Txori-ehiztaria eta sugea” **Eso 137**. “Lapurrak eta oilarra” **Eso 158**. “Ipar-belea eta usoak” **Eso 163**. “Belea eta azeria” **Eso 165**. “Txakurra lehoiaren atzetik” **Eso 187**. “Haragi-zatia zeraman txakurra” **Eso 185**. “Lo zegoen txakurra eta otsoa” **Eso 184**. “Eltxoak eta zezena” **Eso 189**. “Lehoia eta igela” **Eso 201**. “Lehoi zaharra eta azeria” **Eso 196**. “Lehoia eta esker oneko sagua” **Eso 206**. “Lehoia eta erbia” **Eso 204**. “Otsoak eta ardiak” **Eso 217**. “Otsoa eta ahuntza” **Eso 220**. “Txakurra eta barraskiloa” **Eso 181**. “Eltxoak eta lehoia” **Eso 188**. “Otso harroa eta lehoia” **Eso 219**. “Astoa eta mandoa” **Eso 272**. “Bi zakutoak” **Eso 303**. “Negua eta udaberria” **Eso 346**. “Dortoka eta erbia” **Eso 352**. “Prometeo eta gizakiak” **Eso 322**.]

VI.7.9. Manuel Arregi (19--)

Alegiak haurrentzat liburua plazaratu zuen Ttartalo argitaletxeak, kartone azalez eta irudiekin, 2000. urtean. Jatorrizko obra *Mis fábulas favoritas* liburua izan zen, Libsa

¹³⁸ Eskema metodologikoan adierazi bezala, ez dut egingo autore honen testu mailako azterketarik, bere lanak ez baititu betetzen bertan adierazitako irizpideak.

argitaletxeak urte berean argitaratua. Manuel Arregik itzuli zuen liburua euskarara. Ilustratzailearen izenik ez da inon ageri.

Liburuak lau atal ditu: “Alegia biziak”, “Betiko alegiak”, “Alegia herrikoiak” eta “Alegia ahaztezinak”. Merkatu-irizpideetan oinarriturik egindako sailkapena da; ez, ordea, literatura-genero honen berezitasunetan oinarriturik.

Corpusa eta iturriak

Guztira, 114 alegia itzuli zituen Arregik. Aurkibidean alegia bakoitzaren jatorria zehazten da: 52, Esoporenak; 15, Fedrorenak; 22, La Fontainerenak; 5, Samaniegorenak; eta 20, beste zenbait alegialarirenak, hala nola, Lessing, Hartzenbusch eta abar.

Horrelako argitalpenetan gertatu ohi denez, iturriak ez dira guztiz zehatzak. Esate baterako, Esoporen izenean datozen hiru alegia ez dira Esoporenak: “Azeria, zakurra eta nagusia” La Fontaineren corpusean sartu dut; “Lapurra eta zakurra”, Fedrorenean eta “Otsoa eta artzainak”, Samaniegorenean.

Bestalde, Fedroren izenpean azaltzen diren bi alegia, “Esopo eta mihiak” eta “Gizona eta harria”, Esoporen bizitzako bi pasarte dira eta ez dira alegiak.

Gauzak horrela, bada, 92 alegiak dute lan honetako iturri klasikoren bat: 49k, Esopo; 14k, Fedro; 23k, La Fontaine; eta 6k, Samaniego.

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Manuel Arregi	<i>Alegiak haurrentzat</i>	2000	114 hl	49 Eso 14 Fe 23 Lf 6 Sam

X. X. (2000). *Alegiak haurrentzat*. Itzul.: Manuel Arregi Urrutia. Madril / Donostia: Libsa / Tarttalo.

[“Saguzarra eta erbinudeak” **Eso 251**. “Lehoia, azeria eta sagua” **Eso 213**. “Usoa eta inurria” **Lf II-12**. “Azeria eta elorria” **Eso 31**. “Saguen Biltzarra” **Lf II-2**. “Otsoa, ama eta haurra” **Eso 223**. “Oreina eta mahastia” **Eso 103**. “Oreina, iturria eta lehoia” **Lf VI-9**. “Oilarra eta perla” **Fe III-12**. “Azeria eta egurgilea” **Eso 34**. “Astoa lehoi larruarekin” **Lf V-21**. “Otso zauritua eta arkumea” **Eso 231**. “Zezenak eta igelak” **Fe I-30**. “Lehoia eta hiru idiak” **Eso 71**. “Arranoa eta oilarrak” **Eso 20**. “Otsoa eta eskortako antxumea” **Eso 106**.

“Lehoi zahartua” **Lf III-14**. “Azeria eta sugea” **Eso 33**. “Euliak” **Sam I-11**. “Otsoa eta ahuntza” **Eso 220**. “Oreina eta oreinkumea” **Eso 247**. “Azeria eta tximinoa, zein nobleago” **Eso 39**. “Azeria isatsa moztuta” **Eso 41**. “Oilarrak eta eperra” **Eso 21**. “Otsoa eta zakurra” **Lf I-5**. “Idiak eta gurdi-ardatza” **Eso 70**. “Arranoa eta gezia” **Eso 7**. “Bele gaixoa” **Eso 168**. “Antxumea eta otso xirularia” **Eso 107**. “Juno jainkosari kexatu zitzaion hegazterrena” **Fe III-18**. “Oilarra eta azeria” **Lf II-15**. “Azeria eta belea” **Lf I-2**. “Bele harroputza” **Sam IV-18**. “Astoa eta lira” **Fe Perotti-14**. “Azeria eta tximino errege koroatua” **Eso 38**. “Arranoa, belatza eta dortoka” **Fe II-6**. “Dortoka eta ahateak” **Lf X-2**. “Arranoa, erbia eta kakalardoa” **Eso 4**. “Bi asto” **Fe II-7**. “Lehoia eta asto harroputza” **Eso 208**. “Zakurra eta krokodiloa” **Sam V-23**. “Azeriak eta Bihurri ibaia” **Eso 29**. “Lehoia eta asto basatia” **Eso 209**. “Zeus eta gamelua” **Eso 146**. “Gamelua eta arkakusoa” **Sam VI-8**. “Lehoia eta basurdea” **Eso 203**. “Lehoia eta eltxo borrokalaria” **Lf II-9**. “Medikua omen zen igela eta azeria” **Eso 69**. “Igel oihularia eta lehoia” **Eso 201**. “Zakurra eta erbia” **Eso 182**. “Zakur txilinduna” **Eso 186**. “Zakur gosetiak” **Fe I-20**. “Zakurra eta ostra” **Eso 181**. “Mendiko sagua eta hiriko sagua” **Lf I-9**. “Esne-saltzailea” **Lf VII-9**. “Errotaria, bere semea eta astoa” **Lf III-1**. “Ahuntzaina eta ahuntza” **Eso 15**. “Bidaiaria eta belea” **Fe Perotti-23**. “Lau naufragoak” **Lf X-15**. “Lapurra eta zakurra” **Fe I-23**. “Gizona eta bere irudia” **Lf I-11**. “Azeria, zakurra eta nagusia” **Lf XI-3**. “Artzaina eta lehoia” **Eso 74**. “Zakurrak hozka egin zion gizona” **Fe II-3**. “Filosofoa eta atleta” **Fe Perotti-13**. “Esponjaz kargatutako astoa eta gatzez kargatutakoa” **Lf II-10**. “Azeria eta pantera” **Eso 37**. “Azeria eta zakurra” **Eso 36**. “Enara eta kanaberak” **Lf I-7**. “Txitxarra eta inurria” **Lf I-1**. “Zakurra lehoiaren atzetik” **Eso 187**. “Irrintzi egin nahi zuen mirua” **Eso 136**. “Inurria” **Eso 240**. “Giza katua” **Lf II-18**. “Saguzarra eta karnaba” **Eso 75**. “Idi izan nahi zuen igela” **Fe I-24**. “Lehoia eta sagua” **Lf II-11**. “Otsoa eta artzainak” **Sam IV-17**. “Gamelua, elefantea eta tximinoa” **Eso 145**. “Azeria eta mahatsa” **Sam IV-6**. “Artzain adar-jotzailea” **Eso 318**. “Otsoa eta zikoina” **Lf III-9**. “Otsoa bere itzalagatik harro” **Eso 219**. “Erbia eta azeria” **Eso 192**. “Otsoa eta ardia” **Eso 230**. “Sokrates eta bere lagunak” **Fe III-9**. “Zakurra eta ibaiaren isla” **Fe I-4**. “Erbiak eta igelak” **Lf II-14**. “Otsoa eta lehoia” **Eso 227**. “Zaldia eta soldadua” **Eso 142**. “Urretxindorra eta gabiraia” **Eso 8**. “Azeria eta antxumea” **Eso 40**.]

Testu mailako azterketa¹³⁹

Objektuak, izakiak. Beste erreferente batzuk eman zituen berridazleak, zenbaitetan, jatorrizkoen ordeztuak: objektu, animalia eta naturako osagaiei dagozkienak, batik bat. Testuaren ulergarritasuna bermatzearen, testua zehaztearen:

Mais quelqu'un troubla la fête... Lf 42	... emakume batek atea zabaldu zuen... Arr 64
Le premier (...) Passent trois bons Marchands (...) ...trois filles passant (...) ...une troisième troupe (...) Un Quidam (...) Lf 106-107	... nekazari batek (...) ... merkatari bat (...) ... dama gazte bat (...) Soldadu bat (...) ... artzain bat (...) Arr 68-69
Dans le cristal d'une fontaine Un Cerf se mirant autrefois... Lf 221	Bere adaje ederra ibaian islaturik ikusteak... Arr 11

¹³⁹ Iturria La Fontaine dutenak aztertuko ditut soilik. Kopuruz gehiago dira. Baliozkoa da horien azterketa, iturria Samaniego duten alegientzat ere.

Sinesmenak. Lanaren balioa goستن du “Txitxarra eta inurria” alegiak (Arr 104), jatorrizkoak ez bezala. Horretarako, txitxar lotsagabe alfer harroa eta inurri langile-langilea kontrajartzen ditu euskal bertsoiak.

Beste adibide honetan, zenbait gauza eraldatzen dira euskal bertsoan. Batetik, katuarenganako amodioa edo, bestela esanda, zoofilia osagaia, eztitua dago euskal testuan; bestetik, *Patuaren* ordezt maitagarriaren figura dugu, Walt Disney faktoriaren eragina, inondik ere; azkenik, gizon maitemindu, ero eta eragilearen ordezt, emakume bakarti, pasibo eta senar on baten eskatzailea dugu:

<p>Un Homme chérissait éperdument sa Chatte, Il la trouvait mignonne, et belle, et délicate, Qui miaulait d’un ton fort doux : Il était plus fou que les fous. Cet Homme donc, par prières, par larmes, Par sortilèges et par charmes, Fait tant qu’il obtient du Destin Que sa Chatte en un beau matin Devient femme, et le matin même Maître sot en fait sa moitié. Lf 97</p>	<p>Egun batean, katuarekin bakarrik bizi zen emakume bati maitagarria agertu zitzaion eta desio bat eskatzeko esan zion: —Senar on bat nahi dut, nire katua bezain ona — erantzun zion emakumeak. Maitagarriak, emakumearen desioa zuzen-zuzen bete nahian, katua galai lirain bihurtu zuen. Hilabete batzuk barru bikote maitemindua ezkondu egin zen eta... Arr 108</p>
---	---

Arregiren “Giza katua” dugu “La Chatte métamorphosée en Femme” alegiaren euskal berridazketa bakarra. Edozelan ere, nabarmen aldatuta eskaintzen zaigu haren edukia, haurrentzat desegokia dela juzkatu dutelako bildumaren egileak eta haren kudeatzaileek.

Kontzeptuak. Tasunak edo ekintzak egokitzen dizkie berridazleak animaliei, jatorrizkoan halakorik ez dagoen arren. Lehoi tratu txar emailea, adibide honetan:

<p>Le Lion (...) Fut enfin attaqué par ses propres sujets Devenus forts par sa faiblesse. Lf 128</p>	<p>Animalia guztiak mendekua hartzea erabaki zuten, sasoikoa eta indartsua zenean, lehoiak eman zizkien tratu txarreatatik... Arr 20</p>
--	--

Belea lapur ageri zaigu beste honetan:

<p>Maître Corbeau, sur un arbre perché, Tenait en son bec un fromage. Lf 32</p>	<p>Azokan gazta lapurtu ondoren, belea zuhaitz adar batean pausatu zen jaki goxoa dastatu asmoz. Arr 38</p>
---	---

Izen bereziak. Itzuli gabe utzi zituen gehienak; baten bat itzuliz gero, erreferente arrunta eman zuen. Inoiz, alegiazko izen bat asmatu zuen.

- Animalien izen bereziak: Rodilardus/Ø (Lf 71, Arr 8).
- Pertsona-izenei erreferente arrunta egokitu zien: Martin/nekazari bat (Lf 205, Arr 14); Perrette/neskatxa bat (Lf 266, Arr 66).
- Toki-izen alegiazkoak asmatu zituen: Ø/Sagulerri (Lf 71, Arr 8).

- Mitoak, pertsonaia historikoak, obra klasikoetako pertsonaiak eta beste ez zituen itzuli: Phénix/Ø (Lf 32, Arr 38); Picrochole, Pyrrhus/Ø (Lf 267, Arr 67).

Paremiak. Osoki desagertu da euskal bertsiotik osagai paremiologikoa. Esakune bat bera ere ez zuen itzuli.

Generoarean ikuspegia. Genero-bortizkeriarekin lotua dagoen pasarte hau baztertu zuen berridazleak, “La Laitière et le Pot au lait” alegiakoa, hain zuzen:

Va s’excuser à son mari En grand danger d’être battue. Lf 267	[Ø] Arr 66
--	------------

Ipuin tradizionalen baliabideak. Hasiera-formulak erabili zituen alegiak ipuin bihurtzeko: “behin batez”, “behin batean”...

Un Chat... Lf 71	Behin batez, Sagulerrin, katutzar bat agertu zen... Arr 8
------------------	---

Adibide honetan testua zabaldu egin zuen Arregik, hiru ekintza emanez, ipuin tradizioaletan ohikoa den bezala:

Mais quelqu’un troubla la fête, Pendant qu’ils étaient en train. Lf 42	... emakume batek atea zabaldu zuen. Zaratarekin izututa, lasterka batean joan ziren zulora ezkutatzera. Berriro ere joan ziren gazta bila eta orduan ume bat azaldu zen... Berriz saiatu ziren, eta berdin, oraingoan etxeko nagusia agertu baitzen. Arr 64
--	---

Umorea erabili zuen pertsonaiak deskribatzean eta haien izenak asmatzean:

...leur Doyen, personne fort prudente ,... Lf 71	Gaztazale jaun ele-ederrak... Arr 8
---	--

Aldaketa morfosintaktikoak. Zehar estiloari zuzeneko solasa gehitu zion:

Autrefois le Rat de ville Invita le Rat des champs, D’une façon fort civile, À des reliefs d’ortolans. Lf 42	Behin batean hiriko saguak bere etxera gonbidatu zuen mendiko sagua. —Zatoz nirekin, ikusiko duzu zer den ongi bizitzea . Arr 64
---	--

Lautzea. Prozedurarik erabiliena da. Berridazleak osagai narratibo soila ematea du helburu. Hortaz, poesia-baliabide gehienak kendu zituen, hala nola deskripzio aberats eta joriak, hiperboleak, adjektibazioa, metaforak, hiztegi berezitua (elizako karguak...), sinonimia, esapideak... Hizkera konnotatiboa, oro har:

Le long d’un clair ruisseau buvait une Colombe... Lf 85	Usoa errekan edaten ari zela... Arr 6
Légère et court vêtue elle allait à grands pas ; Ayant mis ce jour-là pour être plus agile Cotillon simple, et souliers plats. Lf 266	[Ø] Arr 66
Passe un certain Croquant qui marchait les pieds nus. Lf 86	...gizon bat azaldu zen... Arr 6
Dès qu’il voit l’Oiseau de Vénus... Lf 86	Usoa ikusi zuenean... Arr 6
Deux Coursiers à longues oreilles... Lf 83	Bi asto... Arr 99
Chapitres non de Rats, mais chapitres de moines, Voire chapitres de chanoines... Lf 72	[Ø] [Ø] Arr 8

Quittez les bois, vous ferez bien : Vos pareils y sont misérables, Cancres, haïres, et pauvres diables... Lf 35	[Ø] [Ø] [Ø] [Ø] Arr 29
Un Loup n'avait que les os et la peau... Lf 35	Otso goseti bat... Arr 29

Horiek guztiak kenduta, muin narratiboa baino ez da gelditzen. Arregiren edozein alegia izan daiteke horren adibide; “Lehoia eta eltxo borrokalaria”, esaterako, adibide bikaina da alderatzeko La Fontaineren alegiaren aberastasuna eta prosazko bertsiorearen narrazio-esentzia norainokoak diren. Hasiera aski dugu euskal testuaren biluztasuna egiaztatzeko:

Va-t'en, chétif Insecte, excrément de la terre. C'est en ces mots que le Lion Parlait un jour au Moucheron. L'autre lui déclara la guerre. Penses-tu, lui dit-il, que ton titre de Roi Me fasse peur ni me soucie? Lf 81	Eltxoari hurbildu zitzaion: —Ez dizut beldurrik... Arr 57
---	--

Lautze hori helburu, inausketa modukoak egin zituen batzuetan: “La Laitière et le pot au lait” alegiaren bigarren partea, esaterako, inausia dugu euskal berridazketan. Izan ere, sorburu-kulturako osagaiz betea dago bigarren zati hori, hala nola *Gargantuako* pertsonaiak, François Maynard-en *Chansonen* halako oihartzun bat...¹⁴⁰

Beste batzuetan, lautzeko argumentu-aldaketak egin zituen berridazleak: “Otsoa eta zikoina” alegian sari bat agintzen dio otsoak zikoinari. Jatorrizkoan, berriz, ez dago halako sari-eskaintzarik. Narrazioaren logikari ondo datorkiolakoan egindako aldaketa da.

Près de là passe une Cigogne ; Il lui fait signe, elle accourt. Lf 122	...zikoinari eskatu zion [hezurra] ken ziezaion. Hori lortzen bazuen sari bikain bat agindu zion. Arr 117
---	---

Arrazoibide ezberdina eman zuen berridazleak adibide honetan:

Sans mentir, si votre ramage Se rapporte à votre plumage, Vous êtes le Phénix des hôtes de ces bois. Lf 32	Tamalgarría, kantuan hasten zarenean beste guztiok belarriak estali beharra! Zure ahotsa hain da beldurgarria, negargura sortzen du. Arr 38
--	---

Irakaspenen mezua. Gehienetan kendu egin zuen.

- Irakaspen berdintsua ematea:

Attaché ? dit le Loup : vous ne courez donc pas Où vous voulez ? Pas toujours, mais qu'importe ? Il importe si bien, que de tous vos repas Je ne veux en aucune sorte, Et ne voudrais pas même à ce prix un trésor. Lf 36	Lotuta? –oihukatu zuen otsoak–. Ezin al duzu nahi bezala ibili? Prezio horretan ez dut altxorrik preziatuena ere nahi. Arr 29
---	---

¹⁴⁰ Collinetti jarraitu diot xehetasun horiei dagokienez (1991: 1178).

- Irakaspena kentzen du ia beti:

Apprenez que tout flatteur Vit aux dépens de celui qui l'écoute. Lf 32	[Ø] Arr 38
...fi du plaisir Que la crainte peut corrompre. Lf 43	[Ø] Arr 64
Ne faut-il que délibérer, La cour en conseillers foisonne ; Est-il besoin d'exécuter, L'on ne rencontre plus personne. Lf 72	[Ø] Arr 8
Quelle chose par là nous peut être enseignée ? J'en vois deux, dont l'une est qu'entre nos ennemis Les plus à craindre sont souvent les plus petits ; L'autre, qu'aux grands périls tel a pu se soustraire, Qui périt pour la moindre affaire. Lf 82	[Ø] Arr 57
...il ne faut point Agir chacun de même sorte. Lf 84	[Ø] Arr 99
Car c'est double plaisir de tromper le trompeur. Lf 92	[Ø] Arr 37
Il faut, autant qu'on peut, obliger tout le monde. Lf 85	[Ø] Arr 111
Patience et longueur de temps Font plus que force ni que rage. Lf 85	[Ø] Arr 111
Quant à vous suivez Mars, ou l'Amour, ou le Prince ; Allez, venez, courez ; demeurez en province ; Prenez femme, abbaye, emploi, gouvernement ; Les gens en parleront, n'en doutez nullement. Lf 107	[Ø] Arr 69
Force gens font du bruit en France Par qui cet apologue est rendu familier. Un équipage cavalier Fait les trois quarts de leur vaillance. Lf 205	[Ø] Arr 14
Nous faisons cas du Beau, nous méprisons l'Utile ; Et le Beau souvent nous détruit. Lf 221	[Ø] Arr 11

Poesia berridazteko moduak. Berridazlea jatorrizkoaren formaz ezaxolatu zen, eta prosaz ondu zituen La Fontaineren alegiak. Prosifikazioa dugu, beraz, berridazketa honen transformaziorik esanguratsuena. Hari narratiboari eutsi zion, baina haren muinaren muinari, esentziari soilik.

Ondorioak

Bertsio laburbilduak dira, lauak, oso lauak edo lautuak. Argumentuari eutsi diote gehienek. Baina galdu egin dituzte baliabide erretoriko eta poetiko guztiak. Hartzailleak haurrak izateak eragin zuen hain bertsio biluziak egin izana.

Halaber, irakaspenak galdu dituzte. Hortaz, esanahi moral-didaktikoa desagertu da. Baita osagai paremiologikoa ere, alegiagintzan garrantzia handia duena, hain zuzen.

Tradiziozko ipuingintzaren eremuan kokatu behar dira bertsio hauek. Ipuingintzak dituen arauen baitan, hala nola, tradiziozko ipuinen hasiera-formulen erabilera, zenbakien erabilera, eta abar.

Ideologia-alderdian, inoiz Walt Disney faktoriaren eraginaren zantzuak suma daitezke bertsioren batean, jatorrizkoa ez titzearren.

VI.7.10. Koldo Biguri (1962)

Gasteiztarra. Itzultzailea. Arabako Foru Aldundiaren enkargupean itzuli zuen Bigurik Samaniegoren obra, arabar alegialariaren heriotzaren 200. urteurrenaren kariatara.

Alegiak. Fábulas izenburuarekin plazaratu zen, 2003an, Emilio Palacios-ek apailaturiko edizio elebiduna. Palacios-ek ikerketa zabala egin zuen edizio horretarako: besteak beste, Samaniegoren bizitzaren eta lanen berri eman zuen, alegiei buruzko azalpen sakona idatzi, eta bibliografia oinarritzkoa jarri zuen. Horren guztiaren ondoren dator Biguriren itzulpena, sorburu-testua eta xede-testua parez pare jarrita daudela. Bigurik, gainera, Samaniegoren iturriei buruzko oin-oharrak eta bestelako jakingarriak ipini zituen. Eduki horiengatik guztiengatik esan daiteke itzulpen filologikoa dela Bigurirena¹⁴¹.

Zenbait kezka adierazi zituen Bigurik “Itzultzailearen oharrak” goiburupean (2003: 138-143). Bertsoen neurriak nolakoa behar zuen izan erabakitzeke zalantzak izan zituela: neurri libreak ala tradizioko neurriak? Gaztelaniazkoak ala euskarazko alegiagintzan erabilitakoak? Azkenik, itzulpenak helburu pedagogikoari eutsi behar ziolako, zortziko nagusia hautatu zuela, besteak beste, gainerako euskal alegialariek ere baliabide hori aukeratu zutelako beren asmo didaktikoei begira. Horrela jokatuta, alegiok buruan atxikitzeke erraztasunak emanez, baliagarri gertatuko ziren Samaniegoren alegiak XXI. mendeko haur euskaldunentzat, Biguriren iritziz.

Bere itzultzeke modua kalifikatzeko garaian, zenbait termino erabili zituen Bigurik. ‘Bertsio’ terminoa erabili zuen pare bat aldiz: “[...] erabakia [...] jatorrizkotik ahalik eta hurbileneko bertsioa egitea zen, beti ere bi hizkuntzen arteko aldea kontuan izanik” (ibidem: 140). Aurrerago: “argi dago [...] nire itzulpen hau bertsio bat dela, ez itzulpen peto-petoa”. Edozein modutan, aurreko euskaratzaileen moduetatik urruntzen dela dio: “[...] aurreko alegi-itzultzaile zenbaitek ez bezala, neure golkotik oso gutxi

¹⁴¹ Hurtado Albir-en terminoak eta definizioak erabiliz (2001).

erantsi diot euskarazko testuari, nire asmoa beti izan baita ahalik eta bertsio literalena egitea” (ib.: 141).

Bide batez esanda, euskara batuan emaniko Samaniegoren alegia guztien lehen itzulpena da Bigurirena, hark adierazi bezala “gaurko ikastola eta ikastoletan testu hau txukun erabiltzerik egon zedin”.

Corpusa eta iturriak

Euskaratzailea	Lanak	Noiz	Alegiak: zenbat, nola	Iturriak
Koldo Biguri	<i>Alegiak. Fábulas</i>	2003	157 hn	157 Sam

SAMANIEGO, Félix María de (2003). *Alegiak. Fábulas*. (Edizio Elebiduna / Edición Bilingüe: euskara / castellano). Edizioa: Emilio Palacios Fernández; itzul.: Koldo Biguri. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

[“Astoa eta Zeria” **Sam I-1**. “Txitxarra eta Inurria” **Sam I-2**. “Mutila eta Fortuna” **Sam I-3**. “Galeperra” **Sam I-4**. “Arranoa eta Kakalardo” **Sam I-5**. “Gizonak menderatu zuen Lehoia” **Sam I-6**. “Azeria eta Hartziko Burua” **Sam I-7**. “Gorteko Sagua eta landako Sagua” **Sam I-8**. “Errementaria eta Zakurra” **Sam I-9**. “Azeria eta Zikoina” **Sam I-10**. “Euliak” **Sam I-11**. “Lehoinabarra eta Tximuak” **Sam I-12**. “Iturriko Oreina” **Sam I-13**. “Lehoia eta Azeria” **Sam I-14**. “Orein ama eta bere Kumea” **Sam I-15**. “Baserritarra eta Zikoina” **Sam I-16**. “Sugea eta Lima” **Sam I-17**. “Burusoila eta Eulia” **Sam I-18**. “Bi lagunak eta Hartza” **Sam I-19**. “Arranoa, Katemea eta Basurdea” **Sam I-20**. “Lehoia bere armadarekin” **Sam II-1**. “Esne Saltzailea” **Sam II-2**. “Asto burutsua” **Sam II-3**. “Artzaina eta Ardiak” **Sam II-4**. “Arranoa, Belea eta Dortoka” **Sam II-5**. “Otsoa eta Zikoina” **Sam II-6**. “Gizona eta Sugea” **Sam II-7**. “Txori geziz zauritua” **Sam II-8**. “Arrantzalea eta Arraina” **Sam II-9**. “Txolarrea eta Erbia” **Sam II-10**. “Jupiter eta Dortoka” **Sam II-11**. “Hitzontzia” **Sam II-12**. “Mirua eta Usoak” **Sam II-13**. “Bi Igelak” **Sam II-14**. “Mendiak haurgintzan” **Sam II-15**. “Igelak errege eske” **Sam II-16**. “Astoa eta Zaldia” **Sam II-17**. “Arkumea eta Otsoa” **Sam II-18**. “Ahuntzak eta Akerrak” **Sam II-19**. “Zaldia eta Oreina” **Sam II-20**. “Arranoa eta Belea” **Sam III-1**. “Animalien izurritea” **Sam III-2**. “Miru gaixoa” **Sam III-3**. “Lehoi zahartua” **Sam III-4**. “Azeria eta Oiloa” **Sam III-5**. “Oreina eta Lehoia” **Sam III-6**. “Lehoi maitemindua” **Sam III-7**. “Saguen batzarra” **Sam III-8**. “Otsoa eta Ardia” **Sam III-9**. “Gizona eta Arkakusoa” **Sam III-10**. “Belea eta Sugea” **Sam III-11**. “Astoa eta Igelak” **Sam III-12**. “Astoa eta Zakurra” **Sam III-13**. “Lehoia eta Astoa ehizan” **Sam III-14**. “Hitzontzia eta Larregizona” **Sam III-15**. “Tximu lotsatua” **Sam IV-1**. “Astoa eta Jupiter” **Sam IV-2**. “Ehiztaria eta Eperra” **Sam IV-3**. “Agurea eta Heriotza” **Sam IV-4**. “Gaixoa eta Sendagilea” **Sam IV-5**. “Azeria eta Mahatsak” **Sam IV-6**. “Oreina eta Mahastia” **Sam IV-7**. “Erlikiaz kargaturiko Astoa” **Sam IV-8**. “Bi Mandoak” **Sam IV-9**. “Ehiztaria eta Zakurra” **Sam IV-10**. “Dortoka eta Arranoa” **Sam IV-11**. “Lehoia eta Sagua” **Sam IV-12**. “Erbiak eta Igelak” **Sam IV-13**. “Oilarra eta Azeria” **Sam IV-14**. “Lehoia eta Ahuntza” **Sam IV-15**. “Aizkora eta Kirtena” **Sam IV-16**. “Pantera eta Artzainak” **Sam IV-17**. “Eskilaso harroa” **Sam IV-18**. “Gizona eta Erbinudea” **Sam IV-19**. “Erbinude eta Saguen arteko gerra” **Sam IV-20**. “Lehoia eta Igela” **Sam IV-21**. “Oreina eta Idiak” **Sam IV-22**. “Itsasontzi batean” **Sam IV-23**. “Ur lasterrak eta Ibaia” **Sam IV-24**. “Lehoia, Otsoa eta Azeria” **Sam IV-25**. “Saguak

eta Katua” **Sam V-1**. “Astoa eta Otsoa” **Sam V-2**. “Astoa eta Zaldia” **Sam V-3**. “Nekazaria eta Probidentzia” **Sam V-4**. “Lehoi-larruz jantzitako Astoa” **Sam V-5**. “Urrezko arrautzak erruten zituen Oiloa” **Sam V-6**. “Karramarroak” **Sam V-7**. “Igel egarrituak” **Sam V-8**. “Belea eta Azeria” **Sam V-9**. “Hankamotza eta Pikaroa” **Sam V-10**. “Gurdizaina eta Herkules” **Sam V-11**. “Azeria eta Akerra” **Sam V-12**. “Otsoa, Azeria eta Tximu epailea” **Sam V-13**. “Bi Oilarrak” **Sam V-14**. “Tximua eta Azeria” **Sam V-15**. “Emakume Katua” **Sam V-16**. “Lehoi emea eta Hartza” **Sam V-17**. “Otsoa eta Zakur argala” **Sam V-18**. “Ardia eta Oreina” **Sam V-19**. “Alportxa” **Sam V-20**. “Asto dohakabea” **Sam V-21**. “Basurdea eta Azeria” **Sam V-22**. “Zakurra eta Krokodiloa” **Sam V-23**. “Erbinudea eta Saguak” **Sam V-24**. “Otsoa eta Zakurra” **Sam V-25**. “Artzaina eta Filosofoa” **Sam VI-1**. “Gizona eta Mamua” **Sam VI-2**. “Basurdea eta Aharia” **Sam VI-3**. “Azeria, Andrea eta Oilarra” **Sam VI-4**. “Filosofoa eta Larregizona” **Sam VI-5**. “Indioiloa eta Inurria” **Sam VI-6**. “Gaixoa eta Ikuspena” **Sam VI-7**. “Gamelua eta Arkakusoa” **Sam VI-8**. “Zerria, Aharia eta Ahuntza” **Sam VI-9**. “Lehoia, Tigrea eta Bidaztia” **Sam VI-10**. “Balbea” **Sam VI-11**. “Eros eta Eromena” **Sam VI-12**. “Azeri gaixotua” **Sam VII-1**. “Lehoi emearen hileta” **Sam VII-2**. “Poeta eta Arroza” **Sam VII-3**. “Mozoloa eta Gizona” **Sam VII-4**. “Tximua” **Sam VII-5**. “Esopo eta Atenastar bat” **Sam VII-6**. “Demetrio eta Menandro” **Sam VII-7**. “Inurriak” **Sam VII-8**. “Katu mizkinak” **Sam VII-9**. “Arranoa eta Animalien batzarra” **Sam VII-10**. “Usoa” **Sam VII-11**. “Aker bizargabetua” **Sam VII-12**. “Simonidesen naufragioa” **Sam VIII-1**. “Filosofoa eta Arkakusoa” **Sam VIII-2**. “Ehiztaria eta Untxiak” **Sam VIII-3**. “Filosofoa eta Faisaia” **Sam VIII-4**. “Zapatari medikua” **Sam VIII-5**. “Saguzarra eta Erbinudea” **Sam VIII-6**. “Tximeleta eta Barraskiloa” **Sam VIII-7**. “Bi Txerpolariak” **Sam VIII-8**. “Azeria eta Zakurra” **Sam VIII-9**. “Katua eta Txoriak” **Sam IX-1**. “Artzain dantza” **Sam IX-2**. “Bi zakurrak” **Sam IX-3**. “Moda” **Sam IX-4**. “Otsoa eta Artzain-Zakurra” **Sam IX-5**. “Neska ederra eta Ispilua” **Sam IX-6**. “Agurea eta Zakur-Saltzailea” **Sam IX-7**. “Kateme kaskabiloduna” **Sam IX-8**. “Urretxindorra eta Mozoloa” **Sam IX-9**. “Jabea eta Zakurra” **Sam IX-10**. “Bi ehiztariak” **Sam IX-11**. “Katua eta Ehiztaria” **Sam IX-12**. “Artzaina” **Sam IX-13**. “Zozo txirularia” **Sam IX-14**. “Azeria eta Otsoa” **Sam IX-15**. “Kaletar Artzaina” **Sam IX-16**. “Lapurra” **Sam IX-17**. “Filosofo gaztea eta haren lagunak” **Sam IX-18**. “Elefantea, Zezena, Astoa eta beste Animaliak” **Sam IX-19**.].

Kritika

López Gaseniren ustez, “emaitza argi dotorea” lortu zuen Bigurik. Hala ere, alegion balizko erabilerari eta hartzaileei dagokienez, uzkur ageri da eta zera diosku: “Edizio hau «XXI. mendeko ume euskaldunentzat ere baliagarri» izatea bainoago, Samaniegoren omenezko edizio testimonial dotoretzat hartu beharko genuke” (2005: 44).

Karlos del Olmok, berriz, liburuak helburu nagusiak egoki betetzen dituela dio, “ikerlariei gogorako bazka eta ume-gurasoei gura beste gozaldi ematea” (*Berria*, 2004-05-29).

Testu mailako azterketa

Objektuak eta izakiak. Badira aldeak eta ñabardurak objektu eta izakiei dagokienez, errima- eta metrika-premiak eragindakoak, agi denez: harina, berza/jateko ona (Sam 58, Bi 166); alguna gente/jende mordoa...hiru gizonen erdian...laugarren batek (Sam 58, Bi 166); sin mosca, sin gusano/Ø (Sam 59, Bi 168); sin trigo y sin centeno/Ø (Sam 59, Bi 168); tabique en medio/kobaren alboan (Sam 59, Bi 168). Askotan erreferenteari izenondo bat erantsiz edo kenduz konpondu zituen premia horiek: Cochino/Zerri mardul (Sam 58, Bi 166); Jumento/Asto meharra (Sam 58, Bi 166); Cigarra/Txitxar nagi bat (Sam 59, Bi 168); Hormiga/Inurri lagun bat (Sam 59, Bi 168); incauto Mancebo/Mutiltxo bat (Sam 61, Bi 172); estrecho lazo/lakio (Sam 61, Bi 174); la Codorniz sencilla/galeperra (Sam 61, Bi 174); Águila sangrienta/Arrano (Sam 62, Bi 176); Águila/Arrano harro gaiztoa (Sam 62, Bi 176). Jatorrizkoan ez dauden erreferenteak asmatu behar izan zituen, beste batzuetan, errima- eta metrika-premia horietara egokitzeke: Ø/soroan eta mendian.

Bestetan, halako trufazko edo ironiazko kutsu moduko bat hartzen du erreferente-aldaketak. Elizgizonen jatun-ospea agerira azalduz, jite antiklerikala hartzen du itzulpenak:

Llegó el Joven al final de la jornada, Olvidando sus máximas primeras, A ser devorador como las fieras. Sam 220	lotsarik gabe orain zituen bisitatzen sukaldeak, azkenik hura bezain jatunak ez ziren ezta fraideak. Bi 704
---	--

Izen bereziak. Pertsona-izenak berdin-berdin eman zituen, oro har: Esopo/Esopo (Sam 62, Bi 176); Fedro y La Fontaine/La Fontaine eta Fedro (Sam 78, Bi 236); César/Zesar (Sam 82, Bi 246); Pedro el zar/Petro tsarra (Sam 202, Bi 650); Aníbal y Escipión/Anibal eta Eszipion (Sam 204, Bi 654); Fabio/Fabio (Sam 207, Bi 662); Anarda/Anarda (Sam 206, Bi 660); Farinelo/Farinelo (Sam 210, Bi 670); Misón/Mison (Sam 214, Bi 684). Inoiz, soildu egin zituen: Pedro Ponce/Pedro (Sam 212, Bi 676); Juan Carranza/Juan (Sam 212, Bi 676). Bakarren bat ez zuen itzuli: Octavio/Ø (Sam 89, Bi 268). Bakanen bat naturalizatu egin zuen: Juan Regaña/Pello (Sam 144, Bi 468).

Geografia-izenak eta geografia-izenekin lotutakoak itzultzeko ez zuen estrategia bateraturik erakutsi. Batzuetan, eman egin zituen: Calabria/Kalabria (Sam 82, Bi 246); África/Afrika (Sam 202, Bi 650); Tetuán/Tetuan (Sam 203, Bi 652); Zama/Zama (Sam 204, Bi 654). Beste batzuetan, ez: queso fresco de Holanda/gazta (Sam 65, bi 184);

Holanda/Ø (Sam 67, Bi 194); España/Ø (Sam 69, Bi 202 eta Sam 79, Bi 238); Campo Santo/Ø (Sam 215, Bi 688). Batzuetan, halakoei arrotz iritzi zielako-edo, aldatu egin zituen: Ratópolis/ herri osoa (Sam 65, Bi 186); Tetuán/Afrika (Sam 68, Bi 200); Toro de Jarama/Zezen bat (Sam 222, Bi 708).

Mitologia-izenak eta literaturako pertsonaiak itzultzean, gehienetan berdin-berdin eman zituen: Júpiter/Jupiter (Sam 63, Bi 178); Amiclas/Amiklas (Sam 82, Bi 246); Marte/Marte (Sam 81, Bi 244); Bato/Bato (Sam 200, Bi 644); Ulises/Ulises (Sam 202, Bi 650); Morfeo/Morfeo (Sam 209, Bi 668); Tereo/Tereo (Sam 209, Bi 668); Pan/Pan (Sam 209, Bi 668); Orfeo/Orfeo (Sam 209, Bi 668); Sancho Panza/Santxo Panza (Sam 212, Bi 676); Salicio/Salizio (Sam 213, Bi 682); Mopso/Mopso (Sam 217, Bi 692); pastora Nise/Nise artzaintsa (Sam 217, Bi 694). Edozelan ere, inoiz ekidin egin zuen baten bat: Cid/Ø (Sam 69, Bi 202); la diosa Ceres/Ø (Sam 73, Bi 216).

Animalien izenak berdintsu itzuli zituen, oro har: Mirrimiz/Mirrimiz (Sam 198, Bi 640); Sultán, Pinto/Sultan, Pinto (Sam 201, Bi 648); Zapaquilla/Zapakildatxo (Sam 207, Bi 554). Batzuetan saihestu zituen halakoak: Roepán primero/Ø (Sam 65, Bi 186); la Mohína y la Roncera/Ø (Sam 144, Bi 468); Garraf/Ø (Sam 208, Bi 666).

Paremiak. Ordainak emateko estrategia diferenteak erabili zituen.

Gehienetan, literalki itzuli zituen. Dena dela, emaitzak ezin har daitezke euskal esapide edo paremiatzat:

Y no es bien al entrar do no se sale. Sam 72	Ez da komeni inoiz sartzea irten ezin den lekura. Bi 210
La prudente cautela mucho vale. Sam 72	zuhurtasuna lagun ona da Bi 210
Aparta tu amistad de la persona Que si te ve en el riesgo te abandona Sam 75	Adiskideak uzten bazaitu arrisku handiko trantzean ez berriz hartu inola ere zure lagunaren artean. Bi 226
¡Cuántas veces resulta de un engaño, Contra el engañador el mayor daño! Sam 82	Kaltegarria izaten da bai engainatzeko joera, kaltetuena izan daiteke engainatzailea bera. Bi 248
Si besan la peana, es por el santo. Sam 118	ematen baldin bazaio zutoin bati musua santurengatik dela, ez izan hain itsua. Bi 370
Así la suerte adversa es tolerable, comparada con otra miserable. Sam 122	Patu gaiztoa izan liteke guretzat ere arina, okerragoko beste batekin fortunatuko bagina. Bi 390
El amo bueno No se debe fiar del ojo ajeno. Sam 130	nagusi ona ezin da fida beste inoren begiaz. Bi 318

La fuerza de las leyes Suele ser el ejemplo de los reyes. Sam 141	Izan ere, erregeen erakutsi onetan datza legeen indarra, ez beraien hitzetan. Bi 456
El que tiene de vidrio su tejado, Esto logra de bueno Con tirar las pedradas al ajeno. Sam 195	Inork badauka kristalezkoa teilatua bere etxean, hori lortzen du inorenari harriren bat jaurtitzean. Bi 628

Bestetan, itzulpen literala egin zuen euskal esapide edo paremia jatorrak erabiliz:

Quien pretende sin razón Al más fuerte derribar, No consigue sino dar Coces contra el aguijón. Sam 74	Erokeria duzu orain eta beti iraina egitea handiago bati. Izan ondo kontuan behin eta betiko: ez jo akuiluari indarrez ostiko. Bi 218 ¹⁴²
De árbol caído todos hacen leña. Sam 101	zuhaitz erori batetik denek egiten dute egurra. Bi 314 ¹⁴³
Al asno muerto la cebada al rabo. Sam 116	asto hilari uzkitik pentsua. Bi 366 ¹⁴⁴

Euskal paremia baliokideren bat eman zuen inoiz itzultzaileak:

Quien malas mañas ha... Sam 173	nahiz azeriak ilea galdu ez da larruz aldatuko. Bi 562 ¹⁴⁵
...el refrán castellano Dice: Más vale pájaro en la mano...? Sam 86	Deus ere ez baino ezer hobe da. Bi 258 ¹⁴⁶

Beste batzuetan, era librean itzuli zuen. Ordaina, hala ere, ezin har daiteke euskal esapidetzat:

¡Oh loca fantasía, Qué palacios fabricas en el viento! Sam 81	Ameskeriak beti haize hutsa dira. Bi 242
Después de tanto ruido, solo viento. Sam 91	Baina azkenik haien emaitza izaten da sarri hutsa, haien buruak ume bakarra izaten du: haize putza. Bi 274
como gato por liebre. Sam 102	ustezko gizabideaz gaituzte engainatzen Bi 320
Con la meditación y la experiencia Llegará a conocer virtud y ciencia. Sam 158	Eskarmentua duen gizonak bere egiak aztertzean, bertutea du ezagutuko jakintzaren baratzean. Bi 518
“¿Quién te mandó... ...meterte a consejero, No sabiendo mirar por ti primero?” Sam 86	...hire aholkuekin nauk haserre arazia; besteei esana hik ez duk bete, horra hire ahulezia. Bi 260

¹⁴² Gotzon Garaten: *Ostikoa akuluaganako, idientzat gaxo*. Seguru asko, Iturriagari hartua.

¹⁴³ Oihenarten: *Bago erorira egurkari guziak laster ari dira*.

¹⁴⁴ Gotzon Garaten: *Asto hilari, uzkitik olo*.

¹⁴⁵ Gotzon Garaten: *Azeriak ilea aldatzen, baña larrua ez. Azeriari joan arren ulea, antza bera*.

¹⁴⁶ Gotzon Garaten: *Zeredozer obe, ezerrez baino. Deus ez baño, pixko bat obe*.

Bakanetan utzi zuen paremia itzuli gabe:

No están maduras. Sam 69	[Ø] Bi 200
Pero escarmiente ahora en tal cabeza. Sam 70	[Ø] Bi 206
No anheles impaciente el bien futuro; Mira que ni el presente está seguro. Sam 81	[Ø] Bi 242

Behin, paremia diferentea eman zuen, beste eduki moral bat txertatzeko, eta Samaniegoren mezu iraulira hurbiltzeko:

<i>Haz bien, dice el proverbio castellano, Y no sepas a quién; pero es muy llano Que no tiene razón ni por asomo : Es menester saber a quién y cómo. Sam 84</i>	Ixtorio honek erakusten du esaera zaharra: on eginaren saria dela sarri esker txarra. Bi 252 ¹⁴⁷
---	--

Generoaren ikuspegitik euskal bertsoak emakumezkoa ikusezin utzi zuen, zenbaitetan. ‘Gizonak’ ipinita, adibide honetan:

<i>Consuele al abatido tal mudanza, Sirva también de ejemplo a los mortales, Que se juzgan exentos de los males Cuando se ven en próspera bonanza. Sam 146</i>	Ikas bezate gizon guztiak on-aldian daudenean, uste baitute gaitz gehiagorik ez dutela jasan behar. Bi 474
--	---

Adibide honetan, emea ar bihurtu zuen, hots, ‘reina’ errege bihurtu zuen; eta arrano beltz:

“¡Oh reina de las aves escogida!... Sam 62	“Hegazti denen errege hori... Bi 176
La reina de las aves sin consuelo... Sam 63	Ikusi zuen Arrano beltzak... Bi 178

Inoiz, emeen jarrera deskribatzerakoan, kutsu sexistagoa du. Azpikoago ageri dira emeak adibide honetan:

<i>Habiendo a su rival vencido un Gallo, Quedó entre sus gallinas victorioso, Más grave, más pomposo Que el mismo gran Sultán en su serrallo. Sam 146</i>	Bere etsaia menderaturik, Oilar bat zegoen harro-harro oilo guztiak haren atzetik zebiltzan han lerro-lerro. Bi 474
---	--

Konpentsazioa. Izenondoa galdu baina geroago berreskuratu egin zuen:

A las voces, según Esopo cuenta, Acudió un compasivo escarabajo... Sam 62	Kakalardo bat Esopok dio iritsi zela korrika, ba omen zuen zomorro onak... Bi 176
--	---

Esplizitu bihurtzea. Esaldi leungarriaren ordeaz, haren erreferente zuzena aipatu zuen itzultzaileak adibide honetan:

[el Escarabajo] ...una bola fabrica diestramente De la materia en que continuamente Trabajando se halla, Cuyo nombre se sabe, aunque se calla... Sam 63	Simaurra bilduz osatu zuen bola bat zabal-zabala... Bi 178
--	---

Aldaketa morfosintaktikoak. Zehar estilotik zuzeneko solasera igaro zen:

¹⁴⁷ Gotzon Garaten: *On eginaren saria, esker txarra.*

La reina de las aves... A Júpiter excelso humilde llega, Expone su dolor, pídele, ruega Remedie tanto mal. Sam 63	“Jupiter jainko goresgarria eskatzen dizut bengantza, zure haserre neurrigabeaz nik badaukat konfiantza”. Bi 178
Del trágico suceso noticiosa, Arrepentida el Águila y llorosa, aprendió esta lección a mucho precio: A nadie se le trate con desprecio. Sam 63-64	“Atzo erbia erruki gabe sartu nuen eztarrira, orain damu naiz baina txitoak behin-betiko galdu dira”. Bi 180

Betelana eta eletsutasuna. Estrofaren bidez eman zion forma edukiari bertsioaren egileak. Hortaz, batzuetan luzeagoak dira zenbait alegia, estrofaren mugak egoki eman beharrez. Adibide honetan, zortziko nagusia egoki emateko:

<i>Si haces lo que estuviere de tu parte, Pide al cielo favor; ha de ayudarte.</i> Sam 144	Zeure partea eginez gero, egin zeruari otoi: hola bakarrik izango baita trantze txarretan lagunkoi. Bi 468
--	---

Luzeagoa da, halaber, “Astoa eta Zerria” alegia (28 bertso-lerro) “El asno y el Cochino”-ren aldean (16), zortziko nagusian eman baitzituen Bigurik Samaniegoren zortzi biko errimatu hamaikasilabadunak. Luzeago jotzen du “Galeperra” alegiak (28 bertso-lerro) “La Codorniz”-en aldean (20); izan ere, zortziko txikia erabili zuen Bigurik. Baita “Arranoa eta Kakalardoa” alegiak ere (80 bertso-lerro): hamarreko txikia erabili zuen itzultzaileak “El Águila y el Escarabajo” euskaratzeko (62).

Lautzea. Batzuetan, gaztelaniazko lexiko jasoa behehitu zuen Bigurik:

A veces me motejan Los unos de inconstante ¡Reveses de fortuna Llamáis a las miserias! ¿Por qué, si son reveses De la conducta necia? Sam 61	Zoritxarrak badaude errua ez dut nik, ero honen antzeko kaskarinek baizik. Bi 172
---	--

Galizismo hau baztertu zuen: *monsieur/Ø* (Sam 71, Bi 209). Baita zenbait latinkada edo latinezko esapide ere: *ante diem/Ø* (Sam 221, Bi 704). Edo, baztertu ezean, moldatu: *Abrenuncio/Ez* (Sam 147, Bi 476).

Erdaratikako mailegua eman beharrean –dontzeila– edo kideko bat –birjina– esapide leungarri bat erabili zuen itzultzaileak, erlijio-prosan lekuko ugari dituen: ‘lotsa oneko’¹⁴⁸.

<i>Zapaquilda la bella Era Gata doncella...</i> Sam 147	Kateme ederra zen Zapakilda lotsa oneko, apala Bi 478
---	--

¹⁴⁸ *Hiztegi Batuan*: “**dontzeila 1** iz. 'birjina, birjintasuna galdu ez duen emakumezkoa’”. *Orotariko Euskal Hiztegi*an: “**LOTSA ON, LOTSON.** Respeto; pudor, modestia, recato, decencia”. Eta aurrerago: “**LOTSA ONEKO.** Respetuoso, modesto, recatado, honesto”.

Beste batzuetan, paralelismoak eta esapide jasoak ezabatu zituen:

Entre aquí se escabulle, allí lo atrapo... Sam 145	[Ø] Bi 470
...más pomposo, Que el mismo gran Sultán en su serrallo. Sam 146	[Ø] Bi 472

Didaktika-kutsua du honako gehikuntza honek:

Si Venus consintiese... Sam 147	Venus jainkosak... Bi 478
---------------------------------	---------------------------

Tonu epikotik tonu prosaikora, hemen:

¿Por qué desgracia tanta? ¿Por qué tanta desdicha? Sam 62	Zergatik erori naiz tranparen barnean? Zergatik hil behar dut norbaiten eltzean? Bi 174
--	--

Narratariora ageri da zenbaitetan, euskal bertsiotan:

[Ø] Sam 64	Irakurlea, ondo ikasi... Bi 180
------------	---------------------------------

Gauza bitxi bat gertatzen da adibide honetan: euskal bertsioko narratzaile intradiegetikoak gazteen taldekotzat jotzen du bere burua. Jatorrizkoan ez dago halakorik:

Pues ¿qué remedio...? Incautos jovencitos, cuenta con los primeros pajaritos. Sam 221	beti arretaz, erne eta azti, gazteok, ibil gaitezen: gogoan izan bazkariko lehen txoriekin zer jazo zen. Bi 704
--	--

Irakaspenen mezua. Jatorrizko mezuari eutsi zion berridazleak, oro har.

- Oso berdinak dira euskal bertsioko mezuak, jatorrizkoen aldean:

<i>El apetito ciego ¡A cuántos precipita, Que por lograr un nada, Un todo sacrifican!</i> Sam 62	Gutizia zoroak utzi bazterrean: dena galduko duzu hutsaren trukean. Bi 174
<i>A nadie se le trate con desprecio Como al escarabajo; Porque al más miserable, vil y bajo, Para tomar venganza, si se irrita, ¿Le faltará siquiera una bolita?</i> Sam 64	zure ondoan bizi direnei ez erakuts mespretxurik, egon daiteke haien artean zu baino txikiagorik: baina sumindu eginez gero ez al du izango simaurrik? Bi 180
<i>Si haces lo que estuviere de tu parte, Pide al cielo favor; ha de ayudarte.</i> Sam 144	Zeure partea eginez gero, egin zeruari otoi: hola bakarrik izango baita trantze txarretan lagunkoi. Bi 468
<i>Al perverso su fama lo condena Aun cuando alguna vez pida justicia.</i> Sam 146	famak gaiztoa kondenatzen du, justizia eskatu arren. Bi 472
<i>Consuele al abatido tal mudanza, Sirva también de ejemplo a los mortales, Que se juzgan exentos de los males Cuando se ven en próspera bonanza.</i> Sam 146	Ikas bezate gizon guztiek on-aldian daudenean, uste baitute gaitz gehiagorik ez dutela jasan behar. Bi 474
<i>Por ingenioso que el necesitado sea para pedir al avariento, Éste será de superior talento Para negarse a dar de lo sobrado.</i> Sam 147	Behartsu dena saiatu arren zekenei zerbait eskatzen, abilak dira haiek ordea sobran dutena ukatzen. Bi 476

- Apur bat desbideratzen da mezua adibide honetan, argumentuari eutsi arren. Beharbada, gosea *topos* bat edo kulturema bat delako euskal alegialari askoren lanetan (cf. Goyhetché, Iturriaga, Oxobi...)

<i>Si en esto para el ocio y los regalos, Al trabajo me atengo y a los palos.</i> Sam 59
--

Nahiago beraz bizirik egon nahiz izan gose larrian. Bi 106

Poesia berridazteko moduak. Formari garrantzia eman zion Bigurik. Hala, bere bertsioa osatzeko, tradiziozko bertsolaritzaren moldeak erabili zituen euskal itzultzaileak, testuak xede-literaturako tradizio poetikoan jatorrizkoaren funtzio bertsua izan zezan: zortziko nagusia, batez ere, eta beste batzuk ere bai, hala nola zortziko txikia. Hortaz, modu analogikoaz baliatu zen batik bat euskaratzailea, Samaniego euskal literatura-sistemara ekartzeko.

Aukera horrek mugak ezarri zizkion, eta, horregatik, ñabardurak galdu zituen eduki semantikoa euskaratzean. Dena dela, estu heldu zion eduki semantikoa ahalik eta literalen itzultzeari, hertsapen estrofiko hori eta guzti ere.

Ondorioak

Jatorrizko testuari eutsi zion itzultzaileak, diskurtsoaren unibertsoari dagokionez: ñabardurak ñabardura, berdintsu eman zituen objektuak eta izakiak, izen bereziak, kontzeptuak eta, baita, gehienetan, paremiak ere, itzulpen literalaren estrategia aintzatetsiz, beste estrategia batzuen aurrean. Bakanki erabili zituen euskal kutsuko kulturemak eta naturalizazioak. Bete egin zuen, beraz, “itzultzailearen oharretan” adierazitako asmoa, “ahalik eta bertsio literalena egitea”, hain zuzen.

Euskaltasuna eman zion, nolana den, itzulpenari, bertsolaritzako tradiziozko neurriak erabiliz, testua balizko euskal irakurleari hurbiltzeko eta, era berean, testuak xede-literaturan jatorrizkoaren funtzio bertsua bete zezan; hau da, atsegin emanez irakastea.

Estrategia ilokutiboei dagokienez, lautzea da, beharbada, esanguratsuen. Horren haritik, gaztelaniazko lexiko jasoa apaldu eta lexiko zaharkitua moldatu zuen euskaratzaileak. Halaber, betelana eta eletsutasuna; izan ere, tradiziozko neurrietara egokitzeko, askotan ñabardurak galdu behar izan baitzituen, eta besteetan, jatorrizko testuan ez ziren xehetasunak erantsi.

Ikastoletako haurrei begira egina izateak –hala adierazi zuen itzultzaileak– zerikusi estu-estua du halako estrategien erabileran.

Dena dela, oin-ohar, jakingarri eta paratestu ugari eskaintzen dituen aldetik, filologia-edizioen alorrean kokatu behar dugu Biguriren itzulpen-bertsio osotu hau.

VI.7.11. Irudidun alegien berridazleak

Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, irudidun alegiak argitaratzen hasi ziren ipuinekin batera (Perrault, Grimm, Andersen, euskal ipuin tradizionalak), bildumatan, batik bat liburu-merkatura zuzenduak, baina, baita ere, irakaskuntzako metodoei begira moldatuak. Batzuetan, alegia bakarra izaten dute halako bildumek; beste batzuetan, alegiek soilik osatzen dute bilduma. Ipuinen tankera hartu zuten alegia gehienek: ipuinaren egitura eta luzera; beti hitz lauz, inoiz ez hitz neurtuz.

Jon Oñatibiak euskaratu zuen lehenengoz alegia bat modu horretara, 1962an, “Edili” bildumarako, bizkaieraz eta gipuzkeraz: *Erbia eta apo-armatua*. Hildagok egin zituen irudiak. Hibridoa da.

Imanol Alkortak lau alegia euskaratu zituen: *Bi antxumeak*, *Erbia eta dordoka*, *Lehoia eta xagua* eta *Astoa eta txakurra*. Laurak La Fontainerenak dira, jatorriz, baina, Eulalia Valerik katalanez berridatziak eta egokituak. La Galera argitaletxe katalanarekin batera argitaratu zituen Elkar argitaletxeak, 1980. urtean, azal gogorrez. Ilustratzaileak Carme Sole, Maria Rius eta Maria Dolz izan ziren. Helburu didaktikoak izan zituzten argitaratzaileek. Izan ere, alegien bukaeran galdera sorta bat dago, irakurritako testua lantzeko. “La Galera ipuinak” bildumakoak izan ziren alegiok.

Joxantonio Ormazabalek *Oilarra*, *azeria eta zakurra* eta *Lehoia eta kilkirra* itzuli zituen bilduma bererako, 1981. urtean. Egokitzailea Francesc Boada izan zen eta irudiak Montserrat Torresek egin zituen. “Joan Amades-ek jasotako bertsioan oinarriturik” daudela irakur daiteke paratestuetan. Hala ere, bi alegiek badute Esopotik eta La Fontainetik. Horregatik, hibridotzat hartu ditut.

1983. urtean beste bi alegia itzuli zituen Ormazabalek bilduma bererako: *Usoa eta inurria* eta *Belea eta azeria*, biak La Fontainerenak, Eulalia Valerik egokituak eta

Maria Riuser irudiak dituztela. Paratestuetan “Irakasleen Elkartearen eraginez” argitaratu direla esaten da.

Geroago, beste alegia bat itzuli zuen Ormazabalek 1997an: *Azeria eta zikoina*. Eulalia Valerik egin zuen egokitzapena, eta Francesc Infantek, ilustrazioak. Ilustrazioek testuak adinako garrantzia dute, atsegin estetikoa helburu. Izan ere, argitaletxeak arduradun bat ipini zuen, Claret Serrahima, hain zuzen, sailaren ideia grafikoa eta diseinua kudea zitzan. Elkar argitaletxearen “Betiko ipuinak” bildumako alea izan zen Ormazabalen itzulpena. Guztira, hamabi ale argitaratu ziren bilduma horretan, gehienak ipuin klasikoen egokitzapenak. Jatorrizkoak gaztelaniazkoak dira, “La Galera Popular” bilduman La Galera etxe katalanak argitaratuak.

1999an, Ormazabalek *Lehoia eta kilkerra* egokitu zuen “Urtxintxa (4 urte)” bildumarako, Jose Belmonte marrazkilariarekin batera. Hibridoa da, oso modu librean egokitua baitago. Esoporen eta La Fontaineren lehoiaren eta eltxoaren liskarra kontatzen du. Halaber, *Artzain gezurtia* egokitu zuen Ormazabalek 2000. urtean, “Urtxintxa (5 urte)” bildumarako. Hibridoa da, bai Esopok baita Samaniegok ere badarabiltelako gai hori. Ilustrazioak Manuel Ortegak egin zituen.

Luis Ramón Gómez Reak hiru alegia itzuli zituen Mondadori eta Montena argitaletxeentzat 1988. urtean: *Otsoa eta arkumea*, *Azeria eta belea*, eta *Esnasaltzailea*. Miguel Angel Pachecok egokitu eta ilustratu zituen. Argi adierazten da paratestuetan alegiaren egilea zein den, nongoa zen eta zein garaitakoa (Fedro, La Fontaine eta Samaniego, hurrenez hurren). Horrez gain, jatorrizko alegiaren bertsio laburtu bat ematen da bukaeran. “Amaiera berriko ipuin zaharrak” bildumakoak dira hiru alegiak; jatorria, berriz, gaztelaniazko “La otra fábula de...” bilduma izan zen. Esanguratsua da, didaktika alderdia jorratzen duelako, kontrazaleko azalpen hau: “Amaiera berria, baikorra eta alaia duten alegia zaharrak dira honako hauek, baina antzinako kutsua gorde dute. Ospe handia eman zieten ezaugarri didaktikoak mantendu dira, gaur egungo haurrei atseginagoa izango zaien humore baikor, poesia eta fantasia batzu gehitu zaielarik”.

Karlos Santistebanek *Txirrita eta inurria* itzuli zuen bilduma bererako, 1989an. Esoporena dela adierazten da paratestuetan.

Xabier Kintanak sei alegia itzuli zituen 1989an Ángulo argitaletxearentzat. Fernando de Codesek zuzendu zuen alegia klasikoetan oinarrituriko bilduma hori. Agerikoa da ahalegin estetikoaren album-sortako irudigintza; izan ere, alegia bana ilustratu zuten sei artistak: F. Rovira, A. Asensio, M. Tobella, J. M. Lavarello, R. Capdevilla, M. Aránega. Azal gogorrez argitaratu ziren. Iturria zein den adierazten da paratestuetan, hau da, egilea eta jatorrizko alegiaren izenburua. Gauzak horrela, bi alegia Esoporenak dira: *Lehoia eta sagu zintzoa* eta *Txirrita kantatzen, inurria nekatzen*. Bat, Fedrorena: *Azeria maltzur, Zikoina maltzurrago*. Bi, La Fontainerenak: *Igel harroputza* eta *Mitxo-ren asmoak ustel*. Seigarren alegia, *Katuari Kriskitina, benetan ideia fina*, Esoporen “Saguen Batzarrea” izenekoan oinarritua dagoela diote paratestuek. Esopok, baina, ez dauka alegia hori. Bai, ordea, Abstemiusek, La Fontainek eta Samaniegok: horregatik, hibridotzat hartu dut. “Alegia unibertsalak” zuen bildumak izena. Argitaletxe katalanak “Fábulas universales” eta “Fabulas universais” gaztelaniazko eta galizierazko bildumak plazaratu zituen, 1988an eta 1989an.

Geroago, 1992an, neurri txikiko liburu batzuk (*Oihaneko printzesa lotia eta beste ipuin batzu, Ali Baba eta beste ipuin batzu*) argitaratu zituen Fher argitaletxeak, ipuinez osatuak. Xabier Kintanak itzuli zituen eta, gainerako ipuinen tankera duten arren, sortzez alegiak diren bi izenburu hartu ditut hibridoaren sailerako: “Txirrita eta inurria” eta “Dortoka eta erbia”. “Poltsiko liburuak sorta” zuen bildumak izena.

Ramon Etxezarretak eta Josu Zabaletak “Birigarroa eta katagorria” izenburuko ipuina moldatu zuten, 1991n, “Haurtxoa bi (4 urte)” irakas-materialerako. Zalantzarik gabe, La Fontaineren eta Samaniegoren “Txirrita eta Inurria” alegiaren transposizioa da. Ilustrazioak José Gastón Majarenas-ek egin zituen. *Haurtxoa* metodoaren baitan, haur hezkuntzan erabiltzeko ipuin bilduma zabal bateko alea da. Ohartzekoa da, bestalde, ipuin bakoitzari kanta baten hitzak eta musika egokitu izana; Imanol Urbietak egin zuen musika. Hibridoa da.

J. M. Telleriak atondu zituen Tarttalo argitaletxeak 1995ean plazaraturiko “Abenturazko alegiak” bildumako testuak. Lau liburu argitaratu ziren, bina alegiarekin. Marrazkiak José Arizak egin zituen. Aurreko urtean argitaletxe berak plazaraturiko “Alegien mundua” bildumako marrazki berak dira. Kontua da edizio horretan ez zela egon inolako egile-aitortzarik. Testuak, berriz, apur bat aldatuta daude. Gainera, izenburu berriak ageri dira. Horregatik, corpusean jaso ditut. Honela: bat, Esoporenean,

Lehoia eta basurdea; bat, *La Fontainerenean*, *Azeria eta Otsoa*; bost, hibridoen sailean, *Saguen biltzarra*, *Artzain gezurtia*, *Oreina eta ehiztaria*, *Txitxarra eta inurria*, *Dortoka eta erbia*. Corpusetik kanpo utzi dut *Astoa eta idia*. Bildumak arrakasta izan zuelako, urte berean berrargitaratu zen, lau alegiadun bi liburukitan.

Mixel Muruak 1999an *Inurria eta Txirrita* egokitu zuen “Urtxintxa (4 urte)” bildumarako. Almudena de la Torrek egin zituen ilustrazioak. Hibridoen artean sailkatu dut. Bai alegia hau, bai Ormazabalek urte berean egokitutakoa Ikastolen Elkartearean Urtxintxa proiektuaren baitan argitaratu ziren.

Urtxintxa proiektuaren baitan, 1988. urtean hasi eta hurrengo bi urteetan, Ikastolen Elkarteak eta Elkarlanean-ek 36 aleko ipuin-bilduma argitaratu zuten, ale bat didaktika-unitate bakoitzeko, Haur Hezkuntzako hiru mailetan lantzeko (Urtxintxa, 3 urte; Urtxintxa, 4 urte; Urtxintxa, 5 urte). Era guztietako ipuinak ageri dira bilduma zabalean: ipuin klasikoak, euskal ipuin tradizionalak eta ipuin sortuak. “Urtxintxa (4 urte)” bildumako ipuinen artean bi testu dira, beraz, alegietan oinarrituak eta ipuin tankeran taxutuak. Aipatzekoa da ale bakoitzean, ipuina bukatutakoan, zenbait kantaren hitzak eta musika jarri izana; ipuineko gaiekin badute zerikusia batzuek, euskal abesti tradizionalak dira beste batzuk.

Mari Joxe Kerejetak 2001ean hiru alegia euskaratu zituen *Betiko ipuinak I* ipuin albuera, eta beste bat *Betiko ipuinak II* rako. Hibridoak dira laurak. Aizkorri argitaletxeak argitaratu zituen ipuin-liburuak.

Euskaratzaile horiez gain, euskaratzaile ezezagunaren figura ere badugu. Haren izenik ez da inon agertzen. Daturik ezak erakusten du zeinen garrantzia txikia aitortu zaion itzultzaileari. Baita ere bazterreko generotzat hartu zela alegiagintza, gainerako generoen indarraren aurrean.

Hala, euskaratzailearen izenik gabe, Maves argitaletxeak *Urrezko Arraultzedun Oiloa* argitaratu zuen, “Lis sorta” bilduman, 1977an. Ilustratzailea De Villa izan zen. Hibridoa da.

Euskaratzailearen izenik gabe, halaber, Irbis argitaletxeak *Hiriko Arratoitxoa eta Kanpoko Arratoitxoa eta beste ipuin batzu* liburua argitaratu zuen, azal gogorrez, 1982.

urtean. Izen bereko alegia dago hiru ipuin klasikorekin batera. “Urrezko larrosa” bildumako liburua izan zen. Hibridoa da.

Euskaratzailearen izenik gabe eta urtea zehaztu gabe, Susaeta argitaletxeak *Erbia eta Dortoka* argitaratu zuen, laurogeita hamarreko hamarkadan, “Super trokelatuak” bilduman. Hibridoa da.

Euskaratzailearen izenik gabe Ibaizabal argitaletxeak *Mendiko arratoitxo* argitaratu zuen, azal plastifikatuz eta kortxetez josia, “Sagutxu bilduma”-rako, 1992an. Hibridoa da.

Euskaratzailearen izenik gabe Ttartalo argitaletxeak “Alegien mundua” bilduma plazaratu zuen, 1994an. Paper-azalez eta kortxetez josiak argitaratu zituen, guztira, sei ale. Horietatik bat, Esoporena da: *Lehoia eta Basurdea*. Beste bat, La Fontainerena: *Azeria eta Otxoa*. Hiru hibridoak dira: *Artzain gezurtia*, *Oreina eta Ehiztaria*, *Dortoka eta Erbia* eta. Bat, corpusetik kanpo utzi dut: *Astoa eta Idia*. Telleriak bilduma hau izan zuen oinarri “Abenturazko alegiak” moldatzeko, 1995ean.

Ohi duen legez, euskaratzailearen izenik eta argitalpen-datarik gabe *Ipuinak eta alegiak* liburua plazaratu zuen Susaeta argitaletxeak, azal gogorrez eta irudiekin. Datu-baseetan 2001eko argitalpentzat jotzen da. Bi alegia daude liburuan, biak hibridoak.

Corpusa eta iturriak

Euskaratzailea	Noiz	Bildumak	Alegiak: zenbat, nola	CORPUSA	Iturriak
Jon Oñatibia	1962	“Edili”	1 hl	1 hl	1 hibri
Imanol Alkorta	1980	“La Galera ipuinak”	4 hl	4 hl	4 Lf
Joxantonio Ormazabal	1981	“La Galera ipuinak”	2 hl	2 hl	2 hibri
	1983	“La Galera ipuinak”	2 hl	2 hl	2 Lf
	1997	“Betiko ipuinak”	1 hl	1 hl	1 Lf
	1999	“Urtxintxa (4 urte)”	1 hl	1 hl	1 hibri
	2000	“Urtxintxa (5 urte)”	1 hl	1 hl	1 hibri
Luis Ramón Gómez Rea	1988	“Amaiera berriko ipuin zaharrak”	3 hl	3 hl	1 Fe 1 Lf 1 Sam
Karlos Santisteban	1989	“Amaiera berriko ipuin zaharrak”	1 hl	1 hl	1 Eso

Xabier Kintana	1989	“Alegia unibertsalak”	6 hl	6 hl	2 Eso 1 Fe 2 Lf 1 hibri
	1992	“Poltsiko liburuak sorta”	2 hl	2 hl	2 hibri
R. Etxezarreta / Josu Zabaleta	1991	“Haurtxoa bi (4 urte)”	1 hl	1 hl	1 hibri
J. M Telleria	1995	“Abenturazko alegiak”	8 hl	7 hl	1 Eso 1 Lf 5 hibri
Mitxel Murua	1999	“Urtxintxa (4 urte)”	1 hl	1 hl	1 hibri
Mari Joxe Kerejeta	2001	<i>Betiko ipuinak I</i>	3 hl	3 hl	3 hibri
	2001	<i>Betiko ipuinak II</i>	1 hl	1 hl	1 hibri
X.X.	1977	“Lis sorta”	1 hl	1 hl	1 hibri
X.X.	1982	“Urrezko larrosa”	1 hl	1 hl	1 hibri
X.X.	199-?	“Super trokelatuak”	1 hl	1 hl	1 hibri
X.X.	1992	“Sagutxu bilduma”	1 hl	1 hl	1 hibri
X.X.	1994	“Alegien mundua”	6 hl	5 hl	1 Eso 1 Lf 3 hibri
X.X.	2001	<i>Ipuinak eta alegiak</i>	2 hl	2 hl	2 hibri

X.X. (1962). *Erbia ta apo-armatua. La liebre y la tortuga*. Itzul.: Jon Oñatibia; il.: Hidalgo. Bilbo: Edili / Vasco Americana. **hibri**

VALERI, M. Eulalia (egok.) (1980). *Bi antxumeak*. Itzul.: Imanol Alkorta; il.: Carne Sole. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **Lf XII-4**

VALERI, M. Eulalia (egok.) (1980). *Erbia eta dordoka*. Itzul.: Imanol Alkorta; il.: Maria Rius. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **Lf VI-10**

VALERI, M. Eulalia (egok.) (1980). *Lehoia eta xagua*. Itzul.: Imanol Alkorta; il.: Maria Rius. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **Lf II-11**

VALERI, M. Eulalia (egok.) (1980). *Astoa eta txakurra*. Itzul.: Imanol Alkorta; il.: Maria Dolz. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **Lf VIII-17**

BOADA, Francesc (egok.) (1981). *Oilarra, azeria eta zakurra*. Itzul.: Joxantonio Ormazabal; il.: Montserrat Torres. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **hibri**

BOADA, Francesc (egok.) (1981). *Lehoia eta kilkirra*. Itzul.: Joxantonio Ormazabal; il.: Montserrat Torres. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **hibri**

VALERI, M. Eulalia (egok.) (1983). *Usoa eta inurria*. Itzul.: Joxantonio Ormazabal; il.: Maria Rius. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **Lf II-12**

VALERI, M. Eulalia (egok.) (1983). *Belea eta azeria*. Itzul.: Joxantonio Ormazabal; il.: Maria Rius. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **Lf I-2**

- VALERI, M. Eulalia (egok.) (1997). *Azeria eta zikoina*. Itzul.: Joxan Ormazabal; il.: Francesc Infante. Bartzelona / Donostia: La Galera / Elkar. **Lf I-18**
- ORMAZABAL, Joxan (1999). *Lehoia eta kilkerra*. Il.: Jose Belmonte. Donostia: Elkarlanean / G.I.E. **hibri**
- ORMAZABAL, Joxantonio (2000). *Artzain gezurtia*. Il.: Manuel Ortega. Donostia: Elakarlanean / GIE. **hibri**
- PACHECO, Miguel Angel (1988). *Otsoa eta arkumea*. Itzul.: Luis Ramón Gómez Rea. Madril: Mondadori / Montena. **Fe I-1**
- PACHECO, Miguel Angel (1988). *Azeria eta belea*. Itzul.: Luis Ramón Gómez Rea. Madril: Mondadori / Montena. **Lf I-2**
- PACHECO, Miguel Angel (1988). *Esnestzailea*. Itzul.: Luis Ramón Gómez Rea. Madril: Mondadori / Montena. **Sam II-2**
- PACHECO, Miguel Angel (1989). *Txirrita eta inurria*. Itzul.: Karlos Santisteban. Madril: Mondadori / Montena. **Eso 336**
- CODES, Fernando de (zuz.) (1989). *Lehoia eta sagu zintzoa*. Itzul.: Xabier Kintana; il.: Francesc Rovira. Bartzelona: Ángulo. **Eso 206**
- CODES, Fernando de (zuz.) (1989). *Txirrita kantatzen, inurria nekatzen*. Itzul.: Xabier Kintana; il.: Agustí Asensio. Bartzelona: Ángulo. **Eso 336**
- CODES, Fernando de (zuz.) (1989). *Azeria maltzur, Zikoina maltzurrago*. Itzul.: Xabier Kintana; il.: Montse Tobella. Bartzelona: Ángulo. **Fe I-26**
- CODES, Fernando de (zuz.) (1989). *Igel Harroputza*. Itzul.: Xabier Kintana; il.: José María Lavarello. Bartzelona: Ángulo. **Lf I-3**
- CODES, Fernando de (zuz.) (1989). *Mitxo-ren asmoak ustel*. Itzul.: Xabier Kintana; il.: Roser Capdevila. Bartzelona: Ángulo. **Lf III-18**
- CODES, Fernando de (zuz.) (1989). *Katuari Kriskitina, benetan ideia fina*. Itzul.: Xabier Kintana; il.: Mercé Aránega. Bartzelona: Ángulo. **hibri**
- KINTANA, Xabier (egok.) (1992). “Txirrita eta inurria”, in *Oihaneko printzesa lotia eta beste ipuin batzu*. Bilbo: Fher, 64-76. **hibri**
- KINTANA, Xabier (egok.) (1992). “Dortoka eta erbia”, in *Ali Baba eta beste ipuin batzu*. Bilbo: Fher, 67-77. **hibri**
- ETXEZARRETA, Ramon eta Josu ZABALETA (1991). *Ipuinak. Haurtxoa bi (4 urte)*. Il.: José Gastón Majarenas. Bilbo [l. g.]: Elkar / GIE.
- [“Birigarroa eta katagorria” **hibri**.]

TELLERIA, J. M. (1995). *Lehoia eta Basurdea* **Eso 203**. *Saguen Biltzarra* **hibri**. Il.: José Ariza. Donostia: Tarttalo.

TELLERIA, J. M. (1995). *Azeria eta Otsoa*. Il.: José Ariza. Donostia: Tarttalo. **Lf XI-6**

TELLERIA, J. M. (1995). *Artzain gezurtia* **hibri**. *Oreina eta Ehiztaria* **hibri**. Il.: José Ariza. Donostia: Tarttalo.

TELLERIA, J. M. (1995). *Txitxarra eta Inurria* **hibri**. *Dortoka eta Erbia* **hibri**. Il.: José Ariza. Donostia: Tarttalo.

MURUA, Mitxel (1999). *Inurria eta Txirrita*. Il.: Almudena de la Torre. Donostia: Elkarlanean / G.I.E. **hibri**

X.X. (2001). *Betiko ipuinak I*. Itzul.: Mari Joxe Kerejeta; il.: Belén Eizaguirre et alii. Bilbo: Aizkorri.

[“Urrezko arrautzak erruten zituen oiloa” **hibri**. “Esne saltzailea” **hibri**. “Erbia eta dortoka” **hibri**.]

X.X. (2001). *Betiko ipuinak II*. Itzul.: Mari Joxe Kerejeta; il.: Belén Eizaguirre et alii. Bilbo: Aizkorri.

[“Hiriko sagua eta baserrikoa” **hibri**.]

X.X. (1977). *Urrezko arrautzedun oiloa*. Itzul.: X.X.; il.: De Villa. Bilbo: Maves. **hibri**

X.X. (1982). *Hiriko Arratoitxoa eta Kanpoko Arratoitxoa eta beste ipuin batzu*. Toledo: Montena / Irbis.

[“Hiriko Arratoitxoa eta Kanpoko Arratoitxoa” **hibri**.]

X.X. (199?). *Erbia eta Dortoka*. Madril: Susaeta. **hibri**

X.X. (1992). *Mendiko arratoitxoa*. Italia: Larus / Ibaizabal. **hibri**

X.X. (1994). *Lehoia eta Basurdea*. Donostia: Tarttalo / Con-Bel. **Eso 203**

X.X. (1994). *Azeria eta Otsoa*. Donostia: Tarttalo / Con-Bel. **Lf XI-6**

X.X. (1994). *Artzain gezurtia*. Donostia: Tarttalo / Con-Bel. **hibri**

X.X. (1994). *Oreina eta Ehiztaria*. Donostia: Tarttalo / Con-Bel. **hibri**

X.X. (1994). *Dortoka eta Erbia*. Donostia: Tarttalo / Con-Bel. **hibri**

X.X. (2001). *Ipuinak eta Alegiak*. Itzul.: X.X. Madril: Susaeta.

[“Erbia eta dortoka” **hibri**. “Landako sagua, hiriko sagua” **hibri**.]

VI.8. Alegia bat edo beste euskaratu duten berridazleak

Zenbait berridazlek alegia bakan bat edo banaka batzuk ekarri dituzte euskarara. Aldizkariak erabili izan dituzte, batez ere, lan horiek agertzeko. Generoari izan zaion zaletasuna erakusten du, nolana den, jardun horrek. Atal honetan, idazle eta alegia horien berri emango dut hurrenkera kronologikoan, tesian erabilitako iturri klasikoren batekoa baldin bada.

Salaberriren “Bi adinen arteco guiçona eta bere bi emaztegayac” Lécluseren *Grammaire basque* liburuan agertu zen (1826: 215-216), hitz neurtuz, honako datu hauekin batera: “Salaberry, fils (*Ibarlarra*)”. Santi Onaindiak Salaberri nor izan ote zitekeen hausnartu zuen (1954: 262): “Nor ete dogu Salabeñi au? Dana dala, ba-eban ozpiña ipuin edesten.” Erantzun lauso bat eman zuen handik urte batzuetara (1972: 88): “Nor dogu Salaberri au? M. Salaberri ete, Donibane Garazi’ko notario ta L. L. Bonaparte’ren laguntzaille bizkorrarena?”. Salaberriren izena ez dakigu, baina alegia, duda barik, La Fontainerena da.

Auguste Etcheverryk “Xirliska eta Xinaurria” moldatu zuen bertsoz, eta Sarako Lore-Jokoetan aurkeztu, 1866an. Gaia bere erara landu zuen. Iturri zehatzik ezin da eman. Hortaz, hibridoa da.

Iza y Aguirrek “Esne saltzallia” bizkaieratu zuen hitz lauz, Samaniegoren alegia ezaguna oinarri, Manterolak espresuki eskatuta *Cancionero Bascon* ager zedin. 1878an argitaratu zen Santurtziko lehen hezkuntzako irakasle horren lana.

Serafin Barojak, halaber, Samaniego aukeratu eta “La zorra y el Chivo” aldatu zuen gipuzkerara, “Azeria eta aquerra” izenburuarekin. Manterolak eskatu zion lan hori egiteko, eta 1878an argitaratu zion *Cancionero Bascon*.

Ibarrartek “Chinaurria eta Choria” ondu zuen txirritaren eta inurriaren gaia hartuta. Hibridotzat jo dut, iturria ezin delako zehaztu. Manterolak argitaratu zion *Cancionero Bascon*, 1880an.

Eusebio M. Azkuek “Saguak eta katua” alegia argitaratu zuen *Euskal-Erria* aldizkarian (1881). Corpuseko hibridoen artean jarri dut. Geroago, *Parnasorako bidean*

(1896), era askotako poesien artean, alegia hori berori eta “Tšori emeretzigarrenekoak” agertu ziren. Bigarrena, iturri klasikorik ez duenez, baztertu egin dut.

Manterolak berak La Fontaineren “Le Meunier, son Fils et l’Âne” euskaraz eman zuen “Munduko esamesak” izenburuarekin, *Euskal-Erria* aldizkarian, 1883an.

XX. mendean sartzearekin ez zen itzali alegiak euskaratzeko zaletasuna. Kepa Enbeitak “Iñurija ta kirkira” plazaratu zuen *Euzko-Deyan*, bertsoz, 1920an: hibridoa da. Bedita Larrakoetxeak Esoporen “Elaia ta uřetxindofa” eman zuen hitz lauz *Euskal-Esnalea* aldizkarian, 1928an. Aita Donostiak “Xinaurriarena” deritzon kantua bi aldaera entzun zizkien 1940an bi soldaduri eta bere *Cancionero Vascon* (1994) jaso zituen; litekeena da gai hori Ibararten “Chinaurria eta Choria” alegiaren bidez ahozko tradiziara igaro izana; bi kanta horiek ere hibridoak dira. Iratchetek, berriz, La Fontaineren “Kuia eta Ezkurra” argitaratu zuen *Gure Herrian*, bertsoz, 1962an. Nemesio Etxanizek “Esne saltzailea” landu zuen bertsoz, *Lur berri bila* liburuan (1967): hibridoa da. Juan Garziak La Fontaineren alegia bat itzuli, eta *Senez* aldizkarian plazaratu zuen 1998an.

Corpusa eta iturriak

Euskaratzailea	Noiz	Lanak	Alegiak: zenbat, nola	CORPUSA	Iturriak
Salaberri	1826	<i>Grammaire basque</i>	1 hn	1hn	1 Lf
A. Etcheverry	1866	Lore-Jokoak, Sara	1 hn	1 hn	1 hibri
Iza y Aguirre	1878	<i>Cancionero Basco</i>	1 hl	1 hl	1 Sam
Serafin Baroja	1878	<i>Cancionero Basco</i>	1 hn	1 hn	1 Sam
Pierre Ibarrart	1880	<i>Cancionero Basco</i>	1 hn	1 hn	1 hibri
Eusebio Azkue	1881	<i>Euskal-Erria</i>	1 hn	1 hn	1 hibri
Manterola	1883	<i>Euskal-Erria</i>	1 hn	1 hn	1 Lf
Kepa Enbeita	1920	<i>Euzko-Deya</i>	1 hn	1 hn	1 hibri
B. Larrakoetxea	1928	<i>Euskal-Esnalea</i>	1 hl	1 hl	1 Eso
Herrikoiak	1940/1994	<i>Cancionero Vasco</i>	2 hn	2 hn	2 hibri
Iratchet	1962	<i>Gure Herria</i>	1 hn	1 hn	1 Lf
Nemesio Etxaniz	1967	<i>Lur berri bila</i>	1 hn	1 hn	1 hibri
Juan Garzia	1998	<i>Senez</i>	1 hn	1 hn	1 Lf

SALABERRI, [M.?] (1826). “Bi adinen arteco guičona eta bere bi emaztegayac”, in Fleury LÉCLUSE, *Grammaire basque*, Tolosa: Douladoure; Baiona: Cluzeau, 215-216. **Lf I-17**

- ETCHEVERRY, Auguste (1866). “Xirliska eta xinaurria”, in Patri URKIZU (1997), *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897*. Donostia: Euskaltzaindia / Eusko Ikaskuntza, 224. **hibri**
- IZA Y AGUIRRE, Luis de (1878). “Esne saltzallia”, in Jose MANTEROLA (1981), *Cancionero Basco. Poesías en lengua euskara*, Tomo I, série IV, 30-31. **Sam II-2**
- BAROJA, Serafin (1878). “Azeria eta aquerra”, in Jose MANTEROLA (1981), *op. cit.*, Tomo I, série IV, 51-52. **Sam V-12**
- IBARRART, Pierre (1880). “Chinaurria eta Choria”, in Jose MANTEROLA (1981), *op. cit.*, Tomo III, 108-110. **hibri**
- AZKUE, Eusebio Maria (1881). “Saguak eta katua”, *Euskal-Erria*, 2. libk., 291. **hibri**
- MANTEROLA, Jose (1883). “Munduko esamesak”, *Euskal-Erria*, 9. libk., 419. **Lf III-1**
- ENBEITA, Kepa (1920). “Iñurija ta kirikifa”, *Euzko-Deya*, 85. zka., 5. **hibri**
- LARRAKOETXEA, Bedita Jon (1928). “Elaia ta ufetxindoña”, *Euskal-Esnalea*, 292. zka., 71. **Eso 9**
- HERRIKOIA (1940). “Xinaurriarena”, in Jose ZULAIKA “AITA DONOSTIA” (bil.) eta Casto INZA “JORGE RIEZU” (argit.) (1994), *Obras completas del P. Donostia. (VIII. libk.: Cancionero vasco. III. Canciones; Papeles de Humboldt)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1445-1446. **hibri**
- HERRIKOIA (1940). “Xinaurriarena”, in Jose ZULAIKA “AITA DONOSTIA” (bil.) eta Casto INZA “JORGE RIEZU” (argit.), *op. cit.*, 1446-1447. **hibri**
- IRATCHET, Jean Pierre (1962). “Kuia eta Ezkurra”, *Gure Herria*, 5. zka., 263. **Lf IX-4**
- ETXANIZ, Nemesio (1967). “Esne saltzaillea”, in *Lur berri billa*, Donostia: Izarra Irarkola, 221. **hibri**
- GARZIA, Juan (1998). “Erbia eta igelak”, *Senez*, 20. zka., 101. **Lf II-14**

VI.9. Epilogo gisa: 2003tik aurrerako alegiak

Tesi corpusak 2003. urtea du muga. Edozein modutan, uste izatekoa zenez, muga horretatik aurrera alegiak argitaratu dira zenbait modutan. Adibiderik esanguratsuenak iruzkinduko ditut jarraian.

Zubizarretaren *Urrezko giltza* liburuan (2005), sei alegia azaldu ziren, oso ezagunak seiak: “Aita-sumeak asto ganean”, “Esne-saltzailea”, “Belea eta azeria”, “Lehoia eta sagua”, “Urrezko arrautzak erruten zituen oiloa” eta “Esne-saltzailea (eta

bi)”. *1001 gauakeko* narrazio-ereduari jarraikiz egina dago liburua. Hortaz, narrazio nagusiaren barruan sarturiko kontakizun autonomoak dira sei alegi horiek, gainerako ipuin, kanta eta literatur aleekin batera.

Haurrock eta Gomitak musika-taldeek alegiak argitaratu zituzten CD batean, ordura arte erabili gabeko formatu batean, hain zuzen. *Alegiak-Fables-Fábulas* izan zuen CDak izena. CDko paratestuek ohartzen gaituzte “Jean de La Fontaine frantses idazlearen arabera”-ko 16 alegia daudela euskaraz¹⁴⁹. Euskaratzaile klasikoen alegiak ageri dira (Archu, Adema, Moulier, Leon), laburtuak zenbaitetan. Eta baita egungo euskaratzaileenak ere (Daniel Landart eta Arantxa Hirigoien).

Markeliñe antzerki taldeak *Txitxarra eta inurria* lana estreinatu zuen 2006ko abenduan Bilboko Euskalduna jauregian. La Fontaineren “La Cigale et la Fourmi” hartu zuen taldeak abiapuntu baina beste ikuspegi bat jorratu zuten. Markeliñek inurri zikoitzaren eta txitxar eskuzabalaren figurak jorratu zituen. Edertasuna bilatzea, unean-unean gozatzea eta lasaitzea janaria biltzea bezain interesgarria eta beharrezkoa dela irakasten du txitxarrak. Markeliñe taldeko Joxerra Martinez zuzendariaren esanetan, “guk erakusten dugu aurreztea ona dela, baina zikoizkeria txarra. Eta txitxarrari zentzu positiboa ematen diogu, txitxarra ez baita alfer hutsa, ez da ezer egin gabe bazterren batean etzanda dagoen norbait; dibertitu egiten da, besteei erakutsi egiten die eta inurriei janaria eskaintzen die” (*Gara*, 2007, urtarrilak 4, 44). Jasotzaileari buruz zera diosku zuzendariak: “antzerkia planteatzen dugu helduentzat balitz bezala”.

Xabier Susperregik alegia-bilduma oparoa (330 alegia inguru) argitaratu zuen 2008an, Oiartzungo Udalaren babespean, *Behin batean... alegia* izenburupean. Tradizio guztiak ekarri zituen bildumara: Euskal Herriko alegiak (ahozko tradiziokoak, euskal alegialarienak, hala nola Samaniego, Ibañez de la Rentería, Pisón y Vargas, Govantes, Xerika, Artola, Archu, B. Mogel, Oxobi... eta egilearenak berarenak), idazle klasikoen alegiak (Esopo, Fedro, Aviano, La Fontaine, Gay, Lessing, Florian...) eta mundu zabaleko alegiak (Asia, Europa, Amerika eta Afrikakoak). Hitzaurrean hartzaile bikoitza

¹⁴⁹ “Lehoia eta Garratoia” (Daniel Landart), “Belea eta Axeria” (Jules Moulier), “Haritza eta Kanabera” (Arantxa Hirigoien), “Axeria eta Mahatsa” (A. Hirigoien), “Usoa eta Xinaurria” (A. Hirigoien), “Mendia haur-minetan” (J. B. Archu), “Laborari aita-semeak” (L. Leon), “Bi ahuntzak” (A. Hirigoien), “Otsoa eta Bildotsa” (D. Landart), “Igela eta Idia” (D. Landart), “Hititar garratoia eta larretar garratoia” (D. Landart), “Ttirritta eta Xinaurria” (D. Landart), “Erbia eta Dortoka” (D. Landart), “Belea haragiki” (Gratian Adema), “Mandoaren espantuak” (J. Moulier), “Emazteak eta seregetua” (A. Hirigoien).

egozten dio generoari: haurrak “entretenezeko” eta helduak “gogoetara bultzatzeko” balio dute alegiek. Itzultzaile-talde bat aritu zen egitasmoan. Nabarmentzekoa da irudiari eman zitzaien garrantzia: klasikoen irudiak (Doré, Tenniel...) baliatu zituzten, batetik, eta Andoni Odriozolarenak, edizio horretarako propio eginak, bestetik.

Bukatzeko, hizkuntza lantzeko didaktika-material gisa aurkeztu zituen *Habe* aldizkariak (2009ko uztaila, 402. zka.) hamabi alegia¹⁵⁰, Bizenta Mogelen bizitzako datuekin eta XIX. mendeko alegialarien jakingarri batzuekin batera.

¹⁵⁰ Lehenengo zortziak Iñaki Mendigurenen *Alegiak. Esopo* liburutik hartuak (1999) eta beste laurak Bizenta Mogelen *Ipui onacetik*. Denak, estiloaren aldetik, egokituak: “Ur bila ari ziren igelak”, “Azeria eta mahatsa”, “Euliak, Astoa eta mandoa”, “Eltxoak eta zezena”, “Txakurra eta barraskiloa”, “Dortoka eta erbia”, “Lehoi zaharra eta azeria”, “Otsoa eta bildotsa”, “Etxeko eta kanpoko saguak”, “Lehoia, basurdea, zezena eta astoa” eta “Enara eta beste txoriak”..

VII. KAPITULUA

ONDORIOAK

VII. ONDORIOAK

Euskaraz berridatzitako alegia klasikoen deskribapena eta analisisa buruturik, ondorioak iruzkinduko ditut atal honetan, analisi-fitxako item-hurrenkerari jarraituz.

Ideologia hertsatzailean, honako ondorio hauek nabarmendu behar dira:

- Gizonak ditugu alegia-berridazle ia guztiak. Alegiagintzako androzentrismoa honako emakume hauek pitzatu dute: Bizenta Mogelek hasieran, Rosario Artolak Euskal Pizkundean, eta Delphine Lubet eta Mari Jose Kerexetak azken urteotan.
- Lanbidez, apaizgoari eta irakaskuntzari emanak ditugu, oro har. Hasieratik Euskal Pizkundea bukatu arte, berridazleen erdia apaizak izan ziren; gainerakoak irakaskuntzari lotuak (3) edo bestelako lanbideetakoak (4). Gerren ostean, irakaskuntzari eta itzulpengintza profesionalari loturikoak (7), eta apaizen bat edo beste (2).
- Hasieratik Euskal Pizkundea bukatu arte, etxe oneko jendea izan zen euskal alegialaria, harreman intelektualak landu zituena, politika eta gizartea gertu-gertutik bizi izan zituena. Zaila da, ordea, ezaugarri orokor bat ematea XX. mendeko gerren ostekoak bereizteko.
- Jende eskolatua da euskal alegien berridazlea. Badira eskolatu gabeak ere, Euskal Pizkundean batez ere, baina harreman estua izan zuten kultura-eragileekin. XX. mendean, itzultzaile-kontzientzia nagusitzen zaie berridazleei.

- Alegialari askorengan suma daiteke aurreko alegialarien testugintza ezagutu dutela, eta ezagutza horrek eragina izan duela beren idazlanetan (Zabala, Goyhetché, Moulier, Leon...).
- Alegialari askok berariaz agertu zuten nor zuten hartzaitzat. Bi taldetan sailkatu daitezke alegialariok:
 - Nagusiki, haurrak edo gazteak jomugatzat hartu zituztenak: Bizenta Mogel, Archu, Iturriaga, Oxobi eta Biguri.
 - Haurrak edo gazteak, eta helduak jomugatzat hartu zituztenak: J.A. Mogel, Zabala, Goyhetché, Egea, Etxebarria Ayesta eta «Labayru» Ikastegikoak.

Beste alegialari batzuek, berriz, ez zuten espresuki agertu noiz ziren. Dena dela, zer aldizkari erabili zuten jakinda, edo, liburu argitaletxeko zer sailetan argitaratu zen ohartuta, erraz igar daiteke hartzaitza nor izan zitekeen: helduentzat idatzi zituzten Arrese Beitiak eta Artolatarrek beren alegiak (*Euskal-Erria*); Altunaren alegietan hartzaitzak ditugu, batetik, haurrak, *Ume Euzkeldunen laguna* liburuan eta, bestetik, helduak, *Euzko-Deyakoak*; Arregiren liburuak tituluari ageri du hartzaitza nor zuen (*Alegiak haurrentzat*).

- Ohikoak dira euskararen aldeko kezka eta adre-hitzak alegia-berridazleen paratestuetan, hasieratik gaur egun arte. Euskaltzaleak dira denak, eta euskaraz bizitzeko ahalegina egin beharra adierazi zuten.
- Arrazoiak eta garaiak kontuan hartuta:
 - Ideologia hegemonikoaren eragina eta kultura-elitearen mezenasgoa nabariak dira hasierako berridazleen jardunean. Ilustratuen hezkuntza-egitasmoen artean egon zen alegiak argitaratzea, eta, halatan, zerbitzu horren pean jarri zituzten moldagariek beren alegiak.
 - Geroago, XIX. mendearen erdialdean, euskararen bidea frantsesa eta gaztelania ikasteko erabili ziren Archuren eta Iturriagaren alegiak, hurrenez hurren. Mende hartan guztian, kristau-doktrina zabaltzeko ere erabili zituzten euskal alegialariek beren testuak: bai apaizek (J.A. Mogel, Iturriaga, Goyhetché), eta baita laikoek ere (Bizenta Mogel, Archu).

- Euskal Pizkundean, sistema ideologiko-politiko hegemonikoei aurre egin behar izan zielako biziberritu eta eraldatu zen alegiagintza. Alegiagintzak hezkuntzaren bideak alde batera utzi eta herri-lirikaren bidetik jo zuen. Horregatik, euskal idazle ugarik alegia originalak sortu zituzten (Arrese Beitia, artolatarrak, J.I. Uranga, V. Iraola, C. Erkizia, J. Otamendi, F. Kasal, K. Otaegi...); Lore Jokoetan aurkeztuta, irabazle gertatu ziren alegialari haietako batzuk (Adema, Ibarrart, Ramon eta Jose Artola); eta alegia gehienak aldizkarien bidez hedatu ziren (*Euskal-Erria...*). Bilakaera horretan, alegialari batzuk (Adema) gizarte- eta politika-gaiak lantzen hasi ziren. Joera hori areagotu zen Sabino Aranak estatu-nazioa definitzearekin batera, irakaspenak politika-gaiez hornitu baitzituzten alegialari batzuek (J. Altuna, K. Enbeita).
- XX. mendearen bigarren hamarkadan hasita, euskal irakaskuntzaren esparrura jauzi egin zuten berriz alegiek, eta gerren etena alde batera utzita, hor egon dira gaur arte. Aldizkarietan eta liburuetan argitaratu ziren. Umeentzako euskal testuen premia gorriak bideratu zituen alegia-berridazleen ekimenak, idazle batzuk euskal kultura zabaltzeko didaktika-bideez kezkatzen hasi baitziren. Orainsuago, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan hasita, euskal argitaletxeek irudidun-liburuetan argitaratu dituzte alegiak, umeen kontsumorako.

Poetika hertsatzailean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- Poetika horaziarra dugu euskal berridazle gehienek oinarrian: irakatsi eta atsegin eman. Erabiliak izatea da asmo nagusia, honako gai hauek lantzeko: morala, kristau-ikasbidea, gaztelania, frantsesa eta euskara. Didaktika-ahalegina egin zuten ikasketa atsegina izan zedin eta, horretarako, alegia asko kantatzeko egin ziren (Adema, Mendizabal, Etxebarria Ayesta...). Beste berridazle batzuek buruz ikas zitezenez nahi izan zuten eta, hartarako, bertso neurtuetan jarri zituzten alegiak (Zabala, “Haurtxoa” eta “Urtxintxa” proiektuen egileak, Biguri...).

Corpusari eta iturriei dagokienez, honako ondorio hauek azpimarratu behar dira:

- Alegialari klasikoan tradizioa desberdina izan da Hegoaldean eta Iparraldean. Esopo, Fedro eta *Isopeteren* berridazle guztiak Hegoaldekoak dira. La Fontainerenak Iparraldekoak, nagusiki eta alde handiz. Samaniegorenak, berriz, Hegoaldekoak, nagusiki eta alde handiz. Horrek gutxienez adierazten du, arlo honetan, behintzat, Hegoaldearen eta Iparraldearen artean kultura-lubaki moduko bat egon dela, kultura menperatzaileen hegemoniarengatik.
- Berridazle gutxik itzuli zituzten jatorrizko hizkuntzatik Esopo eta Fedro: J.A. Etxebarria eta J.A. Mogel. *Isopete*, La Fontaine eta Samaniego jatorrizkotik itzuli zituzten berridazle ia guztiek.
- Esoporen alegietatik (358, guztira) 231 euskaratu dira. Ia berridazketa guztiak hitz lauzkoak dira. Esoporen berridazleen artean honako hauek nabarmendu behar dira: Onaindia, kopuruarengatik; J.A. Etxebarria, grezieratik itzuli zuelako; Mendiguren eta Arregi, haurrentzako edizioengatik. Nagusiki 1962tik aurrera euskaratu da Esopo.
- Fedroren alegietatik (126, guztira) 55 euskaratu dira. Hitz lauz eta hitz neurtuz itzuli da. Berridazleen artean honako hauek nabarmendu behar dira: J.A. Mogel, Intzagarai eta J.A. Etxebarria. Hasieratik itzuli da Fedro.
- *Isopete*ko alegietatik (161, guztira) 61 euskaratu dira. Denak hitz lauz, bi alegia izan ezik. *Isopete*koak berridatzi dituztenen artean honako hauek nabarmendu behar dira: Bizenta Mogel euskal HGLri sortze-data eman ziolako; Altuna Aldasoro, kopuruarengatik eta eman zien jite politikoarengatik. *Isopete*koak hasieran eta Euskal Pizkundean itzuli ziren; 1923tik hona, bat ere ez.
- La Fontaineren alegietatik (240, guztira) 166 euskaratu dira: 74 alegia eta paratestuak falta dira itzultzeko. Iparraldeko egileek itzuli dute gehien: 311 testu Iparraldeko egileek eginak dira; 92 Hegoaldekoak. 1962. urtetik aurrera, salbu eta Lubeten lau aleak, La Fontaine ez da itzuli Iparraldean; Hegoaldean, aldiz, 1980tik aurrera hasi zen itzultzen. Halaber, hasieratik 1962. urtera bitartekoak hitz neurtuzkoak dira gehienak (325 hn / 78 hl), eta 1980tik aurrerakoak, hitz lauzkoak. La

Fontaineren berridazleen artean honako hauek nabarmendu behar dira: Archu, kultura-erreferentetzat La Fontaine hartu zuelako; Goyhetche, itzultitako alegia kopuruarengatik; Oxobi, berridazteko sormen-isuri bikainarengatik; eta Leon.

- Samaniego osorik itzuli da bi aldiz. Berridazketa gehienak, eta alde handiz, hitz neurtuz eman dira (411); soilik 19, hitz lauz. Berridazleen artean honako hauek nabarmendu behar dira: Iturriaga, berridazteko sormenarengatik eta euskal irakurlea aintzat hartzeagatik; Egea, osorik itzultzen lehena izan zelako; Biguri, edizio filologiko zaindu batean argitaratu zuelako itzulpena. Aldi guztietan dugu Samaniego euskaraz.
- Hibridoak, batez ere, Euskal Pizkundean ditugu (artolatarrak, Intzagarai...). Berridazleek klasikoan gaiei heldu, eta pertsonaiak eta egoerak aldatuta berregin zituzten. Geroago ere, Santiago Onaindia, Etxebarria Ayesta eta “Labayru” Ikastegikoen alegietan suma daiteke joera hori.
- Originalak izateko asmoarekin sortutako alegiak ere baditugu: batez ere Euskal Pizkundean, erromantizismoaren eraginez.

Zabalkundearen alorrean, honako ondorio hauek azpimarratu behar dira:

- Euskal alegialarien lanak berrargitaratzeko joera egon da garai guztietan, baina ez dira denak neurri berean aintzat hartu. Berrargitaratuenean, Bizenta Mogel eta Iturriaga. Beste batzuek patu txarragoa izan dute: Etxezarreta, Zabala, Iturriaga eta J.A. Mogelen zenbait alegia ez dira ezagutu, harik eta Uriarteren bilduma 1987an argitaratu zen arte; Juan Antonioren alegiak 1995. arte ez ziren argitaratu. Beste batzuk ez dira berrargitaratu merezi zuten beste: Goyhetche, Oxobi, Intzagarai. Bakanen batek ez du berrargitalpenik ezagutu: Altuna Aldasoro.
- XX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan euskal filologiaren bultzadaz berrargitaratu ziren alegialarien lan ugari, euskal klasikoak berreskuratzeko premia ikusi baitzen.

Testu-mailako azterketari dagokionez, honako ondorio hauek ditugu:

- Alegia klasikoen euskal berridazleek, oro har, aldez edo moldez bere egin zituzten testuak, nola jatorrizkoa euskaldunen diskurtsoaren unibertsoa ekarriz, hala maila ilokutiboko estrategiak erabiliz.
- Ez da joera orokor jakin bat gailentzen alegiak berridaztean. Hala ere, hurbiletik edo literal samar honako idazle hauek itzuli zuten: J.A Mogel, Archu, Arrese Beitia, Leon, Egea eta Biguri. Narrazioari eutsiz, baina xehetasunetan aske jokatzuz eta edukia moldatuz, beste hauek: Bizenta Mogel, Goyhetche, Altuna eta Intzagarai. Berridazketa sortzailea eta jatorrizko testutik ia erabat beregaina egin zuten Adema, Oxobi eta Mendizabalek.
- Sinesmenen alorrean, berridazle gehienek Jainkoa eta Jesu Kristo eta bestelako kristautasun-osagaiak ekarri zituzten hizpidera, jatorrizkoan halakorik ez egon arren (Bizenta Mogel, J.A. Mogel, Iturriaga, Archu, Adema, Intzagarai, Moulhier, Leon, Mendizabal). Zenbaitek jatorrizkoaren antiklerikalismo lorratzak (J.A. Mogel) eta jainko paganoak (Bizenta Mogel, Goyhetche) ezabatu zituzten. Bakarren batek zuzenean aipatu zituen fededunak eta fedegabeak (Adema).
- Izen bereziak ematean ez dago joera nagusirik. Berdin-berdin eman zituzten Bizenta Mogel, Altuna eta Bigurik. J.A. Mogelek halako batzuk euskaldundu zituen. Intzagarai, Moulhier eta Leonek erabat etxekotu edo naturalizatu zituzten. Archu, Iturriaga eta Egeak, berriz, ez zuten joera bateraturik izan: batzuetan euskaldundu, bestetan berdin eman zituzten. Mendizabalek eta Arregik isildu egin zituzten.
- Osagai paremiologikoa ematean, berridazle bakoitzari beti gailentzen zaio estrategia bat edo bi: euskal paremia berdin-berdina ematea (Bizenta Mogel, Iturriaga, Egea, Biguri); paremia baliokidea ematea (Bizenta Mogel, Iturriaga); itzulpen literala ematea, baina emaitza ezin har daitekeela euskal esapide edo paremiatzat (J.A. Mogel, Archu, Goyhetche, Arrese Beitia, Egea); era librean, baina ordaina ezin har daitekeela euskal esapidetzat (Archu, Goyhetche, Adema, Mendizabal, Biguri); era librean, baina esapidetzat har daitekeena sortuz, beste baten gainean berria eraikita (Moulhier); paremia diferentea ematea, beste eduki

moral bat txertatzeko (Goyhetché); ez itzultzea (Adema, Mendizabal, Arregi).

- Generoaren ikuspegiari dagokionez, patriarkalismoaren isla nabaria da zenbait egileren alegietan: emakumea menpekoago agertzen da (J.A. Mogel), generoen arteko banaketa tradizionalari eusten eta irauarazten zaio (Iturriaga), misoginia-zantzuak erakusten dituzte (Iturriaga), emakumeei buruzko topiko gutxiesgarriak irakur daitezke (Goyhetché), eta zenbaitetan ‘gizona’ neutro gisa erabiltzen da (Arrese Beitia, Altuna, Leon, Biguri).
- Berridazle guztiek testua lautu egin zuten, euskal irakurle xehea gogoan zutela. Prozedurarik ohikoenak honako hauek dira: xehetasunak kentzea (Bizenta Mogel); kultura-erreferente arrotzak, literatura-alusio jasoak eta metaforak ezabatzea (J.A. Mogel, Moulier, Leon); erdal adjektibazioa murriztea (Iturriaga); hiztegi berezitua soiltzea (Iturriaga, Archu); lexiko jasoak eta lexiko zaharkitua apaltzea (Adema, Biguri); oin-oharrak erabiltzea (Goyhetché); parentesi artean sinonimoak ematea (Intzagarai, Altuna); zati osoak eta deskripzio oparoak inaustea (Intzagarai); narrazioa eta argumentua xehe-xehe ematea (Mendizabal, Arregi)...
- Eletsu jokatu zuten bestetan, euskal irakurle xehea gogoan: elipsi narratiboak esplizitatuz (Bizenta Mogel, J.A. Mogel, Mendizabal), azalpenak gehituz (Goyhetché), xehetasunak eta deskripzioak ugalduz (Bizenta Mogel, Moulier, Mendizabal), alegiari ipuinen moduko bukaera erantsiz (Moulier). Beste egile batzuek bertsokeraren ondorioz behartu zuten beren burua eletsu jokatzera (J.A. Mogel, Goyhetché, Biguri).
- XX. mendearen bigarren erdialdean alegia ipuin klasikoen egituran moldatzen hasi zen. Orduan hasi ziren irudidun liburu-bildumak argitaratzen, eta alegiak bildumak osatzeko hautatu ziren. Dena dela, lehendik zetorren joera zen ipuin-egiturara lerratze hura: Intzagarai, esaterako, alegiak ipuin bihurtu zituen. Joera areagotu zen gero, alegien bertsioei tradiziozko ipuinen hasiera-formulak egokituz, zenbakien erabilera berezia erantsiz... Mendizabalek, Arregik eta “Haurtxoa” eta “Urtxintxa” didaktika-materialen egileek ere jokatu zuten hala.

Irakaspenen mezuari dagokionez, honako ondorio hauek ditugu:

- Berridazle gehienen joera nagusia da berdin antzeko mezua ematen saiatzea. Hala eta guztiz ere, alegietako irakaspena kristau-moralera etorrarazi zuten lehen euskal berridazleek: Bizenta Mogelek eta Juan Antonio Mogelek, Iturriagak eta Goyhetchek, batez ere. Gizarte-mailen arteko desberdintasunak salatzen erabili zituzten inoiz irakaspenera J.A. Mogelek eta Ademak. Politika-auziei buruzko bere ikuspegia emateko eta herri-nortasuna indartzeko baliatu zituen Ademak. Eta Altuna Aldasorok ideologia jeltzalea zabaltzeko. Oro har, euskal alegialariak alegialari klasikoak baino moralistago agertu ziren lanari buruz (Goyhetchek, Leon, Egea, Mendizabal).
- Irakaspenaren formari dagokionez, egile batzuek, irakurleari edukia argitu beharrez, berbatsuago jokatu zuten, hala nola, B. Mogel, Goyhetchek, Iturriaga eta Altuna Aldasorok. Beste batzuek, forma aldatu zituzten irakaspenari, bertsoak erantsita: B. Mogel eta Mendizabal.
- Bakarren batek irakaspenik ez zuen eman: Mouliek.

Poesia berridazteko moduei dagokienez, honako ondorio hauek ditugu:

- Berridazle gehienek modu analogikoaren eta modu organikoaren artean jardun zuten.
- Berridazle batzuek ardura berezia ipini zituzten formari, eta euskal metrikara ekarri zituzten alegiak (Iturriaga, Adema, Biguri). Edo erritmoa eta errima bereziki landu zituzten (Mouliek, Egea).
- Beste berridazle batzuek eduki semantikoa aintzatetsi zuten, hizkuntzen arteko konparazio lana errazteko (Archu), beren ekarpenak egiteko (Goyhetchek), ahalik eta fidelena izateko (Arrese Beitia, Leon, Egea), hitz lauz jartzeko (Mendizabal, Arregi).
- Inoiz, bakarren batek modu mimetikoaren zantzuak erakutsi zituzten (J.A. Mogel).
- Eta formaz eta edukiaz ezaxolatzen denik ere bada, hots, berridazteko modu desbideratua hautatzen duenik (Mouliek).

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

- AARNE, Antti eta Stith THOMPSON (1973). *The Types of the Folktale. A Classification and Bibliography Antti Aarne's Verzeichnis der Märchentypen (FF Communications No. 3)*. Stith Thompsonen itzulia eta emendatua. Bigarrenez berrikusia. 3. argit. (*FF Communications*, 184. zka). Helsinki: Suomalainen Tiedeakatemia. Academia Scientiarium Fennica.
- AARNE, Antti et Stith THOMPSON (1995). *Los tipos del cuento folklórico. Una clasificación*. Itzul.: Fernando Peñalosa. Helsinki: Suomalainen Tiedeakatemia. Academia Scientiarium Fennica.
- ABASOLO, Jose A. (1980). “Las Fábulas, de Samaniego, traducidas al euskera”, *El País*, otsailak 17.
- ADEMA, Gratien “ZALDUBY” (1908). “Œuvres du Chanoine Adema (Suite). V-Fables. Artzain Beltcharen Neurtitzak”, in Julio de URQUIJO (1969), *Revista Internacional de los Estudios Vascos. Revue Internationale des Études Basques. Tomo II*, Bilbo: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, 757-774. [1907-1936ko lehen argitalpenaren faksimilea].
- ADEMA, Gratien “ZALDUBY” (1991). *Kantikak eta Neurtitzak*. Prestatzailea: Ales Bengoetxea. Bilbo: EEE / Mensajero-Gero.
- ADEMA, Gratien “ZALDUBY” (2006). *Kanta eta neurtitza hautatuak*. Donostia: Hiria.
- AGIRREAZKUENAGA, Mikel et alii (1991). *Euskal alegigintza*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- AKESOLO, Lino (1977). “Aita Joan Mateo Zabala, euskal-idazle (1777-1840)”, *Karmel*, 4. zka., 47-59.
- ALBERBIDE, Xipri (2007). *Xuri-gorriak*. Donostia: Elkar.

- ALBERDI, Andres (1990). *Agustin P. Iturriaga (1778-1851)*. Gasteiz: Eusko Jauriaritza.
- ALBORG, Juan Luis (1985). *Historia de la literatura española. Tomo III: Siglo XVIII*. 5. berrinprimaketa. Madril: Gredos. [Lehen argitalpena, 1972].
- ALDEKOA, Iñaki (2004). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- ALIFANO, Roberto (1986). *Conversaciones con Borges*. Madril: Debate.
- ALTUNA, Joseba (1920). *Ume Euzkeldunen laguna. Irakurteko bigarren idaztija*. Bilbo: Euzko-argitaldaria.
- ALTZIBAR, Xabier (1982). "Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide", *Euskera*, XXVII (2. aldia), 457-494.
- ALTZIBAR, Xabier (1991). *Juan Antonio Mogel (1745-1804)*. Gasteiz: Eusko Jauriaritza.
- ALTZIBAR, Xabier (1992). *Bizkaierazko idazle klasikoak: Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- ALTZIBAR, Xabier (1998). "Ilustrazioa eta euskal literatura", in Francisco Javier CASPISTEGUI (arg.), *Ilustrazioa Euskal Herrian*, Nafarroa: Newbook, 97-131.
- ALZOLA, Nerea (2004). *Propuestas éticas en libros-álbum de literatura infantil. Diseño y aplicación de un modelo para el análisis de valores*. Bilbo: EHU.
- AMETZA IKASTOLA (2007). "Delphine Lubet ikastolan / Delphine Lubet visite l'ikastola". [Interneteko helbidea, <http://ametza-ikastola.neuf.fr/berri%20orriak/berri2.htm>, 2007ko maiatzaren 2an irakurria].
- AMEZAGA, Elias (1985). "Altuna Bengoechea, Patxi (Azpeitia, 1927). Altuna Aldasoro, Joseba (Bilbao, 1888-1971). Altuna Mendiola, Josu (Amorebieta, 1909)", *Euzkadi*, 205. zka.
- AMURIZA, Xabier (1987). "Euskal Herria: Historia eta Gizartea - Historia y Sociedad", *RIEV*, 423-426.
- ANSORENA, Jose Inazio (1993). *Euskal kantak*. Donostia: Erein.
- APALATEGI, Ur (2005). "Heziketa literarioaren kezka, Peñafloreatik Mogelera", *Lapurdum*, 9. zka., 39-47.
- ARCHU, Jean Baptiste (1848). *Choix de fables de La Fontaine traduites en vers basques par J.-B. Archu Instituteur. La Fontainaren alegia-berheziak, neurt-hitez franzesetik uskarara itzuliak*. La Reole : Pasquierren moldetegian.

- ARCHU, Jean Baptiste (1852). *Uskara eta Franzes Gramatika, uskalherrietako haurrentzat eguina*. Baiona: Lasserre.
- ARCHU, Jean Baptiste (1868). *Bi mihiren gramatika. Uskara eta frantsesa*. 3. argitalpena. Baiona: Lasserre. [Lehen argitalpena, 1852].
- ARCHU, Jean Baptiste (1990). *La Fontainaren alegia berheziak*. Prestatzailea: Ricardo Gómez. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- AREJITA, Adolfo (1998). “J. Mateo Zabala bilbotarraren pitxi-lora batzuk”, *Idatz & Mintz*, 26. zka., 3-8.
- ARISTOTELES (2002). *Retórica*. Edizioa eta itzulpena: Arturo Ramírez Trejo. Mexiko Hiria: Universidad Nacional Autónoma de México.
- ARIZTIMUÑO, Jose “AITZOL” (1986). *Literatura inguruan*. Donostia: Erein.
- ARKOTXA-SCARCIA, Aurelia (2003a). “Florianen fableac Goyhetche apheçak franxesetic escoarara pherxutan itçuliac”, in *IKER* 14, 33-68.
- ARKOTXA-SCARCIA, Aurelia (2003b). “Manuscrits relatifs aux fables de La Fontaine et de Florian traduites et adaptées du français au basque labourdin par Martin Goyhetche (1791-1859)”, *Lapurdum*, 8. zka., 1-45. [Interneteko helbidea, <http://www.iker.cnrs.fr/Lapurdum/Lapurdum8Eusk.htm>, 2004ko apirilean irakurria].
- ARKOTXA-SCARCIA, Aurelia (2006). “Alegia euskarazkoa Frantziako Euskal Herrian 19. mendean. Bi etsenplu: Archu (1848), Goyhetche (1852)”, in Begoña BILBAO, Gurutze EZKURDIA eta Karmele PEREZ (arg.), *Ikuspegi soziokulturala Euskal Herriko hezkuntzan. 1. Hezkuntzaren gaineko berbaldiak*, Bilbo: EHUAZ, 43-50.
- ARKOTXA-SCARCIA, Aurelia (2009). “Martin Goyhetche-ren alegien peritestueta zehar: ‘nota’ eta ‘hitztegui’”, in Ricardo ETXEPARE, Ricardo GOMEZ eta Joseba Andoni LAKARRA (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre - Festschrift for Bernard Oyharçabal (ASJU, XLIII: 1-2)*. Bilbo: EHU, 67-96.
- AROCENA, Fausto (1952). *Brumas de nuestra historia*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.
- ARRESE BEITIA, Felipe (1900). *Felipe Arrese ta Beitiak egiñiko ama euskeriaren liburu kantaria*. Hitzaurrea: Arturo Kanpion. Bilbo: Jose Astuy-ren moldetegian.
- ARRESE BEITIA, Felipe (1902). *Asti orduetako bertsozko lanak*. Bilbo: Jose Astuy-ren moldetegian.
- ARRESE BEITIA, Felipe (1930). *Olerki Sortatxua*. Zornotza: Jaungoiko-Zale.
- ARRESE BEITIA, Felipe (1933). *Olerkiak*. Hitzaurrea: Gurutz Ibargutxi. Zornotza: Jaungoiko-Zale.

- ARRESE BEITIA, Felipe (1956). *Olerkiak*. Hitzaurrea: Santi Onaindia. Bilbo: Euskal Idazleak / Euskaltzaindia.
- ARRESE BEITIA, Felipe (1987). *Olerki sorta bat*. Prestatzaileak: Gurutze Aldabaldetretu, Amaia Boneta eta Mertxe Goikoetxea. Donostia: Elkar / Euskal Editoreen Elkarte.
- ARRESE BEITIA, Felipe (1999). *Felipe Arrese ta Beitia. Idazlan guztiak*. (2 liburuki). Prestatzailea: Itziar Urrutia. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia / Otxandioko Udala.
- ARRESE BEITIA, Felipe (2003). *Olerki hautatuak*. Hitzaurrea: X. Hiriart. Burgos: Hiria.
- ARRIANDIAGA, Imanol “MIBISUS” (1929). “Altuna’tar Josebak euzkeraldutako ipuñak”, *Euzkerea*, 4. zka., 66-67.
- ARRIEN, Gregorio (1987). *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (escuela y autonomía, 1896-1936)*. Bilbo: Bizkaiko Aldundia.
- ARRIEN, Gregorio, Lino AKESOLO eta J. J. GRANJA (1987). *Haur liburu didaktikoen errolda, 1800-1976. Catálogo de obras didácticas infantiles, 1800-1976*. [L. g.]: [i. g.].
- ARTOLA, Pepe (1961). *Ustez laguna detan*. Edizioa eta hitzaurrea: Antonio Zabala. Donostia: Auspoa.
- ARTOLA, Pepe (2006). *Ustez laguna detan*. Edizioa eta hitzaurrea: Antonio Zabala. Donostia: Auspoa.
- ARTOLA, Ramon (1995). *Ipuiak edo kontutxoak (I)*. Hitzaurrea: Antonio Zabala. Oiartzun: Sendoa.
- ARTOLA, Ramon (1995). *Ipuiak edo kontutxoak (II)*. Hitzaurrea: Antonio Zabala. Oiartzun: Sendoa.
- ASTIGARRAGA, Luis (1840). *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática: para el uso de la juventud de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa, con ejemplos de ambos idiomas*. 3. argitalpena, zuzendua eta emendatua. Tolosa: Mendizabalen alarguna. [1. argitalpena, 1825].
- ASTIGARRAGA, Jesús (2002). “Estudio Preliminar. Javier María de Munibe, Conde de Peñafiorida, y la institucionalización de la Ilustración en el País Vasco”, in PEÑAFIORIDAKO KONDEA, *Discursos inéditos de Javier María de Munibe, Conde de Peñafiorida*, Gasteiz: Ararteko, XIII-CXXXIII.
- ATXAGA, Bernardo (1978). *Etiopia*. Bilbo: Pott.
- ATXAGA, Bernardo (1990). *Poemas & híbridos*. Madril: Visor.
- ATXAGA, Mikel (1997). *Emakume idazleak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.

- AUZMENDI, Lurdes (1986). "Samaniegoren fabula edo alegien itzulpen bilduma (Euskal itzulpenaren historiaren zatitxo bat)", *Senez*, 2-3. zka., 199-202.
- AXULAR, Pedro (1977). *Gero (Después)*. Edizioa: Luis Villasante. Ilus.: Joxe Mari Telleria. Oñati: Jakin, Arantzazu.
- AYUSO, Maria Victoria et alii (1990). *Diccionario de términos literarios*. Madril: Akal.
- AZKUE, Eusebio M. (1896). *Parnasorako bidea*. Hitzaurrea: Resurrecion Azkue. Bilbo: Astuitar J.-n moldagintzan.
- AZKUE, Eusebio M. (1990). *Euskarazko vertsoak*. Bilketa eta edizioa: Asier Astigarraga, K. Josu Bijuesca. Bilbo: Labayru.
- AZURMENDI, Joxe (1985). "Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian", in Joseba INTXAUSTI (zuz.), *Euskal Herria. Historia eta Gizartea. Historia y Sociedad*, Donostia: Jakin / Lankide Aurrezkia, 357-386.
- BACÁICOA, Fernando (arg.) (1996). *La construcción de conocimientos*. Bilbo: EHU.
- BAJTÍN, Mijail (1985). *Estética de la creación verbal*. Mexiko: Siglo XXI.
- BARAIAZARRA, Luis eta Julen URKIZA (1998). *Santiago Onaindia (1909-1997)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- BARANDIARAN IRIZAR, Luis (1981). *Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco*. Hitzaurrea: J. M. Barandiaran. Donostia: Txertoa
- BARNOUW, Jeffrey (1992). "Por la instrucción del género humano: la formación de la conciencia burguesa (Voltaire, Johnson, Lessing)", in Erika WISCHER (arg.), *Historia de la Literatura (4): Ilustración y Romanticismo (1700-1830)*, Madril: Akal, 11-38.
- BARTHES, Roland (1984). "La mort de l'auteur", in *Le bruissement de la langue*, Paris: Seuil, 61-67.
- BARTHES, Roland (1984). "De l' oeuvre au texte", in *Le bruissement de la langue*, Paris: Seuil, 69-77.
- BASSNETT, Susan eta André LEFEVERE (1998). *Constructing Cultures. Essays on Literary Translation*. Clevedon...: Multilingual Matters.
- BENITO PASCUAL, Jesús (1994). *La enseñanza de primeras letras en Gipuzkoa (1800-1825)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- BERGUA, Juan B. (arg.) (1996). *Fábulas completas: Esopo, Fedro, La Fontaine, Iriarte y Samaniego*. 5. argitalpena. Madril: Clásicos Bergua. [1. argitalpena, 1934].

- BERRIAREN ERREDAKZIOA (2006). “Inurri zikoitza eta txitxar buhamea”, *Berria*, abenduak 21.
- BIAIN, A. (1977). “Juan Mateo Zabalarri omenaldia”, *Euskera*, 22. zka., 375-383.
- BIDADOR, Joxemiel (1995). “Lehoiak bi gurean”, *Euskaldunon Egunkaria*, maiatzak 14.
- BIDADOR, Joxemiel (1999). “Zuberoako bedatse loraduna”, *Euskaldunon Egunkaria*, martxoak 19.
- BILBAO, Begoña (2002). *Kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntzako curriculumean. Euskal Herriko eskoletan*. Bilbo: EHU.
- BILBAO, Jon (1976). “Cuerpo C. Eusko Bibliographia”, in *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Zarautz: Auñamendi, 344-348.
- BILBAO, Jon (1970-2005). *La Gran Enciclopedia Vasca. Eusko bibliographia*. Donostia: Auñamendi.
- BILBAO, Jon (1985). *Eusko Bibliographia*. Donostia: EHU.
- BILLELABEITIA, Miren (2003). *Euskal Herriko Literatura*. Hitzaurrea: Jon Kortazar. Madril: Ibaizabal.
- BORGES, Jorge Luis (1989). *Obras completas 1923-1949*. Bartzelona: Emecé.
- BOUDA, Karl (1973). “Bemerkungen zum Labourdinischen des Abbé Goyhette”, *Fontes Lingua Vasconum*, 14. zka., 163-184.
- BUJANDA, Joxe Manuel (1991). *Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal pedagogo aurrerakoia: Agustin Pascual Iturriaga, Hernani 1778-1851*. Bilbo: UEU.
- BURRUS, Victoria A. eta Harriet GOLDBERG (arg.) (1990). *Esopete ystoriado (Toulouse 1488)*. Madison: Hispanic Seminary of Medieval Studies.
- CALLEJA, Seve (1994). *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*. Itzulpena eta sarrera: Igone Etxebarria. Bilbo: Labayru Ikastegia / BBK.
- CALVINO, Italo (1990). *De fábula*. Madril: Siruela.
- CARBONELL, Ovidi (1997). *Traducir al Otro. Traducción, exotismo, poscolonialismo*. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha.
- COLLINET, Jean-Pierre (1988). *La Fontaine en amont et en aval*. Pisa: Goliarcica.
- COTARELO, Emilio (1929). *Fábulas de Esopo: reproducción en facsímile de la primera edición de 1489*. Madril: Real Academia Española.
- CROCE, Benedetto (1996). *Estetika brebiarioa*. Bilbo: Klasikoak.

- Crónica del Congreso de Estudios Vascos de Oñate*, 1918.
- CUÉLLAR, M. Carmen (2000). *Dobletes de traducción y traductología*. Valladolid: Universidad de Valladolid.
- DANDREY, Patrick (1992). *La fabrique des Fables. Essai sur la poétique de La Fontaine*. 2. argitalpena. Paris: Klincksieck.
- DARANATZ, Jean Baptiste (1908). “Le Chanoine Adéma”, *RIEV*, 121-124.
- DAVANT, Jean-Louis (2001). *Zuberoako idazle zenduak*. Donostia: Elkarlanean.
- DÁVILA, Paulí (1997). “Los libro escolares en euskera”, in Agustín ESCOLANO (zuz.), *Historia Ilustrada del libro escolar en España: Del Antiguo Régimen a la Segunda República*, Madril: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 599-620.
- DEL OLMO, Karlos (2004). “Larrekoaren mintzotik izadia irakasle”, *Berria*, maiatzak 29.
- DERRIDA, Jacques (1977). *Posiciones: entrevistas con Henri Ronse, Julia Kristeva, Jean-Louis Houdebine y Guy Scarpetta*. Valentzia: Pre-textos.
- DERRIDA, Jacques (1987). “Torres de Babel”, *Revista de Filosofía*, 5. zka., 35-68.
- Diccionario de Literatura* (3. liburukia). Madril: Penguin / Alianza, 1983.
- ECO, Umberto (2006). *Dire presque la même chose. Expériences de traduction*. Paris: Grasset.
- EGUSKITZA, Juan Bautista de (1922). “Zabala ta euskereazko bere lanak”, in *Lenengo Euskalegunetako itzaldiak*, Bilbo: Euzko Argitaldaria, 13-30.
- EGUREN, Juan Maria (1867). *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Gasteiz: Seminario Católico Vasco-Navarro.
- EGUREN, Juan Maria (1876). *Diccionario vasco-castellano y método para enseñar el castellano a los vascongados*. Donostia: Baroja.
- EIZAGIRRE, Ana eta Paulí DÁVILA (1991). “Alfabetatzea Euskal Herrian: ikuspegi historikoa”, *Ele*, 8. zka., 27-55.
- ELISSAMBURU, Michel (1890). *Framazonak*. Baiona: Lasserre baitha.
- ENCREVÉ, Pierre (2005). *A propos des droits linguistiques de l’homme et du citoyen*. [Conférence donnée le 16 décembre 2005 à 17 heures dans l’amphithéâtre de l’EHESS, au 105 Bd Raspail à Paris]. [Interneteko helbidea, <http://actualites.ehess.fr/download.php?id=223>, 2006ko irailaren 28an irakurria].
- ERRIONDO, Lore eta Paulí DÁVILA (1998). “Los libros de texto en euskera”, in Agustín ESCOLANO (zuz.), *Historia Ilustrada del libro Escolar en España: De*

la posguerra a la reforma educativa, Madril: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 519-545.

ÉSOPE (1960). *Fables*. Edizioa eta itzulpena: Émile Chambry. 2. argitalpena. Paris: Les Belles Lettres. [1. argitalpena, 1927]

ESOPO (1999). *Alegiak*. Itzul.: Iñaki Mendiguren; il.: J. M. Ortiz. Donostia: Elkarlanean.

Esopo y Fedro. Fábulas morales. Edizioa: Pilar Guibelalde. Hitzaurrea: Emiliano M. Aguilera. 9. argitalpena. Bartzelona: Iberia, 1967. [1. argitalpena, 1956]

Estatutos aprobados por S. M. para gobierno de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (1774-1765). Donostia: Aurrezki Kutxa Munizipala, 1985.

ESTÉBANEZ, Demetrio (1996). *Diccionario de términos literarios*. Madril: Alianza.

ESTÉVEZ, Xosé (1985). “La ilustración” in M^a Angeles LARREA et alii, *Historia del País Vasco –Siglo XVIII–*, Bilbo: Universidad de Deusto, 31-91.

ESTÉVEZ, Xosé (zuz.) et alii (2000). *Ilustrazioa European eta Euskal Herrian*. Bilbo: Gaiak.

ETKIND, Efim (1982). *Un Art en crise: Essai de poétique de la traduction poétique*. Lausanne: L’Âge d’homme.

ETXAIDE, Jon (1958). *Hamasei seme Euskalerrri’ko*. 1. argitalpena. Zarautz: Itxaropena.

ETXAIDE, Jon (1990). *Hamasei seme Euskalerrriko*. 2. argitalpena. Donostia: Erein.

ETXANIZ ERLE, Xabier (1997a). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Bilbo: EHUAZ.

ETXANIZ ERLE, Xabier (1997b). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea: Pamiela.

ETXANIZ ERLE, Xabier (2007). *Literatura eta ideologia*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

ETXEBARNE, Dominika (1981). “J. B. Archu”, *Euskera*, 26. zka., 717-723.

ETXE BARRIA AYESTA, Juan Manuel (1996). *Gure fabulak bertsoz. Mota, neurri, errima eta soinu ezberdinez*. Bilbo: Ibaizabal.

ETXE BARRIA AYESTA, Juan Manuel (2003). *Euskal urtea ohituraz betea*. Bilbo: Ibaizabal.

ETXE BARRIA MARTIN, Juan Anjel (1965). *Phedro’ren Alegiak I*. Bilbo: Verdes.

- ETXEBARRIA MARTIN, Juan Anjel (1966). *Phedro'ren Alegiak II*. Bilbo: Verdes.
- ETXEBARRIA MARTIN, Juan Anjel (1967). *Esopo'ren Alegiak I*. Bilbo: S. Anton'go Katekesia.
- ETXEGARAI, Karmelo (1927). "Informe de don Carmelo de Echegaray acerca del trabajo «El Vascófilo Franciscano R. P. Fr. Juan Mateo de Zabala», *RIEV*, Tomo XVIII, 298-301.
- ETXEPARE, Bernat (1847). *Poésies basques de Bernard Dechepare, recteur de Saint-Michel-le-Vieux*. Itzul.: J. B. Archu. Bordele: Henry Faye.
- ETXEPARE, Bernat (1968). *Olerkiak*. Donostia: Edili.
- EUSKALTZAINDIAREN GRAMATIKA BATZORDEA (1999). *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIAREN GRAMATIKA BATZORDEA (2005). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-VI (Mendeko perpausak-2)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (2008). *Literatura terminoen hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EVEN-ZOHAR, Itamar (1990). "Polysistem Studies", in *Poetics Today*, 11, 1.
- FEDRO (1984). *Fábulas esópicas*. Edizioa eta itzulpena: Luis Segalá y Estalella. Bartzelona: Bosch. [1. argitalpena, 1924].
- FEDRO eta AVIANO (1998). *Fábulas*. Edizioa eta sarrera: Manuel Mañas. Madril: Akal.
- FERNÁNDEZ LÓPEZ, Marisa (1996). *Traducción y Literatura Juvenil. Narrativa anglosajona contemporánea en España*. Leon: Universidad de León.
- FERNÁNDEZ LÓPEZ, Marisa (2003). "Las traducciones de *The Wonderful Wizard of Oz* en España: status, recepción y normas de traducción", in Isabel PASCUA et alii (koord.), *Traducción y literatura infantil*, Las Palmas Kanaria Handikoa: ULPGC / Anaga, 135-145.
- FISCHER, Martín (1999). "Diferencias culturales reflejadas en la traducción de la literatura infantil y juvenil", *Espéculo (Revista de estudios literarios)*, ale berezia. [Interneteko helbidea, <http://www.ucm.es/info/especulo/ele/vigo.html>, 2002ko urriaren 5ean irakurria].
- FLECHA, Ramón et alii (1988). *Dos siglos de educación de adultos. De las sociedades de amigos del país a los modelos actuales*. Bartzelona: El Roure.
- GALLEGO ROCA, Miguel (1994). *Traducción y literatura: Los estudios literarios ante las obras traducidas*. Gijon: Júcar.
